

EUSKARAREN BATASUNA
LA UNIFICACION DE LA LENGUA VASCA
L' UNIFICATION DE LA LANGUE BASQUE

iker-5

EUSKARREN BATASUNA
LA UNIFICACION DE LA LENGUA VASCA
L' UNIFICATION DE LA LANGUE BASQUE



Koldo Zuazo Zelaietak egina

Servicio Editorial
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO



Argitarapen Zerbitzua
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

EUSKALTZAINDIA
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque
BILBO
1988

Servicio Editorial
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO



Argitarapen Zerbitzua
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
EUSKALTZAINDIA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

© Koldo Zuazo Zelaieta
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA/UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA

ISBN 84-85479-46-7

Legezko Gordailua: BI-2061-1988

Fotokonposaketa: RALI, S. A.-Particular de Costa, 12-14 · 48010 BILBAO

Amado moldiztegia: Mazarredo, 35 · 48009 BILBAO

AURKIBIDEA

ATARIKOA. 11. orr.

EUSKAL HERRIAREN EZAUGARRI OROKOR ZENBATT. 17. orr.

I. HIZKUNTZAZ KANPOKO INDARREN ERAGINA.

- 1.1. Indar banatzaileen eragina. 27. orr.
- 1.1.1. Euskal Herria herri puskatua. 27. orr.
- 1.1.2. Euskara eta administrazioa. 39. orr.
- 1.1.3. Euskara eta irakaskuntza. 50. orr.
- 1.1.4. Euskara eta Eliza. 61. orr.
- 1.1.5. Euskara eta hiriguneak. 70. orr.
- 1.1.6. Euskara eta komunikabideak. 72. orr.
- 1.2. Indar bateratzaileen eragina. 74. orr.

II. HIZKUNTZA BARRUKO INDARREN ERAGINA.

- 2.1. Euskalkiak. 87. orr.
- 2.1.1. Leizarraga. Axular. Oihenart. Etcheberri. 87. orr.
- 2.1.2. Manuel de Larramendi (1690-1766). 88. orr.
- 2.1.3. Louis-Lucien Bonaparte (1813-1891). 91. orr.
- 2.1.4. Bonaparteren erizpideak euskalkiak sailkatze orduan. 96. orr.
- 2.1.5. Bonaparteren ondorengoak. 98. orr.
- 2.1.6. Euskalkiak eta hiztunak. 101. orr.
- 2.2. Euskalkien arteko elkar-ulergarritasuna. Bizkaieraren auzia. 102. orr.
- 2.2.1. Euskalkien arteko elkar-ulergarritasuna. 102. orr.
- 2.2.2. Bizkaieraren nortasun berezia. 107. orr.
- 2.3. Euskalkiei buruzko jarrerak. Prestigioaren eragina.
Literatur euskalkiak. 146. orr.
- 2.3.1. Euskalkiei buruzko jarrerak. Prestigioaren eragina. 146. orr.
- 2.3.2. Euskalki eta hizkeren arteko lehiak. Aurreritzi linguistikoak. 158. orr.
- 2.3.3. Literatur euskalkiak. 174. orr.

III. EUSKARAREN STANDARDIZAZIOA XX. MENDERA ARTE.

3.1. Lehen jarrera mota: Erdarek euskara ordezkatzea.	179. orr.
3.2. Bigarren jarrera mota: Sorterriko hizkeraz baliatzea.	180. orr.
3.3. Hirugarren jarrera mota: Irtenbideren bat bilatu nahia.	182. orr.
3.3.1. Idazle zuberotarrak. Leizarraga. Joannes d'Etcheberri.	182. orr.
3.3.2. Aita Manuel de Larramendi.	187. orr.
3.3.3. Larramendiren girokoak: Mendiburu eta Cardaberaz.	196. orr.
3.3.4. Juan Antonio Moguel.	200. orr.
3.3.5. Moguelen ondorengoak.	209. orr.

IV. ORTOGRAFIAREN KODIFIKAZIOA XX. MENDERA ARTE.

4.1. Lehen aroa: XIX. mende aurretikoak.	219. orr.
4.2. Bigarren aroa: XIX. mendeko lehen erdialdekoak.	225. orr.
4.2.1. Iparraldean.	225. orr.
4.2.2. Hegoaldean.	233. orr.
4.3. Hirugarren aroa: XIX. mendeko bigarren erdialdekoak.	239. orr.
4.3.1. Iparraldeko eta atzerriko arauemaileak.	239. orr.
4.3.2. Hegoaldean.	247. orr.
4.4. 1901-1902ko batzarrak.	261. orr.

V. EUSKARAREN STANDARDIZAZIOA XX. MENDEKO LEHEN ERDIALDERA ARTE.

5.1. Sarrera.	277. orr.
5.2. Standardizazioaren aurkakoak.	281. orr.
5.3. Standardizazioaren aldekoak.	296. orr.
5.3.1. Hizkuntz-eredu jakinik proposatzen ez dutenak.	296. orr.
5.3.2. "Jatorrizko euskarara" itzultzea proposatzen dutenak.	303. orr.
5.3.3. Hizkuntz-eredutzat bizkaiera proposatzen dutenak.	308. orr.
5.3.4. Hizkuntz-eredutzat gipuzkera proposatzen dutenak.	309. orr.
5.3.4.1. Gipuzkera huts-hutsean proposatzen dutenak.	309. orr.
5.3.4.2. Gipuzkera osotuaren aldekoak.	317. orr.
5.3.4.3. Gipuzkera eta lapurteraren arteko hautsi-mautsi baten aldekoak.	323. orr.

VI. EUSKARAREN STANDARDIZAZIOA XX. MENDEKO BIGARREN ERDIALDEAN.

6.1. Sarrera.	331. orr.
6.2. Standardizazioaren aurkakoak.	334. orr.
6.3. Standardizazioaren aldekoak.	336. orr.
6.3.1. Gipuzkera eta Gipuzkera osotuaren aldekoak.	336. orr.
6.3.2. Nafar-lapurtera literarioaren aldekoak.	343. orr.
6.3.3. Ameriketako euskararen aldekoak.	346. orr.
6.3.4. Lapurtera klasikoaren aldekoak.	351. orr.
6.3.5. Euskara osotuaren aldekoak.	366. orr.
6.3.6. Erdialdeko euskalkietan oinarritutako ereduaren aldekoak.	370. orr.

VII. EUSKARAREN KODIFIKAZIOA XX. MENDEAN.

7.1.	Ortografiaren kodifikazioa.	377. orr.
7.2.	Kultur hitzen ortografia.	394. orr.
7.3.	Morfologiaren kodifikazioa.	401. orr.
7.3.1.	Deklinabidearen kodifikazioa.	401. orr.
7.3.2.	Aditzaren kodifikazioa.	403. orr.

ONDORIO OROKORRAK.	409. orr.
--------------------	-----------

BIBLIOGRAFIA.	415. orr.
---------------	-----------

AINTZIN SOLAS

Historiak erakusten digu aldakorrak direla hizkuntzak. Ez balitz hala izan, latinez mintzatuko ziren oraindik mendebaleko Europan, Erromanoen hizkuntzaren uhainak estali baitzituen kolonizatu zituzten eremuak eta, zuen indarrarekin bizi ziren lengoaiak suntsitu. Bainan hiztunek berek, emeki emeki, bai fonetikaren aldetik, bai morfologiaren eta sintaxiaren aldetik, aldatu zuten mailegatu zuten mintzaira eta bertze batzu sortu: italianoa, frantsesa, espainola, portugesa, okzitanoa, katalana. Azken mila urte hauetan aldakuntzak izan dituzte hizkuntza horiek eta estadiak dituzten indarrereri esker (administrazioa, erakaskuntza eta abar) arautze aroan sartu dira, salbu okzitanoa eta katalana, ez dutelakotz izan estadu baten legeen eragina.

Euskal Herriak, bereziki "saltus vasconum" deritzanak, atxiki du lehengo mintzaira zaharra, nahiz latinaren perekak utzi dizkion herexa ezagunak, bereziki hiztegia, morfologia eta sintaxiari esker salbatzen zuela bere nortasuna.

Eguneroko mintzairatik literatura mailara igan da euskara XVI. mendean, Bernat Etxeparekoak argitaratu zuelarik bere olerki bilduma "Linguae vasconum primitiae" deitua. Argi eta garbi ikusten zuen nahi balinbazuen mintzaira batek iraun, idazkerari esker eginen zuela:

*"Eta causa honegatic guelditzen da abataturic
eceyn reputacione vague eta berce nacione oroc vste
dute ecin deusere scriba dayteyela lengoage hartan
nola berce oroc baitute scribatzen beryan".*

Idea bera errepikatzen zuen "Contrapas" olerkian:

*Berce gendec vste çuten
Ecin scriba çayteyen
Oray dute phorogatu
Enganatu cirela.
Heuscara
Ialgui adi mundura.*

Euskaldun guziak ulert dezazkete Etxepareren olerkiak ez baita hanbat aldatu euskara. Bainan zatikatua izanez Euskal Herria historiak jarri dion mugarekin, iparraldeko eta hegoaldeko idazleek hartu dute menperatzaileen ortografia, inguratzen gaituzten bi hizkuntza nagusia.

Nahiz ez den ortografia hizkuntza idatzi baten azala baizik, hiruz pa lau mendez ortografia ez berdin batean idatzi da. Lan eder honetan, Koldo Zuazo Zelaietak ederki aztertzen ditu zer izan diren euskararen historian hizkuntzaz kanpoko eta hizkuntzaz barruko indarren eraginak. Jadanik XVII. mendean Axular batek aitortzen zuen sakabanatze hori, ziolarik:

*"Eztituzte euskaldun guztieç legueac eta azturac bat, eta ez euscarazco minçatçea ere, çeren erresumac baitituzte different.
Bada esquiribatçeaz denaz beçan batean ere ez naiz eguiteco gabe. Çeren bada hunetan ere differentia".*

Orduz geroz hiru mende baino gehiago iragan dira eta, mendez mende, batasunerako bide hertsia, patartsu eta nekearen bihurtune guziak aztertu ditu Koldo Zuazo Zelaietak, neurtu aurrerapenak, izartu atzerapenak, idazle guzien iritziak agertuz nahiz euskaldunenak nahiz atzeritarrenak.

Historia luze horren zoko-moko guztiak ikertu ditu sakonki eta zientifikoki, ez baita sekulan alderdikari izan, gauzak agertzen zituela ziren bezala.

Boileau frantses idazleak lausengatzen zuen Malherbe olerkaria oihukatuz:

"Enfin Malherbe vint..."

erakusten zuela idazle honen eragina frantsesaren normalkuntzan. Gisa berean erran dezaket:

"Azkenean etorri zen Euskaltzaindia".

Nahiz ez zen berehalakoan sortu, Euskaltzaindiak bere lehenbiziko biltzarretan hartutako xedeak agertu zituen: ortografia arautzea, hiztegia eratzea eta euskara bateratzea, Campión eta Broussain-i eskatuz lan bat: "Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la lengua vasca sobre unificación del euskara".

Nehork ez ditu ukatuko orduz geroztik egin diren aurrerapenak eta irakurleak hobeki ulertuko du nola, mende honen bigarren erdialdean, bereziki 1968-tik honarat, Euskaltzaindiak bete dituen 1920ean hartu zituen xedeak, ortografia arautuz, deklinabidea, erakusleak eta aditz laguntzaileak bateratuz.

Oroit naiz nerekin Bordeleko Unibertsitatean zagolarik Koldo Zuazo Zelaieta, galdegin zidala tesiaren zuzendari izaitzea onartuko nuen. Pozik eman nion nere baimena eta pozik entzun nuen tesiaren irakurtzea, "Apto cum laude" saristatu zutelarik Koldo Mitxelena, Pello Salaburu, Maite Etxenike, Patxi Altuna eta Patxi Goenaga epai mahaikoek.

Agertzer a doa lan eder, sakon eta aberats hau, jalgitzen da kanpora. Euskararen bateratzeko bide luzea argitzen du, Euskaltzaindiaren eragina denbora berean.

*Jean HARITSCHELHAR
Bordeleko Unibertsitateko katedradun ohia
Euskaltzain buru ordea*

SARRERA

Euskararen standardizazioaren nondik-norakoa aztertzea da lan honen helburu nagusia. Standardizazioaren asmo hau, hain zuzen ere, oso aspaldidanikoa izateaz gainera eztabaida-iturri oparoa ere izan denez gurean, bere osotasun eta zabaltasun guztian begiratzen ahalegindu gara.

Hizkuntzak giza-multzoen tresna direlarik, giza-multzook bizi dituzten baldintzek maiz utzi izan dute aztarnarik hizkuntzen bilakabidean eta, bagaude, euskararen standardizazioari dagokionean ere nabaria dela euskal komunitatean gertatu diren gorabeheren eragina delako auzi honetan.

Zazpi atal nagusitan bereizi dugu geure lanau, lehenbizikoan hizkuntzaz kanpoko indarrak aipatze eta neurtzeari ekiten diogularik. Euskal Herriak mendez mende eta sail guztietan (administrazioan, ekonomian...) jasan duen zatiketa eta euskara esparru zenbaitetatik (administrazioan, irakaskuntzan, goi maila sozialetako hiztunen jardunean...) bazterturik izana –eta egun ere izatea– dira bereziki jorratu ditugun arloak.

Bigarren atalean hizkuntza barruan diharduten indarrez aritu gara. Dauden euskalkiez ohar orokor zenbait egin ondoren bi gai nagusiri lotu gatzazkio jarraian. Bizkaieraren auziaz jardun dugu batetik, euskalki honen inguruan dauden eta izan diren arazo ugarietz –hala hizkuntza barrukoez nola kanpokoez– ahalik eta argibiderik gehienak ematen saiatuz. Honekin batera, euskaldunek historian zehar euren eta besteen euskalkienganako izan dituzten jarrerak –aldekoak zein aurkakoak– zehazteari ekin diogu.

Gainontzeko ataletan standardizaziogintzan eman izan diren urratsik aipagarrienak erakusten dira. XX. mendera bitartean euskararen batasunari begira ageri diren jarrerak aztertzen dira hirugarren atalean. Laugarrenean, berriz, garai horretan bertan ortografi arloan hartzen diren erabakiak ditugu aztergai. Bostgarrenean, XX. mendeko lehen erdialdean standardizazioaren inguruan plazaratzen diren proposamenez ari gara eta, seigarrenean, mende horren bigarren erdialdean egiten direnez. Zazpigarren atalean, azkenik, XX. mendean zehar ortografi arloan hartutako erabakiak eta “euskara batua” izenez ezagutzen den eredu standardaren morfologi saileko oinarritzko arauak zehazten jardun dugu.

Ezinbestekoa zaigu lan hau egiten lagundu izan gaituztenei geure eskerrik zintzoenak adieraztea. Tesi honen zuzendari izan den Jean Haritschelharri zor dizkiogu hainbat eta hainbat datu, zuzenketa eta aholku. Guztiz mesedegarri gertatu zaizkigu, halaber, Pello Salabururekin izandako elkarrizketa eta harremanak. Juan San Martin aspaldiko adiskideari zein Jesus Oleaga eta beronen etxekoan jendetasunari zor diegu, azkenik, euren liburutegi aberatsez baliatzeko izan dugun aukera. Hauei eta nola edo hala lagundu gaituzten gainerako guztiei geure eskerrona.

Bilbon, 1987ko otsailaren 26an.

LABURDURAK

aezk.: aezkera.	gip.: gipuzkera.
b.-naf.: baxe-nafarrera.	hegoal.: hegoaldekoa (euskalkia).
bazt.: baztanera.	lap.: lapurtera.
bizk.: bizkaiera.	nom.: nominatiboa.
erg.: ergatiboa.	orok.: orokorra.
erron.: erronkaria.	pl.: plurala.
g.-naf.: goi-nafarrera.	sing.: singularra.
gazt.: gaztelania.	zaraitz.: zaraitzua.
gen.: genitiboa.	zub.: zuberera.

LIBURU ETA ALDIZKARIAK

- ASJU: Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo".
- BIAEV: Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos.
- BMB: Bulletin du Musée Basque.
- BRSVAP: Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País.
- BSL: Bulletin de la Société de Linguistique de Paris.
- EA: Euskalerriaren alde.
- E-G: Euzko-Gogoa.
- E-J: Eusko-Jakintza.
- FHV: MICHELENA, Luis, *Fonética Histórica Vasca*.
- FLV: Fontes Linguae Vasconum.
- GH: Gure Herria.
- RIEV: Revista Internacional de los Estudios Vascos.
- RLPhC: Revue de Linguistique et de Philologie Comparée.
- ZA: Zeruko Argia.

ATARIKOA

La guztiz alferrikakoa izan zaigu hizkuntzen standardizazioa dela eta Linguistikako lanetara argi bila jotzea, nahiz eta gauza jakina izan standardizazioaren urrats hau nahitaezkoa dela gizarte modernoen kasuan eta, are gehiago, industrializazio bidean abiatu diren gizarteenetan, berauetan alfabetizazioa ezinbesteko baldintza bihurtzen bait da (1). Honela ikusten du Ninyoles-ek hizkuntzek bizi ohi duten aro berri hau:

“En contraste con las sociedades de tipo tradicional, la sociedad moderna reclama la capacidad en el manejo del lenguaje como una de las premisas básicas de su organización; los procesos de urbanización e industrialización llevarán consigo importantes consecuencias de orden lingüístico. (...)

La creciente comunicación entre las poblaciones, el aumento de la actividad comercial, la mayor movilidad geográfica operados en las naciones occidentales a partir del Renacimiento, han sido fenómenos inseparables del proceso de unificación lingüística. El Estado moderno tratará de apoyarse en una población más estrechamente interconectada. A la monarquía, como pluralidad de poderes autónomos, sucede la coherencia de los pueblos como naciones que adquirirán una “conciencia nacional”. El predominio de la lengua común normalizada irá reduciendo muchas de las formas campesinas a papeles cada vez más restringidos. Con la preponderancia de un poder centralizado y de una administración común, la lengua adquiere la cualidad de instrumento de gobierno”. (2)

-
- (1) Izan ere egoera horretan dauden komunitateei, luzera begira behintzat, bi aukera baizik ez zaizkie geratuko: beren hizkuntza standardizatzeko urratsa eman edota, bestela, beren jatorrizko hizkuntza alde batera utziz, zenbait esparrutan behinik behin, besteren bat –jadanik standardizatua izango dena– hartu. Horrela emango zaio hasiera, edo jarraipena sendotuko, “ordezkatzeko” linguistikoari (=language shift).
 - (2) NINYOLES, Rafael Ll., *Estructura Social y Política Lingüística*, Fernando Torres, Valencia, 1975, 81-82. orr.

Dirudienez hutsune honen sustraia 1916an argitara emandako Cours de Linguistique générale izeneko liburuan datza (3), liburu hau Hizkuntzalaritza modernoaren abiapuntutzat ezartzen bait da. Berton bereizketa bat egiten da: "linguistique interne" batetik eta "linguistique externe" bestetik (4), azken honetan etnologia, hizkuntz politika, hizkuntzak edozein motatako erakunderekin (Eliza, eskolak, etab.) euki ditzakeen zerikusiak eta hala hizkuntza baten eremu geografikoak nola bere bariazio dialektalak sartuko zirelarik. Eta aukera bikoitz horren aurrean erabaki hau hartuko zen:

"Notre définition de la langue suppose que nous en écartons tout ce qui est étranger à son organisme, à son système, en un mot tout ce qu'on désigne par le terme de «linguistique externe». (...)" (5)

Beheraxeago berriz:

"Nous pensons que l'étude des phénomènes linguistiques externes est très fructueuse; mais il est faux de dire que sans eux on ne puisse connaître l'organisme linguistique interne. (...)" (6)

Eta guri zuzenki dagokigun auziaz zera esango da:

"Enfin tout ce qui se rapporte à l'extension géographique des langues et au fractionnement dialectal relève de la linguistique externe. Sans doute, c'est sur ce point que la distinction entre elle et la linguistique interne paraît le plus paradoxale, tant le phénomène géographique est étroitement associé à l'existence de toute langue; et cependant, en réalité, il ne touche pas à l'organisme intérieur de l'idiome". (7)

Dena dela, eta egia osoa esan beharko badugu, Saussureren lan honetan behin eta berriz azpimarratuko da hizkuntzaz kanpoko gorabeheren eragina hizkuntzen bizitzan eta garapenean (8) eta gure arlo honentzat oso argigarri diren zenbait ohar ere

(3) Liburuaren egiletzat Saussure hartzen bada ere ez da ahaztu behar Charles Bally-k eta Albert Sechehaye-k, A. Riedlinger-en laguntzarekin, Saussurek Genevako Unibertsitatean 1906-07, 1908-09 eta 1910-11 ikasturteetan zehar emandako eskoletan jasotako oharrekin burutu zutela Saussure bera hil ondoren argitara eman zen liburu hau. Saussurek esandakoen eta ikasleek bildutakoen artean egon daitezkeen ezberdintasunez ikus: CALVET, Louis-Jean, *Pour et contre Saussure*, Payot, Paris, 1975, 17-31. orr. bereziki.

(4) SAUSSURE, Ferdinand de, *Cours de Linguistique générale*, Payot, Paris, 1916, V. kapitulu (41-44. orr.)

(5) SAUSSURE, Ferdinand de, *Cours...*, op. cit., 41. orr.

(6) *Ibidem*, 43. orr.

(7) *Ibidem*, 42. orr.

(8) Maiz aipatu izan da, Durkheim soziologoaren eragina Saussureren pentsakeran. Ikus, esaterako, DOROSZEWSKI, W., "Quelques remarques sur les rapports de la sociologie et de la linguistique: E. Durkheim et F. de Saussure", II^e. Congrès International de Linguistes, Genève, 1931. (Gaztelaniaz badago honen itzulpen bat: "Algunas observaciones sobre las relaciones de la sociología con la lingüística: E. Durkheim y F. de Saussure", *Psicología del Lenguaje*, Buenos Aires, 1952, 66-73. orr.)

egingo dira, batipat IV. ataleko IV. kapituluan, bertan hizkuntzen barruan elkarren aurka burrukan diharduten bi indar mota aipatzen bait dira: indar banatzaile bat alde batetik –l'esprit de clocher– (indar “kaltegarritzat” jotzen dena, hain zuzen) eta indar batzaile bat –la force d'intercourse– (hau, berriz, “mesedegarritzat” joa), bestetik. Honelaxe azalduko dira hitzez hitz bi indarrok:

“(…) Dans toute masse humaine deux forces agissent sans cesse simultanément et en sens contraires: d'une part, l'esprit particulariste, l' "esprit de clocher"; de l'autre, la force d' "intercourse", qui crée les communications entre les hommes.

C'est par l'esprit de clocher qu'une communauté linguistique restreinte reste fidèle aux traditions qui se sont développées dans son sein. Ces habitudes sont les premières que chaque individu contracte dans son enfance; de là leur force et leur persistance. Si elles agissaient seules, elles créeraient en matière de langage des particularités allant à l'infini.

Mais leurs effets sont corrigés par l'action de la force opposée. Si l'esprit de clocher rend les hommes sédentaires, l'intercourse les oblige à communiquer entre eux. C'est lui qui amène dans un village les passants d'autres localités, qui déplace une partie de la population à l'occasion d'une fête ou d'une foire, qui réunit sous les drapeaux les hommes de provinces diverses, etc. En un mot, c'est un principe unifiant, qui contrarie l'action dissolvante de l'esprit de clocher.

C'est à l'intercourse qu'est due l'extension et la cohésion d'une langue. Il agit de deux manières: tantôt négativement: il prévient le morcellement dialectal en étouffant une innovation au moment où elle surgit sur un point; tantôt positivement: il favorise l'unité en acceptant et propageant cette innovation. (...)” (9)

Saussureren ondorengo hizkuntzalarien artean ez dago auzi honetan erabateko batasunik. Hjelmslev, Copenhagen kokatuko den Elkarte Linguistikoaren sortzaile eta ordezkariarik nabarmenena, zientzia honen autonomia aldarrikatzen ahaleginduko da:

“Para establecer una verdadera lingüística que sea algo más que una ciencia auxiliar o derivada, es preciso actuar de otro modo. La lingüística ha de esforzarse por comprender el lenguaje no como un conglomerado de fenómenos no lingüísticos (físicos, fisiológicos, psicológicos, lógicos, sociológicos), sino como una totalidad autosuficiente, como una estructura *sui generis*”. (10)

(9) SAUSSURE, Ferdinand de, Cours..., op. cit., 288-289. orr.

(10) HJELMSLEV, Louis, Prolegómenos a una teoría del lenguaje, Gredos, Madrid, 1980, 14-15. orr. (Liburu honen lehen argitarapena 1943koa dugu: Omkring sprogteo-riens grundlaeggelse izenburupean).

Helburu berbera azpimarratuko du beranduagoko beste lan baten:

“(…) On peut s'intéresser au langage à bien des points de vue. Les Grecs et les Romains de l'Antiquité ainsi que les scolastiques du Moyen Age s'y intéressaient surtout du point de vue logique (...). Aux XVIII^e. et XIX^e. siècles, de nombreux chercheurs arrivèrent à s'intéresser au langage du point de vue historique et préhistorique, et particulièrement dans une perspective d'histoire de la civilisation (...). Au XIX^e. siècle naquit la science particulière qui s'intitula phonologie ou phonétique; elle s'intéresse au langage du point de vue physiologique et physique (...). Au XIX^e. siècle apparut aussi une psychologie du langage qui voyait de son point de vue le langage comme un moment de la «vie psychique», et celle-ci comme l'élément essentiel rendant compte de la nature du langage. Plus près de nous, on s'est placé, dans une mesure toujours plus large, à un point de vue sociologique, considérant que le langage est une institution sociale. Comme on voit, les points de vue auxquels on peut étudier et on a étudié le langage ne font pas défaut. Mais aucun de ces points de vue (dont on pourrait augmenter le nombre) ne fournit la base d'une science autonome du langage: le langage devient l'objet tantôt de la logique, tantôt de l'histoire, tantôt de la physiologie, de la physique, de la psychologie, de la sociologie. Malgré la multitude de ces perspectives, un point de vue sur le langage a été négligé, celui-là même qui semble le plus important et le plus naturel, à savoir le point de vue *linguistique*. On doit pouvoir concevoir une science qui ne se représente pas seulement le langage comme un agglomérat d'éléments logiques, historiques, physiologiques, physiques, psychologiques et sociologiques, mais qui conçoit avant tout le langage en soi, comme une unité autonome, une totalité d'une nature particulière. Seule une telle vue d'ensemble pourra fournir l'explication du fait que tous ces éléments apparemment hétérogènes ont pu se réunir dans le langage; le point de vue linguistique pourra, en tant que point de vue essentiel, conférer à chacun des points de vue particuliers sa justification et sa limitation relatives. Ce n'est que de cette manière (...) qu'on aura fondé une science du langage solidement établie en science autonome. (...)” (11)

Bestelakoa izango da Pragako Elkarteko partaideen jokabidea, hauek maiz lotuko bait zaizkie standardizazioak dakartzan arazoei (12) eta, batez ere, Frantziako “Ecole Linguistique Sociologique” (13) delakoan bilduko direnena: guztien gaine-

(11) HJELMSLEV, Louis, *Le langage*, Minuit, Paris, 1966, 24-25. orr. (Lehen argitarapena, Sproget izenburupean, 1963an kaleratu zen).

(12) Ikusi besterik ez dago *Travaux du Cercle Linguistique de Prague (1929-1938)*. (Gaztelaniaz badago TRNKA, B., /eta beste batzuk/, *El Círculo de Praga*, Anagrama, Barcelona, 1980). Elkarte honetakoak dira J. Mukarovsky, R. Jakobson, N. S. Trubetzkoy, K. Bühler... eta zenbait hizkuntzalari frantziar: J. Vendryès, E. Benveniste, A. Martinet...

(13) Eskola honetaz berri izateko ikus: COHEN, Marcel, *Cinquante années de recherches linguistiques, ethnologiques, sociologiques, critiques et pédagogiques*, Paris, 1955. Oso interesgarria da, halaber, Joseph Vendryès-ek lan honi egindako hitzaurrea.

tik A. Meillet (14) eta beronen jarraitzaile izango diren J. Vendryès (15), A. Dauzat, M. Cohen eta abarrena. Hauek ere, Saussurek bezala, Durkheim-en eragin nabarmena erakutsiko dute (16) eta Genevako irakaslearen teoriak lar "abstraktu"-tzat joko dituzte hizkuntzak gizartearekin dauzkan loturak kontutan ez hartzea leporatuz (17).

Ezin utzi aipatzeko 1925ean Otto Jespersen-ek argitara emandako lana: *Menneskehed, Nasjon og Individ i Sroget* (18) eta, bereziki, liburu honetako III. eta IV. kapituluak. Berauetan hizkuntz standardizazioa errazten duten arrazoi zenbait aipatzen ditu: erlijiosoak (Greziako kasuan), idazle garaien eragina (Dante italiararako, Chaucer ingleserako, Luther alemanerako eta Pedersen danierarako), kantari eta bertsolariena (Irlanda eta Ingalaterrako kasuetan), teatro taldeena (Alemaniako kasuan "Bühnendeutsch" delakoaz) edo merkatal arrazoiak, politikoak, hiri nagusien eragina, etab.

Europako estrukturalistek ez dituzte, bada, hizkuntzaz kanpoko gorabeherak guztiz alde batera utzi (19), era horretan mendez mende egin izan diren ikerketa linguistikoek hariari jarraituz, berauetan aipamen historikoak, politikoak eta bestelakoak behin eta berriz eskaintzen bait zaizkigu.

Etena, baina, (ia) erabatekoa izango da Estatu Batuetan landuko den Linguistikari. Hemen ere badira, jakina, eta hasieratik bertatik gainera, etnologiarri eta soziologiarri leku egingo dioten hizkuntzalariak baina bide honetatik zihozen F. Boas

(14) Honen *Aperçu d'une histoire de la langue grecque* liburuan badago gure lanarekin lotura estua duen kapitulu bat: "Généralités sur les langues littéraires" (113-125. orr.). Gai bera ukituko du *La méthode comparative en linguistique historique*, Institut for sammenlignende Kulturforskning, Oslo, 1925, lanean.

(15) Beronen *Le langage. Introduction linguistique à l'histoire*, Paris, 1920, standardizazioaz ari zaigu 4. ataleko 3. kapituluak: "Les langues communes". Lan hau Euskal Herrian ere ezagutzera eman izan da, hala nola: ALTUBE, Severo de, "La Unificación del Euskera Literario", E-J, III (1949), (181-204), 187-189. orr.

VILLASANTE, Luis, "Literatur-euskara laphurtarr klasikoaren gain eratu", BRSVAP, VIII (1952), Cuaderno 1º, 106. orr. eta hurr.

Hacia la Lengua Literaria común, Editorial Franciscana, Aranzazu-Oñate, 1970, II. eta III. kapituluak.

(16) Durkheim-en lanen artean *Les règles de la méthode sociologique* delakoak iruditzen zaigu eraginik zabalena izan duela. Liburu honen lehen argitarapena 1894an egin zen.

(17) Ikus, esaterako, diogunaren frogagarri, Antoine MEILLETek Saussureren *Cours* reseñatzerakoan egiten duen salaketa: BSL, XX (1916), 35. orr.

(18) Badago katalanera eginiko itzulpen bat: JESPERSEN, Otto, *La lengua en la humanidad, la nación, el individuo*, Edicions 62, Barcelona, 1969.

(19) Geure egunotako adibide ezagun bat baizik ez aipatzearren André MARTINETen *Éléments de linguistique générale*, Armand Colin, Paris, 1960, jarriko genuke eta, bereziki, liburu honetako V. kapituluak.

eta beronen eskolako Sapir (20) edo Whorf (21) ikerlarici, Bloomfield (22) eta Zellig S. Harris lehenik, eta Chomsky (23) ondoren, nagusituko zaizkie.

Hala ere, eta sarritan gertatu ohienez, Linguistikaren autonomia azken muturreraino eraman nahi izate hori berori izango da, Soziolinguistika, Hizkuntzaren soziologia... eta, hitz batez, hizkuntzak gizartearekin dituen loturak eta harremanak aintzakotzat hartuko dituzten iker-sail berriak urratzea ekarriko duen arrazoietariko bat. Izan ere, Estatu Batuetan sortu eta aitzinatuko dira 1960-70 urteetako hamarkadaz geroztik iker-sail hauek (24). Hain zuzen ere Soziologia Elkarte bat izango da (25), Social Sciences Research Council alegia, 1963tik aurrera ikerketa soziolinguistikoei ekingo diena, nahiz eta antropologoen iker-lanen emaitzak ere aipatze-koak diren, eta, ahalegin hauen ondorioz argitaratu diren lanetan, hizkuntzen standardizazioarekin zerikusi estua daukaten hainbat gai aurkitu ahal izan ditugu (26).

-
- (20) SAPIR, Edward, *Language* (1921). (Gaztelaniaz badago: *El lenguaje*, Fondo de Cultura Económica, México, 1966).
- (21) WHORF, Benjamin Lee, *Language, Thought and Reality* (1956). (Gaztelaniaz: *Lenguaje, Pensamiento y Realidad*, Barral, Barcelona, 1971).
- (22) Inportantzia handia izan du: BLOOMFIELD, Leonard, *Language* (1933). (Frantsesez: *Le langage*, Payot, Paris, 1970).
- (23) Hala eta guztiz ere esan beharra dago Chomsky-k eta gramatika sortzaileak leku nabarmena eman dietela hizkuntzez jabetzearen inguruan gertatzen diren arazoei. Ikus, bereziki, CHOMSKY, Noam, *Aspects of the theory of syntax* (1965). (Gaztelaniaz: *Aspectos de la teoría de la sintaxis*, Aguilar, Madrid, 1971) edo *Language and mind* (1968). (Gaztelaniaz: *El lenguaje y el entendimiento*, Seix Barral, Barcelona, 1971).
- (24) Honetaz berri ugari eta zehatzak eskaintzen zaizkigu honako lan honetan: SCHLIEBEN-LANGE, Brigitta, *Inclaci6n a la sociolingüística*, Gredos, Madrid, 1977, 31-102. orr.
- (25) LOPEZ MORALES, Humberto, "Hacia un concepto de la sociolingüística", *Lecturas de sociolingüística*, EDAF, Madrid, 1977, (101-124), 106. orr.
- (26) Hona hemen horietariko batzuk:
TWADELL, W. I., "Standard German", *Anthropological Linguistics*, I (1959), 1-7. orr.
Leku berean beste hau:
GARVIN, Paul L., "The Standard Language Problem: Concepts and Methods", 28-31. orr.
RAY, Pinya Sloka, *Language Standardization*, La Haya, Mouton, 1963.
FERGUSON, Charles A., "Myths about Arabic", *Readings in the Sociology of Language*, La Haya, Mouton, 1968, 375-381. orr.
Leku berean beste hau:
GUXMAN, M. M., "Some General Regularities in the Formation and Development of National Languages", 766-779. orr.
Guztion gainetik, eta aitzindari gisa agian, Heinz Kloss-ek bere *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen von 1800 bis 1950* (Munich, 1952) liburuan egiten dion sarrera ezarri beharko genuke. Sarrera honetan, hain zuzen, oinarrituko zen Krutwig Euskararen ethortzuna izeneko artikulua interesgarria eratzeko.

EUSKAL HERRIAREN EZAUGARRI OROKOR ZENBAIT

A) LURRALDEA

Oso txikia da Euskal Herria, 20.664 km² guztira, horietariko 2.982 km² Estatu frantziarrari (gaurregun nagusiki, zuzen ala oker, *Iparraldea* deitzen zaionari) eta, gainontzeko 17.682 km²-ak, Estatu espainiarrari (hots, *Hegoaldea* deituari) dagozkielarik.

Honelakoxea da probintziaz probintziako banaketa:

I. TAULA
PROBINTZIAZ PROBINTZIAKO LURRALDE BANAKETA (1)

Probintzia	km ²	E. H. osoaren %
Araba	3.047	14,75
Bizkaia	2.217	10,73
Gipuzkoa	1.997	9,66
Lapurdi	857	4,15
Nafarroa	10.421	50,43
Nafarroa Beherea	1.336	6,46
Zuberoa	789	3,82
GUZTIRA	20.664	100,00

(1) Iturria: GOMEZ PIÑERO, Francisco Javier / eta beste batzuk /, *Geografía de Euskal Herria*, Luis Haranburu, Donostia, "Guipúzcoa" (I. vol.), 1979, 17. orr.; "Vizcaya" (II. vol.), 1979, 35. orr.; "Alava" (III. vol.), 1980, 17. orr.; "Navarra" (IV. vol.), 1980, 17. orr.

B) BIZILAGUNAK

II. TAULA
PROBINTZIAZ PROBINTZIAKO BIZILAGUNEN BANAKETA (2)

Probintzia	Bizilagunak	Euskal Herri osoaren %	Kn ² -ko bizilagunen %
Araba	260.881	8,89	85,61
Bizkaia	1.206.836	41,14	544,35
Gipuzkoa	708.456	24,15	354,76
Lapurdi	186.336	6,35	217,42
Nafarroa	520.413	17,74	49,93
Nafarroa Beherea	34.749	1,18	26,00
Zuberoa	15.404	0,52	19,52
GUZTIRA	2.933.075	100,00	141,94

Oso kontutan hartu beharrekoa da Iparraldeko probintziek Euskal Herri osoaren 8,05 %a baizik ez dutela biltzen. Bizkaiari dagokio nagusitasuna, Euskal Herri osoko bizilagunen 41,14 %a biltzen duelarik, ondoren, baina oso urrun, Gipuzkoa (24,15 %) eta Nafarroa (17,74 %) datozelarik.

C) MIGRAZIO JOERAK EUSKAL HERRIAN

Euskal Herriak, herri pobrea eta lur-jabego txikietan banatutakoa izanik, betidanik sortu izan ditu haborokin demografikoak. Penintsulako lau probintziei gagozkielarik aintzinako denboretatik hasita egon izan da -espedizio militarren itxurapean maiz- hegoalderanzko (3) eta itsas handiko lurretaranzko isuria. Ameriketako lurak aurkitu ondoren jaitsiz joango zen Gaztelarako joera Andaluziarakoaren mesedetan.

(2) Hegoaldeko probintzietako emaitzak 1984koak dira. Iturriak: EUSKO JAURLARITZAREN ESTADISTIKA-ZUZENDARITZA, Euskal urtekari estatistikoa 1985, Eusko Jaurlaritza, 1986, 40. orr. eta DELEGACION PROVINCIAL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADISTICA EN NAVARRA, Reseña estadística de Navarra. Año 1984, Gobierno de Navarra. Departamento de Presidencia, Pamplona, 1986, 389. orr.

Iparraldeko emaitzak, aldiz, 1982koak dira. Iturria: INSEE, Recensement général de la population de 1982. Population du département des Pyrénées-Atlantiques. Arrondissements, Cantons, Communes, 64-1. orr.

(3) Birkonkista garaian, esaterako, gaurregun Gaztelarenak diren lurretan euskal jatorrizko jendea kokatuko zen. Gertaera honekin ba omen du zenikusirik 869. urtean Alfontso III eta Ximenaren artean eginiko ezkontzak.

1. MIGRAZIO JOERAK IPARRALDEAN

XVIII. mendean, Frantziak Antilla uharteekin eta Mexikoko Golkoan nahiz Hego Ameriketara kokatutako portuekin merkatal harremanei ekiterakoan, ezar dezakegu Iparraldeko emigrazio joeren gorakada, hurrengo mendean, 1841eko "Ley Paccionada"-ren ondorioz, aduanak Ebrotik itsasaldera aldatzerakoan (4), askoz nabarmenago bihurtzen delarik. R. Camblongen eritziz (5), eta kopuru zehatzak ematea oso zaila den arren, ia 80.000 lagun dira 1832-1884 epe laburrean atzerirako bidea hartzen dutenak. 1832. urte horretan, hain zuzen, Montevideoko Lafonc and Wilson elkarteak bulego bat irekiko du Donibane-Garazin (6), euskaldun askok, horrela, Uruguayra joko duelarik. Ondorengo urteetan, Uruguayra ezezik, Argentina, Txile eta Estatu Batuetako mendebalera (Kalifornia, Nevada eta Idahoko Estatuetera) ere abiatuko dira.

Iparraldeko emigrazio honek bi une nagusi biziko ditu: 1846-1855 bitartekoa lehenik eta 1880az geroztikoa bestetik. Garaiko lekuko batek, Francisque-Michel, emaitza hauek eskaintzen dizkigu Mauleko arrondizamenduko emigrazioari buruz:

"(...) Elle était, dit un journaliste de Pau, restée à peu près stationnaire de 1836 à 1841; en 1846, elle a déjà diminué de plus de 500 âmes; en 1851, de plus de 1500; en 1856, on la trouve inférieure de 6.633 âmes à ce qu'elle était en 1836. Tous les cantons ont fourni leur part dans ce contingent de l'émigration; mais ceux de Mauléon, de Saint-Palais et de Saint-Etienne de Baïgorry sont ceux qui ont éprouvé le plus de pertes". (7)

Haritschelharrek dioenez (8), 1840-1860 bitartean Basses-Pyrénées-etako Kontseilu Nagusiak eten gabeko deiak egiten omen dizkio Gobernuari emigrazioa gerazteko neurriak har ditzan eta, leku berean irakur dezakegunez, Chegaray-k, Basses-Pyrénées-etako Diputatu Ganbarako ordezkariak, 1832-1843 epean 8.174 euskaldun abiatu zirela Montevideora salatzen omen zuen, bizilagun gutzian 1/20 alegia (9).

(4) Aduana aldatze honek kalte larriak ekarri zizkion Lapurdiko, eta bereziki Baionako, ekonomiari. Hiri honetako agintariek behin eta berriz eskatuko zuten frantziar aduanak Aturri ibaiaren iparraldean ezar zitezkeen horrela, Nafarroa, lehenago bezala, bere portuaz baliu zedin.

Arazo ekonomikoei, ordea, Frantzian bizi zen gerra giroa erantsi behar zaie. Gerrok sortuko dituzten galera ekonomikoei eta urte luzeak arnadan eman beharrak emigrazio bideetan amilduko dituzte gazte asko.

(5) CAMBLONG, Ramuntxo, "Gure ekonomiaren hiru pondu", Ipar Euskal Herria, Editorial Franciscana, Aranzazu-Oñate, 1969, 67-86. orr.

(6) LABORDE, Pierre, *Le Pays Basque d'hier et d'aujourd'hui*, Elkar, Donostia, 1983, 33. orr.

(7) FRANCISQUE-MICHEL, *Le Pays Basque. Sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*, Paris, 1857, 193. orr.

(8) HARITSCHELHAR, Jean, "L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun", Euskera, XIV-XV (1970), 452. orr.

(9) Haritschelharrek berak azpimarratzen duenez ez da txiripa hutsa A. d'Abbadiek 1853an, lehen Euskal Jaiak antolatzerakoan, olerkigai gisa honako hauxe ezartzea: "Les regrets d'un basque en partance pour Montevideo".

Ameriketarako emigrazio jario hau Nazioarteko I Gerratearen, eta are gehiago Igarrenaren, ondoren urrituz joango da (10). Aurrerantzean Estatu frantziarreko hiri nagusietara (Paris, Bordele...) eta Lapurdiko itsasaldera zuzenduko da.

XIX. mendearen bigarren erdialdetik hasita, baina, alderantzizko beste joera bat ere mamituko da Iparraldean: turismoaren eragina. Napoléon III-ren Gorteak bultzaturik sortuko da (11) eta 1900-1913 epean bere gailurra ezagutuko. Urteak iragan ahala frantziar Estatu guztitik heldutako "hirugarren adineko" jendea bilakatu da turismo honen zutabe nagusi (12) eta hasieran Lapurdiko itsasaldera mugatuko zen arren (Ziburu, Donibane-Lohizune, Getaria, Bidarte, Miarritze, Angelu) piskakak barrukaldeko herrietara ere hedatuz joango da.

Iparraldean, bada, bi dinamika nagusi ageri zaizkigu:

Alde batetik Zuberoa, Nafarroa Beherea eta, neurri apalagoan, Lapurdiko barrukaldea ditugu. Nekazaritza, abel hazkuntza eta, azken urteez geroztik, turismoa dira hemengo ekonomiaren ardatzak. Bertoko industria kaskarra (batez ere Maulen, Donapaleun eta Hazpamen kokatua) atak itxi beharrean kausitu da bere konpetibitate ezagatik. Oso egoera larrian aurkitzen da, halaber, azken urteotan bultzatu nahi izan den kooperatiba mugimendua (13). Honen ondorioz probintzia hauek hustutzen ari dira urtez urte eta ikusi besterik ez daude beren populazio dentsitate ahulak: Zuberoa, 19,52 % eta Nafarroa Beherea, 26 %.

Zertxobait ezberdina da Lapurdiko itsasaldeak erakusten duen dinamika. Turismoa da bertoko ekonomiaren euskarri nagusia. Angelu-Tarnos bitartean, Baionako portua ardatz delarik (14), industria ere aitzinatu da azken urteotan, oraindik ahul sa-

-
- (10) Hala ere gure egunotaraino irau du Euskal Herri osotik Ameriketarako (Hego zein Iparrameriketarako) emigrazio horrek, nahiz eta ezin izan dugun emaitza zehatzik eskuratu. Douglass-ek (DOUGLASS, William A., "Counting Basques: The 1980 U. S. Census", Newsletter, University of Nevada. Reno, nº 28, November 1983, (3-7), 5. orr.), 1980. urtean, Estatu Batuetan bakarrik, 43.140 ingurukoa jotzen zuen euskaldunak kopurua, horietarik gehienak Kalifornian (15.530), Idahon (4.332), Nevadan (3.378), Nebraskan (2.754), Oregonen (2.253)... biltzen zirelarik.
 - (11) Oso adierazgarria da 1854. urtea, orduan ekin bait zitzaion Miarritzen "Villa Eugénie"-ren eraikitzeari.
 - (12) Labordek dienez (LABORDE, Pierre, "Bayonne et la région urbaine côtière"; Les villes françaises, La documentation française, 21 mars 1975, Nº 4.174-4.175, 21. orr.), 65 urtetik gorakoak 15,8% ziren guztitara Lapurdiko itsasaldean, kopuru hau, zenbait turismo herritan (Miarritze, Bidarte edo Getarian), asko goratzen zelarik. Getarian, esaterako, 22,5% ziren 18 urtetik beharokoak, 65etik gorakoak 18,3% ziren bitartean.
 - (13) 1971n sortzen da "Sokoa" izeneko lantegia, gero, 1980ko bukaerarantz, "Herrikoa" izeneko kooperatiba batasunaren ardatz bilakatuko dena. Kooperatiben etorkizan iluna ulertzeko kontutan izan behar da, beste arrazoi batzuren artean, 1970etako hamarkadaz geroztik hedatuko den krisialdi ekonomikoa baina ez da ahaztu behar, bestalde, frantziar Administrazioaren aldetik mugimendu hau geldiarazteko egin diren ahaleginak. Nonbait ere, eta agerian arrazoiak sekula aitortu ez diren arren, Iparraldeko kooperatibismoa Arrasatekoaren jarraipena izanik, bi Euskal Herrien arteko lokarriak sendotuko zirelakoaren beldur zen.
 - (14) Baionako portuak XVII. mendera arte nolabaiteko bizitasuna euki bazuen ere, aurrerantzean guztiz baztertuta geratuko zen. 1954-1965 bitartean berrindartze bat ezagutzen du Bokaleko industria siderurgikoari esker. 1965az geroztik, gainera, zementua, laboreak (artoa bereziki), baina, batez ere, 1957an hasita Lacq-en esplotatzeari ekingo zaien sufrea esportatuko dira eta fosfatoak, industria kimikoetarako gaiak eta hidrokarburoak inportatuko. Azkartze hau, dena dela, 1975 inguruan gelditzen da.

marra den arren. Labordek dioenaren arabera (15), 26.185 lagun ziren 1975ean industria sektorean, horietatik 15.000 inguru Baionako aglomerazioan biltzen zirelarik (16). Lantegiak, bestalde, txikiak dira. 1975ean (17) bi lantegi baizik ez ziren 1.000 langiletik gorakoak; lau, 500-600 artekoak; hamalau, 200-500 artekoak; hogeita zortzi, 100-200 artekoak eta hirurogei inguru, 50-100 artekoak. Industria sailik inportanteenak, berriz, aeronautika (Angelu-Tarnos), kimika (Tarnos-Bokale), elektronika eta etxagintzarena dira.

Angelu-Tarnos industri-gune nagusi horretaz gainera, Donibane-Lohizunen eta Ziburun arrantza eta kontserba lantegiak ditugu eta Hendaiari, azkenik, merkatal eta komunikazio gune izatetik datorkio bere inportantzia.

Guzti honen ondorioz Lapurdiko itsasaldean, apalki bada ere, populazioa gora doa, Frantziako etorkinez landara Iparraldeko gainontzeko euskal probintzietakoak ere irensten dituelarik (18).

2. MIGRAZIO JOERAK HEGOALDEAN

XIX. mendearen erdialdera, bi gerrate karlisten artean, ordura arte ohizkoa zen emigrazioa geldierazteko oinarriak ezartzen dira Hegoaldean, industrializazioari hasiera emanez (19). Industrializazioarekin batera lehen inmigrazio uholdea suertatu-

-
- (15) LABORDE, Pierre, *Le Pays Basque d'hier et d'aujourd'hui*, op. cit., 142. orr eta hurr.
- (16) Camblongek (CAMBLONG, Ramuntxo, *Gure ekonomia hiru pondu*, op. cit., 76. orr.), 1969an, Angelu-Tarnos tartean Iparraldeko langileria guztiaren 70%a biltzen zela dio eta lantegi guztien 74%a.
- (17) Datu guzi hauen iturria: LABORDE, Pierre, *Le Pays Basque d'hier et d'aujourd'hui*, op. cit., 144. orr.
- (18) Lapurdiko itsasaldean 200 biz./km²-ko baino goraxeago biltzen zen 1975ean (SUHUBIETTE, Jean; LEIZAGOYEN, Mikel, *Problèmes du développement économique en Pays Basque nord*, Mugalde, Hendaye, 1975, 11. orr.)
- (19) Oraingoan ere badu eraginik 1841eko "Ley Paccionada" delakoak, honek, merkatu espainiarreko atea irekitzea eta industrializazioaren sorrera ekarriko bait du berarekin batera. Gertatu ere garai honetan gertatzen da Bizkaiko siderurgiaren hazkundera: Santa Ana de Bolueta (1841), Fábrica de Hierro de Ntra. Sra. de la Merced (1846)... sortuz; bankarena: Banco de Bilbao (1857), Banco de San Sebastián (1862)...
- "Ley Paccionada" honetaz gainera badaude, jakina, beste zenbait arrazoi industrializazio hau ulertzeko: 1865ean Bessemer-ek altzairua merkeago ateratzeko era aurkitu zuen baina, horretarako, burdin mearen fosforo kopurua 0,035%etik beherakoa behar zuen izan eta Bizkaiko mea zen, hain zuzen ere, baldintza hori betetzen zuenetakoa. 1868ko "Meatze Legeak" eta, 1876an, II. gerrate karlista amaitzeak ekarri zuen Foruen suntsitzeak ere eragin handia eukiko zuten. Azken hau, batez ere, guztiz erabakiorra izan zen, Bizkaiko Foruaren Lehen tituluko XVII. Legeak burdin mea atzerriara ateratzea debekatu egiten bait zuen. Forurik gabe, inolako mugarik gabeko esplotazioari ekingo zai, produkzioaren azkartzerik nabarmenena 1895-1903 epean suertatuko delarik.

ko da (20). Fusik dioskunez (21), 1876-1900 epe laburrean Bilbo eta Nerbioiaren ezkeraldeko populazioa 25.000tik 230.000ra goratuko zen, etorkinak 60.000 inguru zirelarik.

Geldiune baten ondoren, 1940. urtetik aurrera, eta Gerra Zibila amaitzeaz batera, inmigrazioaren jarraipen berri bat jazoko da, 1950az geroztik eta, batipat, 1960-65 bitartean, izugarrizko gorakada ezagutuko duelarik. Gerrosteko etorkin uholde hau Bizkaiko -hona batez ere- eta Gipuzkoako industri-guneetara zuzenduko da. Arabara (Gasteiz eta Laudiora bereziki) (22) eta Nafarroara (23), 1960az geroztik helduko dira lehen etorkinak.

Gutxi gora behera, eta emaitza zuzenak lortzeak daukan zailtasunagatik, era honetakoa izan liteke migrazio mugimenduaren bilakaera Hego Euskal Herrian:

III. TAULA
MIGRAZIOA HEGO EUSKAL HERRIAN (24)

Epea	Araba	Bizkai	Gipuzkoa	Nafarroa	Guztira Hegoaldean
1901-10	-9.203	-2.959	+6.157	-25.957	-31.962
1911-20	-7.293	+18.997	+8.174	-12.486	+7.392
1921-30	-5.210	+18.290	+12.732	-21.182	+4.630
1931-40	+2.650	-1.350	+9.964	-2.305	+8.959
1941-50	-3.797	+18.988	+10.568	-19.833	+5.926
1951-60	+7.073	+96.399	+48.754	-20.499	+131.727
1961-70	+42.547	+148.804	+64.845	+18.127	+274.323
1971-80	+30.428	+15.388	-3.619	+3.077	+45.274
GUZTIRA	+57.195	+312.557	+157.575	-81.058	+446.269

(20) Guztiz atipikoa da Euskal Herriaren (Hego Euskal Herriaren, zehatzago esateko) kasua, herri minoritarioak, eskuarki bederen, herri atzeratuak eta, beraz, emigrazio gune izan ohi bait dira. Euskal Herriarekin batera Katalunia (hemen ere *Hegoaldea* esan behar) agertzen da egoera berean. Honen ondorioz euskara (eta nabarmenagoa da katalanaren kasua), Euskal Herria industrializatu ahala, galduz joan da gainontzeko hizkuntza minorizatuak euki ohi duten "nekazal hizkuntza" izatearen estigma. (Estigma hori, haatik, bizi-bizirik dago bai Ipar Euskal Herrian eta bai Ipar Katalunian ere).

(21) FUSI, Juan Pablo, *El País Vasco. Pluralismo y nacionalidad*, Alianza, Madrid, 1984, 43. orr.

(22) 1960-70 epean, Arabak emango du, hain zuzen, Estatu osoko inmigrazio neurririk garaiena.

(23) Nafarroako industrializazioa 1950az geroztik hasi bazen ere, oso abiada handia hartuko zuen 1964an nafar Diputazioak "Programa de Promoción Industrial" delakoa onartu zuenean.

(24) Iurria: EGIN, *Euskadi 1977-1982*, Orain, 1982, 172. orr.

Taulak erakusten duenez, inmigrazioaren geldialdi bat gertatzen da 1970-80 urteetako hamarkadan. Horren arrazoi nagusia, epe horretan hasita probintzia hauek (Bizkaia eta Gipuzkoak bereziki) jasaten duten krisialdi ekonomiko larrian datza batere zalantzarik gabe.

D) EUSKALDUNEN KOPURUA

Ezina zaigu, zoritxarrez, euskaldunen kopuru zehatzik ematea, nahiz eta datu hau guztiz beharrezkoa izan gure lan honetarako. Oraindik ere, Yrizarrek bildutakoak dira oinarritzat har ditzakegunak:

IV. TAULA
PROBINTZIAZ PROBINTZIAKO EUSKALDUNEN BANAKETA (25)

Probintzia	Euskaldunak	Probintziako bizilagunen %	E.H.ko euskaldunen %
Araba	18.900	7,24	3,16
Bizkaia	172.200	14,26	28,84
Gipuzkoa	276.900	39,08	46,38
Lapurdi	39.500	21,19	6,61
Nafarroa	51.100	9,81	8,56
Nafarroa Beherea	27.000	77,70	4,52
Zuberoa	11.000	71,41	1,84
GUZTIRA	596.900	20,35	100,00

(25) YRIZAR, Pedro de, "Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico", Contribución a la dialectología de la lengua vasca (I. vol.), Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1981, (173-220), 218-219. orr. Probintzia eta Euskal Herri mailako euskaldunen portzentaiak geuk atera ditugu eta beren balioa, pentsatzekoa denez, guztiz behin-behinekoa da.

Izan ditzakeen akats guztiak gorabehera, Yrizarren hauxe dugu Euskal Herria bere osotasunean hartzen duen lan bakarra eta, bestalde, ez da alde haundiegirik agertzen SIADECO taldeak (SIADECO, Hizkuntz borroka Euskal Herrian, Ediciones Vascas, Bilbao, 1979, 68. orr.), 1975ean, Hegoaldeko lau probintzietarako bildutako emaitzekin:

Araba 18.863 (7,9%)
 Bizkaia 174.366 (15,1%)
 Gipuzkoa 307.279 (45,0%)
 Nafarroa 53.340 (11,0%)

Ruiz Olabuénagak (RUIZ OLABUENAGA, José Ignacio, Atlas lingüístico vasco, Gabinete de prospección sociológica. Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1984, 21 eta 101. orr.), bere aldetik, emaitza hauexek -Yrizarrenetatik ez oso urrun dabiltzanak- dakartza:

Araba 9.786 (3,80%)
 Bizkaia 172.314 (14,54%)
 Gipuzkoa 266.779 (38,55%)
 Guztira 448.875 (21,04%)

V. TAULA
EUSKAL HERRITIK KANPOKO EUSKALDUNAK (26)

Madriren	10.000
Bartzelonan	3.000
Estatu espainiarreko gainontzeko lurraldeetan	27.000
Estatu frantziarreko gainontzeko lurraldeetan	17.000
Beste Estatu batzutan	45.000
GUZTIRA	102.000

Beraz, eta Yrizarren emaitzen arabera, Euskal Herrian diren euskaldunei atzerrikoak erantsiko bagenizkie, 700.000 ingurura helduko litzateke euskaldunen kopurua.

Emaitzok, baina, besterik ere erakusten dute: Gipuzkoan eta Bizkaian euskaldun guztien 75,22 %a bizi da eta Gipuzkoak, berak bakarrik, euskaldungoaren 46,38 %a biltzen du. Bestalde, Zuberoak eta Nafarroa Behereak, euskaldun kopuru handiak izan arren (71,41 % eta 77,70 % hurrenez hurren), euskaldun guztien 1,84 %a eta 4,52 %a baizik ez dute biltzen.

(26) YRIZAR, Pedro de, "Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico. Apéndice: Estimación de los vascófonos que residen fuera de la zona de habla vasca", *Contribución...*, op. cit., (223-237), 236. orr.

I. ATALA
HIZKUNTZAZ KANPOKO INDARREN ERAGINA

I. HIZKUNTZAZ KANPOKO INDARREN ERAGINA

1.1. INDAR BANATZAILEEN ERAGINA

1.1.1. EUSKAL HERRIA HERRI PUSKATUA

Euskaldunak banatuta, erakunde politiko ezberdinei lotuta, elkarrekiko harremanik gabe askotan eta, elkarren aurka maizegi, azaldu ohi dira beren historia luzean zehar. Euskal Herriaren orografia menditsuak, elkarren arteko komunikabideak zailtzen zituelarik eta, honekin batera, haran bakoitzak gorde izan duen nortasun eta autonomia maila garaiak, laguntza bikaina eman diete Herri honen zatikatze eta puskatze indarrei.

Erdi Aroan, eta kanpoko etsaiei aurre eman beharrak horretaraturik, nola edo hala bildu eta elkartuko zituzten erakundeak sortzeari ekingo zioten euskaldunek, ondoriorik nabarmenena nafar Erresuma izango zelarik. Alabaina, bere unerik distiratsuena 1000-1035 bitartean, Santxo Gartzes III “Handia”-ren garaian, izan ondoren, Errege honen hiltzearekin ahulduz eta itzaliz joango da hurrengo mendeetan barrena.

IPAR EUSKAL HERRIA 1789KO IRAULTZA ARTE

Nafar Erresumaren inguruan egon ondoren, 1154. urtean, eta Akitaniako Aliénorrek Henri II Plantagenet Erregearekin eginiko ezkontzaren bidez, bai *Lapurdi* eta bai *Zuberoa* Ingalaterraren eskuetara aldatuko dira eta, horrela iraungo, harik eta Aiherrako Hitzarmenaren ondorioz (1451), Lapurdi lehenik eta Zuberoa gero, frantziar Koroari lotuko zaizkion arte.

Lapurdiri dagokionez esan beharra dago, 1174an, Baiona Lapurditik bereizia izango zela eta horrela iraungo 1789ko Iraultza arte, bien bitartean Lapurdiko hiriburu Uztaritze izango zelarik.

Nafarroa Behereaz den bezainbatean, Nafarroaren seigarren merinaldea osatzen zuen, garaiko lekukoetan “Tierras de Ultrapuertos” izenarekin agertzen dena alegia.

1512an Gaztelako Fernando "katolikoa" nafar Erresumaz jabetuko da eta, gorabehera zenbait izan ondoren, 1530ean, Espainiako Carlos I-ak, Albret-tarren eskuetan utziko du merinalde hori, gainontzeko lurralde nafarretatik bereiziz.

Henri III, ordura arte Biarnoako eta Nafarroa Behereko Errege zena, Frantziako Errege bilakatzen delarik, hala Biarnoa nola Nafarroa Beherea frantziar Koroari lotuko zaizkio, harrez geroko erregeak "Rois de France et de Navarre" deituko direlarik. Erregearen pertsonan gauzatuko zen lotura horrek 1620ra arte iraungo du, Louis XIII-k, Pabera etorririk, "Edit d'Union" delako erabakiaren bitartez Nafarroa Beherea eta Biarnoa frantziar Koroari –nahiz eta Foruak errespetatuko diren promesapean– erabat atxikitzen dizkion arte alegia.

Azpinarragarria da, halaber, 1659ko uztailaren 11n burututako "Pirineotako Hitzarmena", zeinaren bidez Pirineo mendien alde bateko eta besteko lurralde bereizteko lehen oinarriak finkatu bait ziren (1).

HEGO EUSKAL HERRIA XIX. MENDERA ARTE

Nafar Erresuma ahulduz eta Gaztela indartuz joan ahala, Hegoaldeko euskal probintziak haren ingurutik honenera aldatuko dira. Gipuzkoa izango da lehena, 1200ean; Araba ondoren, 1332an eta Bizkaia azkenik, 1379an. Probintzia bakoitzak, beraz, bere bidea darama, baina probintzia bakoitzaren barruan ere, bestalde, lokarriak ez dira gauregun izan daitezkeen bezain estuak.

Bizkaiari bagagozkio, jakina da Enkarterriek zein Durangoko merinaldeak antolaketa politiko berezia, beren lege, foru eta guzti, luzaroan izan zituztela. Bizkaia osatuko duten lurraldeen batasun bilakaerari Erdi Aroan ekingo zaio eta ez da 1785era arte, harik eta Orozkoko harana bilduko den arte, burutuko. Bizkaia, beraz, Uribe, Busturia, Arratia, Zornotza eta Bediako merinaldeek osatzen zuten hasiera baten.

Zabalak dioenez (2), Enkarterriek, Bizkaiari XIII. mendean bilduko zaizkion arren, autonomia handia gorde omen zuten 1803ra arte, nahiz eta ezin omen daitezkeen Enkarterriak bere osotasunean har, zenbait Kontzeju, Santurtzi eta Gordoxola esaterako, betidanik ageri bait dira Bizkaiari loturik.

Durangoko merinaldeak, Bizkaia nafar Erresumatik bereizi eta Gaztelarekin bat egin ondoren ere, Nafarroari atxikirik iraungo du eta, beranduago ere, nahiz eta

(1) Muga finkatze hori ez zen, hala ere, bapatean eta zehatz-mehatz erabekiko eta, adibide gisa, hor danda Nafarroa eta Nafarroa Beherearen artean –Kintoko lurretan batez ere– luzaroan iraun duten itzulak. Hainbat berri jakingarri erakusten dizkigu honetaz Descheemaeker-ek eta lan hanetan bereiziki: DESCHERMAEKER, Jacques, "Le Pays-Quint", E-J, I (1947), 63-95. orr.; "Le Statut du Pays-Quint", E-J, I (1947), 213-229. orr.; "Les Faceries pyrénéennes et du Pays Basque", E-J, I (1947), 355-393. orr. eta "La question d'Ondarrolle", E-J, III (1949), 237-261. orr. Oinarri-saio: BIDART, Pierre, *Le pouvoir politique à Baigorri village basque*, Iper, Bayonne, 1977.

(2) ZABALA, Federico, *Euskal Herriaren historia*, Mensajero, Bilbao, 1971, 168. orr.

Bizkaiari erantsita egon, autonomia maila garaiari eutsiko omen zion gutxienik 1628ra artekoan (3).

Arabari dagokionez, bere ardatza Arabako Lautada zuela dio Azaolak (4). Gaurregungo Errioxa Arabarrak Nafarroaren esku iraun zuen luzaroan eta Laudio, Aramaio eta Aiara, azkenik, ez ziren XV. mendera arte Arabarekin batuko.

Gipuzkoan antzerako egoera dakusagu. Probintzia honen mendebaleko lurraldeak XV. mendera arte Gipuzkoatik bereizirik aurkitzen dira. Gorosabeli jarraituz (5), 1496an, Tolosan bildutako Batzar Nagusietan, hartu omen zen Gatzaga Gipuzkoarekin elkartzeko erabakia eta, urtebete beranduago, Bidanian bildutako Batzarretan, Leintz ibarreko gainontzeko herriek ere erabaki berbera hartu omen zuten.

Oñatik, azkenik, XIX. mende erdialdera arte, Arabako Gebaratarren jaurreria osatzen zuen eta Gipuzkoarekiko erabateko lotura ez zen 1845eko urriaren 9ra arte burutuko (6).

Azaolak, gaurregun ere bizirik dirauen egoera juridiko eta politiko nahasi horren aurrean, ohar hauxe egingo du:

“(…) es de notar que rara es la zona de la Península donde existen tantos enclaves como en el país vasco: Trucíos, perteneciente a la provincia de Santander, se halla enclavado en Vizcaya; Treviño, que forma parte de la provincia de Burgos, lo está en el centro de Alava; la ciudad de Orduña, vizcaina, lo está a su vez entre Alava y Burgos; Petilla de Aragón y el Baztán de Petilla, que forman parte de Navarra, son dos islotes en tierras de Zaragoza. (...)” (7)

IPAR EUSKAL HERRIA 1789KO IRAULTZAZ GEROZTIK

1789ko Iraultzaren ondorioetariko bat frantziar Estatu guztirako administrazio eta lege gintza bakarra ezartzea izan zen, ordura arte zenbait herri eta probintziak izandako pribilegio bereziak baliorik gabe utziz. Honela euskaratuko du Yon Etxaide-Ithartek, 1789ko agorriaren 4an, Versaillesko Batzarrean onartu ziren erabakietako 10. artikulua:

“Probintzientzat mesedegarriago iritziz Erresuma Oinlege edo Nazio –Konstituzio bat eta herri– libertatea, euretako batzuek gordetzen

(3) ZABALA, Federico, *Euskal Herriaren historia*, op. cit., 170-171. orr.

(4) AZAOLA, José Miguel de, *Vasconia y su destino* (II). Los vascos ayer y hoy (I vol.), Ediciones de la Revista de Occidente, Madrid, 1976, 208. orr.

(5) GOROSABEL, Pablo de, *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* (II vol.), La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1972, 17. orr.

(6) GOROSABEL, Pablo de, *Noticia...*, op. cit., (I vol.), 416. orr.

(7) AZAOLA, José Miguel de, *Vasconia y su destino* (II). Los vascos ayer y hoy (I vol.), op. cit., 152. orr.

dituzten salbuespenak baiño, beroiek sakrifikatu beharra premiazkoa da, Inperioko parte guzieren batasun mamizkoa egiteko. Honetxegatik jakin-erazten dugu probintzia, herrialde, kantonamendu, hiri eta bizilagun batzen salbuespen bereizi guziak, diruzkoak edo beste era batekoak izan daitezela, suntsituak gelditzen direla atzera egin ezizifik eta frantsez guzieren eskubidetza komunean nahasiko dira". (8)

1790eko otsailaren 26an Estatu frantziarra 83 departamendutan zatikatzea erabakiko da. Horiatariko batean –"Basses Pyrénées" deituan (9)– bilduko dira Lapurdi, Nafarroa Behera, Zuberoa, Baiona eta Bidaxune (10), baina euskal probintziokin batera bertan izango da Biarnoa ere, Departamenduko hiriburua, gainera, Paben izango delarik (11).

Departamendu hau bost arrondizamendutan bereiztea erabaki zen: Pabe, Ortese, Olorone, Baiona eta Maule. Euskal Herria, beraz, Baiona eta Mauleko arrondizamenduetan bildu zen, azken honetan, Donapaleu, Iholdi, Donibane-Garazi, Baignori, Maule eta Atharratzeko kantonamenduak zeudelarik. 1926an, baina, Ortese eta Maulekoa ezabatuak izango dira eta harrez geroztik, Lapurdi eta Nafarroa Behereko kantonamenduak Baionako arrondizamenduan bilduko dira, eta Maule eta Atharratzekoak, berriz, Oloronekoan. Honek, Zuberoaren atzerapen ekonomikoa sakontzeaz gainera, Iparraldeko euskal probintzien zatiketa berri bat ekarri du.

(8) FAGOAGA, Isidoro, Domitxu Garat Biltzarraren defentzallie, Mensajero, Bilbao, 1979, 77. orr.

(9) 1969tik aurrera "Pyrénées-Atlantiques" izena emango zaio.

(10) Baionak bezala Bidaxunek ere, beste hamar parropiarekin batera, nolabaiteko nortasuna izan zuen 1789ra arte.

(11) Erabaki honen aurka gogor eraso zuten Garat anaiek, Lapurdiko Biltzarraren ordezkariak, arrazoak nagusitatzat bi herriok zerabilzaten hizkuntza ezberdinak jotzen zutelarik. Honela euskaratu dizkigu Etxaidek, Dominique Garatek 1790eko urtarrilaren 12an egin Batzarrean esandakoa:

"(...) Hizkuntza bereiztasuna eragozpen mendera-erazten da. Proposatzen zaizuen batasuna fisikoki eta moralki ezitezkoa da. Batzuk hizkuntza batean eta besteek bestean ari diren gizonak bildu: zer nahi duzue erran dezaten? Banantzen amaituko dute Babel dorreko gizonak bezala! (...)" (FAGOAGA, Isidoro, Domitxu Garat..., op. cit., 97. orr.)

Joseph Garatek, berriz:

"Gauza ezaguna da gurearen hauzoko eskualde gaskoifetan eta frantsetan, euskara ikastea ezizina dela, ez baldin ba" da oso gaztedanik bizitzen probintzia honetako bizilagunekin. Esatera da ere deabrua, euskaldunen artean bizitzen jarri zelarik euren hizkuntza ikasteko, ezin burutu izan zuela bere eginkizuna... Esatera honek far egin-erazten dizue, baitan egia sakon bat gordetzen du bere baitan. Atsotitzak erresumen jakinduria dira. Ezago hizkuntzarik euskarak eta biarnesak adifitako liferentziarik erakusten dutenik. Italianuak, alemanak eta ingelesak beren iturburu komuna lortzean eta lfar hizkuntzatan dute. Euskara egiazko hizkuntza atikarra da. (...)" (Ibidem, 98. orr.)

Esan dezagun, amaitzeko, etniaz, kulturaz edo hizkuntzaz ezberdinak diren herriak Departamendu berean sartzea ez dela euskaldun eta biarnesen kasuan bakarrik gertatu. Joku politiko berbera dakusagu Pyrénées-Orientales-etako Departamenduan, bertan, Kataluniarekin batera, Fenouillèdes okzitaniarrek bait daude.

Iraultzaz geroztik Frantziak ez du batere aldatuko gutxiengo nazionalekiko politika: ezikusi egingo du eta, hori ezinezkoa zaionean, indarrez zanpatzeari ekingo. II. Nazioarteko Gerra ondoren, ordea, taktika aldaketa bat soma daiteke. Eskualdeek Frantziako bizimodu ekonomikoan leku zabalagoa izan dezaten nahi da. Eskualdekatze hau goitik behera –Paristik alegia– egin nahi da, bitarteko bezala Prefektuaren figura sortuz. Eskualdeei helburu funtzional soila eman nahi zaie, garapen ekonomikoa bideratzeko tresna huts bilakatuz. Aldaketa taktiko honen adierazpenik nabarmenena de Gaulle jeneralak, 1969ko martxoaren 25ean, Lyongo Erakustazokaren inaugurazio egunean, eginiko hitzaldia da zalantzarik gabe. Bertan, besteak beste, honako hau esango zuen:

“L'évolution générale porte en effet, notre pays vers un équilibre nouveau. L'effort multiséculaire de centralisation, qui fut longtemps nécessaire pour réaliser et maintenir son unité malgré les divergences de provinces qui lui étaient successivement rattachées, ne s'impose plus désormais. Au contraire, ce sont les activités régionales qui apparaissent comme les ressorts de sa puissance économique de demain. (...)” (12)

Hitzaldi honek zirrara eta egonezin bizia sortu zuen Frantziako bizitza politikoan. De Gaullek, hala ere, aurrera eramanez nahi izan zituen bere asmoak eta, 1969ko apirilaren 27an, Erreferendum baterako deia zabaldu zuen. Bi ziren Erreferendum horretan egiten ziren galderak: eskualdekatze politika, batetik, eta Senatuaren aldaketa, bestetik. 157.521 botutako aldeagatik atera zen galtzaile eta, porrotaren aurrean, dimititu beharrean ikusi zuen bere burua (13).

Deszentralizazioaren auziak, dena dela, bizi-bizirik jarraituko du eta, 1972ko uztailaren 5ean, “Réforme régionale”-ari buruzko lege bat aldarrikatuko da. Zuhurtasun handiz, “petits pas” gisako politika bat eramanez, jokatu nahi da, Frantzian hain ongi sustraiturik dagoen tradizio zentralista saihestearren. Lege honek ez dakar, alabaina, aldaketa sakonik: “contribuer au développement économique et social de la région” (4. art.) dio soil-soilik. Lege hau 1974. urte hasieran sartuko da indarrean.

1979an, Giscard d'Estaing presidentearen agintaritzako azken epean, indar berriz piztuko da eztabaida eta, Alderdi Sozialista agintera igon ondoren, 1982ko martxoaren 2an, “Loi relative aux droits et libertés des communes, des départements et des régions” delakoa aldarrikatuko da. Lege honen arabera, ordura arte Estatuak erakunde txikiagoekiko (komuna, departamendua, eskualdea) zeukan babes

(12) “Les présidents et la décentralisation”, Les Cahiers français, n° 204, janvier-février 1982, (42-46), 42. orr.

(13) Argi utzi beharra dago, haatik, bigarren galderarekin, Senatua aldatzearen proposamenarekin alegia, eta ez lehenarekin, galdutako de Gaulle Erreferenduma.

murriztu egingo da eta, aurrerantzean, Eskualdeak bere nortasun juridikoa, bere kompetentzia, baliabide eta zerbitzuak izango ditu (14).

Ipar Euskal Herria, proiektu horretan, Akitaniako eskualdearen barruan agertzen da. Bertan, Dordofia, Gironda, Lot-et-Garonne, Landak eta Pirineo-Atlantikoak aurkitzen dira, hiriburutzat Bordele dutelarik.

1960az geroztik euskal Departamendu bat sortzeko eskabideak plazaratzen hasiko dira. 1971n, Iparraldeko garapen ekonomikoa sustatu nahirik, G.E.T.I.S. (Groupe d'Étude et d'Initiative au Service des Pays de l'Adour) Elkargoak eskualde berri bat eraikitzea eskatuko zuen: "Pays de l'Adour" deituko zena (15). Beronen helburuen artean, Baionako Merkatal Ganbararen eragina Zuberoara ere hedatzea, Hegoaldeko probintziekin harremanak sendotzea ("région Adour-Vasconia" sortuz) eta Parisekiko autonomia maila handiagotzea aipatzen ziren.

1975eko irailaren 3an Batasun bat ere sortu zen asmo hori bultzatzeko, baina batzuen epelkeriagatik eta besteek somatu uste duten separatismo arriskuagatik lehengoan dirante gauzek, hauteskunde bakoitzaren atarian horretarako promesak eta hitz onak falta izaten ez diren arren.

HEGO EUSKAL HERRIA XIX. MENDEAZ GEROZTIK

Hegoaldean, XIX. mendean geroztik, Nafarroaren eta gainontzeko hiru probintzien artean jazotzen den haustura da gertaerarik azpimarragarriena. Nafarroak, beste hiruren neurri berean jasan bazituen ere 1839ko urriaren 25eko (hots, Lehen gerrate karlista amaitu zeneko) Legearen ondorioak, 1840ko ekainaz geroztik bere kasa jarraitu zien, 1839ko Legearen 2. artikuluan oinarrituz, Madrilgo Gobernuarekiko negoziaketeki. Zatiketa, dena dela, ez omen zen erabatekoa izan eta, María Sagrario Martínezek dioskunez (16), 1866an, beste hiru probintziekiko hurbiltze politika bati ekin omen zion nafar Diputazioak eta, bereziki, hiru helburu

(14) Aurrera baino lehen, zenbait iruzkin egin nahi genituzke deszentralizazioak Frantzian daukan osanahiaz. Proiektu guztiak, batetik, Parisen eginak datoz. Bigarrenik, ez dira nazionalitateak eta nazionalitateon berezitasunak aintzakotzat hartzen eta erizpide berberak daude Eskualde guzientzat. (Salbuespen bakarra Korsikarena da, honek autonomia berezia bait dauka, baina berezitasun horren arrazoiatariko bat beraren egoera geografikoan egon daitekeela uste dugu).

Eskualdeek, hirugarrenik, helburu ekonomikoak dituzte beren oinarrian. Azken baten, ekonomia era arrazionalagoan egituratzeko, eraginkortasun handiagoa eta kompetitibitate maila gariagoa erdiesteko sortuak daude. Departamenduaren eta Estatuaren arteko zubi dira eta euren aurrean dagoen Prefektuak Estatuaren ordezkari izateko batetik, eta, bestetik, Eskualdeko Kontseiluaren erabakiak betetzeko zeregina izango du.

(15) MALHERBE, Jean-Paul, "Le nationalisme basque et les transformations socio-politiques en Pays Basque nord", *La nouvelle société Basque. Ruptures et changements*, Editions l'Harmattan, Paris, 1980, (51-84), 80-81. orr.

(16) MARTINEZ BELOQUI, M^a Sagrario, "Las relaciones entre la Diputación navarra y las provincias vascongadas en 1866", *Eusko Ikaskuntzaren IX. kongresoa, Eusko-Ikaskuntza*, Bilbao, 1983, (463-465), 463. orr.

hauek lortzearren: a) lau probintzientzako Unibertsitatea eraiki; b) lau probintziak Irufieko Entzuteigira bildu eta, c) ekonomi arloan zenbait harreman ezarri (17).

Baina harrez gero badira probintzien arteko ezberdintasunak areagotuko dituzten gertaera bi. Alde batetik, 1876ko uztailaren 21eko (hau da, II. Gerrate Karlista amaitu zeneko) Foru sistemaren ezabatzea ez da Nafarroan indarrean sartuko (18) eta, bestetik, XIX. mendean emango diren desamortizazio legeak askozaz ere bigunagoak izango dira Nafarroan eta, honen ondorioz, nafar nekazariak —eta gauza bera esan daiteke nafar karlistez— beste probintzietakoek baino jarrera atzerakoia goei eutsiko diete.

XX. mendera etorritik, 1932ko ekainaren 19an, eta euskal Estatutuaren proiektua onartzeko Erreferenduma egiten delarik, nafar udaletxe gehienek —123k guztitara— ezezkoa emango diote eta 109k bakarrik baiezkoa. Erreferendum honek eragin handia izango du etorkizunean, Hegoaldeko lau probintziak Estatutu bakarraren barruan biltzeko asmoa amets hutsetan geratuko bait da.

1936-39ko Gerra Zibilean areagotu egingo da urruntze hau, Bizkaiak eta Gipuzkoak Errepublikaren legalitatea onartuko duten bitartean (19), Araba eta Nafarroa Franco jeneralaren Altxamendu militarren alde aterako bait dira.

Gaurengungo egoerari dagokionez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak Euskal Lurralde Autonomoa osatzen dute eta Nafarroak, bere aldetik, Nafarroako Foru Komunitatea (20).

(17) Martínez Beloquik berak esango duenez (*Las relaciones...*, op. cit., 464-465. orr.), baina, "navarrismoa" pizturik, eta era horretako harremanak eragozteko prest, omen zegoen ordurako.

(18) Hala ere, 1841eko agorriaren 16az geroztik, "Ley Paccionada" sarturik zegoen Nafarroan indarrean. Honela azaltzen ditu Ardaizek (ARDAIZ, Josu, Navarra. Elementos para su estudio regional (I), Eusko Ikaskuntza, Burlada, 1980, 66. orr.) Lege honen ondorioak:

"(...) Esta ley supuso un cambio radical y cualitativo en el porvenir de Navarra, ya que supone el fin de su independencia con desaparición de sus Cortes, Tribunales, moneda, aduanas y en definitiva la conversión automática del Reino en una provincia foral, integrada en la unidad constitucional de España."

Ondorio hauei guk, geure aldetik, beste bi hauexek erantsiko genizkieke: nafarrek armadara joan beharra, batetik, eta urtero Estatuari zerga bat (=donativo foral) ordaindu beharra, bestetik, nahiz eta aurrerantzean ere, autonomia administratibo handia gordeko zuen.

(19) Gerran jasandako porrotaren ondorioz, 1937ko ekainaren 24an Bizkaiari zein Gipuzkoari, "provincias traidoras" izatearen akusaziopean, ukatu egingo zaizkie ordura arte izandako kontzertu ekonomikoko eta autonomia fiskal zein administratiboa.

(20) 1979ko urriaren 25ean onartutako Euskal Lurralde Autonomoko Estatutuaren 2.2. artikuluan era honetara ikusten da Nafarroaren auzia:

"Euskal Herriaren Komunitate Autonomoaren lurraldea Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Herrialde Historikoez osatuko da, bai Nafarroakoarenaz ere, hauek egungo probintzien mugetan hartzen direlarik; eta baldin eta azkeneko horrek Konstituzioaren 4. agindu iragankorrean erabakitzen den prozeduraren arabera partaide izatea erabakitzen badu".

Esan dezagun Konstituzioaren arabera nafar Diputazioaren eta Legebiltzarraren esku uzten dela Komunitate honen etorkizunari buruzko azken erabakia.

Iparraldean euskal departamenduaren auziaz gertatzen zen bezalaxe, Nafarroarekiko batasuna da, Hegoaldean, pil-pilean dagoen korapilo nagusienetako bat. Arzozoa hobeto ulertzearren esan dezagun Espainian egin izan diren eskualdekatze proiektu gehienak (21) ekonomilariet, eta xede ekonomikoet jarraituz, eginak izan direla. Guzti-guztiet, hori bai, erakusten dute beren oinarri eta ikuspegi zentralista. Euskal probintzietara mugatuz, zenbaitetan beren ezaugarri historikoak, etnikoak, kulturalak, etab. aintzakotzat hartzen badira ere, besteetan aldamenetako probintziet (Logroño, Burgos, Santander...) lotuta agertuko dira. Nafarroa, besteetatik bereizirik azaldu ohi da maiz, inoiz Logroñori loturik eta, inoiz, Zaragoza eta Ebroren haranari.

Azaolak (22), Espainian egin izan diren eskualdekatze proiekturik nagusienak aztertzen dituelarik bederatzitan, 4 probintzia historikoak baturik ageri direla dio; zazpitan, 4 probintziet gainera aldamenetako besteren batzuk erantsirik, eta, hamazazpitan –gehienetan beraz–, 3 probintzia bakarrik: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.

Nafarroa da, bada, buruhausterik gehien sortzen duen probintzia:

“Una Navarra separada, constituyendo región por sí sola, aparece solamente en un esquema: el del Informe FOESSA (23). En todos los demás, la encontramos: ora unida a las provincias Vascongadas (nueve veces, (...)) y en siete de ellas, unida al mismo tiempo a otras, limítrofes o no); ora formando parte de regiones así estructuradas:

Navarra y Alava (en un esquema)

Navarra, Alava y Logroño (en dos esquemas)

Navarra, Alava, Logroño y otras provincias no vascas (en un esquema)

(O sea, en suma, con Alava en cuatro esquemas, además de los nueve antes aludidos: total, trece)

Navarra y Logroño (en dos esquemas)

Navarra, Logroño y otras provincias no vascas (en cinco esquemas)” (24)

(21) Denetarik ezagunena 1833an, María Cristinaren erretordetasun garaian, Javier de Burgos ministrariak eginikoa da.

(22) AZAOLA, José Miguel de, *Vasconia y su destino (I). La regionalización de España*, op. cit., 399-400. orr.

(23) Azaola Fundación FOESSA (Fomento de Estudios Sociales y de Sociología Aplicada) delakoak eginiko Informe sociológico sobre la situación social de España (1970) lanaz mintzo da.

(24) AZAOLA, José Miguel de, *Vasconia y su destino (I). La regionalización de España*, op. cit., 400-401. orr.

Beste komunitate batzutan ere izan ohi dira antzerako gertaerak eta, gugandik hurbileko adibide bat aipatzearren, katalan herrietakoa jarriko genuke, bertan ere, eta komunitate hau deuseztearren, eskualde ezberdinetan puskatzeaz eta sakabanatzeaz gainera, gaztelaniaz mintzo diren lurraldeak erantsi izan bait zaizkie: 1836an Villena erantaiko zaio Alacanti eta 1851n Requena Valentziari.

.../...

PUSKAKETA BESTE ZENBAIT SAILETAN

Administrazio sailera ezezik beste hainbatetara ere hedatuko dira Euskal Herriaren zatiketaren eta sakabanatzearen erroak.

a) ELIZA

XI. mendera arte *Arabako Elizbarrutiari* zegozkion Araba, Bizkaia –Enkarterriak izan ezik, hauek Valpuestakoari lehenik eta, XII. mendez geroztik, Burgoskoari bait zegozkion– eta Gipuzkoako mendebaldea (25). 1091n *Kalagorriko Elizbarrutiak* irentsiko zuen Arabakoa eta honelaxe iraungo 1861era arte.

Gipuzkoa eta Nafarroaren gehientsua *Iruñeko Elizbarrutiari* zegozkion.

Bidasaldeko herriak (Hondarribia, Irun, Lezo, Pasaia, Erreterria eta Oiarzun), Baztan, Bertiz eta Leringo haranak, Bortziriak (Arantza, Etxalar, Bera, Lesaka eta Igantzi) eta Urdazubiko abadia *Baionako Elizbarrutiaren* menpe egon ziren (26). 1566ko apirilaren 30ean, Gaztelako Felipe II-k Pio V Aita Sainduarengandik eskuratutako Bulda baten bidez, lurralde guzti hauek, Luzaiderekin batera, Iruñeko Elizbarrutira aldatzea lortu zuen.

Tuterako Elizbarrutiak, bestalde, Nafarroako hamalau parrokia hartzen zituen bere esku.

.../...

Honen xedea, Fusterrek adieraziko duenez (FUSTER, Joan, *Nosaltres els valencians*, Edicions 62, Barcelona, 1977, 114. orr.), honako hauxe zen:

“(...) Tant l'una cosa com l'altra anaven adreçades a sufocar el nervi català de la regió, compensant-lo amb l'augment del sector castellà, o dissolent-lo en un còctel territorial més ampli. Seran els liberals del Vuit-cents els encarregats de procurar-ho. (...)”

Fusterrek berak XIX. mendeko eskualdekatze politikaz zera dio:

“(...) Els moderats del 1874 imaginaren una “regió” que incloïa les tres províncies valencianes, més la de Múrcia i Albacete. En 1884 el propòsit encara era més absurd: una “regió” abraçaria les províncies de Castelló de la Plana i de València, amb les de Conca i Terol, i una altra la d'Alacant, amb les de Múrcia i Albacete. En 1889 hom resuscitava el model del 1847. En tots els casos el perfil del País Valencià quedava destruït. (...)” (Ibidem, 117. orr.)

Eta beheraxeago:

“De tot això ha sorgit, últimament, una altra etiqueta deformadora: la de *Levante*. (...) Ningú no ignora que un dels dissenys que l'animen és, precisament, el de retirar de la circulació el terme “valencià” per a qualificar el país. Al mateix temps involucra en la seva ambigüetat més terres que les estrictament valencianes. Hom voldria restringir el genèric comú a la sola província de València (...). Però, sobretot, hom voldria acollir en la denominació *Levantina* la província de Múrcia i no sé si també la d'Albacete. (...)” (Ibidem, 118. orr.)

(25) Gorosabelek dienez (GOROSABEL, Pablo de, *Noticia...*, op. cit., (II. vol.), 363. orr.), Leinzko artzapezategia, Elgoibar eta Oñatiko bikaritzak eta Astigarribiako eliza (Antzuolatik Eibarrerainokoa biltzen zuena) aurkitzen omen ziren lehenik Arabako eta gero Kalagorriko Elizbarrutia izango zen horretan.

(26) MUGICA, Serapio, “El obispado de Bayona con relación á los pueblos de Guipúzcoa adscritos á dicha diócesis”, RIEV, VIII (1914-1917), 185-229. orr.

Esan beharra dago, orobat, Jaka, Santander eta Tarazonako Apezpikuek eta Zaragozako Artzapezpikuak beren jurisdikziopean izan dituztela zenbait euskal lurralde.

Iparraldeko probintziak hiru elizbarrutitan bananduta egon izan dira 1801era arte: Lapurdi eta Nafarroa Beherearen mendebaldea Baionako Elizbarrutiari zegozkion; Nafarroa Beherearen ekialdea, berriz (hau da, Amikuze, Landibarre eta Ozti-barreko eskualdeak), *Akizekoari* eta Zuberoa, azkenik, *Oloronekoari*.

b) UNIBERTSITATEA

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa *Valladolideko Unibertsital barrutian* egon izan dira harik eta 1969an *Bilbok* bere barrutia euki zuen arte. Nafarroa, ostera, *Zaragozakoan* aurkitzen da.

Euskal Lurralde Autonomoa sortzearekin batera beraren Unibertsital barruti berezia ere sortuko zen, Nafarroa, pentsatzekoa denez, kanpoan geratu zelarik.

Iparraldea *Bordeleko Akademiari* dagokio, nahiz eta hemen lau unibertsitate dauden, hiru Bordelen eta laugarrena Paben.

c) JUSTIZIA

Antzina Araba eta Bizkaia *Burgosko Lurralde Entzuegiari* zegozkion bitartean, Gipuzkoa eta Nafarroa *Iruñekoari* zegozkion. Azken honek berdin badirau ere, Araba eta Bizkaia *Bilbokoari* dagozkio gaurregun.

Iparraldean ohizko zatiketa dakusagu: Lapurdi eta Nafarroa Beherea *Baionako Tribunal de Grande Instance* delakoari lotuak daude eta Zuberoa, berriz, *Pabeoari*.

1984an Tribunal de Première Instance bat sortu zen *Donapaleun* (27).

d) BESTERIK

Iparraldeari mugatuz, behin eta berriz agertzen zaigu Zuberoa beste bi herrialdeetatik bereizirik. *Baionako Merkatal Ganbarak* Lapurdi eta Nafarroa Beherea bere esku dituen bitartean, *Pabeoari* dagokio Zuberoa. Bestalde, Sud-Ouest egunkariak Lapurdi eta Nafarroa Beherearentzat edizio berezia plazaratzen duelarik Biarnokoan azaltzen da Zuberoa.

EGOERA HONEN ONDORIO ZENBAIT

Mendez mende eta sail guztietan gertatu den zatiketa eta sakabanatze hau nahitaz isladatu behar euskaldunek beren herri eta herritarrekiko izan dituzten jarretan. Gure aburuz ez da, adibidez, batere harrigarria, baina bai oso adierazgarria, Satrustegiren egiaztapen hau:

(27) Auzitegi hau ez da, dena den, lehen aldiz sortua, aurretik ere, Mauleko arrondizamendua bazelarik, bizirik bait zegoen.

“Etnografian ikusten ditugun Sakanako ipuiek, lapur eta jende kaltegarria dela diote Gipuzkoa aldekoa. Aralarko behi, zerri eta ardi ebaslea. Ez du etxe erretzen eta jende hiltzen kupidarik. Badaki azpitik sartzen ziria. Hori da tikitatik ikasi duguna.

Aldameneko herrien arteko kontuak, esango du norbaitek. Hori ere bai, noski; baina, sakonagoko beste zerbait badago. Araba ere aldamera du Sakanak, eta ez da ikusten hainbeste tirabiraka.” (28)

Jarrera horiek, gainera, bizitzako arlo guztietan, hizkuntza barne, izango dute beren oihartzuna, bestek ere, guk baino askozaz lehenago, salatuko zutenez:

“(…) este individualismo de los vascos ha sido ultrafunesto á la raza. El ha sido el culpable de que, hasta estos últimos tiempos, no haya existido entre los euzkos el sentimiento de la total Patria vasca. El individualismo *individual* ha sido la rémora y el obstáculo del individualismo *racial*. La Tradición histórico-política de nuestra raza nos ofrece el espectáculo del estadito de Oñate, del estadito de Orozko, etc., la atomización política de un pueblo de suyo muy reducido ya; pero no hemos conseguido constituir el Estado Vasco, uno y único, ni siquiera la confederación de todos los estados vascos; de aquí nuestra decadencia política.

(…) El mayor obstáculo que ahora se opone al renacimiento del idioma y de las letras vascas ¿no procede de la división y subdivisión de nuestra lengua en tantos dialectos, subdialectos y variedades que parece imposible pueda llevarse más allá el atomismo de un idioma? Pues aquí tenemos á nuestro ensalzado individualismo, que si no produjo, propiamente hablando, la división, trabaja, por lo menos, con todas sus fuerzas para conservarla: encastillase cada vasco en la torre de marfil de su variedad local, y para él no hay más Euzkera que el suyo; ni se toma el trabajo de escuchar á los de otra variedad. ¡Así somos, por obra y gracia del individualismo!” (29)

(28) SATRUSTEGI, J. M., “Nafarroaren ordua”, *Jakin* (1978), 6. zb., (12-21), 14.orr.

(29) E'iar k., “Estudios sobre el país vasco”, *Euzkadl*, VII (1910), Irañ-Urñla, 5. zb., 393. orr.

Oñatiko adibidea dela eta, hona hemen Villasantek, Añibarroren Voces bascongadas-i (ANIBARRRO, Fr. Pedro Antonio de, Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Gulpuzcoa, y Navarra con la distincion que las usa cada Nacion, anotadas con sus letras iniciales B. G. N.; y quando es comun á todas, precede una C, Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 1963, 11. orr.) egin hitzaurrean dioena:

“(…) Tan es así que aun Oñate, desde el momento que tenía personalidad política distinta, podía aspirar al cultivo literario de su habla local, como lo vemos en algunos inéditos de la época, de Pedro Arrazola, en los que se echa de ver que el autor ha querido de intento componer sus libros según el habla local de Oñate”.

Nolanahi ere den, 1535. urtean bertan, eta hizkuntz ezberdintasunaren jatorriaz mintzo zelarik, argi eta garbi zioen Juan de Valdés (VALDES, Juan de, *Diálogo de la lengua*, Espasa-Calpe, Madrid, 1964, 26. orr.):

“(…) digo que dos cosas suelen principalmente causar en una provincia diversidades de lenguas. La una es no estar toda debaxo de un príncipe, rey o señor, de donde procede que tantas diferencias ay de lenguas quanta diversidad de señores; la otra es que, como siempre se pegan algo unas provincias comarcanas a otras, acontece que cada parte de una provincia, tomando algo de sus comarcanas, su poco a poco se va diferenciando de las otras, y esto no solamente en el hablar, pero aun también en el conversar y en las costumbres. (...)”.

.../...

Euskal Herriaz eta euskaraz den bezainbatean Nafarroa eta Zuberoa genituen beste euskaldunengandik urrunden agertzen zitzaizkigunak eta ezin, beraz, guztiz ustekabean inor hartu beren burua egiazko "uskaldun"-tzat eta gainontzekoak, halako gutxiespen zentzu batekin, "manex"-tzat dauzkatenetako *zenbaitek*, Euskaltzaindiaren arauetara jaramonik egiteke, bere kasa jokatu nahi duela jakiteak (30).

.../...

Egundoko zerikusia izango du politika zatikatzaile honek goraxeago aipatu den katalan herrien kasuan, katalanaren batasuna bera zalantzan jartzearainokoa hain zuzen. Hori dela eta, eta "katalan" hitza saihestegatik, "llengua llemosina" bezalako izenak asmatzeari ekin zaio. Honela ikusten da arazo hau Congr s de Cultura Catalana. Resolucions (I. vol.), Pa sos Catalans, 1978, 14-15. orr., liburuan:

" (...)  s per aix  que es crea a cada un d'ells -katalan herrien baitan alegia- un sentiment de particularisme que, en l'aspecte socioling istic,  s la causa principal que la immensa majoria de catalanoparlants creguin i diguin que parlen, segons el seu pa s d'origen, el "valenci ", el "catal ", el "mallorqu ", etc. com a lleng es diferents, essent aix  que, en realitat, fan servir diverses varietats d'una mateixa llengua: la catalana. (...)

Sigui com sigui, aquest fet representa un obstacle a la normalitzaci  de la llengua catalana en el seu conjunt, ja que el reconeixement a nivell popular d'aquesta unitat ling istica  s necessari: a) perqu  es doni una converg ncia dels esforos de tots els Pa sos Catalans a favor de la normalitzaci  del catal ; b) perqu  tota la poblaci  accepti que el catal  sigui el vehicle de comunicaci  entre els nostres Pa sos; i c) perqu  la poblaci  vulgui avenir-se a un procediment que obvi els problemes que puguin sorgir en la comunicaci  provocats per la mateixa variaci  geogr fica de la llengua".

Beste liburuki baten (Congr s de Cultura Catalana. Resolucions (II. vol.), op. cit., 329. orr.), berrito azpimarratuko dira ondorio kaltegarri horiek:

"Un dels problemes que m s preocupen els escriptors quant a la q estio de la llengua liter ria  s la dicotomia constant que se'ls planteja entre un est ndard literari, basat sobretot en el dialecte central del catal  oriental, i l' s del dialecte propi de l'escriptor segons la seva proced ncia.

(...) L'escriptor valenci , rosellon s, mallorqu , menorqu  o eivissenc i tamb  l'escriptor lleidat  (per  en aquest cas en menor grau) pot trobar dificultats reals per tal de ser acceptat pel p blic de la seva contrada d'origen si usa un catal  est ndard. Perqu  el seu p blic pateix la constant manipulaci  dels b nquers locals que neguen la unitat de la llengua catalana i fragmenten la nostra llengua en campanyes que tenen el suport dels poders locals (pol mica d'en Pep Gonella a les Illes, invent del "moss rab" per part del b nquer-barraqueta del Pa s Valenci , etc.).

Davant del problema, els escriptors adopten postures diverses: l'acceptaci  d'un catal  literari est ndard (amb algunes ampliacions a trav s del l xic dialectal propi); l' s exclusiu del dialecte (la qual cosa provoca greus problemes de normativa ortogr fica i sint ctica); o b  la investigaci  lexical dels dialectes i l' s moderat de formes dialectals i d'algunes formes sint ctiques reconegudes.

Aquesta tria respon, moltes vegades, a la intenci  i a les caracter stiques de l'obra. (...)"

Valentzieraren auzi larriaz dagoen bibliografia ugartik bi lan aipatuko genituzke bereziki: SANCHIS GUARNER, Manuel, *La llengua dels valencians*, Eliseu Climent, Val ncia, 1978 (Lehen arg. 1933koa da) eta FERRANDO FRANCES, Antoni, *Consci ncia Idiom tica i nacional dels valencians*, Universitat de Val ncia, Val ncia, 1980.

Alderantziko tesiak ezagutzeko, berriz, egokiena, beharbada, beste hauxe: ADLERT NOGUEROL, Vincent, *En defensa de la llengua valenciana*, Del C nia al Segura, Val ncia, 1977.

Eztabaidarik bizenak eta garratzenak Valentzian jazo -eta jazotzen ari- diren arren, gainontzeko eskualde eta probintzietan ere izan da horrelakorik. Ikus: MELL , Josep, *Informe sobre la llengua catalana*, Magisterio Espa ol, Madrid, 1970, (133-135. orr.) eta, batez ere: NINYOLES, Rafael Lu s, *Idioma i poder social*, Tecnos, Madrid, 1972, (170-180. orr.). Egile berarena: "Las lenguas en el  mbito espa ol", *Biling ismo y biculturalismo*, ICE de la Universidad de Barcelona, Barcelona, 1978, (59-92), 73-75. orr.

- (30) Davant euskaltzainak, Eibarren, 1984ko abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra "Euskara. Euskalkiak" izenburuarekin eginitako jardunaldietan, Zuberoan 1978an, eta Euskaltzaindia nola edo hala alde batera utzirik, zuberearen alde lan egiteko sortu zen "S  Azia" izeneko batasuna aipatzen zuen. (Ikus, orain, trosten horren zatirik nagusiarena: DAVANT, J.-L., "Zuberoa eta batua", *Karmel* (1985-1), 172. zb., (23-38), 30. orr.).

.../...

1.1.2. EUSKARA ETA ADMINISTRAZIOA

Euskara zeregin ofizialetatik baztertuta egona izateak (eta zenbait lurralderen kasuan *oraindik ere baztertuta egoteak* esan beharko) zerikusi erabakiorra izan du beraren bilakabidean. Izan ere euskararen iraganari so egiten badiogu berehala ohar-tuko gara administrazioaren esparruetatik at bizi izan dela beti eta edonon.

NAFAR ERRESUMA

Pentsa genezake erakunde hau, Euskal Herrian bertan sortua izanik, euskaraz baliatuko zela bere eginkizunetarako. Besterik gertatu zen ordea. Hasieran, eta aldamenetako gainontzeko komunitateetan legez, latina erabiliko zen, nahiz eta bizilagunen gehiengoa euskalduna –eta askotan elebakarra– izan:

“Desde luego, los notarios o “escribas” de los documentos tienen conciencia de que las gentes que les rodean hablan una lengua distinta del latín de sus documentos. Esta lengua será calificada de “rústica”, de “vulgar”, de “sórdida”, pero tienen que referirse a ella constantemente para aclarar el texto. Otras muchas veces –las más– introducen topónimos o apodos sin creerse obligados a hacer advertencia alguna, pero de su lectura sacamos la impresión de que su significado era inteligible a todos.(...)” (31)

Baina bigarren epe baten, XII eta XIII. mendeetan alegia, eta aldamenetakoek, latina alde batera utzirik euren hizkuntzak gaitzeari eta jasotzeari ekingo diotenean, Erresuma honetan, euskara barik, nafar erromantzea lehenik eta gaztelania gero hautatuko dira. Hautaketa horretan era bitako arrazoiak ikusten ditugu: hizkuntzari berari dagozkionak batzuk eta hizkuntzaz kanpokoak besteak.

Lehenengoan artean euskararen beraren egitura aipatu behar da. Hizkuntza erromantzeek, azken baten latinetikoak izanik, honen eredia zeukaten euren aurrean. Euskara, aitzitik, eredurik eta hurbileko seniderik gabe aurkitzen zelarik, errazagoa eta erosoagoa zirudien jadanik egokiturik eta gaiturik zeuden hizkuntzez baliatzea.

.../...

Davant jaunak berak guri igorritako gutun baten (1985-03-11n) ñabardura hau egiten zigun:

“Sü Azia” sortu zela Euskaltzaindiaren aurka egiteko ez da arras erran gogo nuena.

Halere holako zerbaiten egiteko gogoa bazen batasun hori asmatu dutenengan. Zuberotar Akademia bat eraiki nahi zuten, zuberoraren berezitasunak zaintzeko eta, nik uste, horien haunditzeko. (Adibidez, “dortoka” erraiteko, “apo-harmatua” (nafarro-lapurdiertatik) gaitzesten zuten, “tortúa” frantsesetik hartuz).

Baina gauza ez zitzairen nahi bezala atera: Biltzar nagusian Batasun berria eskuratu zuten euskalzale gazteek, jaiotzen ari zen bezala.”

- (31) LACARRA, José María, *Vasconia medieval. Historia y filología*, Publicaciones del Seminario “Julio de Urquijo” de la Excma. Diputación Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián, 1957, 12. orr.

Hizkuntzaz kanpoko arrazoioren artean esan dezagun, lehenik, nafar Erresuman erdal lurraldeak ere bazeudela eta lurralde hauexek zirela, hain zuzen, ekonomikoki eta kulturalki aurreratuenak (32) eta, pentsatzekoa denez, Agintean zeudenetarik gehienek hementxe zeukaten –atzerrian ez zeukatenean– beren jatorria.

Nafar erregeek, bigarrenik, eta xede ekonomikoek eraginda, egundoko bultzada emango diote Santiagorako bideari. Burges klasea (merkatari, artisau, ostalari...) sortzearen okzitaniar jatorriko etorkinak erakarriko dituzte. Etorkin hauek XI. mendearen bigarren erdialdean iritsiko dira nafar lurraldeetara, Jaka, Zangoza, Iruñea, Gares, Lizarra, Orreaga eta abarretan kokatuz eta, handik lasterrera, bertako agintariek emandako babesari esker, goi mailako zereginak betetzen ikusiko ditugu (33).

Okzitaniar inmigrazio honekin batera clunyar fraideak ere erakarriko dira. Jokabide honi Santxo Handiaren garaian emango zaio hasiera eta honen seme Fernando eta, batipat, haren iloba Alfonso VI-rekin jarraituko. Clunyar fraideok ere eragin handia izango dute nafar Erresumako bizitza erlijiosoan nola politikoan.

Nafarroan aurkitzen dugun hirugarren multzoa juduena da. Nafar erregeek juduok babestearen aldeko jokabide nabarmena agertuko zuten:

“(...) El rey –Alfonso VI-az ari da– necesitaba pobladores, comerciantes, maestros de oficios, hombres de cultura. (...) Por eso ocuparon cargos de gobierno y de hacienda como recolectores de pechas.(...)” (34)

(32) Errioxari, bereziki, zego-kion X. mendean lehentasun hori. Mende honetantxe eraiki zuen Santxo Gartzes I-k San Martín de Albeldako monastegia, Donemiliagakoarekin batera Errioxako kultur gunerik nagusiena izango zena. Naiara izan zen, bestalde, nafar erregeen egoitza. Nafarroa barruan, berriz, hegoekialdeko lurraldeak –ordurako erdaldunduak– ziren aitzinatuenak.

(33) Okzitaniar etorkinak beste zenbait lurraldetan ere (Huesca, Zaragoza, Logroño edo Burgozen esaterako) kokatu ziren arren ez zuten inon Nafarroan besteko eraginik izan. Hizkuntzaz den bezainbatean, gainontzeko lurraldeetako agiri eta izkribuetan okzitaniararen aztarnak nabarmenak badira ere, Nafarroan, eta batipat 1.230-1.380 bitartean, eurrez aurkituko ditugu oso-osorik okzitaniaraz idatzitakoak.

Lacarrak (LACARRA, José María, *Vasconia medieval...*, op. cit., 19-20. orr.), honetan, agintariaren babesaz gainera, okzitaniararen eta euskararen arteko erabateko ezberdintasuna ere aipatzen du. Ezberdintasun honen ondorioz okzitaniarrak eta euskaldunak bi multzotan banaturik, eta elkarrekin nahasi gabe, biziko dira (Iruñean edo Lizarran esaterako). Tuteran, aitzitik, eta herri hau ordurako deseuskaldundurik zeudenetarikoa adibide bat da, bertako bizilagunei asimilaturik agertuko da okzitaniar kolonia.

Erants dezagun, bide batez, euskararen eta okzitaniararen ezberdintasun horixe berori dela Lacarraren eritiz, Gaztelako Alfonso VIII-k, XII eta XIII. mendeetan zehar, Gipuzkoako itsasaldera (Donostia, Pasaia eta Hondarribiara nagusiki) erakarritako gaskoiek hain luza-roan irautearen arrazoiak.

Okzitaniararen eta euskaldunen arteko harremanei buruzko zenbait xehetasun: OTAZU, Alfonso de, *El “igualitarismo” vasco: Mito y realidad*, Txertoa, San Sebastián, 1973, 52. orr. eta hurr.

(34) ORELLA, José Luis, “Los judíos en las fuentes jurídicas medievales del Pueblo Vasco”, *RIEV*, XXIX (1984), (261-298), 267. orr.

Juduok, Nafarroan (Tuteran, Irufean, Lizarran eta mendebaleko beste zenbait herritan) baina baita Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian ere aurkitzen ziren (35).

Nafarroaren hegoaldean, eta hementxe bereziki, kokatzen ziren arabiar eta mozarabiar multzoek osatuko zuten hizkuntzaz zein kulturaz hain aberats eta nabar agertzen zen panorama hori (36) eta hizkuntza horiekiko lehian –idatzizko zeregine-tako lehiatzari ari gara, noski– baztertuta eta atzean geratuko da euskara (37).

HIZKUNTZ POLITIKA IPARRALDEAN

Gaskoia izango da Iparraldean idatzizko zereginetan latina ordezkatzeko duen hizkuntza. Beraren erabilera XVI. mendera arte luzatuko da Lapurdi eta Zuberoan, harik eta 1539ko agorrilaren 10ean, François I-k, “Ordonnance de Villers-Cotterêts” delakoa aldarrikatzeko duen arte. Hona hemen guri zuzenean dagozkigun erabaki hartako artikuluko biak:

“Art. 110. Et afin qu'il n'y ait cause de doute sur l'intelligence desdits arrêts, nous voulons et ordonnons qu'ils soient faits et écrits si clairement, qu'il n'y ait ni puisse avoir aucune ambiguïté ou incertitude, ni lieu à demander interprétation.

Art. 111. Et pour ce que telles choses sont souvent advenues sur l'intelligence des mots latins contenus esdits arrêts, nous voulons dorénavant que tous arrêts ensemble toutes autres procédures, soient de registres, enquestes, contracts, commissions, sentences, testaments et autres quelconques, actes et exploits, de justice, ou qui en dépendent, soient prononcés, enregistrés et délivrés aux parties *en langage maternel françois et non autrement*” (38).

-
- (35) Orellak dioenez (ORELLA, José Luis, *Los Judíos...*, op. cit., 289. orr.), Santiagorako eta Gaztelako artilea garraiatzeko erabiltzen ziren bide inguruetan omen zeuden judu multzorik hazienak.
- (36) Hizkuntzari buruzko gauza jakingarri asko aurki daitezke bi laburpen hauetan: CIÉRVIDE, Ricardo, “El Romance navarro antiguo (Resumen). Onomástica medieval navarra (Siglos X al XV. Estudio realizado sobre documentos originales)”, FLV, II (1970), nº 6, 269-370. orr. Egile berarena: “En torno a la problemática lingüística en la Navarra medieval. El romance navarro”, FLV, XII (1980), nº 35-36, 395-402. orr.
- (37) Hona, amaitzeko, nafar administrazioaren jarrera horri buruzko Lacarraren (LACARRA, José María, *Vasconia medieval...*, op. cit., 14. orr.) hitzak:
“Pero nada de esto se daba en el País Vasco: Ni hay una liturgia en vascuence, ni una corte o unos elementos directivos totalmente ajenos al latín. De aquí que no se sienta en la corte una necesidad absoluta de redactar los documentos en una lengua nueva con la adaptación correspondiente, cuando ya disponían del latín o del romance, inteligible para buena parte de los súbditos del reino. Piénsese que cuando en el siglo X se estabiliza la monarquía navarra, ésta se extendía desde Jaca hasta la Rioja, y que precisamente la dinastía Jimena procede (...) de la zona más romanizada del País”.
- (38) BARIS, Michel, *Langue d'oïl contre langue d'oc*, Fédérop, Lyon, 1978, 17. orr. Frantsesak gaskoia ordezkatzeko bilakabideaz ikus: NACQ, Gilda, “Introduction du français et disparition du gascon dans la pratique notariale à Bordeaux et dans le bordelais (1450-1539)”, *Lengas* (1979), 5. zb., 77-121. orr.

Helburua, itxura baten, agiri ofizial mota guztietan latinaren ordeztu frantsesa ezartzea baldin bazen ere, ondorioa, latina ezezik, frantziar Koroaren menpe zeuden lurraldeetako hizkuntza guztiak baztertzeko izan zen (39).

Nafarroa Beherean luzaroago iraun zuen gaskoieraren erabilera, baina 1620ko urriaren 11n emandako "Edit d'Union" delakoan frantsesa aldarrikatuko da Biarnoa eta Nafarroa Behereko hizkuntza ofizial:

"(...) Voulons en outre et ordonnons que les Ordonnances, Arrêts et Procédures de nostre dite Cour du Parlement, soient faits, expédiés en langage françois". (40)

Gaskoierak, hala ere, erabilera zabala izango zuen lurralde honetan 1789ko Iraultza arte.

1789AZ GEROZTIKO HIZKUNTZA POLITIKA IPARRALDEAN

Guztiz inportanteak dira Iraultzaren ondoren hizkuntza politikari buruz hartutako erabakiak. Alde batetik, beren antzinatasuna gorabehera daukaten zehaztasuna eta osotasunagatik (zentzu honetan ez dute ezertan beren gaurkotatasuna galdu) eta, bestetik, Estatu frantziarrak harriz gero ez duelako bere hizkuntza politikan aldaketa nabarmenagirik egin (eta honetan ere badute, beraz, gaurkotatasunik!).

Esan beharra dago Iraultza bukatu bezain laster, 1790eko urtarilaren 14an, Batzar Nagusiak agiri, dei eta erabaki ofizial guztiak frantziar Estatuko hizkuntza denetara itzultzeko agindua eman zuela (41). Jokabide horren arrazoi nagusia, gure aburuz, Grégoire-k Konbentzioari aurkeztutako txostenean datza:

(39) Hain zuzen ere, XVII. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik frantziar Administrazioak frantsesaren erabilpena ezarriko die bereganatuko dituen herri guztiei: Flandesi (1684), Alsaziari (1685), Rosellori (1700), Lorenari (1748) eta Korsikari (1768).

(40) BARIS, Michel, *Langue d'oil contre langue d'oc*, op. cit., 18. orr.

(41) Goyhenetche (GOYHENETCHE, Manex, "Euskararen erabilpena Nafarroako Erreinuan XVI-XVIIIg. mendeetan", *Iker-2*, (251-257), 254. orr.) erakusten duenez, baina, aurretik ere eman ziren horretarako urratsak:

"Vous avez reçu, M, une lettre de M. le Contrôleur General en date du 10 de ce mois qui vous autorise à faire imprimer les décrets de l'Assemblée Nationale en langue basque suivant l'idée que vous en aviez donnée pour mettre les peuples de la Navarre en état d'entendre ces décrets" (copie de la lettre de M. Acher à M. de Bouchepon le 25 octobre 1789).

Iraultza garaiko hizkuntza politika ezagutzeko behar-beharrezkoa dugu: CERTEAU, Michel de / eta beste batzuk /, *Une politique de la langue. La Révolution française et les patois: L'enquête de Grégoire*, Gallimard, 1975.

Oso interesgarriak, orobat, Lengas aldizkariak auzi honi eskaini dizkion 17 eta 18 (1985) zenbakiak eta, guri dagokigunez, lan hauek bereziki: ALÇOUFFE, Alain; BRUMMERT, Ulrike, "Les politiques linguistiques des Etats-Généraux à Thermidor", *Lengas* (1985), 17. zb., 51-77. orr.; SCHLIEBEN-LANGE, Brigitte, "La politique des traductions", *Lengas* (1985), 17. zb., 97-126. orr.; BUSSE, Winfried, "Cassons ces instruments de dommage et d'erreur": glotophagie jacobine?", *Lengas* (1985), 17. zb., 127-144. orr.

Euskarari lotuago beste hau daukagu: RICA, Margarita, "Traduction en basque de termes politiques sous la Révolution", *ASJU*, IX (1975), 3-172. orr.

“Il n’y a qu’environ quinze départements de l’intérieur où la langue française soit exclusivement parlée; encore y éprouve-t-elle des altérations sensibles, soit dans la prononciation, soit par l’emploi des termes impropres et surannés, surtout vers Sancerre, où l’on retrouve une partie des expressions de Rabelais, Amyot et Montaigne”. (42)

Jarraian 30 “patois” inguru daudela esango du eta, beherago, hauxe erantsiko:

“On peut assurer sans exagération qu’au moins six millions de Français, surtout dans les campagnes, ignorent la langue nationale; qu’un nombre égal est à peu près incapable de soutenir une conversation suivie; qu’en dernier résultat, le nombre de ceux qui la parlent n’excède pas trois millions, et probablement le nombre de ceux qui l’écrivent correctement encore moindre”. (43)

Argi dago, beraz, Frantziako hizkuntza denetaz baliatze hori ezinbesteko baldintza zela Iraultzaren mezua hiritarrei helduko bazitzaien bederen (44). Geroago, ostera, frantsesaz gainerako hizkuntzak kontrairaultzaren armatzat joko ziren, Barère-k Konbentzioari aurkeztutako txostenean (**Rapport du Comité de Salut Public sur les idiomes**, 8 pluviôse, an II) (45) ikus daitekeenez:

“(…) Citoyens, les tyrans coalisés on dit: l’ignorance fut toujours notre auxiliaire le plus puissant; maintenons l’ignorance; elle fait les fanatiques, elle multiplie les contre-révolutionnaires; faisons rétrograder les Français vers la barbarie: servons-nous des peuples mal instruits ou de ceux qui parlent un idiome différent de celui de l’instruction publique”. (Ibidem, 291. orr.)

“(…) nous avons observé (...) que l’idiome appelé bas-breton, l’idiome basque, les langues allemande et italienne ont perpétué le règne du fanatisme et de la superstition, assuré la domination des prêtres, des nobles et des praticiens, empêché la révolution de pénétrer dans neuf départements importants, et peuvent favoriser les ennemis de la France”. (Ibidem, 292. orr.)

(42) CERTEAU, Michel de / eta beste batzuk /, *Une politique de la langue...*, op. cit., 301. orr. Henri Grégoire-k, jakina denez, 43 galderaz osaturiko inkesta bat zabaldu zuen 1790eko agorrilaren 13an Frantziako hizkuntz egoera ezagutzearren: “Une série de questions relatives au patois et aux moeurs des gens de la campagne”. (Inkesta hori osorik: *Une politique de la langue...*, op. cit., 12-14. orr.) Inkesta honen emaitzekin osatuko zuen 1974an Konbentzioari aurkeztutako zion: *Rapport sur la nécessité et les moyens d’anéantir les patois et d’universaliser l’usage de la langue française*, 16 prairial, an II. (Ikus osorik: *Une politique de la langue...*, op. cit., 300-317. orr.)

(43) CERTEAU, Michel de / eta beste batzuk /, *Une politique de la langue...*, op. cit., 302. orr.

(44) II. Errepublikara garaian ere, eta arrazoi berberetatik, egingo ziren era horretako zenbait itzulpen. Ikus horietako batzuk: VINSON, Julien, “Pièces historiques de la période révolutionnaire en français et en basque”, *RLPhC*, XXX (1897), 147-177 eta 196-215. orr.; XXXI (1898), 296-300. orr.; XXXV (1902), 229-235. orr.

(45) Txosten hau osorik: *Une politique de la langue...*, op. cit., 291-299. orr.

Euskaraz eta Euskal Herriaz zuzenki ari dela zera dio:

“(…) Une langue sonore et imagée est regardée comme le sceau de leur origine et l'héritage transmis par leurs ancêtres. Mais ils ont des prêtres, et les prêtres se servent de leur idiome pour les fanatiser; mais ils ignorent la langue française et la langue des lois de la République. Il faut donc qu'ils l'apprennent, car, malgré la différence du langage et malgré leurs prêtres, ils sont dévoués à la République qu'ils ont déjà défendue avec valeur le long de la Bidassoa et sur nos escadres”. (Ibidem, 294.orr.)

“Le fédéralisme et la superstition parlent bas-breton; l'émigration et la haine de la République parlent allemand; la contre-révolution parle l'italien, et le fanatisme parle le basque. Cassons ces instruments de dommage et d'erreur”. (Ibidem, 295. orr.)

Frantsesa, berriz, honela azalduko du:

“(…) la plus belle langue de l'Europe, celle qui la première a consacré franchement les droits de l'homme et du citoyen, celle qui est chargée de transmettre au monde les plus sublimes pensées de la liberté et les plus grandes spéculations de la politique”. (Ibidem, 291. orr.)

Espreski gaitzetsiko du itzulpen politika:

“D'ailleurs, combien de dépenses n'avons-nous pas faites pour la traduction des lois des deux premières assemblées nationales dans les divers idiomes parlés en France! Comme si c'était à nous à maintenir ces jargons barbares et ces idiomes grossiers qui ne peuvent plus servir que les fanatiques et les contre-révolutionnaires!”. (Ibidem, 296. orr.)

Eta, amaitzeko:

“Citoyens, la langue d'un peuple libre doit être une et la même pour tous”. (Ibidem, 297. orr.)

Barère-ren arrazoi hauek sendotzera etorriko da Grégoire-ren txostena:

“C'est surtout vers nos frontières que les dialectes, communs aux peuples des limites opposées, établissent avec nos ennemis des relations dangereuses, tandis que, dans l'étendue de la République, tant de jargons sont autant de barrières qui gênent les mouvements du commerce et atténuent les relations sociales. (...) ils empêchent l'amalgame politique, et d'un seul peuple en font trente. (...)” (Ibidem, 304. orr.)

Hau ere itzulpenen aurkako agertuko da noski:

“(…) Alors vous multipliez les dépenses, en compliquant les rouages politiques, vous en ralentissez le mouvement: ajoutons que la majeure partie des dialectes vulgaires résistent à la traduction ou n'en promettent que d'infidèles. (...)” (Ibidem, 303. orr.)

Arrazoi linguistikoak aipatuko ditu jarraian: hiztegi egokirik eza..., eta zera dio beherago:

“Le 14 janvier 1790, l'Assemblée constituante ordonna de traduire ses décrets en dialectes vulgaires. Le tyran n'eut garde de faire une chose qu'il croyait utile à la liberté. Au commencement de sa session, la Convention nationale s'occupa du même objet. Cependant j'observerai que, si cette traduction est utile, il est un terme où cette mesure doit cesser, car ce serait prolonger l'existence des dialectes que nous voulons proscrire, et, s'il faut encore en faire usage, que ce soit pour exhorter le peuple à les abandonner”. (Ibidem, 310. orr.)

HIZKUNTZ POLITIKA HEGOALDEAN

Gaztelaniaz gainerako hizkuntzak baztertze eta ezabatze politikari buruzko neu-riak, agerian eta esplizituki, XVIII. mende hasieratik, Borboiak Agintera igo zire- netik, aldarrikatuko dira lehen aldiz Estatu espainiarrean. Felipe V-k “por justo derecho de conquista” Gaztelako lege, usadio, ohitura eta auzitegiak ezarri nahiko ditu Estatuko herrialde guztietan “Decreto de Nueva Planta” (1716) delakoaren bidez, nahiz eta euskal probintzietan ez zen Dekretu hau beranduago arte indarrean sartuko (46).

XVIII. mende amaieran joko dute euskara benetako erasoek. Manuel Godoyk, euskal probintziak Espainiako gainontzekoekin berdindu nahirik, ordura arte inda- rrean zeuden zenbait teoria linguistiko suntsitu eta gezurtatu nahi izango ditu eta, helburu horrekin, eta Godoyren laguntza eta babesarekin, idatziko du Antonio LLO- RENTEK bost tomatoko Noticias Históricas de las tres Provincias Vas- congadas en que se procura investigar el estado civil antiguo de A- lava, Guipuzcoa y Vizcaya, y el origen de sus fueros (1806-1808).

Godoyren eraginez, halaber, eta helburu berberarekin, ekingo zion Real Acade- mia de la Historia-k Diccionario Geográfico e Histórico de las Provin- cias Vascongadas y Navarra (1802) argitaratzeari, euskarari buruzko artikulua Joaquín Traggia-k burutuko zuelarik. Antzerako bideetatik zihoazen José Antonio CONDERen, “El cura de Montuenga”, Censura Crítica de la pretendida ex- celencia y antigüedad del vascuence (1801) eta Erroren lanaren aurka idatzi-

(46) Aragoak eta katalan herriek jasan zituzten “Decreto de Nueva Planta” horren ondorioak zuzenean, herri hauek, Carlos II erregea oinordekorik gabe hiltzean, eta euren foruei eustearren, Carlos artza- dukearen aldeko agertu bait ziren, euskaldunak, Felipe d’Anjou-rekin jarriko ziren bitartean. “Guerra de Sucesión” (1705-1714) amaitzean eta bigarren honek, Felipe V izenarekin, Boterea har- tzean, debekatu egingo da eskoletan katalanez hitz egitea zein idaztea, katalan liburuak erabiltzea eta are kristau-ikasbidea katalanez irakastea.

tako *Censura Crítica del Alfabeto primitivo de España y pretendidos monumentos literarios del vascuence* (1806) (47).

Ondorio praktikorik ere izango zuten erasook, euskaraz idatzitako liburuek, esate baterako —eta kristau- ikasbiderik kaskarrenaren itzulpenetatik hasita—, eragozpen handiak gainditu beharko bait zituzten argitarara eman ahal izateko (48).

Hala eta guztiz ere, 1936-39ko gerra zibilaren ondoren biziko du euskarak bere unerik larriena. “Idioma uno en la España una” izango da hizkuntz politika honen ardatza. Debekatu egingo da euskararen erabilpena maila publikoan nahiz pribatuan. Aurrerantzean pertsona izenak (1938-05-08ko dekretua); marka, denda, industri izen eta berauetako iragarki eta estatutuak (1940-05-20ko dekretua); toponimia (1940-07-08ko dekretua)...., gaztelania hutsezkoak beharko dute izan (49).

Politika honek ez du 1969ra arte funtsezko aldaketarik ezagutuko, nahiz eta 1956az geroztik errepresioa bigunago egiten den. Azkenik, 1978ko urriaren 31n Espainiako Gortetan onartutako Konstituzioan zera esango da:

“Artículo 3

1. El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.

2. Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos.

3. La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección”.

EUSKAL ADMINISTRAZIO ERAKUNDEAK ETA EUSKARA

Frantziar zein espainiar Estatuek euren hizkuntz aniztasunari uko egitea —bortxaz zanpatzeari ekitea ez denean— harrigarria badirudi ere, are harrigarriago eta sinesgaitzago gertatzen da erasoa euskal erakundeetatik eta euskaldunengandik eurengandik datorrela ikustea.

(47) Tesi hauen aurkako erantzun biziak plazaratuko dira Euskal Herrian, hala nola, Pedro Pablo de ASTARLOAREN *Apología de la lengua bascongada, ó ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen: en respuesta á los reparos propuestos en el Diccionario Geográfico Histórico de España, tomo segundo, palabra Navarra* (1803) eta *Reflexiones filosóficas en defensa de la Apología bascongada o Respuesta a la Censura crítica del Cura de Montuenga* (1804).

Juan Bautista de ERROK, *Conderi erantzumez: Observaciones filosóficas en favor del Alfabeto primitivo o Respuesta apologética a la Censura crítica del Cura de Montuenga* (1807).

Zehaztasun gehiagotarako ikus: TOVAR, Antonio, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza, Madrid, 1980, 101-135. orr.

(48) Diogunaren adibiderik ezagunenarikoa Juan Antonio MOGUELEN *Peru Abarca* dugu, liburu hau 1802rako idatzirik egon arren ez bait zen 1880ra arte argitaratu.

(49) Garai honetako hizkuntz politikaz Euskal Herrian, ikus: TORREALDAI, Joen Mari, “Euskararen zapalkuntza (1936-39)”, *Jakin* (1982), 24. zb., 5-73. orr.

Gipuzkoan, 1529. urtean bertan (50), Erregeak onartutako erabaki baten, Batzarretara zihoazen kontzejuetako ordezkariak gaztelaniaz irakurtzen eta idazten jakitea eskatzen omen zitzaizkien, Bizkairako ere baldintza berbera jartzen zelarik.

Gorosabelek dioskunez (51), 1571n, Erretereriako Batzar Nagusietan, probintzia horretan idazten eta irakurtzen (eta agerian esaten ez bada ere *gaztelaniaz* ari dela ulertu behar) ez zekien alkaterik ezin aukera zitekeela erabaki omen zen, hainbat herrik, baldintza hori ezin beterik, egindako protestak gorabehera.

Fernández de Pinedok (52) bere aldetik, Gernikan 1613ko abenduaren 10ean bildutako Batzarretan bizkaitar jauntxoek honako erabaki hau hartu zutela dio:

“se ordenó que en adelante no fuesen admitidos como procuradores de las Anteiglesias los que no supieran leer y escribir en romance”.

Erabaki hau zela eta, 1631-34 bitartean zenbait matxinada eta istilu sortu baziren ere, gero eta zorrotzago betearazten ahaleginduko omen ziren ondorengo urteetan (53).

Neurri hauen helburu zuzena herri xehea Agintetik baztertzea izan arren, zeharka, euskararen beraren baztertzea ere bazekarten. Horrela ulertzen da euskaraz idatzirik dagoen agiri eta dokumentu ofizialen urritasuna (54).

(50) EUSKALTZAINDIA, *El libro Blanco del Euskara*, Bilbao, 1977, 362. orr.

(51) GOROSABEL, Pablo de, *Noticia...*, op. cit., (I. vol.), 514. orr.

(52) FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano, *Creclimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1.100/1.850, Siglo veintiuno*, Madrid, 1974, 62. orr.

(53) FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano, *Creclimiento económico...*, op. cit., 68-69. orr.

(54) Honako hauexek omen dira Hegoaldean aurkitu diren salbuespen bakarrak (EUSKALTZAINDIA, *El libro Blanco del Euskara*, op. cit., 368-369. orr.):

-1773an Ezkabarten eginitako udal akta bat.

-1754-58 bitartean Eibarren euskarara itzultitako Ordenanza municipalac, eusqueras eleccinuetaracoz.

-1811-08-28an eta 1811-09-25ean Iruñean de Reille Kondeak argitaratutako bando bi.

Iparaldean, berriz, beste hauek (ibidem, 380. orr.):

-Euskarara itzultitako Cahier des vœux et instructions des Basques français du Labourd pour leurs députés aux Etats Généraux de la Nation.

-1790-1822 bitarteko Ahetzeko udal aktak.

-Iparaldeko udal batzuk Hegoaldeko beste batzuri igorritako gutun zenbait.

-Iraultza garaiko aipatu itzulpenak.

Goyhenetche (GOYHENETCHE, Manex, *Euskararen erabilpena...*, op. cit., 252. orr.), azkenik, Nafarroa Beherean 1756an Erregearentzat bildutako “enaitza”-ren zati baten itzulpena gaineratzen du.

Ohar bera egingo zuen Aita Donostiak (DONOSTIA, P. José Antonio de, “Textos euskéricos del siglo XVIII”, RIEV, XXV (1934), (688-695), 693. orr.), Elizondoko Udal Artxi-boa arakatu ondoren:

“Notemos, sin embargo, por exigencias de una fidelidad histórica escrupulosa, a la que debemos servir, que de las veinticinco o treinta cartas que en el Archivo se conservan (algunas de 1769-1770 y otras, las más numerosas, de 1806) notemos, digo, que están escritas casi todas en castellano; no sólo las que de Baztán se dirigían a Sara, Ainhoa, Ezpeleta, Itsasu, sino las que de estos pueblos enviaban al alcalde baztanés.
.../...

Zabarkeria eta axolagabekeria izan da, eraso izan ez denetan, euskal administrazio erakundeek euskararekiko izan duten bigarren jarrera mota eta ez da jarrera horren adibiderik han-hemenka falta:

1609ko apirilean, bi kristau-ikasbide aurkeztu omen ziren Azpeitian bildutako Batzar Nagusietara argitaratu ahal izateko laguntza eske (55). Bata, herri bereko maisuak, Martin Yafiez de Arrietak, itzulia eta Iruñeko Apezpikuaren onespenerekin, gainontzeko maisuak hartaz balia ahal zitezen, zeren eta: "(...) no haber en esta provincia cartilla ninguna impresa en la dicha lengua (...)" (56). Bigarrena, Azpeitiko erretoareak, Miguel de Ypinçak, egina omen zen.

Hurrengo urtean (1610eko apirilaren 28an) Ordizian bildutako Batzarretan, eta Yafiez de Arrietak argitaratze lanak ordaintzeko berrehun dukateko laguntza eskatzen zuelarik, hauxe izan zen Batzarraren erabakia: "la Junta decretó y mandó que no ha lugar lo que pide el dicho Martin Yafiez de Arrieta" (57).

Antzerako adibide baten berri ematen digu Dubaratek (58). 1675eko agorriaren 22an Nafarroa Behereko Estatuetara joko zuen Bidegarayk bere hiztegia (latina - frantsesa - euskara) argitaratzeko laguntza eske. Bigarren eskabide bat (hiztegia, oraingoan, gaztelaniarekin osatzen zuelarik) 1676ko uztailaren 14an egingo zuen. Batzorde batek Hiztegia aztertu eta bere oneritzia eman bazuen ere, luzamendutan ibiltzeagatik nonbait, hiztegi hori -eta dirudienez gauza bere jazo zitzaizen gramatika hasikinei- galdurik dago gaurregun.

Ezagunagoa da Etcheberri Sarakoaren kasua, honi ere bere latin-ikasbidea argitaratzeko laguntza ukatu egin bait zion Lapurdiko Biltzarrak (59).

HEGOALDEKO HIZKUNTZ POLITIKA GAURREGUN

XIX. mendean zehar euskararekiko politika aldaketa bat nabari da Hego Euskal Herriko, eta bereziki Bizkai eta Gipuzkoako, administrazio erakundeetan.

.../...

No sabemos si en los archivos de estos pueblos habrá alguna carta, en euskera, del alcalde baztanés. Parece deducirse de las copias o duplicados -que se conservan en las carpetas- que estos documentos enviados desde aquí iban redactados en castellano. En castellano están casi todas las respuestas devueltas al alcalde de Baztán. (...) En francés hay alguna que otra y sólo cuatro en euskera. (...)"

Berri gehiago: MUGICA, Serapio, "El vascuence en los archivos municipales de Guipúzcoa", RIEV, II (1908), 725-733. orr.

(55) INSAUSTI, Sebastián, "El primer catecismo en euskera guipuzcoano (?)", BRSVAP, XIV (1958), Cuaderno 1º, 78-83. orr.

(56) INSAUSTI, Sebastián, El primer catecismo..., op. cit., 81. orr.

(57) INSAUSTI, Sebastián, El primer catecismo..., op. cit., 83. orr. Gaurregun galdutzat jotzen dira bai Yafiez de Arrieta eta bai Ypinçaren kristau-ikasbide hauek.

(58) DUBARAT, V., "Le Dictionnaire basque et les Rudiments du P. Dominique Bidégaray, franciscain du convent de Pau (1675-1679)", RIEV, VIII (1914-1917), 6-16. orr.

(59) Etcheberriren lanak, galdutzat jotzen den hiztegia izan ezik, Urquijok argitaratu zituen mende honen hasieran: URQUILJO, Julio de, Obras Vascongadas del Doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712), Paul Geuthner, Paris, 1907.

Aldaketa hori 1931ko ekainaren 14an, Lizarran bildu zen Hegoaldeko udaletxeen batzarrak onarturiko Estatutu projektuan, bermatuko zen, bertan zera irakur bait zitekeen:

“Art. 16º La lengua nacional de los vascos es el euskera. Ella será reconocida en iguales condiciones que el castellano”.

Baina Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak izan duten lehen autonomi Estatutua 1936ko urriaren lehenean sartu zen indarrean, nahiz eta guztiz baldintza desegokietan, Bizkaian bakarrik, bederatzi hilabetez (1937ko ekaina arte) eta gerra garaian aplikatu bait zen. Hauxe esaten zen bertan hizkuntzari buruz:

“Tit. I

Art. 1º El vascuence será, como el castellano, lengua oficial en el País Vasco, y, en consecuencia, las disposiciones oficiales de carácter general que emanen de los Poderes autónomos serán redactables en ambos idiomas. En las relaciones con el Estado español o sus autoridades, el idioma oficial será el castellano” (60).

1979az geroztik hiru probintziotan indarrean dagoen Estatutuan, azkenik, honako hau esaten da:

“6. art.

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea”.

Arras ezberdina da Nafarroako egoera, hauxe bait da—eta gure egunotara mugatuz—“Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra” delakoaren 9. artikuluan esaten dena:

“1. El castellano es la lengua oficial de Navarra.

2. El vascuence tendrá también carácter de lengua oficial en las zonas vascoparlantes de Navarra.

Una Ley Foral determinará dichas zonas, regulará el uso oficial del vascuence y, en el marco de la legislación general del Estado, ordenará la enseñanza de esta lengua”.

1986ko abenduaren 2an onartu zuen Nafarroako Parlamentuak “Ley Foral del Vascuence” delakoa. Hiru hizkuntz gune ezarriko ziren bertan (Art. 5.1.): gune euskalduna (61 udalek osatua), gune mistoa (48 udalek, hauen artean Iruñea, osatua) eta gune ez-euskalduna (gainontzeko udalek osatua).

(60) Koofizialtasun horri buruzko xehetasun gehiago ematen ziren II. tituluko 7. artikuluan.

Bukatzeko, esan dezagun, teorikoki hau horrela bada ere bestelakoa dela egunero jardunean jazotzen eta ikusten dena. Udal mailara –mailarik oinarrizkoenera eta hiritarrendantik hurbilenera– mugatuz, Lurralde Autonomoan “itzultzaile”-aren figura sortu izan da agiriak, egitarauak, iragarkiak... “elebidunak” izan daitezten, bate-tik, eta zæuden eskabideak isilerazteko bestetik. Denborarekin, eta inolako plangin-tzarik ez izanik, euskara eginkizun sinboliko soil-a betetzera heldu da, praktikan gaztelania hutsez jarraitzen delarik (61).

1.1.3. EUSKARA ETA IRAKASKUNTZA

HEGOALDEAN

Iragan garaiei gagozkenez, lehen mailako irakaskuntzaren antolaketa Udaletxe bakoitzaren esku egon izan bada ere, ez da somatzen euskara esparru horretarako tresna egoki bihurtzeko inolako asmorik, kasurik onenean ere kristau-ikasbidea irakasteko erabili izan bait da soil-soilik. Euskararekiko axolarik eza aski gaitz ez izanik, aspaldidanikoak ditugu, gainera, ikasleen elkarrizketa arruntetatik euretatik ere, euskara baztertze-ko neurriak, neurriok, maiz, indarrezkoak izan direlarik. Zabarkeria eta indarrezko neurri horien adierazgarri bikaina dugu 1761ean argitaratutako Eusqueraren Berri Onac liburuan Cardaberazek zioen hau:

“(...) Gendeen artean beste Lenguageric Eusquera baño dicha gabea-goric ezta icusi, ta gure jatorrizco, edo jaiotzaco Izquera ezbaliz bezala, ta Euscaraz itzeguitea, pecaturic aundiena baliz bezala, guiza artetic quen-du, ta lurpean ondatu naidute, ta Escoletan sortija, edo sifaleaquin, azote ta castiguaquin eragotcinaidute. (...)” (62)

Ildo beretik doa, Iruñean, 1778an izandako auzi baten partaide zirenen lekukotasunak aditzera ematen digun beste hau:

“(...) es bien notorio y público q. en la llamada tierra vascongada los más saven y todos entienden el castellano, especialmente en los pue-blos crecidos, por haverse introducido este idioma generalmente, con la plausible providencia de enseñarlo los Maestros, no sólo a los niños pro-hiviéndoles el bascuenz si no es a todo el pueblo (...)”. (63)

(61) Zenbait herritan –Tolosa, Arrasate...– badira, hala ere, udal mailako hizkuntz egoera honi irribide bila diharduten elkarteak.

(62) CARDABERAZ, Aita Agustín, Eusqueraren berri onac: eta ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzegulteco Erreglac, Iruinean, 1761, 17. orr.

(63) APAT-ECHEBARNE, A., Una Geografía Diacrónica del Euskara en Navarra, Ediciones y Libros, Pamplona, 1974, 51-52. orr.

Bortxaren erabilera, bestalde, guztiz jokabide ezaguna izan da. Humboldték dioenetik (64), Astarloak berak ere (1752-1806) jasan omen zuen eratzunaren zigorra bere haurtzaroan eta Lasak, gai hau sakonki ikertu duelarik, zera esango du:

“En las escrituras de condiciones de maestro, es muy frecuente el hablar del anillo que representaba la sanción que se imponía a los que hablaban el vascuence. (...)” (65)

Adibide batzuk ere badakartza jarraian: 1787-03-18an Elgoibarren eginikoa; 1784-11-27koa, Aian eta 1730-01-09koa, Beasainen.

Agustín Pascual Iturriaga maisu hernaniarrak, 1830eko ekainean Arrasaten bildutako Batzar Nagusietara aurkeztu zuen txostenean, euskarak irakaskuntzan bizi zuen egoeraz jabetzeko oso berri interesgarriak aurki ditzakegu:

“(...) Si no, échese una ojeada sobre nuestras escuelas de primeras letras y en ellas se tocará de lleno esta triste verdad. Allí se verá tramada una conjuración sistemática y permanente contra la lengua bascongada: allí formadas las oficinas, en que se forjan constantemente armas para destruirla, haciendo de los niños otros tantos titanes destinados a destornar a su madre. Estas no son figuras retóricas, no son exageraciones, ni espantajos, son la pura y exacta verdad, y la palparemos, si pasamos a examinar la práctica introducida en dichas escuelas de tiempo inmemorial, para enseñar a los niños hasta la edad de la pubertad, que es el período de tiempo, que asisten a la escuela, desde que llegan a tener cinco o seis años. Pues tan pronto como entran en ella, se principia por ponerles en las manos la cartilla castellana. Luego que han aprendido a leer en ella, se les da sucesivamente el Astete, el Catón, y otros libros, todos castellanos, y si se les hace leer y aprender la doctrina cristiana en vascuence, es porque los más de los párrocos acostumbran preguntársela públicamente en la parroquia para la instrucción de los fieles.

Apenas han aprendido algunas palabras sueltas en castellano se les obliga a hablar en esta lengua, y por consiguiente a que vayan olvidando su corto diccionario bascongado. En otra edad, en que sienten más la necesidad de poseer el castellano, se aperciben de las dificultades, que para aprenderlo les pone el vascuence, y este conocimiento junto con el recuerdo de los fatales anillos y los castigos, que a ellos se siguieron, hace que aborrezcan su lengua nativa. (...)” (66)

(64) HUMBOLDT, G. de, “Diario del viaje vasco 1801”, RIEV, XIII (1922), (614-658), 656. orr.

(65) LASA, Fr. José Ignacio, *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco*, Auñamendi, San Sebastián, 1968, 29. orr.

Interesgarria da halaber: GARATE, Justo, “El Anillo Escolar en la Proscripción del Euskera”, FLV, VIII (1976), nº 24, 367-387. orr.

(66) LASA, Fr. José Ignacio, “Iturriaga, adelantado de las artes pedagógicas sobre el vascuence”, BRSVAP, XXI (1965), Cuaderno 2º, (185-196), 188-189. orr.

Euskara zigorraren bidez ezabatu nahiak, gainera, eta gezurra badirudi ere, ia gure egunotaraino iraun du, Aranzadik, 1919an bertan, salatuko zuenez (67):

“(…) Los que han llevado en el dedo el “anillo” de las escuelas saben lo que es. También saben cómo es el castigo que el maestro impone en muchos casos. Yo sé de uno que tiene un botiquín para la primera cura de las descalabraduras que él mismo les hace a los chicos de su escuela; muchas veces, se han quejado a la superioridad las madres y los padres, pero siempre inútilmente; ya se sabe qué clase de amparo cobija a un maestro, máxime si es secretario o juez municipal al servicio del cacique.(…)”

Eta orripeko oharrean zera erantsiko zuen:

“Como hay personas malignas, que quieren ocultar o disimular lo bárbaro y antipedagógico del anillo, es necesario consignar que se utiliza para perseguir al euskera fuera de la escuela en la conversación familiar. El anillo va pasando de niño a niño tan pronto como el que ha tenido la desgracia de que se lo endosen consigue sorprender a otro en el mismo horrendo delito, hablar en euzkera. El que tiene el anillo se convierte en policía de sus condiscípulos y hasta en agente provocador, o escuchón tras de la puerta de la casa del vecino. Por otra parte sus compañeros huyen de él como de un apestado y quien llegue al sábado con el anillo en su dedo es castigado por el maestro con todo el rigor de que es capaz personalmente. En algunos casos el rigor es de índole utilitaria para el lado magistral, como p. ej. en un colegio femenino de Oñate, en que se impone multa de una partida de huevos de gallina. (...)”

1857ko irailaren 9an, “Ley General de Instrucción Pública”, edota ezagunagoa den “Ley Moyano” delakoa, indarrean sartzean, oztopo berriak ezarriko zaizkio euskarari. Lege hau dela medio, aurrerantzean, lehen mailako irakaskuntza nahitaezkoa egiteaz eta gaztelaniaren gramatika –euskararenaz ez zen, jakina, ezer esaten– eskola guztietan irakatsi beharraz gainera, ordura arte Batzar Nagusiek, Diputazioek zein Udaletxeek maila honetako irakaskuntzaren antolaketan zeuzkaten hainbat eskubide baliorik gabe geldituko dira (68).

(67) ARANZADI, Telesforo de, “Etnografía”, Primer Congreso de Estudios Vascos, Bilbao de Artes Gráficas, Bilbao, 1919, (364-382), 375-376. orr.

(68) Echegaray dioenez (ECHEGARAY, Bonifacio de, “Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco”, *Yakintza* (1934), 7. zb., (33-42), 40. orr. eta hurr.) protesta biziak egin omen zituzten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek Lege honen aurka. Nafarroan, antza (ECHEGARAY, Bonifacio de, “Vehículo lingüístico...”, *Yakintza* (1934), 8. zb., (104-111), 109-110. orr.), beranduago, 1880ko abenduaren 4an, jarri zen indarrean eta, bestalde, 1914an, “Instrucción Pública”-ko ministraria Francisco Bergamín zelarik, lehen kendutako eskubide zenbait berrituli egingo zitzaizkien nafar erakundeei.

Ondorengo urteetan okertu baizik ez dira egingo gauzak eta Primo de Rivera jeneralaren diktadurapean galarazi egingo da gaztelaniaz gainerako hizkuntzak irakastea. Errepublikara garaian nolabaiteko amore emate bat nabari badaiteke ere (69), debekua erabatekoa izango da [Bizkaia eta Gipuzkoan] Francoren diktadurapean (70).

Aldaketaren lehen aieruak 1970eko "Ley General de Educación" delakoan aurki ditzakegu, bertako 1. artikulua 3. atalean honako hau aipatzen bait zen:

"La incorporación de las peculiaridades regionales, que enriquecen la unidad y el patrimonio cultural de España, así como el fomento del espíritu de comprensión y de cooperación internacional".

14. artikuluan, berriz:

"La educación preescolar comprende juegos, actividades de lenguaje, incluida, en su caso, la lengua nativa (...)".

Eta 17. artikuluan, O.H.O.-az mintzo delarik:

"Las áreas de actividad educativa en este nivel comprenderán: el dominio del lenguaje mediante el estudio de la lengua extranjera y el cultivo, en su caso, de la lengua nativa (...)".

Lege honek, hala ere, apenas inolako aldaketa praktikorik ekarri zuen. Bigarren urratsa 1975eko maiatzaren 30eko Dekretuarekin ematen da. Berton eskolaurre-rako eta O.H.O.-erako zenbait erabaki hartuko ziren baina muga nabarmenekin: alde batetik, eskola bakoitzeko zuzendariaren esku uzten zen hizkuntza hauek (gaztelaniaz gainerakoak, alegia) irakasteko aukera; bigarrenik, hizkuntzok ikastea ere aukerakoa eta eskolordueetatik kanpo egin beharrekoa zen; hirugarrenik, ez zen irakasleen prestakuntzaz deus erabakitzen eta, laugarrenik, honako hauxe ematen zen hizkuntzok irakaskuntzan sartzearen arrazoi nagusizat: "asegurar el fácil acceso al castellano, lengua nacional y oficial" (2. art.)

1979ko apirilaren 20ko Erret Dekretu baten bidez, azkenik, 1979-80 ikasturte-rako euskara Euskal Lurralde Autonomoko irakaskuntza planetan sartzea erabaki zen, eskolaurrean, O.H.O.-ean eta Lanbide-Heziketako lehen mailan. Dekretu honen arabera euskararen irakaskuntza nahitaezko bilakatu da lurralde euskaldunetako ikastetxeetan, gainontzekoetan epeka, toki bakoitzeko egoera berezia eta gura-

(69) Hauxe zen 1931n Lizarran onartutako Estatutu projektuan, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaz esaten zena:

"Tit. V.

Art. 17^º. En las escuelas de los territorios de lengua vasca se utilizará el euskera como idioma vehículo de enseñanza, cursándose como asignatura en todos los grados el castellano; mientras que en las escuelas de zonas de lengua castellana se dará la enseñanza en este idioma, cursándose el euskera como asignatura en todos los grados."

(70) 1937ko azaroaren 24an Bizkaiko eta Gipuzkoako Diputazioei ukatu egiten zitzaien irakaskuntza alorreko ardura guztia, aurrerantzean, eginkizun hori, Estatuaren esku uzten zelarik.

soen nahia kontutan hartuz egitea, gomendatzen delarik. Irakasle goa gertatzeko, bestalde, Euskal Hizkuntza eta Literaturako Katedrak sortu izan dira Irakasle go Eskoletan.

Era honetara zegoen banaturik, 1983-84 ikasturtean, Lurralde Autonomoko ikasle goa (ikastetxe publikoak, pribatuak eta ikastolak barne) euskara-ereduaren arabera:

VI. TAULA IKASLEAK EUSKARA-EREDUAREN ARABERA (71)

Euskara-eredua	Eskolaurtea	OHO	BBB-UBI	LH	GUZTIRA
Euskararik gabe	2.983	39.005	15.005	15.109	72.102
Euskara gai bezala (A)	37.697	206.341	55.924	35.641	335.603
Irakaskuntza elebiduna (B)	18.059	21.489	1.977	876	42.401
Irakaskuntza euskara hutsean (D)	20.922	46.386	5.610	1.424	74.342

Nafarroari dagokionez, azkenik, esan dezagun guztiz motela dela oraindik euskarak irakaskuntza ofizialean, bai publikoan eta bai pribatuan, hartu duen abiadura.

1984-85 ikasturtean 68.484 ikasle zeuden guztitara O.H.O.-ean horietatik 38.131 ikastetxe publikoetan eta 30.353 pribatuetan. Euskara ikasten zihardutenak 10.950 ziren, 5.959k ikastetxe publikoetan eta 4.991k pribatuetan. (72)

IPARRALDEAN

1789ko Iraultzaz geroztikoak dira Frantzia, euskara –eta gauza bera esan dezakegu frantsesaz gainerako beste hizkuntzez– irakaskuntzatik baztertze ko lehen erabakiak, aurretik ere (nahiz eta –Hegoaldean gertatzen zenez– esplizituki inolako debekurik izan ez), irakaskuntzaren esparruetatik at zegoen arren. 1793ko urriaren 21ean, Konbentzioak, Estatu ko lehen mailako eskoletatik hasita, frantsesaz irakasteko hartu zuen erabakia erdizka baizik bete ez baldin bazen ere, 1830eko Iraultzaren ondoren, ordea, indarrezko neurriak gogortuz joango dira:

“(…) L'école officielle, dès la Monarchie de Juillet, s'était faite anti-basque: le Règlement pour les écoles primaires du département de Saint-Palais en 1846 disait déjà: "Défense de préférer aucune parole grossière comme aussi de parler basque...même pendant la récréation". (...)” (73)

(71) Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN ESTATISTIKA-ZUZENDARITZA, *Euskal urtekarik estatistikoa* 1985, op. cit., 176. orr.

(72) DELEGACION PROVINCIAL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADISTICA EN NAVARRA, *Reseña estadística de Navarra. Año 1984*, op. cit., 287. orr.

Argitu beharra dago euskararen irakaskuntza Ley Foral del Vasconce-n ezartzen diren hiru gune ezberdinen arabera finkaturik dagoela.

(73) ORPUSTAN, Jean-Baptiste, "Rôle et pouvoirs de l'Eglise", *La nouvelle société Basque...*, op. cit., (108-158), 153-154. orr.

III. Errepublikara garaietan, eta Jules Ferry-ren legeak tarteko direla, aro berri bati emango zaio hasiera. 1881ean lehen mailako irakaskuntza dohako bilakatzen da; 1882an, nahitaezko eta, 1886an, laiko. Gai guztiak, azkenik, frantsesez irakastea agintzen da, gainontzeko "patois" zein hizkuntzak erabiltzea erabat galarazten delarik:

"La lutte de la III^e République contre les dialectes est bien connue; les instituteurs ont été ses précieux auxiliaires. Il était bien entendu interdit d'avoir recours au "patois" en classe, mais ce dont les instituteurs se souviennent avec horreur, c'est que (...) était également prohibé dans la cour de récréation. Si le maître surprenait une phrase, un simple mot, il affublait le coupable d'une énorme médaille qui le signalait aux quolibets de chacun.

L'enfant ainsi puni n'avait qu'une hâte: se débarrasser de l'infamant signal en passant le relais à un autre fautif qu'il s'ingéniait à surprendre... Dans d'autres cas, le maître désignait parmi les grands élèves un "surveillant" qui avait pour mission de dresser la liste de ceux de ses camarades qui avaient parlé "patois" durant la récréation: ils passaient au piquet à la récréation suivante. Ces procédés, l'atmosphère de perpétuelle délation, ont laissé à bien des instituteurs des souvenirs amers, encore vivaces au bout de soixante-dix ans.

Les instituteurs pourtant étaient (...) parfois même indigènes, et on comprend mal leur zèle à suivre des consignes aussi malsaines". (74)

Politika hau aldatzeko lehen ahalegina (75) 1941eko abenduaren 27an somatu zen, Frantziako Aldizkari Ofizialean, Hezkuntza Nazionalako eta Gazteriaren Estatu Idazkaria zen Jérôme Carcopino-k honako erabaki hau plazaratu zuenean:

"Les instituteurs et les institutrices sont autorisés à organiser dans les locaux scolaires, en dehors des heures de classe, des cours facultatifs de langue dialectale (langues basque, bretonne, flamande, provençale...) dont la durée ne devra pas excéder une heure et demie par semaine". (76)

Lehen mailako irakaskuntzara mugatzen zen erabaki honek, alabaina, eta II. Nazioarteko Gerra garaian agertu zelarik, ez zuen indarrean sartzerik izango eta "benetako" aldaketa 1951n, "Loi Deixonne" delakoarekin, helduko zen. Deixonne izeneko diputatuak proposatutako lege hau 1950-12-22an eta 1951-01-11n Batzar Nazionalak eginiko bilera bitan onartu zen eta 1951ko urtarrilaren 13ko Aldizkari Ofizialean argitaratu. Hauexek dira guri zuzenki dagozkigun artikulua:

(74) DINGUIRARD, Jean-Claude, "Français et gascon dans les Pyrénées Centrales", *Lengas* (1977), 2. zb., (71-108), 81. orr.

(75) Esan beharra dago, hala ere, Gieure Baionako Apezpikuak Elizaren ikastetxeetan euskara, euskal literatura eta euskal historia irakasteko erabakia hartu zuela 1923ko urrian. (Ikus: G H, III, 1923ko hazila, 690-696. orr.)

(76) BARIS, Michel, *Langue d'oc contre langue d'oc*, op. cit., 98. orr.

Art. 2.- Des instructions pédagogiques seront adressées aux recteurs en vue d'autoriser les maîtres à recourir aux parlers locaux dans les écoles primaires et maternelles chaque fois qu'ils pourront en tirer profit pour leur enseignement, notamment pour l'étude de la langue française.

Art. 3.- Tout instituteur qui en fera la demande pourra être autorisé à consacrer, chaque semaine, une heure d'activités dirigées à l'enseignement de notions élémentaires de lecture et d'écriture du parler local et à l'étude de morceaux choisis de la littérature correspondante.

Cet enseignement est facultatif pour les élèves.

Art. 4.- Les maîtres seront autorisés à choisir, sur une liste dressée chaque année par le recteur de leur académie, les ouvrages qui, placés dans les bibliothèques scolaires, permettront de faire connaître aux élèves les richesses culturelles et le folklore de leur région.

Art. 5.- Dans les écoles normales des cours et stages facultatifs seront organisés, dans toute la mesure du possible, pendant la durée de la formation professionnelle, à l'usage des élèves-maîtres et des élèves-maîtresses qui se destinent à enseigner dans une région où une langue locale a affirmé sa vitalité. Les cours et stages porteront, non seulement sur la langue elle-même, mais sur le folklore, la littérature et les arts populaires locaux". (77)

Artikuluon azaleko irakurketa batek erakusten duenez, ordea, delako "aldaketa" hori teorikoa zen guztiz, Lege honek biltzen zituen lau hizkuntzei (bretoiera, okzitaniera, katalana eta euskara) irakaskuntzan ematen zitzaien egiazko lekua hutsaren hurrengoa bait zen. Argigarriak dira, izan ere, Pierre Doridam-ek Deixonnerengandik jasotako hitzak, azken honek zeuzkan asmoak ezagutzeko:

"Cette loi par laquelle il voulait "consacrer la valeur des parlers locaux en leur donnant droit de cité dans l'enseignement officiel", Maurice Deixonne, vingt ans plus tard, ne croit toujours pas qu'il faille aller au-delà. Il explique: "Elle est jugée aujourd'hui insuffisante par les intéressés. Mais quant à moi, je demeure hostile à l'idée de mettre sur le même plan les langues régionales et les grandes langues internationales". (78)

1959-1984 bitartean hogeita bederatzi Lege proposamen aurkeztu izan dira Estatu frantziarreko hizkuntza eta kulturen aldeko Estatutu bat eskatuz. Proposamen guzti hauek, ordea, eta alderdi politiko ezberdinek landuak eta aurkeztuak izan diren arren, ez dira sekula eztabaidatuak eta bozkatuak izan Batzar nazionalcan.

(77) LAFONT, Robert / eta beste batzuk /, *Langue dominante. Langues dominées*, Edilig, Paris, 1982, 144. orr.

(78) DORIDAM, Pierre, "La Bretagne et le socialisme", *Les Temps Modernes*, N° 324-325-326, Aodt-Septembre 1973, (223-233), 229. orr.

Proposamen hauetatik azpimarragarrienak alderdi politiko zenbaitek 1981eko Hauteskunderi begira aurkeztutakoak ditugu. (79)

1969-70 ikasturtean sortuko ziren eskola publikoetan euskara irakasteko lehenbiziko irakasle "ibilkariak". 1983-84 ikasturtean zehar (80), 4.200 ikaslek (22%) ikasi ahal izan zuten euskara zerbait 142 ikastetxe publikotan (270 dira guztira).

Elizaren ikastetxeetatik 34tan (64 dira guztira) irakatsi zen, ikasleak 1.500 (23%) izan zirelarik.

Irakasle ibilkariak, guztira, 35 izan ziren talde bakoitzarekin astean hiru orduz aritu zirelarik.

1980. urtean, bestalde, "gela elebidunak" sortzea erabaki zen nahiz eta horrelakoak lau herritan baizik ez dauden gaurregun: Donibane-Garazin, Donibane-Lohizunen, Saran eta Urrufian. Ikastetxe pribatuetan ere badira era honetako hiru gela: Donibane-Lohizunen, Hendaian eta Kanbon. Astean zehar batez beste 13 orduz irakasten da euskaraz.

1983an, azkenik, "ama eskolak" ireki dira.

IKASTOLAK ETA GAU-ESKOLAK

Irakaskuntzan, hala publikoan nola pribatuan, euskarak atearak itxita zeuzkala ikusirik, eskola sare berezi bat sortzeari ekingo zaio 1960az geroztik: *ikastolak*. Ikastola hauek, inolako babes eta laguntza ofizialik gabe sortuak izan arren –eta bai, aitzitik, hamaikaxo lege eta diru aldetiko oztopo gainditu behar izanik– azkartzeari harrigarria ezagutuko dute eta horrela, neurri baten bederen, euskararen iraupena lehenik, baina baita standardizazio bilakabidea ere, erraztuz eta sendotuz joango da.

Lehen ikastolak, Gipuzkoan, 1960an agertuko dira, nahiz eta ezkutuan 1953-54 ingurutik baziharduten. Araba eta Bizkaian, 1963an sortuko dira lehenak. Nafarroan, 1965ekoa dugu lehena eta, Iparraldean, 1969koa. Bestalde, 1960ko hasiera hartan 60 ikasle ingururekin ekingo zion mugimendua 1983-84 ikasturtean 75.172 ikasle, 2.962 irakasle eta 229 ikastola biltzera helduko zen.

(79) Ikus honetaz: KRAVEL, Armand, *Une exigence de la démocratie et du droit: Un statut de langues et cultures de France. Le cas de la langue bretonne*, Engle Breiz, Brest, 1985. (Haritschelhar jaunari zor diogu liburu honen ezagutza).

Oso argigarriak dira, halaber, 1981eko Hauteskunde aurretik François MITTERRAND presidentegai sozialistak eginiko adierazpenak: *La France au Pluriel*, Editions Entente, Paris, 1981.

(80) Datu guzti hauen iturria: ARGIA, 1984 euskal kulturaren urtekaria, Donostia, 1984, 105. orr.

VII. TAULA
PROBINTZIAZ PROBINTZIAKO IKASTOLEN BANAKETA (81)

Probintzia	Ikastolak	Ikasleak	Irakasleak
Araba	31	6.231	278
Bizkaia	60	21.636	907
Gipuzkoa	65	40.179	1.413
Nafarroa	42	6.435	292
Iparraldea	31	691	72
Guztira	229	75.172	2.962

Hegoaldean, eta 1972an legeztatu zirenetik, Ikastolen egoera dexente hobegotu bada ere, Iparraldean aurkitzen ditu, une honetan, eragozpenik latzenak. 1981ean, eta Hauteskundeei begira, legegai bat prestatu zuen Alderdi Sozialistak herri minorizatuetao hizkuntza eta kulturak ofizialki babesteko eta, horrela, 1982ko uztailaren lehenean, hitzarmen batera heldu ziren SEASKA (Iparraldeko ikastolen Batasuna) eta Frantziako Hezkuntza Ministeritza. Hitzarmen hau, burruka luze eta istilutsuen ondoren, eraberritu beharra egon zen 1983ko urriaren 11n. Geroztik, eta SEASKAren ahaleginak gorabehera, ez da aurrera jo, ikastolek egun bizi duten egoera guztiz larri izatera heldu delarik.

1966 inguruan adineko pertsonak alfabetatzeko eta euskalduntzeko kanpaina bati emango zitzaion hasiera: *Gau-Eskolak*. Mugimendu honek ere hazkunde ikaragarria ezagutu du sortu zenetik, 1984-85 ikasturtean 56.516 ikasle inguru biltzen zituelarik bere baitan (82). Iparraldea agertzen zaigu berriz ere atzeratuenetik, nahiz eta hemen ere eten gabe goraka doan. 1984-85 ikasturtean, esaterako, 1.003 ikasle ari ziren 28 gau-eskolatan 120 irakaslerekin (83).

UNIBERTSITATEA

Harrigarria iruditzen zaigu Euskal Herrian, oraintsu arte, Unibertsitaterik ez izana, kontutan badaukagu, batez ere, Hegoaldeko probintziak espainiar Estatuko industrializatu eta aurreratuenetarikoak direla. 1954an, eta Valladolideko Unibertsitateari loturik, sortu zen Bilbon Ekonomia-Zientzien fakultatea, garai horretan –eta hauxe dugu bitxienean– espainiar Estatuan Balearak eta Extremadura baizik ez zeudelarik egoera berean.

(81) Inuria: ARGIA, 1984 euskal kulturaren urtekaria, op. cit., 100. orr.

(82) ARGIA, 1985 euskal kulturaren urtekaria, Elkar, Donostia, 1985, 106. orr.

(83) ARGIA, 1985 euskal kulturaren urtekaria, op. cit., 110. orr.

Egia osoa esan behar badugu, 1540ko apirilaren 23an, Paulo III-ren Bulda baten bitartez, eta Rodrigo Mercado de Zuazola Apezpikuak bultzaturik, Unibertsitate bat zabaldu zen Oñatin. Bertoko Agintari eta Erakundeen aldetiko laguntzarik eta interesik ezak, batetik, eta kanpotiko erasoek, bestetik, markatu izan dute Unibertsitate honen bilakabide gorabeheratsua (84).

Antzerako zerbait esan gezake 1776an Bergaran irekitako Erret Seminarioaz, hau ere pertsona gutxi batzuren –eta batipat Pefiafloridako Kondearen– interesez sortua.

1889an, Bilbon, Injineru Industrialen Eskola zabaldu zen, berau, mende erdiz, Euskal Herrian unibertsital-ikasketak egiteko egon den leku publiko bakarra izan delarik.

1952an “Manuel de Larramendi” izeneko Euskal Katedra sortuko zen Salamancako Unibertsitatean. 1968an sortuko zen, azkenik, Bilboko Unibertsitatea, gaurregun Zientziak, Medikuntza eta Informazio-Zientzien fakultateak dituelarik.

Unibertsitate publikoen hutsunea pribatuak bete –eta, beharbada, *luzatu* ere esan beharko– dute. Espainiar Estatuan diren lauretatik bi Euskal Herrian daude: Deustukoa (1886an sortua) eta Nafarroakoa (1952an sortua). 1956an, eta Deustukolari lotua, zabaldu zen Donostian “Estudios Universitarios y Técnicos de Guipúzcoa” (E.U.T.G.) eta Fisika eta Injineru Industrialen fakultateak, azken hauek Nafarroako Unibertsitateari lotuak.

Nonbait ere, Unibertsitate publikoen hutsune hori betetzeko helburua daukate Urrundiko Unibertsitateek ere, horietariko hiru bait daude Euskal Herrian: Gasteizen, Iruñean eta Bergaran.

Frantziar Estatuari dagokionez (85), berriz, 1948an Euskal Katedra bat ireki-ko zen Bordeleko Unibertsitatean, nahiz eta 1944an hasita, “ordu osagarriak” ematen ziren R. Lafonen ardurapean. 1966an Eugène Goyhenetche “maître-assistant” hautatu zuten Pabekoan eta, Tolosakoan ere, ematen dira gaurregun “ordu osagarriak”, J. Allièresen ardurapean.

1973an “lecteur” postua sortu zen Bordeleko Unibertsitatean eta, 1982an, “assistant” delako bi, Bordelen bata eta Paben bestea.

1970az geroztik Baionan, eta Pabeko Unibertsitateari loturik, “Institut d’Etudes Juridiques et Economiques” ari da eta, 1981ean, Bordelekoari loturik, “Institut d’Etudes Basques” sortuko zen, Baionan hau ere.

(84) Xehetasunetarako ikus: LIZARRALDE, R. P. José A., *Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñate*, Tolosa, 1930.

(85) *Frantziar Estuuri buruzko berriak* gehienak Jean Haritschelharrengandik jakin ditugu.

1973an, Donibane-Lohizunen, inolako laguntza eta babes ofizialik gabe, esperientzia berri bati emango zitzaion hasiera: *Udako Euskal Unibertsitatea* (U.E.U.). Euskara hutsez egiten den Unibertsitate hau indartuz joan da urtez urte. Ikaslegoaren kopuruari dagokionez, lehenbiziko urtean 80 izan baziren bertako partaideak, 688ra iritsi ziren 1985ean burututakoan.

ONDORIO ZENBAIT

Euskara irakaskuntzatik kanpo egona izatearen –edota, zenbait lekutan, oraindik ere egotearen– ondorio zuzena, euskaldungoaren analfabetismo maila garaia da. Hauexek lirateke, Ruiz Olabuénagak bildutako datuen arabera, Euskal Lurralde Autonomoan euskaraz irakurtzeko eta idazteko gai direnen kopuruak (86):

VIII. TAULA

Probintzia	Irakurtzen dakitenak	Probintziako bizilagunen %
Araba	8.575	3,33%
Bizkaia	104.183	8,76%
Gipuzkoa	172.213	24,79%
Guztira	284.971	13,30%

IX. TAULA

Probintzia	Idazten dakitenak	Probintziako bizilagunen %
Araba	6.709	2,60%
Bizkaia	78.888	6,63%
Gipuzkoa	132.458	19,06%
Guztira	218.055	10,18%

Bigarren ondorio bezala, azkenik, euskal hiztunen kontzientzian barietate standarda (=euskara batua) eta norberaren barietate mintzatuaren artean somatu uste den ezberdintasun “ikaragarria” aipatuko genuke.

(86) RUIZ OLABUENAGA, José Ignacio, *Atlas lingüístico vasco*, op. cit., 21-22 eta 101. orr.

1.1.4. EUSKARA ETA ELIZA

Alde nabarmena dago Ekialdeko eta Mendebaleko Elizen artean hizkuntz erabilpenari dagokionean. Hura, Liturgiarako tokian tokiko hizkuntzez baliatuko zen bitartean, bigarren honek ez zuen latina baizik erabiliko, hizkuntza hau batasun erlijiosoaren sinbolo bilakatuko zelarik. Hizkuntza nazionalai, jokabide honekin, esparru bat ixteaz gainera, standardizazioa iristeko izan zezaketen aukera bat ere ukatu egiten zitzairen. Honelaxe ikusten ditu Mitxelenak Eliza biok izandako jarrera ezberdinen ondorioak:

“(…) No es casual que en Oriente se empleara como medio de evangelización la lengua de las gentes que había que evangelizar. De ahí se sigue que la cristianización signifique el renacer, por el empleo escrito, del copto, egipcio cristiano a fin de cuentas, o del siríaco; al cristianismo oriental debemos, además, los primeros textos góticos, armenios, georgianos, etc. Muy al contrario, la Iglesia occidental, olvidada de sus orígenes extraños, se asocia estrechamente con el Imperio desde Constantino y sobre todo desde Teodosio. (...) Esa administración fuertemente centralizada tiene una lengua, el latín, y por el latín habrán de pasar, de una u otra manera, quienes vayan a hacerse cristianos. No será injusto suponer que la Iglesia, con el apoyo del brazo secular, trató de reprimir prácticas tradicionales, a las que las lenguas locales no eran ajenas. Lo que era socialmente peligroso era también peligroso desde el punto de vista religioso, y viceversa”. (87)

ERREFORMA ETA KONTRARREFORMA

Euskal Herrian XVI. mendean irauliko zen egoera hau, Albreteko Joana Nafarroako Erreginak, 1559an erlijio katolikoa utzi eta protestante bihurtu ondoren, bere menpeko lurraldeetan kalvinismoa zabaltzeari ekingo diorean. Erreforma kalbindarra, hedatu zen gainontzeko lurraldeetan bezalaxe, herritarren hizkuntzaz baliatu zen Euskal Herrian ere, horretarako Ioannes Leizarraga artzain protestanteak Testamentu Berria euskaratu zuelarik (88). Itzulpen honek, eta Leizarragaren beraren trebetasunari esker, euskararen standardizazioarentzat berez daukan balioaz gainera,

(87) MITXELENA, Koldo, “Lenguas aborígenes y lengua clásica en Hispania”, *Galak* (1977), nº 3, (342-352), 349-350. orr. Eritzitza berbera agertuko zuen beste lan baten (MITXELENA, Koldo, *Zenbait hitzaldi, Mensajero*, Bilbao, 1972, 28-29. orr.):

“(…) argi dezagun berez-kuntza handia dagoela Mendebaleko eta Ekialdeko elizen artean. Inork Europako hizkuntzen antzinako arrastoak bilatu nahi baldin baditu laster ikusiko du georgiar eta armeniar hizkuntzez oso aspaldikoak direla Biblia itzulpenak, eta denak, noski, ekialdekoak. Gotiko zaharraz dakiguna ere ekialdeko itzulpenen eskerrak dakigu. Eta Zirilo eta Metodio, Erromak bidaliak baziren ere izenez, ekialdekoak ziren, eta berei bakarrik gogora zekiekeen eslaboz itzultzea. Mendebalean dirudienez ebangelizatze bidea latina zen”.

(88) LEIZARRAGA, Ioannes, *Iesus Christ gyre Iavnaren testamentu berria*, Rochellan, 1571.

Erreformak, Eliza katolikoak ordura arte zeraman hizkuntz jokabidea aldatu beharra ekarri zuen, hau ere, Trentoko kontzilioaz geroztik (1545-1563) batipat, euskaraz baliatzeari lotuko bait zaio. Harrez gero haundiagoa izango da, itxura baten behintzat, eliz-agintariak predikatuak eta kristau-ikasbidearen irakaskuntza euskaraz egin daitezzen agertuko duten ardura. Bernal Díaz de Luco *Kalagorriko Apezpikuak* Ignacio Loiolakoari 1550ean igorritako gutun baten berri ematen digu Bonifacio de Echegarayk:

“Muy grande merced recibiré que scriba V.m. al doctor Araoz y al duque —el duque era el de Gandia, que luego fué San Francisco de Borja— para, quando fuere venido, que tengan particular cuydado de hazer ocupar dos clérigos, que tuvieren doctrina vascongados, en predicar en su lengua, las más vezes que pudieran, y repartiéndose por la tierra, pues sabe V.m. la necesidad que ay en ella de doctrina, y la falta de personas que se puedan y quieran ocupar de ello”. (89)

Julio de Urquijok gogoraerazten digunez (90), Pedro Manso Kalagorriko Elizbarrutiko Apezpikuak, euskarazko kristau-ikasbide liburuak urtero inprima zitezela aginduko omen zuen 1600. urtean (91) eta agindu berbera agertuko omen zen 1700ean argitarara emandako “Constituciones Synodales”-etan:

“Cap. 4. que los Prelados hagan imprimir cada año doctrinas christianas en lenguaje acomodado a las prouincias”.

“Y porque es conuiniente que cada Prouincia tenga la doctrina Christiana impressa en lengua paterna: y porque ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado diferencia en el Vazquence del señorío de Vizcaya, Prouincia de Guipuzcoa, y Alaba. Estatuymos y ordenamos, que los señores Obispos nuestros successores, hagan imprimir cada año Cartillas de la doctrina Christiana en Romance, y en Vazquence, segun el vso de las dichas Prouincias, para que los Curas tengan Cartillas en la lengua propria de cada Prouincia, que Nos assi lo hemos comenzado a hazer en nuestro tiêpo. Y los Visitadores tengan quenta de executar lo que se les encarga en el capitulo antecedente. Y las que se imprimieren en Vazquence, tengan tambien la Doctrina en Romance”.

Erabaki horretan predikatuak ere euskaraz egin zitezela agintzen zen (92):

“Cap. II. Que en la tierra Vazcongada los Sermones sean en Vazquence.

(89) BHEGARAY, Bonifacio de, “Vehículo lingüístico...”, *Yakintza* (1934), 7. zb., op. cit., 36. orr.

(90) URQUIJO, Julio de, “Cosas de antaño”, *RIEV*, XIV (1923), (335-352), 335-336. orr.

(91) Urquijok berak zuzen oharerazten duenez, baina, 1596an, lau urte lehenago beraz, Betolaçak argitarara emandako *Doctrina Christiana*-n ere “hecha por mandado de D. Pedro Mâso, Obispo de Calahorra, y la Calçada” esaten da.

(92) URQUIJO, Julio de, *Cosas de antaño*, op. cit., 339. orr.

Porque somos informados que en la tierra Vazcongada, y especial en algunos lugares, que la mayor parte dellos habla Vazquence, los Predicadores por autoridad predicán en Romãce, y no en Vazquence: de lo qual se sigue grãde daño, y q̃ la gente q̃ viene de las caserías a oyrlos como no sabẽ Romance se salen ayunos del Sermon. Por tanto S.S.A. Ordenamos y mandamos, q̃ en los tales lugares, los Sermones se hagan en Vazquence, y los Curas no consientan otra cosa, so pena que seran castigados, y lo mismo guardẽ los dichos Curas quando declararen el Euan-gelio”.

Iruñeko Elizbarrutian, orobat, Antonio Venegas de Figueroa Apezpikuak 1608ko urtarrilaren 26an adieraziko zuenetik, antzerako erabakiak hartzen ziren:

“Iten: siendo así que todo fiel cristiano, para salvarse, debe saber explícitamente y en su propia lengua la doctrina cristiana, o a lo menos, los principales artículos de ella, porque en ella está lo que debe creer, obrar, esperar, pedir y desear. Y no se puede bien hacer lo que es bueno, ni evitar lo que es malo, si no se sabe. Y por ser esto de tanta importancia, se ha encargado por Constituciones Sinodales y mandatos de visita a los curas la enseñen con cuidado y aun se ha hecho imprimir en vascuence y en las demás lenguas que se usan en este obispado”. (93)

Garaiko beste zenbait lekukok ere emango digute erabaki horien berri. Hauxe irakurtzen da, esate baterako, 1625ean Lope de Isastik argitaratutako *Compendio historial*-ean:

“(…) y el Obispo de Pamplona D. Antonio de Venegas mandó hacer un catecismo ó cartilla de la doctrina cristiana en bascuence, que anda impreso, y despues se han escrito otros paraque por ellos aprendan los niños de Guipuzcoa y Vizcaya las oraciones y la doctrina.(…)” (94)

Agindu hori berori emango zien Iruñeko Apezpikuak 1629an Bakedanoko eliz-arduradunei:

(93) INSAUSTI, Sebastián, *El primer catecismo en euskera gulpuzcoano* (?), op. cit., 78-79. orr.

Hemen ere, ordea, 1608a baino lehenagotik zegoen indarrean erabaki hori, Echavek, 1607. urtean argitara emandako lanean (ECHAVE, Balthasar de, *Discursos de la antigüedad de la lengua cantabra bascongada*, México, 1607, 58. orr.), zera bait zioen:

“(…) quiero os explicar, el Ave Maria, segun que el Obispo de Pamplona, con diuino acuerdo tiene ordenado que se enseñe en estas Prouincias, junto cõ toda la doctrina Christiana, que siẽpre hasta estos tiempos se auia enseñado en latin y romance (...)”.

(94) ISASTI, Lope de, *Compendio historial de la M. N. y M. L. provincia de Gulpuzcoa*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1972, 164-165. orr.

“Declárese el Santo Evangelio a sus feligreses los domingos y días de fiesta, reduciendo sus sermones y pláticas a la enseñanza y declaración de las oraciones y doctrina cristiana y misterios principales...y en cuanto a las oraciones no se contentando conque las sepan en latín, pues al no entenderlo es como si no lo supieran, sino que las aprendan en la lengua que las entiendan, y pues la bascongada es la comun del Valle, procúrese que en ella las sepan”. (95)

Belapeyrek 1696an argitaratutako Catechima laburra-n irakurtzen dugunez, ildo beretik zebiltzan *Oloroneko Elizbarrutian*:

“Hartacoz Çuberoaco Juge espiritual beçala ordenatcen dugu Herri hontaco erretor, edo Vicari orori, Jesu-Christen doctrina uscaraz eracax eta enthelega eraci diecen bere Parropiacoer, gutiena igante oroz, Meçaco guihaurek aspaldian uscaraz eguin dericiegun pronoareen ondoan (...)”. (96)

Nolanahi ere den, Eliza katolikoaren jokabide aldaketa eta hizkuntzarekiko kezka honen adibiderik gardenena *Lapurdiko* itsasaldean, eta buruzagi Axular ageri dela, sortuko den idazle multzoa dugu (97). Beroni esker Lapurdin, XVII. mendean zehar, sekulako aurrerakada egingo da euskara idatzizko zereginetarako gaitze bidean.

Badirudi, ordea, asmo eta erabaki horiek paperetan eta hitz hutsetan gelditzen direla gehienetan, Larramendik (1690-1766), elizgizona berau, dioena egia izatera behintzat:

“Los que debieran estar más instruídos en lo dicho –euskara jakitean, alegia–, son los que están menos y los que hablan el vascuence indignamente y sin rastro de inteligencia. Estos son los eclesiásticos, religiosos, caballeros y gentes acostumbradas desde chicos al castellano o a la gramática que aprendieron del latín.(...)” (98)

Eta beheraxeago:

“(…) Y aun ha llegado la infamia a valerse de estos predicadores para que en muchos pueblos, comunidades de monjas y cofradías, se tenga por cosa de menos valer el que se predique en vascuence, como que el

(95) LAPUENTE MARTINEZ, Luciano, “Toponimia amescoana”, FLV, VII (1975), nº 21, (393-410), 393-394. orr.

(96) BELAPEYRE, Athanase, *Catechima laburra eta Jesus-Christ Goure ginco jaunaren eçagutcia, salvatu içateco*, Pauven, 1696, 19. orr.

(97) Inoiz “Sarako Eskola” deitu izan den idazle multzo honetako partaide dira, besteak beste, Ziburuko Etcheberri, Argañarats, Claveria, Guilentena, Haramboure, Harizmendi, Hirigoyti eta Materre.

(98) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*, Sociedad Guipuzcona de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1969, 283. orr.

vascuence es solamente lengua para aldeanos, caseros y gente pobre: diablura más perjudicial no ha podido introducirse en los púlpitos. (...)" (99)

Salaketa berbera egingo zuen Mendiburuk (1708-1782) –elizgizona hau ererebere Igande eta festegunetarako irakurraldiak izeneko liburuan:

"Eliztar euscaldun jaunac eguiten dirà Eliz-jaua ta predicari beren estudi guciac erdal-errien batean eguin ezquero. Estudiora joaten dirà aur-euscara bai ta besteric icasi bague, ta cequiten pisc orretan ere moteltzen dirà ango beren lanac bucatu horduco; ta Eliz-jaua ta predicari eguiten diranean arkitzen dirà aurtasunean difta euscar ere ez daquitela. Eliz-jaua eguiten diranac ceruraco badirà, beren euscaldun erritarrei igandeetan ta jaietan beintzat (Trentoco Concilioz Jangoicoac dionaz) aguertu ta adirazeracutsi behar diete Evangelioo doctrina ta ceruco videraco ta vicitz òn bateraco jaquin behar dutena, ta adirazeracutsi beren hitzcuntzan ta errazqui adi dezaqueen eran". (100)

EUSKALDUN = FEDEDUN

XIX. mendeaz geroztik batipat, erlijio katolikoari eta gainbehera zihoazen bizimodu eta ideologiei loturik ageri zaigu euskara.

IPARRALDEAN

Esan genezake identifikazio honen aztarnak 1789ko Iraultza ondoren azalera-tzen direla. Iraultzaz geroztik, frantsesa, aurrerapenarekin, kulturarekin, batasun nazionalarekin, laikotasunarekin... berdinduko da, eta frantsesaz gainerako "patois" eta hizkuntzak –euskara barne–, atzerapenarekin, kulturgabetasunarekin, feudalismoarekin, intransigentzia erlijiosoarekin, fanatismoarekin... Hauxe izan da, Calvet-ek ongi dioenez (101), Frantziako Iraultzak hizkuntza mailan izan duen ekarri nagusienetarikoa bat.

Orpustanen ustez, XIX. mende erdialderantz gauzatzen da Iparraldean euskaldun=fededun binomioa:

(99) Ibidem, 287. orr. Ikus auzi honetaz 283. orr. eta hurr. Salbuespen gisa Zarauzko frantziskotar misiolariak aipatzen ditu.

(100) ALTUNA, Patxi, *Mendibururen Idazlan argitaragabeak* (I. vol.), Euskaltzaindia y Mensajero, Bilbao, 1982, 53. orr.

Antzerako hitz gogorak izango dituzte Aita Prai Bartolomek (SANTA TERESA, Aita Prai Bartolome, *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac* (I. vol.), Iruñean, 1816, VIII-X. orr.) zein Juan José Moguelek (MOGUEL, Juan José, *Baseerritaar nequezaleentzaco escolia, edo icasbidlac, guraso justu, ta jaquitun famillja ondo azl ebeneen exemplu, ta eracutsijean*, Bilboon, 1816, V-VII. orr.), biok elizgizonak.

(101) CALVET, Louis-Jean, *Lingüística y colonialismo*, Júcar, Madrid, 1981, 160. orr.

“Après la Restauration, l’Eglise exerce un pouvoir considérable. (...) C’est ici et maintenant que s’élabore le visage du paysan basque croyant, dévot et conformiste”. (102)

Eta beherago:

“(…) Les années médianes du XIX^e siècle, de 1840 à 1860, sont le moment décisif où la mentalité basque se transforme en se cléricalisant de plus en plus nettement. (...)” (103)

1870eko irailaren 4an, Frantzian III. Errepublika ezartzen delarik, areagotu bai- zik ez da egingo batasun hori. Euskaran eta euskalduntasunean ikusiko du Elizak bere burua defendatzeko baliabiderik egokiena. Garai honetako lekuko ugariatatik, 1891n argitaratutako Kredo edo sinhesten dut esplikaturia izeneko liburuan esaten den hauxe aukeratzen dugu orduko giroaren erakusgarri:

“Erran behar dugu atsegin handirekin, Pio IXa Aita-Sainduaren erakspenaren kontra dohazin guti aurkitzen dire gure Eskualdunetan. Fedea badu Eskualdunak eta bere fedeari iratxekitzen du. Fedea, bere amaren esnearekin edan izan du. Haren odolean da, eta hezur fuinetan; federik gabeko Eskualduna, Eskualdun arnegatu bat laiteke, kanpo herrietako haize tzar zenbeitek ekharri luken hazi pozoinatua”. (104)

HEGOALDEAN

Karlistada garaian bistaratuko da Hegoaldean erlijioaren eta euskalduntasunaren uztardura (105). Bada hemen ere non aukeratu dioguna baieztatzeko. José Ignacio Aranak, berea Echegarayk dioenez “encargado de preparar textos y de aconsejar a los que habían de intervenir en el establecimiento del plan escolar acordado por la

(102) ORPUSTAN, Jean-Baptiste, Rôle et pouvoirs de l’Eglise, op. cit., 146. orr.

(103) Ibidem, 147. orr. Baina jarraian hauxe ere badio:

“(…) Les récentes études sur le comportement politique des Basques à cette période –1848-1870 garaiak dihardu– montrent que, jusqu’à l’établissement du Second Empire, de fortes minorités ou même des majorités de voix se sont rassemblées sur les listes républicaines libérales ou anticléricales, dont celle de Chaho. Ces voix de gauche, parfois très nombreuses, sont situées dans des secteurs considérés aujourd’hui comme les plus cléricaux et conservateurs: dans l’arrondissement de Mauléon, Soule et Basse-Navarre en particulier. Les régions les plus basquistes sont alors les plus progressistes. Au contraire, les places fortes du conservatisme monarchique sont Orthez et Pau en Béarn, le Labourd en Pays Basque. (...)”

(104) LAPEYRE, Etienne, Kredo edo sinhesten dut esplikaturia, Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, Bilbao, 1982, 64. orr.

(105) Aurretik ere badira noski horren azarnak. Moguelek XIX. mende hasieran idatzitako Peru Abarca liburuan, Peru, euskaldun on eta kristau zintzo bezala agertzen zaigun bitartean, Maisu Juan, hala-holako euskaldun eta kristau gisa azalduko zaigu.

Junta de Instrucción Pública de la Diputación carlista de Guipúzcoa” (106) izan zelarik, honako hau idatzi zuen 1872an argitaratutako San Ignacio Loyolacoaren bicitza liburuaren eranskinean:

“(…) Euskalerrriac beti illezcorra bere zoriean iraun dezan cimentuztat edo *iru arroca bici* ta pillare gogor becela daduzcanac dirade, *prestutasun cristauzcoa* cristauai dagozten oitura ederrakin, bere eraenmodu ta *bicilegue berekiac*, eta *bere izkera* eder millaca urtecoa; eta iru gauza oyen contra ai dira ta aico ere euskalerrria doacabetu, gaistotu ta ondamenti izugarrian amilduacitzeco aztalca bician dabilztan eta diarduten etsai, arerio, eta naaspillazaleac. Beragatic gogor eguin bear zaye; eta contuz ibilli. Eta orra arrazoy portizenecoa-or euskera gordetzeco, escudatzeco eta goituzeco. (...)” (107)

Lehen euskal nazionalismoa ez zen pentsakera honetatik batere saihestuko, beraren sortzaileak, Sabino de Aranak, behin eta berriz azpimarratuko zuenez:

“(…) la desaparicion del euskara, causa de inmoralidad, ignorancia y extravío de ideas. Este es un hecho constante y universal, y los hechos de índole tal se imponen á la razon. Donde termina el euskara, comienza la degradacion moral y religiosa, y desaparece mediante ello la educacion natural del aldeano de nuestro suelo.(...)” (108)

Ondorengoetan ere sarritan azalduko da idea berberau (109), nahiz eta Xabier Lizardik, P.N.V. alderdiko Gipuzkoa-Buru-Batzarreko idazkari izandakoa berau, identifikazio horren arriskuak argi eta garbi adieraziko zituen:

“Eusko-oikuntza bikañen zaindari oberena euskera omen; kristautasuna ta euskera elkar-bildurik, ia-ia soin bakar batean mamiturik omen-dira. Euskera ta Kristautasuna era batera dabilta...

Ez, gero, begiei ta zeuen naikundeari geiegi sifets! Ikus-naaste zoroak dira oiek, bai eroso guretzat, baña bai kaltekor ere euskerarentzat eta Kristautasunarentzat.

Ez; bazka dezagun bein-betirako gogo euskeltzalea egiaren ogiz eta ardoz”. (110)

(106) ECHEGARAY, Bonifacio de, “Vehículo lingüístico...”, *Yakintza* (1934), 8. zb., op. cit., 108. orr.

(107) ARANA, José Ignacio, *San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gatzelaniaz*, Bilbon, 1872, 205-206. orr.

(108) ARANA Y GOIRI, Sabino de, “El proyecto de Academia Bascongada del Sr. de Artiñano”, *Euskal-errria*, XII (20-07-1886), (361-364), 362. orr.

(109) Ikus, esaterako, garaiko nobelarik hoberentzat jotzen diren *Kresala*-ren XII eta XVI. kapituluak eta *Garoo*-ren XI eta XIXgarrenak. Txomin Agirre dugu nobela bi hauen egilea.

(110) AGIRRE'tar Joseba Mirena, “Egia ikus dezagun, ama!”, *Itz-lauz*, Edili, San Sebastián, 1972, (49-52), 50. orr.

ERLIJIOA ETA EUSKAL LITERATURA

Euskara erlijioarekin uztartze honek badu isladarik euskal literatura idatzian, hizkuntza honetan egin izan den gehienak proselitismo erlijiosoa bait dauka helburutzat eta, zuzenki erlijiosoa izan ez denetan ere, didaktismo eta moralismo kutsu nabarmena erakutsiko du maiz (ipuinak, alegiak, e.a.). Sarasolak dioenez (111), 1545-1879 bitartean argitaratzen diren euskarazko liburuak 101 dira guztitara. Horietarik, 12 omen dira erlijiozkoak ez direnak eta, 4 baizik ez, literariotzat har ditzakegunak. Sarasolak berak Arestiren Obra Guztiak liburuei eginiko hitzaurrean esango duenez, 1879an, Hegoaldean lehen aldiz Euskal-Jaiak antolatzen direnean, jarri behar omen da euskal literaturaren abiapuntua:

“*Literatura* hitza bere zentzu hertsian hartzen badugu, euskal literatura orduan hasten dela esan daiteke. Teatro modernoaren lehen komediak orain ematen dira, eta halaber nobelagintzan egiten diren lehen saioak. Kazetalaritzaren hasiera ere egun hauetakoa da, batez ere Iparraldeko EUSKALDUNA eta Hegoko EUSKALERRIA aldizkarien bidez. Poesiari dagokionez aurrerabide koantitatibo (eta zenbait kasutan are koantitatibo) bat gertatzen da ordudanik. Oso noizean behingo poemagintza batetik, produkzio etengabe eta gonbarazioz ugari batera pasatzen gara, liburuez bestalde, lehen aipatu ditugun aldizkarien bitartez”. (112)

Idazleen gehiengoa ere elizgizonek osatzen dute, XIX. mendea baino lehenagokoen artean 90%a direlarik (113). XIX. mendeko lehen erdialdean bertan ere banaka batzuk dira idazle laikoak eta, Sarasolari jarraituz (114), 1972-73 epean nagusituko zaio lehen aldiz idazle laikoen kopurua (53,1%) elizgizonenari (46,9%).

Xede nagusitzat erdararik ez zekiten euskaldunei kristau heziketa helaraztea zeukan “literatura” mota honek, euskarari kultur hizkuntza bilakatzeko atea ixtea izan du bere ondorioetariko bat. Ados gaude Sarasolarekin honako hau dioenean:

“(…) XIX. mendean euskaraz nahiz erdaraz diharduten euskal idazleak bilingueak baino areago, diglosikoak dira: kulturmailarik apalena gainditzen duten lanak, edo euskal produkzioak ohizko zituen gai erlijioso edo literariotik irteten diren izkribuak, erdaraz, gaztelaniaz batez ere,

(111) SARASOLA, Ibon, *Euskal literatura numerotan*, Krixelu, Donostia, 1975, 109. orr.

(112) ARESTI, Gabriel, *Obra Guztiak* (I. vol.), Krixelu, Donostia, 1976, (10-88), 14. orr.

Gauza bera zioen *Historia social de la literatura vasca* (Akal, Madrid, 1976, 39. orr.) liburuan:

“Dechepare cierra una etapa de la literatura vasca. Desde entonces, excepto en casos contados, tendremos que ocuparnos de obras que las historias literarias de cualquier otra lengua dejarían de lado, es decir, traducciones o adaptaciones de obras extranjeras. Esta situación no se ha modificado hasta nuestro siglo (...)”.

(113) SARASOLA, Ibon, *Historia social de la literatura vasca*, op. cit., 52. orr. (Frantziar, garai berean, 6 % baizik ez omen ziren elizgizonak).

(114) SARASOLA, Ibon, *Euskal literatura numerotan*, op. cit., 82. orr.

moldatzen dira. Euskal hizkuntzaren paregabetasunak, abantailak eta pres-
tutasunak paperean geratzen ziren, apologisten erdal liburuetako plame-
tan hain zuzen. Errealitate gorrian euskarak ez zuen balio zenbait baserri-
tar eta nekazari ezjakini erlijio-irakaskintza hastapenezkoena emateko bai-
zik. (...) literatur euskararen dialektotze-prozesoa, egoera honen ondorio
zuzena da, erraz ikus daitekeen bezala". (115)

Jokabide honen froga ugari emango digu euskal literaturak: Oihenart, Larra-
mendi, Juan Antonio Ubillos, Juan Antonio Moguel, Aita Prai Bartolome, In-
chauspe... (116)

Etena gerrostean gertatzen da. Euskal Herrian, eta zehatzagoak izateko Hego
Euskal Herrian, aro berri bati ematen zaio hasiera. Gizarteko alor guztietan nabari
da aldaketa.

Industrializazioaren azkartze berri bat suertatzen da, oraingoan Araba eta Nafa-
rroara ere hedatuz. Industrializazioarekin batera langile eta herritar mugimendua sen-
dotuz doa, lehenbiziko grebak ("Bandas"-etakoak, e.a.) antolatzen direlarik. 1959an
E.T.A. izeneko erakunde armatua sortu zen, ordura arteko abertzaletasunarekin eten
bat eginez. Frantziar Estatuan, lehenik Indotxina eta gero Algeriako porrotak jasan
ondoren, eskabide abertzaleak azaleratzen dira han-hemenka. Iparraldean ere soma
daiteke honen oihartzunik: 1960an Enbata izeneko aldizkariaren lehen zenbakia
kaleratzen da eta, 1963ko apirilaren 15ean, alderdi politiko modura antolatzen.

Kultur arloan ikastolen sorrera aipatu behar da lehen-lehenik eta, horrekin ba-
tera, Euskal Herri osoan zehar osatzen diren teatro talde ugariak. Une honetan egun-

(115) ARESTI, Gabriel, *Obra Guztiak*, op. cit., 18. orr.

Historia social de la literatura vasca, op. cit., 39-40. orr. liburuan, berriz:

"(...) en todo este largo lapso de siglos, la literatura vasca no ha sido testigo de los
acontecimientos y los problemas de la vida vasca, y, aun en menor medida si cabe, no ha
sido el medio de expresión de esa vida. Esta necesidad la han llenado las lenguas extrañas
vecinas, mientras el euskera se empleaba sólo para la instrucción religiosa (...)"

(116) Nonbait ere ondo jabetu zen honetaz Cardaberaz -bere produkzio osoa euskaraz burutu zuen
idazlea-, Larramendiri -azken honek, euskara ondo menperatu eta besteri zuzenketak egin arren,
bere produkzioa, ia osorik, gaztelaniaz burutu zuenlarik- emandako erantzunak erakusten duenez:

"(...) Tengo muy presentes y he leído con gusto muchas veces los avisos de V. Rev. (...)
Pido perdón y tengo voluntad de emendarme. Mas no prometo el acierto, por falta de
conocimiento práctico y a lo menos actual advertencia. Son muy pocos los que con rigor
saben el bascuence según toda su extensión en nombres, verbos y la rarísima armonía de
sus conjugaciones; ni yo soy de estos pocos, y acaso será V. Rev. solo y no ay más. (...)
V. Rev. que ha escrito a la maravilla y tantos libros sobre el bascuence o del bascuence, ni
uno ha escrito en bascuence. ¡Ojalá hubiera escrito muchos y muchos sermones y aun más
doctrina! Nos hubiera echo a todos otro favor mayor y nos hubiera enseñado practicamente
a hablar, escribir, etc." (TELLECHEA IDIGORAS, J. Ignacio, "Larramendi y Cardaveraz.
Censura y réplica inéditas sobre un libro de piedad", ASJU, II (1968), (3-31), 19-20. orr.)

doko eragina izango du kantagintzak: 1961ean plazaratzen da Michel Labéguerieren lehen diskoa, handik lasterrera, "Ez dok amairu" kantari taldea sortuko delarik.

Literatura munduan ere ageri-agerian dago etena. Idazleak, atzerriko joerak be-
reganatzan, garaiko gizarteak bizi duen errealitatea isladatzen eta errealitate horren
aurrean nolabaiteko jarrera hartzen saiatuko dira. Aurrerantzean, euskalduntasunak
zeukan nekazal eta katolikotasun kutsua haustera joko da eta, euskarari dagokio-
nez, itzelezko ahaleginak egingo dira kultur tresna bilakatzearren, standardizazio-
aren beharra ia obsesio bihurtzen delarik.

1.1.5. EUSKARA ETA HIRIGUNEAK

Hizkuntzen bilakabidea hiriei lotua agertzen zaigu maiz. Jatorri ezberdinetako
jende askoren biltoki izanik, hizkuntz-eredu eta joera berrien sorleku bihurtu ohi
dira, berrikuntzok gero, eta urruneko bizilagunek hiriokin dituzten harremanei
esker, hedatuz eta nagusituz joango direlarik. Komunitate askoren kasuan hauxe
izan da, hain zuzen ere, hizkuntz batasunera iristeko bidea. Vendryèsek (117) greko
klasikoa (Athenasko hizkeran oinarritua), latina (Erromako "sermo urbanus"-ean
oinarritua), italiara (Fiorenzako hizkeran oinarritua), frantsesa (Pariskoan oinarri-
tua), portugesa (Lisboakoan oinarritua) eta ingelesa (Londreskoan oinarritua) aipa-
tzen ditu bide honi jarraitu zaizkien adibideen artean. Gugandik hurbilago, denboran
zein espazioan, katalanaren eredia genuke, bertoko barietate standarda Ekialdeko
hizkeretan oinarritu bait da, Bartzelonak -Kataluniako "cap i casal"-, arlo guztietan
-zenbaitek aurreritzi edo interes politikoz onartu nahi izan ez badu ere- daukan
lehenetasunak horretaraturik (118).

Euskal hiriak, ostera, ez dira eginkizun hori betetzeko gauza izan. Iragan ga-
raiei bagazozkie, Euskal Herrikoak (Irufea, Baiona eta, beranduago, Bilbo) ez dira
aski haundiak izan eta, bestalde, ez dute, euskal barruti txikirako ere, kulturgune
bilakatzeko ahalmenik izan.

Gauregungo egoerari so eginez gero, makrozefaliarako joera nabarmena daku-
sagu, bereziki Bizkaian eta Araban. Lehen kasuan (119), "Bilbo Handia" deitu es-
kualdeak 951.244 bizilagun biltzen zituen 1984an, probintzia guztiaren 78,82%a
beraz, eta Bilbo bera, 397.541 bizilagunekin agertzen zen (32,94%).

(117) VENDRYES, Joseph, *Le langage. Introduction linguistique à l'histoire*, Al-
bin Michel, Paris, 1968, 289. orr. eta hurr.

(118) Honetaz, ikus: BADIA I MARGARIT, Antoni M., *Llengua i cultura als Països Ca-
talans*, Edicions 62, Barcelona, 1977, 87. orr. eta hurr.

(119) Euskal Lurralde Autonomoari dagozkion datu guztien iturria: EUSKO JAURLARITZAREN
ESTADÍSTIKA-ZUZENDARITZA, *Euskal urtekarl estatistikoa 1985*, op. cit., 40-
42. orr.

Askozaz indartsuagoa da makrozefaliarako joera Araban, Gasteiz, bera bakarrik, 199.239 bizilagunekin bait genuen urte berean, probintzia guztiaren 74,09%-arekin alegia.

Iparaldeko populazioaren 43,96%a, bestalde, Miarritze-Angelu-Baionan (B-A-B) biltzen zen 1982an (120), hiruren artean 103.969 bizilagun zituztelarik. Barrukaldeko herriak txikiak dira oso. Donibane-Garazik, esaterako, 1.563 bizilagun bainik ez zituen (probintzia guztiaren 4,49%a gutxi gorabehera) eta Maulek 4.099 (Zuberorearen 26,60%a).

Antzerakoa dugu Nafarroako egoera. Iruñeak, 1984an, 181.668 bizilagun zituen, probintzia guztiaren 34,90% (121).

Gipuzkoa dugu populazio banaketarik orekatuena azaltzen duena. Nahiz eta Donostialdeak 326.364 bizilagun (probintzia guztiaren 46,06%a) eta, Donostiak berak, 178.906 (25,05%a) biltzen dituzten, bada probintzia honetan beste hirigune hazirik ere: Irun, Eibar, Arrasate, Tolosa, Zumarraga-Urretxu edo Beasain-Ordizia.

Hala ere, eta makrozefaliarako joera hau gorabehera, ez dago Euskal Herrian benetako metropolirik Madril, Bartzelona edo Bordele izan daitezkeen bezala. Aitzitik, egitura multipolar bat dakusagu. Egia bada ere Bilboren spread eragina Kantauri Arabarreko eskualdera (Laudio, Amurrio...), Deba arrora eta are beste zenbait probintziatara (Burgos, Santander eta Logroñora) hedatzen dela, ez du, Euskal Herri mailan, erabateko nagusitasunik bereganatu eta probintzia bakoitzak, hein baten behinik behin, bere nortasunari eutsi dio (122).

Ez dugu ahaztu behar, last but not least, euskararen galera hirietan gertatu zela lehenik (123) eta, aintzinadanik, inolako hizkuntz-eredurik eskaini baldin badute erdarenak, eta ez euskararenak, izan direla. 1876an foruak ezabatuz geroztik, baina, nolabaiteko etena soma daiteke. Harrez gero hiriguneetan, eta ez nekazalguneean, gauzatuko da euskararen eta euskal kulturaren aldeko jarrerarik kementsuena. 1778an "Asociación Euskara de Navarra/Nafarroako-Euscarazco Elkargoa" sortuko da Iruñean eta 1778-83 bitartean Revista Euskara argitaratuko du, bertan euskarari tartetxo bat emango zaiolarik. Gasteizen, halaber, eta Fermín Herráñen zuzendaritzapean, Revista de las Provincias Euskaras argitaratuko da 1878-79 bitartean. Donostian José Manterolak sortutako Euskal-erria aldizkaria (1880-1918) izango da denetan buruzagia. Aldizkari honen inguruan zazpi probintzietako euskaldunen lanak, eta are atzerriko euskaltzaleenenak, biltzen ahaleginduko zen, gaiak

(120) Iparaldeko datuen iturria: INSEE, Recensement général de la population de 1982..., op. cit., 64-1. orr.

(121) Iturria: DELEGACION PROVINCIAL INSTITUTO NACIONAL DE ESTADISTICA EN NAVARRA, Reseña Estadística de Navarra. Año 1984, op. cit., 388. orr.

(122) Hau ulertzeko, beste zenbait arrazoiren artean, euskal probintziek (Bizkaiak eta Gipuzkoak 1937ra arte bainik ez) izan duten autonomia fiskal eta administratiboa aipatu beharko genuke.

(123) Miarritze, Angelu eta Baiona, bestalde, gaskoiak izan dira hizkuntzaz eta ez euskaldunak.

ere mota guztietakoak (historia, literatura, musika, zuzenbidea...), erdarazkoak zein euskarazkoak, izango zirelarik. 1882an hasita, gainera, eta d'Abbadiek urratutako bi-deari jarraituz, Lore-Jokoak antolatzeari ere ekingo zion. Guzti honekin batera teatroaren aitzinatze nabarmena gertatuko da.

Bilbon, eta nonbait ere hiri honen tradizio liberala dela kausa, XIX. mende amaiera arte itxaron beharko da euskaltzaletasunak sustraiak bota ditzan. Geroztik, ostera, eta bi erraldoiren, R.M^a de Azkue eta Sabino de Arana alegia, inguruan berebiziko abiada hartuko du, Donostiak ordura arte zeukan nagusigoa Bilbora aldatuko delarik. Aranak, hainbat arlotan, eta bereziki politikan, egindako lanez gainera, egunkari eta aldizkari ugari sortuko zituen: *El Correo Vasco* egunkaria (1899), *Euzkadi* aldizkaria (1901) eta *Bizkaitarra* (1893-95), *Baserritarra* (1897), *La Patria* (1901-1903) eta *Patria* (1903-1906) astekariak. Azkuek, berriz, *Euskal-zale* aldizkaria (1897-99) eta *Ibaizabal* astekaria (1905).

Bilbon, dena dela, lehenagotik ere eginak zeuden zenbait urrats. 1876an, Sagarminagak bultzaturik, "Sociedad Euskal-erria" zabalduko zen eta *La Unión Vasco-Navarra* argitaratuko. 1885ean, aldiz, *Revista de Vizcaya* kaleratzen hasiko zen .

Egungo Euskal Herriaren egoerak aipatu eritzi hauek sendotu baizik ez lituzke egingo, hiruguneetan eta hiritarrengan ikusi uste bait ditugu euskararen iraute, standardizatzeko, modernizatzeko eta normalizatzeko aldeko jarrera eta jokabiderik garbienak.

1.1.6. EUSKARA ETA KOMUNIKABIDEAK

Bizimodu modernoan eragin ikaragarria izan ohi dute komunikabideek barietate standarda hedatzeko eta ezagutarazteko prozesuan. Txikia izan da, eta txikia da oraindik, ordea, euskarak komunikabideotan izan duen lekua, esparru hau ere erdarek bete eta betetzen bait dute, nahiz eta probintzia batzuetatik besteetara, gainontzeko esparruetan bezalaxe, alde handia eta dinamika ezberdinak nabari diren.

IPARRALDEAN

1967an ekin zitzaion Frantziako *irradi* publikoan euskarari egunean zehar minutu gutxi batzuk eskaintzeari. Ez da geroztik aldaketa sakonik gertatu: 1985eko udazkenetik eguneko ordubete izaten bait da soil-soilik "Radio France Pays Basque" irrati publikoan euskaraz ematen dena (124).

1981ean, sozialistak Agintea hartzean, "irradi libreak" sortuko dira: "Gure Irratia", "Irulegi Irratia", "Xiberoko Botza"... Irratiok entzulego gotor bat bereganatuz joan dira, euskarari ere tarte handi bat emanez, "Gure Irratia"-ren kasuan berau delarik erabiltzen den hizkuntza bakarra.

(124) Irrati hau ez da, bestalde, Zuberoan hartzen.

1970era arte ez du euskarak –ez frantsesaz gainerako ezein hizkuntzak– *telebistan* sartzerik izango. Gaurregun, gutxi gorabehera ordubetekoa baizik ez da hilabete osoan euskarari uzten zaion tartea frantziar telebistaren hirugarren katean (FR-3).

Emanaldiak honen urriak eta erabiltzen diren gaiak, maiz, gainbehera doan bizimodu tradizionalari lotuak izanik bultzada kaskarra eman zaio euskara gaurkotze eta standardizatzeko ahaleginari. Salbuespenik aipagarrienak, salbuespenik izatekotan behinik behin, euskarazko aldizkariak genituzke.

HEGOALDEAN

Franco jenerala bizi zela ekin zitzaion Hegoaldean, eta Bizkai-Gipuzkoetan nagusiki, euskara prentsan eta, batez ere, irratan erabiltzeari. Euskarari leku egiten zioten *irratia*k (Segura, Arrate edo Tolosakoak) lehenagotik ere bazeuden arren, 1961eko azaroaren 2an sortutako “Loiolako Herri Irratia” izango zen euskararen normalizaziorako lehenbiziko urratsak emango zituen, euskara edozein gai landu ahal izateko egokitzen saiatuz. Gaurregun ere Loiola, Donostia eta Bilboko Herri Irratiak ditugu, irradi ofizialen artean, euskarari atxikienik ageri zaizkigunak.

1983az geroztik, irradi sare baten jabe egingo da Eusko Jaurlaritza. Sare horretakoa den Donostiako “Euskadi Irratia”-k hogeita lau orduak euskara hutsean emateko ametsa burutu du 1986ko urriaren lehenetik aurrera.

Gainontzeko irratietan, hala publiko nola pribatuetan, apurra da euskarari ematen zaion tartea eta ez oso egokia betetzen duen zeregina, nahiz eta 1980az geroztiko urteetan, inolako laguntza eta babes instituzionalik gabe, ugarituz doazen irradi libreterariko zenbaitek euskara hutsez, edo euskara nagusi dela, diharduten.

1975eko abenduan ematen da espainiar Estatuan euskarazko lehen *telesaioa*. Astero ordu erdiz eskainiko zen “Euskalerrria” saioak, ordea, bizitza gorabeheratsua bezain laburra izango zuen. Gaurregun euskal eta nafar lurralde autonomoetan euren egiten diren telesaiotan ere, “Telenorte” eta “Telenavarra”-n alegia, guttiz bazterturik azaltzen da euskara.

Erabakiorra izan da, 1983an hasita, Eusko Jaurlaritzaren eskutik abian jarri den telebista kanala, euskara bait da bertan nagusi. Berebiziko laguntza eman liezaioke komunikabide honek euskararen standardizazioari, eta normalizazioari oro har, baldin eta hizkuntz politika zuzen bat eramateaz gainera, gaurregun dauden oztopo politikoak gaindituz, euskal probintzia guztietara hedatzea lortuko balitz.

Prentsari dagokionez ez da oraindik euskara hutsezko egunkari bat kaleratzea erdietsi, nahiz eta 1937an, gerra zibil garaian, Eguna izeneko bat izan zen. Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzaz, 1986ko irailaren 26an Hemen izeneko astekari bat eta, urte bereko urriaren 5ean, Eguna izeneko beste bat, biok egunkari egiturarekin, plazaratuko ziren.

Gero eta haundiagoa izan da euskarak, XIX. mende amaieratik hasita, *aldizkarietan* izan duen lekua. Euskara gaurregungo egoerak eskatzen dituen beharrianeta-

rako trebatze eta kultur hizkuntza bilakatzeko ahaleginean bat ageri da, gure eritziz, guztien artean aitzindari: 1950-59 bitartean, Guatemalan lehenik eta Miarritzen gero, argitara emango zen Euzko-Gogoa. Ados gatoz erabat Ibinagabeitiaren hitzokin:

“(…) Kultur-bideak barna oldartuz, aldizkari bakar bat ibili zaigu azken bi urte auetan, arlorik zabalenak euskeraz arrotuz. Aldizkari ortan ifiun baño obekiago, euskeraren almena bulartu zaigu, euskal idazle azkarrenen arnas ta antzeak eraginda. Zenbait urte lenago amestu ere ezin gentzaken gaiak erabili ditute, taiuz, egoki, sakon ta argi. Bi urtetan, zazpi-reun orrialdetan, berreun idazlan eman dizkigu, yakintza, elerti, musika, olerti eta abar azaldurik. Itz batean esateko, euskerarentzat, idazle antzetsuaren eskuartean kultur-tresna gertatzen danean, ezinkizunik ez dagola argi erakutsi digu. Orra EUZKO-GOGOAREN irakaspen mardula, euskal-idazle guztiok yarraibidetzat artu genukena”. (125)

1954an hasita Egan eta 1956az geroztik Yakin aldizkariak ere lagun izango zituen helburu horretan. Azken aldizkari honetako lehen zenbakian bertan argi eta garbi aitortzen ziren hizkuntzari buruz zituzten kezkek:

“Zuk, lankide yator, ta nik txerta diogu gure izkuntz oni, lur ez jotzeko ain bearrezko zuan mentu berri ori. Zaarra dugu izkuntza, ta basatia. Egun, artzain ta ikazkifien mintzaia soilik. Egun-egungo jokabide-mailetatik at dugu gure euskera.

«Kultur-mentua», onatx zuk ta nik txerta diogun bizigarri berezia. Nik bezin ondo dakizu: gure euskera kultur-yoera ta kultur-ats guzi-guzietan murgil ez bitartean, aizea orrazten ari gera. Berez dager”. (126)

Eta beheraxeago:

“Edertu dezagun geure izkuntza. Egungo arazoetara egokitu. Saia gaitezen edotariko gaia ta arazo euskeraz erabiltzen. Tamala, bait da naiz erriari, naiz gutartean euskeraz jardutean kirtenkerita edo ikullu gaitetara jo bear izatea!” (127)

1.2. INDAR BATERATZAILEEN ERAGINA

Euskal probintziak historiaren harian sakabanaturik eta bide ezberdinetan barrena dabiltzala agertzen zaizkigun arren, badira, pentsatzekoa denez, elkarrengana hurbiltzen eta euskaldun guztien arteko batasuna estutzen aritu izan diren indarrak ere.

(125) IBINAGABEITIA 'tar Andima, "kultur-bidean", Gernika (1952), nº 21, (237-239), 237. orr.

(126) "Ataria", Yakin (1956), 1. zb., (1-2), 1. orr.

(127) Ibidem, 2. orr.

Nolabaiteko ziurtasunez ezagutzen ditugun garairik zaharrenei bagagozkie, erromatarren eta herri germaniarren erasoaldiek euskal lurraldearen murrizketa ekarri zutela ikusten dugu, horrekin, ordura arte eremu zabalago baten bizi zen jendearen arteko harremanak areagotu zirelarik. Erasoaldioi aurre egin beharrak, bestalde, batasun kontzientzia iratzarri egingo zuen. Guzti honen emaitza zuzena dugu, batere zantzarik gabe, Nafarroako Erresumaren sorrera (128).

IPARRALDEAN

1789ko agorriaren 4ko Legeaz geroztik azaleratzen da Iparraldean batasun nazionalaren kontzientzia. Lapurdiko Biltzarrak, urte bereko azaroaren 18an, ordura arte izandako nortasun administratibo eta juridikoari ezin eutsi izatekotan, Nafarroa Beherea eta Zuberoarekin -baina bi hauekin bakarrik- batera eraikitako esparru bat eskatuko zuen. Une honetan bizi den giroaren adibiderik azpimarragarrienak Joseph Dominique Garatek Napoléon Bonaparteri bidalitako txosten biak dira (129). Eurotan, Iparraldeko hiru probintziak ezezik Euskal Herri osoa Estatu autonomo baten -Frantziaren babespean, jakina- biltzeko asmoa aurkeztuko zion (130).

Helburu bera ageri da d'Abbadiek handik geroagora, 1853ko irailaren 6an, Urrufian antolatutako Euskal Jaietarako egindako deian:

“Nous invitons les Basques d'au delà des monts à contribuer à ce concours national. Unis par le coeur, par les habitudes et par la tradition, les peuples qui habitent les deux versants des Pyrénées doivent être animés d'une noble émulation pour chanter les douceurs, vanter les charmes du Pays qu'ils aiment plus que tout”. (131)

(128) Honetaz gehiago: MICHELENA, Luis, “Lengua común y dialectos vascos”, ASJU, XV (1981), (291-313), 309. orr. eta hurr.

(129) Lehenak Exposé succinct d'un projet de réunion de quelques cantons de l'Espagne et de la France dans la vue de rendre plus faciles la soumission de l'Espagne et la création d'une maxime puissance du izenburuztat. Bigarrenak, berriz, Exposé succinct des vues et des résultats d'un ouvrage qui a pour titre: Recherches sur le peuple primitif de l'Espagne, sur les révolutions de cette péninsule, sur les Basques espagnoles et français.

Ikus, orain: AGUDO HUICI, Rosa María, “Joseph Dominique Garat y su deuda con el Pueblo Vasco”, BRSVAP, XXXIX (1983), Cuadernos 1^a y 2^a, 59-75. orr.

(130) Txostenotan irakur daitekeenez, euskararen batasun beharraz ere jabeturik zegoen Garat.

(131) HARITSCHELHAR, Jean, L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun, op. cit., 449. orr.

Haritschelharrek berak dioenez (HARITSCHELHAR, Jean, “Elizondoko euskal jaiak duela chun urte”, Euskera, XXIV (1979-2), (555-559), 555. orr.) Parisko Biblioteka nazionalan aurkitutako d'Abbadieren eskuizkribu baten, zera esaten omen da:

“On n'exclura aucun dialecte, on n'en préférera aucun; les juges ne seront guidés que par l'appréciation du mérite des pensées et de la manière dont elles sont rendues”.

Euskal Jai hauek 1879an egingo ziren lehen aldiz Hegoaldean, "Asociación Euskara de Navarra"-k antolatuta hain zuzen. Urte horretako agorrilaren 7an Duvoisiniek Manterolari igorritako gutunean ikusten denez (132), bizirik zirauen d'Abbadiek izandako asmoa:

"Les concours littéraires ont une importance dont les Basques d'Espagne semblent ne s'être pas doutés. En unissant les provinces, dans un amour commun de la langue et de la patrie, ces concours finirent par empiéter sur les divisions intestines. Ramener la concorde, voilà le but. Que chacun se dise Basque et rien de plus.

Le nom des provinces ne doit être qu'une expression géographique: «Tout royaume divisé contre lui-même sera détruit, et toute ville ou maison divisée contre elle-même ne subsistera pas». Ces paroles de l'Évangile se sont réalisées plus d'une fois et se réaliseront encore dans l'avenir. (...)

Basques, ne soyez pas divisés contre vous-mêmes..."

HEGOALDEAN

Nafar Erresuma desegin eta XVIII. mendera arteko epe luzean ez dugu somatzen inolako batasunerako urratsik Hegoaldean. 1764an Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País sortu zen eta sortzaileetarikoa batek, Peñafloidako Kondeak, era honetara arrazoitzen du elkarte hori lehenago sortua ez izana:

"No contribuia poco á esta desgracia, la falta de motivos que juntasen con la frecuencia que pedía proyecto tan grande, los Cavalleros de estas tres Prov^{as}. De aquí nacia el mirarse como naciones diversas, y de esta impresion, el que se interesasen mui poco, las unas, en los negocios de las otras.

Esta indiferencia, era ciertamente perjudicial á todas tres, y desde luego se pribavan de las ventajas que la union, y buena correspondencia, devia procurarles; yá promoviendo su comercio, yá facilitando sus manufacturas, yá procurandose reciprocos socorros, que hiziesen comunes los intereses de todas juntas". (133)

Elkartearen Estatutueta argi eta garbi azaltzen da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko lokarriak estutzeko asmoa:

(132) DARANATZ, J.-B., "Correspondance du Capitaine Duvoisin", RIEV, XXI (1930), (334-368), 361-362. orr.

(133) CONDE PEÑAFLOIDA, "Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País", RIEV, XXI (1930), (317-333), 321. orr.

“Art. I.

(...) estrechar mas la union de las tres Provincias Bascongadas de Alaba, Vizcaya, y Guipuzcoa.

(...)

Art. XXXVIII.

La divisa, y sello de la Sociedad será un escudo con tres manos unidas en simbolo de la amistad, y union de las tres Provincias, y enlazadas con una cinta, en cuya parte pendiente ácia el centro se leerà este Mote Bascongado: *Irurac bat*, que quiere decir *las tres hacen una*”. (134)

XIX. mendean zehar, Madrilgo Gobernu euskal foru eta eskubideen aurka ari delakoaren eritzia sendotuz eta herritarrik xehenen artean ere barreiatuz joango da. Gerra karlistek eritzi hori indartu baizik ez dute egingo, aurrerantzean Euskal Herriaren apartekotasuna eta izaera berezia argiro eta etengabe aldarrikatuko delarik (135).

Orain, eta bereziki 1876az geroztik, Hegoaldeko hiru edota lau probintzien batasuna (136) ezezik Euskal Herri osoarena ere aldarrikatuko da. Iparraldean, 1894an eta 1897an Donibane-Lohizunen ospatutako Fêtes de la Tradition basque direlako jaietan zabalduko zen, lehen aldiz, “Zazpiak bat” goiburua (137). Hegoaldean, Campiónek dioenez, “Asociación Euskara de Navarra” izango zen hedatuko zuena:

“(...) Ella, modernamente, fué la primera que proclamó el dogma de la fraternidad euskariana, substituyendo el raquífico *Irurac-Bat*, no con el incompleto *Laurac-Bat*, sino con el lema definitivo de *Zazpiyak-Bat*”. (138)

Zazpi probintzien ezkutuak eta “Zazpiak bat” goiburua ageri dira, halaber, 1896an Arana-Goirik argitaratutako **Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino** liburuaren azalean.

(134) “Estatutos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País”, *La Gran Enciclopedia Vasca* (II. vol.), Bilbao, 1974, 463-478. orr.

(135) Ikus honetaz: GARMENDIA, Vicente, *La Ideología carlista (1868-1876). En los orígenes del nacionalismo vasco*, Diputación Foral de Guipúzcoa, 1984, 431. orr. eta hurr.

Gerra karlistok euskaran izan zuten isladez egile beronen “Los carlistas y la defensa del euskera”, *Eusko Ikaskuntzaren IX. kongresoa*, Eusko-ikaskuntza, Bilbao, 1983, 423-425. orr.

(136) Guk dakigula, lehen aldiz 1867an aldarrikatu zuen Iturralde y Suit-ek (“Asociación Euskara de Navarra”-ren sortzaileetarikoa eta Revista Euskara-ren idazkaria berau) “Laurac bat” goiburua.

(137) LARRONDE, Jean-Claude, *El nacionalismo vasco su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*, Txertoa, San Sebastián, 1977, 325. orr.

(138) CAMPION, Arturo, “D. Juan Iturralde y Suit”, *EA*, I (1911), nº 20-21, (637-645), 643. orr.

1897an kaleratutako Euskalzale izeneko astekariaren lehen zenbakian hauxe irakurtzen da:

“Lengo egunean Donibaneko iaialdiak deritson irakurkizuna eginda gero, Donibanetik bertatik onetarako bialdu euskuen liburuan irakurri genduan gure gaurko irakurburu au: *Zazpiak bat. (...)*” (139)

Jarrera aldaketa hau hizkuntz ideologietan ere isladatuko da. Euskaldun eta euskaltzaleek mendez mende aldarrikatutako “vasco-iberismo”-aren tesia bertan behera utziko da orain. Hauxe zioen Julio de Urquijok “IV^e Congrès historique et archéologique du Sud-Ouest de la France” delakoan eginiko hitzaldian aldaketa horretaz mintzo zelarik:

“(…) J'ai dit tout à l'heure que l'opinion traditionnelle dans le pays basque était celle de l'ibérisme des Euskariens. Eh bien, depuis une douzaine d'années, les anti-ibéristes trouvent des prosélytes là où certainement ils n'auraient pas eu l'idée d'aller les chercher. Je veux parler des nationalistes basques.

Si les Euskariens ont aimé toujours leurs fueros avec passion, il est rare de trouver chez les écrivains basques antérieurs à 1880 l'apologie de l'indépendance absolue de l'Eskualerria.

Lorsque M. de Arana fonda il y a quelques années le parti nationaliste, il se vit forcé, ne pouvant s'appuyer sur la tradition qui était monarchiste ou au moins seigneuriale, de se baser sur l'idée de race.

Or il est évident, que si l'on admet que les premiers Espagnols étaient des Ibères et que ceux-ci, à leur tour, étaient des Basques, il s'ensuit qu'il n'y a pas une différence essentielle de race entre les Basques et les Espagnols. M. de Arana fut donc forcé, pour fonder son système politique, d'accepter l'hypothèse anti-ibériste”. (140)

Campionék ere oharteraziko gaitu jokabide berri horretaz Eleizalderen Raza, Lengua y Nación Vascas liburuaren iruzkina egiten duelarik:

“Dos ideas directrices capitanean á las ideas secundarias del Sr. Eleiz; es á saber: que la raza baska es pura, especial, solitaria, aislada, sin padres, hermanos ni colaterales; que á esta raza le pertenece una nacionalidad, sobre ella exclusivamente asentada. (...)”

¡Curioso ejemplo de como cambian los puntos de vista al cabo de unos cuantos años! Una misma idea ha sido defensa y ofensa del baskismo. Antes los patriotas tenían á gala venderse por los legítimos é incon-

(139) *Euskalzale*, 1897-08-19, I. zb., 1. orr.

(140) URQUIJO, Julio de, “Les études basques: leur passé, leur état présent et leur avenir”, *RIEV*, V (1911), (560-580), 565-566. orr.

taminados españoles, en quienes se perpetuaba, á una con la ingénita libertad, las cualidades y las virtudes nativas de la raza hispana. De esta ingenuidad é incontaminación sacaban ellos motivos de inderrocable orgullo, y el derecho á regirse y gobernarse separadamente de los demás españoles, uncidos á sucesivos yugos extranjeros. La posición no dejaba de ser airosa. Se ha de observar, asimismo, que los amigos y entusiastas de los Bsk., ora hubiesen nacido en España, ora fuera de la Península, eran iberistas; pero los enemigos, como instintivamente, anti-iberistas todos: empeñados en expeler á los Bsk. de las razas históricas, y reducirlos á una «tribu poco numerosa, sin civilización, sin historia», oscura, anónima, nacida ó acorralada en los repliegues del Pirineo». (141)

XX. mendeaz geroztik, eta Arana-Goirik ereindako abertzaletasunak erroak bota ahala, indartuz doa euskaldunen arteko batasuna. Horren ondorioetariko bat dugu garai honetan hasita euskara bateratzeko egiten diren saio eta proiektu ugariak. Gerrostean, eta Francoren diktadurapean jasaten den neurrigabeko zapalketa dela medio, abertzaletasuna, Euskal Herriaren apartekotasuna, independentzia egarria... inoiz baino biziago bilakatuko dira (142). Sentimentu honi oso loturik daukagu 1950etik aurrera pil-pilean dagoen hizkuntz batasunaren kezka. Izan ere, Torrealdayk dioenez, motibazio politikoak bultzatu du idazle asko (23%) "euskara batua"-ren alde jokatzera:

"Politikazko kontzientzia honen bateratasuna, harrizterainokoa da. Errazegi bota zaizkie zenbait etiketa eta sanbenito batasunzaleei, abertzaletasunaren patentea monopoliza-zale batzuen aldetik! Politikazko kontzientzi modu berri hau, irakurleak ongi dakienez, berria da, azken aldikoa, 60 urte ingurutik gerokoa. Hor dago, agian, gakoa: abertzaletasun moduan, eta ez beste deusetan". (143)

Arrazoi politikoek ezetik bizimoduak berak ere izango zuen eraginik. Artzantzaz oinarritutako ekonomiak, esaterako, berarekin dakar tokialdaketa, Barandiaranek eskaintzen dizkigun datuok ongi erakusten dutenez:

"(...) Algunos rebaños de la región de Araya y Salvatierra, que suben a las sierras de Entzia durante el verano, van a Vizcaya durante el invierno.

(141) CAMPION, Arturo, "Raza, Lengua y Nación Vascas por D. Luis de Eleizalde", RIEV, VI (1912), (247-261), 248. orr.

(142) Honetan ezberdintasun nabarmen bat ikusten dugu Hego eta Iparraldearen artean. Batean, XIX-XX. mendeetan izandako gerra eta istiluetan, euskal probintziek Espainiako Gobernuaren aurka burruratu dute, horrek, normala denez, euskaldunen arteko batasuna eta espainiarrekiko banatasuna ekarri duelarik. Frantziar, aitzitik, hau ere makina bat gerratan murgilduta egon den arren, atzerriarra izan da etsaia eta, beroni aurre egiteak, Estatu guziko nazionalitateen batasuna estutzea eta barruko tirabirak itotzea ekarri du.

(143) TORREALDAY, Joan Mari, Euskal idazleak, gaur. Historia social de la lengua y literatura vascas, Jakin, Oñati-Arantzazu, 1977, 160. orr.

Los de Ceánuri, que pacen en la montaña de Gorbea desde principios de Mayo hasta Todos los Santos, descienden a su pueblo a pasar la temporada invernal, o se trasladan a los campos de Yurre y de Lemona. Los de Cegama, Idiazabal y Segura descienden también a sus respectivos pueblos en invierno, después de aprovechar durante el verano y parte de otoño los pastos de la sierra de Aizkorri, o se trasladan a zonas más bajas de Guipúzcoa y de Vizcaya.

Los de Amézqueta, que veranean en Aralar, van en invierno a Tolosa, Orio, Oyarzun e Irún. Los de Régil, a Guetaria; los de Bidarray e Itxasu, a Saint-Palais y Ustaritz; los de Aezcoa, a las regiones de Armendaritz y Ustaritz; los del alto Soule, a la región de Mauleon y a Olorón. Los de Roncal y Salazar descienden a las Bardenas y al Bajo Aragón a pasar la temporada invernal". (144)

Aintzina, gainera, eremu zabalagoetara hedatzen ziren tokialdaketa hauek:

"(...) En 1813 decía Dralet (*Description des Pyrénées*, t. I, p. 248), citado por Cavaillès que los rebaños de Soule invernan en su país o eran conducidos a las landas de Burdeos. El cartulario de Rôls gascons (t. II, nº. 1.331), aludiendo a una disposición de Eduardo 1º de fecha 1289, habla de rebaños de vacas que franqueaban el Gave en la parte del monasterio de Sordes. Pero, como observa Cavaillès, sólo los rebaños que venían de Soule podían pasar por tal región.

El mismo cartulario habla del derecho de pastos que el monasterio de Roncesvalles tenía desde el siglo XIII más allá del Adour (145).

Según Yanguas y Miranda, numerosos pastores de Roncal y de Salazar llevaban en el siglo XIV a las landas de Burdeos cada año 37 caballos de ganado vacuno de las que cada una comprendía 150 cabezas". (146)

Lacarrak ere eskaintzen dizkigu datu zenbait, gertaera hauek hizkuntzaren nondik norakoan izan lezaketen islada zabetzen delarik:

"(...) Los monasterios tenían posesiones dispersas, y la vinculación que mantenían con la sede central puede en ocasiones ponernos sobre la pista de contactos lingüísticos extraños. Así el monasterio de Irache tenía posesiones en Alava desde el siglo XI; San Miguel Excelsis enviaba sus ganados a pastar a los yermos de Fuenterrabía (...); Zumaya era propiedad de Roncesvalles desde 1292 y el monte Usúrbil, aquí en

(144) BARANDIARAN, José Miguel de, "Aspectos sociográficos de la población del Pirineo Vasco", E-J, VII (1953-1957), (3-26), 7-9. orr.

(145) Lacarrak dioenez (LACARRA, José María, *Vasconia medieval...*, op. cit., 18-19. orr.), Felipe II Gaztelako Erregeak etengo zuen harreman hauekin 1586-1590 epean.

(146) BARANDIARAN, José Miguel de, *Aspectos sociográficos...*, op. cit., 9. orr.

Guipúzcoa, dependió también de Roncesvalles cuando menos desde el siglo XV hasta el siglo XIX. Cabe, pues, pensar que algunas afinidades lingüísticas, que hoy nos parecen extrañas, puedan explicarse por razones históricas bien concretas". (147)

Azpimarragarria da, halaber, barruko *migrazioa*. XVI. mendean ekin eta XVIIIgarrenaren hasierara bitartean, Iparraldetik Hegoalderako –eta maiz espainiar beste lurralde batzutarako–joera nabarmena gertatzen da:

"(...) Un importante movimiento de migración, en parte interior, es el que hace llegar a la península (Cataluña y País Vasco, sobre todo) numerosos contingentes de vascos continentales atraídos por los elevados salarios que se dan en ella, empleándose como carboneros, camineros, fabricantes de teja, buhoneros o como simples asalariados, y regresando al cabo de cierto tiempo a sus lugares de origen. Esta forma de migración interior vasca temporera durará hasta comienzos del siglo XVIII". (148)

Lekukotasun berbera dakar Fernández de Pinedok:

"(...)«la mayor parte de las tejerías y ollerías del País están en poder de franceses, que trabajando aca los veranos se vuelven a su casa por el invierno (...) y lo mismo sucede con los peleteros, lintneros y caldereros de que hormigean estas tres provincias». (...)” (149)

Jimeno Juriok, berriz, Oltzako Zendeari buruzko zehaztasun hauek ematen dizkigu:

"Estos «bascos» presentes en la Cuenca de Pamplona proceden de Lapurdi (Ezpeleta, Hazparren, Uztaritze) y de Navarra (Azcárate, Baigorri, Donibane-Garazi, Heleta, Lakarra, Meharin, Oragarre y Osés). La emigración hacia el sur fue intensa desde mediados del siglo XVI, prefiriendo los euskaldunes buscar trabajo en zonas de su misma lengua (...).

A juzgar por los casos señalados, el fenómeno migratorio afecta principalmente a la población rural, que busca trabajo desempeñando oficios humildes (tejeros, molineros, zapateros, pastores, braceros agrícolas, servicio doméstico). Su calidad de «habitantes», o «moradores» revela que no han adquirido vecindad en los pueblos de residencia accidental, manteniéndola en las localidades de origen, donde algunos tienen la familia. (...)” (150)

(147) LACARRA, José María, *Vasconia medieval...*, op. cit., 19. orr.

(148) EUSKALITZAINDIA, *El libro Blanco del Euskara*, op. cit., 253. orr.

(149) FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano, *Crecimiento económico...*, op. cit., 147. orr.

(150) JIMENO JURIO, José María, "Cendea de Olza. Toponimia. I. Asiain. Lizasoain. Olza", *FLV*, XIII (1981), nº 38, (175-220), 180. orr.

Peillenek, Zuberoara mugatzen delarik, XVI eta XVII. mendeetan probintzia horretako hainbat bizilagunek, nafar Erriberara batzuek eta Erronkari eta Zaraitzuko haranetara besteek, jotzen dutela dio (151), azken bi haranotaranzko emigrazioak –gaztagintzan jardutera– gure eguntaraino iraun duelarik.

Larramendik, garaiko lekukoa berau, hauxe zioen XVIII. mende erdialderantz idatzitako Corografía-n:

“(…) Sólo he notado que comúnmente son franceses vascos los tejeros. Sin saber por qué los guipuzcoanos no se aplican a este oficio, aplicándose a otros más mecánicos y humildes. (...)” (152)

Louis-Lande-k, azkenik, XVII. mendean erraztasun handiak zeuzkatela Iparraldekoek Espainian lana aurkitzeko esango du (153), hainbat garaztarrek euren lanpostua Nafarroan zein Gaztelan bilatzen zuelarik (154).

XIX. mendeko bigarren erdialdeaz geroztik alderantzizko joera, Hegoaldetik Iparralderakoa alegia, izango da (155). Hainbat nafar –aetzak bereziki– udazken eta negu garaian Iparraldera abiatuko da nekazal lanak egitera zein ikazkin gisa jardutera. Beste zenbaitek Maulera ere joko du espartingintzan aritzeko.

Gaurengungo egoerari dagokionez, eta Laborderi jarraituz (156), bi mila langile inguru dira egunero muga gurutzatzen dutenak, nahiz eta kopuru hori urterik urte urrituz doan. Langile horietariko 85%a Irunen bizi da eta, gainerakoak, Hondarribian, Erreterian, e.a. Erdiak inguru Baionako aglomerazioan egiten du lan, laurden batek Hendaian eta, enparatuek, Donibane-Lohizune eta Ziburun.

Esan dezagun, azkenik, arrazoi ekonomikoez landara bigarren migrazio mota bat ere gertatzen dela, alde batekoak bestean maiz erbesteratu bait dira historian zehar eta XIX-XX. mendeotan batez ere.

Instituzio mailan, eta 1980az geroztik horretarako ahalmenik baden arren, ez da mugaz alde bietako probintzien arteko harremanak sendotzeko ahalegin nabarmenik egin. Hala ere espainiar Estatu E.E.E. erakundearen sartzearen ondorioz baliteke, urte batzuren buruan, euskal komunitateen hurbiltze bat jazotzea.

(151) PEILLEN, Txomin, “Zuberoako gobernu hizkuntzak eta gure herri hortako euskalkiaren erdal maileguak”, *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*. Iker-1, Bilbo, 1981, (405-411), 406. orr.

(152) LARRAMENDI, Manuel de, *Corografía...*, op. cit., 136-139. orr.

(153) LOUIS-LANDE, L., “Tres meses de viaje en el País Vasco”, *RIEV*, XXIII (1932), (222-263), 241. orr.

(154) Baigorri buruzko xehetasunak: SACX, M., “Données sur le développement démographique de Baigorri au XVIII^e siècle”, *BMB* (1980), nº 89, 123-168. orr.

(155) EUSKALTAINDIA, *El libro Blanco del Euskara*, op. cit., 256. orr.

(156) LABORDE, Pierre, *Le Pays Basque d’hier et d’aujourd’hui*, op. cit., 178. orr.

Komunikazio mailan, 1978an Behobiatik Baionarako autobidea irekitzeak abantaila haundiak ekarriko zizkion Lapurdiko itsasaldeari, alde batetik Paris-Bordele-Madril-Lisboa ardatzari bultzada berri bat ematen zitzaiolako eta, bestetik, Euskal Herri barruko komunikazioak asko errazten zirelako. Kontutan hartu beharrekoa dirudi, neurri berean, Aldudeetan gaindi doan bidea egokituz Iruñea Baionarekin elkartzeko asmoa (157). Projektu zahar hau egia bihurtzera, Iparraldea Hegoaldearekin hurbiltzeaz gainera, Iparralde barrukaldeko komunikazioentzat ere –nahiko kas-karrak orain arte– biziki mesedegarria gertatuko litzateke.

EUSKARAREKIKO ONDORIOAK

Bistan da, Euskal Herriaren kasuan, indar banatzaileek (“l’esprit de clocher” Saussureren hitzetan) indar bateratzaileek (“la force d’intercourse” Saussurerentzat) baino eragin haundiagoa izan dutela. Honek euskararen standardizazioa atzeratu eta zaildu egin badu ere ez du, haatik, euskararen batasuna haustea lortu Mitxelena berak, duela zenbait urte, baieztatuko zuenez:

“(…) En nuestro caso, los factores disgregadores han tenido por lo general campo libre, mientras que las fuerzas cohesivas han sido escasas y dispersas. Lo que asombra dentro de este marco es que tantas innovaciones, algunas relativamente recientes –no sólo de carácter fonético, sino también morfológicas, sintácticas y léxicas–, hayan afectado a la totalidad de la zona de habla vasca”. (158)

Argitasun gehiago, eritzi berberonen euskarri, emango zituen beste lan baten:

“(…) la suma de fenómenos comunes a la totalidad de las hablas vascas es muy crecida y hasta sorprendente, si nos limitamos a considerar lo que es más probativo: las innovaciones comunes. Entre los cambios fonéticos generales se cuentan, pongamos por caso, la modificación de los sonidos finales de muchas palabras cuando éstas, perdiendo su autonomía, se usaban como primeros miembros de compuestos (...) están atestiguados por restos más o menos abundantes según los casos en todas las comarcas del país, desde su extremo occidental hasta el más oriental.

Dentro del elemento latino-románico, nada despreciable como se sabe, es posible caracterizar al vasco en su conjunto frente a los otros dialectos románicos por una serie de fórmulas de transformación que resumen los cambios cumplidos, sin que esto excluya como es natural algunas divergencias de detalle: la llamada sonorización de las oclusivas sor-

(157) Iruñean 1986ko martxoaren 6an, Nafarroako eta Pirineo-Atlantikoetako ordezkariak eginiko bileran, batzorde bat izendatzea erabakiko zen bide hau egiteko projektua gerta zezan.

(158) MITXELENA, Koldo, *La lengua vasca*, Leopoldo Zugaza, Durango, 1977, 47. orr.

das iniciales (...), la pérdida de *n* entre vocales (...) o el paso de *l* a *r* en las mismas condiciones (...). Incidentalmente, la aportación latino-románica al léxico vasco fue más bien, casi hasta nuestros días, un elemento unificador que introdujo en el vocabulario toda una serie de términos comunes (...).

En otro orden de cosas, es sabido, y la cosa nada tiene de asombroso, que el tipo de lengua ha variado en igual sentido en muchos aspectos (...). Así, por ejemplo, las formas fuertes, sintéticas, del verbo no han cesado de perder terreno ante las formaciones perifrásticas; el pasado se ha convertido en un "imperfecto" perdiendo el valor aorístico que en otros tiempos podía tener (...). Y, con todo, el sistema de estos tiempos, en sus elementos materiales y en su valor, es aproximadamente el mismo en todos los dialectos vascos". (159)

(159) MICHELENA, Luis, Sobre el pasado de la lengua vasca, Auñamendi, San Sebastián, 1964, 20-22. orr.

II. ATALA

HIZKUNTZA BARRUKO INDARREN ERAGINA

II. HIZKUNTZA BARRUKO INDARREN ERAGINA

2.1. EUSKALKIAK

2.1.1. LEIÇARRAGA. AXULAR. OIHENART. ETCHEBERRI.

Euskarari buruz ditugun lekukorik zaharrenetatik azaltzen da mintzatze molde ezberdinak direneko kontzientzia. Ioannes Leiçarragak, 1571n argitaratutako Testamentu Berriaren itzulpenari ezarri zion "Heuscalduney" izeneko hitzaurrean, esaterako, honako hau irakur dezakegu:

"(...) batbederac daqui heuscal herriā quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerān cer differentiā eta diuersitate den (...)". (1)

Zehaztasun gehiago emango du Axularrek 1643an argitaratutako Guero liburuan "Iracurtçailleari" eskaini hitzaurrean:

"Badaquit halaber ecin heda naitequeyela euscaraco minçatce molde guztietara. Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian. Naffarroa garayan, Naffarroa bherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian, eta bertce anhitz leccutan (...). Eztituzte euscaldun guztiec legueac eta azturac bat, eta ez euscarazco minçatcea ere, ceren erresumac baitituzte different". (2)

Euskal Herriaren zatiketa administratiboarekin lotzen du, beraz, euskalki ezberdintasuna, baina, honekin batera, euskara literatur zereginetatik baztertua egotzea ere azpimarratzen du:

"Baldin eguin baliz euscaraz hanbat liburu, nola eguin baita, latinez, franceses edo bertce erdaraz eta hitzcuntçaz, hoc beçain aberats eta

(1) LEIÇARRAGA, Ioannes, *Iesvs Christ gvre Iavnaren Testamentv Berria*, op. cit.

(2) AXULAR, Pedro de, *Guero*, Bordcle, 1643, 17. orr. (Jarraian euskalki batetik bestera aldatzen diren hitz zerrenda txiki bat erakusten du).

complitu içanen cen euscara ere, eta baldin hala ez pada, euscaldunec berèc dute falta eta ez euscarac". (3)

Oihenart zuberotarrak, 1657an argitaratutako poesien amaieran, euretan erabilitako zenbait hitzen esanahia azaldu beharrean ikusten du bere burua. Sei jatorri ezberdin, nonbait ere sei hizkera ezberdinetatik hartuak zirelako kontzientziaren ezaugarri, ematen dizkie hitzoi: lapurtera, mendebaleko lapurtera (Lapurdiko itsasaldekkoa), baxe-nafarrera, zuberera, hegoaldeko zuberera (Basabürria eskualdekkoa) eta goi-nafarrera. Euskal Herriaren zatiketa politikoari eta euskaldunen arteko harreman urritasunari egozten die Oihenartek euskalkien sorrera:

"Le peu de communication que les trois Prouinces du país de Basques, qui sont deçà les Monts Pyrenées, (à sçauoir *Labourt, Basse-Nauuarre & Soule*) ont entre-elles, dautant qu'elles dépendent de diuers Gouuernemens, & de diuers ressorts de Iustice; est cause de ce que plusieurs mots anciens *Basques*, qui se sont conseruez en chacune de ces Prouinces, ne sont pas entendus en l'autre (...)". (4)

Bat etorriko da halaber Joannes d'Etcheberri, **Laburdiri escuararen hatsapenac** deitu izkribuan, euskalkien sorrera Euskal Herriaren zatiketari egozte horretan:

"(...) ceren Erresumac different baitituzte, ezta beraz cer miretsi, Escualdunen artean içan dadin cembait differentcia mintçatceco maneretan; ceren herri batçuetacoec guchiago hantatcen, eta gombertsatcen baitute Erresuma batequin: Bertce batçuec bertcearequin, eta hantacino hartaric bat-bederari lotcen çajo hitzcuntça arrotçaren cutsua, ceina ohi baita gambiaduraren orhantça eta leuamia; non handic heldu baita emequi-emequi hitzcuntça gambiatcera, eta azquenean ossoqui iraunguitcera". (5)

2.1.2. MANUEL DE LARRAMENDI (1690-1766)

Larramendi dugu euskalkiak nolabaiteko arretaz aztertu dituen lehena. Hiru euskalki aipatzen ditu *El imposible vencido* liburuan, euskalkion ezberdintasunak izen eta izenordainen deklinabidera eta aditz-jokora mugatzen direla gaineratuz:

"(...) el Bascuenze tiene el dialecto Guipuzcoano, del Seforio, ò Bizcaño, y Navarro, ò Labortano, que comunmente es uno mismo, aun-

(3) AXULAR, Pedro de, Guero, op. cit., 19. orr.

(4) OIHENART, Les proverbes basques recueillis par le S. d'Oihenart, plus les poesies basques du mesme Auteur, Paris, 1657, 67. orr.

(5) URQUIJO, Julio de, Obras Vascongadas..., op. cit., (85-201), 137. orr.

que ay bastante mezcla de los demás dialectos; y es tambien lo que sucede en Alaba, que participa de todos ellos, mas ò menos sincopados, y variados. (...)” (6)

Euskalkien azalpenik sakonena, dena dela, Diccionario trilingüe lan ezagunaren hitzaurrean emango du. Bertan, euskalkion izaera hirukoitza azpimarratu ondoren nafar euskalkia dela Iparraldean mintzo dena baieztatuko du:

“El Dialecto de Navarra, es el que principalmente passò de España à Francia (...). En baxa Navarra, Labort, y Zuberoa ay sus diferencias, y Dialectos, especialmente en las terminaciones de los Verbos, y estàn apuntados en el Arte, v. gr. *darot, deraut, draut*, &c. y otras diferencias menores, que sin dificultad se entienden. (...)” (7)

Hitzaurre honetan, gainera, euskalkien arteko ezberdintasunak zehazten saiatuko da eta, ordura artekoek, ezberdintasunok zenbait hitzen erabilpena mugatzen zituzten bitartean, Larramendik, aldaketa fonetiko eta morfosintaktikoei ere egingo die so.

Nafar-lapurteraren ezaugarri legez, honako hauek aipatzen ditu (8): aspirazioaren maiztasun handia: *dohaiñ, ekhar...*; diminutiboetako /y/ (Hegoaldeko /ç/ ordeztu): *guizonitto, andretto...*; bi jocra (Hegoaldean bezalaxe) fonema bustien erabileran: *miná, mainá...* zein *miña, maiña...*; leherkariaren aurreko txistukari afrikatuak: *uts > utstú, otz > otztú...*; aspektorik gabeko aditz erroak: *etzezazula har...* (nahiz eta gipuzkeraz ere, aditza laguntzailearen aurrean kokatzen denean, horrelakorik erabiltzen dela dioen: *arbeza, arrezak...*); *-ki* eta *-kiro* atzizkidun adberbioak: *obequí, obequiró; lazquí, lazquiró...*; *-kotz* eta *-kotzat* bukaerak helburuzko perpauzetan: *hitzeguitecotz, hitzeguitecotzat; erratecotz, erratecotzat...*; *araci*-ren (Hegoaldeko *erazo* eta *eraguin* ordeztu) erabilera: *maitaraci, besarcaraci...* Grafari dagokionez, azkenik, *h* eta *k* (*c* eta *qu* ordeztu) grafemen erabilera aipatzen du.

(6) LARRAMENDI, P. Manuel de, *El imposible vencido. Arte de la Lengua bascongada*, Salamanca, 1729, 12. orr.

Larramendik ezarritako banaketa hirukoitz honek bestalde, eta berak esan bezalaxe ez bada ere, gure egunotaraino irau du, Bonaparte Printzeak 1869an egin sailkapenean ikus daitekeenez.

(7) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latin*, San Sebastián, 1745, XXVII. orr.

Esan dezagun, bidenabar, baskoiek, Pirineo mendietan zehar iragan eta akitaniarren lurrik bereganatu zituztelako tesiaren jarraitzaile dugula Larramendi. Aspaldidanikoa dugu eritzi hori euskal historiografian, Garibayren (GARIBAY, Esteban de, “Ilustraciones Genealógicas de los linajes bascongados contenidos en las grandezas de España”, RIEV, VI (1912), 500. orr.), Oihenarten (OYENART, Arnaldo de, “Noticia de las dos Vasconias, la Ibérica y la Aquitana”, RIEV, XVII (1926), 158. eta 160. orr.) edo Moreten (MORET, P. José de, *Anales del reino de Navarra*, (I. vol.), 78-79. orr. eta (VIII. vol.), 88. orr. eta hurr., Eusebio López, Tolosa, 1890) lanetan ikus dezakegunez. (Larramendik, hain zuzen (LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., LXXV. orr.), Oihenart, Marca eta Moreti jarraitzen zaiela aitortuko du). XX. mendean, Schulten (ikus, bereziki, SCHULTEN, Adolf, “Las referencias sobre los Vascones hasta el año 810 después de J. C.”, RIEV, XVIII (1927), 225-240) izan da tesi honen aldekorik porrokatuena.

(8) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., XXVII-XXVIII. orr.

Bizkaierari, euskalki hau Bizkaian, Araban eta Gipuzkoako mugako herrietan erabilia dela esan ondoren, honako ezaugarri hauek eranstean dizkio (9): *ilu* alternantzia: *urten, ulea, uria, ucutu...*; *i* diptongoko bigarren bokalaren eraginez gertatzen diren bustidurak: *acha, gacha, ecacha...*; bustien erabileran bi aukera ezberdin: *dinot/diñot...*; sinkopa eta laburtzapen ugariak: *aitaren > aiten, aitian; jaten dot > jateot...*; aditz-izenetako *-etan* bukaera (nahiz eta beste erarik ere baden): *jostetan...*; partizipioetan maiz *-baina* araurik aurkitzen ez duelarik- agertzen diren *-du* bukaerak: *amadu, comutadu...* Euskalki honetan erabiltzen diren hitz berezi zenbait ere aipatzen ditu: *donguea, esquerquea, nascarial/nastaria, arerioa, emarcariac...*

Grafiari dagokionez, azkcnik, *z* eta *tz* nahasteko joera, beti *z* idatziz, aipatzen du, nahiz eta Gipuzkoa ondoko herrietan (Elorrio, Markina) biak ondo bereizten direla dioen.

Gipuzkeraz den bezainbatean (10), iparraldetik Elgoibarren edo Azkoitian hasiz Zegama eta Seguraino hedatzen dela dio. Hondarribia, Irun eta Oiartzungo hizkerai antzematen zaion lapurtera kutsua azpimarratzen du, laguntzaileek (*dut, dugu...*) edota *-n* batez amaitutako aditzen geroaldiek (*jain dut, joain naiz...*) erakusten dutenez.

Gaztelaniaren bidez sartutako [x] ahoskera aipatzen du euskalki honen ezaugarriarik nabarmenentzat, bustiei dagokienez hemen ere, eta gainontzeko euskalkietan bezalaxe, bi aukerak (*iñor/inor, ceña/ceina...*) azaltzen dirklarik.

Corografía liburuan kapitulu oso bat eskaintzen die euskalkiei: “De los dialectos del vascuence y del particular de Guipúzcoa” (11), bertan zehaztasun berriak ematen dituelarik.

Alde batetik ez da hain erabatekoa lapurteraren batasunari dagokionean:

“(...) Este mismo dialecto se usa en Navarra la Baja, y aun en la Alta; pero con grandes diferencias (...)”. (12)

Eta behraxeago:

“El dialecto navarro coincide mucho con el labortano, pero se diferencia también en muchas cosas: y dentro del mismo dialecto hay variedad en la sintaxis (...)”. (13)

Zubererari, bestalde, euskalki maila ematen zaio oraingo honetan.

Bizkaierari buruzko eritzia ere, laugarrenik, ez da hain erabatekoa:

“En el dialecto vizcaíno hay también sus diferencias, y no pocas. (...)” (14)

(9) Ibidem, XXVIII-XXIX. orr.

(10) Ibidem, XXIX-XXX. orr.

(11) LARRAMENDI, P. Manuel de, Corografía..., op. cit., 295-302. orr.

(12) Ibidem, 298. orr.

(13) Ibidem, 299. orr.

(14) Ibidem, 298. orr.

Eta Arabakoaz, azkenik, zera esango du:

“(...) El dialecto de Alava en lo más es el mismo de Vizcaya, no en el todo. (...)” (15)

2.1.3. LOUIS-LUCIEN BONAPARTE (1813-1891)

Euskalkien ikerketan Bonaparte Printzeari zor zaio, inolako zalantzarik gabe, lehentasun eta nagusitasun osoa. Euskal Herrian zehar 1856, 1857, 1866, 1867 eta 1869an egindako egotaldietan eta bertoko laguntzaile mordoxka bati agindutako hainbat itzulpenen bidez jasotako datu ugariekin burutuko zuen, 1869an, gaurregun ere –aldaketa eta zuzenketa batzurekin izan arren eta, hauetariko gehienak, gainera, Bonapartek berak ere susmatzen zituenak– indarrean dirauen euskalki sailkapena. Esan beharra dago, dena dela, 1869koa baino aurreragotik ere eginak zituela beste zenbait sailkapen. Lau epe bereizten ditu Yrizarrek (16) Bonaparteren bilakabidean:

1. epea: 1861-1863

1862koa da Bonaparteren lehen euskalki sailkapena (17). Sei euskalki aipatzen dira bertan: 1. bizkaiera (Bizkaian, Arabako alderdi euskaldun guztian eta Gipuzkoako zenbait lurraldetan erabilia), 2. gipuzkera, 3. goi-nafarrera, 4. lapurtera (Urdazubi eta Zugarramurdira ere hedatua), 5. baxe-nafarrera (Lapurdikiko Bardoze, Zuberoako Domintxine eta Nafarroako Luzaide herrietara ere hedatua), eta 6. zuberera (Biarnoako Eskiula herrira eta Zaraitzu eta Erronkari nafar haranetara hedatua).

1862ko otsailaren 19an Echenique baztandarrari bidalitako gutunean (18), bizkaieraren barruan erdialdekkoa eta literarioa bereiziko zituen. Zehatzago mintzatuko zen bereizketa honetaz Echeniqueri berari 1863ko urtarrilaren 11n bidalitako beste gutun baten (19), bertan honako bi barietateok bereizten bait zituen: 1. Ekialdekkoa: Markinan hasi eta Bergara, Antzuola eta Ofatiraino hedatua; 2. Mendebalekoa: Bizkaiko gainontzeko herrietan, Araban eta Leintz haranean erabilia.

2. epea: 1864-1865

Epe honetako lekurik oinarritzkoena 1865eko urtarrilaren 24an Echeniqueri igorritako gutunean aurki dezakegu:

(15) *Ibidem*, 299. orr.

(16) YRIZAR, Pedro de, “Los dialectos y variedades del Vasconce”, *Contribución...*, op. cit., (I. vol.), (97-125), 104. orr. eta hurr.

(17) BONAPARTE, Louis-Lucien, *Langue basque et langues finnoises*, Londres, 1862, 28-29. orr.

(18) URQUIJO, Julio de, “Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores”, *RIEV*, IV (1910), (233-297), 237. orr.

(19) URQUIJO, Julio de, *Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte...*, op. cit., 257-258. orr.

“(…) Il n’y a que le biscayen, le guipuscoan, le labourdin et le souletin qui aient un verbe vraiment caractéristique. Le haut-navarrais et le bas-navarrais se distinguent comme dialectes intermédiaires, ayant le premier une grammaire plutôt labourdine et un dictionnaire plutôt guipuscoan, tandis que le second présente une grammaire plutôt souletine avec un dictionnaire plutôt labourdin. D’après cette définition (…) nous avons pour ces trois sous-dialectes, malgré leurs différences, précisément ce qu’il nous faut pour les appeler des sous-dialectes bas-navarrais, ainsi:

- 1^o Bas-navarrais de la Basse-Navarre et de Val-Carlos.
- 2^o Bas-navarrais du Labourd-Hasparren etc.
- 3^o Bas-navarrais d’Espagne-Aezcoa.

Pour le souletin:

- 1^o Souletin de la Soule.
- 2^o Souletin d’Espagne-Salazar, Roncal.
- 3^o Souletin de la Basse-Navarre-Cize et Mixe”. (20)

3. epea: 1866-1868

Bost euskalki aipatuko ditu 1866an argitaratutako Formulaire de prône en langue basque lanean (21): 1. gipuzkera, 2. bizkaiera, 3. nafar-lapurtera, 4. baxe-nafarrera eta 5. nafar-zuberera, azken honetan beste bost barietate bereiztuko dituelarik (22): Zuberoako zuberera, erronkariera, zaraitzua, garaztar-amikuzera eta Aturialdekoa.

4. epea: 1869az geroztikoa

Garai honetakoak dira Bonaparteren bi lan nagusiak: Carte des sept provinces basques (23) eta Le verbe basque en tableaux (24), bertan agertzen delarik erabakiortzat jo ohi den sailkapena:

(20) URQUIJO, Julio de, Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte..., op. cit., 286-287. orr.

(21) BONAPARTE, Louis-Lucien, Formulaire de prône en langue basque, conservé naguère dans l’église d’Arbonne; réédité sans aucun changement et suivi de quelques observations linguistiques sur les sous-dialectes bas-navarrais et navarro-souletins de France et d’Espagne, Londres, 1866, 33. orr.

(22) BONAPARTE, Louis-Lucien, Formulaire de prône en langue basque..., op. cit., 28. orr.

(23) BONAPARTE, Louis-Lucien, Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l’euskara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés, Londres, 1863.

Lacombe diozkunetik (LACOMBE, Georges, “Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l’euskara... par le prince Louis-Lucien Bonaparte, Londres, 1863”, BMB, 1 (1924), 39-40. orr.), mapa hauek -argitaraldi bi bait daude- 1863an datatuak egon arren ez orain ziren 1871 edo 1872ra arte argitaratu.

(24) BONAPARTE, Louis-Lucien, Le verbe basque en tableaux, accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l’euskara: le guipuscoan, le biscayen, le haut-navarrais septentrional, le haut-navarrais méridional, le labourdin, le bas-navarrais occidental, le bas-navarrais oriental et le souletin; avec les différences de leurs sous-dialectes et de leurs variétés. Recueilli sur les lieux mêmes de la bouche des gens de la campagne, dans cinq excursions linguistiques faites dans les sept provinces basques d’Espagne et de France pendant les années 1856, 1857, 1866, 1867, 1869, Londres, 1869.

A.	I. BISCAIEN	1. Oriental:	Marquina.
		2. Occidental:	Guernica, Bermeo, Plencia, Arratia, Orozco, Arrigorriaga, Ochandiano.
		3. Du Guipuscoa:	Vergara, Salinas.
B.	II. GUIPUSCOAN	4. Septentrional:	Hernani, Tolosa, Azpeitia.
		5. Méridional:	Cegama.
		6. De Navarre:	Burunda, Echarri Aranaz.
	III. HAUT-NAVARRAIS SEPTENTRIONAL	7. D'Ulzama:	Lizaso.
		8. De Baztan:	Elizondo.
		9. De las Cinco Villas:	Vera.
		10. D'Araquil:	Huarte Araquil.
		11. D'Araiz:	Inza.
		12. Du Guipuscoa:	Irun.
	IV. LABOURDIN	13. Propre:	Sare, Ainhoa, Saint-Jean-de-Luz.
		14. Hybride:	Arcangues.
	V. HAUT-NAVARRAIS MÉRIDIONAL	15. Cis-pampelunais	Egües, Olaibar, Arce, Erro, Burguete.
16. D'Ilzarbe:		Puente la Reina.	
17. Ultra- pampelunais:		Olza, Zizur, Gulina.	
VI. SOULETIN	18. Propre:	Tardets.	
	19. Roncalais:	Vidangoz, Urzainqui, Uztarroz.	
C.	VII. BAS-NAVARRAIS ORIENTAL	20. Cizo-Mixain:	Cize, Mixe, Bardos, Arberoue.
		21. De l'Adour:	Brisous, Urcuit.
		22. Salazarais:	Salazar.
VIII. BAS-NAVARRAIS OCCIDENTAL	23. Baïgorrien:	Baïgorry.	
	24. Du Labourd:	Ustarits, Mendionde.	
	25. Aezcoan:	Aezcoa.	

Sailkapen honi erantsirik bi ohar ere egingo ditu. Baztanerari dagokio lehena:

“Le basque de la vallée de Baztan pourrait aussi, sans trop d'inconvénient, être regardé comme le troisième sous-dialecte du labourdin, car il est assez difficile d'établir, d'une manière qui ne soit pas un peu arbitraire, s'il se rapproche plus de ce dernier que du haut-navarrais septentrional”.

Bigarrena, berriz, iparraldeko goi-nafarrerari eta mendebaleko baxe-nafarrerari:

“Le haut-navarrais septentrional et le bas-navarrais occidental sont des dialectes essentiellement intermédiaires, que bien des personnes aimeront mieux peut-être considérer comme des sous-dialectes du haut-navarrais méridional et du bas-navarrais oriental. Nous n'en persistons pas moins à voir dans cette “intermédiarité” le caractère qui les distingue comme dialectes”.

Eta jarraian:

“Ce n'est qu'après avoir parcouru soi-même tout le pays basque et en avoir étudié toutes les variétés linguistiques, que l'on devrait se permettre de les énumérer et de les classer. (...) Maintenant que nous avons visité, pour ainsi dire, tous les recoins de l'euskalerrria, soit en Espagne, soit en France, nous admettons que la Navarre espagnole, outre les dialectes que nous y avons déjà constatés, en présente deux autres qui lui sont propres: le haut-navarrais septentrional et le haut-navarrais méridional, et que la Basse Navarre en offre également deux: le bas-navarrais occidental et le bas-navarrais oriental, ce qui porte à huit, d'après notre manière de voir, le nombre des dialectes basques. (...)”

Erronkarieraz, berriz, zera esango du:

“(…) le roncalais enfin, qui, à moins que l'on ne veuille le considérer comme le neuvième dialecte basque, doit être regardé, ce que nous faisons, comme un sous-dialecte du souletin (...)”. (25)

Sailkapen honetan ikusten denez, bada, hiru multzotan banatzen dira euskalkiak, hiruron artean zortzi euskalki, hogeitabost azpieuskalki eta berrogeitahamar barietate biltzen dituztelarik.

Ondorengo urteetan, eta ikerketetan sakondu ahala, zehaztasun eta fiabardura berriak egingo dizkio sailkapen honi. Hiru dira buruhausterik handienak emango dizkieten hizkerak: baztanera, erronkaria eta, neurri apalagoan, Nafarroako gipuzkera. 1877ko uztailaren 14an Aita Jose Ignacio Aranari egindako gutunean (26), esaterako, honela mintzo zitzaion baztaneraren eta erronkarieraren auziaz:

(25) BONAPARTE, Louis-Lucien, *Le verbe basque en tableaux...*, op. cit., 160. orr.

(26) ALTUNA, Patxi, “Bonapartek eta Aita Aranak elkari egin kartak”, *FLV*, XVII (1985), nº 46, (305-341), 316. orr.

“(…) Je me suis beaucoup occupé de la grammaire et du vocabulaire de cette variété baztanaise, qui constitue à elle seule un sous-dialecte, et je dois avouer qu’il m’est impossible de condamner celui qui considère le baztanais comme du labourdin. Chacun est libre en cela. Dans la carte lithographique il est classé avec le haut-navarrais septentrional, tandis que dans la carte en taille douce je le range avec le labourdin (27). (…) Le roncalais est presque un dialecte indépendant, mais je n’ai pas osé le considérer comme tel. Je me suis contenté de le considérer comme un sous-dialecte distinct du souletin. (…)”

1880ko urriaren 12an, Campióni bidalitako gutunean, erronkarierari euskalki maila eman lekioketela aitortuko du (28) eta, gutun honetan bertan, Burundako hizkera, 1864ko azaroaren 7an Echeniqueri adierazia zion bezala (29), gipuzkeraren barruan sartzeko eritziari eutsiko dio:

“(…) C’est sur ces formes que j’ai basé ma classification, et si vous n’êtes pas toujours d’accord avec moi, cela ne peut tenir qu’au peu de formes verbales que présente votre échantillon. En effet, *dot*, *dau*, à eux seuls ne prouvent pas qu’un dialecte soit biscayen. Il faut examiner tout le verbe. C’est ce que j’ai fait et cet examen ne permet pas d’admettre que le basque de La Burunda soit du biscayen. (…)” (30)

(27) Ezberdintasun hau ezaguna zitzaigun Lacomberi eskri (LACOMBE, Georges, Carte des sept provinces basques..., op. cit., 39-40. orr.). Beronek zioenez, Parisko Biblioteka Nazionalean gordetzen den mapan kolore horiz agertzen omen da baztanera, iparraldeko goi-nafarreraren barruan beraz eta, ostera, bai Baionako Euskal Erakustokian grabaturik dagoenean zein hiri honetako Udal Bibliotekan gordetzen denean, laranja kolorez omen dago, lapurtzerari loturik alegia.

(28) LACOMBE, Georges, “Lettres du Prince Louis-Lucien Bonaparte à Don Arturo Campión”, RIEV, XXIII (1932), (192-198), 195. orr.

(29) URQUJO, Julio de, Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte..., op. cit., 280. orr.

(30) LACOMBE, Georges, Lettres du Prince Louis-Lucien Bonaparte..., op. cit., 193. orr.

Campiónek, hain zuzen, Orreaga lanaren amaieran ezarriko zuen “Observaciones gramaticales y léxicas” eranskinean (OLORIZ, Hermilio, El romancero de Navarra, Pamplona, 1876, 112. orr.) besterik zioen Burundako hizkera honetaz:

“Las flexiones del verbo auxiliar son las del verbo bizcaino, como se vé en las formas *dot* y *deu*, (esta última tal cual se pronuncia en el valle de Arratia, pues generalmente es *dau* en las demás partes de Bizcaya). Dada la situación topográfica de Olazagutía este hecho permite suponer que el dialecto usado en la llanura de Alaba era el bizcaino, puesto que atravesando el valle de la Borunda é internándose un poco hacia el Norte, se tropieza con el dialecto guipuzcoano. (…)”

Eta bcheraxeago:

“El dialecto del valle de Ergoyena, así como el de Olazagutía, aunque con carácter menos marcado, debe ser considerado como una ramificación del bizcaino. Las flexiones usadas en la version pueden ser reducidas fácilmente, sin violentar las leyes fonéticas de la lengua, á las formas verbales bizcainas, excepto la flexion relativa *toro* ó *doro*, correspondiente al *dio* guipuzcoano y *deutsa* bizcaino (…).” (Ibidem, 114. orr.)

Eritzi berberonen aldeko agertuko da 1881lean Euskal-erria-n argitaratutako artikulu baten:

“Yo pienso que el vascuence de Olazagutía, así como el de toda la Burunda y el del valle de Ergoyena (...) debe ser considerado como un sub-dialecto guipuzcoano, cuyo nombre propongo sea el de guipuzcoano de Navarra. Lo mismo sucede con el de Echarrí Aranaz, del que un Catecismo muy bien hecho que poseo no me permite abrigar duda alguna. Sin embargo, el vascuence de esa localidad, forma, según mi modo de entender, una variedad muy señalada del sub-dialecto guipuzcoano de Navarra.(...)” (31)

Bestalde, eta urte berean Revista Euskara-n argitaratutako artikulu baten, lapurtarren barruan sartuko zituen Urdazubi, Alkerdi, Zugarramurdi eta Baztan haraneko (Oronoz eta Zozagakoak izan ezik) hizkerak (32). Era berean, eta 1869ko sailkapenari jarraituz, azkera, mendebaleko baxe-nafarrerari; zaratzuera, ekialdeko baxe-nafarrerari eta, erronkariera, zubererari erantsiko dizkie (33).

2.1.4. BONAPARTEREN ERIZPIDEAK EUSKALKIAK SAILKATZE ORDUAN

Le verbe basque en tableaux liburuaren sarreran egiten dituen “oharretan” adierazten ditu Bonapartek euskalkien mugak ezartzerakoan aintzakotzat hartu zituen erizpideetariko zenbait. Gainontzekoak, han-hemenka, berak utzitako gutun, txosten eta artikulu ugarietan barreiatuak dauzkagu.

Erizpideoi so egiten badiegu, *aldaketa fonetikoei* ematen dien leku kaskarraz jabetuko gara behingoa, bokal harmonizazio legeez eten gabe eta arreta handiz

(31) BONAPARTE, Luis Luciano, “Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del valle de la Burunda”, *Euskal-erria* (1881), (145-151), 150. orr.

(32) BONAPARTE, Luis Luciano, “Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos”, *Revista Euskara*, IV (1881), nº 38, (161-166), 161. orr.

A list of the languages and dialects belonging to the basque, uralic, and aryan families of Europe, in which one or more entire books of the Bible have been literally translated and printed (London, 30 July 1881) izeneko zerrendaren seigarren postuan baztanera agertzen da, honako azalpen hau dakarrelarik: “Labourdin Basque Dialect of the Valley of Baztan in Spanish Navarre”.

(33) Erronkarierarekin, baina, izango zituen zalantzak, handik urte batzutura argitaratutako txosten baten (BONAPARTE, Louis-Lucien, *Italian and uralic possessive suffixes compared*, Philological society, Council 1884-1885, (1-7), 1. orr.) ikus daitekeenez:

“The dialects of Europe (without reckoning the Caucasus) belong: 1° To the Basque language, subdivided, as I think, into eight dialects (perhaps nine if Roncalesse be more than a simple subdialect) (...).”

mintzatzen bada ere (34). Honetaz landara, [ü] bokala (zub. gainera, Amikuze eta Bardozeko hizkeretan erabilia, beste zenbaitetan ere aztamaren batzuk gordetzen zirelarik), [ũ] bokala (zaraitz., aezk., bazt., hegoaldeko g.-naf. eta Uztarrozeko hizkeretan erabilia (35), æ bokala (Erro eta Baztango hizkeretan erabilia), bokal eta diptongo sudurkariak (zub., erron., Domintxine eta Ithorrotze-Olhaibiko hizkeretan ahoskatuak), aspirazioa (Iparraldeko euskalkietan, Lapurdiko itsasaldcan-Donibane-Lohizune, Ziburu, Urruñá, Behobia, Hendaia eta Biriatur- izan ezik eta, Hegoaldean, Zugarramurdi, Alkerdi, Luzaide eta Kintoko hizkeretan erabilia), *j-fonemaren ahoskera ezberdinak eta errotazismoa.

Morfologiari eta, batipat, *aditzaren morfologiari* (honetan ere ordura arteko euskaltzaleen tradizioaren hariari jarraituz) emango dio Bonapartek nagusitasuna, aditz laguntzaileen banaketa, hain zuzen ere, erabakiorra izango delarik beraren euskalki sailkapenean. Honetaz gainera, zuketa eta xuketako alokutiboak (zub., erron., zaraitz., garaztar-amikuzeran eta Aturrialdeko hizkeretan erabiliak), *ukan / izan* arteko bereizketa (zub., erron. eta bi b.-naf. -aezk. eta zaraitz. izan ezik- egina), -gi/-za- aditz erroak, ahalezkoetako -iro- erroa (zub., ekialdeko b.-naf. eta mendebaleko b.-nafarrerako zenbait hizkeretan), modu bouboa (zub.), indikaliboko geroaldia (zub., lap. literarioan eta, bere osotasun guztian izan ez arren, b.-naf. eta lap. arruntean, zenbait aztarna g.-nafarreran ere aurkitu zituclarik), bizkaieraren geroaldiak (*dagian, dagikean; begi, begike; dai, daike; badagi, badagike; legian, legikean; lei, leike; leyan, leikean; balegi, balegike*), geroaldiko -(r)en / -ko atzizkiak, indikatiboko iraganetako -n / Ø, aditz-izenak moldatzeko era ezberdinak, -a galdara atzizkia (zub., erron. eta b.-naf. -aezk. izan ezik- erabilia).

Izenaren morfologiara etorritz hauexek dirudite azpimarragarrienak: -a batez amaitutako hitzen nom. sing. (*alaba / al(h)abá / alabea / alabara*), erg. pl. -ak / -ek atzizkiak, soziatiboko atzizkiak, adlatiboko atzizkiak, -gan / *baithan* banaketa, erakusleak (*kau / gau / hau / au*).

(34) Bokal harmonizazio legeak kontutan hartzea ez da, dena dela, Bonaparteren aurkikuntza bat. Moguelek, esaterako, Peru Abarca-ren hitzaurreko 20. oharrean eta, bereziki, 1803an argitaratutako *Confesião ona-n* (MOGUEL, Juan Antonio, *Confesião ona edo, celibat gauzac lagundu biar deutscen Confesinuari ondo egulña izateco*, Vitorijan, 1803, IV-V. orr.) bokal harmonizazioa joko du Bizkaiko euskararen ezberdintasunen ardatzetarikitzat. Zavalak, halaber (ZAVALA, Fr. Juan Mateo, *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*, San Sebastián, 1848, 54. orr. eta hurr.), eta bokal harmonizazioan oinarrituz, lau barietate bereiztuko ditu bizkaieran: 1. Markinaldekoa, 2. Arraialdekoa, 3. Erdialdekoa eta 4. Orozkoaldekoa.

(35) Campiónek (CAMPION, Arturo, "Ensayo acerca de las leyes fonéticas de la lengua euskara", *Euskal-erria*, VIII (1883), (261-266), 265. orr.), zera esango zuen soinu honen eremuaz:

" (...) La ü, sonido intermediario entre la u española y la u francesa, se encuentra, más ó ménos frecuentemente en las variedades de la Nabarra española siguientes: roncalés de Ustarroz, salacenco, aezcoano, baztanés y en Lónguida, Urraul-alto, valle de Arce, valle de Erro y Burguete. (...) "

Esan dezagun, amaitzeko, *joskera -bait- / -en* banaketa (*ceren ona baita / ceren ona dan*) bereziki- eta, are gehiago *hiztegi* mailako aldaketak, oso kontutan izango zituela Bonaparte Printzeak (36).

2.1.5. BONAPARTEREN ONDORENGOAK

RESURRECCION MARIA DE AZKUE

Azkuek bildutako datuak ere oso sakabanatuta ageri dira, oinarrizko lanak hauexek direlarik: *Hiztegia* (37), *Morfología Vasca* (38) eta lan monografiko bi: *aezkerari buruzkoa bata* (39) eta *erronkarierari buruzkoa, bestea* (40). Azkuek bultzaturik jarriko zen abian, bestalde, *Erizkizundi Irukoitza* (41).

Euskalkien sailkapenari dagokionez hiru zuzenketa egiten dizkio Bonaparterenari (42):

“En la clasificación de los dialectos he seguido casi á la letra la del príncipe Bonaparte, maestro en esta como en muchas otras materias. Las variantes introducidas por mí son: considerar el roncalés no como subdialecto suletino, sino dialecto (43), y ver un solo dialecto en el alto nabarro y uno también en el bajo nabarro, teniendo por simples subdialectos el septentrional y meridional del primero y el oriental y occidental del último”.

(36) Horixe aitonuko zion 1865eko urtarrilaren 24ko gutunean Echeniqueri (URQUIJO, Julio de, *Cartas escritas por el Príncipe L.-L. Bonaparte...*, op. cit., 286. orr.):

“ (...) Au reste dans le courant de l'année je compte faire paraître un petit traité de la division des dialectes, sous-dialectes et variétés du basque fondé sur l'appréciation scientifique du verbe en premier lieu et du vocabulaire en second lieu. (...)”

(37) AZKUE, Resurrección María de, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbao, 1905-1906.

(38) AZKUE, Resurrección María de, “*Morfología Vasca*”, *Euskera*, IV (1923), V (1924) eta VI (1925), 805-930. orr.

(39) AZKUE, Resurrección María de, “*Aezkera edo Pctiribeño-inguruetako mintzaira*”, *Euskera*, VIII (1927), 179-300. orr.

(40) AZKUE, Resurrección María de, “*Particularidades del dialecto roncalés*”, *Euskera*, XII (1931), 207-406. orr.

(41) Euskal Herri osoan egindako inkesta honen emaitzak ikus, orain: ECHAIDE, Ana María, “*Erizkizundi irukoitza*”, *Iker-3, Euskaltzaindia*, Bilbao, 1984, sarrean (29-52. orr.), Echaidek berak, *Erizkizundi honi buruzko berri jakingarri anitz ematen dituelarik*.

(42) AZKUE, Resurrección María de, *Diccionario...*, op. cit., (I. vol.), XXVI-XXVII orr.

(43) Erabaki honen arrazoia orripeko ohar baten ematen du: “*Debo á nuestro docto escritor Sr. Campión, en conversación particular, la iniciativa de esta idea*” eta Campióni, gogora dezagun, Bonapartek berak adierazi zion aukera hori.

DAMASO INTZA

Burundako hizkera ikertzen duelarik ez du onartzen honek bizkaierarekin zeri-kusirik daukanik (Campiónek uste izan zuenez) ez eta gipuzkeraren adarra denik (Bonapartek eta, geroago, baita Campiónek berak ere esan zuten):

“(…) Euskalki au lenengo begiraldian eta geroxago ere Bizkaiko euskalkitako artu nuan. Baño garbi ezagutzen dut ez dela”.

Eta bertoko aditza sakonki aztertzen duelarik ondorio hau ateratzen du:

“(…) oso-osorik guzia edo al guzia bildu ondoan, ezagutzen dut, bere-berezko euskera dela Burunda guzikoa. (...)” (44)

Burunda’ko euskalkia deitu lanean (45) zera crantsiko du:

“L. L. Bonaparte’ren ondotik Kanpion jaunak bere **Gramatica’n** esan zuan : Napafoan gipuzkoako euskalkia itzegiñen dute urfengo erietan: Ziordia’n, Olazagoitia’n, Altsasua’n, Urdiain’en, Iturmendi’n, Bakaikoa’n, Lizarabengoa’n, Etxari-Aranatz’en, Unanua’n, Lizaraga’n, eta Dorau’n, (Torano).

Baño Burundako euskalki orain argitaratzera goazena ez da gipuzko-koa, ezta oren aide urbiñ-urbila ere.

Gipuzkokoa izatekotan orko urbiñengo erietatik sartua izango zala igaririk, Ortzaurre’n egon nintzan, baita Segura’ko auzo Urtsaran deitzen duten Napafoko mugatik urbiñenekoan. Bi alderdi auctan euskalki berdin xamarak upatu diñut, baño Burunda’kotik oso bestelakoak, garai geienetan”.

GEORGES LACOMBE

Bonaparteri jarraituz zuzentzat emango du ekialde eta mendebaleko b-nafarren bereizketa. Iribarnegarayk eginiko **Cantique des Cantiques** liburuaren euskal itzulpeneko hizkeran oinarrituz zera esango du:

“(…) Cette traduction (...) Sensiblement différente, quant à la phonétique, au verbe, à la déclinaison et au vocabulaire de la version basnavarraise orientale cizaine de Casenave, elle nous aide à comprendre le bien-fondé de la division bonapartienne du bas-navarrais en deux dialectes, légitimité à laquelle ne semblent pas avoir assez pris garde certains bascologues récents”. (46)

(44) INTZA’r Damaso, “Napafo’ko aditz-laguntzalea zuketazko esakeran”, *Euskera*, III (1922), (65-92), 65-66. orr.

(45) INTZA’r Damaso, “Burunda’ko euskalkia”, *Euskera*, III (1922), (3-42), 3. orr.

(46) LACOMBE, Georges, “Quelques mots sur les versions basques du Cantique des Cantiques”, *RIEV*, XV (1924), (197-208), 204. orr.

PEDRO DE YRIZAR

1973an argitaratutako *Los dialectos y variedades de la lengua vasca* lanean (47) euskalki maila ematen dio erronkarierari, egokitzat jotzen du iparralde eta hegoaldeko g.-nafarrerak zein ekialde eta mendebaleko b.-nafarrerak bereiztea (48), Elgoibarko hizkera –Azkueri jarraituz– gipuzkerari lotzen dio eta bazt. eta zaraitzuerari dagokienez, aldiz, sakonago eta hobeki aztertu beharra adierazten du. Bukatzeko, honako hau ere esango du:

“El vascuence de la Burunda tiene, creemos, algo, no sólo de guipuzcoano y de vizcaino e incluso de alto-navarro, sino también peculiaridades propias. Es por ello de clasificación incierta.

En nuestra opinión el habla de Cigoitia (...) debería ser desglosada de la variedad guerniquesa, en que la incluyó el Príncipe Bonaparte, ya que, a nuestro juicio, presenta peculiaridades suficientes para ser considerada como variedad independiente. (...)” (49)

KOLDO MITXELENA

Aldaketa berri zenbait proposatuko ditu Mitxelenak bere *Fonética Histórica Vasca* liburuan (50). Iparraldeko g.-nafarreran sartzen du Baztango hizkera, lapurterarekin daukan lotura estua onartzen badu ere. Bonaparterekin bat etorritik, gip. barruan sartzen ditu Burunda eta Sakanako hizkerak. Aezk., zaraitz. eta erronkarierari, bestalde, eta hizkerok mendebale eta ekialdeko b.-nafarreretikiko eta zubererarekiko hurrenez-hurren, dituzten kidetasunak ukatu gabe, euskalki maila ematen die, Mitxelenaren aburuz, Nafarroako ekialdean mintzatzen -edo mintzatu izan- diren hizkerak eta Pirineoz handikoen artean dauden kidetasunak nabarmenak eta ukæzinezkoak diren arren, areago bait dira nafar hizkerok batzuek besteekin dituztenak. Beraren ustez, konparaketarako hautatzen diren crizpideetan omen dago gakoa (51).

(47) YRIZAR, Pedro de, “Los dialectos y variedades de la lengua vasca...”, *Contribución...*, op. cit., (I. vol.), 216-217. orr.

(48) Beranduagoko beste lan baten, ordea (YRIZAR, Pedro de, *Contribución...*, op. cit., (II. vol.), 329. orr.), ez zen hain erabatekoa agertuko ekialde eta mendebaleko b.-nafarrei dagokienez.

(49) YRIZAR, Pedro de, *Contribución...*, op. cit., (I. vol.), 217. orr.

(50) MICHELENA, Luis, *Fonética Histórica Vasca*, Publicaciones del Seminario “Julio de Urquijo” de la Excma. Diputación Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián, 1976, 41-42. orr.

(51) Luze mintzo da honetaz *Sobre el pasado de la lengua vasca*, op. cit., 45-58. orr.

Antzerako salaketa egingo dio Bonaparteri beste lan baten (MICHELENA, Luis, “Notas fonológicas sobre el salacenco”, *ASJU*, I (1967), (163-177), 163. orr.):

“ (...) al igual que sus vecinos occidental y oriental, el aezcoano y el roncalés, se aparta –zaraitzuerá– de las hablas francesas incluidas dentro del mismo grupo dialectal por importantes particularidades, referentes sobre todo a los sonidos. No hay que olvidar, en efecto, que la clasificación de los dialectos vascos hecha por Bonaparte, que en la práctica seguimos utilizando todos con algunas modificaciones, está fundada ante todo en criterios morfológicos. Incluso la sintaxis pesó más en ella que la fonología”.

Mitxelenak, gainera, euskalki berri bat aipatzen du: *hegoaldekoa*. Manuel de Agud-ekin batera argitaratutako *Dictionarium linguae cantabrigae* (52) hiztegiaren sarreran hegoaldeko euskalki honi buruzko xehetasun eta ezaugarri zenbait eskaintzen ditu Mitxelenak eta, bertan, bizkaiera duela seniderik hurbilena badio ere, zera erantsiko du jarraian:

“(...) Pero frente a estas coincidencias hay importantes diferencias de vocabulario, de evolución fonética y de morfología (...) suficientes para conferirle personalidad autónoma (53).

De aquí se sigue naturalmente que esta variedad extinta debió hablarse al sur de la actual zona de habla vasca, es decir, en Alava o en Navarra. Y la afinidad con el vizcaíno a que nos acabamos de referir apunta precisamente a Alava, cuya habla, tanto por los testimonios anteriores que poseemos como por lo que hoy podemos comprobar en las zonas septentrionales que han conservado la lengua, era muy próxima al vizcaíno”. (54)

2.1.6. EUSKALKIAK ETA HIZTUNAK

Euskaldunen kopuru zehatza ezagutzea zaila gertatzen bazitzaigun, are zailago egiten zaigu euskalki bakoitzeko hiztunenari antzematea. Abiapuntu gisa, eta hobeagorik ez izanik, Yrizarrek bildutako emaitzez baliatuko gara:

(52) LANDUCHIO, N., *Dictionarium linguae cantabrigae*, Publicaciones del Seminario “Julio de Urquijo” de la Excma. Diputación Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián, 1958.

1562an dataturik dago Landuchio italiarrak bildu zuen Hiztegi hau, berau, Mitxelenaren eritiziz, aspaldidanik galdurik dagoen hegoaldeko euskalki horren lekuko bat delarik.

(53) Bizkaiera eta hegoaldeko euskalkiaren arteko ezberdintasunen berri izateko, ikus: LANDUCHIO, N., *Dictionarium linguae cantabrigae*, op. cit., 22. orr. eta hurr. Baita: MICHELENA, Luis, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, op. cit., 62. orr. Nabarmenenak honako hauexei denizkiegu: bizk. *a/hegoal. e* (*guerría, eçurra*... Baina badira bestelakoak ere: *balça, balçitu, barria, çarrichoa*); bizk. *u/hegoal. i* (*hirten, ygueri eguin, ylçea*...); bizk. *i/hegoal. u* (*gutxi, guti*...); bizk. *-an, -un/hegoal. -ain, -uin* (*çayna, errayna, barçuina, muyn eguin*...); sozlatiboan bizk. *-gaz/hegoal. -kin*; erakusleetan 3. pers. sing. ergatibo eta inesiboa: *arc, artan* (bizk. *arek, aretan*)...

(54) LANDUCHIO, N., *Dictionarium linguae cantabrigae*, op. cit., 37-38. orr.

Mitxelenak berak J. Bta. Gamizen –Arabako euskararen lekukoa hau ere– poesiei egindako sarreran (GOIKOETXEA MAIZA, Ion, Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo poeta bilingüe alavés del siglo XVIII, Diputación Foral de Alava, Vitoria, 1983) zera esango du:

“(...) reúne a la vez rasgos que más al norte se tienen por occidentales o por orientales en sentido exclusivo, aunque su límite no sea siempre el mismo (...)”.

Eta beherago:

“Me permito sugerir que el tipo de lengua más parecido al de Gamiz que conozco es el que nos ha sido transmitido por un “Romance al Santísimo Sacramento”, premiado en 1610 (Textos arcaicos vascos, 3. 1. 21). Porque, aunque premiada en las fiestas del Corpus de ese año en Pamplona, no puede proceder ni de Pamplona ni de su cuenca. Ni, casi con seguridad, de ningún otro lugar de Navarra”.

X. TAULA
HIZTUNEN BANAKETA EUSKALKIZ EUSKALKI (55)

Euskalkia	Hiztunen kopurua	Euskaldun guztien %
Bizkaiera	200.400	37,56
Ekialdeko b.-naf.	23.700	4,44
Gipuzkera	200.100	37,50
Hegoaldeko g.-naf.	600	0,11
Iparaldeko g.-naf.	51.000	9,55
Lapurtera	23.000	4,31
Mendebaleko b.-naf.	22.800	4,27
Zuberera	11.100	2,08
Zehaztugabeak	800	0,14
Guztira	533.500	100,00

Taula honek, eta kopuruok guztiz behin-behinekoak diren arren, bizkaieraren (37,56%) eta gipuzkeraren (37,50%) nagusitasuna erakusten du argi eta garbi, gainerako euskalkiak oso urrun geratzen direlarik.

Bonapartek banatutako hiru multzoen arabera, berriz, honelako emaitza hauek izango genituzke: *A* multzoan (bizk.): 37,56%; *B* multzoan (gip., hego eta iparraldeko g.-naf. eta lap.): 51,47% eta *C* multzoan (ekialde eta mendebaleko b.-naf. eta zub.): 10,79%.

2.2. EUSKALKIEN ARTEKO ELKAR-ULERGARRITASUNA. BIZKAIERAREN AUZIA.

2.2.1. EUSKALKIEN ARTEKO ELKAR-ULERGARRITASUNA

2.2.1. Eskuratu ahal izan ditugun lekukorik zaharrenetatik hasita, euskaldunek elkar ulertzeko dauzkaten eragozpen eta zailtasunak azpimarratzen dira, euskalkien arteko ezberdintasunak oso sakon eta ia gaindiezinezkotzat jotzen direlarik. Garibayk (1533-1599), esaterako, bere atsotitz bildumari egindako hitzaurrean, bai onesen eta bilbotarren arteko oztupoak aipatuko ditu, horren jatorria, euskara kodifikatu gabeko hizkuntza izateari batetik, eta, bestetik, frantsesa eta gaztelaniarekiko menpekotasunari leporatzen diolarik:

(55) YRIZAR, Pedro de, "Los dialectos y variedades de la lengua vasca...", *Contribución...*, op. cit., (I. vol.), 214-215. orr.

Emaitza hauek, zahar xamarrak izateaz gainera (1970ekoak), gume euskaldunetan bizi diren hiztunak hartzen dira soil-soilik kontutan, Bilbo, Gasteiz edo Baiona bezalako hirietakoak at geratzen direlarik beraz. Yrizar, bestalde, Bonapartek 1869an eginiko sailkapenari lotzen zaio.

“(…) esta lengua, la qual como las demas vulgares no conseruadas en arte, está deprauada de tal manera, que si oy resuçitasen los de los siglos pasados de menos de mil años, no nos entendieran casi, ni nosotros a ellos, como oy dia se entienden con mucha dificultad el vezino de Vilbao y el de Bayona, con hablarse en ambos pueblos principales esta lengua, en Bilbao con muchísima mezcla de la castellana, y en Bayona con no menor de la francesa (...)”. (56)

Serapio Múgicari esker ezagutzen ditugu Hondarribia eta Urruñako udaletxeek 1680an elkarri bidalitako lau gutun. Hauetariko baten honako ohar hau egiten diete lapurtarrek gipuzkoarrei:

“(…) zuen eta gure iscuntza escaras aguitz differentabaita pena dugu chit ezin explicatus zuen letra, halla desiratzen guinduce zuec guri espaignoles escribatzea, eta guc zuei franseses edo escaras (...)”. (57)

Bat etorriko da euskalkien arteko ezberdintasunak azpimarratze orduan Joannes d’Etcheberri bere Laburdiri escuararen hatsapenac lanean:

“Egun Escualdun deitzen diren herriac, eta Escuaraz mintço direnac dira choilqui Naffarroa garaja parteric guehiena; Naffarroa beheera; Çube-roa; Laburdi (sic), Ippuzcoa; Bizcaya; eta Alaba herria (...)”.

Ordea hautan-ere elkharren artean hain diferentqui mintço gara (...). Ceren herri bateco Escuarac baitirudi diferent dela bertcecotic, eta eguiaz-qui badirudigu herritic herrira diferentqui mintço garella”. (58)

Antzera mintzatuko da Lau-urdira gomendiozco carta, edo guthuna izkribuan:

“(…) Eta oraino bertce-alde, geure herritic ilkhigabe Escual-herrian berean barrena, geure artean dugu pena, eta neque ondicozco hau; ceren geure hitzcuntça propiala baitarabilagu hain nahasia, eta truccatua, non Escualdonoc gueroc pena eta neque baiugu elkharren aditceco.

Ezperen bat-bedi Nafarroa-beherearra, edo çuheroarra (sic) Bizcaitarrarequin, edo Alabesarequin, eta Ochagabiarra, edo Erroncalesa Baztanda-

(56) URQUIJO, Julio de, “Refranes en bascuence compuestos por Estewan de Garibay y Çamalloa”, RIEV, XXVII (1936), (553-624), 553-554. orr.

(57) MUGICA, Serapio, El vascuence en los archivos municipales de Gulpúzcoa, op. cit., 730. orr.

Ohar honek, gainera, euskaldunek maiz erakutsi izan duten jarrera baten berri demaigu, beste lurralderen bateko hiztunekin biltzerakoan, eta elkar ulertzeko oztoporik txikiena somatu dutelarik, euskara utzi eta erdaretara jo izan bait dute. Jarrera honen ondorioak, epe luzera, ezin kaltegarriagoak gertatuko dira, euskararen erabilera eskualde edo, kasurik hoberenean ere, probintzia barruko harremanetara mugatuko bait da, esparru hori gainditzen denerako erdarak (frantsesa zein gaztelania) bilakatuko direlarik hizkuntza behikular.

(58) URQUIJO, Julio de, Obras Vascongadas..., op. cit., 133. orr.

rrarequin eta Lau-urtarrarequin; edo cein nahi Escual-herrico aldebatecoa bertce alderdicoarequin, eta ikhusico duçu, elkhar ecin adi deçaquetela; aititic elkharri idurituco çazquio Escualdunac direlaric, eztirela hitzcuntça berecoac. (...)” (59)

XIX. mendera jauzi eginez, egoera berbera isladatuko digute garai honetako lekukoek:

“L’habitant du Guipuzcoa ne comprend pas, ou du moins ne comprend qu’avec peine, le biscayen; on peut en dire autant de ce dernier par rapport au premier; autant de l’habitant de l’Alaba, de la Navarre haute et basse, du Labourt, de la Soule, etc. J’ai rapporté dans ma Dissertation préliminaire une phrase fort simple, exprimée en 15 manières différentes”. (60)

Aizquibelek, berriz, bere De la lengua euskera ó de los Vascongados izkribuan:

“(…) La diferencia dialéctica en el vascuence es muy grande; acaso mas que en los idiomas semíticos del hebreo y del árabe. (...)” (61)

Berdin mintzatuko zen Bonaparte, euskalkiak hain sakonki ezagutuko zituena, 1878ko apirilaren 9an Aita Aranari bidalitako gutunean:

“(…) Il est bien certain pour moi, par exemple, que le souletin et le biscaïen ne diffèrent pas moins entre eux, sinon plus, que l’espagnol et le portugais ou peut-être même l’italien. (...)” (62)

Gure egunotan ere bada antzerako eritzirik aldarrikatzen duenik:

“(…) entre las lenguas literarias vascas hay mayor diferencia que entre las lenguas neolatinas.

Me atrevo a afirmar que la diferencia máxima entre dialectos alejados supera a la que hay entre el castellano y el francés y que la que hay

(59) URQUIJO, Julio de, *Obras Vascongadas...*, op. cit., (379-403), 398. orr.

(60) LECLUSE, Fl., *Manuel de la Langue Basque*, Bayonne, 1826, 30. orr. *Dissertation sur la langue basque* (Toulouse, 1826, 8-9. orr.) txostenean ere antzera mintzatuko zen:

“(…) Une journée de marche en France, et une autre en Espagne, voilà tout le domaine actuel de la langue Basque (...) et cependant cette langue se subdivise en une multitude infinie de différens dialectes. (...) Aussi, en passant d’une province à l’autre, les indigènes eux-mêmes ont-ils peine à se comprendre (...)”.

(61) CASTELLANOS DE LOSADA, Basilio Sebastián, *Discurso histórico-arqueológico, ó sea reseña histórica sobre los lugares, idiomas, dialectos y escrituras en general, y en particular de España*, Madrid, 1856, (211-221), 218. orr. (Ikus, orain, SATRUSTEGUI, J. M., “Euskera”, ASJU, XI (1977), 135-152. orr.)

(62) ALTUNA, Paezi, *Bonapartek eta aita Aranak elkarrri egin kartak*, op. cit., 319. orr.

entre dialectos próximos, como el guipuzcoano y el vizcaino, o el guipuzcoano y el labortano es muchísimo mayor que la que hay entre el castellano y el portugués”. (63)

Eta beherago:

“Las lenguas literarias vascas no son dialectos, sino lenguas de una misma familia”. (64)

Ez da falta, hala ere, alderantzizko aburua izan duenik, hots, euskalkien arteko alde hori gutxiesten ahalegindu denik:

“(…) il s’est formé des idiotismes ici et là, les euphonies ont varié et la cause en est visible; un peuple de cultivateurs n’est pas un peuple nomade: les événements et les divisions politiques du territoire ont restreint les communications entre les divers cantons. Mais qu’un Basque passe quelques mois dans le canton dont le dialecte est le plus éloigné du sien, une fois qu’il a eu connaissance des termes et idiotismes locaux, il comprendra et parlera parfaitement le langage du pays. La différence entre nos dialectes est moins forte que celles qui séparent les dialectes particuliers de plusieurs départements français. Au reste, l’anglais, l’allemand et toutes les langues offrent ce même spectacle. Si une chose a droit de surprendre, c’est que la langue basque n’ait pas succombé pendant la durée des âges”. (65)

Mitxelena, Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik so egiten duenik, zera esango du:

“(…) La discusión es más bien ociosa en tanto no se arbitre una técnica que permita darle una respuesta precisa, cuantitativa. La estimación de esa magnitud es, además, relativa por necesidad: para un lingüista, por ejemplo, las diferencias no son grandes y, si el lingüista es un comparatista, las encontrará incluso desesperantemente pequeñas. El mismo criterio de la posibilidad de comprensión mutua entre hablantes de variedades distintas, que es al que con más frecuencia se suele apelar, es de dudoso valor: la comunicación mutua depende en alto grado del

(63) BASTERRECHEA, José (“Oskillaso”), *El libro negro del euskara*, Bilbao, 1984, 270. orr.

(64) *Ibidem*, 271. orr.

(65) DUVOISIN, *Etude sur la déclinaison basque*, Bayonne, 1866, 40. orr.

Berdin mintzatuko zitzaion Bonaparte Printzeari 1860ko ekainaren 27an bidali gutunean (DARANATZ, J-B., “Correspondance du Capitaine Duvoisin”, *RIEV*, XIX (1928), (58-70), 62. orr.):

“Ces dernières -bizk. gainerako euskalkiez dihardu- opposeront quelques variantes dans la manière de régir les noms et de disposer les temps des verbes, une sorte de vocalisation euphonique différente, des emprunts de mots étrangers plus fréquents d’une part que de l’autre; mais tout cela ne suffira pas à établir en faveur d’un dialecte une nature inconnue à ses congénères”.

“don de lenguas”, esa capacidad peculiar hecha de versatilidad y mimetismo, de los interlocutores en contacto. Es sabido, por otra parte, que lo que en un primer encuentro resulta ininteligible llega a ser comprensible y hasta claro tras un período más o menos largo de acomodación y aprendizaje”. (66)

Altunak ere ez du honetan zalantza izpirik izango:

“Euskalki baten jabe denak beste euskalkiz mintzo zaionari aditzen lanak izaten ditu –jabeago eta lan tipiago, halaz ere–; ezin aditurik ez du, ordea. Nolanahi ere, beste hizkuntzaz mintzo zaionari aditzeko duen haina ez, bederen.

Ezinik baldin badu, bere euskalkiaren jabe ez delako du –eta entzulea ere ez berearen–. Edo-ta herri-mintzaierek –hemengoek eta nonnahikoe– hitzak osoro esan ordeztatu egiten dituztelako, hitz erdiak ahopean janik. Baina hori ez daiteke arrazoi aski, euskalki guztiek beren artean elkarrekiko eta funtsezko muinik dutela ukatzeko”. (67)

Baina hizkuntzalarien arrazoiek ezer gutxi balio dute, nonbait ere, hiztunek uste izan dezaketaren ondoan (68). Agerian dago politikoki eta administratiboki puskaturik eta sakabanaturik bizi izan den, eta bizi den, herri baten, ezabatuz eta galduz joan dela, hein batez bederen, komunitate linguistiko bat eta bera osatzen delako kontzientzia (69).

Mackey-k oharertzen duenez, bestalde, elkar ulertzea ez da, nahitaez, alde bietatik neurri berean izaten, hiztunen “jarrerak” horretan berebiziko eragina dutelarik:

(66) MICHELENA, Luis, Sobre el pasado de la lengua vasca, op. cit., 18. orr.

Eritzi berberari eutsiko dio beranduagoko beste lan baten (MICHELENA, Luis, “Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco”, Revista de Occidente, nº 10-11, Febrero de 1982, Extraordinario II, (55-75), 62-63. orr.):

“¿Son muy distintos esos dialectos entre sí? La respuesta dependerá del punto de vista: del que pregunta, del que contesta o del de ambos. (...) para un comparatista no hay más que un solo testigo, aunque diversificado en testimonios levemente discrepantes entre sí. Y el punto de vista del comparatista –o el del reconstructor, si así le podemos llamar–, aunque parcial y limitado, no deja de ser legítimo dentro de su propio dominio. (...)”

(67) “La lingüística aplicada a la enseñanza del euskera y la enseñanza en euskera”, II Semana de Antropología Vasca, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973, (167-257), 170. orr.

(68) Halaxe aitortzen du Mitxelena berak ere (MICHELENA, Luis, Normalización de la forma escrita de una lengua..., op. cit., 63. orr.):

“Pero la postura del comparatista o del historiador de la lengua no representa, nos hemos apresurado a reconocerlo, más que uno de los puntos de vista posibles, quizá no el más importante. (...)”

(69) Gure ustez, esate baterako, bada horrelako zerbait 1680an urrufiarrak euren auzoko hondarrabia rekin elkar ezin ulertzean, konnutan badaukagu, gainera, idatziz –eta ez ahoz– ari zirela.

“(...) les attitudes face à la compréhension des langues ne sont pas toujours réciproques. Par exemple, bien que 87% des Suédois pensent être compris des Danois, seulement 40% de ces derniers s'accordent pour dire qu'ils comprennent effectivement le suédois; 76% des Danois affirment être compris des Norvégiens, tandis que seulement 50% de ces derniers considèrent qu'ils comprennent le danois. Les touristes de langue anglaise ont toujours agi comme si tout le monde pouvait les comprendre, bien qu'ils ne puissent eux-mêmes comprendre aucune autre langue. (...)” (70)

Barietate linguistiko bakoitzaren “prestigioak” ere ba omen du zerikusirik:

“(...) on prétend ne pas comprendre un dialecte inférieur, bien que ce dernier soit très proche de la langue maternelle. Une faible proportion de ceux qui parlent l'anga avouent qu'ils comprennent la langue très similaire et très proche du sura. Par contre, ils prétendent comprendre le hausa, l'importante *lingua franca* d'une grande région dans le nord du Nigéria. (...)” (71)

2.2.2. BIZKAIERAREN NORTASUN BEREZIA

2.2.2.1. Bizkaieraren eremua ez bada ere euskalkien arteko elkar-ulergarritasuna oztopatzen –oztopatzen ezen ez hausten– den gune bakarra, euskalki honexek sortu eta sortzen ditu arazo eta korapilorik latz eta istilutsuenak. Egia da, izan, isoglosa multzo hazia pilatzen dela gipuzkera eta bizkaieraren arteko mugan, baina hala eta guztiz ere, euskalki honen berezko egitura linguistikoaz gainera, bere baitan biltzen duen hiztun kopuruaren (euskaldungo guztiaren 37,56% Yrizarren arabera) eta hiztunok euskarazko kulturgintzan euki duten, eta egun ere duten, eraginaren ondorio ere badira, besteak beste, historian zehar egin izan diren eskabide eta hartu izan diren jokabide anitz.

Aspaldidanikoak dira bizkaieraren apartekotasuna eta berezitasuna azpimarratzen dituzten lekukoak, Oihenart zuberotarrak, 1638an, egingo zuenez:

“Por lo demás, en las reglas anteriores y en los ejemplos de las declinaciones y conjugaciones, hemos seguido casi únicamente el dialecto de la Vascitania, es decir, el usado por los vascos aquitanos, vulgarmente denominados los vascos en la actualidad. La forma navarra difiere no poco de ésta, más la de la Vardulia, o sea de Guipúzcoa y Alava, más que ninguna la autrigónica, o bizcaína (...)”. (72)

(70) MACKEY, William Francis, *Bilinguisme et contact des langues*, Editions Klincksieck, Paris, 1976, 222. orr.

(71) MACKEY, William Francis, *Bilinguisme...*, op. cit., 222. orr.

(72) OYENART, Arnaldo de, *Noticia de las dos Vasconias...*, op. cit., 353. orr.

Beste zuberotar bat ere, Archu, jabetuko zen bizkaieraren eragozpen eta zailtasun hauetaz:

“(…) Les habitants de la province parlent leur dialecte avec une telle volubilité qu’il est difficile, à un basque étranger, de saisir le sens de l’expression”.

Baina jarraian honako hauxe erantsiko du:

“Il en est autrement du langage écrit, qui est intelligible pour tous les basques, quelle que soit la province à laquelle ils appartiennent”. (73)

Duvoisin lapurtarrak ere, 1860ko ekainaren 27an Bonaparteri bidalitako gutunean, eritzi bera aldarrikatuko zuen:

“Je ne pense pas, Mgr, que les différences qui séparent les dialectes basques constituent autre chose qu’une somme plus ou moins grande d’agréments, à côté de quelques abus de plus ou de moins ici ou là et souvent avec compensation. Le biscayen seul s’éloigne des autres dialectes d’une manière assez caractérisée pour laisser croire qu’il soit possible d’y trouver des propriétés bonnes ou mauvaises que les autres ne possèdent pas”. (74)

XIX. mende amaieran hasita, eta XX. mendean zehar batez ere, aldaketa nabarmen bat gertatzen da, oraingo honetan bizkaieraren apartekotasunaz ezezik beronen jatorri ezberdinaz eta euskararen bitasunaz ere mintzatuko bait da. Euskal Herriaren zatiketa berri bat –hizkuntza arlokoa oraingoan– ekar zezakeen joera arriskutsu hori gainbehera etorriko da XX. mendeko bigarren erdialderaz geroztik, hantemenka aziarna zenbait utzi baditu ere.

1879an Van Eys-ek argitaratutako Gramatikan aldarrikatzen da lehen aldiz –guk dakigula behinik behin– hipotesi hori:

“(…) quant au verbe, qui est toujours un trait distinctif, le guipuzcoan est beaucoup plus rapproché du labourdin que du biscaïen: il n’emploie ni *eusi*, ni *egin*, ni *joan* comme verbes auxiliaires, ce qui est extrêmement remarquable, le guipuzcoan étant un dialecte basque d’au-delà des Pyrénées; faudra-t-il en conclure que le guipuzcoan & les dialectes basques français ont formé autrefois un groupe homogène, séparé du biscaïen, mais toujours dans une relation de dialectes, ou faudra-t-il envisager le biscaïen comme un dialecte plus ancien? Il serait peut-être prématuré de se prononcer sur cette question d’une manière décisive, mais il nous semble que le dialecte biscaïen pourrait être considéré comme l’aîné de la famille”. (75)

(73) ARCHU, J.-B., *La Fontalnaren alegia berheziak neurt-hltzez Franzesetik Uscarara Itzullak*, La Reolen, 1848, 70. orr.

(74) DARANATZ, J.-B., *Correspondance du Capitaine Duvoisin*, op. cit., 62. orr.

(75) VAN EYS, W. J., *Grammaire Comparée des Dialectes basques*, Paris, 1879, 4. orr.

Posibilitate hau berau adieraziko du Sabino de Aranak –eta baliteke honetan Van Eysen jarraitzaile izatea– 1896an argitaratutako *Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino* lan ezagunari egindako hitzaurrean:

“Propiamente no son más que tres –euskalkiak, alegia–, que aun tal vez puedan reducirse a los dos primeros que nombro: podemos designarlos con los nombres de *bizkaino*, *vaskón* y *pirenaico* (...)”. (76)

Aranak posibilitate gisa zioena, baina, beraren jarraitzaileetarako zenbaitek, inolako frogarik aipatzen ez badute ere, zalantzarik eta ezbairik gabe aldarrikatuko dute. Honako hau idatziko du, esaterako, Ariandiagak:

“Examinando con atención al pueblo vizcaíno, vemos claramente ser un pueblo distinto dentro de la familia vasca. La razón más convincente está en el dialecto vizcaíno. Los vascos poseemos todos un Euzkera, pues el Euzkera no es más que uno. Pero ese Euzkera tiene en Bizkaya diferencias muy señaladas de las que en otras regiones de Euzkadi. Esta diferencia dialectal tan marcada determina diferencia de tribu dentro de la familia ó raza vasca. Los guipuzcoanos hacen tribu muy distinta de los vizcaínos, los laburdinos la hacen menos distinta de los guipuzcoanos que de los vizcaínos; y así de las demás tribus vascas”. (77)

Antzerako eritzikoa izango da Eleizalde bera ere:

“(…) quizá sería más propio hablar de *lenguas euzkéricas* que de dialectos. Pero entonces las lenguas no serían ya tres, sino dos, puesto que el dialecto pirenaico podría agruparse con el vascón, y resultarían dos lenguas vascas: la *bizkaina* y la *no-bizkaina*; á esta última podría denominársela *vascona*. Yo creo que entre ambas hay tanta diferencia como entre el español y el portugués, por ejemplo”. (78)

Eta lerro batzuk beheraxeago:

“El Euzkera actual procede del choque de dos distintos Euzkeras, uno de los cuales influyó más en el bizkaino que en el vascón. (...)” (79)

Urte batzuk beranduago Euskal Herriatik at hedatuko zen eritzi honen oihartzuna. 1924an, hain zuzen, A. Meillet eta M. Cohen-en zuzendaritzapean munduko hizkuntzen berri ematen zen liburu bat argitaratuko zen, euskarari buruzko txostena Lacombek egokituko zuelarik. Hauxe esaten zen bertan:

(76) ARANA-GOIRI, Sabino de, "Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino", *Obras Completas*, Sabindiar-Batza, Baiona, 1965, (810-982), 821. orr.

(77) ARIANDIAGA, Manuel de, "¿Euzkera ala euskera?", *RIEV*, I (1907), (642-672), 670. orr.

(78) ELEIZALDE'tar' Koldobika, "Raza, Lengua y Nación vascas", *Euzkadi*, VIII (1911), 10. zb., (243-276), 268. orr.

(79) *Ibidem*, 269. orr.

“Une chose avant tout frappe celui qui veut observer la langue basque, qu’il la prenne dans sa réalité vivante ou dans les livres, c’est son extrême variété dialectale. Plusieurs auteurs, depuis le XVII^e siècle, se sont occupés de classer ces dialectes. (...) Il nous semble qu’il serait suffisant de distinguer deux grands groupes dialectaux: le biscayen (que l’on pourrait appeler aussi basque occidental) d’un côté, et de l’autre côté tous les autres dialectes (guipuzcoan, labourdin, souletin, parlars de la Navarre française et de la Navarre espagnole). On pourrait appeler ce groupe, par opposition au premier, centro-oriental. Nous justifierions ce classement par la considération suivante: on passe par gradations insensibles d’un dialecte à l’autre parmi ceux qui constituent ce groupe, tandis que le saut est assez brusque quand on passe du guipuzcoan au biscayen. Ce dernier se distingue en effet, dans toute une partie de sa conjugaison, par l’emploi d’auxiliaires qui lui sont propres, il offre des particularités typiques dans maints détails de la grammaire en plus grand nombre que les autres dialectes, et enfin son vocabulaire a souvent des mots non compris des autres Basques”. (80)

Tesi honen alde agertuko zen Gavel Baionako Euskal Erakustokian 1928ko uztailaren 28an egin hitzaldian:

“Dans son état actuel la langue basque apparaît assez fortement diversifiée suivant les régions: ses variétés peuvent se ramener à sept ou huit dialectes principaux qui n’ont pas tous une importance égale au point de vue littéraire. Ces dialectes à leur tour peuvent être classés en deux groupes, le biscayen constituant à lui seul l’un de ceux-ci. (...)” (81)

Baita Julio de Urquijo ere Espainiako Erret Akademian 1929ko azaroaren 24an egindako sarrera hitzaldian:

“(...) ocho dialectos que, en un momento dado, debieron de reducirse sólo a dos, el antepasado del vizcaíno y el de los otros siete dialectos vascos, y en una época mucho más remota constituyeron una única habla”. (82)

Bultzada berria ematen zion tesi honi Uhlenbeck holandar hizkuntzalariak lehen aldiz 1942an argitaratutako artikulu baten:

“(...) Si nous faisons attention aux particularités individualisantes du biscayen par rapport aux autres dialectes basques, nous avons plutôt l’impression qu’il nous faut partir de deux dialectes pyrénéens occi-

(80) LACOMBE, Georges, “Langue basque”, *Les langues du monde*, C. N. R. S., Paris, 1952, (255-270), 260-261. orr.

(81) GAVEL, Henri, “La langue basque”, *BMB* (1928), nº 3-4, (1-12), 11. orr.

(82) URQUIJO, Julio de, “De algunos problemas de interés general que suscita el Vascuence”, *RIEV*, XXVII (1936), (385-430), 404. orr.

dentaux anciens qui, pendant une certaine période, n'étaient pas immédiatement voisins, mais qui, entrés plus tard en contact immédiat, se sont rapprochés de plus en plus. De l'un serait donc issu le biscayen; du second, tous les autres dialectes en territoires espagnol et français. Le rapprochement entre le biscayen et le guipuzcoan, en d'autres mots l'effacement graduel des limites indubitablement nettes autrefois, est un procès en cours depuis longtemps et qui se poursuit toujours. (...)" (83)

Behin eta berriz agertuko da tesi honen alde Gorostiaga bizkaitarra:

"Si estudiamos el aspecto de los nombres vascos de los días de la semana, se impone, lo mismo en éste que en otros campos de la historia y de la etnografía, una repartición entre los actuales dialectos del idioma, entre el más occidental, el Bizkaino (B) y el resto que podemos llamar Vascón (V)". (84)

Toponimian ere aurkitu uste ditu Gorostiagak eritzi honen aldeko frogak:

"En primer lugar, su repartición geográfica *-uri* hitzarena, alegia- es la del dialecto "vizcaino" y más exactamente "várdulo-caristio-autri-gón", que además del dominio de la más antigua Guipúzcoa, Alava y Vizcaya, comprendía el de La Rioja y Bureba. Esta división, como ya se ha dicho, responde sin duda a una anterior distribución que la administración romana respetó y que vendría de los tiempos célticos y aun prehistóricos.

Por los escasos indicios que del "ibérico" poseemos, vemos que la actual repartición de dialectos vascos en "vizcaino" y "vascón-aquitánico" existía ya en el mundo ibérico, pues *Iliberri* y ciertos nombres terminados en *-Bels* nos indican suficientemente que ellos son representantes del dialecto que posee *Iri* en frente de *Uri*, *Berri* en frente de *Barri* y *Beltz* en frente de *Baltz*. (...)" (85)

(83) UHLENBECK, C. C., "Les Couches Anciennes du Vocabulaire Basque", E-J, I (1947), (543-581), 544. orr.

(84) GOROSTIAGA, Juan, "La Semana Vasca: El sistema y los nombres de los días", E-J, I (1947), (49-54), 49. orr.

Ikus, halaber, egile beronen "Bizkai Zaharreko Izenak", E-G, III (1952), 5-6. zb., 22-25. orr. eta "La semana vasca: origen e historia", La Gran Enciclopedia Vasca, (VII. vol.), Bilbao, 1972, (127-133), 127-128. orr.

(85) GOROSTIAGA, Juan, "Los nombres terminados en URI "VILLA", Gernika (1953), nº 24, (132-133), 132. orr.

Gorostiagak, dena dela, ez du inolako aurkikuntzarik egiten arlo honetan. Urabayenek, esaterako (URABAYEN, Leoncio de, "Notas al gráfico de la extensión en Navarra de los nombres de pueblos terminados en *ain*", RIEV, XVI (1925), (150-152), 150. orr.), Gipuzkoan bost herrik baizik ez zutela *-ain* amaiera, Araban hiruk eta batek ere ez Bizkaian esango zuen. Caro Barojaren ustez (CARO BAROJA, Julio, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Universidad de Sala-

.../...

Gure egunotara etorrita ere bada oraindik uste horretan dirauenik:

“(…) el euskára en realidad comprende dos lenguas de la misma familia, el vizcaino y el resto, ambas con multitud de dialectos. (...)” (86)

Tesi honen aldeko zenbait izen eta ospe haundiko hizkuntzalariak izan diren arren ez dute, hala eta guztiz ere, beren eritzia garaile ateratzea eta eritzi hori hiztunen kontzientzian txertatzea lortu. Gehiengoaren aburuz, aitzitik, gipuzkeratik bizkaierara nabari den *bapateko etena* da, baina euskalki denen batasuna eta jatorri bakarra zalantzatan jarri gabe, bizkaieraren ezaugarririk adierazgarriena. Eten horixe azpimarratuko zuen, esate baterako, Bähr hizkuntzalariak Legazpi eta Oñatiiko hizkerak aztertu ondoren, berorren arrazoia herri biok banatzen dituen orografia menditsuari egotzen ziolarik (87).

Bide beretik zihoan Bouda bera ere:

“(…) Nur das Bizkayische steht so abseits, dass nicht einmal in dem sogenannten Bizkayischen von Guipúzkoa, das im Tal der Deva in und bei Vergara gesprochen wird, eine vermittelnde Stellung zum Guipúzkoanischen wahrgenommen werden kann. (...)” (88)

Grafiko baten bidez adieraziko zuen bizkaieraren apartekotasun hori Lafon hizkuntzalari frantziarrak (89):

“Si l'on tient compte du fait que le biscayen occupe une place à part dans l'ensemble des dialectes basques et que le dialecte “méridional” du XVI^e siècle, aujourd'hui disparu, présentait des affinités avec lui, on

.../...

manca, 1945, 97. orr.), Gipuzkoan eta Arabako ekialdean aurki daitezkeen toponimo hauek nafarrek ekarriak izango lirateke. Caro Barojak berak (*Materiales...*, op. cit., 83-84, 111. eta 205. orr.), *-oz* (*-ús, -ós, -otze*) amaiera daukaten toponimoak Euskal Herriko erdialde eta ekialdean ugariak diren bitartean ia ezezagunak direla Araba eta Bizkaian oharrezaraziko du. Aitzitik, Araba eta Bizkaian eurrez aurkitzen den *-ika* amaiera ez omen dago Ekialdean. (Honetaz ikus orain: AGUD, Manuel, “Areas toponímicas en el País Vasco”, ASJU, VII (1973), 37-55).

Menéndez Pidalék lehen aldiz 1948an argitaratutako “Javier-Chabarrí”, dos dialectos ibéricos lanean (ikus, orain: MENENDEZ PIDAL, Ramón, *Toponimia prerrománica hispana*, Gredos, Madrid, 1952, (235-250), 248-249. orr.), *barrí/berri; uri, uli/iri, ili* erako toponimoen banaketa aztertzen duelañik, dialekto nagusi bi aipatzen ditu: ekialdekoa eta mendealekoa, azken honetan Araba eta Bizkaikoa leudekeelarik.

(86) BASTERRECHEA, José (“Oskillaso”), *El libro negro del euskara*, op. cit., 143. orr.


(87) BÄHR, G., “Flexiones verbales de uso actual en Legazpia (Goyeri)”, *Euskera*, VI (1925), II-III zb., (73-114), 95. orr.

(88) BOUDA, Karl, *Land, Kultur, Sprache und Literatur der Basken*, Erlanger Wissenschaftliche Beiträge. Herausgegeben von Dr. Phil. Hans Leo Gotzfried. *Philologische Reihe* Nr. 5, 1949, 9. orr.

(89) LAFON, René, “La langue basque”, *BMB* (1973), nº 60, (58-120), 107-108. orr.

(Eritzi bera azalduko zuen zurreragoko beste artikuluko baten: “La lengua vasca”, *Enciclopedia Lingüística Hispánica*, (I. vol.); CSIC, Madrid, 1960, (67-97), 70. orr.)

peut figurer les relations entre les huit dialectes (autrefois sans doute neuf) au moyen du schéma ci-dessous, en considérant leur situation géographique et en indiquant leurs affinités par des traits continus:



Aita Villasantek, Oñatiko hizkerak Bergara eta Leintz haranekoekin daukan antz handia azpimarratzeaz batera, honako hauxe baieztatuko du:

“Eta azkenik, sortaldera, eguzkialdera, Legazpiakin eta Zegamakin egiten du muga Oñatik. Emen bai dagoela leize aundia eta alde ikaragarria! Legazpia eta Zegama aldeko euskera giputza da erabat. Oñati eta Legazpia: ain kilometro gutxiko tartea eta euskeran ain alde aundia egotea, siñistu ere ezin ditekén gauza da. Eta aldaketa au ez da egiten poliki poliki, gutxika gutxika, bat batean baizik.

(...) auxe da emen oargarri eta gogoan eukitzekoa: gipuzkoarraren eta bizkaitarraren arteko mugak oso garbi eta zeatz daudela. Oso errez da-la esatea: Emen asten da bata, eta or bukatzen da bestea. Beste dialektuetan mugak ez daude ain garbi; aldaketak ez dira izaten ain aundiak eta bat batekoak. (...)” (90)

Harrez gero gehiagotan ere agertu izan du eritzi bera:

“Hay un caso, con todo, en que los límites de dialecto son claramente discernibles: la frontera entre el B y el G es brusca, neta, repentina. Basta observar, por ejemplo, la diferencia lingüística entre pueblos limítrofes, como Oñate (B) y Legazpia (G), o entre Anzuola (B) y Villarreal de Urrechua (G).

(...)

Pero fuera del caso del B y G, la frontera dialectal no es brusca y neta, no hay solución de continuidad. Es un paso más o menos insensible”. (91)

(90) VILLASANTE, A. L., “Oñatiko Euskera”, Egan, XXVII (1968), (80-94), 84-85. orr.

(91) VILLASANTE, Fr. Luis, *Hacia la Lengua Literaria común*, op. cit., 37. orr.

Baita Candido Izagirrek Oñatiko hizkerari buruz egindako lanaren hitzaurrean ere:

“(…) el paso del vizcaíno al guipuzcoano es neto, repentino y brusco. (...) Dos localidades tan cercanas como Oñate y Legazpia (u Oñate y Cegama), tienen hablas vascas marcadamente diferentes. La de Oñate es considerada como lingüísticamente vizcaína; las de Legazpia y Cegama, como guipuzcoanas. El pueblo de la zona de Oñate acostumbra aun hoy a llamar *kiputzes* (es decir, guipuzcoanos) a los que hablan el vasco guipuzcoano, lo cual revela que es bien sensible para captar la honda diferencia lingüística que existe entre la zona de habla guipuzcoana y la suya. (...)” (92)

Ohar berbera egingo du Joan Mari Torrealdayk:

“La frontera entre el guipuzcoano y el vizcaíno es algo que se halla en la conciencia del vasco-parlante corriente, pues dicha frontera parece avanzar sobre una línea nítida que cabalga desde las crestas de Aizkorri-Udana-Descarga-Irimo hasta el Alto de Azkarate. En efecto, aquí el contraste dialectal es brusco y menos gradual que en otros límites interdialectales. Sin embargo, esto no obsta para que los lingüistas comprueben que hay muchas líneas isoglosas que se desvían a uno u otro lado de esta aparentemente línea general unitaria”. (93)

Baina, antza denez, etena ez da hain erabatekoa leku guztietan. Itsasaldeko mugan, adibidez, ez omen da barrualdekoan bezain bapatekoa eta nabarmena Bähr-ek jakinerazi zigun bezala:

“(…) En la costa hay notables transiciones del dialecto guipuzcoano al vizcaino, sin perjuicio de poder establecerse un límite bien determinado; pero tierra adentro las congruencias van siendo cada vez más escasas, llegando al extremo de que los habitantes de Legazpia (Guipúzcoa) no entienden a sus vecinos de Oñate, que no viven sino a muy pocos kilómetros de ellos en línea directa. (...)” (94)

(92) IZAGUIRRE, P. Fr. Cándido O. F. M., “El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes”, ASJU, IV (1970), 11. orr.

(93) TORREALDAY, Joan Mari, *Euskal Idazleak, gaur...*, op. cit., 144. orr.

(94) BÄHR, G., *Flexiones verbales de uso actual en Legazpia (Goyeñ)*, op. cit., 95-96. orr.

Bähr-en eritzi hori sendotzera dator Yrizarren (YRIZAR, Pedro de, *Contribución...*, op. cit., (II. vol.), 245. orr.) baieztapen hau:

“Presenta extraordinario interés esta “encrucijada lingüística”, constituida por los pueblos de Elgóibar, Motrico y Deva, en la zona limítrofe septentrional de los dos dialectos colindantes más distintos entre sí, el vizcaino y el guipuzcoano, en la que, por la mayor facilidad de comunicación, la interacción entre las hablas locales de ambos dialectos es superior a la existente entre las de los pueblos situados más al sur, en la región más montañosa del interior”.

Gauza bera esan genezake hegoaldeko mugaz. Baldin eta gaurregun dauzkagun aztarnak kontutan hartzen baditugu, badirudi aspaldidanik erabat galdurik dagoen hegoaldeko euskalkia ekialde eta mendebaleko hizkeren arteko "zubi" izan zitekeela. Honelaxe azaltzen zuen hipotesi hau Mitxelena:

"En casi todas las exposiciones que se han hecho en los últimos 100 ó 200 años sobre límites dialectales vascos se ha hecho caso omiso (...) de la mayor parte del territorio alavés: las excepciones están constituidas por Aramayona, Villarreal más Urbina, etc., Cigoitia, Barambio, Llodio, puntos o zonas siempre marginales en la proximidad de Vizcaya. Valga lo que valiere el testimonio de Larramendi sobre "lo que sucede en Alaba, que participa de todos ellos, más o menos sincopados y variados" (Arte, p. 12), el vocabulario de Landucci (...), los versos de Gamiz, natural de Sabando y vecino de Pamplona, más sobre todo la toponimia, actual e histórica, y los términos residuales, recogido todo ello por don Gerardo López de Guereñu, permiten afirmar que la lengua conservaba algunas diferencias que despiertan la tentación de ponerlas en relación con la frontera antigua entre várdulos orientales (más vascones) y caristios orientales. En todo caso, y sea esto o no así, no parece que se diera al sur el mismo salto brusco que estimamos se da al norte entre guipuzcoano y vizcaíno. Además, y sobre todo, la lengua que refleja el léxico de Landucci era algo que, aunque participara de rasgos occidentales, no podía confundirse en manera alguna con el dialecto vizcaíno. No se puede, pues, descuidar el testimonio de este vasco meridional (alavés, riojano, burgalés) cuyos testimonios, aunque escasos, abarcan casi un milenio". (95)

Eta beheraxeago aditz laguntzaileen adibide konkretua hartuz, berau delarik, hain zuzen, euskalkien arteko ezberdintasunen ezaugarririk adierazgarrietarikoa, zera dio:

"Aún en ese dominio limitado, sin embargo, las cosas ya no son tan chocantes si se alinean todas las formas, de oeste a este. Así, si se compara la serie *deust / dit / deraut* (de donde *draut, daut, dereit, deit*) "me lo ha", salta a la vista que el auxiliar a.-nav.-guipuzcoano (que, en formas con recipiente de 3ª pers., tipo *dio, diot*, se atestigua poco o mucho en todo el país) no está formalmente más alejado del vizcaíno que de su vecino oriental. De modo parecido, al oponer el potencial vizc. *dai(ke)* (y lo que se dice del potencial suele valer también para el subjuntivo y el imperativo) al central *dezake*, como si se tratara de un contraste insuperable, se olvidan por lo menos tres cosas. La primera es que hay todavía un oriental *diro* (¡sólo potencial!), ya en Dechepare

(95) MICHELENA, Luis, "Lengua común y dialectos vascos", ASJU, XV (1981), (291-313), 299. orr.

(ordi diro “ puede embriagarle”), tan diferente de *dai(ke)* como de *dezake*. La segunda, que el auxiliar *-eza* fue corriente en áreas vizcainas en tiempos nada alejados. Cf. RS 429: *Ydiac eta veyac yl ezauz ta loben baten biriac yndauz* “Mata bueyes y vacas y dadme vn cornado de liuianos”, con *ezauz* de *ezazuz*, como *yndauz* de *indazuz*, por disimilación. Y, por último, que *-(g)i* por *-eza* también se ha conocido y se conoce en una extensa zona guipuzcoana. Todo se reduce a elecciones diversas, variables a lo largo del tiempo, de elementos de un fondo común”. (96)

2.2.2.2. BIZKAIERA, BAZTER EUSKALKIA

Baldin eta euskara historian barrena eta osotasun guztian, dauzkan euskalki denekin alegia, hartzen badugu, badirudi bizkaieraren apartekotasun eta nortasun bereziaren arrazoirik funtsezkoena euskalki honen kokaleku geografikoan datzala. Honetan, bada, bete-betean gatoz bat Tovarren erizpidearekin:

“Conforme a los criterios de la geografía lingüística (...) podemos calificar al vizcaíno de dialecto lateral. Las zonas laterales son por naturaleza conservadoras, pero también están expuestas a la penetración de elementos extraños. (...)” (97)

Jarraian bizkaierak izan ditzakeen berezitasunak ulertzeko hiru giltzak aipatuko ditu Tovarrek:

“(...) El vizcaíno seguramente que se ha diferenciado de los otros dialectos mucho, pero todas sus notas diferenciales se pueden reducir a estas tres: arcaísmos que en el resto del dominio vasco se han perdido, innovaciones distintas de las conservaciones o innovaciones de los otros dialectos, elecciones de formas y palabras donde la lengua tenía equivalentes o sinónimos. (...)” (98)

Erizpide honen arabera, bizkaieraren apartekotasuna azpimarratzeko aldarrikatu izan diren ezaugarri banaka batzuk aztertuko ditugu ondorengo lerroetan.

(96) *Ibidem*, 303. orr.

(97) TOVAR, Antonio, *El euskera y sus parientes*, Minotauro, Madrid, 1959, 171. orr. Liburu honetan kapitulu oso bat eskaintzen zaio (“El vizcaíno entre los dialectos vascos”, 146-176. orr.) bizkaierak gainontzeko euskalkiekin dauzkan harremanei. Tovarrek ez du onartzen bizkaiera jatorri ezberdineko hizkuntza delakoaren tesia eta bai bazter euskalkia delakoarena.

(98) *Ibidem*, 173. orr.

Mitxelena ere, Tovarren liburu honetaz egiten duen iruzkinean (MICHELENA, Luis, “A. TOVAR. El euskera y sus parientes”, BRSVAP, XV (1959), (77-79), 79. orr.), ados agertzen da erizpide honekin:

“En el último capítulo se aborda una importante cuestión dialectológica: ¿es el vizcaíno, el dialecto más occidental, un simple dialecto como los otros o bien una varie-

.../...

BIZKAJERA ETA GAINONTZEKO EUSKALKIEN ARTEKO KIDETASUNAK

Badira, alde batetik, bizkaitartzat jotzen diren baina bizkaieraren mugak gainditzen dituzten ezaugarri zenbait. Mitxelenak eskaintzen digu horietako batzuren zereñdatxo bat:

“(…) por no presentar más que alguna muestra que otra, el tipo de nominativo sing. ejemplificado por *arrebea*, de *arreba* + *a*, y sus prolongaciones (*arrebearen*, *arrebeari*, etc.); el empleo modal del auxiliar *egin* en lugar de *-eza*, en imperativos como *eman eizu*, *emaizu*, en vez de *eman ezazu* (*emantzazu*), etc.; el uso transitivo de *erten* (vizc. *urten dau*); el mismo lexema *erten*, *irten*, *urten* que, al menos con el valor de “salir”, es exclusivamente occidental y llega hasta San Sebastián y, si no me equivoco, Pasajes de San Juan. Por otra parte, el oriental *-kin* “con” penetra ampliamente en territorio dialectal y administrativamente vizcaíno”. (99)

/s/ - /s̺/ eta /c/ - /c̺/ fonemen neutralizazioa.- Itxura guztien araberara, */s/ eta /s̺/ alde batetik eta, bestetik, /c/ eta /c̺/ fonemen nahasketak Bizkaian dauka bere jatorria. Era honetara azalduko zuen Aita Uriartek, 1861eko uztailaren 22an Bonaparte Printzeari eginiko gutunean, bere garaian bizi zen egoera:*

“En cuanto a la pronunciación de la *z* como *s*, de la *ts* como de la *tz* en Marquina e inmediaciones aún la gente del pueblo las distingue perfectamente. Distinguen *zu* = tú de *su* = fuego. *Atza* = dedo de *atsa* = edor. Pero en los otros subdialectos no se distinguen (...)”. (100)

Mitxelenak, ordea, neutralizazio hau bizkaieran guztiz antzinakoa dela esateaz gainera, gaurregun gipuzkeran ere aski hedaturik dagoela azpimarratuko du:

.../...

dad muy divergente que sólo largos siglos de convivencia han acercado al tipo oriental? Tovar, creo que con plena razón, se decide por la primera alternativa. Desde el punto de vista fonético, el vizcaíno se aparta menos de los dialectos centrales que el roncalés y el suletino en el extremo opuesto. Morfológicamente, y es en la morfología donde el vizcaíno muestra una personalidad más acusada, nada hay tampoco que no pueda explicarse dentro de la hipótesis de un origen común. Todos los hechos diferenciales consisten en arcaísmos conservados, en innovaciones aceptadas o en elección allí donde la antigua lengua vacilaba, según la clasificación de Rodríguez Adrados”.

Behin eta berriz jardun du Mitxelenak bizkaieraren auzi honetaz. Hauexek lirateke lanik aipagarrienak:

- “Guipuzcoano y vasco”, BRSVAP, XVI (1960), Cuaderno 2º, 236-238. orr.

- Sobre el pasado de la lengua vasca, op. cit. liburuaren bigarren kapituluari: “La interpretación de las diferencias dialectales”, 45-67. orr.

- Lengua común y dialectos vascos, op. cit.

(99) MICHELENA, Luis, Lengua común y dialectos vascos, op. cit., 299. orr.

(100) RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”, BRSVAP, XIII (1957), Cuaderno 3º, (330-348), 334. orr.

“(…) la fusión de *z* y *s* (...) se manifiesta a mediados del siglo XVII en el confín occidental del dominio vasco, en un autor bilbaíno; se había consumado en Durango, pero no en Marquina, en la segunda mitad del XVIII y sigue propagándose hoy en día por Guipúzcoa, extendiéndose desde las poblaciones importantes a las pequeñas y desde el casco urbano a la población dispersa de los caseríos. El resultado de la fusión es una *s* apical, con africada predorsal”. (101)

a + a > ea.– Bonapartek 1881ean oharteraziko zuenez (102), Burundako euskararen ere gertatzen omen zen bizkaieraren ezaugarritzat eman ohi den *a + a > ea* (> *ia* Burundan) disimilazioa: *arimia* “el alma” ≠ *arima* “alma” (103).

Erizkizundi Irukoitzean, eta gipuzkeraren eremuari dagokionez, Goierriko eskualdean eta Legazpi, Brinkola, Itziar, Deba, Mutriku, Mendaro eta Altzola herrietan agertzen da *a + a > ea* (> *ia*) aldaketa hau (104). Nafarroan, aldiz, Burundako Urdiain, Olazti, Bakaiku eta Iturmendi herrietan (105).

Mitxelenak urrunago ere aurkituko ditu ezaugarri honen aztarnak:

“De la terminación de Rent. *azkure* “comezón”, *minbere* “dolorido” podría inferirse que el fenómeno tuviera mayor extensión en época antigua, ya que esos temas (com. *azkura*, *minbera*) parecen sacados de los noms. *azkurea*, *minbera*, hoy en Rent. *azkuria*, *minberia*. En la misma localidad, los participios como *alxa* “levantado” y *bota* “arrojado” tienen el nom. sing. *alxia*, *botia*: cf. a.-nav. Baztán, lab. *ateraia* “lo sacado” y *daia*, *dea* “¿es?” de *da* más la partícula interrogativa *-a*. También se podría pensar en una epéntesis de *j* para mantener una distinción funcionalmente importante”. (106)

(101) MICHELENA, Luis, “Lat. S: el testimonio vasco”, *Lengua e historia*, Paraninfo, Madrid, 1985, (282-295), 283-284. orr.

Euskaltzaindiak bultzatutako Erizkizundi Irukoitzean (“Gipuzkoa’k Erizkizundiari erantzun diona”, *Euskera*, VII (1926), III-IV. zb., (46-58), 52. orr.) garai hartan fonema hauek nahasten ziren Gipuzkoako herrien zerranda aurki daiteke.

(102) BONAPARTE, Luis Luciano, *Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del valle de la Burunda*, op. cit., 151. orr.

(103) Disimilazio hau, bizkaieraz bederen, *-a* batez amaitutako hitzak *a* mugatzailearekin elkar-tzerakoan gertatzen da, deklinabide singularrean beraz, leku-denborazko kasuetan, partitiboan eta prolatiboan izan ezik.

(104) Gipuzkoa’k Erizkizundiari erantzun diona, op. cit., 46. orr.

(105) “Nafarroa’k Erizkizundiari erantzun diona”, *Euskera*, VIII (1927), III-IV. zb., (164-178), 164. orr.

(106) MICHELENA, Luis, F H V., op. cit., 115. orr. Gorago (ibidem, 114. orr.) desagertutako hegoaldeko euskalkian ere betetzen zela disimilazio hau gogora ekartzen du.

Errenteriako hizkerari buruzko lan baten (MICHELENA, Luis, “En torno a algunos aspectos del habla de Rentería (Guipúzcoa)”, *BRSVAP*, VI (1950), Cuaderno 1º, (89-94), 92-93. orr.) luzeago mintzo zaigu ezaugarri honetaz:

.../...

“-gi-” aditz erroa.- Bizkaicraren ezaugarriak nabarmenentzarikotzat aipatu izan den -gi- erroaz zera zioen Bonaparte Printzeak:

“Quoique le guipuscoan emploie généralement les terminatifs avec *za* pour exprimer le subjonctif et les autres modes du même type, ceux avec *gi* n’y sont pas toutefois inusités, surtout dans la variété d’Azpeitia. Dans le sous-dialecte méridional de Cegama, on ne se sert même que de ces derniers aux modes potentiels, et lorsque le régime indirect entre dans le terminatif, il en est de même du subjonctif et de l’impératif: *deyen, deizun, deyon, deigun, deizuen, deyen (...)* *eizu, yozu, iguzu, yezu (...)* *daike; daizke; naike; gaizke; aike; zaizke; zaizkee (...)* *daiket; daikezu; deyoke; deyezke (...)*”. (107)

Zehatzago izango zen Bähr hizkuntzalaria:

“(…) Se viene repitiendo desde mucho tiempo que el núcleo del subjuntivo transitivo es en vizcaino -gi- y en los demás dialectos -za-, lo cual no es del todo exacto, puesto que -gi- pertenece también a no po-

.../...

“(…) Se suele hablar en general de la disimilación de -aa en -ea como de un fenómeno específicamente vizcaíno. Sin entrar en casos como *de(ia)*, producidos por la agregación del suf. interrogativo -a, cuyas circunstancias no conozco debidamente, en R. -y no ignoro que no es, ni mucho menos, un fenómeno exclusivo de esa localidad- se forman en -ia, -iak (*ateria, botia, laja, pasiak, tiriak*) los nominativos sing. y pl. de los participios en -a (*ate(r)a, bola, laja, pasa, ti(r)a*), lo que supone -ea, -eak anteriores. Este hecho no está limitado, además, a los participios: el nominativo indefinido de “comezón” es hoy *azkure* y el de “dolorido” *mimbere*, a pesar de tratarse indiscutiblemente de temas en -a (en L. de Isasti leemos *beraago*). ¿No podría esto aclarar -sin hablar de casos más dudosos como *erre, bet(h)e*, etc.- la forma anómala de *gorde*? Si el vizc. formó para el sing. *lore*a un indefinido *lora* según el modelo de *alabea, alaba* es explicable que, por el mismo camino recorrido en sentido contrario, se haya llegado a *gorde* partiendo de *gordea* con arreglo a la declinación de temas en -e como *semea, seme*”.

Lafittek ere (LAFITTE, Pierre, *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*, Elkar, Donostia, 1979, 118. orr.) diogunarekin lotuta dauden adibide zenbait aurkitzen ditu ekialderagoko hizkeretan:

“(…) Exceptionnellement, chez quelques auteurs, *gora*, “haut”, et *alegera*, “joyeux”, allongent le *a* final en *ai* au singulier et au pluriel et se déclinent sur *gain*.

Ex.: *gure mendi goraietan*, “sur nos hautes montagnes”; *jitea biziki alegeraia omen du*, “il a, paraît-il, un caractère très gai; *gure mendi goretan* et *jitea alegera du* sont corrects”.

Eta beherago (ibidem, 224. orr.):

“Les participes en -a (...) se déclinent comme *buru* à l’indéfini.

Ex.: *atheraz*, en sortant.

Mais, au singulier et au pluriel, le thème se diphongue en *ai* et se décline sur *gain*.

Ex.: *gure etchetik atheraiek ez dute holako seinalerik*, ceux qui sont sortis de chez nous n’ont pas de pareilles marques; *ontsa gostaia zaiku*, cela nous a coûté cher; *nun botaiaik dituzte*, où les ont-ils jetés? (...)”.

(107) BONAPARTE, Louis-Lucien, *Le verbe basque en tableaux...*, op. cit., XXVI. orr.

cas variedades del guipuzcoano, y parece coexistir con *-za-* en algunas otras. *-Gi-* exclusivamente se usa en Azcoitia, Azpeitia, Cegama, Legazpia, Segura; en Ormaiztegui y Villafranca se oyen juntas *dezaket* y *daiket*, y no es sino más allá de Villafranca donde *dezaket* se usa exclusivamente. (...)” (108)

Antzerako emaitzetara iritsiko zen Azkue giputz aditza aztertu ondoren:

“(…) Muchas de sus flexiones *-agintekerako ZER-NORI-NORK* erako laguntzailceez ari zaigu- no las usa ya el pueblo, y en muchísimas otras se vale, casi en todas partes, del núcleo del auxiliar bizkaino *egin*, habiendo desaparecido el de su propio auxiliar *ezan*. Por «dámelo tú, varón y hembra» sólo en Oyarzun y Amezketa me dieron *eman zadak* y *eman zadan*. En todos los demás pueblos por mí consultados recogí, con ligeras variantes, *emaidak* y *emaidan* y sus negativas *ezeidak eman* y *ezeidan eman*.

Y aun en el mismo Oyarzun las flexiones correspondientes a «dánoslo» y «dáselo a ellos» no son, por lo menos en labios de mis colaboradores, no son *eman zaguk* y *eman zaek* sino *emaiguk* y *emaiek*.

En cambio en las flexiones meramente objetivas (...), se conserva íntegro el núcleo *za* fuera de Azcoitia y Legazpia. «Beba yo» es *edan dezadan* y siguen las demás personas *edan zak*, *zan*, *beza* y *dezala*; *edan dezagun*, *zazu*, *zazue* y *bezate* o *dezatela*. (...)

[Por lo que corresponde] a flexiones objetivas de subjuntivo del auxiliar transitivo, sepa el lector que sucede en este modo, respecto del uso del núcleo verbal, lo que en las flexiones del modo precedente, de imperativo; es decir, que en las flexiones meramente objetivas vive el auxiliar *ezan* y en las flexiones de recipiente ha sido generalísimamente sustituido por el auxiliar *egin* del dialecto bizkaino”. (109)

Eta beheraxeago:

“(…) en las flexiones receptivas de subjuntivo (...), el auxiliar bizkaino *egin* ha usurpado el puesto de *ezan*. Sólo en Astigarraga y Oyarzun vive el núcleo *za*. En los demás al efecto consultados, se oyen ejemplos como *eman daiodala* o *deiiodala* «que yo se lo dé», *eman daiozula* o *deiozula* «que vos se lo deis»...etc.” (110)

(108) BÄHR, G., Flexiones verbales de uso actual en Legazpia. (Goyerí), op. cit., 112-113. orr.

(109) AZKUE, Resurrección M^a de, “Primer apéndice de la Morfología Vasca. Conjugación del Verbo Guipuzcoano”, Euskera, XIV (1933), III. zb., (197-223), 216-217. orr.

(110) Ibidem, 219-220. orr.

Etxaidek (ETXAIDE-ITHARTE, Yon, “(e)za” aditz-erroa datiboko aditz-jokoetan autoretan zehar”, Euskera, XXIX (1984-2), (601-730), 622. orr.) zuzenketa batzuk egingo dizkie Azkueren emaitza hauci:

.../...

Partizipioetako “-atu” > “-au”.- Larramendik bere Hiztegiaren hitzau-
rrean oharterazten zigunez, Bizkaian zeukan iturburua *-atu* > *-adu* aldaketak:

“(…) También por lo común acaban en *du* los infinitivos, que en otros Dialectos son en *tu*, v. gr. *amadu*, *comutadu*, pero en otros muchos no guardan consecuencia, como *urtu*, *artu*, *otzitu*, *sartu*, & c. y es también alguna confusión. (...)” (111)

Harrez gero aurrera egin da bilakabide honetan *-atu* > *-adu* > *-au* eta, Bizkaiko zenbait hizkeratan –itsasaldekoetan batez ere– > *-a* (*komunika*, *kobra*...). (112)

Aldaketa hau, gaurregun, gipuzkerara ere hedaturik daukagu, bertan, gainera, bizkaieraz entzuten ez diren aditzetara ere zabaldu delarik: *eskau*, *parkau*...

Konpletiboetako “-na”.– Bizkaieraren ezaugarritzat eman izan da perpau-
sa konpletiboetan *-(e)la* eta *-(e)nik* atzizkiekin batera *-(e)na* ere erabiltzea. Azkuek, ostera, bizkaieraz ezezik erronkarieraz ere ezaguna zela zioen: “Artaz ekustan dud antzintan diona uskarazko lan andi damanean” (R-bid.) (113)

.../...

“Astigarraga eta Oiartzun’ez gaiñera besteok gaiñeratuko nituzke: Amezketá (aipatua), Abalzizketa, Orendain, Alizo, Lizartza, Gaztelu, Orella, Leaburu, Ibarra, Belauntza, Berrobi, Elduañen, Berastegi, Umieta, Emani, Errenteria, Lezo, Pasaia, Irun eta Ondarrabia. Uste dut Naparro-mugaldeko herriotan gehiago edo gutxiago (baiñan gero ta gutxiago) oraindik zenbait kasutan kontserbatzen dutela “-za-” aditzerroa. Hontaz gaiñera esango nuke aginkorreko forma batzuek (za(i)dazu/za(i)dak, zaiozu/ zaiok, zaizkidazu/zaizkidak, zaizkiozu/zaizkiok...), naiz-ta galurrean, Oria’ko ibarluzera guzian erabiltzen direla oraindik Alegi’tik Orio’raño eta erabiltzen ez tuenari ere oso ezagun eta etxeko egiten zaizkio. Baiñan, Azkue’k dion bezala, aztarrenak besterik ez tira gelditzen. Beraz, bildurrik gabe esan ditek gaur Gipuzkoa’n erabiltzen diren datiboko aditzerroak “egin”etik atereak direla”.

Etxaidek, lan interesgarri honetan, giputz idazle mordoxka bat aztertzen du, euren izkribuetan *-gi/-za-* erroen erabilera neurtzen duelarik. Guztien berri zehatza ematea luzeegi egingo litzaiqukeenez Etxaidek berak ondorio legez dioena aldatuko dugu (ibidem, 601. orr.):

“(…) Gipuzkoan ere ia galdurik dago datibotan [“-(e)za-” aditz erroaz mintzo zaigu], bere ordeaz, Bizkaiko “egi” aditz-erroa sartu delarik, dirudienaz “egin” aditzetik hartuta. Hau dela-eta, Gipuzkoako autoretan bi aditz-erroak bildu ditugu, *-eza-* eta *-egi-* alegia, elkarren arteko borroka nabari dadin. Irakurleak konproba dezakeenez, borroka honetan, nahiz eta beti atze-raka, inperatiboan eutsi zaio sendoenik *-eza-* aditz-erroari. Agirre Asteasuok, esate bate-rako, aginkorrean (inperatiboan) bakarrik darabil, eta ez beti”.

Etxaideren emaitza hauek baieztatzen dira beste bi lan hauetan: OREGI, J., “Otxoa –Arinen «Doctrina»– (1713)”, FLV, IV (1972), nº 12, 353-369. orr. eta LAKARRA, Joseba Andoni, “Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko Semoia (1737)”, ASJU, XIX-1 (1985), (237-281), 256. orr.

(111) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., XXVIII. orr.

(112) Badirudi mailegu hartu berriagoetan gertatzen dela aldaketa hau, eta horrela, *asmau*, *amatau*, *armoza...* ditugu, *parkatu*, *eskatu...* mailegu zaharragoen eta euskal jatorrizkoen ondian. *Barrizlau*, *izentau...* gisakoetan, berriaz, aurreko silabako *-i-* horren eraginez uler liteke, beharbada, bigarrenaren galera.

(113) AZKUE, Resurrección M^a de, *Diccionario...*, op. cit., -NA sareran.

Txillardegik Orixeri esango zionez, bestalde, Gipuzkoako zenbait hizkeratan ere erabiltzen omen da:

“(…) Bizkaian ez-ezik, Gipuzkoa geiengan ere Altube’k azaltzen duen bezela erabiltzen dira: biak, eta ondo bereziki (Goierni guzian, eta kostaldean Orio’tik aruntz, gutxienez). Nafarroan, Oria’ko aranean, eta arandiko euskaldun errietan ez: badakit”. (114)

Berdin mintzatuko da Aldapeko:

“Kamifazpi jaunaren iritzi sendogarri esan dezadan, Gipuzkoa’n, Zumarraga - Ernio - Zarautz lerroraifio beflepein (Bizkai aldetik begiratuaz, noski) maiz erabilli oi dela -*na* aditz-atzizkia -*la*, orde. Oartu ahal izan naizenez, esaldi nagusiko aditza baiezkorra denean erabilli oi da eskuarki eta batez ere aditz ori JAKIN sintetikoa denean, adigarri onetan bezalaxe”. (115)

ZENBAT ETA ANTZINAGO EUSKALKIAK HURBILAGO

Euskalkiak mendez mende egungo egoerara hurbildu ahala, elkarrengandik gero eta urrunago, gero eta zatikatuago eta banatuago ageri zaizkigu eta honetan, jakina, badute zerikusirik gorago aipatu diren hizkuntzaz kanpoko indarrek. Mitxelena, XVI. eta XVII. mendeetako bizkaieraz ari dela honako hauxe baieztatuko du:

“(…) aquél estaba más cercano al guipuzcoano y a los demás dialectos que su continuador en el día de hoy. Para limitarnos al verbo, el radical -*eza* no había sido enteramente eliminado por -*gi* (...) son normales *guiñean* “éramos”, *ditu(z)* “los ha”, *ciutala* “que los había”, *ciutelaco* “porque los habían”, *gaitu(z)* “nos ha”, sin que aparezcan *gintzazan*, *dauz*, *ebazan*, *gauz*, etc., que tienen todo el aspecto de ser innovaciones recientes. (...)” (116)

Argibide berriak emango ditu Lengua común y dialectos vascos lanean:

“(…) Ni en el siglo XVI ni en el XVII (ni tampoco, creo, en el XVIII) se atestigua el vizc. *gintzazan* “somos”, sino tan sólo *ginean* o variantes, de acuerdo con *ginan*, *ginen* de los demás dialectos; no se halla *dauz* “los ha”, sino *ditu* o, a lo sumo, más tarde, *dituz*; ni *ebazan* “los había” (aunque sí, sin variación, *eban* “lo había”, frente a *zuen*, etc., de zonas más orientales), sino *zituzan*; *eustan* “me lo había” y otras formas con índice cero de 3ª pers. no son, en contra de lo que parecen

(114) TXILLARDEGI, “Gogaide ez, baiña bai adiskide”, *Jakin* (1961), 14. zb., (52-54), 53. orr.

(115) ALDAPEKO, “Idazki agiri bati erantzunaz”, *Jakin* (1961), 15. zb., (16-26), 16-17. orr.

(116) MICHELENA, Luis, Sobre el pasado de la lengua vasca, op. cit., 64. orr.

suponer muchos autores, las únicas que existen en vizcaíno (aunque sí son las de atestación más antigua), puesto que los continuadores de *zeustan*, etc., con *z-*, se emplean en amplias zonas vizcaínas de Eibar a Bermeo. Cuesta olvidar que desde los primeros textos se documentan formas de pretérito de esa clase, como *zidin* o *zizan*. El mito schuchardtiano del carácter original de la falta de prefijo (unida a la extraña idea de que *egoan* “estaba” era de alguna manera no explicada “lo mismo” que *egon* “estar, estado”) puede tener fundamentos glotogónicos (“cero” tiene que ser anterior a “algo”), pero carece de razones textuales en su abono”. (117)

Bizkaieran, bazter euskalkia den heinean, bi joera ezberdin, eta ikusi batera kontrajarri, ageri dira: alde batetik zenbait berrikuntza ezagutu ditu gainontzeko euskalkietatik saihestuz eta, bestetik, gainontzeko euskalkietan galdutzat jotzen diren zenbait ezaugarri eutsi egin dio, horren ondorioz, inoiz, bizkaieraren eta urruneko beste euskalkien edota bateko eta besteetako hizkeren artean ustegabeko kidetasunak suertatzen direlarik.

A) BIZKAIERAK ATXIKI DITUEN EZAUGARRIAK

Lafon dugu, oker ez bagaude, euskara bi multzotan banatzeari aurre egingo dion lehena. Lehen aldiz 1944an argitaratutako *Le système du verbe basque* liburuan, bizkaierak zubererarekin dauzkan kidetasunak hartzen ditu horretarako oinarritzat, bazter euskalkiek, maiz jazotzen denez, erdialdckoetan galdu edo aldatu izan diren ezaugarriak gorde egiten dituztela frogatuz:

“M. Lacombe est d’avis que les dialectes basques peuvent être divisés en deux grands groupes, le biscayen d’une part, et de l’autre tous les autres dialectes. Cette opinion, qui paraît fondée dans l’ensemble, nous semble devoir être nuancée de quelques réserves. Et les concordances curieuses qui existent entre le biscayen et le souletin réservent des surprises. (...)” (118)

XVI. mendean bizkaieraz idatzitako izkribuak aztertu ondoren zera baieztatuko du:

“(…) Le système verbal du biscayen y apparaît, dans ses grandes lignes et son esprit, identique à celui de Dechepare et de Liçarrague: concordance rassurante touchant la stabilité des conclusions”. (119)

(117) MICHELENA, Luis, *Lengua común y dialectos vascos*, op. cit., 300-301. orr.

(118) LAFON, René, *Le système du verbe basque au XVI^e siècle* (I. vol.), Elkar, Donostia, 1980, 13. orr.

(119) *Ibidem*, 72. orr.

“(…) une étude de structure et de système, portant sur des textes basques-français et sur des textes biscayens, a chance, si elle est bien menée, d’aboutir à des résultats valables pour l’ensemble du domaine basque”. (120)

Eta beherago:

“(…) le biscayen commun a *zituzan* «ils étaient eus par lui» (guip. et lab. *zituen*). Dans Garibay et les Refranes, la 3^e pers. du prétérit de *za-* transitif est *ciçan* (liç. *ceçan*). Sans doute le biscayen emploie régulièrement *gi-* au lieu de *za-* (...); mais l’*i* de *ciçan*, qui rappelle celui de bisc. *cidin* en regard de liç. *cedin*, permet de penser que l’usage de *za-* n’a pas été complètement inconnu du biscayen. L’opposition entre le biscayen et les autres dialectes basques n’est probablement pas, ou n’a pas toujours été, aussi tranchée qu’on l’a dit parfois (...)”. (121)

Bouda ere jabetuko zen bizkaiera eta zubereraren arteko kideasunez:

“(…) Das Bizkayische ist noch aus einem anderen Grunde bemerkenswert, denn es sind mir da zahlreiche Übereinstimmungen mit dem Souletinischen gegen das übrige Baskisch aufgefallen, die niemand bisher bemerkt zu haben scheint. Darüber zu handeln ist hier nicht der Ort, wohl aber ergibt sich aus dem Zusammengehen der westlichen und östlichen Mundart, dass sie einmal in engerer Nachbarschaft gestanden haben müssen und ihre Sprecher, wohl ein Volksstamm, dadurch auseinandergedrängt worden sind, dass sich andere baskische Volksgruppen dazwischengeschoben haben”. (122)

Juan Mateo Zavala dugu, dena dela, bizkaieran gal zorian zeuden zenbait aztarnek beste euskalkietakoekin zituzten harremanak argi eta esplizituki adierazten lehena.

Aditz-izenetako “-iten” amaiera

“(…) en muchos pueblos del centro –Bizkaiko erdialdeaz dihardu– afiaden á algunos participios acabados en *n* una *i* inmediatamente antes del *ten*, y en el lugar de dicha *n* suprimida: v. g. *izan* iza’-*i-ten*, *emon*, *emo’-i-ten* ó *ema-i-ten*. Axular usa mucho de esta adición en su Guerocho guero, como también el catecismo de Zuberoa”. (123)

(120) Ibidem, 73. orr.

(121) Ibidem, 386-387. orr.

(122) BOUDA, Karl, Land, kultur, Sprache und Literatur der Basken, op. cit., 9. orr.

(123) ZAVALA, Fr. Juan Mateo de, El verbo regular vascongado..., op. cit., 13. orr.

Honela arrazoitzen du Oñaechevarriak (OMAEHEVARRIA, Fr. Ignacio, “El vascuence de Fray Juan de Zumárraga”, BRSVAP, IV (1948), Cuaderno 3^o, (293-314), 313. orr.) aditz-izen hauen jatorria:

.../...

Azkuek erakutsiko zuenez (124), XVI. eta XVII. mendeetako Bizkaiko izkribuetan eurrez ageri dira era honetako aditz-izenak (*emaiten, igaraiten, urtaiten, yzaytea...*). Bidegainek eta Mitxelenak oharterazten dutenez, bestalde, antzerako aditz-izenak sortzen ziren *-o* batez amaitutako partizipioetarik:

“(…) debe quedar sentado de manera definitiva que, al menos en ant. vizc., los participios en *-o* forman el sustantivo verbal en *-aiten* de una manera normal: Landuchio *jo* “herir” / *jaytecoa* “majadero de majas”, Capanaga *ydoro* / *idaraiten, igaro* / *igaraiten*. Refr. y Sent. *idoro* / *edaraytê*, etc.” (125)

Erizkizundi Irukoitzaren emaitzen arabera (126), *emoite, emoitien* aditz-izenak Orozko, Arrankudiaga, Zigoitian... ziren erabiliak baina, antza denez, beste hizkera batzutan ere ba omen da honen aztarnarik:

“(…) En el habla de R[entería], en la que son completamente desconocidas formas como *izaite, emoite*, se conserva, sin embargo, un resto de un elemento semejante. He recogido cinco ejemplos de una variante *-yera* del suf. cuya forma normal es *-(k)era*, derivados precisamente de temas verbales con participio en *-n*: *e(g)oyera* “estado, situación”, *esayera* “dicho”, *izayera* “modo de ser”, *jarduyera* “trato” y *juayera* “ida”. No incluyo naturalmente entre estos casos a *asiyera* “comienzo” cuya *-y* es secundaria y regular dentro de la fonética local (cf. *biziyena* “el más vivo”). Recuerdo que para Micoleta “subida” es *ygayerea*”. (127)

“Eskatu” aditza

“También me inclino á que el verbo *escatu* pedir debiera conjugarse por la mista como en este ejemplo del Esculiburu 154 «*escatuten natzatzu yo os lo pido á vos*», porque así se lo tengo oído conjugar á

.../...

“(…) en Orozco se dice *emoille*=dador, *emoitza*=dádiva, que suponen *emoiten*. Es una formación que se emplea con algunos verbos terminados en *-n* y que parece deberse a influencia analógica de *egin*, terminado también en *-n*. De *egiten, egille*, la *i* se extiende a *emaile, erraiten*, que normalmente serían *emale, erraten* (como *esaten, esale*), y luego también a verbos no activos, como *urten-urteiten*, y, lo que es más extraño, a *izan-izaiten*. En textos antiguos, tenemos, por ejemplo, en los Refranes (Refr. 89) *eraiten* de *eran*=matar; «Otsailgo euriak *eraiten* dituz ontzoeriak». Con *eraiten* resulta fácil comprender «biçi *izaiteco*» de nuestro texto. En Orozco se dice todavía *izaite*=manera de ser”.

- (124) AZKUE, Resurrección M^o de, “Evolución de la lengua vasca”, Euskera, XVI (1935), I-II. zb., (61-120), 74. orr.
- (125) BIDEGAIN, M^o Milagros; MICHELENA, Luis, “Las escrituras apócrifas de Andramendi”, ASJU, I (1954), (5-24), 22. orr.
- (126) “Erizkizundi irukoitzari Bizkaiak erantzun diona (yañaipena)”, Euskera, VII (1926), I. zb., (38-56), 54. orr.
- (127) MICHELENA, Luis, En torno a algunos aspectos del habla de Rentería (Gulpúzcoa), op. cit., 91. orr.

muchos vascongados netos de nuestro dialecto -bizkaiera, jakina-, y asi se lee en los libros de los labortanos. (Meditacioneac pag. 274, 300)". (128)

Aoristoak

"El pretérito remoto da la significacion de una accion etc. que ha tiempo que pasó, ó que es completamente pasada, y su formacion es con participio de pretérito y artículos activos *evan, nevan...* y mistos *zan, nintzan...* En muchos pueblos del Señorío le forman comunmente, y en todo él poco ó mucho con los artículos *leguian, cenguian, nenguian...* y mistos *cidin, cendin, nendin...* del pretérito imperfecto de subjuntivo. (...) Este pretérito sirve para espresar todo tiempo muy pasado, ya sea que se considere aisladamente, ó ya que se tome relativamente á otro pretérito menos pasado, ó como esplican los gramáticos de otras lenguas, como pretérito mas pasado ó plusquam-perfecto. Ejemplos (...) «*Yan eguian Sanson-ec eztia. David yausi cidin. Semea bici izan cidin.*» (129)

Eta beherago:

"En Plencia, Guecho y pueblos comarcanos usan como de artículos regulares y ordinarios para el pretérito remoto de indicativo de *leguian, cenguian, nenguian, etc.* (...) que son los regulares del pretérito imperfecto de subjuntivo cifiendo el uso del *evan, cenduan, nevan ó nendun* (...) á la formacion del pretérito imperfecto. El mismo uso del *leguian, nenguian...* hacen en Llodio, Orozco, Barambio, etc., aunque sin escluir el *evan, nevan...* y podemos decir que en todo Vizcaya se practica poco ó mucho esto mismo. Y he aquí la clase de conjugacion que usó Mr. Lizarraga en su traduccion del Nuevo Testamento, y de la que han hecho misterio el P. Larramendi prolog. al Dicc. pag. XXXIV y Mr. Lecluse Man. 3 y 10". (130)

Azkuek era honetako adizkiak, bere garaian, Plentzia inguruetan entzun zitezkeela esango zuen (131).

(128) ZAVALA, Fr. Juan Mateo de, El verbo regular vascongado..., op. cit., 16. orr.

Azkuek (AZKUE, R. M^a de, Evolucion de la lengua vasca, op. cit., 87-88. orr.) *astatu* aditza era honetara jokaturik ageri den adibide zenbait dakartza RS, Capanaga, Micoleta eta Otxandioko eskuizkributik bilduta.

(129) ZAVALA, Fr. Juan Mateo de, El verbo regular vascongado..., op. cit., 18. orr.

(130) *Ibidem*, 56. orr.

Micoletak (MICOLETA, Rafael, Modo breve de aprender la Lengua bizcayna, Sevilla, 1897, 5. orr.) era honetara euskaratzen zituen gaz. "Yo hauia hecho" eta hurrengoak: *nic eguin eguian/suc eguin senguian/ac eguin eguia/guc eguin guenguian/suec eguin senguian/ac eguin eguien.*

Antzerako adibideak eurrez aurki daitezke VJ, Ochoa de Capanaga, RS, Garibeyren atso-tizetan, etab.

(131) AZKUE, Resurrección M^a de, "Morfología Vasca", Euskera, V (1924), 624. orr.

Helburuzko perpausetako "-entzat" amaiera

"(...) las de causa final, que en castellano se espresan con *para*: *para que, á fin de que...*, y estas en vascuence se hacen siempre por subjuntivo con los artículos enteros con su *n* final; y en muchos pueblos del centro del Señorío añadiendo *tzat*, como en el dialecto labortano, lo cual tengo yo por mas esacto (...)" (132)

Atzizki hau bizirik zegoela esango zuen Azkuek Arratia, Orozko eta Txorie-rin nahiz eta "aunque cada día menos" erabiliak zirela eranstean zuen (133).

Subjuntiboko baldintzak.— Gaurregungo bizkaieran ia guztiz galdutzat ematen den baldintza mota honetaz zera zioen Zavalak:

"Acerca del uso de los pretéritos imperfectos condicionados tengo observado alguna variedad, no solo en los diferentes dialectos, sino tambien en el nuestro. Los del centro de Vizcaya los usan mas familiarmente, asi como los labortanos, aunque con menos estension que estos; pero los de las inmediaciones de Guipuzcoa se sirven mas de los futuros condicionados del modo condicional (...) como los de esta provincia". (134)

Iraganetako Ø.— Bonapartek Nafarroa Garaiko hizkeraren batzutan aurkitu zuen -eta berak jatorrizkotat jo zuen- iraganetako Ø ezaugarria Bizkaian ere ezaguna zela dio Zavalak, honek, ordea, bere gogoko izango ez zuen arren:

"Por 3^{er} defecto cuento la supresion de la *n* final de los artículos, practicado en los pueblos de la costa del mar cercanos á Bilbao, v. g. «Yan eguia'» por eguian ó evan, él lo comió: etorri cidi' ó za' por cidin ó zan, se vino: yoan ekio' por ekion ó yacon, se le fué". (135)

(132) ZAVALA, Fr. Juan Mateo de, *El verbo regular vascongado...*, 29. orr.

Jarraian Añibarroengandik hartutako adibide hauek dakartza: "Josi naguizu, *igues eguin ez daguidantzat* pecatu-bidera" (Escul. 87); "Arguitu naguizu, guero ceruan betico *egon nadintzat*" (Escul. 172).

Adibide gehiago, AREJITA, Adolfo, *Euskal Joskera*, Leopoldo Zugaza, Durango, 1978, 312-313. orr.

(133) AZKUE, Resurrección M^a de, "Morfología Vasca", *Euskera*, IV (1923), III. zb., 374. orr.

(134) ZAVALA, Fr. Juan Mateo de, *El verbo regular vascongado...*, op. cit., 30. orr.

Bizkaierazko izkribuetan eurrez aurki daitezke era honetako baldintzak. Micoletak (MI-COLETA, Rafael, *Modo breve...*, op. cit., 6. orr.), esate baterako, joko hau erakusten du: "Si yo hiziera haria y hiziesse...: nic eguin banengui; suc eguin basengui; ac eguin balegui; guc eguin baguengui; suc eguin vasengui; aec eguin valegui".

Ikus ere AÑIBARRO, P. Fr. Pedro Antonio de, *Gramatica bascongada...*, op. cit., 21. orr. eta hurr.

(135) ZAVALA, Fr. Juan Mateo de, *El verbo regular vascongado...*, op. cit., 57. orr.

Era honetako adibideak eurrez aurki daitezke Micoleta edo RS-en.

.../...

Azkuek zioenez, Plentzia ondoko Barrika herrixkan entzun zitezkeen *-n* gabeko adizki hauek (136).

Kontsuetudinarioko “joan” eta “eroan”.— Bizkaieran gisa honetako esaldiak osatzeko baliatu izan den egitura bereziaz mintzo zaigu Zavala:

“Los presentes y pretéritos imperfectos de ambas clases admiten dos formaciones, á la primera de las cuales llamaremos *vizcaina*, porque es propia y peculiar del dialecto del Señorío: y á la segunda comun, por serlo en lo sustancial á todo el vascuence. (...)” (137)

Lehen motakoaz zera esango du:

“(...) es usadísima en Vizcaya con toda clase de verbos, y se hace con el participio de presente ó pretérito, aunque mas comunmente con este en los verbos propios, y con los artículos respectivos de los verbos auxiliares *eroan* en activa, y *joan* en la mista”. (138)

Eta beherago:

“El presente y pretérito imperfectos comunes de estos verbos propios debieran formarse anteponiendo á los de *izan* su participio de presente v. g. *Yakin izaten dot*, yo *suelo saberlo*. *Entzuten izaten nevan*, yo *solia oirlo*. Mas estos dos tensos asi formados no suelen tener lugar en nuestro dialecto, á causa del uso esclusivo que se han abrogado los de formacion particular vizcaina, diciéndose: *Yakin daroat*, *entzun neroian* (...)”. (139)

.../...

Nafarroako hizkeretan eta bizk. zaharrea ez ezik badinudi zubereraz ere horrelako zerbait gertatzen dela, Larrasquetek (LARRASQUET, J., *Le Basque Souletin Nord-Oriental* (I. vol.), Paris, 1934, 87. orr. eta hurr.) dakartzan adizkiotan ikus daitekeenez: *nündid*; *zid*; *gündid*; *zülid*; *nündülid*; *ziid*; *güntüid*... Antza denez (?), hitanozko alokutiboetan baizik ez da suertatzen Ø amaiera hau. (Harischelhar jaunari zor diogu datu honen ezagutza).

Gaurregun bertan ere zenbait bizkaitar hizkeratan bizirik omen diraute era honetako adizkerak, P. Puxanak (PUXANA, Pedro, “Bizkaierazko aditza”, *Zer, Azilla/Zemendia* 1986, 102. zb., (2-16), 14. orr.) berrikitan argitara emandako lekukotasunek —Oleta eta Otxandio aldeko adizkerenak eta hauek ere hitanozko alokutiboena!— erakusten dutenez.

(136) AZKUE, Resurrección M^o de, *Evolución de la lengua vasca*, op. cit., 79. orr.

(137) ZAVALA, Fr. Juan Mateo de, *El verbo regular vascongado...*, op. cit., 22. orr.

(138) *Ibidem*, 23. orr.

(139) *Ibidem*, 24. orr.

Zavala baino lehenagotik ere bazen, hala ere, bizkaieraren berezitasun hau aintzakotzat hartu zuenik. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País elkartearen euskal hiztegi bat eratu ahal izateko arauetan, esate baterako, honako hau irakur daiteke (Ikus: KNÖRR, Enrique, “Some new documents concerning Aizpitarte’s dictionary”, *Iker-I*, Bilbao, 1981, (83-127), 98. orr.):

.../...

Azkuek oharteraziko digunez, baina, egitura hauek askozaz hedatuago bide zeuden antzina Echepare nafarraren edo Oihenart zuberotarraren izkribuetan ageri diren adibideek erakusten dutenez (140).

“-ki-” aditz erroa.- Azkue jabetuko zenez Bizkaiko zenbait hizkeratan (Bakio, Lemoiz, Barrika...) eta Nafarroako beste zenbaitetan (Burunda eta Sakanan) -ki-erroa agertzen omen da NOR-NORI erako aditzetan: *etorri dakit, etorri dakigu...* (orok.: *etorri zait, etorri zaigu...*) (141)

Partizipioetako “-gi” / “-ki” alternantzia.- Bizkaicraren ezaugarritzat jo izan dira *ebagi, erabagi, jagi, edegi, usigi...* gisako partizipioak. Lafonek dioenez, ostera, Leizarragaren izkribuetan ere ba omen da honen aztamarik:

... /...

“Igualmente se anotarán en cada verbo los síncopes y modos abreviados que estuviesen en uso, como v. g. el que se observa en algunas partes de Vizcaya para la correspondencia de esta frase: «suele decirse», en donde, en lugar de la locución regular *esan* o *erran oidute, oidube, oidabe* (según las terminaciones de los diferentes dialectos), se expresan de este modo: *esandaroe*”.

Moguelek ere jardungo du honetaz bere Peru Abarca-ren hitzaurreko 42. atalean eta berdin Añibarro bere Gramatikari (AÑIBARRO, P. Fr. Pedro Antonio de, “Gramatica bascongada para el uso, y alivio de Párrocos y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos, y Navarros”, ASJU, III (1969), 77-78. orr.

- (140) AZKUE, Resurrección M^a de, Diccionario..., op. cit. Berton JOAN sarreran Echeparengandik jasotako adibide bat dakar (“Bihotza doat ebaki”) eta Oihenartengandik jasotako atsoitz bi (466. “Urhe gakhoaz athe guziak ireki doaz” eta 511. “Bethegiz zorroa leheru doa”).

Guk, geure aldetik, beste bi hauek aurkitu ditugu: 332. “Nesca harzen ari dena saldu doa, galdazen ari dena da galdua” eta 566. “Burla gaxtoa bere sor-lekura izuli doa”.

Lafonek (LAFON, René, *Le système...*, op. cit., (II. vol.), 148. orr. eta hurr.) Echepare (“Picher ebilia hauxi diohaçu”, “Harçaz orhit nadinian vihoza doat ebaqui”, “Mundo honec anhez gente enganatu darama”, “Guti vste duyenian ehor vci darama”...) eta Leizarragarengandik (“Gauça hauc guzioc usança berez galdu doaça”, “(...) creaturá sanctificatu diohac Iaincoaren hitzaz eta orationez (...)”) jasotako adibide gehiago biltzen ditu.

- (141) AZKUE, Resurrección M^a de, “Morfología Vasca”, Euskera, V (1924), op. cit., 575. orr.

Azkuek berak beste lan baten (AZKUE, Resurrección M^a de, *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas*, Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya, Bilbao, 1949, 20. orr.) zera erantsiko du:

“(...) las flexiones de recipiente del auxiliar intransitivo (...). Sus flexiones corteses, que exactas sólo se oyen en la Burunda y alguna otra zona navarra y en la comarca de Plencia (vizcaíno), como *etori dakio*, «se le ha venido»; *il dakigu*, «se nos ha muerto», se familiarizan diciendo *etori dakok* y *ðakon*, *il ðakuk* y *ðakun* en vizcaíno; en guipuzcoano *etori zaio* y *zaion*, *il zaiguk* y *zaigun*. Y de estas flexiones familiares legítimas brotan ilegítimamente, como flexiones corteses, *etori ðako* y *ðaku* (en guipuzcoano *zaio* y *zaigu*), en vez de los verdaderos *etori dakio* y *dakigu*”.

Azkuek, hain zuzen, adizki hauek (*dakit, dakio...*) eta ez *zait, zaio...* hobetsiko zituen bere “gipuzkera osotua” izeneko batasun projektuan (AZKUE, Resurrección M^a de, “Gipuzkera osotua”, Euskera, XVI (1935), I-II. zb., (151-184), 158 eta 162-163. orr.)

Adizki hauen gaurregungo eremua ezagutzeko ikus: YRIZAR, Pedro de, *Contribución...* op. cit., (II. vol.) 69. orr. eta hurr.

“La sonore de la finale biscayenne -gi n'est pas claire, car c'est toujours une sourde qui figure dans les formes personnelles, et l'on ne voit pas pourquoi cette sourde se serait sonorisée au participe. Peut-être a-t-on affaire à une alternance consonantique ancienne, dont la langue de Liçarrage a gardé trace dans *aurthiqui, aurdigu*”. (142)

Erizkizundi Irukoitzari so eginez gero Nafarroan ere aurkitzen dira han-hemenka honelako partizipioak: *jagi* (Sakanako 10 herritan), *jegi* (Arruazun), *xaigi* (Urzainkin), *xagi* (Bidankoze eta Uztarrozen), *xegi* (Iriberry eta Irafetan) (143).

“Bi” zenbatzailea.— Bizkaieraren ezaugarritzat eman izan da *bi* zenbatzailea izen multzoaren eskuinetara ezartzea. Lafonek, ordea, Echepeare, Leiçarraga eta Oihenartengan bildutako adibideen bidez joera horrek antzina eremu zabalagoa zuela frogatuko zuen (144).

Moduzko perpausetako “legez”.— Azkuek baztertutako aukera kontutan izanik “legez” honen eremua zabalagoa izan zitekeela uste du Lafonek:

“(…) *leguez* dans le sens de «comme» est biscayen. Azkue fait remarquer justement (art. *legez*) que, «bien que ce mot n'appartienne pas aux dialectes dans lesquels ils écrivirent, Harizmendi et Oihenart l'ont employé». Il convient d'ajouter qu'on le rencontre aussi, une fois, dans Liçarrague, 1 Cor., 10,7; *etzaretê idolatze, hetaric batzu leguez, scribatua den beçala*. Liçarrague l'a sans doute employé ici pour ne pas employer deux fois *beçala*. L'emploi de *leguez* dans le sens de «comme» n'était probablement pas particulier au biscayen”. (145)

“(e)na” legez.— Bada goikoarekin lotutako bigarren auzi bat. Mitxelenak Villasanteren Sintaxis de la oración compuesta liburuari eginiko oharretarik baten zera dio:

(142) LAFON, René, *Le système...*, op. cit., (II. vol.), 18. orr.

(143) “Napaño'ak Erizkizundian erantzun diona (yaraipena)”, *Euskera*, IX (1928), II. zb., (110-123), 119. orr.

(144) LAFON, René, “Adjectif épithète et déterminants en basque”, *BSL*, LIX (1964), (82-104), 95-96. orr.

Ohar bera egingo zuen Lafitek (LAFITTE, Pierre, *Grammaire basque...*, op. cit., 77. orr.) ere:

“Bi, “deux”, se rencontre en labourdain ancien construit exactement comme *bat*:

Ex.: *urhats bat eta urhats bi*, “un pas, deux pas”.

(145) LAFON, René, “Notes pour une édition critique et une traduction française des poésies d'Oihenart”, *ASJU*, II (1955), (61-99), 89-90. orr.

Mitxelenak, orobat (MICHELENA, Luis, “Nombre y verbo en la etimología vasca”, *FLV*, II (1970), nº 4, (67-93), 77. orr.), *legez* hau orokorra zela dio, Ziburuko Etcheberri eta abarren izkribuetan ikus daitekeenez.

“(…) Habría que advertir que junto a *garean legez* aparece también *gareana legez* (siempre así en Capánaga)” (146).

Bizkaiera zaharrean agertzen den egitura honek badu kidetasunik Bonapartek zaraitzueraren ezaugarritzat aipatzen zuenarekin. Revista Euskara-n (147), hain zuzen, Pedro José Samper Eaurtako erretoreak Bonaparte Printzeari igorritako gutun bat argitaratuko zen azken honek erantsitako ohar gramatikal batzurekin batera. Gutun honetan ageri diren moduzko perpausa bi: “erranecona bezala nic” (40. leerroan) eta “icusien duen(a) bezala Zure Altezac” (42) direla eta, honako iruzkin hau xe egingo zuen Printzeak:

“(…) Hé aquí una particularidad del salacenco. Efectivamente, ni *bezela* guipuzcoano, ni *bezala* labortano, ni *bicala* roncalés, ni *legez* vizcaíno, tienen la propiedad de determinar el definido despues de la forma relativa del verbo. El salacenco considera *erranecona é icusien duena*, como nombres puestos en el definido. Pero lo que es todavía más curioso, es, que, aun cuando el sujeto del verbo se encontrase en plural, como p. ej.: en *icusien dien*, «ikusico duten» en guipuzcoano, no por eso se diría ménos *icusien dien(a) bezala*, «ikusico duten bezela» en guipuzcoano, y jamás *icusien dien(ac) bezala*. En una palabra, ya se trate de *icusien duen* (singular), ya de *icusien dien* (plural), ambos son tratados como singulares con el artículo regido por *bezala* salacenco”.

Eta orripeko oharrean zera erantsiko du:

“No hay que confundir «como él lo ha visto» con «como lo que él ha visto.» En este último caso el *a* final en la forma relativa del verbo se encuentra en todos los dialectos, pero la particularidad del salacenco estriba en emplear «como lo que él ha visto» en las ocasiones en que los restantes dialectos emplearían «como él lo ha visto.» (148)

“eben” adberbioa.— Beste kidetasun bat ere aipatuko du Lafonek. Erdialdeko euskalkietan lekuzko adberbioa *emen / hemen / kemen / gemen / gen* itxurapean agertzen den bitartean, zub. *heben*; erron. *keben* eta bizk. zaharrean ere (Gari-bayren LIV atsotitza aipatzen du Lafonek) *eben* aurkitzen dugu (149).

(146) VILLASANTE, Fr. Luis, *Sintaxis de la oración compuesta*, Editorial Franciscana, Aránzazu-Oñate, 1976, 115. orr.

Ohar bera egingo du Mitxelenak Villasanteren beranduagoko beste lan baten (VILLASANTE, Fr. Luis, *Estudios de sintaxis vasca*, Editorial Franciscana, Aránzazu-Oñate, 1978, 97. orr.):

“(…) en Capanaga suele llevar artículo: *dagoçana leguez egun asco* «como lo están oy muchos» (116), *gu... salvaetaco... etorri cidina legues mundura* (Viva Jesús), *guc gueure çordunay parquetan deustegunaleguez* (Betolaza), etc.”

Mitxelenaren adibideei beste bat, Micoletarengandik hartutakoa honako hau, gehituko genieke: *esan daroen aleguez* «como diçen» (24. orr.)

(147) BONAPARTE, Luis Luciano, “Curiosidades euskaras”, Revista Euskara, VI (1883), 332-336. orr.

(148) BONAPARTE, Luis Luciano, *Curiosidades euskaras*, op. cit., 335-336. orr.

(149) LAPON, René, *Le système...*, op. cit., (I. vol.), 73-74. orr.

Agintekerako geroaldiak.— Bizkaierazkotzat hartu izan diren adizki hauek XVII. mendeko Joannes Etcheberri ziburutarraren izkribuetan aurkitu ditu Mitxelena (150). Patxi Altunak, orobat, Etcheberrirengan ezezik (151) Mendiburu nafarrarengan ere eriden ditu horrelako adizkiak (152).

e > a.— Bizkaieraz /i/ aurrean *e > a* bilakatzea inon baino maizago gertatzen den arren (*barri, barriro, txarri, baztar...*), badira antzerako adibideak bizkaieraren eremutik kanpo ere. Mitxelena dioenez, *bardin* Echepeare eta Leizarragarengan aurkitzen omen da, beronen erabilera zubereraraino hedatzen delarik. Leizarragarengan, bestalde, *atharbe, ikhartze...* bezalako adibideak behin baino gehiagotan agertzen omen dira. Iragan garaietan ezezik gauregun ere ba omen dago ezaugarri honen aztamarik bizkaieratik at:

“Modernamente se dan hechos análogos fuera de la zona vizcaína: Rent. *eguardi* “mediodía”, *eguarri* (ambos con [-wa-]) “Navidad”, *Goyarri* “Goyerri”. (153)

Aditz-izenetako “-ketan”.— Leintz haraneko, bizkaierarekin mugan dauden zenbait herri arabarretako eta desagerturik dagoen hegoaldeko euskalkiaren berezitasunzat jo izan dira *bialketan, apurketan...* erako aditz-izenak. 1859ko urtarrilaren 4an Aita Uriartek Bonaparteri egindako gutunean ematen zaigu ezaugarri honen berri:

“(…) dicen –Leintz haraneko herrietan eta Oñatin– *beroquetan* por *berotuten*, como en Villarreal, Ochandiano, etc. (...)”. (154)

Baita Azkuek ere Zigoitiako hizkeraz mintzo dela:

“En Zigoitia suprimen, por lo general, la *-n* de *-ketan*; y *-ten*: *goazen boketa, goazen jate, vamos a echar, vamos a comer. Osasuna galgeta dut, pierdo la salud*”. (155)

(150) MICHELENA, Luis, Sobre el pasado de la lengua vasca, op. cit., 64-65. orr.

(151) ETCHEBERRI, Ioannes, Manual devotioñezcoa, edo ezperen oren oro escuetan erabiltzeo liburutchoa, Mensajero, Bilbao, 1981, 23. orr.

(152) ALTUNA, Patxi S. J., “Mendibururen mintzaira”, Mundaiz (1981), 21. zb., (74-76), 74. orr.

(153) MICHELENA, Luis, FHV, op. cit., 61. orr.

(154) RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., “Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte”, ASJU, I (1954), (35-106), 79. orr.

(155) AZKUE, Resurrección M^a de, “Leyes Fonéticas”, Primer Congreso de Estudios Vascos, Bilbaina de Artes Gráficas, Bilbao, 1919, (456-480), 470. orr.

Beronen jatorriaz hauxe dio Omaechevarriak (OMAECHEVARRIA, Fr. Ignacio, El vascuence de Fray Juan de Zumárraga, op. cit., 305. orr.):

“En cuanto al *-keta-* de *bialketan, sarketan, garbiketan* (...) se trata de un sufijo de acción seguida de la desinencia *-n* del caso inhesivo: *egite* o *etorte* significan la acción de *hacer* o *venir*, lo mismo que *garbiketa* la acción de *lavar*, o *kantatze* o *kantata* (que, sin embargo, no se emplea así aislado) la acción de *cantar*; *etorte-n* naiz = soy en venir; *egite-n* dot = tengo en hacer, etc. Respecto a su origen, puede decir-

.../...

Baina, dirudienez, bizkaieraz mintzo den herri horietan ezezik handik kanpo ere bada honen aztarnarik. Etxaburuk, esate baterako, Hondarribiako hizkera aztertzen duelarik, zera azpimarratuko du:

“Guztiok dakizkigu aditz izenak artzen dituzten erak nola diran: ekarri, ekarriko edo ekarriren, ekartzen eta ekar.

Emen oietaz gaifera beste era bat ere bai: emen “ketu” atzizkia eramaten dute olako modu ta denboran:

Ni juanketu naiz = (Ni joan izan naiz).

Ori guk eginketu dugu = (Ori guk egin izan dugu)”. (156)

Lafittek, berri:

“Sarako Pedro Garmendia zenaren nota batzuetan irakurtu dut baze-la Etxalarren Arburua deitu apez bat, sortzez kostatarra. Apez horrek bazerabilzan aditz-forma berezi batzu, nik behin ere entzun ez ditudanak.

Huna Garmendiak altxatu dituenak:

– adituketzen zaitut;

– eleizan goizik arkituketzen naiz;

– eztituzula angulak maite? Itz dizut janaren janaz janketuko dituzula!

– emengo euskera erabiliketua det.

Itxuren arabera, *ke* horrek ohidura markatzen du. (...)” (157)

B. BIZKAIERAK GALDU DITUEN EZAUGARRIAK

Azkuek, 1935ean argitaratutako *Evolución de la lengua vasca* lanean, bizk. zaharrak zeuzkan arkaismo zenbait aipatzen dizkigu, gero, beste euskalki batzutan gorde eta honetan galdu egin direnak. Inoiz, gainera, hizkuntzak eskaintzen zuen aukera aniztasunetik euskalki bakoitzak eurotariko batzuk eta ez besteak hautatetik etorri dira ezberdintasunak.

.../...

se que procede del abundancial *-eta* (...), que en vascuence significó primero plural y luego insistencia en la acción *kantaetan* o *kantetan-dot* = me ocupo en cantar = estoy cantando = canto. La terminación *-keta*, que ha prosperado más como sufijo derivativo independiente de acción, no sería más que el mismo *-eta* con una *-k-* de origen analógico”.

(156) ETXABURU, J. M., “Hondarribiko izkerari buruz”, *Euskera*, XXVI (1981-1), (305-311), 307. orr.

(157) LAFITTE, P., “Euskal-aditzeko hiru *-ke* atzizkiak”, *Euskera*, XIX (1974), (152-156), 155-156. orr. .../...

Aditz erroa.— Azkue jabetu zenez (158), RS, Barrutia edo Micoletaren izkribuetan maiz ageri dira aditz erroaren adibideak, baina ez beranduagoko Betolaça edo Capanagarenetan. XVII. mendeaz geroztik, beraz, ez dute bizkaitar idazleek partizipioa eta aditz erroaren erabilera bereiztuko, partizipioa arlo guztietara hedatzen delarik (159). Bizkaieran, dirudienez, sortutako aldaketa hau gip. eta Nafarroa Garai-ko zenbait hizkeratara ere hedaturik daukagu gaurregun.

Geroaldiko “-ke” / “-te”.— Ekialdeko euskalkietan oraindik ere bizirik dirauten geroaldi hauek bizk. zaharrear ere ezagunak zirela frogatzen du Azkuek, horretarako RS-ko lekuko ugarietz baliatzen delarik: *dakike, zagokez, aukake, doke, dokek, goakez...* (160)

“bait-” aurrizkia.— Dagoeneko mendebaleko euskaratik desagertuta dagoen aurrizki hau ere bizk. zaharrear ezaguna zela diosku Azkuek, *baist-* itxurapean agertzen zelarik. RS-tik jasotako hiru adibide aipatzen ditu horren frogagarri: 478. “Zelan bainabil janzirik, alan otza daukat nik”, 20. “Zelangoa baista oiala alangoa da mendela”, 35. “Zelangoa baista amea alangoa oi da alabea”. (161)

.../...

Iraizozek (IRAIZOZ, P. Policarpo de, “Vocabulario y fraseología de Joaquín Lizarraga”, FLV, XI (1979), nº 31, (121-162), 153. orr.) Lizarraga nafar idazlearengandik jasotako esaldi hau dakar: “Sartu ondoan (Susana frutadira) zebilen paseaketan” (173): habiendo entrado Susana en el jardín, andaba paseando.

Iturnoz Lezak (TURRIOZ LEZA, José Luis, “La función de -a y de -ta a la luz de la dimensión de la individuación”, Euskera, XXX (1985-1), (175-213), 202-203. orr.) Axularrengandik jasotako bi esaldi hauek aipatzen ditu: “Zenako ibilli behar zara seinalatzeketan eta bertzeri kargu emanketan” (Ax. 162); “Elkharregin solhasean, hizketan, elheketan, presentketan, gosalketan eta bisitaketan hasiz gero” (Ax. 263).

(158) AZKUE, Resurrección M^o de, Evolución de la lengua vasca, op. cit., 67. orr. eta hurr.

(159) Hauxe litzazke Omachevarriaren ustez (OMAECHERRIA, Fr. Ignacio, El vascuence de Fray Juan de Zumárraga, op. cit., 314. orr.) aldaketa horren arrazoia:

“(…) Yo creo que la supresión de los sufijos determinantes del verbo depende de los auxiliares con que se combina más que de los modos verbales. Los radicales **edin* y **ezan* exigen la supresión del sufijo *-tu* (o *-du*) o *-i* en todos los dialectos y en todos los modos. (...) Lo que ocurre es que las radicales **ezan* y **edin* han servido para formar los modos citados —agintekera, subjuntiboa eta ahalera, alegia—, coincidiendo la supresión del sufijo verbal con el uso modal de dichos auxiliares. Tenemos, pues, también en vizcaíno, ejemplos como los siguientes: *gure arimak gal* (por *galdu*) *etzuzeten* (Añibarro, Escullburua, 203-10). Y en los Refranes, también vizcaínos, se hace un uso amplio de la radical **ezan*, propia ahora tan sólo de los dialectos orientales: *Aoti bero* (por *berotu*) *ezak labea ta narra* (Refr. 285); *Azarkunzeak bildurra uxa* (por *uxatu*) *bez* (Refr. 155); *Uler* (por *ulertu*) *ezak lenago* (Refr. 179). Nótese las formas tan típicamente vizcaínas de *azarkuntzeak*, *labea*, combinadas con las flexiones *bez*, *ezak*, suplantadas en el vizcaíno actual por *begi*, *egik*. Mas, se da el caso de que a la radical *egin*, empleada en el mismo sentido de **ezan*, se agrega el verbo sin la supresión del sufijo: *artu begi* (no *ar begi*, como se diría *ar zak*) dijo Micoleta; y *guardadu badaguiçu* dice nuestro texto y no *guarda badagizu*, como se diría *kanta badenezu* o *bazenezu*”.

(160) AZKUE, Resurrección M^o de, Evolución de la lengua vasca, op. cit., 75. orr. eta hurr.

(161) AZKUE, Resurrección M^o de, Evolución de la lengua vasca, op. cit., 87. orr.

Gaurregun, eskuarki, aurrizki honen lekua aditz laguntzaileari erantsitako *eta* juntagailuaz osatutako egituraren bidez betetzen da.

“-za-” aditz erroa.– Nahiz eta bizkaieran *-gi-* izan gaurregun erabiltzen den aditz erroa, izkribu zaharretan *-za-* ere maiz ageri da berarekin batera. Badirudi, beraz, eta Mitxelenak dioen bezala, hizkuntzak eskaintzen zuen aukera bikoitzetik bata atera dela garaile, bigarrena, erabat baztertuta geratu delarik:

“Si nos remontamos algo en el pasado, los cantares medievales y los textos del siglo XVI nos demuestran que formas del verbo auxiliar como *ezak* eran usadas en Vizcaya al lado de *egik*. Después, al parecer, han dejado de utilizarse en aquella región. Está claro de todos modos que, de dos posibilidades, el vizcaíno y una parte del guipuzcoano se quedaron con una, en tanto que otros guipuzcoanos, con el conjunto de los vascos más orientales, prefirieron la otra, limitando el empleo de *egin* a distintas funciones”. (162)

Adberbioetako “-ki” atzizkia.– Antzerako aukera gertatzen bide zen adberbioak osatzeko atzizkiei dagokienez. Hizkuntzak aukera bi: *-ki* batetik eta, bestetik, *-to / -do* eskaintzen dituela dirudi. Gainontzeko euskalkietan, gutxi-asko, aukera bietaz baliatzen den bitartean (163), bizkaierak bigarren motako atzizkia erabiltzen du soil-soilik.

Aditzetako pluralgilea.– Hizkuntzak aditzen pluralak osatzeko daukan aukera ugariatik (*-zki-*, *-it-*, *-tza-*, *-z-*, *-z...*) bakar bat (*-z*) hautatu du bizkaierak, gainontzeko guztiak ia erabat baztertu dituelarik. Bizkaieraren jokabide honen aurrean aukera aniztasunari eutsi diote gainerako euskalkiek, “bizkaieraren” *-z* ere barne delarik: *gatoz*, *goaz...*

Bizkaieran, inoiz, pluralgile bi ere ageri dira (*ditudaz*, *dituzuz*, *zaitudaz...*). Horrelakoetan *-it-* pluralgilearen balioa ezabatu egin da hiztunen kontzientzian, adizki berriok analogikoki sortu direlarik (164).

(162) MICHELENA, Luis, *Gulpuzcoano y vasco*, op. cit., 236-237. orr.

(163) Mitxelenak honako ohar hau egingo du *-to / -do* atzizkiez diharduela (VILLASANTE, Fr. Luis, *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Editorial Franciscana, Aránzazu-Oñate, 1974, 96. orr.):

“No obstante lo dicho sobre el carácter vizcaíno del sufijo *-to*, *-do*, voces como *ondo* y *hobeto*, aunque en concurrencia, llegan hasta Oyarzun, si no más lejos”.

Eta, beherago (ibidem, 117. orr.), *-ro* atzizkiari buruzko beste hau:

“*-ro* debió ser común, a juzgar por *haboro* = más, etc., de **hoba-ro*, y quizá *gero*”.

(164) Horixe berori zioen Altubek (ALTUBE'tar Seber, “Observaciones al Tratado de “Morfología Vasca” de Don R. M. de Azkue”, *Euskera*, XV (1934), I-II. zb., 111-112. orr.) ere:

“A mi modo de ver, en épocas muy remotas de la vida del euskera, no existía un pluralizador común y uniforme para las flexiones de los distintos verbos (...).

En el proceso de la elaboración premiosa de estas pluralizaciones surgió el morfema *z* que mereció una mayor aceptación que sus sinónimas, habiendo llegado a incor-
.../...

“Nola” - “Nolako” galdetzailleak.- Aukera bikoiztasuna ageri da, halaber, galdetzailleen alorrean. Egungo bizkaieran *zela(n)*, *zelako* / *zelango* badira ere erabiltzen diren galdetzaille bakarrak, bizk. zaharrean ezagunak ziren, hauekin batera, *nola*, *nolakoa* eta *nolangoa* (165).

Objektu zuzena genitiboan.- Capanagaren “ondasunen esquetaco” bezalako egitura hau gaurregun ekialdeko euskalkien berezitasuntzat jotzen den arren, ezaguna zen bizk. zaharrean (eta baita gip. zaharrean ere) (166).

Botibo modua.- Zubererara mugaturik geratu den botibo moduak aspaldi hedadura haundiagoa zuela frogatu du Lafonek (167), Garibayren atсотiz honek erakusten duenez: “Ederra vay liz, Ona eç ey liz”.

BIZKAIERAREN BESTE EZAUGARRI BATZUK

Euskalki honetan hedatuenuk eta aspaldidanik dokumentaturik ageri diren ezau-garriak baizik ez aipatzearen hurrengo hauexek lirateke horietarik azpimarragarrienak. Alde batetik *i-* / *u-* alternantzia dugu; bizk.: *urten*, *ule*, *uri*, *ultze* / *untze*, *uger* (*egin*), *uzen*... orok.: *irten*, *ile*, (*h*)*iri*, *iltze*, *igeri* (*egin*), *izen*... (168). Bigarren alternantzia mota *-a* / *-e* dugu; bizk.: *andra*, *landara*, *laba*, *lora*, *oba*... orok.: *and(e)re*, *landare*, *labe*, *lore*, (*h*)*obe*... (169). Hitz amaieran *-ain*, *-uin* > *-an*, *-un* bilakatu dira; bizk.: *zan*, *ezpan*, *ganean*, *mun*... orok.: *zain*, *ezpain*, *ganean*, *muin*... Diptongoko *i* bokalaren ondorengo txistukariak busti egin dira, gero, *i* bokal hori ezabatu egin delarik; bizk.: *nas*, *nos*, *gatx*, *ekatx*, *bakotx*... orok.: *naiç*, *noiz*, *gaitç*, *ekaitç*, *bakoitç*... (170)

... / ...

porarse casi a todos los verbos como índice o característica de sus flexiones plurales. Los verbos que *conservaron* la pluralización particular o individual fueron, especialmente los *fuertes* por excelencia: los auxiliares *Izan* (*Da-çira*...) y **Edun* (*Du-çitu*...); en bizkaíno, a causa de la posición *destacada* (sufijo *final*) que ocupa en las flexiones dicho pluralizador *z*, ha alcanzado ésto mayor fuerza expansiva, ingiriéndose hasta en esas flexiones auxiliares, bien como pleonástico (*çiraz*, *çituz*...) o bien (en algunas zonas y en ciertas flexiones) con carácter exclusivo (*doguz*, *doçuz*...)

- (165) Bi motatakoak ageri dira, diogunaren frogagarri, RS, Micoleta, Betolaça, Capanaga edo Garibayren izkribuetan. Barrutiak, bestalde, *nola* eta *nolakoa* baizik ez ditu erabiltzen.
- (166) Ikus, honetaz, LAKARRA, Joseba Andoni, “Oharak zenbait arkaismoz”, ASJU, XVII (1983), (43-68), 58. orr. eta, ale berean, SARASOLA, Ibon, “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, (71-212), 123. orr.
- (167) LAFON, René, *Le système*..., op. cit., (I vol.), 73. orr.
- (168) Adibideok ez dute denok hedadura bera. Azken biak (*uger egin*, *uzen*), esate baterako, mendebaleko zenbait hizkeratan baizik ez dira ezagutzen.
- (169) Badirudi amaiera hauek analogikoki sortuak direla, *-a* batez bukatutako hitzen ereduari jarraituz alegia: nom. sing. *neskea*, nom. mugagabea: *neska* eta, beraz, nom. sing. *labea*, nom. mugagabea: *laba*.
- (170) Mitxelena dioenez (MICHELENA, Luis, FHV, op. cit., 192. orr.), hegoaldeko euskalkian ere bazen bustidura mota hau.

Dena dela morfologi arloan ageri da, beste inon baino argiago, bizkaieraren apartekotasuna. Nabarmenena soziatibo kasuaren atzizkia dugu: *-gaz / -kaz* (171). Erakusleei dagokionez, *a* da (orok.: *(h)ura*), ia bizkaieraren eremu osoan, 3. graduako erakuslea (172). Bestalde, azentuak ezberdintzen ditu euskalki honetan sing. eta pluraleko erakusleak: sing. *onétan* ≠ pl. *ónetan* (orok.: *(h)auetan*); sing. *onék* ≠ pl. *ónek* (orok.: *(h)auék*)... (173). Hirugarrenik, izen multzoaren ezkerretara eta eskuinetara, bietan, ageri ohi da erakuslea: *ori gizon(o)r(i); orrek etxeok; onek mutilonek*... Zenbait hizkeratan, itsasaldekoetan batipat (?), galdu egin da singularreko hiru graduen eta pluraleko bien arteko bereizketa, izen multzoaren eskuinetara doana 3. graduan jartzen delarik beti: *ori gizona, orrek etxeak, onek mutilak*... Izenordain galdetzailleetan plural analogikoak sortu ditu bizkaierak: *nor > nortzuk; zein > zeintzuk; zer > zertzuk*, joera berau zenbatzailleetara ere hedatu delarik: *bitzuk, irutzuk*...

Aditzaren morfologiaz den bezainbatean hauexek dira azpimarragarriak: ZER-NORI-NORK erako adizkiek, lekukorik zaharretatik hasita, **eutsi* daukate oinarritzat: *deutsut, deusku*... (orok. (?): *dizut, digu*...) (174). Iraganaldiko 3. pertsonetan (sing. zein pl.) Ø da bizkaierak daukan aurizkia; bizk.: *ebilen, ebizan, eban, eben, eustazan*... orok.: *zebilen, zebiltzan, zuen, zuten, zizkidan*...(175). Hau

(171) Ekialdeko bizkaieran, baina, *-kin* da, gainontzeko euskalkietan bezalaxe, ezagutzen den atzizkia eta pluralean, gainera, askozaz mendeberago hedatzen da beronen erabilera.

(172) Badirudi egoera zaharri eutsi diola honetan bizkaierak.

(173) Zenbait hizkeratan, azentuaz gainera beste ezaugarri batzuk ere ageri dira pluraltasuna adierazteko: *oneetan / oneitan*...

(174) Mitxelena argitaratutako "Endechas de Doña Milia de Lastur"-en (MICHELENA, Luis, *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madrid, 1964, 75-79. orr.), baina, *eguin deuscu, eguin deust* eta *artu deusat* aditz laguntzaileen ondoan *edegui dio* ere badago.

(175) Ezaugarri hau ez da, hala ere, bizkaieraren eremu osokoa. Badira, bestalde, eta Azkuek ondo zioenez (AZKUE, *Resurrección Mª de, Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas*, op. cit., 12. orr.), *z-* daukaten adizkiak:

"(...) Pero son corrientes *ezaten ziarduan* o *zinarduan*, «se ocupaba en decir»; *zinoan*, «decía»; *ziraitsan*, «se lo decía»; *zefaion*, «continúa»; *zirudian*, «parecía». (...)"

Haueti beste batzuk, ahalezkoetakoak esate baterako (*zeikean, zeikezan*...), gehi geniezazkieke.

Ez dago adostasunik *z-* / Ø- honen jatorriari buruz. Zenbaitek Ø- uste du dela zaharrena. Schuchardt-ek (SCHUCHARDT, Hugo, "Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco", *BRSVAP*, XXVIII (1972), Cuadernos 2º y 3º, (217-337), 222-223. orr.), esate baterako, zera adieraziko du:

"(...) el B. carece de esta *z-* tanto en los verbos transitivos como en los intransitivos: *e-go-an, e-b-an, e-uka-n*, etc., pues la *z* de *zan*, "él era" forma parte del núcleo (participio *i-za-n*; cótese con G. *za-i-t*, "él me es" junto a *d-a*, "él es"), lo cual se ve claramente en la relación del viejo L. *lizen*, "que él fuese" con *zen*, indicativo (comp. *luen*, "que él fuese tenido [por él]": *zuen*). Creo que estas formas sin *z-* son las más antiguas y que la *z* de *zan* (explicándola como *z-an*) fue transmitida a *z-uen* y luego a las formas correspondientes de todos los verbos transitivos e intransitivos (...)"

.../...

“Markiñako euskerea esaten yakona –dio apaiz argi onek– gipuzkoarrenaz nastauta egon arren, garbia, lotsazkoa ta ederto oguzia edo ebagia beti izan da. Bizkaia’n Markiña-aldekoa ta Gipuzkoa’n Tolosa-aldekoa dira entzuterik geien daukenak: Markiñakoa bestearen aldean sendoa da, errotsua, mendi-mutill alakoxe azkarra; Tolosakoa biguna, udabarriko aizea langoxe ots eztiduna, eguzki epeletan ta sutondoan azi edo ifuturiko umea legezko azalzuria; Markiñakoa arra da, Tolosakoa emea; ta mutil zarra ta neska zarra izateko jaiok ezpalitzaz, bien ezkontzatik sorturiko seiña edo aurra, munduan ez dagon lakoxe berbeta edo izketea izango litzake.” Izan ere, Markiña’ko izketeak Gipuzkokoakin antz eta kidetasuna badu; ia Bizkai osoan, esaterako, *yan*, *yoan* esan oi da; Markiña’n, berriz, Gipuzkoa’n bezela, *jan*, *joan*. Aditza ere *ditui* eta abar gipuzkoarren antzera, baita *kin* ere erabili oi dute, *gaz* ordez; gizonagaz ez, gizonakin baizik”. (230)

Erabatekoa izango da Gáraterean epaia:

“(…) Es verdad que los tres dialectos principales son: el Labortano, Guipuzcoano y Bizcayno. El primero donde mejor se habla es en San

(227) Urquijok berak ere oharerazten duenez Christobal de Harizmendi nahi izango zen jarni.

(228) URQUIJO, Julio de, *Obras Vascongadas...*, op. cit., 156-157. orr.

(229) HUMBOLDT, G. de, *Diario del viaje vasco 1801*, op. cit., 645. orr.

(230) ONAINDIA'tar J., “Aita Prai Bartolome, Euskal-Idazle”, E-G (1955), 5-12, (87-90), 87. orr.

Juan de Luz y sus inmediaciones; el segundo, en Tolosa y sus inmediaciones, y el tercero, en Marquina y sus alrededores. (...)” (231)

Bultzada nabarmena emango zaie joera hauei Bonapartek eta beronen lankideek hartutako erabakien ondorioz. Gipuzkeraz den bezainbatean, Beterriko hizkera izango da, beste lehiakiderik gabe, hobetsiko dena. Aita Uriartek 1857ko ekainaren 25ean Bonaparteri eginiko gutunean, esate baterako, zera irakur dezakegu:

“Supongo que S. A. que en la traducción guipuzcoana me dice que prefiere el término *nuen* a *nuan*, *cenduen* a *cenduan*, etc., creo que también preferirá *dizquiot* a *diozcat*, *nizquion* a *niozcan*, *dizquiotet* a *diozcatet*, *diotet* a *diet*...; pues los primeros son más usados en Beterri y, a mi parecer, más elegantes, aunque no suenan mal los segundos. Si S.A. no fuese de este modo de pensar, puede avisarme, pues de lo contrario haré uso del *zuen*, *nuen*, *cenduen*, *guenduen*, *cenduten*, *zuten*. Y también de *nizquion*... *dizquiot*... *diotet*”. (232)

Gutun honen jarraian Bonaparteri Valdespinako Markesak bidalitako beste bat ezarriko du Ruiz de Larrínagak, bertan zera diotsolarik:

“(…) he hablado con Fr. José –Uriarte, alegia– sobre la traducción que S. A. desea, y le he dicho que, puesto que el bascuence de Ermani y Astigarraga son los que S. A. prefiere (...)”. (233)

Berdin mintzo zaio Uriarte urte bereko uztailearen 2an eginiko gutunean:

“(…) he adoptado aquellos términos que, según Larramendi (“Diccionario” y “Astete”), Lardizabal, Cardaveraz, Mendiburu, Iztueta, y demás, como Aguirre y las “Fábulas”, me han parecido mejores, pues, propendiendo siempre al modo de hablar de Beterri (...)”. (234)

Ados zetozen, bada, Bonaparte eta Uriarte egindako aukera horretan, 1857ko agorrilaren 17an idatzi gutunean ageri denez:

“Me pregunta S. A. ¿si no sería mejor consultar sólo los autores modernos guipuzcoanos, que escribieron en dialecto de Beterri? y que cree S. A. que sólo Lardizábal sea el que ha hecho esto. A lo que creo deber contestarle que Lardizábal es el preferido por mí a todos los demás y con mucho exceso (...)”. (235)

(231) GARATE, Justo, “Apuntes acerca de José-Francisco Aizkibel”, E-J, I (1947), (525-539), 537. orr.

(232) RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., “Cartas del P. Uriarte...”, ASJU, I (1954), op. cit., 49. orr.

(233) RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., *Cartas del P. Uriarte...*, op. cit., 50. orr.

(234) RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., *Cartas del P. Uriarte...*, op. cit., 51. orr.

(235) RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., *Cartas del P. Uriarte...*, op. cit., 53. orr.

Bizkaierari dagokionez, ordea, ez zegoen antza honen erabateko erizkidetasunik bion artean. 1860ko maiatzaren 29an, erdialdeko hizkera erabiltzearen aldeko azalduko da Uriarte:

“Quisiera saber en cuál de los subdialectos de Vizcaya debe hacerse –itzulpen batez mintzo zaio–, y S. A. mejor que nadie podrá resolver. Yo me inclino a hacerla sin eufonías, con la *j* suave, usando para esto la y griega; el plural general vizcaíno *dodaz* y no *ditut*, y con la *a* final por artículo; en una palabra, en Arratiano con *a* final”. (236)

Bonaparteren erantzuna eskuratzetik izan ez dugun arren, badirudi ekialdeko bizkaiera –Markinaldekoa, beraz– izan zela, bestelako frogek erakusten dutenez, Printzeak hobetsi eta bultzatu zuena (237). Bonaparteren erabakia gorabehera ez da bizkaieraren bikoiztasun horrekin hausterik izan eta, Mitxelenak gogora ekartzen digunez (238), mende honetan bertan ere bi bideek izan dute jarraitzaileak: Arana-Goiri eta beste ekialdekoari lotuko zaizkion bitartean, Azkuek, Zamarridak... erdialdekoa hobetsiko dute (239).

(236) RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., “Cartas del P. Uriarte...”, BRSVAP, XIII (1957), Cuaderno 2º, (220-239), 221. orr.

(237) Honela laburtzen ditu Mitxelenak (MICHELENA, Luis, Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco, op. cit., 64. orr.) Bonapartek egindako aukerak:

“Bonaparte (...) tuvo en buena medida que decidir, sin conformarse con el papel de observador libre de preferencias que es el que en un principio parecía corresponderle. Como muestra y por simplificar, había en su tiempo dos vizcaínos y dos guipuzcoanos escritos que, personalizando, podríamos llamar Moguel - Añibarro y Lardizábal - Aguirre, con base comarcal, pero que no tenía por qué coincidir –y en el caso de Lardizábal no coincidía– con la procedencia del escritor. Y, entre él y sus colaboradores, convertidos en legisladores de la norma, dieron a Moguel y a Lardizábal una prelación que ha pesado después en las letras vascas”.

(238) MITXELENA, Koldo, La lengua vasca, op. cit., 79. orr.

(239) Halaxe aitortzen zuen Azkuek berak (AZKUE, Resurrección M. de, “Observaciones acerca de la obra «Langue basque et langues finnoises», del príncipe Luis Luciano Bonaparte”, Euskera, VII (1926), III-IV. zb., (17-36), 29-30. orr.:

“Quise contribuir a esta unificación en el dialecto bizkaino al crear primero la Revista Euskalzale y poco después el semanario Ibalzabal, dejando a un lado el sistema mal llamado markinés, el mogueliano, y adoptando el de Añibarro, que ya antes lo pusieron en práctica Micoleta y Capanaga, y en sus mismos días el fabulista Zabala, aunque ésta su obra fue entonces desconocida. (...)”

Oso adierazgarria deritzogu halaber, Echeitak Josecho izeneko nobelaren sarreran (ECHEITA-tar Jose Manuel, Josecho, Durango, 1909) egiten duen ohar honi:

“Esta novela está escrita en vascuence vizcaíno que dice, *bidea, soloa, mendia, zirean, direan...* &, con las conjunciones *da, ta, y eta*. La subsiguiente, Dios median-te, estará escrita en el que dice, *bidia, solua, mendija, ziran, diran...* &, sin la conjunción *da*. Así serán atendidos los que hablan en una y otra forma”.

2.3.2. EUSKALKI ETA HIZKEREN ARTEKO LEHIAK. AURRERITZI LINGUISTIKOAK.

2.3.2.1. Joera nagusiak lapurteraren zein gipuzkeraren aldekoak edota, zehatzago oraindik, Lapurdiko Kostatarraren, Gipuzkoako Beterrikoaren eta Bizkaiko Markinaldekoa zein erdialdekoaren aldekoak izan badira ere, ezin esan dezakegu, ordea, hizkuntz-eredu hauek aho batez eta erabat onartuak izan direnik. Aitzitik, aspaldidanikoak ditugu hiztunen arteko lehia eta tirabirak hizkuntza auziak direla medio Axularrek, "Iracurtçailleari" eskainitako hitzaurrean, salatuko zuenez:

"Baïña ceren comunzqui hala esquiribatcea, nola minçatcea, nori be-rea iduritzen baitçaica hoberenic eta ederrenic: eta ene haur ez paita çurea beçala: ez othoi hargatic arbuya eta ez gaitz erran. Hunetçaz content ez paçara, eguiçu çuc ceure moldera, eta çure herrian vsatcen eta seguitcen den beçala. Ceren ez naiz ni hargatic beccaiztucó, eta ez mutturturic gaitzez iarrico. (...)" (240)

Behin XVIII. menderaz gero eurrez aurkituko ditugu jarrera chauvinista eta eztabaida hauen lekukotasunak. Larramendik, esate baterako, behin eta berriro azpimarratuko ditu jarrera hauetatik datozen kalteak. Bere hiztegiaren hitzaurrean, eta beharrezkoak ez diren erdal maileguak baztertzearren, euskalki batzuetako hitzak besteetara ezin hedatu ahal izatea eta ezintasun horren arrazoiak aipatuko ditu:

"Todo hombre de razon dirà, que esto es muy conveniente, y conforme à razon; y no obstante en hacer comunes todas las voces, hallo una difi-cultad casi invencible, y todo Bascongado me la confessarà desde luego. Y es la oposicion, con que los de un Dialecto nacen, y se crian contra

(240) AXULAR, Pedro de, Guero, op. cit., 18-19. orr.

Axularren salaketa honek, dena dela, Materrek 1617an bere Doctrina christiana-ren hitzaurrean egiten zuenarekin antz handia dauka. Izan ere Irigarayk, ortografia gaurkotuz, argitaratutako hitzaurre horretan (IRIGARAY, A., "Euskal literatura-ren bilduma laburra", Egan (1957), nº 3-4, (153-155), 154. orr.) zera irakurtzen dugu:

"Gaißerakoan badakit Euskal herrian anitz moldez minzatzen direla, eta nor bere herriko Euskara zaikala hoberenik eta ederrenik: Eta handik gogoak emaiten deraut ene iskiribatzeiko molde haur etzayela guztiei ongi idurituco. Baïña nahi dut iaikin dezaten halakoek nik hizkuntza hunetan dakidana Saran ikasia dudala, eta hango Euskara ongi erabiltzen badut ez naizela gaitz erraiteko eta ez arbuizatzeiko, zeren ez paitakit nik angoa baizen. Ordea ea Sarako Euskara denz Euskal herriko hobereña eta garbiena, ez naiz ni hartan sartzen, bat bederak emanen du bere iduririk. Eta Sarako Euskara hunetzaz kontent ezienak izkiriba beza bertze Euskara hobeago batez, eta hobekiago; ez naiz ni hargatik bekaiztucó, eta ez imbidios izanen".

Hitzaurre hau berau, baina mozturik, Etcheberriren *Laburdirl escuararen hatsapenac* liburuan ere ematen zen (URQUIJO, Julio de, *Obras Vascongadas...*, op. cit., 71-73. orr.)

Kostatarrari dagokionez, bestalde, Urquijok emango dizkigu argibide zenbait Sara eta Donibane-Lohizuneko hizkeren arteko norgehiagoketaz: URQUIJO, Julio de, "El vascuence de San Juan de Luz", RIEV, XIV (1923), 153-158. orr.

los de dialecto diferente, especialmente en orden al Lenguaje, en que mutuamente se tachan, y desprecian por insensatas, y sin razon alguna. El Guipuzcoano oyendo hablar al Bizcaino *guradozu, ez jaramon, astu yataz*, etc. empieza à reirse, y hacer ascos. El Bizcaino hace lo mismo, oyendo al Guipuzcoano *nai dezu, ez malmetitu, astu zaiz quit*. Aunque uno, y otro sepan v. gr. ambas voces *donguea, gaistoa*, que significan malo, el Bizcaino jamás quiere usar del *gaistoa*, ni el Guipuzcoano del *donguea*. No hablo de los Rayanos, que participan de ambos dialectos. Y esta oposicion se encuentra aun dentro de un mismo dialecto en varias voces, que son como propias de diferentes Lugares. (...)” (241)

Berdin Mendibururi 1747ko martxoaren 15ean eginiko gutunean:

“(...) Are gogai-carriena da, charlari óyec icústea, ta aditzea, nolá daudén isecáz, ta musinca Eusquéráz ederqui daquiénen jolasari, beifñ Nafarroaco *minzoa* dela, gueró Bizcaico *verbá dongueá*, bátean *ausaz ere* Goyerricó hizqueta dezulá, béstean *noasquiro* Beterricoa; achurlárien, ta necazarien hitzera dála hura, basérritarra dirudizúla, ta millá onelacó astaqueria. (...)” (242)

Corografía-n ere badu honi buruzko aipamenik:

“(...) el dialecto de Zuberoa, que, en lo hablado especialmente, es muy varonil y fuerte; y si por esto los labortanos le tachan de áspero, ellos se desquitan calificando al labortano de afeminado y melindroso y siempre unos dialectos están murmurando de los otros con poca discreción. (...)” (243)

Humboldt ere jabetuko zen auzi-mauzi hauetaz, nonbait ere garai hartan pil-pilean zeudenaren ezaugarri. Durango eta Markinako hizkeren artean bizi zen lehiaz zera esango du:

“(...) Pero más chocante es la porfiada disputa, de dónde se habla el vascuence mejor y más puro. Marquina en Guipúzcoa y Durango en Vizcaya mantienen en esto incuestionablemente la primacía. Ambas localidades en medio del país (...), ambas bastante pobladas, bien acomodadas más por agricultura e industria, que por comercio, y por esto menos frecuentadas por forasteros, ambas por último rodeadas de montañeses, que han retenido puro e inalterado en sus viviendas dispersas, apartadas, el más antiguo vascuence a menudo apenas comprensible todavía para el urbano, han quedado las más exceptuadas de la mezcla de su dialecto con palabras y frases castellanas. Ambas disfrutan además ahora de la preemi-

(241) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., XLVI-XLVII. orr.

(242) MENDIBURU, A. Sebastian, *Jesusen Bihotzaren devozioa*, Donostia, 1747.

(243) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Corografía...*, op. cit., 295. orr.

nencia, Marquina en D. Juan de Moguel, Durango en don Pablo de As-
tarloa, de poseer dos lingüistas tan doctos y fundamentados (...). El pun-
to discutible es ahora, con todo, el saber cuál de ambas localidades so-
brepaja a la otra y sobre esto oí con frecuencia disputar con tenacidad y
calor. ” (244)

Gutziz interesgarria da beheraxeago dioena:

“Aún más singular y muy dificultoso para el estudio de la lengua
es el siguiente fenómeno. La lengua vasca tiene, como toda lengua pri-
mitiva, una abundancia de palabras de igual significación y en otro tiem-
po habladas en una extensión incomparablemente mayor. *Zaldia* y *Za-
maria* llaman al caballo, *erhia* y *atza*, dedo, *goraço* y *arbasoa*, el tata-
rabuelo, etc. De estas palabras ha tomado el dialecto de las diferentes
regiones una de ellas y ha quedado desconocida la otra, o por lo menos
no es usual. La rivalidad de las pequeñas localidades hace entonces, se-
gún me aseguraron observadores perspicaces, que en una de ellas no quie-
ran de buena gana servirse de las expresiones, que son peculiares a la
vecina, si bien los nombres propios muestren que en otro tiempo eran
de uso más general. En Durango se dice p. ej. para expresar la idea de
recoger *batu*, en Guipúzcoa *bilda* (sic). Esto no obstante los nombres de
varias quintas de allí están compuestos con la primera palabra. No es
raro hallar, por tanto, tales expresiones locales aisladas, más bien en lo-
calidades alejadas que en las próximas. A la inteligibilidad general de la
lengua no puede esto hacer ningún detrimento, pues siempre se trata de
un corto número de expresiones. Pero dificulta la pesquisa del caudal
lingüístico completo y denota la tendencia general de todo carácter
popular a disgregarse siempre y primero en masas menores, antes de
unirse en mayores”. (245)

(244) HUMBOLDT, Wilhelm Freicher von, *Los vascos...*, op. cit., 71-72. orr.

(245) *Ibidem*, 72. orr.

Gaitz bera azpimarratuko du beste lan batzutan ere:

“En todo hay rivalidad entre los pueblos vecinos. Hasta en el idioma tiene esto in-
fluencia. En un pueblo no quieren de buena gana servirse de las expresiones que son
peculiares del vecino. Pero que al principio cada uno las ha tenido se ve en topo-
nimias. En Durango se dice para *recoger batu*, no como en la provincia *bildu*. Pero
muchos *Caseríos* llevan aquí nombres compuestos con ésta. Como la lengua es muy
rica en sinónimos, casi cada localidad tiene la elección y sólo recorriendo el país se
puede completar el diccionario.

Principalmente los nombres de parentesco tienen tantas discrepancias, que casi cam-
bian de pueblo a pueblo”. (HUMBOLDT, G. de, *Diario de viaje vasco 1801*,
op. cit., 209-210. orr.)

Eta berdin beste honetan (HUMBOLDT, W. von, *Primitivos pobladores de España
y Lengua Vasca*, Minotauro, Madrid, 1959, 207. orr.):

“La palabra *egui* no se halla en Larramendi y, en cambio, sí en el diccionario manus-
crito -Pouvreau-renean, alegia- *heguia*, *bord*, *montagne*. Este caso frecuente de que

.../...

Humboldti arrazoia ematera dator Aita Uriartek, 1857ko agorrilaren 17an egin gutunean, baieztatuko zuen hau:

“(…) En bascuence no es posible escribir a gusto de todos. No sólo cada dialecto, sino hasta cada merindad, tiene sus modismos y términos favoritos, que prefieren a otros, aunque conozcan que son mejores los que usan otros. Por ejemplo en Beterri no les acomoda *ordea* y dicen que es término guipuzcoano; pero yo me he convencido que es un capricho infundado de los de Beterri: que todos los autores le usan más o menos: todas las Gramáticas le ponen entre las adversativas, y así lo he adoptado”. (246)

2.3.2.2. AURRERITZI LINGUISTIKOAK

Hizkuntzen bilakabidean diharduen indar bateratzailetariko bat prestigioa zela genioen goraxeago, prestigiodun bariatatea, hain zuzen ere, gainerako hiztunentzako hizkuntz-eredu bihurtzen delako. Baina prestigioak badu bere alderdi makurra. Izan ere, bariatate jakin bat hobesteak nahitaz dakar berarekin beste bat(zu)en gaitzespena, edo Ninyolesen hitzekin esateko:

“(…) debe tenerse en cuenta que el prestigio no sólo se manifiesta “en pro” de unas normas de conducta o productos culturales, sino “en

.../...

este diccionario escrito en dialecto labortano traiga palabras que Astarlos, que se sirve del vizcaíno, nos comunica y que faltan en el Diccionario de Larramendi, fundado en el dialecto guipuzcoano, demuestra que, como yo también oí a menudo en el país, los dialectos de los lugares más alejados son más semejantes en el uso de algunas palabras no corrientes en general, que no los más próximos, que se repelen recíprocamente por celos de vecindad (...)”.

Humboldt badirudi ohartzen zela hizkuntzari buruzko jarrera hauek beste nonbait zeukatela euren sustraia:

“Cuando se quiere nombrar a todo el conjunto de la nación vasca cae uno en perplejidad y se busca en vano el término aceptable a la vez por españoles, franceses y alemanes. Los franceses no conocen ninguna denominación general. Dicen: *biscayens*, cuando hablan de los de la Península; *basques*, cuando hablan de los vasco-franceses, y en caso necesario recurren al nombre antiguo: *cantabres*. Los españoles limitan el nombre Vizcaya sólo al señorío, y dicen por lo demás del país: *las provincias bascongadas*, y del idioma *el bascuence*. Los habitantes mismos se nombran según las provincias: *vizcainos*, *guipuzcoanos*, *alaveses*. Así ha perdido este desdichado pueblo hasta la unidad de su nombre. (...)” (HUMBOLDT, Wilhelm Freicher von, *Los vascos...*, op. cit., 9. orr.)

Dena dela, goraxeago aipatutako Primitivos pobladores de España y Lengua Vasca, 68-69. orr. zera zioen:

“(…) los actuales vascos (...) se nombran (...) *Euscaldunac*, su país *Euscallerria*, *Eusquerria*, y su idioma *Euscara*, *Eusquera*, *Escuara*. (...)”

(246) RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., “Cartas del P. Uriarte...”, ASJU, I (1954), 56. orr.

contra” de otros. Aun yendo revestido de una valoración positiva, se trata de un fenómeno secundariamente negativo. Diríamos, pues, en forma simplificada, que el prestigio engendra el prejuicio. (...)” (247)

Hierarkia argi bat somatuko du hiztunak. Gainekaldean, eta bere tasun guztiekin, prestigiodun bariatatea ikusiko du eta, azpikaldean, eta bere(n) keria guztiekin hau(ek), prestigio gabea(k). “Lilurak” eraginda prestigiodun hori erbiltzera joko du, bestea(k), zenbait esparrutan behinik behin, baztertu eta bertan behera utziko d(it)uelarik (248). Inoiz, gainera, norbere bariatateaz, hierarkia horren azpikaldean dagoela ikusirik, lotsa eta ahalke izatea gerta daiteke, gorrotatzeraino ere iritsiz (=self hatred).

Honen ondorioz, eta euskararen kasura mugatuz, lan honen lehen atalean aipatu den “H (igh): gaztelania zein frantsesa / L (ow): euskara” hierarkiari beste bat, eta oraingoan euskalkien artekoa, erantsi beharko diogu beraz (249).

(247) NINYOLES, Rafael Lluís, *Idioma y poder social*, Tecnos, Madrid, 1972, 105. orr.

(248) Horixe berori da Ninyolessék (NINYOLES, Rafael LL, *Idioma y poder social*, op. cit., 47. orr.) dioena:

“(…) La persona con prejuicios no encuentra «exactamente» iguales ambos idiomas, o no los encuentra sencillamente distintos, y, en consecuencia, les aplica una «diferencia de trato». Su misma expectación provocará actitudes y aprensiones definidas, que, de hecho, reducirán las funciones que *todo* idioma puede (en principio) desempeñar. El aspecto subjetivo es, en cierto modo, tan importante como el aspecto objetivo, dado que de acuerdo con las expectativas que una sociedad crea en torno a su idioma puede descubrirse de alguna forma cuál será el futuro del mismo. (...)”

(249) Sánchez Carrión «Txepetx»-ek, 1974an argitaratutako lan baten (SANCHEZ CARRION, José María, “Bilingüismo - Diglosia - Contacto de Lenguas”, ASJU, VIII (1974), (3-79), 68. orr.), hizkuntza beraren bi bariatateren arteko hierarkia adierazteko *endodiglosia* erabiltzea proposatzen zuen eta *exodiglosia*, berriz, hierarkia hizkuntza ezberdinen artekoa zenean. Honen arabera endodiglosia eta exodiglosia, biak, genituzke Euskal Herrian.

Bereizketa honi beroni jarraitzen zaio M^a J. Azurmendi ere (AZURMENDI, María José, “Bilingüismo. Diglosia”, *Euskal lingüística eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbo, 1981, (215-257), 227-228. orr.)

Txepetxek berak, 1986an argitaratutako *Fundamentos para una teoría de la territorialidad lingüística* (RUIZ OLABUENAGA, José Ignacio; OZAMIZ, J. Agustín (ed.), *Hizkuntza minorizatuen soziologia*, 1986, (20-49), 25. orr.) lanean, bereizketa berri bat, *semi-diglosia* edo *seudo-diglosia*, lehen kasuan, eta *diglosia total* edo *diglosia territorial*, bigarrenean, proposatu du.

Ninyoles dugu Estatu espainiarrean, oker ez bagaude behintzat, bereizketa honen premiaz —berak *doble diglosia* deituko zuena— mintzatu zen lehena: NINYOLES, Rafael LL, *Idioma y poder social*, op. cit., 80-81. orr.

Zalantzarik gabe, “diglosia” kontzeptuak azken urte hauetan izan duen erabilera nahasiaren ondorio dira “bereizi” behar hauek. Horretaz jabeturik, Aracilek, 1965ean argitaratutako *Conflict linguistique et normalisation linguistique dans l'Europe nouvelle* lanean (Ikus orain: ARACIL, Lluís V., *Papers de sociolingüística*, La Magrana, Barcelona, 1982, (23-38), 24. orr.), hizkuntza beraren bariatateen arteko hierarkia adierazteko uzten zuen *diglosia*, hizkuntza ezberdinak zirenerako *hizkuntz gatazka* proposatzen zuelarik:

“Fou així que, *faute de mieux*, vaig arribar a usar sistemàticament un terme —«conflicte lingüístic» (= *linguistic conflict*)— que ningú, que jo sàpigia, no havia assajat mai de definir”.

Bizkaierari buruzko lekukotasunak alde batera utzirik, adibide gutxi aurkitu ahal izan dugu diogun hau frogatzeko (250). Horien artean Saroihandy hizkuntzalaria-riak zioena aipatuko genuke:

“Le bas-navarrais, qui aurait pourtant, lui aussi, ses titres de noblesse, est considéré par ceux-là mêmes qui le parlent de naissance, comme une *langue grossière* ne méritant ni d’être écrite ni d’être étudiée. (...)” (251)

Adierazgarria, halaber, Peillenek zubereraz diharduelarik dioena:

“(…) Lapurtar triunfalismuak zuberotar azentua, fonetika, irrigai, parregai bezala dauka, eta jende bezala mespretxatzen gaituzte “buru arinak” garelakoz. Tribukeria horrek nere probintziarrak euskaltzaletasunetik maiz urrundu ditu, eta bizkaitarrei bezala “euskaldun gaizto” sentimendu bat sortu, euskararen atzerakadaren zio bat izan dena Zuberoan. (...)” (252)

Bizkaierak, dena dela, XVIII. mendean hasita adibide nahikoa eskaintzen digu aurreritziaren eragina ezagutu eta neurtu ahal izateko. Larramendik, gorago ikusi denez, “inteligible”, “gustoso”, “claridad”, “distincion”, “dulzura”, “melodia”... gisako tasunak aitortzen bazizkion ere gipuzkerari, era honetara estigmatizatuko du bizkaiera:

“Este dialecto bien hablado, me es muy agradable en las terminaciones del verbo, y en vn gran numero de locuciones; y para hablarse bien, tienen particular gracia las mugeres, y lo mismo sucede en los demás dialectos, y aun del Latin notò Ciceron otro tanto. (...) Pero estas, y las demás locuciones las pronuncian los hombres no sè con que *rudeza bronca*, y *desapacible*. Aun las expresiones sincopadas tienen su gracia, como se pronuncien dulcemente, y sin *aspereza* (...)”. (253)

Bilboko hizkeraz den bezainbatean erabatekoa izango da gaitzespena:

“(…) Aunque en Bilbao se habla mal, pero no es assi en sus cercanias, donde la propiedad, y pronunciacion se conservan en su punto, y sucediera lo mismo en el mismo Bilbao, si en este punto se picaran algo mas de Bizcainos: ni en esto quiero decir, que no ay en Bilbao quien sepa bien su Dialecto, pues se hallan algunos”. (254)

(250) Azpimarra dezagun, hala ere, izkribuzko lekukotasunak aztertzeari mugatu dugula geure lana.

(251) SAROIHANDY, J., “Cours de langue basque”, RIEV, XI (1920), (121-132), 122. orr. Azpimarratua gurea da.

(252) PEILLEN, Txomin, “Jon Mirande eta Aiphasorho-ren bizia (1925-1972)”, Jon Mirandere-
ren idazlan hautatuak, Gero, Bilbao, 1976, (11-29), 21. orr.

(253) LARRAMENDI, P. Manuel de, Diccionario Trilingüe..., op. cit., XXIX. orr. Azpimarratua-
gureak dira.

(254) Ibidem, XXVIII. orr.

Cardabera, bizkaieraren berezko jatortasuna onartzen duen arren (255), bat etorriko da Larramendiren eritziarekin eta, adierazgarriagoa dena, berak ematen digu ordezkatzeko bilakabideaz (gipuzkerak bizkaiera ordezkatzeko) ezagutzen dugun lehenbiziko lekukotasuna:

“Gauza bi alere onen gafean ciertoac dira. Bata Bizcaitarrac berac, ascoc beñtzat gure Dialectoan, berenean baño predicatcea naiagodutela: eta Bizcaico Predicadore ascoc gurean predicatcera oitu, edo eguindirala. Bestea da, an, ta emen ere, nic ezdaquit nola, baña guizon gueienac moldecaiz, ta gogorquiago, eta andreaac berenez poliQui, ta emequiago itzeguiten dutela. (...)” (256)

J. A. Moguel digu, inolako zalantzarik gabe, auzi honi buruzko zehaztasunik gehien eskaintzen dizkiguna. Oso kezkatuak azaltzen zaigu beti arazo eta eztabaida hauek direla eta. Berak argitaratutako lehenbiziko liburuaren hitzurrean, esate baterako, giputz eta bizkaitarren arteko tirabirak isladatuko dizkigu:

“Bada atsecabe ematen didan beste gauza bat, au da enzutea Euscaldunac gaitzqui esaten, ta aucitan becela batzuec besteaquin. Guiputzac enzuten dutenean Vizcaitarren itzquera, bereala aviatzen dira esaten, *au dec eusquera, zatar, astun, ta gogaitcarria. Norc enzun belarriac estaldu gabe?* Vizcaitar ascoc (ez erri gucietaoac) esango dizute guiputzac dirala *labañac beren itzqueran, emacumen mingain zorrotzentzat ona dala, vizcaicoa guizontsuagoa*. Asitzen dira quifu ta sifuca; oec arpeguian ematen die aiei, *nion, cion, diot*, ta ala beste epai moldeaquin. Aiec berriz Vizcaitarrai, *deusat, neutsan, zeuntsan, esan juañ, ez doc, bai doc* ta onela beste itz ascotan (...)”. (257)

Jarraian, eztabaida horien antzutasuna salatzeaz gainera, bizkaieraren aldeko hitzak izango ditu:

“(...) Euscaldun maiteac, certaco dira itzauci oec? Cer esango digute erdaldunac errietan ta sifuca bagabiltza alcarren artean? Gure eusquera gauza ez dala. Aita Larramendi, ta Cardaverasec, guiputzac izanic, aitoritzen zuten, etzequitela cein zan obeagoa: bacoitzac jarrai beza bere jaieterrico eusquera; ordea ez gaizquiric esan. Ez degu erricoiac, edo errico amorean ichutuac izan bear. Nic guciac dauzcat edertzat. Zati bat naiz guiputzta, ta beste zati bat vizcaitarra, ta bietara cerbait eguin banaiz ere, gueiango vizcaico eusquerara nere vicitzaric gueiena emen igaro dedalaco gen-

(255) “(...) Besteac beceñ ondo, ta gauzaren batzuetan, bearbada obeto Izqueraren legueac an gordetzen dituzte. (...)” (CARDABERAZ, Aita Agustin, Eusqueraren berri onac..., op. cit., 13. orr.)

(256) CARDABERAZ, Aita Agustin, Eusqueraren berri onac..., op. cit., 13. orr.

(257) MOGUEL, Juan Antonio, Confesio ta comunioac sacramentuen gafean eracasteac, Iruña, 1800, XIV. orr.

deai eracasten animaco gauzaac. Libru berau ipintzea uste det Vizcaico eusqueran ere. Ez daquitenac uste dute Vizcai gucian esaten dala: *Ené, ara toroa plazaan manzania jaaten*. Bilbotarren erdi erdera erdi eusquera dauca-te Vizcai gucico euscaratzat. Ez da ordea ala. Eztitsuagoac dira guiputzen itzac; bafia itzen eusqueratasun, garbitasun, ta eusquera legueen aldetic, ez dio ecer zor Vizcaicoac, ta Cardaverasen iritzian, obeto gordetzen dira eusqueraren regla edo zucen videac Vizcaian, Guiputzean baño. (...)” (258)

Peru Abarca-ren hitzurreko 21. atalean ere ekingo dio gai honi:

“Es mui regular, que este escrito llegue a manos de algunos peritos guipuzcoanos, y que tengan por toscos el dialecto bizcaino, aunque no le podrán censurar de corrupto, y barbaro. Todos padecemos preocupaciones patrias. Un Ytaliano acostumbrado a oír y hablar un lenguaje gracioso, delicado, alagueño, por no decir afeminado, imagina que el lenguaje castellano es brusco; y a la gravedad acusa de tosquedad y barbarie: Asi tambien un refinado guipuzcoano que se ha acostumbrado a un dialecto delicado y alagueño, nota en el bizcaino, no se que tosquedad. No juzgaban asi los famosos, e imparciales Cardaveras, y Larramendi, los que hacian particular estimacion del bascuence del Pueblo del Doctor Peru. (...)” (259)

Confesiño ona liburuaren hitzurrean, orobat, bizkaicraren garbitasuna eta jatortasuna aldarrikatu beharrean ikusten du bere burua, nonbait ere tasun bi hauek zalantzan ipintzen zirenaren ezaugarri:

“(...) Gura dabenac sinistu bizcaico cusqueriac ez deusala ecer zor quiputzenai, iracurri begui liburu onec baño leenago urtengo daben neure adisquide andi, ta gauza onétan, neure biarlagun leguez eguiten dan Aita Fray Pedro Antonio Añibarro Zarauzco Colegio A. San Franciscoco Ordean Misionarijac bizcaltarrentzat atera daben liburu chigar, bafia urre guztiac baño gueijago balio dabena. Ediroco dau Escu-Liburu onetan Bizcaico eusqueran edertó adierazo leitezala esan biar dirian gauzaac verba, nequezaleen aoetan dabilzanacaz. Bizcay barru barruco semia da bera, ta bere eusquera garbi ta ederrac ezagutu eraguingo dau nun nai icasi leitia la ondo verba eguiten buruba cerbait necatu gura bada. (...)” (260)

Luzaz dihardu halaber, eta betiere arrazoi linguistikoetan oinarrituz, **Cristaubaren icasbidea** edo **Doctrina Cristiania** liburuaren hitzurrean:

(258) MOGUEL, Juan Antonio, *Eracasteac*, op. cit., XIV-XV. orr.

(259) MOGUEL, Juan Antonio, *El doctor Peru Abarca (catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte) ó Dialogos entre un Rustico solitario bascongado, y un Barbero callejero, llamado Malsu Juan. (Zarauzko frantziskotarren etxean dagoen eskuizkribuaz baliatu izan gara)*.

(260) MOGUEL, Juan Antonio, *Confesiño ona...*, op. cit.

“La variedad de los dialectos es tambien una de las dificultades al primer aspecto insuperables. Todos ellos se reducen en suma à tres. El Vizcaino, Guipuzcoano, y Navarro, ò Lavortano, sin embargo de que aun entre estos hai tales quales variaciones. Qual de ellos deba ser preferido, yo no lo dirè, por que seria disgustar à mas de uno. Solo si, que el Guipuzcoano es mas afectuoso, y su tal qual ventaja consiste, en que asi los Vizcainos, como los Navarros le oien con gusto, y le entienden quando por el contrario, no se entienden estos mutuamente (261). Pero tambien es gran necedad, querer preferir por tema unas voces à otras. *Barre, o farra, sucaldia, edo escaratzá, gura, edo nai, celan, edo nola, le-guez, edo becela, ò las terminaciones en ea, o ia, como sareá, ò saria, icustea, ò icustia &c.* Lo que yo puedo decir es, que el Vizcaino usa de mejores reglas (asi lo han confesado los Guipuzcoanos inteligentes, è imparciales) y en menos palabras dice lo que los otros en muchas. (...)

(262)

Tampoco comprendo, que ventaja pueda haver en la terminacion *quin* por *az*. Vg. Joco aut maquillarequin, maquilleaz, cigorrarequin, ò cigorraz? antes bien se pronuncia esta ultima con mas facilidad, y dulzura. Seria salir de los limites de un Prologo, si pretendiera hacer un parangon de ambos dialectos con las ventajas de cada uno. Bien sé, que los hombres desimpresionados de maximas populares, y que miran de raiz à las cosas, juzgan, que el desprecio, en que tienen muchos al dialecto Vizcaino, nace de la ignorancia, y de no haver hecho jamas el menor estudio sobre su inteligencia. Vamos al caso. Que ventaja maior se halla en la simple mutacion de las letras *a* o *e* o *u* e, *eguin dot, eguin det, eguin dau* o *deu, dozu, dezú, dabe, dute, neban, o nuan?* Con lo que pueden dar en cara à los Vizcainos es con estas barbaras voces *deutsat, neutsan &c.* en lugar de *diot, y nion*. Mas va, à que tampoco dan prueba alguna solida de su ventaja? En una palabra toda la variedad de los dialectos consiste en una friolera, y si se mira con reflexion, y sin dejarse arrastrar del espiritu de partido, se verá, que ambos tienen especiales reglas, que no las pudieron inventar los Guizones, y aun menos los hombres literatos, que no los conocia este Pais. (...)

(261) La Historia y Geografía de España..., op. cit., 230. orr., lanean ere berdin min-tzo zen:

“He aquí a la vista traducciones (Kenplis-aren lehen kapituluarenak, alegia) en los tres dialectos entre los cuales es más universalmente entendido el Guipuzcoano por la mayor claridad de su conjugación y porque estando la Guipúzcoa confinante con los Bascos y Vizcainos se guarda con ellos mayor trato y comunicación. (...)”

(262) Moguelek, bizkaieraren zehaztasunaren adibidetzat, euskalki honetako aditz sintetikoak (*nic dantzú; dacús; dazau... / gip. nic enzuten det, nic enzuten nuan...*) eta eroan aditzaren bidez osatutako kontsuetudinarioko esaldiak aipatuko ditu.

(...) Nada quiero hablar sobre la pureza de la lengua. Es preciso confesar ingenuamente, que està menos alterada en lo comun de Vizcaya (no hablo de Bilbao, por que parece que aquí se esmeran en sacar un *terciumquid* de la lengua castellana, y la bascongada, como alla algunos Israelitas con la hebrea, y la Babilonica). Hablo pues de otros lugares, donde tal vez no saben aun el comercio de las gentes". (263)

XIX. mende erdialdeko egoera ezagutzeko interes handiko zehaztasunak ematen dizkigu Aita Uriartek. 1859ko urtarrilaren 4an Leintzaldetik Bonaparteri egindako gutunean honelaxe mintzo zaio:

"El domingo pasado principiamos la misión que concluiremos el día 17. Predicamos en el dialecto guipuzcoano de Beterri, pues están acostumbrados a este dialecto en el púlpito". (264)

Berdin urte bereko maiatzaren 14an egingo dion beste honetan ere:

"(...) En Elgóibar sucede que la parte de la población, que se halla situada hacia Azcoitia, participa algo más del guipuzcoano, pero aún debe agregarse a Vizcaya, aunque esto no acomoda a los guipuzcoanos.

Sucede en todas estas poblaciones que *miran con desdén el bascuence de Vizcaya* y son muy apasionados al dialecto dei Beterri: los sermones y pláticas se predicán en ese dialecto de Beterri, y muchísimas personas hacen estudio de este dialecto, por cuyo motivo hacen una mezcla; pero todavía no han podido "guipuzcoanizar" al vulgo". (265)

Gutziz adierazgarria, halaber, Bonapartek Echeniqueri igorritako gutun bitan bergararren jarreraz dioena. Lehenean, 1863ko urtarrilaren 11koan, hauxe irakur dezakegu:

"(...) Quand je dis biscayen et non pas guipuscoan de Vergara, je sais fort bien que cette manière de parler déplaît à Messieurs les Vergarais qui se piquent d'être de purs guipuscoans. Je ne dis pas non, de même que je ne nie pas que les sermons de leurs curés les plus instruits et que souvent même le langage ordinaire des personnes les mieux élevées soient non seulement en guipuscoan, mais même dans la variété la plus pure de Beterri. Tout cela toutefois ne change en rien à ma manière de voir. Que les Vergarais aiment ou non les Biscayens et leur dialecte, il n'en est pas moins vrai que la variété basque de Vergara qui s'étend

(263) MOGUEL, Juan Antonio, *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina Cristiania*. (Aran-tzazuko frantziskotarren etxean dagoen eskuizkribuaz baliatu izan gara. Eskuizkribu honen fotokopia José Antonio Aranaren jendetasunari esker eskuratu genuen).

(264) RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., "Cartas del P. Uriarte...", ASJU, I (1954), op. cit., 80. orr.

(265) RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., "Cartas del P. Uriarte...", ASJU, I (1954), op. cit., 83. orr. Azpimarratua gurea da.

jusqu'à Anzuola, (le guipuscoan, de ce côté, ne commence qu'à Villareal y Zumarraga), il n'en est pas moins vrai, dis-je, que cette variété vergaraise telle qu'elle est en usage parmi le bas peuple et les paysans, appartient linguistiquement parlant au biscayen oriental. (...) (266)

Bigarrenean, 1866ko abenduaren 15ekoan, berriz:

"(...) car je sais très bien que les vergarais instruits, surtout à l'église, font usage du dialecte guipuscoan le plus pur et non pas de la variété *biscayenne* en usage chez le bas peuple. (...)" (267)

XX. mendera etoriz honako lekukotasun hau emango digu Altubek:

"Es sabido que en la conjunción de los territorios de Vizcaya y de Guipúzcoa, hay una vasta zona lingüísticamente vizcaina; pero que administrativamente forma parte de la llamada provincia de Guipúzcoa. Dicha zona comprende ampliamente todos los pueblos situados a derecha e izquierda del río Deba en todo su recorrido hasta Malzaga. (...)

Pues bien: todos estos miles de habitantes, cuyo idioma propio es el euskera neta y puramente vizcaino, prefieren para la lectura el guipuzcoano, lo entienden perfectamente y la mayoría hasta lo habla en forma aceptable.

¿A qué obedece este fenómeno? Sencillamente a que el Obispado de Gazteiz envía a las parroquias de esos pueblos, casi siempre, sacerdotes de Guipúzcoa, pero de toda ella, sin distinción de zonas lingüísticas: y los que llegan de *Beterri* (así llaman en los pueblos cuestionados a los de habla guipuzcoana) predicán y rezan en este su euskaldi, y aun los de *Goyerry* (o sea los de habla vizcaina) también lo hacen en guipuzcoano, que lo aprenden con facilidad durante su vida de seminaristas, al contacto, en el Seminario, con los euskaldunes de *Beterri*.

Toda la predicación y demás actos religiosos en las iglesias de los guipuzcoanos de habla vizcaina se efectúan, pues, con pocas excepciones, en el euskaldi guipuzcoano, y esto basta para que los habitantes de dichas zonas, como queda dicho, lo entiendan sin dificultades, lo hablen pasablemente y, lo que es más interesante, lo prefieran en los libros de misa, en la Doctrina Cristiana y en toda clase de lecturas". (268)

(266) URQUIJO, Julio de, "Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte...", RIEV, IV (1910), op. cit., 257-258. orr.

Bonapartek' dioena egia izatera, bestalde, hauxe izango litzateke -guk dakigula- euskalki bataren ala bestearen erabilera hiztunen maila sozialaren arabera banatzen delakoaren lehen lekukotasun esplizitua.

(267) URQUIJO, Julio de, "Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte...", RIEV, IV (1910), op. cit., 295. orr.

(268) ALTUBE, Severo de, La Unificación del Euskera Literario, op. cit., 202-203. orr.

Altubek, jarraian, Azkueri gertatua aipatzen du. Berau Arrasatera deitua izan omen zen, herriko jaiak zirela eta, Meza Nagusia esatera eta, bertan, bere predikuari bizkaieraz ekin bazion ere gipuzkerara aldatu behar izan omen zuen:

“Hacia la mitad de la peroración, cayó en cuenta de lo que creyó im-
perdonable distracción, por lo que, interrumpiendo el sermón por un mo-
mento, se disculpó ante los oyentes y prosiguió su labor en el “lenguaje
oficial”, en puro gipuzcoano”. (269)

Gauregun ere bizi-bizirik diraute aurreritzi hauek. Villasante, Oñatiko hizkera aztertzen duelarik, ondo jabetzen da bertoko hiztunek euren hizkerarekiko daukaten lotsaz. Bi arrazoi aipatzen ditu eritzi horren iturburutzat: gaztelaniatik hartutako mailegu ugarietz euren hizkera “zikindu” izana lehena, eta honako hauxe bigarrena:

“Beste arrazoi bat ere ba da, nere ustez, txar konpleju ori esplikatzeko. “Euskera ona, Tolosa aldekoa. Kiputz-aldekoa”. Lelo au ere maiz entzuten da. Sermoi, itzaldi eta liburuetarako beti euskera ori erabiltzen da. Eta hori eskatzen du jendeak ere. Emen Oñatin ere bai. Ango euskera apain eta dotoretzat jotzen da. Bertsolariek ere ura maite dute. (...)” (270)

Gauza bera omen zioen Candido Izagirrek Oñatin bildutako hitz zerrendari egin hitzaurrean:

“Oñatiarrak beren izkerakin lotsatu egiten dira: beren ustez Tolosa-
aldekoa da ederrena, ta kanpokoakin itz egiterakoan berena aldatzera egi-
ten dute. (...)” (271)

XX. mendean zehar –eta nonbait ere badu honetan eraginik, bizkaierak, gai-
nontzeko euskalkietatik saihesteko egin izan duen ahaleginak–, bizkaitar ez direnen-
gan areagotu egingo da euskalki hau “zaila” eta “ulerkaitza” delakoaren ustea (272).
Horixe omen zioen Etcheparek 1921eko agorrilaren 12an Eskualduna aldizkarian
argitara emandako artikulua baten:

“Ausarta banindadi, kitzikaño bat nezoke egin bakarrik. Gogorra
da, dorpea, askotan truskila, bizkaitarren euskara. Garbiago zauku, leuna-
go ere mendiez hunaindian derabilaguna, nahiz den gutien bat aberatsago

(269) *Ibidem*, 203. orr.

(270) VILLASANTE, A. L., *Oñatiko Euskera*, op. cit., 82. orr.

Ezaguna da, eta dirudienez aspaldikoa, bertsolari bizkaitarrek gipuzkerara jotzeko ohitura hori. Halaxe zioen behintzat Wunt-ek (WUNT, OTTO, “El bertsolari vasco”, *Euzkerea*, VII (1935), VIII. zb., (508-516), 511. orr.), 1935ean argitaratutako artikulua baten:

“(…) muchos son hoy en día los poetas bizkainos que llevados por su amor al «gipuzkera» lo usan en su verbo y algo de su sintaxis. Amigos bertsolaris tengo yo que inconscientemente quizá en sus improvisaciones dejan sus estrofas plagadas no solo de voces de gipuzkelgi si nó aún de sus formas verbales. Podrá hacerse el aprecio que se quiera de estos hechos, que no dejan por eso de ser menos ciertos. (...)”

(271) VILLASANTE, Luis, *Euskera*, XXVI (1981-2), 922. orr.

(272) Bizkaiera dugu, gainera, joera garbizaleek eraginik sakonena izan duten euskalkia.

hangoa. Ahopaldia bertzalde luzeago, eta itzulika gehiagorekin, bizkaitarrak. Irakurtzen dugularik, ezin adituarekin askotan buruan min emaiten dauku. (...)" (273)

Kezkati azaltzen da Lizardi idazle giputza, jarrera hau dela eta, Argia-n 1932ko otsailaren 9an argitaratutako artikulu baten:

"Lauaxeta"ren "Bide Barriak" ez omen dezu irakurri, bizkaierazkoa ote-dalako, ta zuk gipuzkera baizik ez dakizulako.

Bizkaiera, gipuzkera, lapurdiera, guziak dira euskera, ta euskera eder. Guziak bear ditugu mami-mamiko. (...)" (274)

Honela mintzo zaio Baztarrika'tar Isidor Aita Onaindiari, 1959ko agorrilaren 28an egin gutunean:

"Bialdu mesedez guri ere OLERTI aldizkari berria. Aita Goiriak esanda Karmel zabaltzen saia nintzen [Lazkaon, alegia], banan ezin, bizkaieraz dala ta ez dute artu nai. (...)" (275)

Maiz azaleratuko da bizkaitarren lekukotasunetan gipuzkerak eurengan daukan prestigioaren eragina eta sortzen duen lilura antzekoa baina, honekin batera, baita giputzengan gauza bera ez gertatzearen kezka ere. Halaxe zioen Madariagak 1920ko txosten baten:

"(...) Nik dakidanez, bizkaitar'ak eta bezte euskaldunak e'razago ikasten dabe gipuzkoerea, gipuzkoar'ak beste euskalkiak baño. Nire ikastaroan bizkaitar' eta gipuzkoar' asko izan dodaz lagun, eta bizkaitar' geyenok saiatu gara gipuzkoera ikasten, gipuzkoar'ik bat bere ez gure euskera ikasten (...)" (276)

Egoera bera erakutsiko du Oskillasok:

(273) CHARRITTON, Piarres, Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak, Elkar, Donostia, 1984, 207. orr.

Ondoren (207-209. orr.) Alubek Euskalduna-n 1921eko irailaren 2an argitaratutako erantzuna aldatzen du Charritonek, bertan zera irakurtzen delarik (208-209. orr.):

"J. E.-k bertze alde agertzen daukun hizkuntz-jakiura ikusiz, azken hitzok, berak idatzi ote ditun ezin sinetsiz irakurri ditugu. J. E.-k ontsa baitakike dorpetasun ala leuntasun horiek, irudipen hutsa baizik ez direla. Nehor ezta bere herriko mintzera leunen eta bigunen etzazionik.

Nik, nerez (sinetsiko daut J. E.-k) Bizkaiko euskara dut, alde guzietarik ederrenentzat, goxoentzat; eta nihoiz hau utzita bertzerik neretzakotu balin baneza, ez liteke hobetzat eritziarik; horiek bezelako erizkizun eta maitasun guzien gainetik, gure euskara kutun hunen bizitza eta euskaldun oroaren batasuna nahi gintuzkelakotz baizik".

(274) AGIRRE'tar Joseba Mirena, Itz-lauz, op. cit., 103. orr.

(275) ONAINDIA, S., Eskutitzak, Bilbao, 1974, 136. orr.

(276) MADARIAGAR' Angeru Aba, O. F. M., "Euskerearen bakuntzeaz", Euskera, III (1922), I. zb., (58-61), 60. orr.

“(…) askoz gehiago zabaldu da bizkaitarren arte gipuzkera beste euskaldunen arte bizkaiera baino. Bethi arkitzen dira kaletarren arte gizonen batzu gipuzkeraz ulertzen dutenak, eta erderaz eztakian giputz bat ezta geldituko ixilik Bizkaiko herri batera joaten bada. Beharrezkoa da bizkaiera be hunenbeste guttienez zabaltzea Gipuzkoa eta Nafarroako herrietatik. (...)” (277)

Baina berak ematen du jarraian gaitz horren arrazoa:

“(…) Bizkaitarrak lotsatu egiten dira euren euskaraz Bizkaitik irteteko gauza eztala ikusirik eta erderaruntz bultzatuak sentitzen dira. (...)” (278)

Sarritan jardun izan du gai honen inguruan Aurre-Apraiz jaunak:

“(…) Baiña daitekenik osoen egin ba-gengi be [bizkaiera osatu bat, alegia], arerio larregi izango leukezala bizkaiereak nik uste. Gorrotoa bere artuko leuskiue, barriz, baten batzuk. Beifolako batzar baten kiputz batek negargarriro adirazi ebanez, beintzat, bizkaiera etxako “*bat ere atsegin*”. Mogel’enak “*irakurtzen asi eta askotan erortzen*” ei yakoz “*bizkaiera kutsua duelako*”. Eta, “*beste askori ere*” bardin jazo dakiokela uste dau.

Ezin ulertu daiket zelakoa dan euskeldun batzuen euskeltzaletasuna. Guk bizkaitarrok, geienok beintzat, pozarren irakurri daroaguz (zein euskelkitan irakurten gagozan be oartu bage, sarritan) beste izkelgietako lanak be, ta geurea, besteak irakurteko gaiez ezeze, gorrotogarri bere ba-da, antza, batzuentzat. Geu bizkaitarrokandik landa gure berbetea ifñok irakurri be egiten ete daben pentsamentua bere izan daroat, sarri. (...)” (279)

XX. mendean zehar, dena dela, alderantzizko jarrera bat ere nabari da. Bizkaiera jaso eta prestigidun euskalki bilakatzeko lehenbiziko saioak azaltzen dira. Zeri-

(277) OSKILLASO, “Thardespen bat Mitxelena jaunari”, Egan, XXII (1963), nº 4-6, (162-181), 164. orr.

(278) Ibidem, 165. orr.

Ikus ere egile beronen *El libro negro del euskara*, op. cit., 213-215. orr.

(279) AURRE-APRAIZ, “Ni, neu, zu, zeu...”, Egan, XXII (1963), nº 4-6, (183-186), 185. orr.

Eritzi berari eutsiko dio *Batasuna dala-ta* izeneko artikuluan (AURRE-APRAIZ, “*Batasuna dala-ta*”, Egan, XXIII (1964), nº 1-6, (48-50), 48-49. orr.):

“(…) Gaitza da, antza, gurea, enpauzentzat. Ba-doguz kiputzak eurak baizen ondo, edo obeto, kipuzkera idatzi daroen bizkaitarrak, baiña beste izkelgietakorik bat bere ez dazaut gurea taiuz idatzi dagikenik. Kiputz-artean daitekean bizkaitarrak beingoan artu daroa arein izkerea. Baiña bizkaitarren artean daitekean kiputzak gogor eutsiko dautso bereari. Ain gaitza ete, ba, gure berbetea beste euskelkietakoentzat? Bizkaitarrai atsegin dakioe kiputz itz egitea. Bada gure arandegietako bertsulariek be bertsuak kipuzkeraz lorrintzen ekin daroatse, geienak; geurea baiña a bertsuetarako bigunago ta egokiagoa dala sartuta daukie, ba, buruan, askok, kiputz-bertsolarieri geureeri baiña sarriago entzun izan dautsielako ez ete?”

... /...

kusi estua somatu uste dugu jarrera honen eta gorago luzaz aipatutako bizkaieraren berezitasuna aldarrikatzearren eta gainontzeko euskalkietatik ahalik eta gehien urrun-
tzearren egiten diren ahaleginen artean. Bizkaieraren jatortasun eta aberastasun lin-
guistikoan oinarrituko dira, faute de mieux, euskalki hau goratzeko ematen diren
urratsak. Ondorio legez, euskara bateraturako eredutuz bizkaiera hautatzeraino ere
iritsiko da. Jarrera hau XX. mendean gauzatzen den arren ezin ahaz dezakegu, ordea,
XIX. mende amaierako idazle bizkaitarren eragina, Arana-Goirirena bereziki. Nabar-
mena da honengan bizkaieraren aldeko zaletasuna:

“Parece ser que el *euskeldun* que mejor entiende a los que no ha-
blan su dialecto es el bizkaino. Diríase que el Euskera Biskaino compren-
de de alguna manera dentro de sí a los demás dialectos. Algo de esto hay,
en efecto, porque la flexión activa bizkaina DOT (lo he), por ejemplo,
comprende en sí a la guipuzcoana DET y la laburdina DUT: pues mien-
tras aquella forma es permutación *pura* de la primitiva DAUT, la laburdi-
na es permutación *eliptiva* de la misma, y la guipuzcoana, permutación
también *eliptiva* de DEUT, degeneración de DAUT (...) y sabido es que
las diferencias dialectales estriban principalmente en la conjugación y en
la fonética, y que el Euskera Biskaino es en el que ofrecen más complica-
ción el desarrollo fonético y el verbal. (...)”

Nolanahi ere den, ez du Arana-Goiri zaletasun horrek itsutuko eta ondo jabetu-
ko da bizkaieraren mugez jarraian aitortuko duen bezala:

“(…) Por aquella razón de ser el Euskera Biskaino menos compren-
sible para el *euskeldun guipuzcoano*, que el de éste para el bizkaino, y
porque las obras literarias que el primero ha producido son incomparable-
mente más escasas que las guipuzkoanas, este último Euskera va ahogan-
do paulatinamente al nuestro, en especial al oriente y en la costa. (...)”
(280)

... /-

Baita oraintsuagoko beste baten ere (AURRE-APRAIZ, “Bizkai’ko Euskerea ta kiputxak”,
Golz-Argi, 1975 -Dagonilla- 20, 255. zb., 6. orr.):

“Gureizat, bizkaitarrontzat, erreza da kiputxen euskalkia. Gipuzkoarren artean dabi-
llan edonok, bibeoan ikasi oi dau kiputx itz egiten. Baiña, kiputxak eurak, naiz-ta
bizkaitarren artean luzaro ibilli izan, nekez jo daroe gurera. Oarrikasiz (esperien-
tziz) dakit, diñodan au. Aitatzeak berak bere biotza illundu daroztan tokietan urte
bat baiño be geiago egiña nozue, gipuzkoarrakaz. Mutil onak ziran, izan bere, ta
alkarren lagun zintzoak giñan. Baiña, ez dot uste, bizkaiera asko sartu zatekeanik
arein biotz-belarrietan: Eurena beti, ta gurea aintzat artu bere ez. Guk geuk, oztera,
bigun eta polit deritxagu, ta, kiputx egitea gogoko izan oi yaku.

Zer dala-ta ez dakit baiña, nik neuk uste dot kiputxeri gaitz egiten dakiola Biz-
kai’ko euskerea: Orixek berak be ez eban ondo menperatzen; eta, gitxi be gitxi eza-
gutu izan dodaz bizkaieraz itz egiten dakien kiputxak. Izan dira eta ba-dira, gipuz-
kera osotuan ederto idatzi daroen bizkaitarrak. Baiña, ez dot ezagutzen Bizkai’ko
euskera ondo idazten dauan gipuzkoar idazle bakar bat bere. Kiputxak daitezke, ba,
gipuzkera osotuan zabalatasunik gixtienez idatzi dagikeenak...”

(280) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Lecclones de Ortografía...*, op. cit., 823. orr.

Argiago eta zehatzago azalduko da helburu hau Arana-Goiriren jarraitzaileengan. "Txadon-zaya"-k izenpeturik Euzkerea aldizkarian argitaratutako lantxo baten (281) giputz eta bizkaitar biren arteko alegiazko elkarrizketa hauxe erakutsiko da:

– Bizkai-euzkeria be poliño erabilten dokala yirudik.

– Geyena zeukaz ikasi nayuan Gazteiz'en gudaritzan, ostantzian Peru Abaña, Ařese-Beitia ta "Kirikifo" ixan zuazan nire irakasle onenak.

– ¿Atsegin yak, ala?

– Mañiena giputzera yuat; baña nire jakiñe laburak etxok afkitzen edo afkietan bizkayerea baño euzkelgi erabatekuagorik, osuagorik eta antziñagorik.

– ¿Zer esan gurok erabateko ortzaz?

– *Uniforme*, mutil, *uniforme*.

– ¿Eta bizkayera antziñakoena?

– Bai, mutil; erabatekotasunak antziñatasunera naruak; egija dok bai-dabiltzala ondiño bixirik an Laburdi ta Zuberu-aldian emen antxiña galdu ziran ots batzuek, Alphe, eta H' ta abañ; ostantzian eztok Bizkai'ko aditza baño aditz garbi ta erabatekogarik.

– Zantařena be bera ei-dok.

– Zantařa ta dorpea yiñuek; irakuñi begijez Ařese-Beitia'ren oleřki-jak eta erantzun begije egija".

Eritzi hauek sendotzera etorriko da Nabañiztařak aldizkari berean argitaratuko duen beste artikulu bat (282):

"Euzkera osua mañe-ixan biar dogu; euzkelgi oro ikasi ta landu. Bizkañafok, baña, bizkayerea, geure-geuria dogun euzkelgija, mañien ixan eta geyen landu biar.

Bizkañar euzkel-idazle ezeinbatzuk, bañiz, geure euzkelgijau basterfu ta bertanbera utzi gura edo-dabe. Itxukerijaren lañija! Bizkañara eztan Txadon-Zaya zintzuak, ordian, bizkayeraz idatzi dausku lengo EUZKEREARE'n, eta beria eztaun euzkelgijau goraturik idatzi be (...).

Bizkayerazko aditza garbijena ta erabatekuena ba-da, bizkayerazko izpijakerea, Arana-Goiri'k araupetu lebanezkero, aditza baño be argijagua ta erabatekuagua da. Zer dala-ta basterfu gura, ba, onako euzkelgija, Bizkaya'n, Araba'ko eñi euzkeldunetan eta Gipuzkoa'ko sarkalde gustijan,

(281) TXADON-ZAYA, "Ander ta Kepa", Euzkerea, I (1929), X. zb., 200. orr.

(282) NABAÑIZTAŘA, "Bizkayerea", Euzkerea, I (1929), XI. zb., 221. orr.

Eibar, Bergara, Arasate, t. a., erabilten dan bizkayera edera? Euzkera bakafera jo biara dogula-ta? Euzkera bakafera joteko be bide okera litzake ori: oretara euzkera bakafera-barik euzkera-zati bakafera, euzkera moztura, joko leuegu. Euzkera osua bateratu baño lenago euzkelgi bakotxa bateratu ta landu biar dala, idatzi leuskun Irakasliak, orain iramar ta bost urte. (Ort. Euzk. bizk. 24).

Landu dagigun, ba, bizkayerea, bizkaiafok geure-geuria dogun euzkelgi zar-edera”.

2.3.3. LITERATUR EUSKALKIAK

Lau literatur euskalki sortu eta garatu dira Euskal Herrian historiaren harian: lapurtera, gipuzkera, bizkaiera eta zuberera. *Lapurtera* da, denon artean, mailarik gorena eta kohesiorik handiena erdietsi duena. XVII. mendeko idazleek eta, bereziki, Axularren Guero-k bereganatutako prestigioak (283) eman diote kohesio hori, euskalki hau arautzeko asmoz egin izan diren gramatika eta hiztegiak ez bait dira oso berandura arte argitaratu (284). Lapurteraren lehentasuna ia erabatekoa da XVIII. mendera arte Sarasolak, argitaratutako liburu guztiak kontutan hartuz, egiten duen taulan ageri denez:

XI. TAULA
Euskal Literaturaren argitarazioa
menderdiz menderdiz eta euskalkiz euskalki (285)

EUSKALKIAK	XVIIb	XVIIa	XVIIb	XVIIIa	XVIIIb	XIXa	XIXb	GUZTIRA
Bizkaiera	-	-	-	2	9	38	27	76
Naf-Gipuzkera	-	-	-	8	45	46	96	195
Naf-Lapurtera	3	11	21	18	36	81	89	259
Zuberera	-	-	4	6	13	21	13	58
GUZTIRA	3	11	25	34	103	186	225	588

(283) Leizarragak landutako euskararen balioa ez da XX. mendera arte behar adina azpimarratua izan.

(284) Horien artean daude Silvain Pouvreau, Pierre d'Urte eta Sarako Etcheberriren gramatika lanak. Oraindik ere argitaratzeko daudenen artean, ostera, Pouvreau eta Harrieten hiztegiak ditugu eta badira, azkenik, galdutzat ematen direnak ere: Ziburuko Etcheberriren hiztegi eta gramatika lanak (Oihenarten lekukotasunari esker ezagutzen ditugunak), Sarako Etcheberriren hiztegia (Larramendik aipatua)..

(285) SARASOLA, Ibon, Euskal literatura numerotan, op. cit., 107. orr.

XVIII. mendean zehar, eta goi mailako idazlanik sortzen ez delarik, gainbehera etorriko da nagusitasun hori (286), nahiz eta sekula ere ez den erabat itzaliko. Maiz aipatu da, adibidez, gipuzkoar idazle zaharrek lapurterarako izan duten isuria, hala nola, Lardizabal (287), Ubillos (288), Asteasuko Agirre edo Iurriagak eta XX. mendean bertan ere, inoiz baino larriago gainera, bizirik iraungo du isuri horrek, Lizardi, Orixé, Krutwig, Mirandé, Aresti, Villasante... lekuko.

Lapurteraren nagusitasuna hondatzearen ondorioz, gainontzeko euskalkiek –baina bakoitza bere eremuan, nahiz eta lapurteraren eragina Iparraldean eta gipuzkerarena Hegoaldean nabarmena izan den– beteko dute eginkizun hori (289).

Gipuzkerak lapurteraren maila behin ere eskuratuko ez duen arren, hasieratik bertatik emango dira euskalki hau arautzeko urratsak. Guztiz erabakiorra da, eta gipuzkerarentzat ezezik baita euskararentzat oro har ere, Larramendiren Gramatika eta Hiztegiaren eta Cardaberazen Gramatikaren eragina.

(286) Lafiten eritziz (LAFITTE, Pierre, *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Aintzina, Bayonne, 1941, 43. orr.), Lapurdik bizi duen krisialdiaren ondorioa litzateke eten hau:

“Le XVIII^e. siècle est un moment de décadence pour le Pays basque français. La région se trouve soudain dans la misère. Le traité d'Utrecht (1713) lui a fermé les portes du Nouveau Monde: plus de débouchés pour ses multiples industries locales naguère florissantes. Le malheur économique n'est pas favorable aux Muses”.

(287) Azkue frogatzen ahaleginduko zenez (AZKUE, Resurrección M^a de, “Lardizabalen Testamentu zarreco ta berrico condaira”, *Euskera*, IX (1928), IV. zb., 337-349. orr.), Lardizabalek bere Testamentu zarreco eta berrico condaira (1855) itzultzerakoan begien aurrean omen zeukan 1775ean Larreguyk egina. (Ikus, halaber: MENDIZABAL, Aita Fernando, “Lardizabal'en euskeraz zertxobait”, *Euskera*, I (1956), 21-43. orr.)

Aita Uriartek, berriz, 1857ko agorilaren 17an Bonaparteri egin gutunean (RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., “Cartas del P. Uriarte...”, *ASJU*, I (1954), op. cit., 54. orr.), ohar hau egingo zion Lardizabalen euskara zela eta:

“(…) Lardizábal usa, cuando necesita términos de los cuales se hace más uso en el labortano que en el guipuzcoano, v. gr. *albarría, sorayoa, otoiztu, cillegui* y otros (…)

(…)

Hago estas observaciones a fin de hacer ver que, habiéndose propuesto Lardizábal hacerse entender en el bascuence guipuzcoano en todos los dialectos, se valió de estos medios. También las hago para que no se crea que todo término que se lee en Lardizábal es guipuzcoano y menos de Beterri. (…)”

(288) Ubillosi buruz, ikus, esate baterako: MICHELENA, Luis, “Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak”, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, op. cit., (259-278), 276-277. orr.

(289) Torrealdayk dienez (TORREALDAY, Joan Mari, *Euskal idazleak, gaur...*, op. cit., 189. orr.), gero eta adierazgarriagoa da idazle gipuzten nagusitasuna. 1900era artekoan idazlego guztiaren 30%a da gipuzkeraz mintzatzen den eskualdeetan jaioa, 22,5%a bizkaierazkoetan eta 14,5%a lapurterazkoetan. 1900etik 1936ra bitartean gipuzkerazkoetan jaiok 42,5% dira eta bizkaierazkoetan sortutakoak 37%. Gerrostean gipuzzak azaltzen dira nagusi, idazlego guztiaren 68% osatzen dutelarik.

Bizkaierari dagokionez, eta Añibarroren asmoak gorabehera (290), ez da 1848ra arte arautze lanik argitara emango (291). J. A. Moguel, Añibarro eta abarren liburuak izango dira hizkuntz-eredu bakarrak (292).

Zubereraz den bezainbatean ere, XIX. mendekoak ditugu arautze saio aipagarrienak, Archu, Inchauspe, Gèze eta abarren lanak lekuko.

(290) Nabarmen ageri da Añibarrorengan bizkaiera literatur euskalki mailara jasotzeko nahia. Helburu horrexekin bizkaieratuko zuen Axularren Guero eta euskalki honen gramatika eta hiztegia burutuko. Halaxe aitortuko zuen berak ere (AÑIBARRO, Fr. Pedro Antonio de, *Gramatica bascongada...*, op. cit., 14. orr.):

“(...) Tengo concluido un Diccionario de poco volumen de Voces bascongadas diferenciales (...). También tengo traducido al dialecto Bizcayno el famoso libro de Guero guero de Axular, Ciceron bascongado, y de quien hace particular elogio el P. Laramendi. Con este Arte, Diccionario, y Axular tenía uno quanto necesita para hacerse un excelente bascongado. (...)”

Añibarroren lanok, ordea, ez dute XX. mendera arte argia ikusterik izan: 1923an ekin zion RIEV-ek Guero-ren bertsioa argitaratzeari (eta horretan ziraucen 1936an aldizkaria izali zenean), 1963an argitaratu zen hiztegia eta 1969an gramatika.

Aurreragoik ere bazen Micoletak 1653an burututako gramatika laburra, baina hau ere ez zen XIX. mende amaiera arte argitaratu.

(291) 1848an argitaratu zen Juan Mateo Zavalaren *El verbo regular vascongado del dialecto vizcalno*.

(292) Bizkaiera literarioaren sorreraz ikus: URGELL, Blanka, “Literatur bizkaieraz: Añibarroren esku-liburua”, ASJU, XIX-1 (1985), 67-117. orr.

III. ATALA

EUSKARAREN STANDARDIZAZIOA XX. MENDERA ARTE

III. EUSKARAREN STANDARDIZAZIOA XX. MENDERA ARTE

Hiru jarrera nagusi somatu uste ditugu XX. mendera arteko epearen luzezabalean euskaraz (euskara erabiliz zein euskara gaitzat izanik) aritu izan direnengan:

a) korapiloa ezin askatzearen beldurrez euskara bertan behera utzi eta erdaretara jo izan dutenena,

b) euren sorterriko edo eurek zekiten hizkeraz baliatu izan direnena, eta

c) auziari nola edo halako irtenbidea aurkitzen ahalegindu direnena.

Azter ditzagun banan-banan:

3.1. LEHEN JARRERA MOTA: ERDAREK EUSKARA ORDEZKATZEA

Maiz jazo ohi da euskalki ezberdinetako hiztunek, elkar ulertu ahal izateko "gaindiezinezko" oztopoak dituztela ikusirik, erdaretara jotzea. Irtenbide hau askozaz ere premiazkoago bihurtuko da idazterako garaian, zabalagoa bait da orduan hartu nahi den irakurle kopurua. Esan beharrik ere ez dago era honetako jarrerekin atzeratu eta eragotzi baizik ez dela egiten euskararen standardizaziogintza, erdarekiko menpekotasuna gero eta larriagoa egiten den bitartean.

Aztergai daukagun epe honetan PEÑAFLORIDAKO KONDEArena genuke aipatzen dugun jarrera honen frogarik argiena. Honek beronen *El borracho burlado* (1764) operan egiten dituen oharren artean honako hau aurkitzen dugu:

"(...) acabo con dos advertencias.

La primera se dirige à aquellos que notaràn la mezcla, que se hace del Vascuence, y Castellano, pareciendoles mas regular el que todo fuese en uno de los dos Idiomas. Digo, pues, que mi primera idea fue de que toda esta Opera fuese en Vascuence; pero luego me saltó la dificul-

tad del Dialecto, de que me havia de servir en ella. Si me valia del de Azcoytia huviera sido poco grato à todo el resto del País hasta la Frontera de Francia, por la preocupacion que tienen contra el Vascuence, ó Dialecto de *Goi-erri*, y si queria usar del Dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastian, &c. exponia à los Actores à hacerse ridiculos; pues seria dificil que todos pudiesen imitarle bien. Por esta razon, pues, me huve de contentar con reservar el Vascuence para lo cantado, haciendo que todo lo representado fuesse en Castellano". (1)

3.2. BIGARREN JARRERA MOTA: SORTERRIKO HIZKERAZ BALIATZEA

Euskal literaturaren izaerak berak (gai erlijiosoak, herritarrak... baizik erabili ez dituelarik) baldintzatu du neurri haundi baten euskararen bilakabidea. Eskualde edo probintzia mailako irakurleak izan ditu, gehienetan, euskal idazleak gogoan eta irakurle horri mezua ahalik eta zuzenen helarazteko hizkuntza moldatzera mugatu

-
- (1) MUNIBE, Francisco Xavier María de, "El borracho burlado, opera comica, en castellano y bascuence. Escrita y puesta en musica por un caballero guipuzcoano", RIEV, I (1907), (383-408), 389-390. orr.

Argitu beharra dago, dena dela, Peñafloredako Kondeak euskara hutsez, baina "Sor Luisa" goitizenez, argitaratu zuela 1762an Gavon-sariac izeneko lantxoan. (Ikus, orain, ARESTI, Gabriel, Teatro zaarra, Auspoa, San Sebastián, 1965, 47-77. orr.)

Euskara bultzatzea zen, bestalde, 1764an sortu zen, eta Muniberen eraginari esker batipat, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País elkartearen helburuetariko bat. Elkarte honetako kide batek burutuko zuen, hain zuzen ere, 1785 inguruan, Catálogo de voces Bascongadas con sus correspondientes castellanas dispuesto por D. F. M. de Aizpitarte, por encargo del Conde de Peñafloreda. Director de la R. S. B. (Hiztegi honi buruzko berri jakingarri ugari: KNÖRR, Enrique, Some new documents concerning Aizpitarte's dictionary, op. cit.)

Urquijok (URQUIJO, Julio de, "Un juicio sujeto a revisión. Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia", RIEV, XXVII (1936), (233-384), 308. orr.) gogora ekartzen digunez, aipatu Elkartearen arautegiko IX. artikuluan era honetara finkatzen ziren hizkuntzen ikasketak:

"(...) comenzando –dijo Urquijok– "por las nacionales, como son el Bascuence y el Castellano", y siguiendo por el latín "necesario para los que han de seguir la carrera de la Iglesia", el Francés, el Inglés y el Italiano".

Eta orrieko ohar batetan honako hau azpimarratzen du Urquijok, Kondeak bere semeari igorritako gutun batetatik:

"Tu retazo bascongado nos ha dado mucho gusto, no solo por las noticias particulares que encierra, sino por la prueba que das del afecto que conserbas á tu Lengua natiba".

Munibe bizi zen garaian euskarak zeukan statusa ezagutzeko ikus orain: SAGARNA, Andoni, "Euskara XVIII. mendean", Eusko Ikaskuntza. Hizkuntza eta Literatura, III (1984), 17-114. orr.

Munibek 1764an idatziako lan honetan isladatzen duen hierarkia nahi genuke bide batez azpimarratu, Beterriko hizkeraren prestigioa eta Goierrikoari buruzko gutxiespena adierazten bait du argi eta garbi.

da. Idazle multzo handia sartuko genuke, beraz, bigarren sail honetan baina, eredu gisa, horietariko batzuk baizik ez ditugu aipatuko.

ECHEPARE dugu ezagutzen den lehen euskal liburuaren egilea. Oso kontzientzia linguistikoko sakona erakusten duen arren (2) bere eskualdeko hizkeran, den bezalakoan, idazten du. Bete-betean gatoz bat X. Letek dioen honekin:

“(…) Detxepareren poesiak euskara arkaiko indartsu baten xarma guztia beregan badu ere, Detxeparek ez du poesi-hizkuntza berririk lantzen eta moldatzen. Eginik dagoen hizkuntza batetatik ari zaigu. (...)”

“(…) ohidurazko hizkuntza kolokial eta egunoroko baten airea somatzen dugu, eta hizkuntza ber hori eder, musikal eta adierazkor bada, ez da, nagusiki, Detxeparek landu eta asmatutako hizkuntza delako, garai hartako herri euskaldunaren mintzaira sendoa izategatik baizik (Eiheralareko populu sensualaren hizkuntza)”. (3)

Berdintsua da P. Altunaren eritzia:

“Aski harritzekoa da beste gabe Etxeparek inoiz ez agertu izana Leizarragarengan eta Axularrengan, besterik ez aipatzeko, nabari den euskara batuarekiko kezkarik. Gure poeta ez da behin ere, Axular bezala, kexu eta artega euskalkiak askotarikoak eta desberdinak direla eta; ez da batere kezkatzen eta arrenkuratzen zeinetan idatziko bere poemak; alde horretatik ez du batere dudarik. (...)”

Zein euskalkitan idatzi? Dakien bakarrean, bere herrikoan, bere herriko lagunek hobekien eta errazen adituoko dutenean.(...)” (4)

Badira euren aukera esplizituki adierazten dutenak ere. BERYAINek, esate baterako, 1621ean argitaratuko zuen *Tratado de como se ha de oyr Missa* liburuaren sarreran ohar hau egingo zuen:

“Escriuo en Romance, y bascuence lenguages deste Obispado, y aunque en diferentes partes del ay en algunas cosas, diuersos modos de hablar, yo escriuo el que se habla en Pamplona, Cabeça deste Reyno, y Obispado de Nauarra, que es el que se habla en la mayor parte del, donde se habla bascuence, y el que mejor se entiende en todas las partes, y quando a alguno le pareciere, que en algunas cosas no se entiende, delo que escriuo en Romance puede sacar el bascuence que se vsa en su tierra (...)”. (5)

(2) Ikus, honetarako, prosazko sarrera eta XIV-XV. kantuak.

(3) LETE, Xabier, “Xabier Lizardi, edo poesia gailen”, Xabier Lizardi, olerkari eta prosista, Jakin, Arantzazu-Oinati, 1974, (13-43), 14. orr.

(4) ALTUNA, Patxi, “Etxepare, herri poeta”, Euskal linguistika eta literatura: bide berriak, op. cit., (321-341), 328. orr.

(5) BERYAIN, Juan de, *Tratado de como se ha de oyr Missa*, escrito en Romance, y Bascuence, lenguages de este Obispado de Pamplona, Pamplona, 1621.

XIX. mendera etorri, argi eta garbi mintzatuko da *Icasiquizunac* libururen "Iracurliari" eskaintako hitzaurrean PRAI BARTOLOME idazle markinarra:

"Verbeetia imini dot neure erricua; daquidana. Eusqueeraco guztietati apaindubecna, ederreena, ta eztiubeena izan ez arren; izan leiteque, Euscaldunen baztar bateti bestera, eche guztietan dei eguinda, iragota, cer naidaven, onduen zaarrai, ta gaztiari aituco deutseena, ta adierazoco deutseena. Alan uste dot. Ta jazozat Naparruan, Quiputzetan, ta Vizcaijan, eldu nasan lecubeetan". (6)

Antzerako arrazoiak ematen zizkien ASTARLOAK, 1816an argitaratutako *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac* liburuan, "Euscaldun arima-zain jaunai":

"(...) Euzqueriari beguiratuten bajaca, uste dot edocein Vizcaico erritan aituco dala. Marquinacua da nire euzqueria, ainche aci ninzalaco. Vizcaico erri ascotan predicadu dot euzqueraz, eta gustijetan esan deuzte, ondo, eta ondo aitu dabeela esan dodana. Baderitzat, esacune bat, edo beste ezuala erri gustijetan aituco, albuan ifinten deuztat beste ordeco bat, erderiagaz nastaduba bada bere. Ezta erraz, erri gustijetaco itzcune modura esatia, eta guichijago escrivietia. Lecu batzubetan dinue, *bacocha*: beste batzubetan, *bacotza*. Emen *Santua*, an *Santuba*. Erri baten *garija*, beste baten *garia*. Onec *ichasoa*, arecc *ichasua*. Ascoc *ordea*, eta *ordezcua*, beste ascoc *ordia*, eta *ordiazcoa*: bafia Arimazaina, edo Curia ezta onetan gurratu biar. Esan begui bere errico modura, eta bere enzulac onduen aituco deutzena (sic) leguez, eta auxe izango da itzcune, edo euzqueraric onen, onecna: bafia jaquin beguije, obeto aituten dabeela euzquera on bat, erdi euzquera, eta erdi erdera bafo". (7)

3.3. HIRUGARREN JARRERA MOTA: IRTENBIDEREN BAT BILATU NAHIA

3.3.1. IDAZLE ZUBEROTARRAK. LEIÇARRAGA. JOANNES D'ETCHEBERRI.

Aipatutako bi jarrerez gainera euskal literaturgintzaren hasieratik bertatik soma daiteke zenbait idazlerengan ahalik eta irakurle multzorik zabalenera iristeko nahia, horretarako, norbere hizkera soilari ez askietsiz, hizkuntz-eredu hedatuagoetara jo beharraz arduratu direlarik.

(6) SANTA TERESA, Aita Prai Bartolome, *Jaungoicoaren amar agindubetaco lehen-go bosteen icasiquizunac*, Iruñean, 1816, VIII orr.

(7) ASTARLOA, Aita Fr. Pedro, *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac*, celnzubetan azalduten dan Erromaco catecismua, (I. vol.), Bilbon, 1816.

Nabarmen ageri da ardura eta kezka hori aspaldiko idazle zuberoarren: Sauguis, Oihenart edo Tartasengan esate baterako. Badirudi zuberera bazter euskalkia eta hiztunetan urri izateak bultzatu dituela bertoko idazleak irtenbide hori hautatze-
ra, auzo euskalkietara hurbiltzen ahaleginduz.

Oso adierazgarria da OIHENARTen kasua. Beronek gutun modura tajututako lantxo baten (8), atzerriko literatura ezezik Euskal Herrikoa ere hurbiletik ezagutzen zuela aditzera ematen zaigu. Echepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (9), Aita Haranburu poeta, Donibane-Garaziko Jean d'Etchegaray poeta eta pastoralgilea, Arnaud de Logras poeta baxe-nafarra eta Ziburuko Joannes d'Etcheberri daude aipatzen dituen idazleen artean. Bizkaiko eta Nafarroa Garaiko kanta bi ere badakar-tza, nonbait ere euskalki hauetan sortzen zena ezagutzen zuenaren frogagarri.

Jakina da, bestalde, Silvain Pouvreau-rekin izan zuen harremana, azken honi beronen hiztegia burutzeko laguntza eman bait zion.

Harreman eta ezagutza honen ondorioa da nonbait, Oihenarten izkribuetan na-bari den hizkuntzari buruzko ikuspegi orokor hori.

TARTASi dagokionez, hauxe da 1666an argitaratutako *Onsa hilceco bi-dia* liburuaren hitzaurrean dioena:

“Ené euscara, eta lengagia eztaquit aprobatia içanen denéz, bai, ala ez, badu orotaric çerbait, çuberoac, Bassanauarrec, eta lapurdic emandrau-co çerbait, baina ez oro; aruen eguindut neuré piçça pobria, hanco lenga-gia ezpada asqui eder, hanco euscarac, du oguena, eta ez euscaldunac”.
(10)

Aintzinako idazleen artean, dena dela, LEIÇARRAGarena da, inolako zalan-tzarik gabe, hizkuntz-eredu bat egituratzeko ahaleginik nabarmenena. Testamentu Berriaren itzulpeneko “Heuscalduney” zuzendutako hitzaurrean argi eta garbi azal-zen du bere asmoa:

“(…) lengoageaz den becembatean ahalic guehiena guciçy adi eraci-teari iarreiçui içan gaitzaitza, eta ez choil edocein leku iaquineco len-hoage bereçiri (...)”.

(8) LAFITTE, Pierre, *L'art poétique basque d'Arnaud d'Oyhénart (1665)*, Edition “Gure Herria”, 1967.

(9) Oihenarti esker dakigu, hain zuzen ere, liburu honek gaurregun ezagutzen ez den bigarren argitaraldi bat ere izan zuela. Argitaraldi hau, antza denez, Rouen-en, Adrian Morront-en-
can egin zen (LAFITTE, Pierre, *L'art poétique...*, op. cit., 35 eta 37. orr.)

(10) TARTAS, Jvan de, “Onsa hilceco bidia”, RIEV, I (1907), (27-30), 30. orr. Tartasen azken esaldiak badu, bestalde, Axularren beste honekiko kidetasunik:

“Baldin eguin baliz euscaraz hanbat liburu, nola eguin baita, latinez, franceses edo ber-tice erdaraz eta hitzcuntçaz, hec beçain aberats eta complitu içanen cen euscara ere, eta baldin hala ez pada, euscaldunec berèc dute falta eta ez euscarac”. (AXULAR, Guero, op. cit., 19. orr.)

Pentsatzekoa da, beraz, zuberotarrak ezaguna zuela Axularren liburua.

baina baita dauzkan mugak ere:

“(…) hunelaco gauçác, guciz lengoage oraino vsatu gabe batetan, ecin behingoaz halaco perfectionetan iar daitezquela, nola behar bailicateque (…)”. (11)

Leiçarraga sortzez Beskoitzekoa izan arren (12), lapurteran oinarritu zuen bere hizkuntza baina bai baxe-nafarreraz zein zubereraz ere baliatu zelarik. Horixe da Lafonek, XVI. mendeko euskararen ikertzaileak, baieztatuko duena:

“Le dialecte basque-français auquel la langue de Liçarrague ressemble le plus par son aspect général est le labourdin. Chez Liçarrague comme en labourdin littéraire, les voyelles *e, o, u*, finales de thème ne subissent aucune modification et ne donnent lieu à aucun phénomène phonétique lorsqu'un élément morphologique commençant par *a* ou *e* les suit: Liçarrague écrit *enea* «le mien», *mundua* «le monde», *nuen* «je l'avais»; Dechepare, *enia, munduya, nuyen*. La langue de Liçarrague, sur ce point important, se distingue du bas-navarrais et du souletin, et même du labourdin d'Arcangues, que Bonaparte appelle «hybride». Elle se sépare aussi des mêmes parlers pour ce qui est d'un assez grand nombre de formes appartenant au verbe *za-/a-* et au verbe *du-*. Aussi la plupart des bascologues s'accordent-ils à dire que le fond de la langue de Liçarrague est labourdin.

Mais, outre des formes verbales labourdines et quelques formes qui ne sont attestées nulle part ailleurs, Liçarrague emploie des formes qui étaient autrefois ou sont même encore aujourd'hui employées en bas-navarrais, ou en souletin, ou dans l'un et l'autre de ces domaines”. (13)

Jarraian euskalki ezberdinetatiko ezaugarri horiek hautatzearen zergatiez min-tzo da:

“Il est possible que, comme le pense Bonaparte, le labourdin ait possédé, à l'époque de Liçarrague, des formes verbales qui lui étaient communes avec le souletin et le bas-navarrais et qu'il les ait perdues par la suite. Mais cette explication ne vaut sans doute pas pour toutes les formes souletines et bas-navarraises qu'on rencontre chez Liçarrague.

(…)

Nous ne pouvons savoir dans quelle mesure la langue des écrits de Liçarrague reflète son parler propre, celui qui était en usage dans sa famille et celui qu'on employait à Briscous, ni dans quelle mesure ces parlers

(11) LEIÇARRAGA, Ioannes, Iesvs Christ gyre Iavnaren Testamentv Berrta, op. cit.

(12) Ekialdeko baxe-nafarreraren kokatu zuen Bonapartek 1869ko sailkapenean Beskoitzeko hizkera.

(13) LAFON, René, *Le système...*, op. cit., 61-62. orr.

concordaient ou divergeaient, ni, par suite, à quoi il faut attribuer la présence dans ses écrits de telle ou telle forme souletine, bas-navarraise ou commune à ces deux groupes de parlers". (14)

Eta, azkenean, ontorio honetara iritsiko da:

"La présence de formes non labourdines dans une langue normalisée dont le fond est labourdin tient probablement à plusieurs causes qui, loin de s'exclure, ont dû jouer concurremment: peut-être l'existence en labourdin, au XVI^e siècle, de formes qui lui étaient communes avec le souletin et le bas-navarrais et qu'il a perdues par la suite; très probablement l'existence d'éléments non labourdins dans le parler propre de Liçarrague; certainement la collaboration de reviseurs et correcteurs dont le parler propre n'était pas le labourdin". (15)

Maiz azpimarratua izan da Lafonek aipatu zuzentzaile edo laguntzaile hauek Leïçarragak moldatutako euskaran izan zezaketen eragina. Jaurgainek aurkitutako *Rolle des offices et mandementz de finances expediés par commandement de Monseigneur de Gramont (27 avril 1564-28 novembre 1565)* izeneko koadernoan irakur daitekeenez, lau "correcteurs et revisiteurs" izan omen zituen Leïçarragak: Sanz de Tartas, Jean de la Rive (Donapaleuko apaizak biok), Pierre Landetcheverry eta Tardets (azken hau Oztibarreko apaiza). Jaurgainek eranstean duenez, Tartas eta Tardets zuberotarrak ziren. (16)

Jaurgainek berak beste ohar baten argituko duenez (17), Sohütakoa zen Tartas eta Ündüreffekoa Landetcheverry, hirugarren hau ere zuberotarra beraz.

De la Rive laugarren laguntzaileari dagokionez, Daranatzek, Th. de Bèze-ren *Histoire des Eglises réformées (1558)* delakoari jarraituz (18), beraren benetako izena Jean de Cheverry zela diosku, sortzez Donibane-Lohizunekoa (lapurtarra, beraz) eta predikatzeraz Donapaleura igorria. (19)

Gure ustez, baina, eta laguntzaileon lana ezertan gutxietsi gabe, badirudi Leïçarraga bera dela darabilen hizkuntzaren sortzaile. Gorago aipatu ditugun hitzaurretik hartutako hitzek ere horixe berori baieztatzeraz datozela ematen dute eta, izan ere, halaxe beharko izan, baldin eta Joana Albretekoak nahi zuen Erreforma Nafarroa Beherera ezezik Lapurdi-Zuberotara ere hedatuko bazen. Lacombe, gainera, XVII.

(14) LAFON, René, *Le système...*, op. cit., 63. orr.

(15) LAFON, René, *Le système...*, op. cit., 64-65. orr.

(16) JAURGAIN, Jean de, "Le nouveau testament de Liçarrague", RIEV, I (1907), 288. orr.

(17) JAURGAIN, Jean de, "Liçarrage, Prêtre", RIEV, II (1908), 601. orr.

(18) DARANATZ, J.-B., "Le Testament Berria de Haraneder et ses éditeurs les abbés Dassance et Harriet", RIEV, II (1908), (151-177), 153. orr.

(19) Leïçarraga eta beronen laguntzaileez argibide gehiagotarako, ikus: RITTER, Raymond, "Jeanne d'Albret et la Réforme chez les Basques", E-J, V (1951), (183-215), 197-198. orr.

mendeko Synodes du Béarn de 1563 à 1579 et de 1594 à 1623 eskuiz-kributik jasotako argibide baten berri ematen digu, bertan Leizarragak euskara arloan zeukan ospe eta izena azpimarratzen delarik:

“P. 168 recto: «...Quant à la basse Naurre l'enfant de Monsieur Tartas, celui de Mr. Landecheuerry, celui de Mr. Tardetz seront tous trois un an en La Basse Naurre pour appendre Le Language Basque, & mis es mains de Mr. Lyssarrague (...)”. (20)

Lapurditik Zuberoara ulertua eta irakurria izan zedin, gainera, Leizarragaren itzulpenean ez zaie lekurik emango herri hizkeran bokal elkarketen ondorioz, eta Lafonek zioen legez, hain maiz gertatu ohi diren eufoneiei ez eta bokal arteko kontsonanteen mututzei, laburtzapenei eta eskualdez eskualde aldatzen diren antzerako fonetismoei. Hizkuntza jasoa eta kultua da, bada, Leizarragak darabilena eta hizkuntza hori Leizarragak berak sortua dela uste izan behar dugu, aurretik, gaurregun ezagutzen delarik behinik behin, ez bait zuen inolako aitzindaririk izan. (21)

Leizarragaren ahalegina, zoritxarrez, bertan behera utzia izan zen berak zekarren mezuari, eta mezu hori bultzatzen zuen aginte politikoari ere, gertatu zitzaion bezalaxe. Lapurdiko itsasaldean sortu eta indartuko zen mezu horri aurre egingo zion Kontrarreforma, beronen nagusitasuna hizkuntzara ere hedatuko zelarik. Harrez gero, “Kostatarra” –Leizarragak landutakoa baino barietate herritar eta arruntagoa eta ahozko hizkeratik hurbilagoa– aterako da gailen.

Kostatarrean oinarritutako hizkuntza hori euskaldun guztientzako eredu *bakar* bilakatzeko asmoa Sarako Joannes d'ETCHEBERRIk adieraziko du bestek baino argiago eta borobilago Laburdiri escuraren hatsapenac deitu izkribuan:

“Cein necessario den eguiteco guztietan aiticindari, eta guidari on baten, eta behar beçalaco buruçaguiaren içatea, eguiaz ezta gaitz adicera emaita; ceren bat-bederac baitaqui gauça guztietan behar dela aiticindari, edo guidari on bat bide onerat guidatua, eta ongui gobernatua içaiteco (...). Halatan bada gure Escuara çurtz jabegabeco, eta hainbertce mendez mende arrocapean, itsaso, eta vhuinpean galdu ordean beçala dabilan hunentçat, nahi nuque bilhatu aiticindari, eta buruçagui on bat baxharra; erran dut bat eta hura baxharra, ceren asco-orduz hainitz aiticindari, eta buruçaguiaren içatea baino, hobe bailiçate ossoqui bathere ez içatea (...). Aiticindari, eta buruçagui hainitz den lekhuan behin-ere ezta encontru onic, aiticitic han causitcen eta içaiten ohi dira nahastura, gudu, eta escatima franco (...)”. (22)

(20) LACOMBE, Georges, “Du nouveau sur Liçarrague et ses collaborateurs”, RIEV, XXII (1931), (363-366), 365. orr.

(21) MICHELENA, Luis, *Historia de la Literatura Vasca*, Minotauro, Madrid, 1960, 48. orr. eta hurr.

(22) URQUIJO, Julio de, *Obras Vascongadas...*, op. cit., 141. orr.

Gidari eta buruzagi bakar hori Axular izango da:

“(…) Eguiazqui Escual-herrian hau da bakharra, hambat autoreen liburuetan çauntçan gauçac, arantçepetic atheraric beçala (...) escuaraz ederquienic arguitara eman darocuna (...)”. (23)

3.3.2. AITA MANUEL DE LARRAMENDI

Larramendiren lana aztertzeari ekiterakoan badira, itxura baten behinik behin, kontrajarriak diruditen eritziak baina, sakonean, badaude halaber beraren jarrenen nondik-norakoa ulertzen lagun diezaguketen bi ardatz edo zutabe nagusi. Larramendi, alde batetik, euskararen, eta Euskal Herriaren oro har, apologia egiten ari da eta, bestetik, apologia hau kanpora begira eta kanpotarrei zuzendurik egiten du.

Larramendik euskalkiak zaintzearen eta lantzearen alde dihardu bete-betean baina badirudi jokabide hori, neurri baten behintzat, ezinbestean hartua dela. Dialektoak, Hizkuntzalaritza tradizionalan –eta nolabait baita gaurregunekoan bertan ere–, hizkuntz-mota “endakatu”, “ustel”, eta “itxuragabe”-tzat jo izan dira, hizkuntzaren standardizazio ezaren, literatura landu gabeziaren eta hiztunen kultura maila murriztaren ondorioztat alegia. Larramendik, ordea, hizkuntza perfektua zela euskara –Jainkoak berak Babelen sortu zuenetarikoa bait zen– eta, Penintsula Iberikora Tubalek ekarritako hizkuntza hori, jatorrian zen bezalakoxea, inolako nahasketa ez aldaketarik gabe –euskal arraza bera bezain garbi eta kutsagabea– gordetzen zela euskal probintzietan frogatu behar zuen. Horregatik, beraz, euskalkien premiazkotasunaz gainera euren dohain eta tasunak ere (dotoretasuna, egokitasuna, aberastasuna...) aldarrikatuko ditu Larramendik.

Bere Hiztegiko hitzaurre luzean kapitulu bi (XII eta XIII) eskaintzen dizkio auzi honi. XII.ean, “El bascvence es deleitable por la variedad hermosa de sus dialectos” izenekoan, euskalkiek sortzen dituzten kalteak gutxietsi eta abantailak goratzeari ekiten dio:

“No es tal, dirán algunos, sino muy enojoso, y desabrido por la mucha confusion de sus dialectos, en que el Guipuzcoano no entiende al Bizcaino, ni al contrario el Bizcaino al Guipuzcoano, y ni à uno, ni à otro el Navarro, Alabes, y Labortano. Pero los que tal dixeren, no saben de musica, ni como de la variedad de tonos resulta una harmonia consonantissima, y agradable, y llamaran tambien confusion aborrecible à lo que saliere de una xacara monótona, y molestissima de una hora. No saben de jardines, y diràn, que es un enredo ofensivo la variedad de flores, plantas, arboles, fuentes, quadros, calles, &c. y preferirànles una huerta

(23) URQUIJO, Julio de, *Obras Vascongadas...*, op. cit., 143. orr.

de ajos, puerros, berzas, y perexiles. No saben de naturaleza, ni de la milagrosa variedad de sus producciones en cada uno de sus elementos. (...)”
(24)

Eta horrela, luzaz, hizkuntzen barietateak Naturaren aberastasunaz, ugaritasunaz... parekatzeari jarraitzen zaio.

“Del cuerpo del bascvence, y si fuera mejor, y mas perfecto, sin la diferencia de Dialectos” izenburua darama XIII. kapituluak. Euskalkien alderdi txar eta kaltegarriak salatzen dituztenen arrazoiak aipatzen ditu lehen-lehenik:

“Diràn muchos, que si; lo 1º porque es mejor, que los que hablan una Lengua comun, se entiendan, y comuniquen con facilidad, siendo este el fin de una lengua; y la diferencia de Dialectos hace, que los Bascongados no se entiendan con facilidad. Lo 2º. El no entenderse causa enojo, extrañeza, y priva de muchos bienes; y aun prefiriendo unos su Dialecto á los otros, se originan odios, y enemistades. Añadiran otras semejantes congruencias; pero ninguna de gran peso”. (25)

Hizkuntza eta barietateen jatorri jainkotiarra emango du arrazoi hauei aurre egiteko argudio nagusizat:

“Hasta el Diluvio en mas de 1600 años, y despues hasta la confusion de Babel, solo se habló en el mundo una lengua, como consta de la Escritura. Despues del lance milagroso de Babel, primero se hablaron 72 lenguas, y luego otras sin numero, originadas de las matrices primeras (...).

Aora pregunto, si el mundo antes del Diluvio estuvo mejor con sola vna Lengua, que despues con tantas, y tan diversas Lenguas? No es mala hypothesi para que exerciten los Rhetoricos su eloquencia. Pero sin deternernos en esto, digo, que como Dios inspirò à nuestros primeros Padres vna Lengua, y quiso, que no huviesse otra hasta la confusion de Babèl, assi Dios tambien inspirò en aquella confusion la multitud de Lenguas, y quiso que se hablassen muchas en el mundo. Como esto fue castigo de la soberbia, assi fue tambien efecto de su benevolencia, para que se poblasse el mundo de varias Naciones, y desistiessen de los pensamientos desatinados de su soberbia, que fue otro bien de su amorosa providencia. Pues como oy està mejor el mundo con varias, y diferentes Naciones, porque assi lo dispuso Dios, assi tambien està mejor con diferentes Lenguas, pues que tambien las dispusò Dios; y dellas despues han dimanado otras muchissimas, que no ha querido embarazar en el mundo”.
(26)

(24) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., XXIV. orr.

(25) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., XXV-XXVI. orr.

(26) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., XXVI. orr.

Euskal Herrira eta Penintsula Iberikora etorritz honako ondorio hauek aterako ditu:

“Hablando de una misma Lengua, v.g. del Bascuencé, digo que es mejor una Lengua comun con diferencia de dialectos arreglados, que sin ellos: porque como es mejor, que haya muchas Lenguas para muchas, y diferentes Naciones: assi es mejor para una Nacion de diferentes Provincias, y genios una Lengua, si, pero de diferentes dialectos, acomodados à la diferencia de las Provincias. La experiencia parece que confirma ser esto muy natural, à un en una Lengua, que no tenga dialectos v.g. el Romance en España (...) porque siempre hai diferencia en el pronunciar à lo menos el Romance, siendo de diferentes Provincias. Conocido es el Andaluz, conocido el Valenciano, conocido el Gallego, si ya con la costumbre, y observacion no se hacen enteramente Castellanos. Si me dicen que aun esto es imperfeccion, y que fuera mejor que en todas las Provincias se pronunciase de la misma manera, y sin diferencia alguna, replicarè, que segun esso tambien seria mejor, que todos hablassen el Romance en tiple, ò todos en tenor, ò todos en baxo: y con todo esso unos le hablan tiple, y otros tenor, y todos con tal diferencia, que hablando 20 una misma clausula, aunque sea à escuras los distinguimos por las voces diferentes”. (27)

Eta, amaitzeko, zera erantsiko du:

“El Bascuence, pues, es mas perfecto con sus dialectos, que sin ellos, assi por lo dicho, como porque es mas copioso, y abundante, y es prenda muy alabada en las Lenguas, como vituperada la pobreza, y esterilidad, y la precision de explicarse siempre de vn mismo modo, y sin variedad alguna seria ofensiva. Ni las razones en contrario tienen yà fuerza; porque todo Bascongado sea del dialecto que quisiere entiende à otro mas facilmente que si le hablan Francès, Español, ò otra Lengua, y si quiere trabajar algo, y aplicarse, le entenderà con suma facilidad, y sino le entiende, no es defecto de la Lengua, sino de su inaplicacion, y cortedad. (...)” (28)

Euskalkiak goratze horretan grekoaren barietateekin erkatzeraino iristen da (29), euskararenak, grekoarenak aldean, zuzenago eta egokiago antzematen dituelarik:

(27) LARRAMENDI, P. Manuel de, Diccionario trilingüe..., op. cit., XXVI. orr.

(28) LARRAMENDI, P. Manuel de, Diccionario trilingüe..., op. cit., XXVI. orr.

(29) Kontutan izan behar da Erdi Aroaz geroztiko tradizioan, grekoa, latina eta hebraierarekin batera, hizkuntz hierarkiaren mailarik gorenean izan dela. Beraren barietateek, batez ere atikoa koinè legez eratu zen arte, erabilera zabala eta prestigio handia izan zuten. Hortik Larramendik euskara grekoarekin parekatzea.

“(…)La diferencia está, que los dialectos del Bascuenze son muy arreglados, y consiguientes, como inventados con estudio, discrecion, y oportunidad: lo que no tenian, ni tienen los dialectos Griegos, y otros en otras muchas Lenguas. (...)” (30)

Berdin mintzatuko da Hiztegian:

“(…) Que Lengua tiene tres dialectos tan distintos, y tan arreglados; y digo arreglados, para comprehender aun los dialectos de la Lengua Griega, porque en otras Lenguas son sin pies, ni cabeza, ni tienen reglas, ni raices comuns, ò particulares, cada qual por su lado, sin mente, ni gobierno. (...)” (31)

Helburu apologetiko horren berorren kariaz euskalkiak ez direla “dialekto” soilak, benetako “hizkuntza” baizik, baieztatzeraino helduko da. Izan ere, euskara, Espainia osoko jatorrizko hizkuntza bakar egin nahi zuelarik, gaintitu beharreko oztopo bat aurkitzen zuen erromatar geografo eta historialariek utzitako lekukotasunetan, azken hauek Penintsulan barrena hizkuntza ezberdinak mintzo zirela bait zioten. Larramendik, bada, erromatarren izkribuetan aipatzen diren “hizkuntzok” euskararen bariatateak, euskalkiak alegia, besterik ez direla frogatu nahi izango du. Hiztegiaren hitzaurreko II. ataleko XXVI. kapituluan arituko da gai honetaz:

“Respondo enfin lo tercero, que Estrabon habla de las Lenguas propias, y maternas de España, y que los Españoles no usaban de una sola Lengua vernacula, y propia, sino de muchas; pero que esto era verdad de muchos dialectos de una misma Lengua Española, comun á todas sus Provincias, y que à estos dialectos llamò Estrabon Lenguas distintas; y enfin, que aquella Lengua Española con sus diferentes dialectos era el Bascuence. Esta respuesta es la mas probable, y la que yo tengo por cierta. (...)” (32)

Tesi honi eutsiko badio, euskalkien arteko ezberdintasunak oso nabarmenak eta sakonak direla esan beharrean ikusiko du bere burua:

“Esta Lengua materna fue el Bascuence, que es una Lengua matriz, y que aun hoi tiene tantos dialectos, y tan diversos, y por otra parte tan arreglados, y con raices tan fixas, que con razon pueden llamarse, *Lengua Bizcaina*, *Lengua Guipuzcoana*, *Lengua Alabesa*, *Lengua Navarra*, *Lengua Labortana*, y con todo esso no son mas que dialectos de una misma Lengua matriz, que llamamos Bascuence. Dialectos tan diferentes, que apenas se entienden el Guipuzcoano, y Bizcaino entre sí, ni en Labortano, y Alabès, sino es aviendo particular estudio, y reflexion. Y aun hai muchos rastros, de que el Bascuence tenia muchos mas dialectos. (...)” (33)

(30) LARRAMENDI, P. Manuel de, *El Imposible vencido...*, op. cit., 12. orr.

(31) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., IX. orr.

(32) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., CLVIII. orr.

(33) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., CLVIII. orr.

Antzerako baieztapenak egiten ditu Corografía liburuaren “Del vascuence en general” izeneko kapituluan:

“Cuando digo lengua primitiva española, lengua vascongada, digo muchas lenguas, y no sólo una simple lengua; y cualquiera que quisiera hablar del vascuence con inteligencia y penetración, es preciso llamarle muchas lenguas, así como le llamó Estrabón cuando dijo que en su tiempo se hablaban muchas lenguas, por cuyo dicho han querido negar algunos eruditos la universalidad al vascuence en aquellos tiempos en España; y es ciertamente una gran friolera, y la tuvieran por tal ellos mismos si entendieran el vascuence en toda su presente extensión y sin recurrir a siglos pasados.

Hacemos demostración que los dialectos del vascuence son más diferentes entre sí que los dialectos del griego; que se entienden con más dificultad el vizcaíno y guipuzcoano que el ático y el dórico, y lo mismo sucede a los demás dialectos del vascuence, que ciertamente son más regulares y constantes y de raíces más seguras que los dialectos del griego que, sin embargo, Quintiliano llamó, y con razón, a la lengua griega *muchas lenguas* por la multitud hermosa de sus dialectos. Y con todo eso, dádole ha que Estrabón no pudo hablar de una lengua cuando dijo que en España se hablaban muchas lenguas. (...)” (34)

Euskalki batzuetatik besteetarako alde hori dela eta, euskaldunentzat eurentzat ere ulertezinezkoak gertatzen direla esatera iristen da, euskararen batasuna, haatik, ukatzen ez badu ere:

“Para los castellanos, cada uno de estos dialectos será aún más dificultoso que el griego; pero, si quieren cotejarlos, hallarán que son más diferentes entre sí que lo eran los dialectos de la lengua griega, y que con mucha más razón que los griegos pueden y deben llamarse *lenguas* los dialectos vascongados. Y advierto que en los que han quedado, hay vestigios claros de que hubo otros más en número, y confiesen todos que las muchas lenguas de Estrabón son estas lenguas del vascuence. Aun para los vascongados son otra algarabía los demás dialectos fuera del suyo en que nacieron, porque hay pocos, si hay algunos, que se aplican a entender y leer en vascuence de los otros dialectos. No hay quien no eche de ver que todos son vascuence; hallándose en todos muchos verbos y nombres que son comunes al que ellos hablan. Pero como la sintaxis es tan diversa en las conjugaciones, declinaciones y demás partes de la oración, de que no entienden palabra, sucede que aun las mismas voces comunes se les hacen extrañas. (...)” (35)

(34) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Corografía...*, op. cit., 280. orr.

(35) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Corografía...*, op. cit., 301-302. orr.

Hona hemen Larramendiren kontracsanetariko bat. El imposible vencido-n, esate baterako, ez die ezberdintasunoi hain handiak eritziko; deklinabidera eta aditz jokora mugatuko ditu, oraingoa, euskalkien arteko gorabeherak:

“(…)Y como el Griego tiene aquel cuerpo de Lengua, que llamaban comun, assi tambien el Bascuenze tiene su cuerpo de Lengua, comun y universal à todos sus dialectos. Este cuerpo del Bascuenze incluye todos los nombres, y verbos, tomados en sí mismos, esto es, tomados como declinables, y conjugables, y todas las demás partes de la oracion, todos los modos del infinitivo, &c. en que no ay diferencia alguna. Los dialectos pues se reducen à las declinaciones del nombre, y pronombre, que consisten en los articulos, y à las conjugaciones del verbo, que consisten en terminaciones, ò inflexiones, diferentes (...)”. (36)

Helburu apologetikoak alde batera utziz *euskalki guztiak eta neurri berean* lantzearen eta erabiltzearen aldeko jarrera agertu zuen Larramendik. Horixe da El imposible vencido-n aldarrikatzen zuena:

“Pues como no solo se llamaba Griego, el que hablaba algun dialecto particular suyo, sino mucho mas el que no estando atado à ninguno, usaba de todos los dialectos en la ocasion: assi tambien se ha de llamar Bascongado, no solo el que habla el dialecto Guipuzcoano, ò el Bizcaíno, ò el Navarro, y Labortano, sino tambien y con mas razon el que haze familiares suyos à todos los dialectos. Destos ultimos seré yo en adelante (...)”. (37)

Larramendik, beraz, euskalki guztiak lantzea eta erabiltzea ezezik euskaldun denek eta bakoitzak euskara bere osotasunean ezagutzea ere proposatuko du (38) eta gogor ditu erasoko jarrera honek aurkitzen dituen oztupoak:

“(…) sucede à muchos Bascongados, que solo tienen por buenos, y elegantes los dialectos de su Provincia, y es enfermedad comun de los que hablan qualquier language, que admite muchas variaciones segun la variedad de las Provincias, en que se habla. Pero es enfermedad de la passion, que debe curarse con dos onzas de razon, y de inteligencia. Ya veo, que la curacion no es facil (...) yo tengo tambien por bellissimos à todos los dialectos del Bascuenze, no solo por que son propios, y no pe-

(36) LARRAMENDI, P. Manuel de, *El imposible vencido...*, op. cit., 12-13. orr.

Gogora dezagun, eta gorago aldatu dugunez, honako baieztapen hau ere egina zuela: “(...) y si quiere trabajar algo, y aplicarse, le entenderà con suma facilidad, y sino le entiende, no es defecto de la Lengua, sino de su inaplicacion, y cortedad. (...)” (LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., XXVI. orr.).

(37) LARRAMENDI, P. Manuel de, *El imposible vencido...*, op. cit., 13. orr.

(38) Helburu horrexekin, hain zuzen ere, *El imposible vencido* gramatikan nagusitasuna gipuzkerari ematen zaion arren, gainontzeko euskalkien ezaugarri eta xehetasunak ere erakutsiko ditu harekin batera.

gadizos de otra Lengua, sino mucho mas por que son muy arreglados, y consiguientes, y con raíces fixas, y seguras. (...)” (39)

Jarrera bera erakusten du Hiztegiaren hitzaurrean, betiere greziarren adibidea eredutzat hartzen duelarik:

“Aora se conoce la admirable variedad, con que pueden hablar, y escribir los que quisieren usar del Bascuence assi en prosa, como en verso, en todos sus dialectos, de la manera, y con la misma libertad, que los Autores Griegos usaban de su Lengua Griega en todos sus dialectos, segun les parecia convenir, ò para evitar la repeticion enojosa, ò para la suavidad de la expression, ò para la magestad, y lleno de la clausula, ò para hacer en verso numerosa la cadencia; y enfin para hacer mas agradable todo el discurso. Esta libertad de hablar, y escribir en todos los dialectos, es la que yo quisiera introducir en todos los Bascongados, demanera, que el Guipuzcoano hablasse el Bascuence, y le escribiesse en su dialecto, que fuesse siempre el dominante, pero se valiesse tambien de los demas dialectos segun la oportunidad de las circunstancias. Lo mismo digo del Bizcaino, que usando de su dialecto como dominante en todos sus discursos, y escritos, se valga de los otros dialectos: y lo mismo es del Navarro, Alabès, y Labortano. En los Lugares rayanos se practica en parte èsta libertad, y es razon que se extienda à los demàs. (...)” (40)

Corografía liburuan, orobat, tokian tokiko euskalkiaz baliatzearen alde agertuko da:

“(...) vuelvo a los predicadores vascongados. Si quieren predicar con limpieza y fruto, aprendan bien el dialecto del país en que predicán. (...)” (41)

Euskalkien berezitasunei eustearen alde bazegoen ere, salbuespen bat egiten zuen hiztegiari zegokionean. Euskararen ondaretzat, eta ez euskalki batarenak edo bestearenak, jotzen zituen hitzak eta, beraz, egoki eta premiazkotzat zeukan euskalkiren baten erabiltzen zirenak gainontzekoetara ere hedatzea. Hiztegiaren hitzaurrean, nafar-lapurteraren ezaugarriez ziharduela, ematen zuen erabaki horren berri:

“(...) y no digo nada de los nombres, y verbos, porque estos deben hacerse comunes à todos los Dialectos, como lo procuro en el Diccionario”. (42)

Dena dela hitzaurre honetako kapitulu oso bat, “De las voces del lenguaje vulgar, que contiene el Diccionario”, eskaintzen dio hiztegiaren auziari:

(39) LARRAMENDI, P. Manuel de, *El imposible vencido...*, op. cit., 14-15. orr.

(40) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., CLX. orr.

(41) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Corografía...*, op. cit., 293. orr.

(42) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., XXVIII. orr.

“El Bascuence està derramado, y esparcido en las Provincias arriba nombradas. No hablo del alma del Bascuence, que toda està en Guipuzcoa, toda en Bizcaya, y toda en cada vno de los dialectos (...). Hablo del cuerpo, que informa esta alma, que es la multitud de voces Bascongadas. No todas están en Guipuzcoa, no todas en Bizcaya, &c. vna parte està en Bizcaya, otra en Guipuzcoa, otra en Navarra, otra en Labort, otra en Alaba. Faltan al Guipuzcoano voces para explicar muchos objetos, y por esso se vale del Castellano, que tiene mas a mano: pero no es, porque le faltan voces al Bascuence, sino por que las tiene fuera de Guipuzcoa, y si las quiere llamar, las hallarà en Bizcaya, Labort, ò Navarra. (...) Este derramamiento del cuerpo Bascongado, ha sido la ocasion de publicar Lengua pobre al Bascuence. El Guipuzcoano, ò no tiene noticia sino es de la porción de voces, que se estilan en Guipuzcoa, ò aunque la tenga, no quiere valerse de las que ay en Bizcaya: y lo mismo sucede al Bizcaino con la porcion de sus voces respeto de las de Guipuzcoa: y como cada vna destas porciones no alcanza para la vniversalidad de los objetos vulgares, se califica, pero sin razon, de pobre al Bascuence”. (43)

Ondoren, bere Hiztegirako hartzen duen jokabidea azalduko du:

“Para desterrar, en quanto pueda, este embarazo, he hecho estudio de poner en el Diccionario, sin distincion alguna de dialectos todas las voces, que me han ocurrido del Bascuence, para que se hagan comunes todas ellas à todos los Países, y dialectos diferentes de la Lengua (...). Con esto mutuamente se enriquecen los dialectos entre sí, y se hacen mas inteligibles, y usuales, sin dexar de ser dialectos diferentes. (...)” (44)

Euskaldunen arteko elkar ulergarritasuna jotzen du jokabide honen abantailarik nagusienetakotzat:

“A esto me diràn, que esto es introducir en cada País, y dialecto, vna nueva algarabia, y nada inteligible; pues las voces, que no están en uso en Guipuzcoa, seràn tan extrañas, y mal entendidas, como si fueran del Griego, ò del Latin, y lo mismo serà en Bizcaya, y otras partes. No diràn bien. El que habla en Guipuzcoa, use norabuena de las voces allí corrientes, entendidas: pero si tal vez, ò muchas, le faltan voces Bascongadas, para explicarse, no se valga de las Castellanas, ò Latinas, sino de las Bascongadas de Bizcaya, ò Navarra, ò Labort, quando se hallaren en esos dialectos: porque (...) valiendose de las de Bizcaya, se vale de su propio caudal, de voces que son suyas, y se hacen mas perceptibles por el aire, que traen de Bascongadas. Además que la novedad, que causa la voz al principio se desvanece luego à dos, ò tres veces, que se repita, co-

(43) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., XLV. orr.

(44) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Diccionario trilingüe...*, op. cit., XLV-XLVI orr.

mo se vè en todas las Lenguas, quando se introducen voces nuevas. Y aunque el Guipuzcoano use del *necatu* en el uso ordinario, teniendo noticia del *aricatu*, podrá usarlo, ò quando hable con el Bizcaino, ò quando le haga al caso para algun metro, ò quando quiere variar de frase por la variedad, y hermosura; y assi quedará enriquecido cada dialecto. (...)

Por este medio se ataja otro inconveniente muy sensible, y es que el Guipuzcoano entrando en Bizcaya apenas entiende aquèl Bascuence, y lo mismo sucede al Bizcaino en Guipuzcoa, y en los demás dialectos, de manera que parecen distintissimas las Lenguas. Esto nace no solo de ignorarse la diferencia de terminaciones en el verbo, y nombre, y otras partes de la oracion, sino tambien de ignorarse, y no ser usuales en un dialecto una gran porcion de voces, que se usan en el otro. (...)" (45)

Eta beheraxeago:

"(...) Pues como es possible que se hagan comunes todas las voces? Sin embargo esta dificultad, parece mayor de la que es, y la abulta solamente la aprehension. Se vencerà con el tiempo, con la experiencia, con el uso, y repeticion de las voces, que si al principio causan extrañeza, y desagrado, con el uso, y repeticion se hacen familiares, y aun se traen con mayor gusto que muchas voces antiguas. (...)" (46)

Eritzi hau berberau erakusten du Mendibururi egin gutunean. Aldi berean, ontzat ematen du idazle honek Nafarroaldeko hitzak erabiltzea eta jokabide horren aurkako esamesak zaputzen:

"(...) Ongui eguin dezú, Nafarroaco hitzen bàtzuec ecàrtzea, egóquiac dirànean, eta besteric eztànean: Cerren lembician, ta batbateiàn aditzen ezpadirà, aurqui aditúco dira, ta guèyenac, dagàneco, aditzen ere badirà: ta alà Eusquèra bidè batèz edèrtzen ta ugaritzen da.

Etzaitzàtela tóntotzarren eràusiac ozpindú, ta icaratú: ez tirade gendàrtecoac, ez contuzcoac; hitzera onà, ta beardanèzcoa cein dan, eztezú àyetan aurquitúco, èzta billatú bear ere. Bàztèrretan, ta itsú, motèl, jaquifièzen àrtean dàrausquiotè, baña eztira gai, ecer ere danic, aguèrtzeco, ta arguitaràtzeco. Cer degú, astóren batèc, edo bestèc esanagàtic, èztala onelaco hitzà emengoà, edo èztuela aditzen? Nafarroan *hirri*, Bizcayan *barré*, Provincian *farrá* eguiten zàyela onelacó, ta alaco hitzen bàtzuei? Suertéz ere neurri ederrà guènduque hizquetaraco, besteric ezpaguendú. Guizon zuhúr, cintzó, ménac eta jaquintsuac guré àlde ditugunean, èztiegu béste gendàlla horiei jaramón bear, ez eta àyen esàn mesánaz ajolaric artú". (47)

(45) LARRAMENDI, P. Manuel de, Diccionario trilingüe..., op. cit., XLVI. orr.

(46) LARRAMENDI, P. Manuel de, Diccionario trilingüe..., op. cit., XLVII. orr.

(47) MENDIBURU, A. Sebastian, Jesusen Bihotzaren devozioa, op. cit.

Beranduagoko Corografía-n, azkenik:

“(…) deben aprender el vascuence de los demás dialectos, a lo menos en cuanto a los verbos y voces sueltas, ya que no en cuanto a sus particulares sintaxis. Hallarán innumerables, de que no tienen noticia, voces limpias, legítimamente vascongadas. Por falta de esto, no hallando un predicador voces oportunas vascongadas, encaja en su sermón las castellanas. Pues ¿no es mejor usar de las vascongadas de otro dialecto que no de las castellanas? Claro está que es mejor, porque en fin son voces de la misma lengua general de estos países, y en el modo que tienen se conoce ser vascongadas, y son más inteligibles que no las castellanas. (...)” (48)

Larramendiren jarrera laburbilduz badirudi honako ondorio nagusi hauek atera ditzakegula:

a) Euskalki denak erabiltzearen eta lantzearen aldeko agertzen da, guztiak bait dira neurri berean on eta zuzen. Euskalkiei, bestalde, probintzia bakoitzaren nortasunaren adierazgarri eta euskararen aberasgarri deritze.

b) Norbere euskalkiaz landara gainerako guztiak ere ezagutzeari deritzo jokabiderik jatorrena. Gipuzkerari dion aparteko maitasuna izkututzen ez duen arren euskalki denentzat eskatzen du begirune berdina eta gogor erasotzen ditu auzi honen inguruan sortzen diren eztabaida, lehia eta istiluak.

c) Tokian tokiko euskalkia erabiltzea proposatzen du.

d) Hiztegi arloan halako batasun batera heltzeko nahia erakusten du, euskalkien arteko mugak deseginez. Euskalkietan barrera dauden hitz ezberdinak dira, berearen aburuz, euskaldunen arteko elkar ulergarritasunak aurkitzen dituen oztoporik gaitzenak. Euskalki batzuetako hitzak besteetara ere zabaltzean, gainera, bigarren abantaila bat ikusten du, era horretan asko murriztuko bait litzateke mailegu bila erdal hizkuntzetara jo beharra.

3.3.3. LARRAMENDIREN GIROKOAK: MENDIBURU ETA CARDABERAZ

Erabatekoa izango da Larramendiren eragina ondorengo idazle eta euskaltzaleengan. Eragin horrek XX. mendera arteko guztian iraun duela esan genezake. Berdintsuak dira Larramendiren ondoren datozenen kezka eta buruhausteak eta berdintsuak, halaber, eskaintzen dituzten irtenbideak. Eragina, bestalde, zuzen-zuzenekoa izango da Mendiburu eta Cardaberazengan.

(48) LARRAMENDI, P. Manuel de, *Corografía...*, op. cit., 293. orr.

Aita Sebastian MENDIBURUk, Larramendik bezalaxe, hitz ezberdinetan ikusten du elkar ulertzeko behaztopa-harria eta, andoaindarraren bideari jarraituz, euskalki bateko eta besteko hitzak nahasian erabiltzea erabakitzen du. Halaxe dio Jesusen Bihotzaren devozioa-ren sarreran:

“Galdu dira Euscarazco Liburic gabez, Euscarazco asco hitz eguite; ta guelditu diranac ez dituzte Euscaldun guciac aditcen. Ba dira Nafarroan, Euscarazcoac izana gatic, Provinciar gueyenac aditcen ez dituzten hitzqueta, edo hitz-eguiteac: baita Provinciar ere, Nafartar-entzat berriac diruditenac: eta Provinciaco bazter batzuetan aditcen dira, beste ascotan aditcen ez diran cembait hitz-eguite. Non nai adi ditezqueanac billatu ditut al eguiñean, artcen ditudala orretaraco, Euscarazcoac utciric, beste cembait hitz”. (49)

Igande eta festegunetarako irakurraldiak liburuaren sarreran “Iracurleari” egiten dizkion oharretan sinonimoez baliatzea gomendatzen du:

“(…) Iracurtzen zaien gucitic hitzic ere gal ez dezaten erritar gaisoac, iracurlèac arquitcen badu libruan lembician adituco ez duten hitzen bat, aren ondoan esan behar du ari dagòcan ta guciac aditzen duten hura bezalaco besteren bat; eta aditzen ezpadute cer dèn *laster*, iratsi ari aditzen dutèn *fite* eta esan *laster ta fite*; orrequin bigarren aldiraco jaquinen dute len aditzen etzuten hitzac esan nai duena. Hitzetan eguiten dezuna eguizu hitzcunzetan ere ta zure hitzcuntza bada *badijoa*, *mugaz etorri dà*, *eman diozcat ez*, baicic *badoa*, *garai onez etorri da*, *eman dautzat*, eta libruan arquitzen badezu lembicicoa, aren iracur-aldian esazu: *badijoa edo badoa*, *mugaz edo garai onez etorri dà*, *eman diozcat edo dautzat*, eta guertatuco dà hitzquetan ere hitzetan gueniona ta urte gutiren buruan len baño errazquiago elcar adituco dute euscal errico Nafartarrac ta beste euscaldun guciac eta edertuco ta luzatuco dà euscara”. (50)

(49) MENDIBURU, A. Sebastian, Jesusen Bihotzaren devozioa, op. cit.

(50) MENDIBURU, Sebastian, “Igande eta festegunetarako irakurraldiak”, Mendibururen idazlan argitaragabeak (I. vol.), Euskaltzaindia y Mensajero, Bilbao, 1982, 55. orr. Jokabide hori berori hartu duela esango die Cardaberazek bere liburua zuzendu behar dutenei (TELLECHEA IDIGORAS, J. Ignacio, Larramandi y Cardaveraz..., op. cit., 11. orr.):

“(…) La repetición en el bascuense es aun más precisa, hasta que poco a poco se hagan a ello. Por lo mismo uso por necesidad y por la obvia instrucción de muchos sinónimos, que a los ignorantes les servirá de luz, etc.”

Aitomen hauek, Mitxelenak (MITXELENA, K., “Mendibururen hizkeraz hitz bi”, Mendibururen idazlan argitaragabeak (I. vol.), op. cit., (LXXIX-LXXXII), LXXXII. orr.) uste duena zerbait argitzera etor daitezke:

“(…) Euskalkieci dagokienez, ez dakit noraino Mendibururen *bikoteek* bazter batzuetako eta besteetako euskararen arteko osina gainditu nahi luketen edo, horren premia lehen bezain nabarmena izanik orain, zenbaitek ahaztua daukan arren, erretorikari zor diogun hitzen parakatzea. Auzia *sub iudice* utzirik (...), esan dezakcgu, juzku gaiztorik egiteko gehiegizko beldurrigabe, behar bada *eri-behartzac* edo *egotz-lastoac* eta *ezparrigabe igorri-vidaldu* aditzak nafar-giputzen adimenak bide batez argitzeko sortuak izan direla. Erretorikaren eremuan sartzen dira, bestalde, eta zenbait adibide baizik ez dut aipatzen, *neurri-vidèac*, erdarazko «medidas (para)», *vide ta neurri*-ren aldamenean, *asmo-gogoa*, *belztu-isuusiac*, *gaitz-oñace*, *ezcabi-lepraz* eta beste ezin konta ahala”.

AITA AGUSTIN CARDABERAZ

Biziki kezkatzen zuten Cardabercraz hizkuntz arazoek eta gai horri hurbilagotik ekiteko Eusqueraren berri onac liburua eman zuen argitara.

Lau idea nagusi nabarmentzen dira liburu honetan zehar, laurak ere Larramendik jorratutakoak.

a) euskalki guztiek daukate ukaezinezko batasuna:

“Itsu itsuan ascoc esanoidu, Eusquera asco dirala, edo erri bacoitecan bere Euscara dala; baña cer dioten ezdaquite. Ezta ori eguia: Eusquera bat da. Euscara bat onetan, eguia da, Dialecto, edo izquera asco dirala. (...) Onela bada Francian, Nafarroan, Bizcaian, Araban, ta Guipuzcoan, beren Izqucrac, bacoitza bere erara dira: ta ori gauza berria ezta”. (51)

Euskalkien arteko aldea txikia dela baieztatzen du (52), liburuak irakurriz, euskara eskoletan sartuz, ohitura eta usadioz... erraz gairdi daitekeena. Beraren ustez hizak laburtzetik eta hots aldaketetatik (*pecatua lbecatua; farrez lbarrez; ez da lezta...*) datoz oztopo guztiak (53).

b) euskalki guztiak dira neurri berean egoki eta aberats:

“Dialecto, edo Itzera oien gafean soseguz pensatcenduenac, gauza miragarri, ta ecin ucaturcodan bat arquitecodu, eta da, Euscaldun bacoizac bere Izquera cefi era, ta armonia ederrean gordetcen duen, edo dezaquean. (...)” (54)

c) euskalki guztiak erabili eta landu behar dira:

“(...) Guisa onetan, edo bestean itzeguitca, ferian, edo dendan erosten dan gauza ezta: Bacoitzac bere Dialecto, edo Izquerari jarraitu ondo: Oitura, Usu, ta Costumbrea ala da, ta aurrera ere ala izangoda”. (55)

d) norberarenaz gainerako beste euskalkiak ere ezagutu egin behar dira, nahiz eta Cardaberazentzat ere gipuzkera izan gainontzekoak baino “ulerterrazagoa” (56):

“(...) Oitu beardira, ez emengo Izqueran bacarric, ezpada edocefi Dialectotan, eta Francia, edo Nafarroaco edo Bizcaico Libruetan ondo, ta trebe iracurtera. (...)” (57)

(51) CARDABERAZ, A. Agustin, *Eusqueraren berri onac...*, op. cit., 11. orr.

(52) Ez datoz honetan bat Larramendiren baieztapen zenbait eta Cardaberazek dioena baina, gogora dezagun, Larramendi ez bezala, euskaldunei, etxekoei, zuzentzen zaiela Cardaberaz.

(53) CARDABERAZ, A. Agustin, *Eusqueraren berri onac...*, op. cit., 26. orr.

(54) CARDABERAZ, A. Agustin, *Eusqueraren berri onac...*, op. cit., 12. orr.

(55) CARDABERAZ, A. Agustin, *Eusqueraren berri onac...*, op. cit., 13. orr.

(56) “Gure Izquera, beste bien erdicoa bezala, Nafarroan, baita Bizcaian ere gueiena aditcenda. Baña ez Nafarrac Bizcaicoa, ta ez Bizcaitarrac Nafarreña aditcen dute: ta bata besteagandic urruti, ta bacoitza bere bidetic dabill. (...)” (CARDABERAZ, A. Agustin, *Eusqueraren berri onac...*, op. cit., 63. orr.)

(57) CARDABERAZ, A. Agustin, *Eusqueraren berri onac...*, op. cit., 19. orr.

Beherago berdin:

“(…) animen oneraco, Bizcaico, Nafarroaco, ta Guipuzcoaco iru Dialecto etan escribitcea, guztiz premiazco, ta gauza chit bearra da. (...)” (58)

Cardaberazek, gainera, praktikan jarriko du tokian tokiko euskalkia erabiltzea eta, misiolari legez Bizkaian ere bazebilelarik, euskalki honetan idatziko zituen **Dotrina Cristiana edo Cristiñau dotrinea** zein Jesus, Maria, ta Jose-ren devociñooco **Libruchoric atararico devociño batzuc** (59).

Cardaberazek ere, azkenik, bere garaian zeuden eztabaidak isladatzen ditu eta egiten dituen aukerak adierazten. Horrela, goian aipatutako lehenbiziko liburuaren amaieran ohar bat egiten die irakurle bizkaitarrei eta bertan, probintzia honetan barenna dauden ezberdintasunez jabetzen delarik (60), zera esango du:

“(…) Laburrena nic escribietan dot; baia bacoachac bere errico le-guez iracurri, esan, edo pronunciadu bear dau.

Erri guztietaco modura, ta gucien gustora Libru batean escribitcea, ecin izango dan gauza da”. (61)

Berdin mintzo da Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioac liburuari egin hitzaurrean:

“(…) Eusquerac usoaren faltaz, ceren Libru guchi diran, ta orien usoric, eta gogoric ez, Eusqueraz escribitceco gogoa quentcenduela. Escribitcea, guciac, eta bacoitzac naiduten erara, erraz ezta: edo gure Eusqueran ecin datequean gauza da”. (62)

Devociñooco Libruchoric lanaren hitzaurrean, halaber, zera diotso “Iracurle bizkaitarrari”:

“Bacust, Iracurlea, ta bacutsu ondo, iracurten asco chito lotuac direala: eta verba guztiac, eta bacoacha euren gustora ezpadacuste, bertan es-

(58) CARDABERAZ, A. Agustín, *Eusqueraren berri onac...*, op. cit., 63. orr.

(59) Ez zen Cardaberaz jokabide hau hartu zuen bakarra izan. Añibarro bizkaitarrak ere, esate baterako, nafarreraz idatzi zuen *Cristau-dotriña*.

(60) “Ba dacust ondo, Bizcai guztico Eusquera bat izan arren, verbaren batzuc ori (sic) batzuetan, besteac beste etan oi direala. Enzunaz icusi, edo icasi dot, Orozco, ta Zeberioti Ochandianora, ta Plencia, eta Machichaco aldeti Munguiara, ta onunz Verba batzuc, edo esateco moduac banaro, edo diferenteac dituezala. Baia Sefforioco beste lecu zabal andi, eta bazterretan bere aimbeste Euscaldun euren modura nic ascotan enzun, eta diranac gustoz adietan nituan.

Onetara bat bereala, edo lenengoan eguiten ezta; baia bearrac eraguiten dau. Durango, ta Marquinati onunz beste moduric da; baia orrec ece bere esan gura ez dau. (...)” (CARDABERAZ, Aita Agustín, *Dotrina Cristiana edo Cristiñau dotrinea*, 112-113. orr.)

(61) CARDABERAZ, A. Agustín, *Dotrina Cristiana...*, op. cit., 114. orr.

(62) CARDABERAZ, A. Agustín, Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioac, beren *consideracio, ta afectoaquin, iruñica*, 8. orr.

pantuac artu, ta nastuten direala. Ascatuago, edo libreago gura zaitut, Doctrinao Cartillachuan esan neban leguez. Juicio, edo burua daucanac, errazoe au erraz icusi, ta ondo ezagutucodau. *Amudio* esan, edo *Amodioa*, guztia bat da: Nic *Amodioa*, *amorioa*, *amorea* usetandot. *Jaungoicoa* esan, edo laburrago *Jaincoa*, *Oraciño*, *Oracio*, *Devociño*, edo *Devocioa*, ta orrelan bestectan. Zeuc bata, edo bestea, gura dozuna orrelangoetan esazu. Ez arren señaac leguez icaratu; ezpada guizonac leguez juicioaz bata besteric atara, ta ondo iracurri, ta erraz verba eguin bear dozu". (63)

3.3.4. JUAN ANTONIO MOGUEL

XVIII. mendean euskarak bizi zuen egoera, Hegoaldeko probintzietan behinik behin, ezagutuko badugu ezinbestekoa zaigu J. A. Moguelen lanetara jotzea. Bertan dauden euskararen soziologiari buruzko albiste eta eritziez gainera, oso interes handikoa deritzogu Moguelek hartzen duen jarrera praktikoa aztertzeari.

Juan Antonio Moguelek, bizkaitarra izan arren, behin eta berriz erakutsi zuen –gorago (2.3.2.2.) ikusi denez– gipuzkerarenganako zaletasuna eta gipuzkeraz argitara eman zuen, hain zuzen ere, bere lehenbiziko liburua: *Eracasteac* (1800). Liburu honetako "Eracurle euscaldunari itz-aurrecoa"-n aditzera emango duenez, euskalki hau euskaldunik gehienek hobekien ulertzen dutena izatean datza horretara bultzatu duen arrazoi nagusia:

"Uste det berriz libru onetaco eusquera izango dala aditua Guiputz gucian, Vizcaico erri ascotan, ta Naparroa gueianean. Cardaverasen libruac aditzen errazagoac dira Euscal-errietan Mendibururenac baño. Onec itz asco artu ditu Napar eusqueratic, ta nola urruti dauden bata bestea gandic Naparroa, ta Vizcaia, ez ala Guiputzac (bada oec erdian daude) errazago eguiten zaie Vizcaitarrai aditzea Cardaverasen itzquera guiputz utsecoa, Mendibururen guiputz-naparra baño. Auez da esatea, Mendibururen eusquera, ederra ez dala; da eguiaz ta itzac garbiago ta eusqueratsuagoac Cardaverasen libruetacoac baño; ala ere onénac lecu zabalagoan aditzen dira esan dedan arrazoa gatic. Nic ere oni jarraitu diot aleguinez arrazoi beragatic". (64)

Gipuzkeraz idaztea erabaki ondoren, baina, bigarren aukera bat egin beharrean agertuko da eta Larramendi, Cardaberaz, Mendiburu zein idazle lapurtarren eredia aintzakotzat hartzea erabakitzen du:

"(...) Ezda berdina itz-joco edo conjugacioa Eusquera guiputza ederqui daquitenen artean. Aita Vbillosec, ceftec Frances erderatic euscara-

(63) CARDABERAZ, A. Agustin, *Jesus, Maria, ta Joseren devociñooco Libruchoric atararico devociño batzuc*, Iruñean, 1764, 3-4. orr.

(64) MOGUEL, Juan Antonio, *Eracasteac*, op. cit., XIII-XIV. orr.

tu digun Fleuriren Doctrina-librua, onela ebaquitzen du baten itzquetea, ta ascorena. *Nic eguin nuan, aiec eguin zuen*, ta ala oetatic jaiotzen diranac. Bizcaico eusqueran ere jarraitzen da itzjoco au letra bi oequin, *a*, ta *e*; *a* batena danean itzquera edo eguiera; eta *é* ascorena danean; nic eguin *neban*, aec eguin *eben*; ala Aita Vbillosec ere *nuan, zuan, zuen* letra aldatzte labur onequin. Berriz Aita Larramendic, Cardaveras, Mendiburu, ta Labort eusqueraco libruguillac, beintzat nic ecusi ditudanac, ez dute ala conjugatzen, ta bai onela, nic eguin *nuen*, arc eguin *zuen*, aiec eguin *zuten*, ta ala oetatic jaiotzen diranac. Cein dan conjugacio obea, nic ez daquit; errazagoa ta garbiagoa dirudi Aita Vbillosecenac. Baña nola aitatu ditudan beste euscaldunac diran icen andicoac, oien guisara nic ere conjugacio esana eguin det. Cein batera, cein bestera eguin, ez da cer esanic. Guiputz garbi garbia billatu bear da Guiputz erdian, ez Frances, Napar, ta Bizcai urrean dauden errietan, ceren erasten zaiez alcarren itzac urrean dauden erricoai. Irun, ta alderetan Frances eusqueraren usaia dute, ala ebaquitzen itzac, nola itzen batzuetan. Elgoibar, Eibar, Vergara, Mondragoe, ta ala beste erricho batzuetan erdi guiputz, ta erdi vizcaicoac dirudite, Bizcai urrean daudelaco. (...)” (65)

Hitzaurre honetan bertan literatur-euskalkiei eta tokian tokiko hizkeriei eman behar zaien esparruaz lehen hurbilketa bat egiten du Moguelek:

“(...) Libruetan bacoitzari eman bear zaio, guiputz izcriditzen danean, guiputz eusquera naaste gabea aleguifnez; Labortarrac beren guisara, ta orobat Bizcaitarrac. Baña buruz icasten dan doctrina, obe da eracastea bacoitzaren errian itz eguiten dan becela. Ezdago onen premiariac Sermoi ta bestelaco libruetan. Elgoibar, Eibar ta Vergaran predicatzen bazate guiputz garbian, ondo adituac izango dira Sermoiguillac, baita ere guiputz urrean dauden Bizcaico errietan. Ordea Cura Jaun edo animazaiac itzeguin bear dute, aldezatela, beren cargura daucaten erricoac itz eguiten duten bezala errian eracasten dutenean. (...)” (66)

Ez zen, ordea, liburu honekin ahitu Moguelek gipuzkerarako zeukan isuria. Humboldték idatzitako bost gutun argitaratzen zituen Justo Gáratek RIEV aldizkarian. Horietak baten -1801eko uztailaren 20an José María Murgari eginikoan (67)-, euskaraz debozio eta erlijio liburuak baizik ez zegoela ohartuz, Tacito, Salustio zein Tito Livioaren kapituluren bat edo beste euskaratzeko erregutzen zion. Murgak, urte bereko irailaren 24an bidalitako erantzunean (68), itzulpen hori, berak horretarako ahalmenik nahiko ez izanik, J. A. Mogueli agindu ziola esango zion eta honek buruturik zuela, baina *giputz euskalkian*. Hona, Murgak azalduta, nondik eta nola sortu zen bizkaieraz ere egitearena:

(65) MOGUEL, Juan Antonio, Eracasteac, op. cit., XV-XVI. orr.

(66) MOGUEL, Juan Antonio, Eracasteac, op. cit., XVI. orr.

(67) GARATE, Justo, “Cinco cartas inéditas de Guillermo de Humboldt”, RIEV, XXV (1934), 430-444. orr.

(68) GARATE, Justo, “Cinco cartas...”, RIEV, XXV (1934), 622-639. orr.

“(...) recurri desde luego al señor Moguel para que traduxese los rezagos que le pareciese de Salustio, T. Livio, Tacito y Ciceron (...). Hizo aquel amigo con la mejor voluntad lo que se le pedia y añadió un trozo de Q. Curcio, pero por razones que hubo para ello, usó del Dialecto Guipuzcoano *que yo apenas entiendo*; y fuera de esto eligió en todos los Autores citados arengas, que es donde la traduccion, que Vm. queria literal quanto fuese posible, exige mayor libertad; y de esta se tomó tanta que a veces pareció a mi escrupulosa conciencia que no solamente ponía unas figuras por otras, sino aun que se apartaba del sentido. Asi (...) hube de cansar de nuevo al mismo amigo, rogandole que me traduxera en ambos Dialectos Vizcaino y Guipuzcoano, y con la mayor exactitud que permitiera el genio de ellas, las dos historias de Damocles (...)”. (69)

Eracasteac plazaratzearekin batcra badirudi bizkaitar batek gipuzkeraz idazteak atsekabe eta egonezin nabarmena piztu zuela, nonbait ere garai hartan bizi zen egoera nahasi eta istilutsuaren ondorioz. Moguelek berak Nomenclatura de las voces guipuzcoanas-en emango digu haserre eta zalaparta horien berri:

“Apenas se tuvo noticia en Vizcaya, que salía a luz una Obra bascongada y en dialecto Guipuzcoano, baxo del título de Confesio, ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac, y que su Autor era un Cura de dicho Señorío, quando se suscitó una conmoción como general entre los Eclesiasticos Vizcaynos, con quexas amargas de haber sido preferidos los Guipuzcoanos. ¿Qué utilidad podemos sacar, se decían, de una obra escrita en un dialecto extraño e intrincado para nosotros? El autor podría dar razones poderosas de su proceder, o de la atribuída predilección, si fuera del caso el publicarlas. (...)” (70)

Kritikoi amore emanez, Eracasteac bizkaierara itzulirik berrargitaratuko zuen. Badirudi, beraz, nahiz eta Moguelen eragina bizkaiera literatur-euskalki bilakatzerakoan erabakiorra izan, hori, neurri baten behintzat, halaberharrez eta ezinbestean gertatzen dela. Moguelek, bazter euskalki bateko euskalduna izanik, ahalik eta irakurlego zabalenari nahi dio, XVII. mendeko idazle zuberotarrek bezalaxe, bere lana helarazi. Bizkaierazko bertsoaren “Berba-aurrecua iracurle bizcaitarrari” hitzazurrean, lehenbizikoz gipuzkeraz ematearen arrazoiak azaltzen ditu. Berton, gipuzkera

(69) GARATE, Justo, “Cinco cartas...”, op. cit., 622-623. orr. Gipuzkerazko itzulpena (Versiones bascongadas de varias arengas, y oraciones selectas de los mejores Autores latinos, ó demonstracion practica de la pureza, fecundidad, y eloquencias del idioma Bascuence contra las preocupaciones de varios Escritores extraños, y contra algunos Bascongados, que solo tienen una noticia superficial del idioma patrio) Tolosan argitaratuko zen 1802an. Bizkaierazkoa, aldiz, Peru Abarca-ren amaieran eman zen argitara.

(70) VILLASANTE, Fr. Luis, O. F. M., “Texto de dos impresos sumamente raros de Juan Antonio de Moguel”, BRSVAP, XX (1964), Cuadernos 1º y 2º, (61-73), 63. orr. Villasantek, Juan San Martini jarraituz, lan hau lehen aldiz 1801ean, Gasteizen, argitaratu zela dio.

euskalkirik ulerterrazena izateari bigarren bat ere eransten dio: gipuzkerak bereganatuta daukan prestigioa eta, horrekin batera, bizkaitarrek euskararenganako erakusten duten axolagabekeria eta ardurarik eza:

“Orra nos aguertuten nachatzun aspaldi onetan escatuten cendubana emotera, ta zan quiputz eusqueran arguitu dodan Confesinuaren gafeico Liburuba. Nic icusi baneu bizcaltarretan eusqueriaren zaletasun quiputzetan necusana, ez nintzan ain esquer dongacua izango, cein da ichico nituban baruric neure bizcaltarrac, Jangoicuaren berbiaren ogui ederra zabaldu ric atzeco, ta arrotz leguez eguiten jatazanetan. Ez dot damu artu neban asmo ta nequia. Neure biotzeco pocic andijenagaz icusi dot, celan zabaldu dirian milla bat liburu Naparroa, Guipuzcoa, ta Bizcailan. Jaquin dot Abade Jaun ascoc iracurten ditubezala Elessetan, ta nequezale ez guichic euren echeetan (...). Bazaut, autor dot, ta ez daucat aztuta bizcaltar barrucuentzat gach izango dala Quiputz eusqueria ondo aditutia. Bafia verba ascatu aditututen ez dirianac, aditu oy dira lotu ta catetuta dagozan beztiacaz batera. Alan bere atseguin emoterren, ta gauza ain biarrac itsatsi ditezan obetó bizcaltarren biotzetan, ipifi dot Liburu bera bizcaico eusqueran (...). (71)

Peru Abarca-ren hitzaurreko 44. oharrean, halaber, bizkaitarrek euskararenganako erakusten duten zabarkeria hori salatzeari ekingo dio:

“(...) Con todo, es verdad que desde la epoca en que travaxaron y publicaron algunas obras los diestros bascongados Mendiburu, Cardaveras, y Larramendi, se nota mas cultura en los Sermones, y hai en Guipuzcoa no pocos Ecclesiasticos, que han hecho un estudio serio del bascuence y que le hablan con gallardia. Pero en Bizcaia nada se ha cultivado, y son rarissimos los que se han dedicado a estudiarlo en los libros vivos, que son las bocas de los rusticos”. (72)

Cristaubaren icasbidea-ri egindako hitzaurrean, behin eta berriz jorratutako eritziak errepikatuko ditu Moguelek: a) euskalki bat ala beste hautatzerakoan dauzkan zalantza eta presioak, b) euskalkiak direla eta euskaldunen arteko onartezinezko lehia eta tirabirak eta, bereziki, bizkaierak giputzengandik jasaten dituen arbuio eta destainak, eta, c) euskaldunek elkar ulertuko badute gipuzkerara jo behararren kontzientzia:

“(...) He tenido harto que discurrir sobre el dialecto, en que debia sacarle. Bien conocia, que el Guipuzcoano es mas unibersal, a lo menos en la inteligencia, y que se huviera recibido en lo general con mas aplauso. Pero que diran los Vizcainos? decia entre mi. Por que no ha de tener la Vizcaia algun monumento eterno, o fixo de su lengua, si acaso en los tiempos venideros la quisieran corromper, y desfigurar los naturales?

(71) MOGUEL, Juan Antonio, *Confesino ona...*, op. cit.

(72) MOGUEL, Juan Antonio, *Peru Abarca*, op. cit.

Convencidos de estas razones, y despreciando las mofas, que harán algunos Guipuzcoanos (que las estoi adivinando) con sola la brebe lectura de cortas lineas, hè resuelto sacarle en el dialecto de este Señorío. Mas con la esperanza de vestirle nuevamente en el Guipuzcoano, para que un mismo libro corra en los tres dialectos Labortano, Guipuzcoano, y Vizcaino, y se eche de ver de que forman sustancialmente una verdadera *sociedad de Irurac-bat*". (73)

Bada Moguelengan, ikusi batera bederen, harrigarri samarra dirudien jarrera bat. Baldin eta bere lehen idazlanetan, eta irakurle kopururik handienarengana iristeko asmoz, gipuzkeraz idazteko erabakia hartzen badu ere, bigarren epe baten, eta Bizkaiko elizgizonen bortxaz bere burua bizkaieraz baliatu beharrean ikusten duenean, ez du bizkaitarren gehiengoarengana –ez eta, hortaz, euskaldunen gehiengoarengana– heltzeko urratsik emango. Aitzitik, bere herriko hizkeraz, den bezalakoaz, baliatzen da, Markinakoaz alegia (74). Moguelek, dena dela, jakinaren gainean egiten du aukera hori:

"Icusico da ez ditugula bardin erabaguiten verbaac aitatu dodan neurere adisquide onec –Añibarrok alegia–, ta nic; ta emendi ateraco da, cetan daguan bizcayco eusqueriaren desbardintasuna. Ac dino *maitea, neurea, zoroa, gozoa, burua, Cristinaua...* nic barriz Marquina inguruan leguez *maitia, neuria, gozua, zoruua, buruba, Cristinauba*. Cein batera, cein bestera esan, ez dau ecer galduten eusqueriac". (75)

(73) MOGUEL, Juan Antonio, *Cristaubaren lcasbidea edo Doctrina Cristiania*, op. cit.

(74) Markinako hizkerak zeukan prestigioa izan liteke, Moguel bera Markinan bizi izateaz gainera noski, jarrera hori esplikatu lezakeen arrazoietariko bat zeren, bestela, bazter hizkera bait da Markinakoa bizkaieraren eremuan eta hiztunen kopuruari dagokionez ere ezin esan, ez orduan eta ez gero, bere baitan bizkaitarren gehiengoa biltzen duenik.

(75) MOGUEL, Juan Antonio, *Confesino ona...*, op. cit.

Esplizituki adieraziko ditu Añibarrok bere arrazoiak (AÑIBARRO, P. Fr. Pedro Antonio de, *Grammatica bascongada...*, op. cit., 13-14. orr.):

"Mucha parte de Bizcaya, algunos Pueblos rayanos suyos, y en las cinco Villas de Navarra posponen una *b* a la *U* de nombres, y conjugaciones: como *Cerua, ceruba; zuec, zubez; deusue, deusube*, y una *j* herida al *ia*, v. g. *arguia, arguija; oguia, oguija*, pero como en lo restante del pays bascongado no se inovan sus radicales, omitiré dichas letras *b*, y *j*, si guiendo lo más común, y general; pues sería mucha molestia el haber de repetir por una sola letra tantas dicciones: v. g. el haber de poner segunda vez: *cendubezan, deusubezan*, después de haber dicho: *cenduezan, deusuezan*. Tampoco desquiciaré de su rayz la mudanza que en dichos Pueblos hacen trocando la *e* en *i*, como *bete, betia: orde, ordia*: y la *o* en *u* como *Jangoico, Jangoicua, cuarena; oso, osua*: pues sobre no haber necesidad de mudar estas letras que el uso ha introducido, es más natural, y más fácil el no mudar, y alterar estas letras".

Eta beheraxeago (Ibidem, 167-168. orr.):

"(...) Y no se puede censurar la adición de dichas *B. I.* habiendose introducido esto para suabizar la *U* fruncida y la *I* asilbada. Y lo mismo añaden una *J* herida a los acabados en *I*: v. g. *arrija, arguija, por arria, arguia*. Estos mismos suelen mudar en *U* la *O* radical: v. g. *oso, osua; goico, goicua*. Y también la *E* radical en *I*, v. g. *ase, asia; bete, betia; orde, ordia*. Pero ocasionan alguna equivocación a los oyentes o lectores que no están acostumbrados a estas mudanzas: pues, para estos *ordia* es borracho; *asia*, comenzado; *betia*, lo de siempre".

Azalpen berdintsua emango du Peru Abarca-ren hitzaurreko 20. oharrean:

“Se notará en el language de este dialogo continuado en diversas conferencias, que muchas voces termino en *ja*, y *ba* contra la costumbre de la maior parte de los Vizcainos, guipuzcoanos, y Bascos. Por egemplo *oguija*, por *ogüia*, *arguija*, por *argüia*... *buruba* por *burua*, *zucendua* por *zucenduba* (sic). Como el Doctor Peru es de uno de los Pueblos en que se conserva este gusto, no devia salir de lo que havia aprendido de sus Antepasados. No le falta regla para el caso. Siempre que el nombre termina en *i*, aunque tenga pospuesta la *a* por articulo, se añade la *j* con la pronunciacion latina. (...) Asimismo, quando el nombre o el participio de preterito termina en *u* se añade una *b* al articulo: como en *buruba*, *escu-ba*, *zucendu-ba*, *oquertu-ba*. Estos tales acaban los nombres en *ia*, quando terminan en *e*, y en *ua*, quando en *o*. *Neure*, *neuria*; *zeure*, *zeuria*; *maite*, *maitia*; *zoro*, *zorua*; *gaisto*, *gaistua*, tal es la costumbre en Marquina, Lequeitio, Elorrio, y sus circunferencias, y tambien en buena parte de la Guipuzcoa, que no diste de Bizcaia, sino quatro o cinco leguas. Yo he de confesar que es mas expedito, menos embarazoso, y al parecer mas arreglado, quando sin variacion alguna se terminan las voces con sola la adiccion articular: *Argüia*, *Ogüia*, *Zuria*, *gorria*; *burua*, *escua*, *zucendua*, *oquertua*. Pero no es facil hacer acusaciones a los que siguen la primera de las dichas costumbres”. (76)

Argibide gehiago emango ditu 22. oharrean:

“El dialecto que se sigue en este Dialogo tirado es el marciano, y universalmente entendido en todo el Señorío, y todos confiesan que es el mas limpio, y organizado. No son iguales en Vizcaya todas las inflexiones de la Conjugacion, como tampoco lo son en Guipuzcoa. (...) Nada hai que censurar en ello, como tampoco en que se diga *bialdu zaitut*, o *zaitudaz*, *ditut*, o *ditudaz*. Lo que se deve pedir a todo vizcaino es la claridad en el corte, la pureza en las voces, instruiendose de los mismos rusticos, atendiendo sus locuciones incorruptas, y el que se quiten los abusos introducidos, como son el decir *egunien* *egunien*, *astien* *astien*, *zarien*, y otras semejantes, trastornando la *a* en *e* contra el gusto general, y la regla. En varios pueblos hai un sonsonete lamentable que desagrada al oido. De aqui tantos motes, y mutuas befas”. (77)

Moguelek, azkenik, *f* ordez *p* idaztea erabakitzen du. (78)

(76) MOGUEL, Juan Antonio, Peru Abarca..., op. cit.

(77) MOGUEL, Juan Antonio, Peru Abarca..., op. cit.

(78) Hitzzaurreko 8. oharrean ematen digu erabaki honen arrazoia.

Erabaki hau ere ez omen zen izan, Mitxelena dioskuniketik (MITXELENA, Luis, “FREDRICK JUNGEMANN. La teoría del sustrato y los dialectos hispano-romances y gascones”, BRSVAP, XII (1956), Cuaderno 1º, (117-129), 126. orr.), Añibarroren gustokoa: ... /...

Honaino esandakoa kontutan hartuz ez dirudi, bada, bizkaiera literatur-euskalki mailara jasotzeko eta, are gutxiago, euskalki hau standardizatzeko asmo sutsurik antzeman daitekeenik Moguelengan eta, ondorengo zenbaitek, bizkaiera literarioaren aitzindari eta eredutzat hartu izan badu hori malgré lui gertatu dela esan beharko.

Euskalkiak elkarrengana hurbiltzea eta euskalkien ezberdintasunak leuntzea eta arintzea da Moguelengan dakusagun beste jarrera azpimarragarrietariko bat. Hiztunen kontzientzian elkar ulertu ahal izateko gaindiezinezkotzat jotzen diren eragozpenak ezabatu nahirik arituko da eten gabe, eragozpenon funts eta oinarri linguistikorik eza frogatuz. Helburu horrekin eratuko zuen, hain zuzen ere, *Nomenclatura de las voces guipuzcoanas*:

“(…) Luchando pues entre sí con tanta nube de quejas, pretende con la siguiente Nomenclatura hacerles palpar a los Vizcaynos, que dicha Obra [Eracasteac, alegia], y cualesquiera otras del dialecto Guipuzcoano las pueden entender con poco trabaxo, y hacer versiones al suyo, acomodándose al territorio en que cada qual reside, y esto con mayor facilidad y pureza del idioma, que las que comúnmente se hacen de los libros castellanos. (...)” (79)

Cardaberazean antzera, euskalkien ezberdintasunak, batez ere eta nagusiki, hiztegi mugatzen direla baieztatuko du:

“(…) Los verbos auxiliares de ambos dialectos [bizkaiera eta gipuzkerarenak alegia] son en suma los mismos; el mismo el Sintaxis; una misma la declinación articular de los nombres, excepto en el ablativo de la preposición castellana *con*, que se diferencian por *quin* Guipuzcoano, *gaz* y *caz* Vizcaynos, cuya diferencia la saven todos los bascongados. Muchísimos y la mucha mayor parte de los vocablos de ambos dialectos tienen la misma significación. La variedad que se nota en otros, es de sola una u otra letra, *eman*, *emon*, *dot*, *det*, *nas*, *naiz*, *ipiñi*, *ifini*, o *imini*, *idoró*, o *ediró*, *arquitu*, o *aurquitu*, *gabe*, *bage*, o *baga*; *gati*, o *gatic*; *billatzen*, *arquitzen*, *laztanten*, o *billatuten*, *arquituten*, *laztanduten*. Estas y otras simples variaciones no causan embarazo para la mutua inteligencia. El artificio de las inflexiones en los modos relativos, como también en los verbos irregulares (que son más en número en el dialecto Vizcayno), hay bastante de semejanza (80); pero he observado que los Viz-

- / -

“Cada vez achica Vmd. más el bascuence de Marquina. Después de significar las inconexiones de mutaciones de *o* en *u*, *e* en *i*, *uba* y *ija* añade Vmd. que en Marquina no aciertan a pronunciar la *f*, y que se borre del alfabeto bascongado, y nuestros escritores sucesores si se conforman con esta regla yran escribiendo *pedea*, *pielac*, *pina*, etc. Es comunísimo su uso en toda Bizcaya; usan de *f* en Navarra y Francia, y Guipuzcoa ha pegado la *p* a Marquina como también otros términos que anoto arriba”.

(79) VILLASANTE, Fr. Luis, O. F. M., *Texto de dos Impresos...*, op. cit., 63. orr.

(80) Villasantek berak ere oharerazien duenez, *desemejanza* beharko zuen jarri.

caynos no se embarazan con las inflexiones de las Conjugaciones Guipuzcoanas. (...) Así en otras inflexiones sueltamente confusas, se aclara el significado con el resto de la oración. Si los Predicadores Guipuzcoanos, conservando su dialecto, substituyen las voces de los Vizcaynos a las peculiares y características del suyo, serán mui bien entendidos, aun en lo interior del Señorío. En suma el único embarazo está en que los Vizcaynos de lo interior, ignoran el significado de varios vocablos. Si el Guipuzcoano le dice a un Vizcayno cerrado, *gari ale guchi bildu degu aurtien, ostia izugarri batec galdu ditu*, quedará confuso por que ignora los significados de *alea, bildu, ostia* y *izugarria*. Si aprende que *alea* significa *garaua*; *bildu, batu*; *ostia, trumoya*; *izugarria, icaragarria*, saldrá del embarazo y entenderá bien la relación.

Ahora si en la siguiente Nomenclatura se les hace palpar, que los vocablos peculiares inconexos y característicos del dialecto Guipuzcoano, son pocos y se les presenta su significación, creo que se me confesará que en pocos días de trabaxo pueden los Vizcaynos comprender el gusto y sentido de los libros guipuzcoanos. (...)” (81)

Eritzi berberari eutsiko dio Justo Gáratek argitaratutako **La Historia y Geografía de España ilustradas por el Idioma Vascuence-n:**

“Se nos hace otra acusación y es que los vascongados no se entienden mutuamente, que cada lugar o pueblo habla con variedad que es un desorden particular del vascuence; que un predicador castellano halla estos obstáculos pero esta acusación es injusta indefecto del idioma. El griego tiene diferentes dialectos y ¿quién por eso ha censurado a este bello lenguaje? Y qué diré si es de medida exageración cuanto se opone en esto contra el idioma vascuence. Viene un tratante guipuzcoano a Vizcaya, recorre los pueblos con sus mercaderías. ¿Deja de entenderse cuanto dice? Predica un guipuzcoano en el Señorío de Vizcaya si procura valerse de algunas voces de este territorio, es bien entendido porque aunque tienen ambos dialectos diferentes inflexiones en la conjugación, estas son entendidas ¿Hay que cavilar contra la experiencia? Acabo de imprimir una NOMENCLATURA alfabética de las voces diferenciales de los guipuzcoanos y vizcainos y no ocupa toda ella un pliego, aun inclusas sus correspondientes castellanas y la comunicación ha hecho que muchas de ellas sean entendidas mutuamente”. (82)

Berdin orrialde batzuk beherago:

“(...) Pongamos el caso que se junten a fabricar un suntuoso palacio 20 o más vascongados, unos de Labort, otro de la Navarra española,

(81) VILLASANTE, Fr. Luis, O. F. M., *Texto de dos impresos...*, op. cit., 63-64. orr.

(82) MOGUEL, Juan Antonio, *La Historia y Geografía de España...*, op. cit., 219. orr.

otros guipuzcoanos y otros vizcainos. Estos operarios en medio de la tal diferencia de los dialectos se entenderían sin mucha fatiga y acabarían su obra sin confusión y división.

El idioma vascongado tiene unos dialectos de menos diferencia que los dialectos castellano, gallego y portugués y se entenderían más fácilmente los vascongados, navarros, guipuzcoanos y vizcainos que los gallegos, castellanos y lusitanos. (...)” (83)

Badirudi tesi berbera baieztatzera datorrela Peru Abarca-ren bostgarten elkarriketan. Berton Peru eta Maisu Juan bizkaitarrekin batera, Joanis Francesa baigorriarra eta Chorgori giputza agertzen zaizkigu. Pertsonaia hauen bidez, Moguelek,

(83) MOGUEL, Juan Antonio, *La Historia y Geografía de España...*, op. cit., 262. orr.

Azpimarra dezagun, bidenabar, eritzi berberau agertuko dutela garai honetako beste zenbait idazle eta hizkuntzalarik. (Erkatu hau, gorago -2.2.1.-, euskalkien arteko ulertzintasunaz esan denarekin).

Horixe da, esate baterako, Humboldték -euskaldunen txokozalekasun eta jarrera chauvinistak direla eta ohizko salaketa egin ondoren- aditzera emango duena:

“(…) Si se habla de dialectos principales, (pues hay casi por todas partes diversidades particulares en atención a que el celo nacional de los pueblos más pequeños va tan lejos que los lugares inmediatos no se sirven con gusto del mismo nombre para los objetos que tienen en la lengua más de un nombre, y que la lengua de los puntos lejanos es por consiguiente muchas veces más semejante que la de los pueblos cercanos) no existen más que tres, y todos los buenos Maestros de Lenguas ó Gramáticos Vascos no aceptan solamente otros tantos, a saber: 1º. El labortano en la Vasconia francesa y en Navarra. 2º. El guipuzcoano en Guipúzcoa y Alava. 3º. El vizcaíno en Vizcaya. (...)”

La lengua es en estos tres dialectos, según su construcción y la cantidad de sus palabras, absoluta y enteramente la misma. La diversidad de los dialectos no estriba más que en la diferencia de la pronunciación, de la ortografía y de algunas formas de flexión, particularmente en los verbos; y en fin, en la circunstancia de que el uno de los dialectos hace uso de ciertas palabras, de las que el otro no se sirve jamás ó muy raras veces”. (HUMBOLDT, “Correcciones y adiciones al Mithridates de Adelung”, RIEV, XXIV (1933), (462-487), 463. orr.)

Berdin Fray Bartolome ere:

“(…) el bascuence es uno en su sintaxis gramatical; y la diferencia es en el modo de la pronunciación, y algunos términos provinciales, y aun locales, nacido, de que esta lengua existe, y se conserva de viva voz entre habitantes de muchas montañas con poca, ó ninguna relación entre sí, para el efecto de uniformar su singular dialecto. (...) El bascuence es uno en todas las Provincias bascongadas. Para saberlo bien, necesario es, enterarse de los modos, y voces de las Provincias, y aun de lugares, que usan familiarmente los unos; sin que algunos de ellos esten en uso en los otros, como he insinuado antes”. (SANTA TERESA, R. P. F. Bartolome de, *Plauto bascongado, ó el bascuence de Plauto en su comedia Pœnulo Acto 5º. Escena 1ª*, 1828, 33-34. orr.)

Moguelek Nomenclatura eratzeko izan zituen antzerako arrazoiek bultzatu zituen, orobat, Fr. Pedro Antonio de Añibarro *Voces bascongadas egitera. Añibarrok berak (AÑIBARRO, Fr. Pedro Antonio de, Gramática Bascongada...*, op. cit., 14. orr.) honako hauxe baieztatu du:

“Vencida la conjugación [honetatxte dakusa oztoporik larriena], no cuesta más que en otras lenguas el aprender los significados de las voces. (...)”

bere garaiko guztiek bezalaxe, bereizten zituen hiru euskalkietako ordezkariak bildurik dauzkagu. Moguelek, euskalki bakoitza nolakoa den erakusteko asmo garbiz, Joanisi “nafar/lapurteraz”, Chorgoriri gipuzkeraz eta Peruri bizkaieraz esan eraziko dizkie otoitz, atsotitz eta kanta zenbait.

Maisu Juanek, bizkaiera baizik ez dakielarik eta euskaran erabat analfabetoa izanik, ez du deusik ulertuko. Peruk eta beronen etxeok, oster, ez dute elkar ulertzeko batere oztoporik izango. Moguelentzat, bada, elkar ulertze arazoa toki ezberdinetako euskaldunen arteko harremanak sendotuz eta euskalki denetan idatzitako liburuak irakurriz gaindi daitekeelakoa datzala dirudi. Izan ere Maisu Juanek “lenenguan baño gueijago aituten deusut” esango dio Joanisi seigarren elkarrizketan eta, honek ere bere aldetik, “Niri ere Bizcaira ethorri nintzen lenbico egunetan zuri bezala gusta citzaiten emengo euscara aditzea. Orain berriz nere bezala aditzen det. (...)” aitortuko dio.

3.3.5. MOGUELEN ONDORENGOAK

XIX. mendean zehar, azken mende laurdena alde batera utzirik, ez zaio euskara bateratze eta standardizatzeko auziari behar bezalako irtenbide argi eta zehatzik ematen, nahiz eta horren kezka ageri-agerian eta guztien gogoan dirauen. (84)

Ez dirudi, bestalde, Bonaparte eta beronen laguntzaileen lana, bere osotasunean harturik arras onuragarria izan bada ere, ikuspegi honetatik begiratuz gero hain mesedegarria izan denik. Alde batetik, euskalkiak lantzeko neurritz kanpoko grina nagusituko da, baritate standarda finkatzeko asmoak oro bertan behera utziko direlarik eta, honekin batera, euskalki eta azpieuskalki bakoitzaren nortasuna azalera atera beharrak eraginda, bitxikeriarik txikienei, bai daukaten inportantziari eta bai erabiliak diren hedaturari so eginik, sekulako indarra emango zaie. Honekin, bada, euskararen joera zatikatzailea areagotu egingo da euskararen batasuna oztopatuz eta itzaliz. Diogunaren adibide gardena daukagu Aita Uriartek Bonaparteri, beronek agindutako gipuzkerarako itzulpenean egin beharreko aukerez mintzo zaiolarik, 1857ko agorrilaren lehenean egin gutunean:

“Empleo los términos: *vicitu*, *izandu*, *aundia* y otros muchos por distinguirlos del vizcaíno, aunque podrían decirse: *vici*, *izan*, *andia*.

(...)

(84) Hona hemen, diogunaren lekuko gisa, José Cruz Echeverriak (ECHEVERRIA, Aita Frai José Cruz, *Devoclozco vicitzaraco sarrera San Francisco Salesec aterea, Tolosan, 1821, 6. orr.*) esaten duena:

“Libru onetan curiosoac falta asco topatuco dituzte, ta aguirienac, eusqueraren gafian izango dira. Topatuco dute bear bada Provinciaco eusquerarequin batian Nafarroacoo, Vizcayacoo, ta Arabacoo, cer gatic guztietatic nabillela, ta beti corrica, escribitu det. (...)”

Baicican, gandican, uso generalmente por diferenciar del vizcaíno y dar aire guipuzcoano.

Aguertuten, agueritu, dirade, por distinguir del vizcaíno.

(...)

Burau, baraur, barur: uso los últimos por diferenciar del vizcaíno". (85)

Berdin urte bereko agorrilaren 17an eginikoan:

"(...) debo advertir que en cuanto he leído a Lardizabal no recuerdo haber hallado *Jaungoicoa* sino en la pág. 398. Lo mismo digo de *gandic* y *gandican*. Creo que debe usarse *Jaincoa* y *Jaungoicoa, gandic* y *gandican*; pero en la traducción de Beterri deben usarse mucho más *Jaincoa* y *gandican*: lo primero, porque se estilan cuando se habla con elegancia y lo segundo, porque se diferencian del vizcaíno. Esto mismo creo en *ciran* y *ciraden, vici, vicitu, izan, izandu, sinistu, sinistatu...* pueden usarse ambos, pero dando la preferencia con mucho exceso a los segundos por las mismas razones anteriores". (86)

Eta beherago oraindik:

"(...) hago uso de todos los autores bascongados, dando la preferencia a Lardizábal y luego a Aguirre; pero tomando de cada uno lo que creo mejor para hacer la traducción literal, ligada, bíblica, del dialecto guipuzcoano de Beterri; pero, en cuanto se pueda, diferente del vizcaíno y laboritano, a fin de que se conozca la diferencia de los dialectos". (87)

(85) RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., "Cartas del P. Uriarte...", ASJU, I (1954), op. cit., 52. orr.

(86) RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., "Cartas del P. Uriarte...", ASJU, I (1954), op. cit., 53. orr.

Bizkaiera eta gipuzkera bereiztearren egiten ditu Aita Uriartek ahaleginik handienak, beherago aditzera emango duenez (ibidem, 54. orr.):

"(...) Cuando me hallo con un término vizcaíno, o laboritano, para Guipúzcoa adopto el laboritano, v. gr.: *anitz* prefiero a *asco*.

(...)

(...) Bajo estas observaciones convengo con S. A. que Lardizábal sea preferido hoy a todo escritor bascongado: que puede adoptarse todo término, que se lee en Lardizábal, siempre que no sea vizcaíno (...)"

(87) Ibidem, 55. orr.

Guzti hau ikusi ondoren bat gatzoz bete-betean Villasantek (VILLASANTE, Luis, O. F. M., *Historia de la literatura vasca*, Sendo, Bilbao, 1961, 265. orr.) Aita Uriartek dioen honekin:

"(...) Se ha dejado poseer hasta tal punto por las ideas de su egregio protector, que le vemos (...) traducir a infinidad de variedades vascas los textos sagrados o de ense-

JOSE FRANCISCO DE AIZQUIBEL

Bonapartek eta beronen laguntzaileek ezarritako dinamika horretatik urruntzen diren salbuespen apurren artean Aizquibel genuke, inolako zalantzarik gabe, adibiderik aipagarriena. Batasunaren arazoari erantzuteko asmoz egingo dituen proposamenek bi ardatz nagusi izango dituzte:

a) euskararen Akademia bat sortu, eta,

b) euskal komunitate linguistiko osoan –zazpi probintzietan, alegia– erabili ahal izateko hizkuntz-eredu bat finkatu.

Aizquibel da, guk dakigula, era honetako proposamenak halako sakontasun batez egiten lehena eta bereziki azpimarragarria deritzogu bigarrenari, ordura artekoek, kasurik hoberenean ere, Iparraldera ala Hegoaldera –proposamenen egileak batekoak ala bestekoak zirenen arabera– mugatzen bait ziren.

Antza denez, *De los dialectos* izeneko lanean ematen du lehen aldiz bere asmoen berri:

“El establecimiento o fundación de una Academia Bascongada en Tolosa u otro punto centrico de todo el pais Bascongado compuesta de las siete Provincias Bascongadas de uno y otro lado del Pyreneo seria en mi concepto de la mayor importancia no solo para nosotros, sino para toda la Europa porque en su lengua se encontraran vestigios de la mas remota antigüedad”. (88)

Asmo bera azalduko du bere *Hiztegiaren hitzaurrean*:

... /...

fianza religiosa, dominado un poco por la superstición de las variantes más mínimas e insignificantes. (...) se afanó con exceso en este trabajo de dispersión y atomización lingüística, fascinado por el prestigio de su augusto protector (...).”

Antzerako salaketa egingo du Sarasolak (SARASOLA, Ibon, *Historia social de la literatura vasca*, op. cit., 64. orr.):

“(...) El propósito del Príncipe era estudiar científicamente la lengua hablada, sin que le preocupara gran cosa la lengua literaria en cuanto tal, y tampoco la consagración y el robustecimiento del fragmentarismo dialectal de la literatura vasca que resultaron de su actividad y la de sus colaboradores. Desde entonces serán cuatro los dialectos literarios del euskera; además, y por la misma causa, el euskera oral se impone dentro de los estudios vascos a la lengua literaria. Ese predominio de la lengua oral se aprecia especialmente en los diccionarios. Aunque ello resulte extraño si se observa que los diccionarios de las demás lenguas están compuestos sobre la base del léxico literario, los diccionarios vascos dan al léxico consagrado por el uso literario una importancia mucho menor de la conveniente, al paso que se llenan de una infinidad de términos y variantes puramente fonéticas del euskera hablado. (...)”

(88) AGUIRRE, Antxon, “Reseña histórica. José Francisco Aizkibel Epelde (1798-1865)”, *Eusko-Ikaskuntza. Hizkuntza eta Literatura*, II (1983), (239-288), 255. orr.

Aguirrek dioenez (ibidem, 240. orr.), *De los dialectos* izeneko txosten hau (ikus, orain, Aguirreren lan honetako 253-257. orr.) 1838an hasi omen zuen Aizquibelek.

“(…) se forme una Academia compuesta de los hombres más ilustrados del país vascongado, tanto franceses como españoles, que es de absoluta necesidad para los adelantos de nuestra lengua y para que con el tiempo modificando las diferencias de ortografía y pronunciación, y generalizando indistintamente las voces de los diferentes dialectos en la escritura y literatura, se forme una lengua comun, comprensible para todas las provincias.(…)” (89)

Zehatzago mintzatzen da honetaz De la lengua euskera ó de los Vascongados lantxoan. Athenasko hizkera greziar guztien hizkuntz-eredu bilakatu zen bezalaxe nahi luke Euskal Herrian ere gerta ledin:

“(…) Esto mismo quisiéramos que sucediera con nuestra *Euskera*, que poco á poco se formase un dialecto clásico ó literario, que comprendiesen igualmente los habitantes de todo el país Vascongado indistintamente, como puede suceder muy bien, si el clero del país en su predicacion y publicacion de devocionarios y de obras de instruccion cristiana, usase de un lenguaje puro y escogido, arreglando para ello una gramática, que reuna los elementos primitivos de esta lengua en su mayor pureza, sin hacer caso ninguno de los actuales dialectos, y atendiendo solo á la verdadera y genuina restauracion de la lengua, aproximándose, cuanto se pueda, al estado que tenia en la época de su mayor apogeo ó de su mayor pureza.(…)” (90)

Helburu hau erdiesteko Akademia bat eratzea jotzen du nahitaezko baldintzat:

“(…) Para esto es indispensable la formacion de una academia compuesta de Vascongados, que hayan hecho estudios especiales sobre su lengua, ó que hayan estudiado las lenguas orientales, ó dedicádose á estudios lingüísticos, admitiendo igualmente en su seno á todo filólogo ó lingüista extranjero que se dedique al estudio de nuestra lengua (...)” (91)

Honela ikusten ditu erabaki horretatik letozkeen mesede eta abantailak:

“(…) De este modo estaria unida esta nacion con el tiempo ethnográficamente, bajo un dialecto comun literario, que al cabo de un siglo ó

(89) AIZQUIBEL, José Francisco de, Diccionario bilingüe, Tolosa, 1884, VI. orr.

Hiztegi hau 1884an, Aizquibel hil ondoren, argitara eman bazen ere, hitzaurrea behin behin idatzita omen zegoen 1853rako Aizquibelek berak birritan, IV. eta V. orr., aditzera ematen duenez.

(90) CASTELLANOS DE LOSADA, Basilio Sebastián, Discurso histórico-arqueológico..., op. cit., 218. orr.

Aldatu dugun pasarte honetan, garaiko euskara bertan behera utzi eta jatorrizko euskal hizkuntza berreraikitzekeo asmoa nahi genuke azpimarratu. Aizquibel dugu, dirudienez, XIX. mende amaieraz geroziak indartzuz joango den jarrera honetan ere aitzindari.

(91) CASTELLANOS DE LOSADA, Basilio Sebastián, Discurso histórico-arqueológico..., op. cit., 218. orr.

dos predominaria, por la ventaja de ser comprendido en las siete provincias ó distritos de diferentes dialectos, que hoy se conocen y no se pueden entender unos con otros, ya que es imposible reunir las políticamente perteneciendo á dos naciones poderosas. Progresaria muchísimo la literatura vascongada, porque habría mas consumo de libros *euskeranos*, puesto que les era comprensible á todos el dialecto literario, y entonces se publicarían muchas gramáticas, diccionarios y obras útiles, que por temor de falta de venta se hallan en el día en el estado de *manuscritos*, unos concluidos y otros abandonados, sin ningún género de estímulo para concluirlos.(...)” (92)

SABINO DE ARANA-GOIRI

XIX. mende amaieran, 1876az geroztik bereziki, pil-pilean jarriko da hizkuntz-batasunaren auzia. Sabino de Arana, euskararen egoerak eta geroak hainbeste kezkatzen zutena, ezin atzean geratu noski eta beronen jarrerari, bereganatu zuen prestigio ikaragarria kontutan izanik, arreta handiz aztertu beharrekoa deritzogu, hala bere garaikide nola ondorengoengan izango duen eragina erabakiorra gertatuko bait da. Era honetara laburtzen ditu hizkuntza bateratzeko zebiltzan asmo eta proposamenak 1896an argitaratutako *Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino* liburu ezagunaren hitzaurrean:

“Nótase, primeramente, en algunos tratadistas marcada tendencia a la reducción de todos los dialectos del Euskera a uno solo, que habría de componerse de las formas más próximas a las primitivas u orgánicas y usarse como *Euskera literario* (93). Otros quieren que éste se establezca en cada dialecto y subdialecto, de suerte que haya un *bizkaino literario* y un *bizkaino vulgar*, un *guipuzkoano literario* y un *guipuzkoano vulgar*, un *laburdino vulgar* y un *laburdino literario*, etcétera”. (94)

Aranak, oster, ez ditu asmo horiek ontzat emango ondorengo arrazoiotan oinarrituz:

“Estimo que ninguno de los dos proyectos es admisible desde el momento que, de realizarse cualquiera de ellos, resultaría que el campesino hablaría un Euskera que se tendría por tosco y rudo, y otro, culto y aristocrático, el euskeriano de alguna educación literaria, originándose así, en la esfera de la cultura, una cierta distinción de clases que en modo alguno puede armonizarse con el espíritu de igualdad que caracteriza al pueblo euskeriano y muy principalmente al bizkaino. Mas para desapro-

(92) CASTELLANOS DE LOSADA, Basilio Sebastián, *Discurso histórico-arqueológico...*, op. cit., 218. orr.

(93) Aizquibelek proposatutako eredu honen fruiturik umatuen gorago aipaturiko Azkueren *Euskal-Izkindea*. Gramática euskara zen ezbaierik gabe.

(94) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 820-821. orr.

bar la primera de aquellas tendencias hay, además, otra razón, y es que, al refundir todos los dialectos y subdialectos en una forma única, reconstituida como originaria común de todos ellos, quedaría de una plumada suprimido y aniquilado en su mayor parte el extenso y admirable desarrollo fonético que el Euskera ha podido alcanzar sólo con el transcurso de muchos siglos, a más de que, por otra parte, nunca podría obtenerse seguridad de haber acertado en las resoluciones, y mucho menos siendo confiada la unificación a tratadistas poco o nada aptos en materia etimológica, que han sido siempre y siguen siendo todavía los más numerosos y más osados". (95)

Hauxe da Arana-Goirik irtenbide gisa proposatuko duena:

"Lo que procede, en mi opinión, es componer dentro de cada región euskariana que haya sido antes estado autónomo y se halle en la posibilidad de volver a serlo algún día, un dialecto general, formado con los elementos menos alejados de las formas orgánicas, esparcidas aquí y allá, en los diferentes subdialectos o variedades que se hablen en el territorio de que se trate; y que ese dialecto así elaborado no sea patrimonio exclusivo de la literatura y la clase elevada de la sociedad, sino habla que, abatiendo y matando las formas usuales desechadas, llegase a generalizarse en el país y a ser común de doctos e ignorantes, pobres y ricos, siendo la lengua oficial en todas las escalas de la enseñanza, desde las primeras letras hasta los estudios superiores, y apareciendo en las conversaciones callejeras lo mismo que en los discursos de más elevado estilo, y así en la enmarañada epístola del férreo aldeano como en los documentos oficiales y en las obras más abstractas o más poéticas. De esta suerte tendríamos un solo Euskera Guipuzkoano, un solo Euskera Nabarro, un solo Euskera Bizkaino, etc., viniendo a realizarse en la esfera lingüística la fórmula que en la práctica tiene tantos y tan decididos partidarios, *la variedad en la unidad*, que correspondería exactamente a la que hubiese de regir en este último orden.

Si algún día los distintos pueblos euskerianos necesitasen de un Euskera común a todos para asuntos de algún orden especial, tiempo habría de componer uno que sólo tuviese este determinado destino, mas debe advertirse que este trabajo presupone el de la formación de todos y cada uno de los dialectos regionales, punto al que estamos muy lejos todavía de llegar respecto de cualquiera de ellos. Pero unificar el Euskera, de manera que de todos los dialectos, todos los subdialectos y todas las variedades se extrajese una sola forma, ni conviene por las razones apuntadas, ni hay en rigor motivo para ello: porque prácticamente se puede comprobar que las diferencias dialectales no dificultan en lo más mínimo

(95) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 821. orr.

las relaciones de unos *euskeldunes* con otros, ni tampoco es tanta como algunos suponen la dificultad con que tropiezan para entenderse los de distintos dialectos, sino muy insignificante y tal que desaparecería en absoluto en el momento que el *euskeldun* conociese gramaticalmente su lengua patria.

Lo razonable es, pues, que dentro del Euskera se construyan, por de pronto, tantos dialectos como regiones hay dentro de Euskeria que han sido políticamente distintas en la historia, y que cada uno de esos dialectos se forme con los elementos gramaticales y lexicológicos más puros que hoy se encuentren esparcidos en los diferentes subdialectos y variedades de la respectiva región". (96)

Orripeko ohar baten fiabardura hau egingo du:

"La única diferencia que entonces habría entre el Euskera de un libro y el hablado del mismo dialecto, sería la que en todas las lenguas existe: la de abundar en contracciones el segundo, y carecer de ellas el primero. Pero esta diferencia no determina distinción de clases sociales, ni confusiones en el uso del idioma. (...) El no usar de esas síncopas propias de la lengua en la ordinaria conversación, o es pedantería, o indica poco hábito en el uso del idioma". (97)

Gauza baten, horregatio, nahitaezkotzat jotzen du batasuna: *ortografian*:

"Pero esta demarcación interdialectal que propongo ¿supone también diversidad de ortografía? En manera alguna". (98)

Euskalkien erabilerari dagokionez antzerako jarrera agertuko du urte berean argitaratutako Egutegi Bizkaifara-n:

"Gure izkera ederak eztauka era bat bakañik: bai-daukaz batzuk.

Iru dira euskerearen izkelgijak: bat: bizkaifara, egiñ da Bizkaya'n, Araba'n eta Gipuzkoa'ko zati batan; beste bat, goiko Nabañan, Lapur-

(96) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 822-823. orr.

Oso lotura estua ikusi uste dugu Arana-Goiriren proiektu linguistikoaren eta -batez ere berearen lehen epeko- proiektu politiko konfederalaren artean. 1894an sortutako Euskeldun Batzokija-ren arategi proiektuko 8. artikuluan, esate baterako, honako hau irakur dezakegu:

"Siendo Bizkaya por su raza, su lengua, su fe, su carácter y sus costumbres, hermana de Alaba, Benabarre, Gipuzkoa, Lapurdi, Nabarra y Suberosa, se ligará o confederará con estos seis pueblos para formar el todo llamado *Euskalerría* (Euskeria), pero sin mengua de su particular autonomía. Esta doctrina se expresa en el principio siguiente: *Bizkaya libre en Euskeria libre*". (ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 280. orr.)

(97) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 822. orr.

(98) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 824. orr.

di'jan eta Gipuzkoa'ko beste zatijan; eta irugařena, Ziberoa'n eta Benabařa'n. Irurok dira zař-zařak; irurok eder'ederak: irurok, geure odolaren izke-rea.

Bařa bizkařafok egin biar dogu geure izkelgi au; gipuzkoarak euren; eurena, napařak; eta efi bakořxaren semiak, euren eriko izkelgia".
(99)

Arana-Goirik euskararen standardizazioari—ortografi arloan emandako urratsak alde batera utziz—erantzun negatiboa ematen diola esango genuke beraz. Ukatu egingo du, alde batetik, euskalki guztien arteko zeinahi batasun motaren beharri-za eta, irtenbide legez, euskalki mailako batasuna proposatuko. Jarrera honen ondorioz ezabatuz joango da euskara hizkuntza bat eta bakarra denaren kontzientzia, euskalki bakoitzaren elementu bereizgarriak azpimarratu eta indartuko direnaldi berean. Hain zuzen ere garai honetan ematen dira bizkaiera gainontzeko euskalkietatik urruntzeko urratsik nabarmenenak. Praktikan, bestalde, Markinaldeko hizkera hartuko du eredutzat, bere fonetismo eta guzti, berauek hizkuntzaren aberasgarri direlakoan. Honen kariatz, eta Aranak zeukan itzal eta eraginaren ondorioz —lehenago Bonaparte Printzearekin gertatu zen bezalaxe—, etenaldi berri bat ezagutuko du standardizazio bilakabideak.

(99) ARANA-GOIRI, Sabino de, "Egutegi bizkařa", *Obras Completas*, op. cit., (983-1.015), 1.012. orr.

IV. ATALA

**ORTOGRAFIAREN KODIFIKAZIOA
XX. MENDERA ARTE**

IV. ORTOGRAFIAREN KODIFIKAZIOA XX. MENDERA ARTE

XX. mendera arteko bide luzean, euskalki batzuen ala besteen aldeko edo aurkako jarrerez eta batasunera iristeko proposamen teorikoez gainera, arau eta erabaki zehatzak ere hartuko dira, ortografi alorrean bereziki. Ondorengo lerrootan epe honetan zehar egin diren urratsen berri ematen, gainkiroki bada ere, ahaleginduko gara. Hiru aro nagusi bereiztuko ditugu horretarako: a) XIX. mende aurrekoa, b) XIX. mendeko lehen erdialdea, eta, c) XIX. mendeko bigarren erdialdea. Leku berezia eskainiko diegu, azkenik, XIX. mende ondarrean ortografia bate-ratzeko egingo diren batzarrei.

4.1. LEHEN AROA: XIX. MENDE AURRETIKOAK

Pentsatzekoa denez, idazlerik zaharrenetatik hasita nabarmen agertuko dira erabakiak hartu eta aukerak egin beharrak sortzen dituen kezka eta zalantzak. AXULAR da, guk dakigula, arazoa plazaratzen lehena "Iracurtçailleari" zuzenduriko oharretan:

"Bada esquiribatceaz denaz beçan batean ere ez naiz eguiteco gabe. Ceren bada hunetan ere differentcia. Batac esquiribatcendu *chehero*, bertceac *gehero*. Batac *chedea*, bertceac, *gedea*. Batac *ichilic*, bertceac *igilic*. Batac *lachoa*, bertceac *lajoa*. Batac, *choil*, bertceac, *joil*. Batac *quecho*, bertceac *quejo*. Batac *chuchen*, bertceac, *jugen*. Eta hunela bada, bertceric ere cenbait hitz, batac eta bertceac, norc bere herrico edo erresumaco arauaz differentqui esquiribatcen baitituzte.

Ordea ceren ez paitira hamar-bat hitz edo baicen, hunela differentqui, eta bi aldetara esquiribatcen direnac: halatan nic ere cenbait aldiz esquiribatucoitut alde batera liburuan barrena, eta bertce aldera liburuaren bazterrean, in margine: bat bederac cerbait contentamendu duen amoreac gatic". (1)

(1) AXULAR, Pedro de, Guero, op. cit., 17-18. orr.

Axular, bada, ez zen behin-beitiko erabakirik hartzen ausartu, honetan izan ezik: *tt* erabiltzea proposatuko zuen (*ttipia, ttipittoa, guiçontto, haurttoa...*) *ch* baztertuz.

OIHENART

Badirudi Oihenart zuberotarra jo behar dugula –beste zenbait arlotan bezala– ortografi arauemaileen aitzindaritzat. Bere atsotitz eta neurtitzei eginiko “De l’Orthographe Basque” hitzaurrean latinaren eta euskararen alfabetoak ez datozela beti bat esan ondoren, honako erabaki hauek hartuko ditu (2):

– /d, l, n, t/ fonema bustiak, *d, l, n, t* gainean puntu bat dutela adierazi.

– /s/ adierazteko *s* arruntaz baliatu eta, *s* luzeaz, /š/ adierazteko.

– kontsonante aspiratu zenbait (*lh, nh, rh* eta *th*) *h* batez ondo adieraz badaitezke ere, arazoak *ph* eta *ch* kasuetan ikusten ditu, lehena /f/ bezala ahoskatzen delako eta, bigarrena, frantsesez zein gaztelaniaz /š/-tik hurbilago dagoelako /k/-tik baino. Hori dela eta latincko *h* baino nahiago du, grekoaren bideari jarraituz, tiletaz baliatzea.

– *v, x* eta *y* baztergarriztat jotzen ditu. Lehenaren ordez *b* idaztea proposatzen du. Bigarrena, *x* alegia, /š/ adierazteko gordetzen du eta *x* gainean puntu bat duenlarik, berriz, /č/ adierazteko.

– *e, i* bokalen aurrean *k* edo *qu* erabiltzea proposatzen du eta ez *c*. Era berean, bi bokal horien aurrean *gu* eta ez *g* idaztea erabakitzen du baina erabaki hau auzo hizkuntzetatik sobera ez urruntzagatik hartzen duela aitortuz.

– /c/ adierazteko *z* erabiltzea proposatzen du eta *z* hori gainean puntua daramala /č/ adierazteko.

Nolanahi ere Oihenartek ortografiarako emaniko arauok ez zuten –bertsogintzarako proposatu zituenak izan ez zuten bezala– jarraitzailerik izango.

AITA MANUEL DE LARRAMENDI

Larramendik ere izango zituen ortografiari buruzko zenbait eritzi. Bere Hiztegiaren hitzaurrean Iparraldeko euskalkietan zerabiltzaten *k* eta *h* grafemak gaitzesten ditu. Hauxe dio biotarik lehenaz:

“(…) usan, y sin necesidad alguna de la *k* cuyo oficio hace igualmente la *c*, ò la *q*. (...)” (3)

(2) OIHENART, Les proverbes basques..., op. cit.

(3) LARRAMENDI, P. Manuel de, Diccionario trilingüe..., op. cit., XXVII-XXVIII. orr. Corografía-n ere (LARRAMENDI, P. Manuel de, Corografía..., op. cit., 296. orr.) *k* honen aurka azalduko da. Kontutan badaukagu Larramendiren Hiztegia 1745ean argitaratu zela ez dugu uste andoindarra zuzen jaketu zenik Iparraldeko idazleek zerabilten *k* horren balioaz, leherkari aspiratua

.../...

H oso atsegin ez duen arren honako fiabardura hau egingo du:

“(…) La hache, ò aspiracion està muy en uso en Labort, Baxa Navarra, y Zuberoa, assi en lo hablado, como en lo escrito, pero no en los dialectos de España (...): y aunque no se aspirase la hache me inclinára, à que se escribiessen con ella muchas voces como en Francia, para distincion del significado. Pongo exemplo, *ori ori ori* parece vna voz, y son tres distintas, que significa *toma esso amarillo*, y se debieran distinguir assi *óri, orí, hori* (...) Lo mismo digo de *hurá* aquèl, *urá* agua, *haria* carnero, *aria* hilo, *haur* este, que nosotros decimos *au*, y *aur*, *aurra* niño; y assi de otras muchas voces. Pero en esto tampoco me desagrada la indiferencia, y assi escribiré vnas voces de vn modo, y otras de otro”. (4)

Corografía-n ere ukituko du ortografi arazoa. Alde batetik ç erabiltzearen aurka agertzen da, beronen ordez *c* (*e* eta *i* bokalen aurrean) eta *z* (*a*, *o* eta *u* bokalen aurrean) proposatzen dituelarik (5). Bestalde, ez du begi onez ikusten Iparraldekoek *u* ordeztarabilten *ou* (*guizouna, gincoua...*) (6).

... /...

adierazten bait zuten ordukoek grafema horren bidez, horrela, *c* edo *qu* grafemek adierazten zuten leherkari arruntetik bereizten zutelarik. *K* honetaz gainera baziren, dena dela, beste era batzuk leherkari aspiratua adierazteko: *cc, kh, qh...* Bata edo bestearen erabilera hitzaren barnean agertzen zen lekuak edo ondoren zegoen bokalak emana zetorren.

XVIII. mendean bertan ere, dena dela, Iparraldeko idazle bakanen bat erabiltzen hasia zen *k* grafema leherkari arrunta adierazteko, hain zuzen ere leherkari hori *e* eta *i* bokalen aurrean gertatzen zenean, baina joera hau ez zen inola ere orokorra.

- (4) LARRAMENDI, P. Manuel de, Diccionario trilingüe..., op. cit., XXXVIII-XXXIX. orr.

Patxi Altamak, Larramendik eginiko euskara-gaztelaniazko hiztegi baten eskuizkribua aztertzen duelarik, era honetara ikusten du azken honek *H*-ri buruz hartutako jokabidea:

“Alfabetoak eskatzen duen eran, *G*'ren ondoren ipintzen ditu *h*-gaz asten diren itzak. Ontzat eman du, beraz, itzen asieran letra *ori*. Eun itz dakar, gutxi gora-behera, sail onetan: *hedea, hobena, higuindu, hitza, hildoa, hipuya, humea* eta abar.

Itz-erdian ere idazten du aldiz bein *h*; *A* ta gero *h*-rekin asten diren itzak amabi baizik ez ditu: *ahurra, ahalquea, ahala, ahanci* eta beste bakarren bat.

Auhena eta *auhendu* ere *h*-gaz idatzi ditu *au*-ren ondoren. *Bea, bean* eta *bear* eta onen itz alkartuak *h*-rik gabe dakartzi. Berebat *biotza*.

Bahatzatu, berriz, «acribar» *a* bien artean *h* duela ipiñi du. *Buhurdia*, «almohada» era berean.

Iruzpala itz ematen dizkigu asierako bi *o*-en tartean *h* jarriaz. Itz batzuek bi eratara dakartzi: *h*-gaz eta *h*-rik gabe; esate baterako, *hildoa*, eta *ildoa, zuhurtu* eta *zuritu*.

Danera, beraz, eun ta ogeitamar itzetan erabiltzen du *h*, gutxi gora-behera”. (ALTUNA, Patxi, “Larramendi’ren iztegi berria”, Euskera, XII (1967), (139-300), 147. orr.)

- (5) LARRAMENDI, P. Manuel de, Corografía..., op. cit., 298. orr.

- (6) LARRAMENDI, P. Manuel de, Corografía..., op. cit., 296. orr.

Honetan ere ez zen konturatu nonbait begien aurrean zubererazko izkribu bat zuelarik, euskalki honetako idazleek *ü/eta fu/bereizteko u* eta *ou* grafemaz hurrenez-hurren baliatu izan direla maiz, frantsesaren ereduari jarraituz.

AITA AGUSTIN CARDABERAZ

XIX. mende aurretikoen artean Cardaberaz da, inondik ere, ortografi arloa sakonkien jorratu duena. Ortografiari buruzko arau zehatzak emango ditu Eusqueraren berri onac liburuko IV eta V. kapituluetan:

– Larramendiren bideari jarraituz, *k* baztertzearen aldekoa da, beronen ordez *c* (*a, o, u* aurrean) eta *qu* (*e, i* aurrean) hobetsiko dituelarik.

– *H*-ri buruz Larramendi baino urrunago joango da:

“(…) emen gure Eusqueran, ta Bizcaian, Ache ori alfarricaco, edo servitcen ezduen gauza da. H ori izquetan batzuec Ge, besteak Jota eguitendute. Guc orrelaco aspiracio begemente, edo behementeric usatcen ezdegu. Abraham esateco, Abrajan diote. Quen ortic: gure Eusquera suave eztizcoarentzat soffu ori ezta”. (7)

– *p* eta *b* aurrean *m* idatzi.

– *x* ordez (baina *ks* ahoskera duenetan) *g* (*egemploa, egercicioa, egercitu...*) zein *gs* (*egsaminaoorea, egsaminatu...*) edo *s* (*esaminatu...*) idatzi.

– /č/ *ch* bidez adierazi eta /š/ berriz, *s* bidez (*ause, orise, Eleso, gasoa...*).

– *v* baztertu beronen ordez *b* erabiliz.

– Fonema bustiei dagokienez *tt, ll* eta *ñ* proposatzen ditu aurreko *i* bokala gabe, nahiz eta “Ascoc aurretic *i* bat usatcen du” dioen. (8)

Tellechea Idigorasi esker ezagutzen dugun izkribuan, halaber, berak darabilen ortografiari buruzko zenbait ohar egingo ditu, inportanteena bustiei buruzko hau delarik:

“(…) noté al último repaso que las voces *aiñ, oiña, etc.*, no tienen necesidad de la *i* y suple la vírgula de la *ñ*. Lo mismo es para *gaissoa, aissea, orisse, etc.*, y suple bellamente la vírgula sobre la *s* para las dos *ss*, sin *i* como en *ñ*”. (9)

Larramendik bere Jesus Maria Josefen Devocioa liburuari eginiko zuzenketei (10), berriz, honela erantzungo die:

(7) CARDABERAZ, A. Agustin, *Eusqueraren berri onac...*, op. cit., 23. orr.

(8) CARDABERAZ, A. Agustin, *Eusqueraren berri onac...*, op. cit., 25. orr.

(9) TELLECHEA IDIGORAS, J. Ignacio, Larramendi y Cardaveraz..., op. cit., 10. orr. Honetaz gainera *h* eta *v* baztertzea, *r*- aurretik *e* edo *a* ezartzea eta letra bikoitzik *-rr* eta *ll* izan ezik- ez erabiltzea proposatuko du.

(10) Hauxek ziren, hitzez hitz, Larramendiren zuzenketak (TELLECHEA IDIGORAS, J. Ignacio, Larramendi y Cardaveraz..., op. cit., 12. orr.):

“(…) Escríbase *aiñ, ceñ*, y no *añ, ceñ*. *Estuela*, y no *ex duela*, pues suena *t* después de negación y está advertido en el Arte y así está escrito en Axular, Chourio y otros antiguos. (...)

“(…) dice V. Rev. Escríbase *aiñ*, *ceiñ*, y no *añ*, *ceñ*. *Eztuela* y no *ezduela*. Resp. Es así y es fácil el remedio. Lo he usado de ambos modos y me emendaré en adelante en *eztuela* y lo procuraré usar.

Sobre *ceiñ* y voces semejantes, en el impreso de las reglas del bascuence, puse que era mejor omitir la *i*, que no se dice ni suena, y lo tengo por más acertado, y porque me parece perfección en su modo el usar de menos letras cuando no sirven sino de embarazo. V. Rev. me enseña esto, pues pone en el Diccionario *dañua*, *maña*. Son estas y otras muchas voces bascongadas y omite V. Rev. la *i*, y así sucede en las castellanas, igualmente bascongadas: *Aña*, *Año*, *baño*, *beña* (V. Rev. pone *baña*, *baño*, *eusqueraz*) y el castellano *baños*, *daños*, *dueños*, *señor*, etc. Me parece justo se me haga equidad y guarde yo consecuencia, siguiendo a V. Rev. por maestro y no a los franceses que van por otro camino: en la ortografía a V. Rev. quiero por maestro y no a ellos”. (11)

JUAN ANTONIO MOGUEL

Larramendi eta Cardaberazen antzerako proposamenak egingo ditu. Behin eta berriro gaitzetsiko ditu Iparraldeko idazleek zerabiltzaten *h* eta *k*. Moguelen eritziz erabat baztertu beharrekoa da lehena eta, bigarrenaren ordez, *c* eta *qu* erabili. Iparraldeko idazle zenbaitek *e* eta *i* bokalen aurrean *c* ordez zerabilen *z* ere ez du begi onez ikusiko. La Historia y Geografía de España-n emango zituen aditzera bere aburuok:

“(…) Los Bascos hacen más confuso su dialecto en los libros porque antes de las letras vocales anteponen frecuentemente la *h* que es redundante en el idioma vascongado. Lo que se escribe bien con la *c* escriben a menudo con la *k* y usurpan por la *z* el uso anticuado de la *c*. Yo he procurado no seguir su método sino rara vez porque conozco que es más clara la lectura con la norma introducida en tiempos modernos”. (12)

Eritzi berak azpimarratuko ditu Peru Abarca-ren hitzaurreko 9. oharrean:

“Sobre la *h* hai variedad de opiniones. El P. Cardaveras sostiene, que en el bascuence es letra inutil. Larramendi, que puede usarse de ella alguna rara vez para distinguir las voces equivocas. No es esta a mi ver

.../...

En la ortografía no se han de separar los artículos del nombre *ama-ren*, *Christo-ren*, *Christo-ri*; júntense siempre *amaren*, etc., y a lo más hasta que con el tiempo se vaian conociendo, sepárense, pero con barnita en medio. Los que se han de separar son verbos y terminaciones, *jan ditut*, *ecarri diozcat*. (...)”

(11) TELLECHEA IDIGORAS, J. Ignacio, Larramendi y Cardaveraz..., op. cit., 19. orr.

(12) MOGUEL, Juan Antonio, La Historia y Geografía de España..., op. cit., 230. orr.

razon suficiente, quando en la pronunciacion no se distinguen tales voces equivocadas. La buena escritura deve conformarse con la pronunciacion. Los bascongados franceses llenan de esta letra *h* todas sus Obras, y depende de que cortan de otra manera que nosotros muchas voces. Es pronunciaci3n ingrata, torpe a nuestros oidos. Se valen tambien mucho de la letra *k* y es mucho embarazo para los dem3s bascongados que no la usamos en voz alguna". (13)

Moguelen berrikuntza nagusia euskal alfabetotik *f* baztertzearena da, beronen ordez *p* erabiliko duelarik. Horretarako arrazoen berri hitzaurre bereko 8. oharrean emango du:

"Buelvo 3 mi intento. El idioma bascongado no necesita en el Alfabeto romano de estas dos letras *f*, y *h*, y no aciertan los que escriben con *f* estos vocablos *alferra*, *afaria*, *ifini*, y algunos otros, que se deven escribir con *p*: *alperra*, *aparia*, *ipini*, es decir como los pronuncian los puros bascongados. Estos, si no han estado en tierras donde han aprendido algo del idioma castellano, o no han cursado la escuela, no pueden pronunciar la *f*. Asi por *Fernando* dicen *Pernando*, por *Francisco*, *Prancisco*, por *fiesta*, y *funcion*, *piesta*, y *puncion*. He hecho repetidas experiencias con ellos, y no pueden pronunciar la *f*, sino substituyendo la *p*: Argumento concluyente de que es letra estraña y superflua. Los chicuelos, quando empiezan a aprender el Abecedario en la escuela, llegando a la *f*, dicen *epe*, y cuesta travaxo el enseñarles a decir *f* como los Castellanos". (14)

Peru Abarca-ren amaieran erantsi zuen hiztegitxoan (15), goian aipaturiko idea guztiak errepikatzeaz gainera, baztertu beharrekotzat joko zituen *x*, y eta *v*.

P. FR. PEDRO ANTONIO DE AÑIBARRO

Nabarmena da Cardaberazen Eusqueraren berri onac liburuaren eragina Añibarroengan. Hari jarraituz honako ortografi arauak emango ditu (16):

– *h* baztertzea.

– *ñ* aurretik *i* bokalik ez ezartzea: *baña*, *baño*, *ceñec*... eta ez *baña*, *baño*, *ceñec*...

– hitz hasierako *r*- aurrean *e* edo *a* bokalak ezartzea: *erreguea*, *errosarioa*,

(13) MOGUEL, Juan Antonio, Peru Abarca..., op. cit.

(14) MOGUEL, Juan Antonio, Peru Abarca..., op. cit.

(15) Nomenclatura de diferentes voces bascongadas, comunes a los Rusticos e ignoradas por no pocos de los Bizcalnos.

(16) AÑIBARRO, P. Fr. Pedro Antonio de, Gramatica bascongada..., op. cit., 167-168. orr.

errequea..., *arrazoia...*

– *k* ordez *c* edo *qu* erabiltzea.

– *v* ordez *b* erabiltzea, mailegutan *v* erabiltzeko aukera uzten badu ere: *videa*, *vicitza...* (< *via*, *vita*).

– *x*, /*š*/ ahoskera duenean, *x* edo *ss* bidez adieraztea: *maixua*, *maissua*; *gaixoa*, *gaissoa*; *elexa*, *elessa...* Ostera, *ks* ahoskera duenean, *g* bidez adieraztea proposatzen du: *egemplo*, *egercicio...*

4.2. BIGARREN AROA:

XIX. MENDEKO LEHEN ERDIALDEKOAK

4.2.1. IPARRALDEAN

MARTIN DUHALDE

1809an argitaratuko da Martin Duhalderen *Meditacioneac* liburua (17). Duhaldek ez du ortografi araurik zuzenki ematen eta, bestalde, berak eginiko aukera zenbait lehenagotik ere abian zetozen baina, hala eta guztiz ere, Duhalderen liburu hauxe joko dute eredutzat ondorengo arauemaileetariko batzuk. Esan beharra dago, dena dela, 582 orrialdetako liburu mardul honetan bi zati guztiz ezberdin nabarmentzen direla ortografiari dagokionean. Lehena (1-44. orr.) eta bigarrena (45-582. orr. eta sarrerako “Prefacioa”) azaletik bada ere erkatuz gero, honako aldaketa haue-taz jabetuko gara behingoan:

– lehenean, *e*, *i* bokalen aurrean *gu* agertzen den bitartean, *g* soila izango dugu bigarrenean.

– lehenean, *e*, *i* bokalen aurrean *qu* eta *a*, *o*, *u* aurrean *c* dakarren bitartean, bigarrenean *a*, *o*, *u* aurrean *c* baina *e*, *i* aurrean *k* ezarriko du.

– lehenean, *e*, *i* aurrean *c* eta *a*, *o*, *u* aurrean *ç* ikusten baditugu ere, bigarrenean, *e*, *i* aurrean *c* (kasu bakan batzutan *z* ere bai), baina *a*, *o*, *u* aurrean *z* ikusiko ditugu.

– lehenean *x* darabil /*č*/ adierazteko eta bigarrenean, berriz, *ts*. (18)

– bigarren zatian ez da ageri lehenbizikoan ikus daitekeen *ss* bikoitzik.

(17) DUHALDE, Martin, *Meditacioneac* gel premlatsuenen galnean, Cembalt abisuekin, Othoitcekin eta bicitceco Erregela batekin, Bayonan, 1809.

(18) /*č*/ adierazteko *x* grafemaz baliatzea guztiz joera hedatua izan da Iparraldeko idazleen artean.

DARRIGOL

Darrigol izango da Duhaldek eta gainontzeko idazleek eginiko aukerak arau bihurtuko dituen. Hauexek dira beraren proposamenak (19):

1^a De ce que le caractère *u* est essentiellement *ou* dans le basque, il s'ensuit qu'il est ridicule de l'accompagner d'un *o* pour le déterminer au son *ou*.

2^a De ce que le basque n'admet que le *g* guttural, il s'ensuit qu'il ne faut pas écrire *guiçon, guero, &c.*, comme nous le faisons communément, mais *giçon, gero*. Cet *u* serait inutile, puisque la langue ne comporte pas que le *g* prenne devant l'*u* un son qu'il n'avait pas devant l'*i* et l'*e*. L'*u* dont il s'agit serait même préjudiciable, parce qu'il commanderait de prononcer *gouiçon, gouero, &c.*

3^a De ce que le basque ne connaît aucune articulation correspondante aux caractères *v, x*, il s'ensuit qu'on ne doit jamais les employer pour écrire notre langue: à moins qu'on ne veuille se servir du dernier au lieu du *ts*.

Nous pourrions aussi supprimer sans inconvénient les caractères *q, c, y*: le premier, parce qu'il peut toujours être remplacé par le *k*; le second, parce qu'il n'a aucun son qui ne puisse être représenté par le *k* ou par le *x*; le troisième, parce qu'il n'ajoute rien à notre *i* simple".

Iparraldeko arauemaileen proposamenak Hegoaldekoek XVIII. mendean egindakoekin alderatuz gero, aise ikusten da lehenbizikoena sistema ortografikoa erraztera eta arrazoizkoago bilakatzerazuzendurik daudela, bigarrenenak High hizkuntzaren (= gaztelania) arauak dauden-daudenean uztearen aldekoak diren bitartean.

ANTOINE TH. D'ABBADIE

D'Abbadiek, Chahorekin batera 1836an argitaratuko duen Gramatikan ortografiaz hartutako erabakiak direla eta, ohar hauek egingo ditu (20):

- *c* eta *qu* ordez *k* erabili.
- *e, i* aurreko *gu* ordez *gh* erabili.
- /*ç*/ adierazteko *ts* erabili (21).

(19) DARRIGOL, *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, Bayonne, 15-16. orr. (Dirudienez 1827an argitara eman zen liburu hau).

(20) ABBADIE, A. Th. d'; CHAHO, J. Augustin, *Études grammaticales sur la langue euskarienne*, Paris, 1836, 8. orr.

(21) Honetan ez datozela Harriet gramatikagilearekin bat dio, azken honek *x* omen zerabilelako.

- *c* eta *ç* ordez *z* erabili (22).
- frantseseko *gn* ordez *ñ* erabili.
- *qu* baztertu.
- *ss* bikoitzaz baliatu, ahoskatzerakoan indar handiagoa ematen zaiola adierazteko (23).

Agerian dago, beraz, Iparraldean gorpuzten ari diren joera berrickin bat datozela proposatzen duten *gh* horretan izan ezik.

ANDRE-DENA MARIAREN ILHABETHEA

1838an argitaratutako liburu anonimo (24) honen hitzaurrean (VI-XVI. orr.) luzaz eta zehatz aztertzen da ortografi arazoa.

Egilearen eritziz, euskal idazleek –denek, bat izan ezik (25)– frantses ortografia eredutzat hartzean datza euskaraz gutxi irakurtzearen arrazoi nagusia (26) eta, gauzak bere onera bideratzeko asmotan, hiru oinarritzko arau emango ditu:

“1^o Lengoaja batean orthografac ez du behar zerratu lengoaja hartako hitzetan aurkhitzen ez den *soinua* edo *boza* dakharken letrac”. (27)

-
- (22) *ç* bazterterakoan Larramendiri jarraitu zaizkiola aitortzen du.
 - (23) Gogora dezagun zuberotar idazle zaharrek *ss* darabilte bokal arteko txistukari ahoskabea adierazteko eta *s* soila, berriz, euren euskalkian diren ahostunentzat.
 - (24) Andre-dena Mariaren ilhabethea, edo Maihatza Jaincoaren amaren lorlacotz consecratua, Baionan, 1838.

Ez dirudi, hala ere, egilea erabat ezezaguna izango denik bere hitzotatik atera daitekeenez:

“Erran diezaket zertaco bada ez dudan segitu neronek orthografa hau liburu huntan eta *bertzetan*? Inardesten dut hori ene gogoaren kontra egin dudala, eta nitaz bertzek nekhez izan dezaketen arrazoinak direla kausa. (...)” (Andre-dena Mariaren ilhabethea..., op. cit., XVI. orr. Azpimarratua gurea da).

Bada azpimarratu nahi genukeen besterik ere. Liburu honck, 1838koaz gainera, bigarren argitaraldi bat izan zuen 1855ean, bien artean ezberdintasun nabarmen zenbait daudelarik. Ortografiari dagokionez atzeraka egiten da. 1838koan /*ç*/ adierazteko *ts* erabiltzen den bitartean (Duhalde, d’Abbadiek eta, zalantzekin zen arren, baita Darrigolek ere proposatu bezala) *x* dator 1855ekoan eta, lehen hartan, kasu denetan (salbuespenak ere badiren arren) *k* bazekarren, bigarren honetan, *e*, *i* aurrean eta aspiratueta baizik ez du jartzen, gainerakoetan *c* darabilelarik.

Proposamenak berdinak dira funtsean argitaraldi bietan baina xehetasun zenbait eransten dira 1855ekoan. Tamalez, aurkitu ahal izan dugun bigarren argitaraldi honetako ale bakarrean (Bilboko “Azkue” Bibliotekan dagoenean, alegia) hitzaurrea ez da osorik agertzen, XII. orrialdearen ondorengoak falta bait dira.

- (25) Salbuespen hori, beherago argituko duenez (ibidem, XIII. orr.) Martin Duhalde da.
- (26) Andre-dena Mariaren ilhabethea..., op. cit., VII-VIII. orr.
- (27) Andre-dena Mariaren ilhabethea..., op. cit., X. orr.

Honen arabera, *v* eta *y* euskaratik baztertu beharrekotzat jotzen ditu. 1855eko argitaraldian, baina, fiabardura hau egingo du:

“(…) Izaitecotz ere, *i* greca (*y*) da balia daitekenic *i* eta *j* bi letra haujec elgarrekin emaiten duten *bozarentzat*: bere formatic beretic ezagutzerat emaiten duen bezala. Letra horren orde bethi eman daiteke *i* eta *j*, bainan ez daiteke eman *y* choilki *j* letrarentzat: *i* grecaz akhaba daitezke deithurac eta izenac, usajaren arabera, bainan ez dire secular hasten letra hortaz, salbu zonbeit hirien izenac ameriketean eta arrotz herrietan, ixas bertze aldean bereziki”. (28)

“2º “Ez laiteke izan behar *soinu* edo *boz* bakhotcharentzat letra bat bera baizen”. (29)

Arau hau kontutan izanik, *c* eta *qu* orde *k* erabiltzea proposatzen du eta, /*s/* adierazteko, *c* orde *z*.

“3º Oraino gutiago behar laiteke zerbitzatu letra bera *soinu* edo *boz* diferentzat”. (30)

Hiru ondorio aterako ditu arau honetatik:

– *c* grafema, *cha*, *che*, *chi*, *cho*, *chu*; *ach*, *ech*, *ich*, *och*, *uch* multzoetan baizik ez da erabili behar.

– *ç* erabat baztertu beharra dago.

– *e*, *i* aurrean ez da *gu* idatzi behar *g* soila baizik (31).

Hitzaurre amaieran, aldaketen laburpen bat eta proposatzen duen alfabetoa ezartzen du:

“Gaineko opserbazione hautarik naturalki heldu dena da: eskuara orthografa arras natural ezartzeko eta azken chinpleziara ekhartzeko, eta hortac Escuaraz izkiribatzea eta irakurtzea egin daiteken bezen errach bihurtzeco, behar laitekela segitu izkiribatzeke molde hau:

1º *C* *Gogorraren* orde eman bethi *K*;

2º *C* *Eztiaren* orde ezar bethi *Z*;

3º *C* *Ezti bustiarentzat*, erran nahi da: ondotik *H* dueneko, atchik choilki *C*;

(28) Andre dena Marlaren ilhabetea edo Mailhatza, (2. arg.), Bayonan, 1855, IX. orr.

(29) Andre-dena Marlaren ilhabethea..., op. cit., X. orr.

(30) Andre-dena Marlaren ilhabethea..., op. cit., XI. orr.

(31) Egile honek dioenez, idazle bat –Duhalde– eta arauemaile bat –Darrigol– omen dira, beraren aurrekoen artean, honctaz jabetutako bakarrak.

4º G bethi *gogorra* egin, hortarakotz ondotic U eman gabe;
5º Bazterrerat utz hiru letra hauk *V, Q, Y*, hautaz zerbitzatu gabe;
6º Hitz batez erraiteko, segi eskuara orthografan behereko alfabet hau:

A (a), B (be), Z (zeta), CH (che), D (de), E (e), F (ef), G (ga), H (ach), I (i), J (ji), K (ka), L (el), LL (ell), M (em), N (en), Ñ (enn), O (o), P (pe), R (er), S (es), T (te), TT (tte), U (ou), X (ets)". (32)

Bere idazlanetan, ordea, salbuespen bat egiten duela aitortuko du:

"(...) baldin ongi goardia emaiten bada, ikhusiko da gaineko erregelek galdegiten dituzten bertze kondizione guziak bethe ditudala, salbu hau: C *gogorra* eta K, bi letra hauk utzi ditut *soinu* berarekin. Ene ondotic ethorriko direnek, esperantza dut khenduko dutela oraino arras C *gogorra* eta *soinu* horrentzat, bethi K ezarrico dutela: orduan izanen dire bethiac osoki gaineco Erregelen condizioneac". (33)

J. AUGUSTIN CHAHO

XIX. mende honen erdialderantz oso nabarmen agertzen da ortografi arloan batasun batera iristeko nahia Iparraldeko idazle eta euskaltzaleengan, garai honetan zehar argitaratzen diren artikulu eta txosten ugariak frogatzen dutenez. Guzti horien artean, baina, Chahorenak aipamen berezia merezi duela iruditzen zaigu. 1845etik aurrera liburu ezberdinetatik jasotako pasarteak argitaratzeari ekingo dio Ariel kazetako orrialdeetan, ekintza horrekin hurrengo helburu hauek bilatzen direlarik:

"(...) nous essaierons de prouver que tous les livres basques imprimés jusqu'ici ont une orthographe vicieuse et barbare. Celle que nous proposons est applicable à la variété de tous les dialectes euskariens, et nous ferons ressortir ce qu'elle peut avoir de judicieux et de rationnel. Nous rappelons à cette occasion que nous avons offert un prix pour le meilleur Mémoire sur le meilleur système d'orthographe basque. Faute d'Académie régulatrice, nos hommes instruits et le haut clergé, s'ils avaient encore un peu de patriotisme, devraient bien se concerter pour mettre un terme à l'anarchie qui règne dans cette partie de notre littérature nationale. (...)" (34)

(32) Andre-dena Mariaren Ilhabethea..., op. cit., XV. orr.

(33) Andre-dena Mariaren Ilhabethea..., op. cit., XVI. orr.

1855eko argitaraldian (V. orr.), horren arrazoia "bertze lengoajetaco orthografetic ez urruntzeco" dela esango da.

(34) Ariel, 16 Février 1845, nº 20.

Kazeta bereko 19. zenbakian (1845-02-09) kanta bat argitaratzen zuen Chahok, berak, d'Abbadierekin batera, 1836an argitara emandako Gramatikan proposatu ortografiari jarraitzen zitzaiola adieraziz.

Jarraian, idatziak dituen zenbait izkribu ezin argitara ematea dela ortografia standardizatua ez izateak dakarren ondorio kaltegarrietariko bat gaineratuko du, baina ondorio makur hau eta ortografia arautzeko saiurik hoberenaren egilea sari batekin kitzikatzeaz gainera, bada Chahoren hitzotan arras azpimarragarria deritzogun helburu bat: euskalki guztien berezitasunak eta, beraz, Euskal Herria bere osotasunean dauka Chahok gogoan.

Giro honetan bete-betean murgildurik, ARCHUk, zuberotarra hau ere, bere alegietan darabilen ortografi sistemaz argibide batzuk eman beharrean ikusten du bere burua (35). Bat dator denean Chahok eta d'Abbadiek egindako proposamenekin, /ç/ adierazteko grafeman izan ezik, x zaharra eta ez ts hobesten bait du Archuk.

Ondorengo urteetan areagotu egingo da eztabaida. *k* (*clqu* ordez) eta *z* (*clç* ordez) aukeratzean datza polemika honen gako nagusia. Lehen grafemen aldekoek ortografia erraztea jarriko dute atxakiatzat eta besteek, aldiz, gaztelaniaren zein frantsesaren eruedetatik sobera ez urruntzea. *Le Messenger de Bayonne* kazetan plazaratuko dira eztabaidok (36). Rignon, kazeta honen erredakzio-burua, Archuren Uskara eta frantses gramatika. *Grammaire basque et française* aztertzen diharduela, azken honek darabiltzan *k* eta *z* grafemen aurka agertuko da (37). Erantzuna Hiribarrenek (38) eta Inchauspek (39) emango zioten, biok sistema berriaren alde (40). Rignonek berak *Le Messenger de Bayonne*-ko orrialdeak eskainiko ditu ortografiari buruzko eritzi ezberdinak bertan ager daitezen (41).

(35) ARCHU, J.-B., *La Fontalnaren alegia berheziak...*, op. cit., 15-17. orr.

(36) Ikus, bereziki, kazeta honetako zenbaki hauek: 386 (1854-01-07), 388 (1854-01-12), 391 (1854-01-19) eta 394 (1854-01-26).

(37) *Le Messenger de Bayonne* (1854-01-07), nº 386.

(38) Hiribarren, 388. zb. argitaratutako artikulu baten (1854-01-12), *z* eta *k* erabiltzearen aldeko agertzen da, nahiz eta, bigarrenaren ordez, *e*, *i* surrean eta hitz amaieran dagoenean *c* erabiltzen jarraitzeari amore eman. 394. zb. (1854-01-26koan alegia), berriz, /ç/ adierazteko *ts*, eta ez *x*, proposatuko du.

(39) Inchauspek bere *Le verbe basque* (INCHAUSPE, Abbé, *Le verbe basque*, Bayonne, 1858) liburuaren sarreran (XI-XII orr.) aurkezten duen alfabetoan ikus daitekeenez, baztertu egiten dira erabat *clqu*, *clç* eta *qu*, nahiz eta /ç/ adierazteko *x* erabiltzen jarraitzen duen.

1857. urtean zehar Bonaparte Printzeari eginiko gutunetan (ikus orain, IRIGOYEN, Alfonso, "Cartas de Inchauspe al Príncipe Luis Luciano Bonaparte", *Euskera*, II (1957), 171-260. orr.), orobat, maiz egiten dizkio ortografiari buruzko oharak.

(40) Ortografia berriaren aldekoa dugu, halaber, Salaberry. 1856an argitaratutako Hitzegiaren sarreran (SALABERRY "D'IBARROLE", *Vocabulaire de mots bas-navarrals*, Bayonne, 1856, XI-XVII orr.) egiten dituen ohar eta azalpenetan, eruduztat Darrigol, Baionan 1850ean argitaratutako *Exercicio Izpirituala* eta 1854an argitaratutako Andre dena Mariaren *botherea* hartzen dituela aitortzen du eta, hauekin batera, Landerretcherengandik izandako aholkuak.

(41) Eskaintza hori 524. zenbakian (1854-11-28) egingo du. Handik lasterrera (529. zenbakian hasita), Chahoren *La guerre des alphabets. Règles d'orthographe euskarienne* argitaratzeari ekingo zitzaion.

Le *Messenger de Bayonne* kazetan ezezik Ariel-en ere izango dugu eztabaida honen berri. Ageri-agerian dago Chahoren luma –Euskal Herria bere osotasunean hartu beharra azpimarratzen bait da– kazeta horretan kaleratuko den ohar honetan:

“L’orthographe des textes basques que nous insérons est critiquée un peu à la légère par ceux qui ne se rendent pas bien compte de notre but. Il s’agit d’arrêter les règles de la meilleure orthographe pour l’universalité des dialectes euskariens. Plusieurs correspondants nous ont exposé leurs idées sur ce point, mais nous avons remarqué que la plupart, très-peu versés dans notre littérature nationale, semblent ignorer le système usité dans nos provinces espagnoles; ils ne sont préoccupés que de la routine suivie pour l’impression des livres de piété en dialecte labourdin. (...)” (42)

Chahok, 1856an argitaratuko duen *Hiztegiaren sarreran* (43), kapitulu bi eskaintzen dizkio ortografiari; joko antzera eraturik bata: *La guerre des alphabets. Règles d’orthographe euskarienne* (44), eta bestea, serioagoa, bere eritzi eta proposamenak ezagutzera ematen dituelarik: *Introduction philologique, grammaticale et littéraire*.

Argi eta garbi azaltzen du bere sistema ortografikoa hautatzerakoan Euskal Herri osoa izan duela gogoan eta, hori, teorian ezezik praktikan ere nabarmen agertzen da, bere Zuberoa eta bere zubereraren aurretik Euskal Herria ezarriko bait du. Euskalkien aniztasuna alde batera utzirik ortografia bakar baten beharrezana azpimarratuko du Chahok:

“(…) Maintenant, que le Navarro-Souletin dise *zakitzat* à l’impératif, le Labourdin *zakiat*, le Guipuzcoan *zakizkit*, le Biscayen *zakidaz*, etc., peu importe: la richesse et la variété des dialectes euskariens ne doit changer en rien l’unité et la régularité de l’orthographe nationale. (...)” (45)

Darrigolen proposamenetan oinarritzen da. Hark bezalaxe baztergarrizatz jutzen ditu *x*, *v*, *w* (azken honen ordez *u*, *g* edo *b* erabil daitezkeelako), *y* (honen ordez *i* eta, hitz hasieretan, *j* erabil daitezkeelako), *a*, *o*, *u* bokalen aurreko *c* eta *e*, *i* aurreko *qu* (bi hauen ordez *k* erabil daitezkeelako) eta *e*, *i* aurreko *c* zein *a*, *o*, *u* aurre-

(42) *Ariel* (1845-09-28), nº 52.

(43) CHAHO, Augustin, *Dictionnaire basque, français, espagnol et latin*, Bayonne, 1856.

(44) Hau, gorago aurreratu bezala, *Le Messenger de Bayonne* kazetako 529. zenbakian eta hurrengoetan emanik zuen argitara.

(45) CHAHO, Augustin, “*La guerre des alphabets...*”, *Dictionnaire basque...*, op. cit., 12. orr.

ko *ç* (bi hauen ordez *z* erabil daitekeelako).

Chahok, horregatio, zilegitzat jotzen du atzerriko hitz eta izenetan era horretako grafemak erabiltzea: *Xénophon, Ximenez, Quevedo de Villegas, Quintilien...* bezalakoetan adibidez.

Hitz amaieran amore ematen du –zeuden istiluegatik nonbait– *c* (*k* ordez) idaztean, baina ez du hala ere izkututzen bere nahia zeinahi inguramendutan *k* erabiltzea litzatekeela.

Darrigol bezalaxe *ou* ordez *u* erabiltzearen alde dago (46).

Darrigol eta Chahoren artean badira, ordea, ezberdintasun zenbait: /*ç*/ adierazteko *ts*, eta ez *x*, hobesten du (47). Darrigol, bestalde, edozein bokalen aurrean *g* soila erabiltzearen aldekoa den bitartean besterik esango du Chahok. Beronen ustez, *e*, *i* aurrean *g* idaztea egoki omen dator lapurteraren ahoskerarekin, non bokal hauekin elkartzera *i/y* bihurtzen den, baina ez Euskal Herriaren osotasunarekin. Chahoren aburuz, *gh* erabiltzea edo, besterik ezean, *gu* litzateke irtenbiderik zuzenena.

Chahok, azkenik, Darrigolek ematen ez dituen hiru arau azpimarratuko ditu:

1. Nominatibo singularrean –*a* batez amaitzen diren hitzei *a* mugatzailea erantsen zaienean luzeago ahoskatzen direla dio eta ahoskera berezi hori *a* bokalari azentua ezariz adieraztea erabakitzen du: *amá, aítá, arrebá...* (48).

2. *H* dela eta, aintzakotzat hartzen ditu Hegoaldekoek grafema hau baztertu nahi izateko dauzkaten arrazoiak, baina *h* erabiltzearen alde arrazoi nagusi bi ikusten ditu Chahok: tradizio literarioa eta hitzak bereizteko ematen duen laguntasuna: *ari (izan) ≠ hari (fil) ≠ ahari (mouton)*. *H*-ri eskerrak argiagoa eta zuzenagoa da hizkuntza beraren eritziz (49).

3. Euskal Komunitate linguistikoa bere osotasunean harturik, ez du egokitzat jotzen zuberotarrek bereizten dituzten bokal arteko txistukari ahoskabeak eta ahos-tunak grafema ezberdinez adieraztea.

(46) Chahok honetan, eta euskal komunitate osoari so eginez, zuberotarrek amore eman beharko luketela uste du.

(47) Darrigolen eritzia ez zen, baina, batere erabatekoa. Gogora ditzagun *v* eta *x* grafemei buruz hitzez hitz zioena: "(...) il s'ensuit qu'on ne doit jamais les employer pour écrire notre langue: à moins qu'on ne veuille se servir du dernier (*x*, hain zuzen) au lieu du *ts*".

(48) Ez da aiantzi behar zuberotarra zela Chaho eta euskalki honetan, erronkarierarekin batera, jazo ohi dela Chahok aipatu aldaketa. Jakinaren gainean dago, bestalde, bera dela proposamen hau egiten lehena. (CHAHO, Augustin, "Introduction philologique...", Dictionnaire basque..., op. cit., 5. orr.).

(49) Hegoaldekoengana hurbiltzeko asmoz, *h*-aren erabilera murriztea proposatuko du, hala ere, Chahok. (Ikus: Ariel (1845-09-28), nº 52).

Chahoren arauotan oinarrituz zehaztasun eta proposamen berri zenbait egingo ditu d'ABBADIEK (50). Alde batetik /č/ adierazteko *x*; *e*, *i* aurrean *g* soila eta *k* grafema inguramendu guztietan, hitz amaieran barne, erabiltzearen aldekoa da, Chahok proposatzen zituen *ts*, *gh/gu* eta *c* hurrenez-hurren gaitzetsiz.

D'Abbadiek, bere aldetik, berrikuntza hauek dakartzta:

– Zubereraren [ü] bokalari grafema berezia eman. Bi aukera ikusten ditu honetarako berak:

a) *ü* erabili.

b) Hitzaren ondoren ohartxo bat jarri: *buru* (*u* *f*).

– *j* grafemaz baliatu kasu denetan: *Jainko* eta ez *Yainko*.

– /č/ adierazteko *c* erabili (51).

4.2.2. HEGOALDEAN

JOSÉ FRANCISCO DE AIZQUIBEL

XIX. mendeko lehen erdialde honetan ez da Hegoaldean Iparraldeko idazle eta euskaltzaleek ortografia dela eta bizi duten kezka eta eztabaidarik somatzen. Gaztelaniaren ortografi ereduari, XVIII. mendeko arauemaileek proposatzen zuten berberari, jarraituko zaio, inolako aldaketa premiarik ikusten ez delarik. Salbuespena, oraingoan ere, Aizquibel dugu, berau, Euskal Herri osorako hizkuntz-eredu standard bat proposatzeaz batera, ortografia egokitzeaz eta arautzeaz arduratuko bait zen. Ortografia erraztea eta arazoizkoago bihurtzea zen Gramatica analitica de la lengua bascongada-n erakutsiko zuen xede nagusia:

“La razon mas poderosa para que se hagan con la mayor prontitud posible estas reformas, que me parecen absolutamente necesarias para la propiedad y claridad de la escritura en la lengua Bascongada, es, que los caracteres o signos llamados letras han sido inventados para presentar los diversos sonidos que se forman cuando se habla. Con todo hay un gran número de palabras, en que unas mismas letras tienen diferente sonido y se pronuncian muy distintamente segun la vocal con que se juntan, y hay unas cuantas letras que tienen o dejan de tener sonido segun las diferentes letras a que estan unidas. Pongo por ejemplo *c*, *g*, *q* que cam-

(50) ABBADIE, Antoine d', "Dictionnaire basque, français, espagnol et latin d'après les meilleurs auteurs classiques et les dictionnaires des Académies française et espagnole, par Augustin Chaho", *Le Messager de Bayonne* (25-03-1856), nº 730.

(51) Ordura arteko Iparraldeko idazleek /č/ adierazteko *ch* (honekin /š/ ere adierazten zelarik) eta *tch* (bokal artean zegoenean) erabili ohi zizuzten.

bian de pronunciación a cada momento; pues las dos primeras con las vocales *a, o, u*, tienen la pronunciación de *ka, ko, ku* y de *ga, go, gu*, mientras que con las vocales *e, i* tienen la de *ze, zi* y *je, ji*. La *q* con la *a* y *o* no tiene sonido alguno, porque nunca se escribe, y en este caso hacemos uso de la *c*. Antes de las vocales *e, i*, necesita la misma *q* del auxilio de la *u* para que se pueda pronunciar *ke, ki* ¿pues cuanto mejor sería que, suprimiendo estas letras tan inconstantes, se sustituyesen otras fijas, que no tuviesen mas que un solo sonido? El que examine con atención los Alfabetos de las lenguas modernas conocerá facilmente que no estan en harmonia con los sonidos de las voces a que se les aplican; porque se cambian frecuentemente unas letras en otras, resultando un perjuicio grave a la etimologia; se les da a otras doble valor, no debiendo tenerle más que uno; y se suprime el sonido de otras, como se puede ver en la mayor parte de las lenguas modernas de Europa. (...)" (52)

Aizquibelek, geroxeago Chahok bezala, euskal komunitate osoa dauka go-goan eta alderdi bakoitzean bertako High bariatateari (frantsesa edo gaztelaniari) jarraitzean ikusten du ezberdintasunen iturri nagusia:

"Para que se vea, que no es el deseo de la innovación ni de la reforma por mero capricho el que me obliga a proponer un cambio total, o cuando menos de varias letras de nuestro Alfabeto, sino que es de imperiosa necesidad para la claridad y facil inteligencia de los tres Dialectos Bascongados el que una Academia o cuerpo literario ponga las bases fundamentales para la ortografía de nuestra lengua, y que jamas de otra manera podrémos llegar a hacer progresos en nuestra literatura, mientras haya esta división o especie de cisma de ortografía, formo un catalogo de cuantos libros impresos, y manuscritos han llegado a mi noticia, y por ellos podrá persuadirse cualquiera de la necesidad en que fundo mi propuesta; pues cada autor escribe diferentemente con la ortografía que mejor le ha parecido; de lo cual resulta que no hay dos obras que esten igualmente escritas. Los Labortanos han seguido generalmente la ortografía Francesa y en parte la Latina; los Guipuzcoanos constantemente la Castellana, y los Bizcaynos igualmente menos en las *r* y alguna otra letra que han variado de pronunciación. El que quiera examinar detenidamente las obras que aqui cito, y que son las unicas de que he podido tener noticia hasta ahora, verá si tengo motivos bastantes para provocar una reforma en nuestro defectuosísimo alfabeto". (53)

(52) AGUIRRE, Antxon, *Reseña histórica...*, op. cit., 262-263. orr.

Lan honetan (260-279. orr.) ematen da argitara Aizquibelen Gramatika analitica de la lengua bascongada. Aguirrek dioenez (ibidem, 240. orr.), 1831n ekin omen zion Aizquibelek lan honi eta 1838an burutu.

(53) AGUIRRE, Antxon, *Reseña histórica...*, op. cit., 264. orr.

Bere proposamenen berri emango du ondoren:

“Conviniedo pues con el Sr. Leclute (sic) y con el Abate D’Arri-
gol en su disertación critica y apologetica de la lengua Bas-
congada de que esta no conoce en el dia su Alfabeto propio, y que el
que usa ahora, es prestado por cuyo motibo está lleno de defectos, y si-
guiendo el consejo de Mr. du Marsais, *de que las reglas de la Lengua se
han de buscar en la misma lengua, he consultado todos los sonidos en
su pronunciacion*, y he hallado que las letras de la Lengua Bascongada
son veinte y cuatro a saber

5 vocales que son a, e, i, o, u castellanas (...).

9 consonantes unidas:

3 tenues p, k, t (...).

3 medias b, g, d (...).

3 aspiradas f, j, θ.

4 líquidas o inmutables l, m, n, r.

2 vocal-consonantes v, j.

1 doble z.

2 silvantes s, s̄.

2 diminutivas ll̄, ñ̄.

Por consiguiente para la lengua Bascongada no puede haber mejor Alfabeto de cuantos se conocen entre las lenguas antiguas y modernas, que el Griego por su grande analogia en la pronunciación, a no ser que se invente uno nuevo con los signos de la taquigrafia; pero como se ofrece una dificultad muy grande para la imprenta, he creido lo mejor adoptar el medio de usar de las letras Griegas en mi Gramatica y Diccionario Bascongados haciendo aquellas variaciones que exige la lengua como sucede con la supresión de la letra φ que no puede tener uso en el Bascuence, y con la añadidura de la ll̄ y ñ̄ que no se encuentran en el Alfabeto Griego”. (54)

Hiztegiari eginiko “Razones para el cambio de ortografia en la lengua bascongada” izeneko hitzaurrean ere (55), jardungo du ortografiaren inguruko gorabehe-
rez. 1838an argitara emandako Andre-dena Mariaren ilhabethea liburuan erabaki-
tako araukiko bere adostasuna agertzeaz gainera proposamen berri zenbait plaza-
ratuko du:

“(…) usa (Andre-dena Mariaren ilhabethea-ren egileak, ale-
gia) de una reforma de ortografia, que en su mayor parte la he adoptado

(54) AGUIRRE, Antxon, *Reseña histórica...*, op. cit., 274. orr.

(55) AIZQUIBEL, J. Francisco de, *Diccionario bilingüe*, op. cit., V-IX. orr.

ó por mejor decir, la tenía adoptada desde el año 1832, como se vé en los 4 tomos en fólío de mi Diccionario, copiados en aquella época por mi escribiente, siguiendo la invariable máxima de que cada letra no debe tener más que un solo sonido. Yo uso de la *k* (...) desterrando la *c* y la *q*, que tienen dos usos diferentes. En cuanto á la *g* dándole el valor del gamma griego satisface enteramente su cometido, y en las letras duplicadas que usa el Bascuence con pronunciación mas anifiada los nombres diminutivos, soy de opinión que se debiera usar de una tilde como en la *ñ*, bien sea encima ó debajo de la letra; v.g. *oña*, *oñua*, *ñipia*, *añerre*; en lugar de *oina*, *ollua*, *ttipia*, *aserre*" (56).

Badirudi, beraz, Aizquibel dela bustiak adierazteko tiletaren erabilera proposatzen lehenbizikoa (57). Beherago berriz ekingo dio auzi honi:

"Estos -Iparaldekoetz mintzo da- hacen uso de la *x* en la escritura de dos modos; unas veces en lugar de *ts* (...); otras en lugar de *z* ó de dos *ss* (...); sin embargo, el doctor Echeberri, el cura Axular y otros Autores basco-franceses usan igualmente la *x* en *gaixto*, *gaixtakeria*, etc.; pero con la pronunciación de la *ch* en *chez* francés. Si se examina con detención el sonido que resulta de esta pronunciación, se verá que es el de dos *ss* pronunciadas con fuerza; por consiguiente, creo que se debe admitir esta consonante doble, que se puede representar con la *s* con tilde, como se hace con la *ñ*. Así es que unos escriben *gaisua*, precediendo la *i*, otros *gaixua*, y Echeberri escribe *gaxhoa* (...)" (58)

Euskaldun guztien batasuna erdiesteko kaltegarritzat jotzen du /h/ eta bai gipuzten /x/ ere:

"(...) si bien la aspiración es muy frecuente en las lenguas semíticas é Indo-Germánicas, no debe de ser natural en la bascongada; porque en ninguno de los otros dialectos se nota, ni existe mas que en el Laboritano, que ha adquirido ese plagio de la lengua de la nación que la domi-

(56) AIZQUIBEL, J. Francisco de, Diccionario bilingüe, op. cit., VII. orr.

(57) Oihenartek mota honetako fonemak adierazteko proposatzen zituen puntuen eta Aizquibelen tileten artean, Asteasuako Aguirrek bere Eracusaldiac-en hitzaurrean (AGUIRRE, Juan Bautista, Jesu-Cristoc bere elizari utzi ciozcan, zazpi sacramentuen gañean eracusaldiac, Tolosa, 1850. Hitzaurreak, baina, 1808-08-10eko data darama) honako beste aukera hau egingo zuen:

"(...) El uso que hago del acento circunflexo, ó capucha, es para indicar la pronunciacion particular, que en bascuence tienen en muchos casos la *s*, *t*, y *x* (...)"

Liburuan barrena aurki daitezkeen adibide ugarien artean (denak, edo ia denak, *ŝ*-renak direlarik) hauexek aipa genitzake: *isŝritzen*, *guerosŝago*, *gaisŝitzen*, *penŝencia*...

(58) AIZQUIBEL, J. Francisco de, Diccionario bilingüe, op. cit., IX. orr.

Grafema ugari erabili izan dira /ñ/ adierazteko. Aizquibelek aipatzen dituenotaz gainera hauexek dira XIX. mendeko lehen erdialdea baino lehenagoko izkribuetan ageri diren batzuk: *ss*, *sh*, *ŝ*, *chs*, *is*, *ŝy*... Mende horren azkenaldia, gainera, oraindik eta gehiago ugariruko ziren.

na. Además de esto, la *h* después de la *p* en castellano y latín se pronuncia como *f* y entonces no sirve más que de mucha confusión en la escritura, y la misma palabra *aiphamena* se pronunciará *aifamena* por todo el que no sepa el modo de aspirar *aip-hamena*, separando las letras en la pronunciación, como lo hacen los basco-franceses. El corregir estos defectos, que hay en todos los dialectos, sería muy conveniente para la uniformidad de la lengua y para mayor aproximación é inteligencia de un dialecto con otro. Los guipuzcoanos tenemos la jota castellana con igual pronunciación que ellos, mientras que los basco-franceses la pronuncian como *i latina*". (59)

FRANCISCO IGNACIO DE LARDIZAVAL

Lardizavalen eritziak ditugu Aizquibelenen aurpegi kontrajarria. 1856an argitaratutako Gramatikan ortografiari buruz egiten dituen oharretan (60) orpoz orpo jarraitzen zaie XVIII. mendeko arauemaileei. *H* grafemari dagokionez, esate baterako, nabarmena da Larramendiren eragina:

"La *h* poco uso tiene en España, sino es en los vocablos en que entran *cha, che, chi, cho, chu*; v. g. *chanda, emenche, chiquia, choria, chucuna*. Sin embargo, cuando una dicción tiene dos significados, es conveniente que el uno se explique con *h*, y el otro sin ella; v. g. *ura* significa *agua*, y *aquel*; y para distinguirlas, *ura* agua se escribe sin *h*, y *hura* aquel con *h*".

Eragin bera nabari da *k*-ri buruzko erabaki honetan:

"La *k* tiene frecuente uso en los Escritores franceses; pero los españoles, excepto los PP. Zabala (61) y Afíbarro en sus respectivos escritos, muy poco se han valido de ella, haciendo sus funciones con *c* ó *q* con alguna vocal subsiguiente. Cierto es, que la *k* se asegura ser propia y peculiar del Vasconce, y se economiza con su uso una letra; pero siguiendo á la mayoría de los Escritores, me valdré de la *q* en esta gramática".

Cardaberaz eta Añibarroekin bat dator *ñ* eta *x* grafemen erabileran:

"(...) El anteponer una *i* es defecto, y basta la *ñ*; v. g. *baña* y no *ba-i-ña*, *baño* y no *ba-i-ño*, *gañean* y no *ga-i-ñean*, *beñ* y no *be-i-ñ*; y si se quiere usar de la *i* debe ponerse la *n* sin tilde.

(59) AIZQUIBEL, J. Francisco de, Diccionario bilingüe, op. cit., IX. orr.

(60) LARDIZAVAL, Francisco Ignacio de, Gramática vascongada, San Sebastián, 1856, 1. orr.

(61) Zavala, izan ere (ZAVALA, Fr. Juan Mateo de, El verbo regular vascongado..., op. cit., VII. orr.), *e, i* aurrean *k* erabiltzearen aldeko agertzen zen eta, Errori jarraiki, grafema honek euskal jatorri garbia duelakoan oinarrituz, mesedegarrizatz jotzen zuen inguramendu guztietara hedatzea.

(...)

La *x*, aunque adoptada por unos, otros la suplen con *g*; v. g. *egem-ploa*, *egercicioa*, *egercituua*".

Añibarro legez *v* ordez *b* erabiltzearen aldekoa da baina salbuespen honi auke-ra emanaz:

"(...) Sin embargo, en las voces que en latin la llevan, los Escritores vascongados la han conservado frecuentemente; v. g. de via *videa*, de vida *vicitza*".

/s/-ren idazkeraz, berriz, ñabardura hau egingo du:

"La *z* se usa siempre que la siga la vocal *a*, *o*, *u*; pero en todos los demás casos puede usarse *c*; v. g. *z-ancoa*, *z-oroa*, *z-urra*: y aun cuando subsigue la vocal *e*, *i*, debe escribirse con *z*, siempre que la dición la lleve en su primitiva formacion; v. g. *biotza* el corazon, se escribe con *z*, porque subsigue *a*, y aunque, cuando se dice *biotzeco* del corazon, la *e* ha sustituido á la *a*, debe usarse la *z*, como su primitiva letra".

Orrialde batzuk beherago (62) berriro ekingo die ortografi auzioi:

"La negacion *ez* muda la pronunciacion á algunas letras, variándolas en otras semejantes ó parecidas; como la *b* en *p*, la *d* en *t*, la *g* en *q*: v. g. *det*, *dot*, *daramat*, *bada*, *guera*, *guero*, se dicen *ez-tet*, *ez-tot*, *ez-taramat*, *ez-pada*, *ez-quera*, *ez-quero*. Pero la mudanza no es universal, y asi puede escribirse y pronunciarse segun á cada uno le acomode".

Bustien sailean ezagun dira Asteasuko Aguirreren eritziak eta, horrela, /ʎ/ tt idatz daitekeela badio ere, zera erantsiko du orripeko ohar baten:

"Para este objeto pudiera adoptarse la *t* con tilde, como tambien la *s*, á la manera de ñ, y decirse, v. g. *maïtea*, por *maittea*, querido; *muñ-coa* por *mutticoa*, muchachito; *guizasoa* por *guizaishôa*, *guizaxôa* pobrecito".

Amaitzeko /š/-ren grafema ezberdinez ere mintzatuko da:

"(...) para significar esta suave pronunciacion se escribe tambien con *ihs* en lugar de *x*: v. g. *orishe*, *alaishe*: con una crema ó capucha puesta sobre la vocal siguiente á *x*: v. g. *gaixôa*: y tambien duplicando la *s*: v. g. *orisse*, *alaisse*, *gaissoa*".

(62) LARDIZAVAL, Francisco Ignacio de, Gramatica vascongada, op. cit., 82. orr.

4.3. HIRUGARREN AROA: XIX. MENDEKO BIGARREN ERDIALDEKOAK

4.3.1. IPARRALDEKO ETA ATZERRIKO ARAUEMAILEAK

LOUIS-LUCIEN BONAPARTE

Bonapartek eta baita beraren laguntzaile gisa jardun zutenek, hala nola Inchauspe zuberotarrak eta, bereziki, Duvoisin lapurtarrak, izango zuten ortografiari buruzko eztabaidotan zerikusirik (63). Duvoisinek, esate baterako, 1885eko azaroan Arzac donostiarrari eginiko gutun baten erabakiortzat joko du Bonaparteren eragina:

“...Parlons un peu de l'orthographe basque.

Jusqu'à ce que le prince Louis-Lucien fût venu dans nos contrées, chacun écrivait le basque à sa guise. Les divergences n'étaient pourtant pas considérables et il était facile de les ramener à l'unité. C'est ce dont le prince s'occupa; en grand philologue qu'il est. De là est venue l'orthographe rationnelle, que les auteurs adoptèrent aussitôt. (...)

Les ouvrages des vrais écrivains seuls font autorité. Le Vocabulaire de Salaberry ouvrit la marche en 1856, et fut suivi, à bref délai, par le verbe souletin de l'abbé Inchauspe, oeuvre de haute valeur, qui a servi de patron au Verbe basque du prince Louis-Lucien.

C'est le prince lui-même qui a déterminé l'orthographe de la Bible labourdine, l'oeuvre la plus considérable, pour l'étendue et l'importance, qui existe en langue basque”. (64)

Bonapartek bere laguntzaileei eman aholkuetan maiz aurkitzen ditugu ortografiari buruzko oharak. 1862ko otsailaren 19an Echeniqueri egin gutunean, *h* eta *k* Hegoaldeko euskalkietako izkribu eta itzulpenetan ez erabiltzea adieraziko dio (65).

(63) Daranatzek dioenez (DARANATZ, J.-B., “Le Prince Louis-Lucien Bonaparte au Pays Basque en 1857”, *Gure Herria*, III (1923), (361-364), 361. orr.), 1857ko urriaren 14an Baionan eginiko euskaltzaleen bilera baten mahaiburu izan omen zen Bonaparte. Badirudi ortografiaren batasuna izan zela bilera honetan erabilitako gaietarikoa bat. (Ikus, halaber: VILALLONGA, José, “Introducción a un estudio sobre LUIS-LUCIANO BONAPARTE, y sus trabajos”, *E-J*, VII (1953-1957), (39-68), 59-60. orr.).

(64) DARANATZ, J.-B., “Correspondance...”, *RIEV*, XXII (1931), (310-337), 332-333. orr.

(65) URQUIJO, Julio de, “Cartas escritas por el Príncipe L.-L. Bonaparte...”, *RIEV*, IV (1910), op. cit., 240. orr.

Echenique berari 1861eko uztailearen 22an eginiko beste gutun baten (URQUIJO, Julio de, “Cartas escritas por el Príncipe L.-L. Bonaparte...”, *RIEV*, II (1908), (215-221), 220. orr.), orobat, *h*-rik ez erabiltzeko ziotson. Badirudi, grafema hau baztertzearen arrazoia, Baztango barietatean fonema hori ez ahoskatzean aurkitu beharko litzatekeela soil-soilik. Izan ere oso kontutan euki behar da, bere laguntzaileei emandako arauetan zein Bonapartek berak aurkeztuko dituen alfabetoetan, euskal ortografiaren eredu standarda proposatzen baino areago erakustera ematen diren euskalkien hotsak ahalik eta hobekien eta zehatzen adieraziko dituen kodigoa eratzen saiatuko dela, Bonaparteren xedea, betiere, euskalkiak eta euskararen barietate ezberdinak diren bezalaxe agertzea izango bait da.

Apostrofoari dagokionez, berriz, letraren bat ezabatzen denerako uztea gomendatzen dio. Zuzenketa berri bat egingo du 1862ko martxoaren 17an idatzitako gutunean (66): apostrofoa, oraingoan, ezabatu den letra hitz hasieran edo amaieran dagoenean baizik ez erabiltzeko esango dio. Bokal arteko kontsonanteren bat ezabatu denean, berriz, bokaletako baten gainean dieresia jartzea hobetsiko du eta bokal bietako bata ezabatu denean, azkenik, azentuaz baliatzea.

Lacombek ezagutzera ematen duenez (67), Bonapartek –d' Abbadiek halaxe gomendaturik– Bibliako zenbait libururen itzulpena Archuri agindu zionean, lan hori burutzeko arau ortografiko hauei jarrai ziezaien eskatu omen zion:

– *gh* erabat baztertzea (*gizun* eta ez *ghizun* beraz) (68).

– *k* erabiltzea *c* eta *qu* baztertuz.

– /s/ adierazteko *z* soil-soilik erabiltzea.

– /š/ adierazteko *ch*-z baliatzea.

– /č/ adierazteko *tch*-z baliatzea (69).

– /ś/ adierazteko *ts* erabiltzea, *x* baztertuz.

– *ou* erabiltzea eta ez *u* (70).

1858an *Canticum trium puerorum* argitaratuko zuen Bonapartek. Lan honen sarreran, bertan erabiliko duen alfabetoa aurkeztuko du (71):

(66) URQUIJO, Julio de, "Cartas escritas por el Príncipe L.-L. Bonaparte...", RIEV, IV (1910), op. cit., 243-244. orr.

(67) LACOMBE, Georges, *Quelques mots sur les versions basques...*, op. cit., 202. orr.

(68) Gorago ikusi bezala, Chaho eta d'Abbadieren (honek, geroago, atzera egingo bazuen ere) proposamen hau ontzat emango zuen Archuk La Fontaineren alegien itzulpenean eta, arrakasta handiegirik izango ez zuen arren, besteren batzuk ere erabiliko zuten, hala nola Fabrek bere *Dictionnaire français-basque-n* (Bayonne, 1870).

(69) Urte batzuk geroago, ostera, 1887ko ekainaren 22an Schuchardti egin gutunean (SCHUCHARDT, H., "Briefe des Prinzen L.-L. Bonaparte an H. Schuchardt", RIEV, III (1909), (133-139), 137. orr.), gaitzetsi egingo du *tch* hau.

(70) Badirudi aukera honen zergatia ulertzeko ere Archuk bere itzulpena zubereraz egiten zuela beharko dela kontutan izan.

(71) BONAPARTE, Ludovicus Lucianus, *Canticum trium puerorum in XI vasconicae linguae dialectos ac varietates versum. Collegit et novae orthographiae accommodavit*, Edicio altera, Londini, 1858.

Lan honen lehen argitaraldian (*Canticum trium puerorum in XI vasconicae linguae dialectos versum. Collegit et novae orthographiae accommodavit*, Londini, 1858) ere bada alfabeto bat baina ez bigarren argitaraldikoa bezain osoa.

ADNOTATIUNCULA

- u sonat ut u hispanicum
- ü sonat ut u gallicum
- ch sonat ut ch hispanicum
- c'h sonat ut ch gallicum
- y sonat ut y gallicum in PAYER
- Y, y sonat durivs quam y, sono palatali
- J, j sonat durivs quam y, sono linguali
- J, j sonat ut j hispanicum
- Ĵ, j sonat ut j gallicum
- ñ sonat sono palatali, ut n hispanicum in TENGO
- z sonat ut s gallicum in SABLE
- z sonat ut z gallicum
- š, f sonat sono medio inter z gallicum in SABLE et ch gallicum in CACHER
- š sonat sono medio inter z gallicum et j gallicum
- s sonat sono medio inter f et s gallicum in SABLE
- tz sonat ut z italicum in ZOPPO
- tf sonat sono medio inter z italicum in ZOPPO et ch hispanicum.

Le verbe basque en tableaux liburuaren sarreran, lau literatur-euskalkien hotsak ahalik eta zehatzen adieraziko zituen alfabeto bat aurkeztuko zuen (72):

(72) BONAPARTE, Louis-Lucien, *Le verbe basque en tableaux...*, op. cit.

ALPHABET

		guip.	biac.	lab.	sovl.	
1.	a	a	a	a	a	se prononce comme a espagnol et français.
2.	á	-	-	-	á	- an nasal français, approx.: <i>áble</i> "canard".
3.	æ	-	-	-	æ	- a bref anglais, entre a et è (Erm, Buzan; voyez page xxii., note 13).
4.	b	b	b	b	b	- b français labiale explosive (voyez page xxi., note 9).
5.	b	b	b	b	b	- b espagnol, labiale continue (voyez page xxi., note 9).
6.	b	(w)	-	-	w	- w anglais, approx., labiale velotaude (voyez page xxi., note 9).
7.	ch	(ç)	ch	ch	ch	- ch espagnol et anglais; c doux et ci italien.
8.	d	d	d	d	d	- d français (non pas le d espagnol final, ni entre deux voyelles).
9.	di	(ð)	-	-	di	- d doux italien, approx.: <i>diça</i> "l'eau" (Ardan; voyez page xii., note 2).
10.	dz	(ð)	-	-	-	- d nocebalis, entre d et r: <i>dzd'</i> "je l'ai" (voyez page xi).
11.	d'	-	e	e	e	- e espagnol, é français.
12.	e	-	e	e	e	- in nasal français, approx.: <i>més</i> "marior".
13.	e	-	f	f	f	- f français et espagnol.
14.	f	-	f	f	f	- g dur français et espagnol.
15.	g	-	g	g	g	- h après des langues germaniques.
16.	h	-	h	h	h	- h après des langues germaniques.
17.	i	-	i	i	i	- i espagnol et français.
18.	i	-	-	-	i	- i nasal, in final portugais: <i>mihi</i> "langue".
19.	j	-	-	-	j	- j français, mais un peu mouillé: <i>jan</i> "manger".
20.	j	-	-	-	-	- j espagnol, <i>jan</i> "manger".
21.	j	j	j	j	-	- j bascoien, de mouillé légèrement suffisax: <i>begije</i> "l'oeil".
22.	k	k	k	k	k	- c dur français et espagnol.
23.	k	k	k	k	k	- l français et espagnol.
24.	l	l	l	l	l	- ll espagnol, l mouillé français (provincial ou pédestreque).
25.	ll	ll	ll	ll	ll	- m espagnol et français.
26.	m	m	m	m	m	- n espagnol et français, dental ou continuata.
27.	n	n	n	n	n	- n espagnol guttural: <i>vengo</i> "je viens".
28.	n	(ñ)	n	n	n	- ñ espagnol, gn français.
29.	o	o	o	o	o	- o espagnol, o français en "déter".
30.	o	o	-	-	-	- on nasal français, approx.: <i>ôzi</i> "enterrer" (roncelais).
31.	p	p	p	p	p	- p français et espagnol.
32.	p	p	p	p	p	- r doux des Germanisations espagnols.
33.	r	r	r	r	r	- r ou r fort espagnol et français.
34.	r	(r)	r	r	r	- s basque d'Espagne, entre s dur français et s basque de France.
35.	s	(r)	s	s	s	- s basque d'Espagne, entre s dur et ç français.
36.	s	(r)	-	-	s	- s basque doux, entre z et j français: "seng".
37.	s	-	-	-	s	- ç français, en anglais fch allemand.
38.	t	-	t	t	t	- t français et espagnol.
39.	te	(t)	te	te	te	- te basque, qui est au s ce que le z est au tz.
40.	te	(t)	te	te	te	- z fort italien, z allemand.
41.	t	-	t	t	t	- t mouillé palatal, ty hongrois.
42.	t	-	u	u	u	- u espagnol, ou français.
43.	u	-	-	-	u	- ou nasal, in final portugais: <i>utú</i> "vin".
44.	u	-	-	-	u	- u français, il allemand: <i>ut</i> "oui".
45.	u	-	-	-	u	- u français nasal (non pas comme u nasal de un): <i>úti</i> "gendre".
46.	u	-	-	-	ü	- u d'Aeozon, etc., entre ou et u français (voyez page xiv., note 2).
47.	y	-	y	y	y	- y espagnol consonne, y en "payer" j allemand.
48.	y	-	y	y	y	- y nasal roncelais (voyez page xxi., note 4).
49.	y	-	-	-	y	- y initial labourdun; y guipococon de Goyreni (voyez page xxi., note 6).
50.	z	-	-	-	z	- s français dur, ð allemand.
51.	z	-	-	-	z	- z français: <i>gardati</i> , "éclater".

Argibide hauek emango zituen beheraxeago:

“Les signes entre parenthèses de la première colonne, sont ceux que nous voudrions bien voir substituer aux diagrammes illogiques, quoique la continuation de l’usage de ces derniers n’offre pas d’inconvénient du moment que leur valeur conventionnelle de sons simples est rendue constante. Quant au ‘b’, au ‘ñ’, au ‘r’, au ‘f’ et au ‘w’, leur adoption serait un peu plus urgente, s’il s’agissait de faire l’analyse physiologique (la seule qui soit réellement scientifique) des sons du basque, ou de se livrer à des recherches phonétiques et comparatives sur ses nombreuses variétés”. (73)

JEAN DUVOISIN

Bonaparteren laguntzaileen artean Duvoisin dugu ortografi arazoetan murgilduenik ageri zaiguna. Ortografia berriaren aldekoa zen erabat *Le Messager de Bayonne* kazetaren 730. zenbakian d’Abbadiek argitara emandako alfabetoan ikus daitekeenez (74). Ortografiari buruzko arau eta proposamen zehatzak egiteaz gainera, garai hartako egoera ezagutzeko berri jakingarririk ere emango digu. Berari esker dakigu, esate baterako, dei bat zuzendu ziela euskaltzale guztiei Hiribarrenek ortografiako korapiloei konponbide bat aurkitzeko eskatuz (75). Hiribarren honek 1863-ko urtarrilaren 14an Duvoisini egin gutunean, bestalde, garai hartan ortografiaz arduraturik zebiltzanak nortzuk ziren esango digu:

“Nous nous occupons du Basque, vous et moi, l’abbé Inchauspe, le Prince Lucien et Ant. d’Abbadie (...)”. (76)

Duvoisin, 1863ko urtarrilaren 11n idatzi gutun baten dioenez, bat zetorren Hiribarrenen erabakiekin:

“Je suis tout à fait de votre avis sur l’emploi que vous donnez aux lettres admises dans votre alphabet (...)”. (77)

Buruhausterik handienak /s/ adierazteko era ezberdinek sortzen zituzten nonbait. Duvoisinek, Hiribarrenek bezala, erroa izan behar dela kontutan, eta ez ondoren doan bokala, uste izango du:

“(…) Celui qui écrit *haz* doit, pour être conséquent, écrire *hazia*”. (78)

(73) BONAPARTE, Louis-Lucien, *Le verbe basque en tableaux...*, op. cit.

(74) ABBADIE, Antoine d’, *Dictionnaire basque...*, op. cit.

(75) DUBARAT, V., “Lettres adressées au capitaine Duvoisin”, *RIEV*, IV (1910), (125-128), 125-126. orr.

(76) DUBARAT, V., *Lettres adressées au capitaine Duvoisin*, op. cit., 127. orr.

(77) DUBARAT, V., *Lettres adressées au capitaine Duvoisin*, op. cit., 126. orr.

(78) DUBARAT, V., *Lettres adressées au capitaine Duvoisin*, op. cit., 125. orr.

Hauxe berau zen, gorago ikusi denez, Lardizavalek bere Gramatikan proposatu zuen irtenbidea.

Duvoisinen zalantzetariko bat y-ri dagokiona da:

“Quant à l’Y, je pensais comme vous, et je n’en usais pas, lorsque le prince Louis-Lucien a voulu que je l’emploie dans la liaison de deux voyelles *anaya, heya, sagarroya, khuya*. Après beaucoup de réflexion, mon esprit n’est pas arrivé à une solution bien claire de la difficulté. Pour moi, l’y était une superfétation et toutes mes recherches ne m’ont pas convaincu du contraire. Cependant à Urrugne on dit, en faisant sentir trois syllabes *a-i-a (ahia), be-i-a (behia)*. Il est clair que l’on ne peut écrire ces mots comme *heia* (étale), *laia* (fourche à labourer), lesquels n’ont que deux syllabes. Mais j’estime qu’il est préférable d’admettre le tréma pour ce cas, plutôt que d’écrire *etsaya* et puis *etsai*”. (79)

1869ko urtarrilaren lehenean Bonaparteri egin gutunean, ortografian egindako aurrerapenez mintzo zaio:

“(…) la nouvelle orthographe, popularisée par les chants de nos poètes, commence à être employée par la classe des paysans qui savent écrire; j’ai entre les mains plusieurs lettres dans lesquelles le z remplit sa fonction, à l’exclusion du ç, où les *qui* et les *gui* ont entièrement disparu.

Par une crainte, assez peu fondée, de n’être pas bien accueilli, le clergé ne se hasarde pas encore à la réforme, dans ses petits livres d’église. Je pense que l’exemple d’une ou deux publications religieuses, répandues à bon prix, lui ferait franchir le pas. Je vais voir si je trouverai des adhésions à ce projet”. (80)

(79) DUBARAT, V., *Lettres adressées au capitaine Duvoisin*, op. cit., 125. orr.

(80) DARANATZ, J.-B., “Correspondance du Capitaine Duvoisin”, RIEV, XX (1929), (152-181), 164. orr.

Elizgizonen artean ere, dena dela, bazen ortografia berriaren aldekorik. Hauetariko bat, Duvoisinek 1870eko apirilaren 15ean Phillips-i egin gutunean dioenez, Jaurrette apaiza omen zen:

“Enfin, l’abbé Jaurrette, auteur de plusieurs ouvrages, a donné les vrais principes de la manière rationnelle d’écrire les mots basques. La routine se souleva contre lui et son humilité ne lui permit pas de suivre sa propre méthode”. (DARANATZ, J.-B., “Correspondance du Capitaine Duvoisin”, RIEV, XX (1929), op. cit., 174. orr.)

P. Altunak oraintsu (ALTUNA, Patxi, “Duvoisinen eskuizkribu argitaragabea”, FLV, XIX (1987), 49. zb., (65-95), 84-85. orr.) Jaurrette-ri buruzko argibide hauxe eskaini digu:

“L’abbé Jaurrette avait été le premier à comprendre la défectuosité de l’orthographe usitée le plus généralement et qui ne cessait de varier. Dans son *Mois de Marie*, il avait inséré une courte dissertation, pleine de vues très justes; et bien qu’il n’osât pas rompre avec les habitudes reçues, il avait néanmoins introduit dans ses livres quelques réformes. Des critiques malavisés lui en firent un crime; ils clabaudèrent de tous les côtés et firent même intervenir Mgr. l’Evêque pour forcer l’abbé Jaurrette à revenir sur les pas qu’il avait faits. Ce saint homme était plein d’humilité, ce qui n’empêchait pas qu’il ne vit clairement que le blanc n’était pas noir. Cependant il dut faire plusieurs concessions qui répugnaient à sa raison et son livre parut après cette longue lutte. (...)”

.../...

1878an *Revista Euskara*-n argitaratutako artikulua baten aldizkari horrek darabilen ortografia kritikatu du. Hegoaldeko idazle eta euskaltzaleengan ortografiarekiko nabari den axolagabekeria eta zabarkeria salatzen ditu, Iparraldeko berrikuntzak onartu beharrean ohizko bideei –gatzelaniarenei– jarraitzen zaizkiela esanez. Duvoisinek, *b* zein *v* biak idazten jarraitzea; *e*, *i* bokalen aurreko *qu* eta *gu* ez baztertzea eta *tch/ch* ez bereiztea (kasu bietan *ch* erabiliz) gaitzetsiko ditu (81).

Arzac-i egindako aipatu gutunean, orobat, Hegoaldean somatzen dituen zenbait joeraren aurka mintzatuko da:

“La thèse de la suppression de l’aspiration est insoutenable (...). Elle n’améliorerait rien et conduirait à la rupture avec les dialectes français. Car jamais nous n’accepterons un système faux, dépourvu de raison d’être, et nous refuserons de laisser altérer nos textes. Nous ne reconnaissons ce droit à personne.

L’accent sur *J* est une autre courbette faite devant le castillan. Elle est due à Lardizabal; mince autorité. Tout ce qu’il y a de bon dans sa Grammaire, il l’a pris à Larramendi, souvent mot pour mot. (...)” (82)

J.-D.-J. SALLABERRY

Sallaberryk 1870ean argitaratutako kanta liburuaren sarreran (83) ortografiari buruzko zenbait ohar egingo ditu. Sistema berriaren aldekoa da, ordura arte eginiko proposamenekin bete-betean bat egiten duelarik. Horrela, *ou* eta *u* ordeztu, *u* eta *ü* hurrenez hurren idazten ditu. Kontsonantei dagokienez, berriz, *k* (*c/qu* ordeztu), *z* (*c/g* ordeztu), *g* soila (*e, i* aurreko *gu* ordeztu), *b* (*v* baztertuz), *j* (*y* eta *i* ordeztu, ahoskera bakoitzaren esku uzten duelarik), */ç/* adierazteko *ts* (*x* ordeztu) eta *ch* eta *tch, /š/, /č/* fo-

.../...

Dirudienez, baina, handik urte batzutura argitaratutako beste liburu baten (*Guthun Apostolikoa*, 1864) bere gogoko arauak jarraitu omen zitzaizkien:

“(…) On remarque, en outre, que cette fois, s’affranchissant de toutes les injustes critiques qui l’avaient retenu jusque-là, il a donné l’orthographe que lui indiquaient ses réflexions.(…)”

(81) DUVOISIN, “Observaciones sobre la ortografía vascongada”, *Revista Euskara*, I (1878), 172-173. orr.

Antzerako salaketa egingo zuen Van Eys-ek urte batzuk lehenago:

“L’alphabet dont les Basques du Guipuzcoa se servent encore aujourd’hui se ressent fortement de l’influence de la langue espagnole. Plus opiniâtres, ou peut-être plus insoucians de leur langue que les Basques français, ils n’ont admis aucune des innovations qui ont été généralement acceptées par ces derniers. (...)”

(…) L’alphabet est encore toujours comme Larramendi l’a trouvé; c’est à dire purement espagnol, ce qui a produit une orthographe arbitraire et illogique au possible (...). (VAN EYS, *W. J., Essai de grammaire de la langue basque*, Amsterdam, 1867, 1-2. orr.)

Van Eys-ek dioenez, *e*, *i* aurreko *c*; *a*, *o*, *u* aurreko *z*; *a*, *o*, *u* aurreko *g* eta *e*, *i* aurreko *gu*; */s/* adierazteko *sh, š, x, ch*... omen dira nahasketa horien adibideetarako batzuk. Van Eys-ek, hala ere, Aizkibel aipatu du salbuespen gisa.

(82) DARANATZ, J.-B., “Correspondance du Capitaine Duvoisin”, *RIEV*, XXII (1931), op. cit., 333. orr.

(83) SALLABERRY, J.-D.-J., “Quelques observations indispensables au sujet de l’orthographe employée dans ce recueil”, *Chants populaires du Pays Basque*, Bayonne, 1870, VII-X. orr.

nemak hurrenez hurren adierazteko, hautatuko ditu. Bustiak, *ll* (*il, ill* ordez), *ñ* eta *tt* bidez adierazten ditu eta leherkari aspiratuak, azkenik, *ph, th, kh* bidez.

JULIEN VINSON

Vinsonek, 1870 urtean bertan, hogeit hamar letraz osaturiko alfabeto bat proposatuko du (84), baina argi eta garbi aditzera emanez lapurterarentzako soil-soilik eratua dagoela:

VOYELLES

Signes actuels.	Signes proposés.
a	a
e	e
i	i
o	o
u, ou	u

CONSONNES

Signes actuels.	Signes proposés.
k, c, q	k
t	t
p	p
kh	kh
th	th
ph	ph
b	b
d	d
g	g
tch	ç'
ts, x, tx	c'
n	ñ
ñ	ñ
n	n
m	m
h	h
z	s
ch	ç
s	ch
rr	r
r	r'
l	l
ll	l'
tt	t'
dd	d'
y, j	y
b euph	w

(84) VINSON, Julien, "Premier essai sur la phonétique basque", RLPbC, IV (1870), (118-127), 124. orr.

H. G. PHILLIPS

1870 urte berean Phillips-en *Über das baskische alphabet* argitaratuko da Viennan. Berrogei eta lau orrialdetako liburuxka hau garai honetan burututako ortografiari buruzko lanik sakonenetarikoa den arren ia erabat ezezaguna gertatu da euskaldun eta euskaltzaleen artean. Lehenbiziko orrialdeetan (6-11) bere aurrekoek –hamasei guztitara– eginiko proposamenak aztertzen ditu eta, ondoren, berak proposatutako alfabetoaren berri ematen (85). Hogeita hamalau letraz osaturik dago guztitara. Garai hartan Iparraldeko idazle eta euskaltzaleek onartutako berrikuntzen aldeko agertzeaz gainera, Oihenart hartzen du behin eta berriz eredutzat. Honek bezala, bustiak puntu bat dutela idaztea proposatzen du: *d'*; *t*; *l*; *n'* alegia. /š/ eta /č/ adierazteko –eta honetan ere Oihenarti jarraitzen zaiolarik–, *x* eta *x'* proposatuko ditu, parentesi artean *ch* eta *ich* ezarriko dituen arren.

4.3.2. HEGOALDEAN

XIX. mendean zehar, Aizquibelen ahaleginez landa, Hego Euskal Herrian ortografiari buruzko kezka handiegirik somatzen ez bazen ere, mende horren amaieran aldaketa sakon bat gertatuko da alor honetan, harrez gero ortografia arautzearren emango diren urratsik nagusienak Hegoaldeko idazle eta euskaltzaleen eskutik etorriko direlarik.

JOSE MANTEROLA

Manterolak aditzera emango duenez, azken mende laurdenean baizik ez dira hedatuko Hegoaldean Iparraldekoek askozaz lehenagotik hartuak zeuzkaten erabakiak:

“El Sr. Iza y Aguirre ha seguido en su version (86), la ortografía especial que tiene adoptada, que es la misma que usan el Príncipe Bonaparte, Van-Eys, y otros vascófilos, y que hace completa omisión de la *v*, que no es euskara, y que puede además considerarse como supérflua en dicho idioma, sustituyéndola en todos los casos por la *b*; usando siempre de la *k* en vez de la *c* y *q*, de la *y* por la *j*, suprimiendo en absoluto de la *h*, y escribiendo *GE*, *GI*, por *gue*, *gui*, *ZE*, *ZI*, por *ce*, *ci*, y *x* en vez de las dos *ss*”. (87)

(85) PHILLIPS, Hofrath George, *Über das baskische alphabet*, Wien, 1870, 43. orr.

(86) Izak bizkaierantako Félix María de Samaniegoren *La lechera* alegian darabilen ortografiaz mintzo da Manterola.

(87) MANTEROLA, José, *Canclonero Vasco*, Primera Serie, Tomo IV, San Sebastián, 1878, 20-21. orr.

Izak berak ohar hau egingo du Zalameako alkatia-ren (IZA ETA AGIRRE, Luis de, *Zalameako alkatia*, Bilbon, 1881) sarreran:

.../...

Antzerako oharra egingo du Vilinchek prosaz idatzitako izkribu ineditoak argitaratzerakoan:

“Las cuartillas inéditas en prosa (...) van arregladas á la ortografía moderna adoptada ya por casi todos los vascófilos.

Téngase, pues, en cuenta en la lectura que la *g* conserva siempre un sonido suave al unirse á todas las vocales: que la *j* sustituye á la *g* en la pronunciacion fuerte, *je*, *ji*, y que la *c* y *q* desaparecen por inútiles, dejando á la *k* los sonidos fuertes de ambas letras, y reemplazando á la primera con la *z* en las sílabas *ce*, *ci*.

Se hace asimismo completa omision de la *v*, que no es euskara y que puede además considerarse como supérflua en nuestro idioma, sustituyéndola en todos los casos por la *b*; y se suprimen tambien por innecesarias la *f* que tampoco es vascongada y que nuestros aldeanos reemplazan siempre por la *p*, y la *h*, completamente inútil en el dialecto guipuzcoano y que si acaso puede tener única aplicacion para distinguir una que otra palabra equívoca”. (88)

Manterolak berak ere ortografiari buruzko arau zehatzak emango zituen Cancionero Vasco honetan (89). Beraren eritziz Akademiarik eza, euskara irakaskuntzatik at izatea, literaturarik eza, euskalki aniztasuna eta, azkenik, Hegoaldeko probintziek gaztelaniarekiko eta Iparraldekoek frantsesarekiko daukaten menpekotasuna dira ortografiaren nahasketa sortu eta areagotu dituzten arrazoiak. Arazo hauei irtenbide bat bilatzearen zazpi probintzietako euskaltzalerik jantzienek osatutako Akademia bat –berak “Heptarquía euskara” deitzen duena– eraiki beharra aldarrikatzen du. 1880an emandako arauotan, beraz, euskal komunitate linguistikoa bere osotasun guztian hartzen du Manterolak aintzakotzat eta Bonapartek bere *Le verbe basque en tableaux-en* ezagutzera emandako alfabetoa jotzen eredutzat.

.../...

“Aunque entre nosotros no hay todavía una Academia de la lengua, la generalidad de los que en euskara escribimos, hemos adoptado, por considerarla la mas conforme á su índole, la ortografía admitida y enseñada por mi esclarecido y generoso maestro, el por tantos méritos ilustre príncipe Luis Luciano Bonaparte.

La *v* es desconocida en nuestro alfabeto, así que solo hacemos uso de la *b*.

Empléase la *k* en sustitucion de la *c* y *qu*.

Usamos la *g* en *ge*, *gi*, con el mismo sonido que tiene en *ga*, *go*, *gu*.

La *h* es desusada por considerársela inútil.

Escríbese *z* en vez de *c* antes de *e*, *i*.

Antes de *p* y *b* empleamos *n* en lugar de *m*, como igualmente usamos la *rr* en todos los casos de sonido fuerte, debiendo tenerse en cuenta que nunca vá como sonido inicial, sino es precedido de una *e* por eufonía”.

(88) MANTEROLA, José, *Cancionero Vasco*, op. cit., Segunda Série, Tomo I, 83. orr.

(89) MANTEROLA, José, “Algunas observaciones sobre onografía euskara”, *Cancionero Vasco*, Série III, San Sebastián, 1880, XIII-XXI orr.

Aurretikoen erabakietan oinarrituz *e*, *i* aurreko *gu* baztertzearen aldekoa da eta gauza bera *c* eta *ç* (bi hauen ordez *z* erabiliz), *v* eta *x* (azken honen ordez *ts* eta *tz* erabil daitezkeela diolarik), *c* eta *qu* (bi hauen ordez *k* erabiliz. Manterola, baina –eta honetan Chahok urte batzuk lehenago eginiko salbuespenarekin bat etorritz–, prest dago hitz amaieretan *c* erabiltzen jarraitzearekin, baldin eta horrela guztien onespena lortzerik bazen). Azpimarragarritzat derizkiegu, halaber, hurrengo aukera hauei:

– /č/ eta /š/ *ch* eta *š* bidez hurrenez hurren adierazi.

– *f*, lehenago –Moguelek egin bezala– baztertzen bazuen ere, ontzat emango du oraingo honetan.

– *j* eta *y*-ri dagokienez irtenbide bi ikusten ditu:

a) *j* (gainean puntua daramala) gaztelaniazko /x/ adierazteko eta *j* (gaineko punturik gabe) /j/ adierazteko (90).

b) ohi bezala, *j/y* beraz, idatzi.

– /ʎ/ *ī* bidez adierazi.

Azkenik (91), honako alfabeto hau proposatzen du: a, b, ch, d, e, f, g, h, i, j, j, k, kh, l, ll, m, n, ñ, o, p, ph, r, rr, s, s, t, t, th, ts, tz, u, y, z.

ARTURO CAMPION

Campion nafarrak ere hartuko du eztabaidotan parte. Revista Euskara-n argitara emango duen “Gramática Euskara”-n (92), Van Eys, Duvoisin eta Bonaparteren *Le verbe basque* eredutzat hartzen dituela aitortu ondoren, Iparraldean eginiko berrikuntzak Hegoaldera ere hedatu beharra azpimarratuko du. Campiónen erabakien artean honako hauek daude: *v* eta *x* baztertu (azken honen ordez *ts/ch* erabiliz) eta gauza bera *c* (honen ordez *z/k* erabiliz), *gu* (honen ordez *g* soila erabiliz) eta *qu* (honen ordez *k* erabiliz) grafemei dagokienez. Hitz hasieran *g*- ordez *j*-hobesten du (*jauna*, *jakintsu*, *jende*...) eta *h*-ri dagokionez, azkenik, esanahi ezberdinetako hitzak bereizteko erabiltzea proposatzen du: *ura* (edatekoa) ≠ *hura* (erakuslea).

Ñabardura berri batzuk egingo ditu 1884an argitaratutako Gramatikan. Honako hauxe ezarriko du oinarritzko arautzat:

“(…) no dar á un solo sonido dos signos gráficos y rechazar los caracteres mudos. (...)” (93)

(90) Gorago ikusi bezala Bonapartek ere egiten zuen bereizketa hau baina alderantzizko banaketarekin.

(91) MANTEROLA, José, *Algunas observaciones...*, op. cit. XIX. orr.

(92) CAMPION, Arturo, “Gramática Euskara”, *Revista Euskara*, III (1880), 5-8. orr.

(93) CAMPION, Arturo, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Tolosa, 1884, 66. orr.

Ondorioz, era honetara osatuko da berak proposatutako alfabetoa: a, b, ch, d, f, g, h, i, j, k, l, ll, m, n, ñ, o, p, r, ṙ, t, ts, u, ù, y, z, tz (94).

Alde batetik, beraz, /s̃/ eta /ç/ adierazteko era bakarria proposatuko du: *ch* eta *ṙ*, berriz, /ñ/ adierazteko.

JOSE IGNACIO ARANA

Aztertzen ari garen epe honetan bazterrezinezkoa zaigu José Ignacio Aranak ortografi arloan burututako lana. Abiapuntu legez, 1872an argitaratutako San Ignacio Loyolacoaren bicitza liburuaren eranskinetariko baten dakarren ohar hau ezar genezake (95):

“Segun las observaciones de Mr. Darrigol, Astarloa, Erro y otros bascófilos, resulta que contando la aspiracion *h* por una letra, el alfabeto euskaro simple ó elemental consta de solas veinte letras, cinco vocales y quince consonantes, y que modulando ocho de estas, lo que se denota con una tilde ó rayita, se forma el alfabeto modulado ó completo, de veinte y ocho; que son:

- 1ª a. au, *esto*.
- 2ª b. bat, *uno*.
- 3ª b̄. bici, *vivir*.
- 4ª z. zer, *qué cosas*.
- 5ª z̄. z̄iki, *pequeño* (como *chiqui*).
- 6ª d. da, *es*.
- 7ª e. ez, *no*.
- 8ª g. gero, *despues*.
- 9ª h. hura, *aquel*.
- 10ª i. ia, *el junco*.
- 11ª y. aya, *natilla*.
- 12ª j. jó, *pegar*.
- 13ª l. ló, *dormido*.
- 14ª l̄. ilun, *oscuro* (como *illun*).
- 15ª m. mamia, *cuajada*.
- 16ª n. ni, *yo*.
- 17ª ñ. ofña, *el pié*.
- 18ª o. or, *ahí*.
- 19ª p. poz, *alegria*.
- 20ª p̄. apariya, *la cena* (como *afariya*).

(94) CAMPION, Arturo, *Gramática...*, op. cit., 66-67. orr.

(95) ARANA, J. Ignacio, “Liburucho onen eta besteen Euskera-ren gañean cerbait”, *San Ignacio Loyolacoaren bicitza...*, op. cit., 201. orr.

- 21^a k. kendu, *quitar*.
 22^a r. eran, *decir* (con *erre* fuerte).
 23^a ṙ. eṙan, *beber* (con *erre* suave).
 24^a s. sosua, *tordo*.
 25^a ṣ. ṣoṣua, *tordito*.
 26^a t. maitea, *querido*.
 27^a ṭ. maṭea, *queridito*.
 28^a u. ua, *vete*.”

Aranaren erabakiotan ezer berririk ez badago ere, aipagarria da tiletaz egiten duen erabilera zabala, fonema bustietara –Aizquibelek nahi bezala– ezezik, /č/ eta /f/ adierazteko ere (ṙ eta ṗ bidez) hedatzen bait du. Ohar bedi, halaber, /r/ bidez eta /r/, aldiz, ṙ bidez adierazten dituela, Vinsonek ere urte batzuk lehenago proposatu bezala.

1882an, Euskal-erria aldizkarian, berriz lotuko zaio ortografiari, hamar urte lehenago aurkeztu alfabetoa lau letra gehiagoz osatuko duelarik. Iparraldekoen berrikuntzak idazle guztiek onartu beharrekotzat jotzen ditu baldin eta ortografi arloan batasun batera iritsiko bada. “Escribiremos *todo como suena* y pronunciamos *todo como se escribe*” arau nagusizat ezarririk (96), honako alfabeto hau proposatuko du:

“Prescindiendo de los usos y abusos ó anomalías de otras lenguas, y aplicando aquella *regla única y trascendental* de ortografía bascongada á la pronunciacion y silabeo completo del idioma euskaro, nace el siguiente *abezé* ó alfabeto bascongado compuesto, sin ninguna *letra doble*, de *cinco vocales* simples y elementales, y otras *cinco* ó las mismas moduladas, y de *quinze consonantes* simples y de otras *siete*, que de ellas se modulan en la pronunciacion en varias ocasiones. Para indicar esa modificacion, modulacion, ó pequeño cambio del sonido principal de la letra, tanto en *vocales* como en *consonantes*, basta en la escritura hacer ó poner una *tilde* encima de ella.

Hé aquí dicho alfabeto, que con un poco de uso sería lo mas lógico y fácil para todos:

a, ā, b, ḃ, z, d, e, ē, g, h, i, ī, y, j, l, ḷ, m, n, ṅ, o, ō, p, ṗ, k, r, ṙ, s, ṣ, t, ṭ, u, ū”. (97)

Aranak, *c* eta *qu* baztergarriztat jotzen dituen arren, prest dago –Chaho eta Manterola bezala– hitz amaieretan *c* erabiltzen jarraitzeko (98).

(96) ARANA, José Ignacio de, “Ortografía bascongada”, Euskal-erria, Tomo VI (1882), (109-111), 109. orr.

(97) ARANA, José Ignacio de, *Ortografía bascongada*, op. cit., 110. orr.

(98) ARANA, José Ignacio de, *Ortografía bascongada*, op. cit., 110. orr.

Disertación sobre la ortografía Euskara omen da Aranak gai honetaz idatzitako lanik sakonena (99). Azkueri esker dakigu (100) ohizko bideetan zebilela Arana, baina zehaztasun eta fiabardura berri gehiagorekin oraingoan:

a, ā, b, b̄, z, d, d̄, e, ē, g, h, i, ī, j, k, l, l̄, m, n, n̄, o, ō, p, p̄, r, r̄, s, s̄, t, t̄, u, ū, y, tz, t̄s, ts, ys.

Bost dira, bada -d̄, tz, ts, t̄s, ys-, Aranak ezarriko dituen berrikuntzak.

1895ekoak dira, guk dakigula, J. I. Aranak ortografiatz hartuko dituen azken erabakiak. Era honetara arrazoitzen du euren beharrezana:

“En ninguna *gramática* propiamente *euskara* escrita hasta ahora, hallamos la idea y ejecución propiamente gramaticales de escribir, de presentar al vivo analítica y sintéticamente el idioma bascongado, y de hacerlo funcionar clara, armónica y ordenadamente, sea de viva voz, sea gráficamente y por la escritura ó lo que es igual por medio del *lenguaje externo euskaro*, todos los fenómenos, signos y manifestaciones del *lenguaje interno del hombre*”. (101)

Erraz eta zuzen idazteko arau bakar bat dagoela dio:

“(…) Esta *regla única*, se expresa generalmente diciendo, que «*En bascuence todo se ha de escribir, como se pronuncia; y todo se ha de pronunciar y leer como se escribe; dando para ese efecto á cada letra y sílaba su propio y único sonido.*» Examinada bien fisiológica y ortológicamente la *escritura fonética*, que corresponde á todos y cada uno de los *sonidos* del habla euskara, existentes y más ó menos usuales en toda la *Euskaria* ó heptarquia bascongada franco-hispana, resulta que el *Abecedario* constitutivo ó rudimental del Euskara se compone de solas *cinco* letras *vocales* y *diez y seis consonantes*; para cuya pronunciación no hacen falta alguna las guturales y menos las nasales pero que atendiendo á las modulaciones ó bemoizaciones, que en el lenguaje comun admiten esas *cinco vocales* y las *consonantes* fuertes ó rudimentales, excepto la aspirada *h* (he) se completa el *abecedario euskaro modulado* ó perfecto, que consta de cuarenta y una letras. La modulación de cada vocal y consonante bemoizada ó suavizada (*mouillé* en francés) proviene casi siempre de aplicárseles *sonidos nasales*, excepto en *r* suave, *d̄*, *t* y *s̄*. Esa modulación se

(99) Ez dugu ezagutzeko aukerarik izan 1890ean Bilboko El Basco kazetan lehenengoz, eta separata legez gero, argitaratu eman omen zen lan hau. Beroi buruzko aipamen ugari aurki daitezke, dena dela, Azkueren Proyecto de ortografía nahiz Sabino de Arana-Goiriren Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino liburuetan.

(100) AZKUE, Resurrección María de, Proyecto de ortografía, Bilbao, 1896, 10. orr.

(101) ARANA, José Ignacio de, Complementos á la Obra de Averiguaciones Cantábricas é Ignacianas, del P. Gabriel de Henao de la Compañía de Jesús, Tomo VI, Complemento primero. Apéndice Sexto, Tolosa, 1895, 96. orr.

expresa sencillamente con poner encima de la *letra ruda* una tilde ó rayita.(...)” (102)

Eta hauxe da jarraian proposatzen duen alfabetoa: a, ā, b, b̄, z, z̄, d, d̄, e, ē, f, f̄, g, ḡ, h, i, ī, j, j̄, k edo c, k̄ edo c̄, l, l̄, m, m̄, n, n̄, o, ō, p, p̄, r, r̄, s, s̄, t, t̄, u, ū, y, ȳ (103).

Alfabeto honetako berrikuntzarik aipagarriena /f/ adierazteko ordura arte erabiltak \bar{p} baztertzean eta f/\bar{f} hautatzean legoke.

J. I. Aranaren proposamenek, osotasun guztian harturik behintzat, ez zuten erro sakonik botako, baina beraren eragina ukaezinezkoa da urte haietako—eta geroagoko— euskal ortografiaren tiletak izango duen arrakasta ulertzeko (104).

RESURRECCION MARIA DE AZKUE

1891n argitaratutako Gramatikan ortografiari buruzko lau arau nagusi hauek ezarriko ditu Azkuek:

“LENENGOA. *Aots bageko izkirarik ezdago*. Izkiraak aots-marraak daiz; aotsik ez baleukee’ ezlitzakez izango.

BIGARRENA. *Izkira bageko aotsik ezin egon leike*. Ezleukez bez-telan Izkirakindeak «pereminazko marra» guztiak eukiko.

IRUGARRENA. *Aots bakoitzari izkira bat dagoka* (lar daiz izkira bi aots batentzat), eta zeinbait aots ainbezte izkira egon bear daue.

LAUGARRENA. *Izkira bakoitzari aots bakar bat dagoka*”. (105)

Ondoren alfabeto hauxe proposatuko du: a, e, i, o, u, b, z, d, g, k, l, m, n, p, r, rr, s, t, tz, ts, t̄s, z̄, d̄, d̄s, l̄, n̄, s̄, t̄.

Honako beste hauek, aitzitik, baztergarritzat joko ditu: *c* (honen ordez *z/k* erabiliz); *q* (honen ordez *k* erabiliz); *h* (ahoskatzen ez denetan, “aots bageko izkirarik ezdago” arauari jarraituz); *ch* eta *tch* (hauen ordez, /č/ adierazteko, $t\bar{s}$ erabiliz); *dh*

(102) ARANA, José Ignacio de, Complementos á la Obra de Averiguaciones..., op. cit., 97. orr.

(103) ARANA, José Ignacio de, Complementos á la Obra de Averiguaciones..., op. cit., 98. orr.

(104) Iparraldera ere zabalduko zen zerbait tiletaren erabilera. Ithurryk, esate baterako, bide hori aukeratzten du bere Gramatikan (ITHURRY, Jean, Grammaire basque. Dialecte labourdín, Bayonne, 1895, VIII. orr.) fonema bustiak adierazteko: \bar{d} , \bar{l} , \bar{n} , \bar{s} , \bar{t} . Hauetaz gainera, $t\bar{s}$ eta $t\bar{s}$ proposatzen ditu /č/ adierazteko.

(105) AZKUE, Resurrección María de, Euskal-Izkindea..., op. cit., 29. orr.

(honen ordez \bar{d} erabiliz); *jh* (106) edo *j* (hauen ordez $d\bar{s}$ erabiliz, *D\bar{s}auna* eta ez *Jhau-na*); *ll* (honen ordez \bar{l} erabiliz. Bustiak adierazteko, hain zuzen ere, tiletaz baliatuko da Azkue: \bar{z} , \bar{d} , $d\bar{s}$, \bar{l} , \bar{n} , \bar{s} , \bar{t} , alegia); *ph* eta, orobat, \bar{p} (J. I. de Aranak proposatua) eta *f* (fonema hau euskararena ez delakoan); *th* eta *tt* (hauen ordez \bar{t} erabiliz); *y* (honen ordez $i\bar{d}$ erabiliz); *v*, *x* eta *ss* (azken bi hauen ordez, \bar{s} adierazteko, \bar{s} erabiliz) (107).

Atzerriko hitz eta izenak, ostera, jatorrizko ortografian uztea gomendatzen du.

Azkuek \bar{z} eta \bar{s} bereizten ditu. Lehena, *i* bokalaren ondoren /s/ dagoenean ahoskatu ohi dela dio: *aīzea* < *aizea*. Bigarrena, aldiz, *i* bokalaren ondoren /s/ dagoenean edota, kontsonante hau beratu, *i* eta beste edozein bokalen artean dagoenean: *gorri\bar{s}a* (108). Bion arteko ezberdintasuna oso txikia dela aitortuko du hala ere, frantseseko *ch* antzera ahoskatzen direlarik.

Nolanahi ere 1896an argitaratutako Proyecto de Ortografía da Azkuek auzi honetaz burutuko duen lanik sakonena. Alfabeto hauxe proposatuko du bertan: a, b, z, \bar{z} , d, \bar{d} , e, f, g, h, i, j, k, l, \bar{l} , m, n, \bar{n} , o, p, r, rr, s, \bar{s} , t, \bar{t} , tz, $t\bar{z}$, ts, $t\bar{s}$, dz, ds, $d\bar{s}$, u, \bar{u} .

Euskal Herri guztian zehar idazkera bakar bat heda dadin eskatzen du Azkuek. Hori dela eta, *ian*, *io*... edo *yan*, *yo*... idatz dadila proposatzen du, nahiz eta gero *jan*, *d\bar{s}an*... ahoskatu; *idia* (nahiz eta *idi\bar{s}a*, *idid\bar{s}a*, *idid\bar{s}e*, *idiya*, *idiye*, *idie*, *idii*... ahoskatu); *ordua* (nahiz eta *ordue*, *orduba*, *ordube*... ahoskatu); *gizon*, *gaiso*, *mutil*, *lakaina*, *bildurr*, *ito*, *itsu*, *garitz* (zenbait hizkeratan ahoskatzen diren *gīzon*, *gai\bar{s}o*, *muti\bar{l}*, *lakai\bar{n}a*, *bildurr*, *i\bar{i}o*, *i\bar{i}su*, *garit\bar{z}* gorabehera). Azkue, beraz, bokal harmonizazioaren, bustidura automatikoaren... ondorioz gertatzen diren fonetismoak ortografikoki ez adieraztearen aldekoa zen eta horretan iraungo zuen ondorengo urteetan ere. Euskal Herri osoari begira egoteak, bestalde, 1891ko Gramatikan baino erizpide zabalagokoa izatea ekarriko zuen eta, horren ondorioz, *h*, *j*, $d\bar{s}$ eta \bar{u} ontzat eman-go ditu oraingo honetan.

1891ko Euskal-Izkindea-n egin proposamenak 1896ko Proyecto de ortografía-n eginikoekin alderatuz, beste ezberdintasun hauek ere nabarmentzen dira.

(106) Hain zuzen ere Azkueren aita izan zen -Eusebio M^o Dolores de Azkue alegia- *jh* honen erabilera zabalena egin zuena. Beronek euskaratutako Dies Irae poeman honako hauek aurki ditzakegu besteak beste: *ikaragarri\bar{j}ha*, *guzti\bar{j}ha*, *argui\bar{j}ha*, *jhai\bar{j}ho*... (Poema hori, ikus: ALZOLA, N., "XIX'garren gizaldiko euskal izkribuak", Euskera, IV (1959), 57-62. orr.).

Ez zetozen denak bat E. M^o. Azkueren berrikuntza hauekin, Aita Uriartek 1861eko azaroaren 9an egin gutunean (RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. Juan, O. F. M., "Cartas del P. Uriarte...", BRSVAP, XIII (1957), Cuaderno 3^o, op. cit., 341. orr.) ikus daitekeenez:

" (...) En cuanto a la ortografía, no sólo continúa con la *sh*, aunque le he advertido, sino que también tiene otras razones, que no se le pueden quitar de la cabeza. Es lástima..."

(107) AZKUE, Resurrección M^o de, Euskal-Izkindea..., op. cit., 30. orr eta hurr.

(108) AZKUE, Resurrección M^o de, Euskal-Izkindea..., op. cit., 19. orr.

- /č/ adierazteko $\bar{i}z$ eta $\bar{i}š$ proposatzen ditu. Lehena, aurrean dagoen *i* bokalak bustitzen duenean erabiltzeko (*aitza, garitza, gaitza...*) eta gainontzeko kasuetan bigarren (i*š*akur, i*š*iki, ori*š*e, i*š*sua, i*š*i...). Azkue da ezberdintasun hau egiten lehena, nahiz eta $\bar{i}š$ lehenagotik ere, bai J. I. Aranak eta bai Euskal-erria aldizkarian, erabilia zen.

- *dz* eta *ds* hitz onomatopeikoetarako uzten ditu: *dz*apart, *dzi*, *dza*, *ds*ast, *ds*aust... Afibarro omen zen, Azkuek dioenez, biotarik lehena (*dz*) erabili zuen bakarra, bigarrenaren sortzailetzat, ostera, bere burua jotzen duelarik.

- Fonema bustiak adierazteko aukera bi egin ohi direla dio Azkuek:

a) letra bikoiztu: *zz, dd, ll, nn, ss, tt*. J. A. Moguel, Afibarro eta J. M. Zavalala, beste zenbait idazle bizkaitarrekin batera, aipatzen ditu bide honen jarraitzaileen artean.

b) *h* letra erantsi: *zh, dh, lh, nh, sh, th*. Eusebio M^a Azkue aipatzen du aukera honi sistematikoki jarraitu zaizkionen artean.

R. M^a Azkuek, aitzitik, tileta erabiltzeari deritzo egokien eta zuzenen (109), J. I. Aranak eta garai hartako aldizkaririk gehien (Bizkaitarra, Euskal-erria, Eskualduna, Revista Euskara) ereduari jarraituz.

- *b* eta *p* aurrean *n* idaztea (eta ez *m*).

- *r* eta *rr* kasu guzti-guztietan (silaba eta hitz amaierak barne) bereiztearen aldekoa da: *arri, arri*, *egurr, grrriña*... Ez du oraingo honetan \bar{r} onartzen, tileta bustiak adierazteko mugatzearen aldekoa bait da.

1897an Azkueren zuzendaritzapean argitaratzeari ekingo zaion Euskalzale aldizkariaren orrialdeetan ortografiari buruzko eztabaida bati emango zaio leku. Azkuek, "Euskalzale" goitizenaekin, joera berrien (*c* eta *qu* ordez *k*, *c* ordez *z*, *ch* ordez $\bar{i}š$...) aldeko arrazoiak azalduko ditu bertan.

SABINO DE ARANA-GOIRI

Arana-Goiri da, Azkuerekin batera, XX. mendera arteko epean zehar ortografiari buruzko ikerketarik sakonena eta zehatzenak burutuko dituen. Beraren lana, bestalde, erabakiorra gertatuko da ondorengo urteetan, izan zituen erizpideetariko asko, arrazoi ezberdinak zirela tarteko, nagusi aterako bait dira. Lehen aldiz, nolabait sakontasunez behinik behin, Pliegos Euskeráfilos-etan, 1888ko maiatzaren 12an dataturiko artikulua baten, helduko dio gai honi (110). Ez dator bat Car-

(109) AZKUE, Resurrección M^a de, *Proyecto de ortografía*, op. cit., 27-28. orr.

(110) ARANA-GOIRI, Sabino de, "Observaciones al último artículo a mis amados bascongados. Neure euscaldun maiteei publicado en EL VASCO y suscrito por UN BASCONGADO", *Obras Completas*, op. cit., 48-66. orr.

daberaz eta J. A. Moguelek emandako arauekin eta euskal ortografia aldatu eta egokitu beharra salatzen du. Ontzat ematen ditu oro har Iparraldekoek eginiko berrikuntzak, hots: *gu* eta *v* baztertzea eta *c/qu* ordez *k* eta *c* ordez *z* hobestea. Ipar eta Hegoaldeko idazle eta arauemaileak banatzen zituen *h* grafemaz ere jardungo du:

“Pues, al respetable P. Cardaveraz no debe V. seguir en aquella opinión, sino al principio de que *la buena escritura debe conformarse con la pronunciación*, sentado por Moguel, a quien tanta afición muestra V. Pero es, sin duda, que V. no sabe que al signo *h* le corresponde su peculiar sonido; pues podría haberlo sabido V. antes de escribir el artículo, leyendo en la página 229 del Peru Abarca.

Otra cosa es decir que el sonido gutural es ilegítimo en el Euskera y que no debe emplearse; esto sí es cierto, y, aceptándolo, queda vacante el signo *h*; pero que, existiendo aquel sonido, deba desterrarse el signo que lo representa, no es conforme, señor articulista, con el principio, muy bien sentado, pero muy mal aplicado, de su único maestro”. (111)

Erabatekoa izango da bere eritzia orrialde batzuk beheraxeago:

“Además de la elisión de *c* y *q* e introducción de la *k*, combate el articulista la inclusión de *h*. Y dispénseme le diga que la introducción de este signo, sí es cierta respecto del alfabeto de Moguel, que sólo escribía en bizkaino, pero no lo es respecto a la ortografía ultrabidasoica. Aquél no lo necesita, porque no posee el ilegítimo sonido gutural aspirante, pero la última, que lo posee, ha de valerle de él mientras no se elimina del alfabeto fónico el sonido que le corresponde”. (112)

Jarraian, berak proposatzen duen alfabetoa ematen du ezagutzera. Bokalen artean ohizko bostak onartzen ditu, orripeko ohar baten Campiónek bere Gramatikan aipatutako bokal konbinatuak (*ae*, *ü* eta *û*) eta sudurkariak alde batera uztea erabakitzen duelarik. Era berean, *h*, *f* eta *jh* (azken hau /x/ adierazteko darabil Arana-Goirik) baztergarritzat jo beharko lirakeela dio “porque considero ilegítimos los sonidos que representan”, nahiz eta ahoskatzen direino erabili beste biderik ez dagoela aitortzen duen. Aranak berak proposatzen dituen berrikuntzak, ostera, *c*, *x*, *r*, *s*, *l* eta *tx* dira. Lehenari dagokionez zera esango du:

“Represento con C el sonido dental sordo. El sonido existe, como en CE (cosa menuda), CIRI (ángulo), etc. (...)”. (113)

Arana-Goirik /*ʃ*/ eta /*ç*/ adierazteko *x* eta *tx* aukeratzen ditu, honetan Astarloaren jarraitzaile dela aitortuz.

(111) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 55. orr.

(112) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 62. orr.

(113) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 63. orr.

Hirugarrenik, /r/ adierazteko *r* proposatuko du, erabaki hori era honetara arrazoitzen duelarik:

“(…) La razón de mi reforma es obvia: la diferencia del sonido vibrante fuerte respecto al suave es la *reintensidad*, y ésta no es *reduplicación*, como lo expresa el signo RR respecto del R. El acento indica mucho mejor la *reintensidad de tono*” (114).

Goiko arrazoibideari jarraituz *s* erabiltzea proposatzen du, Astarloak zerabilen *ss* ordez (115).

Fonema bustien kasuan, ostera, azentuaren ordez tiletaz baliatzearen aldekoa da, honelakoetan soinua “indartu” barik “bikoiztu” egiten delakoan: *ī, n̄, ī*, beraz.

Bizkaitarra kazetaren 20. zenbakian hiru gutun argitaratu zituen “Cartas a Euskófilo” izenburuarekin. Hauetariko bigarrenean (1895eko urtarrilaren 28koan) *c* eta *s* grafemez honako fiabardura hau egingo zuen:

“(…) en mi opinión, siendo los sonidos representados por *c* y *s* de muy raro e irregular uso, no deben tampoco ser representados en la escritura corriente, porque su empleo dificultaría mucho la ortografía. Únicamente cabe citar y usarlos en los trabajos etimológicos. En la escritura corriente debemos emplear en todos los casos los signos *s* y *z*”. (116)

1896an argitaratuko zen *Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino*. Hirurehun eta zazpi orrialdetako liburu hau Euskal Herrian ortografiatz idatzi izan denik osoena eta zehatzena dugu. Ondo jabetzen zen Arana-Goiri askatu beharreko korapiloen zailtasunaz:

“Pero, dado que las diferencias ortográficas que hoy en el Euskera existen están ya muy arraigadas, por razón de lo mucho que se han generalizado y del largo tiempo por que ha venido a sancionarse el uso, paréceme difícil se llegue a este acuerdo de absoluta unificación.

(114) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 64. orr.

(115) Erabaki hau ez zen, dena dela, berria, honela mintzo bait zen urte bi lehenago argitara emandako artikulua baten (ARANA-GOIRI, Sabino de, “Etimologías sueltas (1) ¿Basco ó Vasco?”, *Revista de Vozcaya*, II (1886), (166-172), 167. orr.):

“El sonido consonante representado aquí por *ss* existente (no sé si exclusivamente) en toda la región Euskeriana que habla el dialecto Bizkaino. No es más que un sonido *s* fuerte; de manera que entre *s* y *ss* hay la misma relación que entre *r* y *rr*, *b* y *p*, *d* y *t*, *g* y *k*.

No me parece la trascripción *ss* la más propia y natural, como tampoco la *rr* para representar el sonido *r* fuerte; no obstante, hasta cierto día que omito, los transcribo á imitación de Astarloa, á quien sigo también en la expresión gráfica del sonido *x* (*ch* francés, *sch* alemán, *sh* inglés).

Entre las palabras sin cuento que llevan el sonido representado por *ss*, pueden citarse: *ichasso* (...), *sassi* (...), *usso* (...), *osso* (...), *assto* (...), *assi* (...), *ikussi* (...), etc.”

(116) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 396. orr. Gauza bera errepikatu-ko du *Lecciones de Ortografía-n* (*Obras Completas*, op. cit., 827 eta 838. orr.).

Dos clases de diferencias hay: la una consiste en que un mismo sonido es representado por varios dialectos con sendos signos; la otra, en que con un mismo signo representan varios dialectos a sendos sonidos". (117)

Arazoei irtenbide bat aurkitu asmoz bost arau nagusi -ezagunak batzuk- jarriko ditu oinarritzat:

1. Todo sonido debe ser expresado gráficamente.
2. Cada signo no debe representar más que un sonido.
3. A cada sonido no representará más que un signo.
4. El signo debe ser lo más simple posible.
5. El signo debe conformarse cuanto sea posible con el sonido que representa". (118)

Ez dago alde handiegirik liburu honetan eta 1888an aurkeztutako proposamenen artean. Bere aurretiko bizkaitar idazle zenbaiten sistema ortografikoa aztertzen du lehen-lehenik: Capanaga, J. A. Moguel, Afibarro, Astarloa, Prai Bartolome, J. J. Moguel, Olaechea eta Uriarterenak hain zuzen ere. Idazle hauek erabilitako sistemok okerreztu baterik ikusten baditu ere, Astarloa eta Zavala dira -hura batez ere- Aranak eginiko proposamenekin hurbilen daudenak eta behin baino gehiagotan eredutzat jarriko dituenak.

Pliegos Euskeráfilos-etan bezalaxe *h*-ri buruzko iruzkin batzuk egingo dituzte oraingoan ere:

"El sonido *h* no es general en Bizcaya ni peculiar de una región determinada de ella. Se oye muy rara vez, y aun los bizkainos que alguna vez lo pronuncian lo usan sin ninguna regularidad. Suele ser degeneración de *g* o de *gh* en este dialecto". (119)

Eta orripeko ohar baten zera gaineratuko du:

"En un principio estaba en la creencia de que no era bizkaino, pero hoy tengo que acusar su irregular existencia, pues lo he oído a varios bizkainos de distintas localidades, una de las cuales es mi república natal, Abando, en la voz Haungoikoa (Dios)".

Orrialde batzuk beherago, azkenik:

"(...) no es un sonido orgánico, como ha asegurado algún tratadista: es una simple aspiración fonética que se agrega o inicialmente, o entre los elementos de una voz; pero es, al cabo, un sonido perfectamente

(117) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 824. orr.

(118) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 849-850. orr.

(119) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 827. orr.

distinto, y debe ser representado con particular signo. No creo habría inconveniente en que se significase con algún punto, tilde (120) o acento colocado sobre la vocal en que recayera la aspiración; pero tampoco le hay en que se represente con el signo *h*, ya que éste sobra en el alfabeto gráfico del Euskera". (121)

Aspirazioarekin batera beste hiru ere badira bizkaieraren eremuan (122) Arana-Goirik jatortzat ematen ez dituen hotsak: *gh* (honela adierazten du oraingoan /x/ eta ez *jh* Pliegos Euskeráfilos-etan bezala), *f* (hau /p/-ren degeneraziotzat jotzen du, bereziki Arratiako hizkeran erabilia) eta *v* (hau, /b/ bokal ondoren aurkitzen denean gertatzen den ahoskera omen da, nonbait ere Orozko eta inguruetako hizkeretan entzuten zena (123). Aranak, hala ere, ontzat ematen zuen grafema hauek esparru jakin batzutan erabiltzea:

"(...) los sonidos ilegítimos, que han resultado ser los cuatro siguientes: *h, gh; f, v*.

Deben usarse: 1º, en los estudios de investigación etimológica; 2º, en los vocabularios especiales de las variedades en que existan, como su publicación no tenga más objeto que el científico; 3º, en los vocabularios comparados, si entra en ellos alguna variedad que posea dichos sonidos y es científico el objeto de su publicación". (124)

Lecciones de Ortografía honetan 1888ko Pliegos Euskeráfilos-etan egiten ausartu ez omen zen proposamen bat emango zuen ezagutzera. Ondorengo arau honetan oinarritzen zen delako proposamen hori: "un signo debe constar de iguales elementos como minúsculo que como mayúsculo" (125). Bi salbuespen zituen arau honek Aranaren eritziz: *i, j/I, J*, hots, gainean puntua dutela minuskulak majuskulek deus ere ez daramaten bitartean. Aranak, bikoiztasun honetaz jabetzea Ormaetseari zor ziola aitortu ondoren (126), *j*, minuskula denean, punturik gabe idaztea proposatuko zuen (127), baina *i*-ri zegokionez, ohizko formari eustea erabakiko zuen gainontzeko euskalkietatik lar ez urruntzearen.

(120) J. I. Aranak egiten zuen, hain zuzen ere, bokal eta kontsonante aspiratuak tilet batez adierazteko proposamena: $\bar{k} = kh; \bar{a} = ha$, etab.

(121) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 857. orr.

(122) Oso kontutan izan behar da betiere bizkaieraren ortografia dela —liburuaren izenburuak berak argitzen duen legez— Aranak aztergai hartzen duena.

(123) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 828. orr.

(124) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 838. orr.

(125) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 855. orr.

(126) Gogora dezagun, baina, bai Bonapartek eta bai Manterolak ere egiten zutela berezketa hau.

(127) Aranak, dena dela, fiabardura bat egitea proposatuko zuen: *J, j* (punturik gabeak). gipuzkerazko eta Bizkaiko zenbait hizkeratan ahoskatzen den /x/ adierazteko utzi eta *J, j* (puntudunak), ostera, bizkaierazko *j/j* adierazteko. (ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 856-857. orr.). Manterolak 1880an egiten zuen banaketa berbera zen Aranak orain, jakinaren gainean edo oharkabean, egiten duena.

Arana, bestalde, zubereran eta Nafarroa Behereko hizkera batzutan ahoskatzen den [ü] v bidez adieraztearen alde agertzen zen, Campiónek eta Azkuek proposaturiko ü, "multiplea" delakoan, baztertuz.

Arana-Goirik ortografiarekin zerikusia zuten beste hainbat xehetasun ere aztertuko zituen, hala nola apostrofoaren (') eta marratxoaren (-) erabilera. Lehena, erdaretan bete ohi dituen zereginen landa, euskaran beste hauetara ere hedatu litekeela uste izango du:

"a) Entre el nombre sustantivo propio y su sufijo: *Bizkaya'ren semiak* (los hijos de Bizkaya)...

b) Entre el número y su sufijo: *lawrleko 2'jok* (estas 2 pesetas); *XIX'eko jazopenak* (los acontecimientos del XIX)...

c) Para separar el prefijo elemental *ba* en las flexiones verbales del modo condicional hipotético: *ba'neu* (si yo lo hubiera)..." (128)

Marratxoa, berriz, beste kasu hauetan erabiltzea proposatuko du:

"a) Entre los elementos de una frase adverbial: *beñik-bein* (al menos)...

b) Entre los elementos de una frase sustantiva o adjetiva: *nor-edonor* (alguien)...

c) Entre los prefijos verbales *ba* y *bai* y las flexiones no condicionales a que acompañen: *ba-yakik*, *irakusi biar' yok* (si sabe, debe mostrarlo)...

d) Entre las voces de un vocablo que sólo se componga por el momento: *eper'-txakur'* (perro perdiguero)...

e) En sustitución de un sufijo relativo que se suprime: *Jaungoiko-Semia* (El Hijo de Dios)...

f) En los nombres propios compuestos: *Morga-Meakaur'*, nombre local; *Aróita-Jauregi*, apellido..." (129)

Erdal pertsona-izenak jatorrizko ortografian hartu behar direla dio: *Leibniz, Voltaire*... (130)

Erdal leku-izenei dagokienez aukera bi ikusiko ditu (131):

(128) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 861-862. orr.

(129) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 862-863. orr.

(130) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 864. orr.

(131) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 864-865. orr.

a) Jatorrizko ortografian hartu: *England, Paris, France, Lion, Torino...* eta hauxe da, Aranaren ustez, biderik zuzenen eta arrazoizkoena (132), mundu zabaleko leku-izen guztiak ezagutzean oztopo larria ikusten badu ere.

b) Euskararen fonetikara egokitu: *Parantze, Pantze* (France); *Bordo* (Bordeaux); *Pari* (Paris); *Paraiber, Paiber* (Freiberg)... Bigarren bide honen oztopo nagusia euskararen lege fonetikoak sakonki ezagutu beharrean ikusiko du.

Arazaari konponbide bat emango bazaio nahitaezkozkat jotzen du Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunen arteko ezberdintasunekin haustea, haiek frantsesaren ereduari eta hauek gaztelaniarenari so egotearen ondorioz etorri bait dira, Aranaren eritiz, euskalki batzuk besteetatik urruntzea.

Liburuaren Eranskinean (133) bere garaiko zenbait arauemaileren proposamenak aztertzeari ekingo dio: José Ignacio de Arana, Campión, Azkue eta Euskal-erria aldizkariarenak alegia. Hiru iruditzen zaizkigu Sabino de Aranaren erabakieta-tik beste hauenengana dauden ezberdintasunik azpimarragarrienak:

a) /š/ adierazteko x darabil Aranak, gainontzekoek \bar{s} , ch , \bar{z} , s darabiltzaten bitartean.

b) /č/ adierazteko Aranak tx hobesten duen bitartean, \bar{z} , \bar{ts} , ch , $t\bar{s}$, $t\bar{z}$ hautatuko dituzte besteek.

c) Aranak /r/ adierazteko \acute{r} aukerutzen duelarik, r/rr (eta J. I. Aranak $\bar{r}/r = r$ eta $r/\bar{r} = \bar{r}$) dira enparatuek proposatzen dituztenak.

4.4. 1901-1902KO BATZARRAK

1901eko ekainaren 28an Guilbeau lohitzundarrak, Adéma eta Campiónen onespenezekin, ortografiaren batasuna bideratzeko Batzar baterako deia zabaltzen zuten. Batzar hori hurrengo irailaren 16rako deitzen zen, egun horretan ospatzekoak bait ziren Euskal-Jaiak Hendaian. Hogeita hamar lagun bildu omen ziren bertara beste hamaikak euren atxikimendua gutunez igorri zutelarik (134). Honelaxe laburtzen dira Donostiako Euskal-erria aldizkarian Hendaia-ko Batzar horrek zeuzkan helburu nagusiak:

(132) Eritzi hau berau azaltzen zuen Blzkaltarra kazetako 6. zenbakian (1894-02-28koan). (Ikus, ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 234. orr.), bertan kazeta honetako idazleei *France, London, Castilla...* eta ez *Franzija, Londres, Gastela...* erabiltzea gomendatuko bait zien.

(133) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 930. orr.

(134) ARANA-GOIRI, Sabino de, "Los Congresos Ortográficos de Hendaia", *Obras Completas*, op. cit., (2.095-2.150), 2.109-2.110. orr.

“(…) el día 16 del corriente se reunieron en Hendaya los amantes de las letras euskaras para tratar de la unificación de las reglas ortográficas del bascuence y evitar el que cada región y cada escritor emplee en adelante una ortografía caprichosa y distinta, como ahora sucede. Acudieron al congreso los bascófilos más eminentes de ambas naciones, deseosos de llenar este vacío que se siente en nuestra lengua (...)”. (135)

Antzera mintzo zen Bilboko Euskalduna aldizkaria:

“Reconocida por todos la necesidad de difundir el conocimiento de nuestra amada lengua, tropezábase en la práctica con grandes inconvenientes, originados, en su mayor parte, por la diversidad de la ortografía adoptada por unos y otros autores. Era menester, por tanto, instituir un organismo, algo como un Tribunal censor, que mediante un detenido examen de los varios estudios hechos y con vista de los datos aportados por quienes al cultivar el idioma patrio entienden salvar y mantener firme uno de los elementos esenciales para el feliz éxito de la gran obra de reconstitución que perseguimos, se encargara de dar forma, de unificar, de hacer viable el común pensamiento, estatuyendo un cuerpo de doctrina que unos y otros reconocieran por suyo.

Tarea era ésta á que venían dedicando sus esfuerzos los filólogos del país, pero sus laudables esfuerzos se hacían estériles por falta de la necesaria cohesión. Trabajaban aisladamente, sin que existiera nadie con autoridad para sancionar el fruto de sus desvelos imponiéndoselo al pueblo tal y como lo demanda su situación.

A fin de salvar esos inconvenientes, inicióse la idea de celebrar un Congreso, en el que, unidos los representantes del país vasco, deliberaran y adoptaran los acuerdos que estimasen necesarios para llevar á feliz término la anhelada obra. Practicados los trabajos á ello conducentes, y acogido con gran entusiasmo el proyecto, se designó á Hendaya como lugar de la reunión, y, en efecto, el 16 del que cursa se celebró allí el memorable acto”. (136)

Oraingo hauxe dugu, beraz, ortografia arautze eta bateratze arazoa ardatz harturik, idazle eta euskaltzaleak lehenbizikoz -beharbada 1857ko urriaren 14an Bonapartek deiturik eginiko bileraren salbuespenarekin- elkartuko diren aldia. Nabarmen ageri da, bestalde, euskal komunitate linguistikoa bere osotasun guztian hartzen dela kontutan euskalki ezberdinetako ordezkariak izango bait dira bertan partaide.

Hendaiako Batzar honetan “Fédération Littéraire Basque-Federación Literaria Vasca” sortu zen, beronen helburua euskara indartzea eta zabaltzea izango zelarik.

(135) “Congreso basco en Hendaya (Francia)”, *Euskal-erria*, XXII (20-09-1901), nº 763, (242-243), 242. orr.

(136) “El Congreso de Hendaya”, *Euskalduna*, VI (22-09-1901), nº 200, (617-618), 617. orr.

Elkarte hau ahalik eta irekiena izan zedin erabaki zen (137). Batzorde iraunkor bat ere izendatu zen: Adéma, presidente; Campión eta Arana-Goiri, presidentorde; Hiriart, diruzain; Azkue, Guerra, Arbelbide eta Broussain, aholkulari eta Guilbeau, idazkari hautatu zirelarik. Batzorde honen ardurapean uzten zen Elkartearen arautegia idaztea eta ortografia bateratzeko eman beharreko ziren urrats eta eginkizunak zehaztea. Berari aurkeztu beharko zitzaizkion, halaber, ortografia bateratzeko txosten eta proiektu guztiak, horretarako lau hilabetetako epea ireki zelarik.

Azaroaren 18an bildu zen Hondarribian, Adémaren presidentziapean, Batzorde iraunkor hau. Bilera honetan jasotako aktan irakur daitekeenez (138), 1902ko irailaren 11n hasita, eta Hondarribian bertan, ortografiaren batasuna eztabaidatzeko Batzar berezi bat egitea erabakitzen zen. Arana-Goiriri eskatzen zitzaion Batzar horretarako deia luzatzea eta lehenbailehen Presidenteari igortzea, honek, ondoren, Hendaia-ko batzarkideen artean bana zezan. Irailaren 16an Hendaian aurkeztutako txostenean aipatzen zituen zenbait punturen azalpen zehatzagoa egin zezan eskatzen zitzaion Aranari. Argitu beharreko puntuok ortografiaren bateratzea eratzeke moduari eta horretarako jarraitu beharreko bideari zegozkion batipat.

Aranak, bere aldetik, Hondarribiako bilera honetara joaterik izan ez zuelarik, gutun bat –1901eko azaroaren 17an datatua– zuzendu zion Batzorde iraunkorrari. Gutun horretan, besteak beste, ortografia bateratzeko batzarretara joan zitezkeen partaideez mintzo da:

“El primer Congreso se compuso de euzkerólogos convocados por M. Guilbeau. Para que nadie quede excluido y poder llegar a resultados por todos aceptables, preciso es que los demás congresos se formen de todos los euzkerólogos (o tratadistas de euzkera), euzkerógrafos (o escritores de euzkera) y euzkeráfilos (o protectores y defensores del euzkera) (...)”. (139)

Berton ikus daitekeenez, beraz, batzarrak guztiz irekiak izatea zen Aranaren nahia.

Aranak, 1902ko urtarrilaren 11n bidaliko zuen Presidentziara Batzorde iraunkorrek iraileko bileran eskatu batzar-deiaren zirriborroa (140). Bizkitartean, baina, eta Aranaren erantzuna sobera luzetsirik, Adéma, Guilbeau eta Daranatzek izenpetutako izkribu bat eman zen argitara abenduaren 31n Euskal Herriko zenbait kazetan. Honela mintzo da Guilbeau, izkribu hori dela eta, Azkueri 1902ko otsailaren 2an egin gutunean:

(137) “El Congreso de Hendaya”, *Euskalduna*, op. cit., 618. orr.

(138) “Bizi bedi Euskera”, *Euskal-erria*, XXII (30-11-1901), nº 770, 471-472. orr.

(139) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, 2.099-2.100. orr.

(140) Aranak bidalitako zirriborro hori ikus: ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 2.105-2.108. orr.

"(...) Cette circulaire adressée aux Linguistes et littérateurs basques pour provoquer leur adhésion justifiée avait produit bon effet et des adhésions avaient été adressées à la Présidence. Vers le 12 janvier 1902 Mr. Arana ayant sans doute vu "notre appel aux linguistes et littérateurs basques" nous adressa son document qui fut soumis au Bureau du Congrès B(asque) (la junta) et le 16 ce dernier déclara:

"qu'une circulaire signée par le Presidt. Adéma, Daranatz et moi, comme Sre. Gl., avait été adressée par 18 journaux, que cette publication avait été suivie par des adhésions sérieuses et que toutes les opérations relatives au Congrès B. seraient centralisées à la Présidence à Bayonne".

Cette délibération fut adressée à Mr. Arana le 18 janvier 1902".

(141)

Aranak igorritako zirriborroa eta kazetetan –Adémak Guilbeaurekin batera zuzendu ondoren– argitaratu zen deiaren artean badira ezberdintasun batzuk. Alde batetik epeak (atxikimenduak bidaltzeko, proiektuak aurkezteko...) aldatu egiten ziren. Bestalde ez zen agertzen Aranak bere zirriborroaren 2. puntuan zioena, bertan atxikimendu-eskabidea egiterakoan honako hau ezartzea proposatzen bait zuen:

"(...) La adhesión será redactada en esta forma: "Tengo el honor de adherirme al Congreso de Euzkeristas anunciado para diciembre de 1902, comprometiéndome desde luego, bajo mi palabra de honor, a aceptar y emplear, con exclusión de otro sistema ortográfico, el que por dicho Congreso quedare definitivamente adoptado (...)". (142)

Baina, aitzitik, egunkari eta aldizkarietan argitaratutako batzar-deian, Aranak ez zekarren ohar hau erantsiko zen:

"Conviene, por último, hagamos constar que estos Congresos Ortográficos son perfectamente independientes de la Asociación para conservar y propagar el euskera, la cual tiene su Comisión directiva propia y obra sin conexión con estos Congresos". (143)

Hauexek dira batzar-dei horretan irakur daitezkeen gauzarik aipagarrienak (144). Alde batetik, honako hauei luzatzen zaie deia:

"(...) a) á todos los bascos que estudien el euskera, escriban en él ó al menos deseen su vida y perfeccionamiento; b) á todos los euskerálogos extraños". (145)

(141) IRIGOYEN, Alfonso, "Del epistolario de Azkue", Euskera, II (1957), (261-393), 343. orr.

(142) ARANA-GOIRI, Sabino de, Obras Completas, op. cit., 2.106. orr.

(143) "Congreso de euskeristas para la unificación de la ortografía", Euskal-erría, XXIII (30-01-1902), nº 766, (89-92), 92. orr.

(144) Bere osotasunean ezagutzeko, ikus: Congreso de euskeristas para la unificación de la ortografía, op. cit., 89-92. orr.

(145) Congreso de euskeristas para la unificación de la ortografía, op. cit., 90. orr.

Eta hurrengo puntuan:

“(…) Para adherirse al Congreso no es preciso estar dispuesto á presentar algún proyecto. Sólo á los euskerálogos, sean bascos ó extraños, que tengan criterio propio en la materia se les ruega lo presenten”.

Zortzigarrean, berriz:

“En el Congreso tendrán voz y voto los adherentes bascos, y sólo voz los no bascos. (...)” (146)

Batzar-deia “á todos los bascos que (...) al menos deseen su vida y perfeccionamiento” hedatze horrek, ordea, ondorio larriak eta, azken baten, ortografia bate-ratzeko ahaleginon porrota ekarriko zuen, ustekabea, Guilbeauk 1902ko otsailaren 2an Azkueri eginiko aipatu gutunean dioen bezala, 320 atxikimendu-eskabide hel-duko bait ziren:

“Voici pour votre édification les chiffres exacts des adhésions reçus jusqu’à ce jour de la Biscaye par groupes et sans justification: Elanchove (B) 29, Ea (B) 25, Guecho (B) 20, Lekeitio (B) 16, Guernica (B) 20, Bermeo (B) 8, Bergara (Guip.) 12, recom. Bilbao (B) 31, San Seb. (Guip.) 15, Bilbao (B) 6, recom. Mundaca (B) 69, recom. Bilbao (B) 20, Bilbao (B) 12, recom. Bilbao (B) 25, recom. Bilbao (B) 12: 320 adhésions”. (147)

Guzti hau Arana-Goiriren maliobratzat joko da, horrela, beraren lagunek eman-dako bozei esker, bere ortografi proposamenak garaile ateratzea lortuko bait zuen. Asmo horiei aurre egiteko, Batzorde iraunkorreko gainontzeko partaideek Aranaren aurkako bloke bat osatuko dute, haserreak eta tirabira biziak berehala azaleratuko direlarik. Campión, esate baterako, honela mintzatuko da Aranaren jokabidea dela eta 1902ko urtarrilaren 22an Guilbeau idazkariari egin gutunean:

“*L’affaire Arana est un bien triste affaire.* Todos nosotros vamos de buena fe, buscando soluciones con el concurso del mayor número posible de voluntades, à l’amiable. El Sr. Arana se mueve con un objeto *pre-concebido*, el de *imponer* su sistema ortográfico, no con los votos de la razón, sino con la razón de los votos. Es hombre de intratable amor propio, que ha llegado a imaginarse que es el *único* bascongado que ama a su Patria. (...)”

La circular redactada por Arana, *hecha a su gusto*, invita a todos los baskos que estudien el *euzkera* (sic), escriban en él, o *al menos deseen su vida o perfeccionamiento*. Esto es muy grave, pues dentro de esa forma elástica, caben no sólo los pescadores de Elanchove, sino has-

(146) Congreso de euskeristas para la unificación de la ortografía, op. cit., 91. orr.

(147) IRIGOYEN, Alfonso, Del epistolario de Azkue, op. cit., 343. orr.

ta las gentes que sólo sepan hablar castellano o francés y no sepan ni leer ni escribir. Claro es que un Congreso compuesto en su mayoría de gentes que *desean* la vida y perfeccionamiento del euzkera, pero sin conocimiento científico o literario, por lo menos de la lengua, carece de autoridad y competencia *pour trancher* las cuestiones ortográficas. (...)” (148)

Eta beheraxeago:

“Las decisiones que adoptase un Congreso cuya mayoría la compusiesen *aranistas*, no reflejaría la opinión *científica general*; sería el órgano *d’une coterie personnelle*, y su obra nacería muerta”. (149)

Azkuek, auzi honi irtenbide bat aurkitu asmoz, Donostian martxoaren 10ean egingo zen bilera batera deitzen zituen Broussain, Campión, Guerra eta Serapio Múgica. Lauroi, 1902ko otsailaren 3an egin gutunean, aurretik Guilbeauri aditzera emandako hitz gogorrak berraiapatuko dizkie:

“(…) Paperetan irakurri det Ondarribia-ko biltzarrean botoa izango dutela (korreoz edo postaz ere bai) “todos los vascos que estudien el euzkera, escriban en él ó al ménos *deseen su vida y perfeccionamiento*”. Beraz nere atzaiak ere, atezaitzea utzi gabe, erabaki dezake zer egin bear degun. Ni lotsa edo ahalke izango nintzake egiazko euskalzalea ezтана asmo ontarako biltzen. Nere ustez, Adema eta zuzaz kanpo, beste irugarren bat ari izan da berriztatze aukerak egiten. Ezta ala? Baldin, uste dedan bezela, ogei lagunetik gora, tarr-dunak berak eta ifork euskalzaletzat eza-gutzen eztituztenak, dei onek erakarrita gure arteratzea eskatuko balute, ENAIZ ONDARRABIARA JOANGO. Umeak umekeriak egin nai badi-tuzte, bil ditezela umeakin. (...)” (150)

Lerro batzuk beherago Diputazioek euskararen Akademia bat sortzea izan lite-keela konponbide bakarra erantsiko du, zeren eta:

“(…) Academia gabe, bizardun aurrak ari diran bitartean, Ortografia ezta ifoiz batuko. (...)” (151)

Gauzak horrela, Guilbeau idazkariak, Batzorde iraunkorreko gainontzeko par-taideen onespenerekin, izkribu berri bat plazaratuko du otsailaren 12an. Bi dira iz-kribu honetan egiten ziren galderak:

a) hizkuntz eta literatur arloan nolabaiteko gaitasuna adieraziko duen inolako ziurtagiririk aurkezten ez duten 320 atxikimendu-eskabideak onartu egin behar al dira, ala,

b) euskarari buruzko ikerlanen bat burututako hizkuntzalari eta idazleak baizik ez al dira onartu behar.

(148) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 2.117. orr.

(149) *Ibidem*, 2.118. orr.

(150) IRIGOYEN, Alfonso, *Del epistolario de Azkue*, op. cit., 375. orr.

(151) *Ibidem*, 375-376. orr.

Izkribu honen laburpena eta iruzkin bat La Patria kazetako 17. zenbakian (1902-02-16) egingo du S. Aranak, “Los Congresos ortográficos. Una protesta” deitu artikulu baten (152). Aranak frantsesetik itzultitako izkribu horretatik, honako hau azpimarratzen du:

“Cuando el año pasado, de acuerdo con mis amigos los señores Adéma y Campión, tomé la iniciativa de reunir en Hendaya a los *lingüistas y literatos de euzkera notoriamente conocidos como tales en el país*, acepté, como ellos, el plan para llegar, *mediante un estudio profundo*, a la unificación de la ortografía, plan propuesto por el señor Arana y aprobado por el Congreso. Pero yo estaba lejos, lo confieso, de pensar que, en una cuestión tan importante y tan técnica como es la reforma ortográfica, objeto del Congreso anunciado para Hondarribia, surgiese un error o una mala interpretación. Las 320 adhesiones recibidas de Bizkaya y de dos puntos de Guipuzkoa, *sin ninguna justificación de competencia*, me hacen presumir que la convocatoria de la Comisión Directiva (que siempre se ha dirigido a los lingüistas y literatos de euzkera), sancionada, como yo pensaba, por los que compusieron el Congreso de Hendaya, no ha sido comprendida, y que algunos euskeráfilos han confundido los Congresos Ortográficos con la Federación Literaria Vasca y su expansión.

Para mi y para mis amigos, al Congreso Ortográfico debían asistir, con voto, *sólo aquéllos que en nuestro país se ocupan notoriamente en lingüística y en literatura euzkérica, y que son conocidos por sus escritos y sus trabajos, así como por su competencia especial*.

La Federación Literaria Vasca, por el contrario, abierta para todas las buenas voluntades, debía agrupar en torno de sí, a todos los vascos interesados por el porvenir de la lengua, y que aspiran a propagarla, a conservarla y a hacerla imperecedera”. (153)

Aranak, bere ihardespenean, gogorki salatzen du Guilbeau jauna, ez duela idazkari lana behar bezain ondo betetzen jakin egotziz. “Congresos Ortográficos” eta “Federación Literaria Vasca” elkartearen helburuak nahastea ere berari leporatuko dio. Azkenik, irailaren 16an Hendaiako Batzarrean izandako partaidetzarekiko ezadostasuna azaltzen du Aranak, bertan bildurikako guztiak ez euskarologo, ez euskaragrafo ez eta euskaldun ere ez zirelako alde batetik eta, bestetik, euskarologo eta euskaragrafo zenbait ez zirelako Hendaiara deituak izan. Aranaren erantzun honetatik bi puntu soil-soilik nahi genituzke azpimarratu:

(152) Ikus ARANA-GOIRI, Sabino de, *Los Congresos Ortográficos de Hendaya*, op. cit., 2.121-2.131. orr.

(153) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 2.121. orr.

“Por esta razón, mi plan, en su esencia y en su resumen, estaba:

a) Que en pública circular se convocara a todos los euzkerálogos, sean vascos o extraños. Porque era preciso conocer todas las opiniones, para decidir con acierto. (154)

b) Que en pública circular también se invitara a todos los vascos que escriban en su lengua o se interesen vivamente por su vida y perfeccionamiento. Porque era necesario que interviniese en la resolución todo vasco que quisiera, ya que, por una parte, la ortografía era para todos, y ya que, por otra, nosotros no éramos quién para negar competencia a nadie y concedérsela a quien nos pareciese. Y en esto de la competencia, además, en sí misma considerada, yo tenía presente: 1º, que puede haber quien, sin ser conocido en el mundo de las letras, tenga hechos, no obstante, estudios euzkeralógicos de importancia, pues no publica uno sus conocimientos, como no sea poco científico y muy frívolo, tan pronto como los adquiere; 2º, que esta materia ortográfica no es tan complicada, que no pueda una persona de regular capacidad estudiarla cumplidamente en diez meses, puesto que es menor el tiempo en que los niños cursan asignaturas enteras y bien vastas; 3º, que todos los adherentes habrían de tener en su poder todos los proyectos y todas las refutaciones, para poder examinarlos con espacio; 4º, que cuando falta, aun después del estudio, juicio propio para decidirse respecto de la materia científica directamente examinada, suele sustituirse con el criterio que discierne de parte de quién está la autoridad, que es la forma en que todos hemos adquirido la mayor parte de los conocimientos que poseemos”. (155)

La Patria kazeta bereko 19. zenbakian (1902-02-03koan) “Los Congresos Ortográficos. Una solución” izeneko artikulua argitaratu zuen (156). Adema-Zaldubypresidenteari zuzendurik dago eta, bertan, Guilbeauk plazaratutako izkribuari erantzuteaz batera, Hondarribian 1902ko irailaren 11n egiteko zen Batzarreko honako proposamen hauek azalduko zituen:

“En la votación de este Congreso para la unificación ortográfica, se tendrá presente la siguiente clasificación de votantes:

1º Los vascos que han presentado proyectos o refutaciones tendrán *cinco votos*.

2º Los vascos que hayan publicado trabajos ortográficos, pero no presentado proyectos o refutaciones, tendrán *cuatro votos*. (...)

(154) Behin eta berriro gaitzetsiko du Aranak (ARANA-GOIRI, Sabino de, Obras Completas, op. cit., 2.125 eta 2.128. orr.), Vinson Guilbeau idazkariak Hendaiaiko Batzarretik kanporatua izana. (Honetaz ikus beheago).

(155) ARANA-GOIRI, Sabino de, Obras Completas, op. cit., 2.124-2.125. orr.

(156) Ikus, ARANA-GOIRI, Sabino de, Obras Completas, op. cit., 2.132-2.134. orr.

3º Los vascos que hayan publicado trabajos gramaticales o lexico-lógicos, pero no ortográficos, ni han presentado proyectos o refutaciones, tendrán *tres votos*. (...)

4º Los vascos que hayan publicado escritos euzkéricos, pero no euzkeralógicos, ni han presentado proyectos o refutaciones, tendrán *dos votos*. (...)

5º Los vascos que no reuniendo ninguna de las condiciones anteriores, sean en el acto, antes de la discusión, propuestos por autor de proyecto presentado, como en grado necesario versados en euzkeralogía para tener competencia en la resolución ortográfica, tendrán *un voto*. Se fiará en el testimonio y buena fe del que los proponga, y cada autor de proyecto no podrá proponer a más de diez". (157)

Beste proposamen hau ere luzatuko du:

"El mero hecho de intervenir en la discusión o la votación para la unificación ortográfica valdrá tanto como palabra formal que tácitamente da el congresista que intervenga, de atenerse al sistema ortográfico que se acuerde y de no usar jamás otro en sus escritos". (158)

Aranak tertium quid legez eginiko proposamen hau ez zen, ordea, begi onez ikusia izango, Broussainek 1902ko martxoaren 9an egindako gutunean irakur daitekeenez:

"Arana'ren shede edo asmo berriari (La Patria'n irakurri dudana) gaizki derizkiot. Batzuri bosna boto ematea eta besteer bat edo biga neketasun eta nahaspide handia litake. Santa sekulan holakorik ez da ikusi Congreso batean. Gisa hortan Hiriart-Urruty'k ortografiatzeko lanik egin ez baleza e'luke boto bat baizik eta Hatan'ek bost lan hori eginik (eta nolako lana!!). (...)" (159)

Adémak, Arbelbidek, Darricarrèrek, Hiriartek, Daranatzek eta Guilbeauk Baionan otsailaren 24an izaniko bilera baten auzi honi irtenbide bat eman asmoz, bilera berri bat egitea proposatuko dute Donostian hurrengo martxoaren 10ean. Bilera honetara Adéma presidentea, Campión eta Arana-Goiri presidentordeak eta Guilbeau idazkaria izango ziren deituak. Ezin izan zen bertan 320 atxikimendu-eskabi-deez behin-betiko erabakirik hartu eta, horren aurrean, bi proposamen berri egin ziren. Alde batetik, Hendaiako lehen Batzarreko partaideak Hondarribian 1902ko

(157) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 2.132-2.133. orr.

(158) *Ibidem*, 2.133. orr. Gogora dezagun azken proposamen honen antzerakoa egina zuela 1902ko urtarilaren 11n Presidentziara bidalitako batzar-deiaren zirriborroan, nahiz eta baldintza hori ezabatua izan zen Adémak, Guilbeauk eta Daranatzek aldizkari eta egunkarietan argitarara eman zuten deian. Aranak, nonbait ere, bazeukan bere projektua garaile aterako zenaren konfiantzarik.

(159) IRIGOYEN, Alfonso, *Del epistolario de Azkue*, op. cit., 379. orr.

apirilean berriz biltzea eta erabakia euren esku uzteaz hitz egin zen eta, bestetik, Batzar nagusi hori bizpahiru urtez atzeratzeaz. Bilboko La Patria kazetako 21. zenbakian (1902-03-16koan), "Los Congresos Ortográficos" deitu artikuluan (160), honako iruzkin hau egingo zen Donostiako bilera horretaz:

"Tratóse primeramente de si para resolver la unificación ortográfica, se ha de dar intervención sólo a los que tengan competencia técnica. Opinaron afirmativamente los señores Adéma-Zalduby, Campión y Guilbeau. El señor Arana-Goiri hizo observar que en la presentación de proyectos y en la discusión oral, tendrán buen cuidado de no intervenir los que no hayan hecho un estudio serio de la materia, pero que en la votación deben poder intervenir todos los vascos que lo deseen, todos los vascos que sean euzkeráfilos, esto es, que se interesen por su lengua, porque la ortografía que se ha de adoptar ha de ser para bien del pueblo vasco, para uso de nuestro pueblo, y debe por tanto dársele voto a éste para aceptarla, después de discutida por los técnicos; que de nada serviría que los competentes acordasen un sistema determinado, si en el pueblo no había de ser bien recibido; que la ortografía no es materia tan abstrusa, para que toda persona de regular criterio no se haga competente, al menos para votarla, después de estudiar diferentes proyectos y refutaciones en un buen número de meses; y que acordado el sistema gráfico en votación general de un Congreso abierto para todos los vascos, ninguno después podría quejarse de no hallarlo conforme con su manera de pensar, pues que sólo culpa suya habría sido el no haber tomado parte en dicha asamblea". (161)

Hondarribiako Batzarra atzeratzearen eritzia, baina, indar hartuz joango da. Irtenbide horren aldeko ziren, besteak beste, Daranatz, Arbelbide, Darricarrère, Broussain, Lassalle eta Hiriart. Argi eta garbi azaltzen dio bere jarrera Daranatzek Guilbeau idazkariari 1902ko martxoaren 11n igorritako gutunean:

"Como he tenido el honor de escribirle unos días antes de su salida para San Sebastián en mi nombre y en el de los señores Arbelbide, Darricarrère, Broussain, Lassalle e Hiriart, persistimos en nuestra resolución de retardar todas las cosas por un tiempo indeterminado.

Hemos ido donde el Sr. Adéma para tener la reseña de la jornada de ayer, y lo que hemos oído no modifica en nada nuestra manera de ver.

No iremos pues al Congreso de Fuenterrabía.

En estas condiciones no encuentre V. mal que yo no me ocupe de nada". (162)

(160) Ikus, ARANA-GOIRI, Sabino de, Obras Completas, op. cit., 2.138-2.139. orr.

(161) ARANA-GOIRI, Sabino de, Obras Completas, op. cit., 2.138-2.139. orr.

(162) ARANA-GOIRI, Sabino de, Obras Completas, op. cit., 2.137. orr.

Campiónek, zatiketaren arriskua somatuz, nahitaezkotzat joko du Arana-Goirekin akordio batera iristea baina bestelako eritzirik ere izango zen. Broussainek, esate baterako –Arbelbideren idea bati jarraituz–, honako irtenbide hau agertuko dio Daranatzi, 1902ko martxoaren 12an eginiko gutunean:

“En la carta que le envié –Azkueri alegia– el lunes por la noche le he dado cuenta de la idea que el Sr. Arbelbide había expuesto ante nosotros, a saber, que bastaría un acuerdo entre los redactores de los periódicos vascos para fijar una ortografía unificada, si no completamente lógica completamente simple.

Para ello bastaría un poco de buena voluntad de parte de los señores Azkue, Arzac, Hiriart-Urruty, Larriar y Landerreche. Si estos cinco escritores se entienden la ortografía única adoptada por Ibaizabal, Euskal-erria de San Sebastián, Eskualduna, Siberoko Egunaria y Fedearen propagazioko urtekariak, no tardaría en ser admitida y hacer ley entre nuestros compatriotas”. (163)

Azkenean, eta gauzak bere onera ez zetozela ikusirik, bilera bat egingo zen Hondarribian 1902ko irailaren 11n. Berton, ortografia bateratzeko asmoak alde batera utzirik, “Eskual-Zaleen Biltzarra” izeneko Elkartea sortu zen. Honela adierazten du Broussainek ortografia bateratzeko batzarren porrota irailaren 19an idatzitako gutun baten:

“Finalmente, después de haber votado penosamente los Estatutos (“Eskual-Zaleen Biltzarra”-renak alegia), nos separamos en medio de un tumulto y de un lodazal espantoso, sin poder constituir un Comité definitivo. Yo espero que después de una parecida prueba de su insuficiencia los señores Adéma y Guilbeau tendrán el pudor de retirarse definitivamente y dejarnos tranquilos”. (164)

Horrela, bada, bertan behera utziko zen XX. mende hasiera arte, eta euskal komunitate linguistikoa bere osotasun guztian hartuz, ortografia bateratzeko izan zen ahaleginik inportanteena. Ondorengo urteetan ere, eta istilu berriak sortuko zirenaren beldurrez, lehengoan iraungo dute gauzek, konponbidearen giltza balizko euskal Akademia baten esku lagako delarik.

EUSKALTZALE ATZERRITARREN AUZIA

Badira, honaino aipatutako gorabehera guztiez landa, Batzar hauen bilakabidea ilunduko duten beste gertaera zenbait eta, bereziki, atzerriko euskaltzaleen bazterretzea. Itxura denez, eta antzerako helburuak gogoan zeuzkatela, atzerriko euskaltzale batzuk egina zuten jadanik era honetako beste saioren bat, Euskal Herriko euskaltzaleengan mesfidantza baizik sortuko ez zuen saioa hain zuzen. Hortik, Hen-

(163) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 2.136. orr.

(164) ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 2.145. orr.

daiarako batzar-deia jasotzerakoan zenbaitek atzera egitea, Broussainek Azkueri 1901eko uztailaren 7an egin gutunean irakur daitekeenez:

“A l’occasion des fêtes basques de M. d’Abbâdie, l’Association Basque (président Lévy!!) a organisé un congrès de bascophiles pour la réglementation et l’unification de l’orthographe basque. J’ai reçu deux invitations à participer à cette réunion, mais j’ai refusé énergiquement d’y prendre part.

Darricarrère et Hiriart-Urruty viennent de m’écrire qu’ils ont également refusé. Je crois que Arbelbide et Adéma en ont fait autant. Si vous avez reçu une invitation à participer à ce congrès, je vous conseille de répondre par un refus. J’estime qu’un vrai Basque ne doit pas participer à cette réunion qui sera surtout composée d’amateurs et d’intrigants.

L’Association Basque (dont vous ignoriez sans doute l’existence) a été fondée à Paris lors de la dernière Exposition de 1900.

Les principaux membres de cette Association sont, Dogson, Vinson, de Charencey, le juif Lévy, etc... c’est-à-dire des gens qui n’ont rien de basque ni par la race ni par les sentiments. Je regrette que Arturo Campion fasse partie de cette association et patrocine la réunion de Hendaye”. (165)

Azkuek bere egingo zituen Broussain susmoak eta honela mintzatuko zitzaion Campióni uztailaren 11n egindako gutunean:

“(…) Al contestar á dicho Sr. Guilbeau le dije lo siguiente: “Por más que me es completamente desconocida la existencia de la Asociación Basca, á cuya iniciativa se espera reunir un Congreso Basco en Hendaya, el nombre de mis amigos Adema y Campion que V. cita en su carta que acabo de recibir me hace creer que no se trata de reproducir el congreso de los señores Vinson, Dogson, Charencey, Abartiague y compañía”.

Ayer recibí carta de un amigo de Hasparren y en ella me dice que ni él ni otros baskófilos de su región han aceptado la invitación que los monopolizadores de París les han hecho al tal Congreso. Yo creo que le han sorprendido á V. en su buena fé, como también al Sr. Adema. En el mismo correo que esta salen una carta para Guilbeau rehusando la invitación, otra para el amigo de Hasparren (166) explicándole lo ocurrido y pidiéndole haga que Adema, como patriarca de los baskófilos, nos invite este verano a una reunión en San Sebastián, ó donde mejor les parezca con objeto de estudiar ó mejor dicho plantear y promover la cuestión de la Academia”. (167)

(165) IRIGOYEN, Alfonso, *Del epistolario de Azkue*, op. cit., 348-349. orr.

(166) Azkuek Broussaini igorriako gutun hori, ikus: IRIGOYEN, Alfonso, *Del epistolario de Azkue*, op. cit., 349-350. orr.

(167) IRIGOYEN, Alfonso, *Del epistolario de Azkue*, op. cit., 318-319. orr.

Guilbeauk, ordea, uztailaren 12an bertan idatzitako gutunean zera ziotson Azkueri, honen zalantzak argitu asmoz:

“Ni Dogson, ni Charencey, ni Abartiague y compañía. Vinson avait été invité, mais n’a pas adhéré”. (168)

Vinsonek ozenki gaitzetsiko zuen Batzarrerako sarrera Euskal Herrian jaiotakoek bakarrik mugatze hori:

“(…) M. Guilbeau a même affirmé qu’une quinzaine d’adhérents se retireraient si je prenais part aux travaux de la séance. J’aurais pu faire observer que ma collaboration valait peut-être plus que celle de ces quinze adhérents; mais je m’en suis bien gardé”. (169)

Antzerako beste zenbait salaketa egin ondoren, Laetitia Probyn andereño inglesa gogoratuz eta garai hartan –bestetan bezalatsu– zabal zebilen eritzi batekin bat etorritz, bizitza laburra iragarriko du euskararentzat:

“(…) elle –Probyn andereñoa, alegia– commençait sans doute à croire comme moi que c’est là un organisme arriéré, incompatible avec les exigences de la vie moderne, qui de lui-même s’effacera peu à peu et disparaîtra dans le respect attentif des hommes d’étude”. (170)

Encore le Congrès basque de Hendaye izeneko artikuluan ere ageri-agerian erakutsiko du bere haserrea:

“(…) vis-à-vis de l’Europe, le Congrès en question ne peut faire que triste figure: une réunion purement scientifique, n’ayant pour sujet d’étude que la langue basque, et d’où sont exclus M M. Schuchardt, Van Eys et moi, et les quelques autres linguistes qui s’intéressent au basque, mais où prennent part seulement des gens nés entre l’Adour et le Nervion, dont deux ou trois ne parlent même pas la langue du pays, dont plusieurs n’ont rien écrit dans cette langue, et dont la plupart sont tout à fait étrangers aux études linguistiques! C’est véritablement grotesque et ridicule...” (171)

Guilbeauk, Hendaiaiko Batzarrera joan zedila eskatuz, berari zuzendutako bi gutun ezagutzera eman ondoren, arrazoi bakar bat ikusiko du hark, geroago, eritzi aldatzeko.

“(…) je dois supposer que M. Guilbeau a capitulé devant des exigences politiques et des préjugés cléricaux”. (172)

(168) IRIGOYEN, Del epistolario de Azkue, op. cit., 342. orr.

(169) VINSON, Julien, “La réunion d’Hendaye et la réforme de l’orthographe basque”, RLPPhC, XXXIV (1901), (356-361), 358. orr.

(170) VINSON, Julien, *La réunion d’Hendaye...*, op. cit., 360-361. orr.

(171) VINSON, Julien, “Encore le Congrès basque de Hendaye”, RLPPhC, XXXVI (1902), (82-85), 83. orr.

(172) VINSON, Julien, *Encore le Congrès basque de Hendaye*, op. cit., 85. orr.

V. ATALA

**EUSKARAREN STANDARDIZAZIOA
XX. MENDEKO LEHEN ERDIALDERA ARTE**

V. EUSKARAREN STANDARDIZAZIOA

XX. MENDEKO LEHEN ERDIALDERA ARTE

5.1. SARRERA

1901-1902an zehar ortografia arautzeko eta bateratzeko asmoz izandako ahale-ginek kale egitearen ondorioz, Ipar eta Hegoaldeko euskaltzaleen arteko harremanak hoztu egingo dira alde batetik (1) eta, bestetik, euskara standardizatze ekintzetan eten bat gertatuko. Isilune hori Euzkadi aldizkariak hautsiko du, bere III. zenbaitian honako lau galdera hauei buruzko eritziak eskatuko dituelarik:

“1^a En el estado actual del Euzkera, ¿sería conveniente el tender hacia la uniformidad de este idioma, á lo menos en su parte literaria?

2^a Caso de contestarse afirmativamente á la pregunta anterior, ¿debería ser, en lo posible, absoluta esa uniformidad, ó, por el contrario, habría de limitarse sólo á alguno ó algunos de los elementos idiomáticos, como la fonética ó el léxico, por ejemplo?

3^a Caso de contestarse afirmativamente, también, á la primera pregunta, ¿qué medios podrían ponerse en práctica para llegar á la homoge-

(1) Harrez gero, ezaguna denez, “Eskual-Zaleen Biltzarra” eta “Euskal Esnalea” izeneko elkarteak sortuko ziren, lehen hartan, nagusiki, Iparraldeko euskaltzaleak eta, bigarrenean, Hegoaldekoak bilduko zirelarik. Honela mintzo da Euskera aldizkaria (“EUSKALTZAINDIA nola ta noiz jαιο ta geitu zan”, *Euskera*, I (1919-1920), I. zb., (37-48), 37-38. orr.) zatiketa hau dela eta:

“(…) Euskalkiak bateratzekotan, 1901'ko dagonilaren 11'n, Hendaya'ko batzarák erabaki zuan alderdi guzietako euskaltzaleen artean Lagundi edo Alkartasunbat irasi bear zala. Orixe, uréngo urtean, Urúña'ko euskal jaietan, Arbelbide apaiz jaunak ozenki aitatu zuan. Baña, andik laster, sail oferi burua emateko, Euskaltzaleak Ondañibia'n bateratu ziranean, beren aburuak ezin elkarí josi izan zituzten ta bakoitzak bere aldera jo zuan. Lapurdi, Benabaré ta Zubero'koak Euskaltzaleen Biltzarra derioten baltzua jañ zuten, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Napafoa'koak berena Euskal Esnalea'ren izenarekin jasotzen zutelarik. Gerora (1907'ko dagonilaren 12'an) Euskaltzaleen Biltzarra'koak, Hendayan bildurik, autarkiz bere Lagundia Euskal Esnalea'rekiñ josta erabaki zuten, baña alaere baltzu biok banakaturik jaraitu zuten”.

neidad del Euzkera literario? ¿Podría hacerse por un acuerdo entre todos los euzkeristas vascos, ó sería necesario proceder por lenta evolución de las formas literarias actuales?

4ª El Euzkera literario homogéneo ¿sería uno de los actuales dialectos adoptado con preferencia á los demás, aunque con elementos gramaticales de todos ellos, ó bien sería un lenguaje, en cierto modo *nuevo*, formado con elementos de todos los dialectos, pero sin influencia preponderante de ninguno de ellos?" (2)

Erantzuten dutenak Ikabalzeta (3), Zubieta (4), Arantzadi (5), Anabitarte (6) eta Belaustegioitia (7) dira. Aldizkari honetan bertan, eta garai berean, euskararen batasuna ukitzen duen beste lan bat ere kaleratuko da, Eleizalderen Raza, Lengua y Nación vascas alegia (8).

Ondorengo urteetan batasunaren aldeko zein aurkako txosten eta proposamen franko plazaratuko da. Belaustegioitiaren La unificación del euzkera (9) dugu aipagarrietariko bat. Beroni erantzun nahian Sobre la unificación del euzkera deitu lantxo argitaratuko zuen Bilboko Euzkeltzale-Bazkunak (10). Guztiz azpimarragarriak ditugu, halaber, Eleizaldek 1918ko irailean Oñatin ospatu "Primer Congreso de Estudios Vascos"-en aurkeztutako Metodología para la restauración del euzkera (11) eta, urte berean, Junta de Cultura Vasca-k antolatu hitzaldietan irakurritako La lucha por el idioma propio (12) izeneko txostenak.

1918. urtean, hain zuzen ere, sortu zen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioen babespean, euskararen Akademia eta irailaren 5ean, Oñatiko

-
- (2) "La cuestión de los dialectos", Euzkadí, VII (1910), 3. zb., (217-218), 218. orr.
(3) IKABALZETA, "Una contestación", Euzkadí, VII (1910), 3. zb., 219-223. orr.; 4. zb., 295-300. orr. eta 5. zb., 387-388. orr.
(4) ZUBIETA, "La cuestión de los dialectos. (Respuesta a los cuatro puntos)", Euzkadí, VII (1910), 6. zb., 433-437. orr.
(5) ARANTZADI-ETXEBERIA ^{tar} Ingartzi, "Dialectos del euzkera", Euzkadí, VIII (1911), 8. zb., 153-158. orr.
(6) ANABITARTE, Agustín de, "Una respuesta a nuestra "enquête" sobre la cuestión de los dialectos", Euzkadí, X (1913), 19. zb., 59. orr.
(7) B. ^{tar} P., "De unificación euzkérica. (Una opinión y un proyecto)", Euzkadí, XI (1914), 27. zb., 270-274. orr.
(8) Batasunaren auzirako ikus: ELEIZALDE ^{tar} Koldobika, "Raza, Lengua y Nación vascas", Euzkadí, VIII (1911), 10. zb., 243-276. orr.
(9) Hemeretzi orrialdetako txosten hau euskaltzale banaka batzuren artean izan zen banatua. Egin zeneko datarik ez badakar ere, badirudi 1916an eman zela ezagutzera.
(10) EUZKELTZALE-BAZKUNA, Sobre la unificación del euzkera, Abando, 1916.
(11) ELEIZALDE, Luis de, "Metodología para la restauración del euzkera", Primer Congreso de Estudios Vascos, Bilbaina de Artes Gráficas, Bilbao, 1919, 428-439. orr.
(12) ELEIZALDE, Luis de, La lucha por el idioma propio, Bilbaina de Artes Gráficas, Bilbao, 1919.

Kongresoaren barruan, lehen lau euskaltzainak izendatzen: Resurrección M^a de Azkue, Arturo Campión, Luis de Eleizalde eta Julio de Urquijo. Ortografia arautzea, euskal hiztegia eratzea eta euskara bateratzea dira Akademiak bere gain hartuko dituen hiru ardura nagusiak, 1919ko urriaren 26an euskaltzain berriak izendatzera-koan aditzera emango duenez:

“L’Académie se propose: 1^o) de fixer l’orthographe euskarienne.– 2^o) d’expurger et de compléter le vocabulaire de la langue dans tous les dialectes en substituant aux termes étrangers les vieux mots basques tombés en désuétude et en élaborant les néologismes destinés à exprimer les concepts modernes.– 3^o) de travailler á constituer un *eskuara* littéraire qui servirait de trait d’union aux Basques de toutes les Provinces, sans se substituer, bien entendu, aux dialectes locaux”. (13)

Helburu bera azalduko da bere Arautegian ere:

“6. art. a) ekingo du euskalgi oroen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz albait erabatetsuena, euskaldun guztiak idatz-irakurketan erabiltzekoa”. (14)

Euskaltzaindiak, alabaina, ez du hasiera batetik oso erabaki zehatzik hartuko erabili beharreko hizkuntz-ereduaz:

“(…) Idazle bakoitzak bere gogoko izkuntza badarama. Urteak igarota, Euskaltzaindia’k izkuntza bearezkoa apurka-apurka garbituz, bere ajola pean artuko du, epe luzeko lana da-ta. Alere oraindanik Euskaldun geienak erézki ulertu dezakeen euskera darabilgu, Bizkai, Gipuzkoa ta Lapurdi’ko izkuntzak elkarí ein batean josiaz. Darabilgun idazkera da Euskaltzaindia’k oraifí arte bearezkotzat erabaki duan arlo bakará”. (15)

1919ko urriaren 7an egin batzarrean, berriz, zera ebartziko da:

“En lo que respecta al lenguaje y ortografía euskérica que se han de emplear, se acordó que hasta que la Academia adopte otras resoluciones sean los que cada autor ha venido acostumbrando”. (16)

Erizpide zehatzik ezaren ondorioz erdaraz baliatzeraino ere iritsiko da inoiz:

“Idazki au erderaz bidaltzen zaitzu, Batzarí aunek ez dualako oraindano yaraituko duan idazkerarik erabaki. Barkatu, afen”. (17)

1920ko abenduaren 29an egin batzarrean, azkenik, honako erabaki hau hartuko zen:

(13) *Euskera*, I (1919-1920), I. zb., 57-58. orr.

(14) *Euskaltzaindiaren Sortarauak - Estatutos de la Academia de Lengua Vasca*, Bilbao, 1920, 3. orr.

(15) “Argitartzailearen Itzaurea”, *Euskera*, I (1919-1920), I. zb., (4-9), 6. orr.

(16) *Euskera*, I (1919-1920), I. zb., 53. orr.

(17) *Euskera*, I (1919-1920), I. zb., 57. orr.

"Euskaltzaindiaren bein-beineko euskalkia (diploma ta agerkaietan) Giputza izatea". (18)

Arazoari konponbide bat aurkitu asmoz, Campi3n eta Broussain euskaltzainen ardurapean utziko da auzi honi buruzko oinarrizko zirriborroa gertatzeko eginkizuna, euron txostenau Euskaltzaindiak 1920ko apirilaren 26an egin batzarrean aurkeztuko dutelarik (19). Txosten hau eztabaidatu eta proposamen berriak egiteko lau batzar berezi antolatuko ditu Euskaltzaindiak 1920-1921 urteetan zehar: Bilbon (1920-12-26an), Lekarotzen (1921-01-27an), Hazpamen (1921-03-07an) eta Donostian (1921-04-28an). Eurotan Gaubeka'tar Bi3or, Ayengiz'tar Iñaki Aba Txotifoduna, Manuel de Egileor, Larakoetxea ta Agir3ezabala'tar Sendi Gurenaren Ipolita Aba, Donosti Muruata3 Domeka, Luis de Jauregui, Madariagata3 Angeru Aba, Ur3tia'tar Gotzon, Nicol3s Cort3s, Anabitarte'tar Agust3n, Zabala-Arana'tar Joseba, Kruz Goyenetxe, Garitaonandia'tar Bitor, Oyeregi'tar Aita Buenabentura, Belaustegigoitia'tar Perderika, Eguskitza eta Jean Saint-Pierreren txostenak eta Azkuek eginiko laburpen orokor bat irakurri ziren (20). Azpimarragarriak dira, orobat, 1919an Julio de Urquijok (21) eta Men3ndez Pidalek (22) Bilbon, euskararen batasuna gaitzat harturik, emandako hitzaldiak; Orixek RIEV-en argitaratutako artikulua (23) eta Soloeta-Dimaren liburuxka (24).

Eztabaidotatik inolako atarramendu onik ez zetorrela ikusirik, euskalkien arteko kidetasun eta ezberdintasunak zenbatzea eta zehaztea erabakiko du Euskaltzaindiak eta xede horrekin gertatuko du Azkuek, eta Akademiak 1921eko urriaren 27an egin bileran aurkeztuko, bere Erizkizundi Irukoitza (25).

(18) Euskera, III (1922), II. zb., 11. orr.

(19) "Informe de los se3ores acad3micos A. Campi3n y P. Broussain á la Academia de la Lengua Vasca sobre unificaci3n del euskera", Euskera, III (1922), I. zb., 4-17. orr.

(20) Txosten hauek guztiok, Jean Saint-Pierrereña izan ezik, ikus: Euskera, III (1922), I. zb., 18-132. orr.

(21) URQUIJO, Julio de, "Lengua internacional y lenguas nacionales. El "euskera" lengua de civilizaci3n", RIEV, X (1919), 164-180. orr.

(22) MEN3NDEZ PIDAL, Ram3n, "Introducci3n al estudio de la lingüística vasca", En torno a la lengua vasca, Espasa Calpe, Buenos Aires, 1962, 11-57. orr.

(23) ORMAECHEA, N., S. J., "Unificaci3n del lenguaje literario. Diversas soluciones", RIEV, XI (1920), 53-61. orr.

(24) P. SOLOETA-DIMA, Ensayo de la unificaci3n de dialectos baskos, Buenos Aires, 1922.

(25) Erizkizundi Irukoitza (Triple cuestionario), Euzko-Argitaldaria, Bilbao.

Argi eta garbi emango dira adit3zera Erizkizundiaren helburuak liburuxka honetako lehen orrialdean bertan:

"Euskaltzaindiak bere erabakiak er3tsuago izan ditezten er3ari aurkezturiko irutzak erizkizun:

I. Itzen otsa (Cuestionario Fon3tico).

II. Itzen erabidea (Cuestionario Morfol3gico).

III. Itz batzuen erabilkera (Cuestionario Lexicogr3fico)".

Lehen atala (Itzen otsa-Cuestionario Fonético) 52 galderaz osatzen da, bokal harmonizazioaz eta bustiduraz batez ere eta, honekin batera, *-a* batez amaitutako hitzek, mugatzailea eransten zaienean, jasaten dituzten aldaketez; **j*-ren ahoskerez; /*s/* - /*ś/* eta /*c/* - /*č/* fonemen ahoskerez; bokal arteko leherkari ahostunen galeraz; konsonante zenbaiten alternantziak... itauntzen delarik.

Bigarren atala (Itzen erabidea-Cuestionario Morfológico), berriz, 69 galderaz osatzen da, deklinabide atzizki zenbaitetaz (instrumentalekoak; sozietibokoak; *-tik/* *-dik*; *-tik/-danik/-da(i)no*; *-tar/-dar...*); *-ai*, *-au* diptongoz amaitutako hitzen deklinabideaz; izenordain eta erakusle batzuren itxuraz; adizki jakin batzuren erabileraz; *ez* adberbioaren ondoren doazen adizkiek jasan ditzaketen aldaketa fonetikoez... argibideak eskatzen direlarik.

Hirugarren atalean (Itz batzuen erabilkera-Cuestionario Lexicográfico), azkenik, 68 galdera dira guztitara bertan, batipat, hitz zenbaiten ahoskera eta itxuraren, hilabeteen izenen eta asteko egunen izenen berri eskatzen delarik.

Garai honetan zehar aurkeztuko den projekturik osoena, hala ere, Azkuek 1934-1935 urteetan Euskera aldizkarian ezagutzera emango duen "Gipuzkera osotua" dugu (26), nahiz eta Azkueren baitan oso zaharra eta ordurako hainbat lanetan ezagutzera emana zen delako asmo hau.

Honaino esandakoarekin argi samar agertu uste dugu XX. mendeko lehen erdialdean barrena euskararen batasunak euskaltzaleengan sortzen duen kezka eta ardurara. Azpimarragarria deritzogu, halaber, txostenegileen artean Hegoaldekoek daukaten nagusitasunari, Iparraldekoen protagonismoa erabat galtzen delarik, eta Hegoaldekoen artean, bestalde, bizkaitarrak izango dira, batasunaren alde batzuek eta aurka besteak, lehiatsuen arituko direnak.

Proposamenok bi multzo nagusitara bildu daitezkeela uste dugun arren (hizkuntz-eredu standardaren premia aldarrikatzen dutenak batetik eta horren beharrik ikusten ez dutenak bestetik), azpimarra dezagun alde aurretik, errotik ezberdinak direla multzo bakoitzaren barruan ere batzuen eta besteen arrazoi eta zioak eta, gauza berbera esan genezake, batzuek eta besteek aipatzen dituzten hizkuntz-ereduez eta ereduotara iristeko bidez.

5.2. STANDARDIZAZIOAREN AURKAKOAK

Nabarmen ageri da Arana-Goiriren eragina XX. mendeko lehen urte hauetan zehar batasunaren aurka egiten diren zenbait proposamenetan, ZUBIETA, EUZKELTZALE-BAZKUNA eta Manuel de EGILEOR-enetan bereziki (azken hau, bestalde, Euzkeltzale-Bazkunaren erabakiak errepikatuzera mugatuko zen Euskaltzaindiak Bilbon 1920ko abenduaren 26an egin batzarrean).

(26) AZKUE, Resurrección M^o. de, "Gipuzkera osotua", *Euskera*, XV (1934), III-IV. zb., 1-150. orr.; XVI (1935), I-II. zb., 151-184. orr.

Alde batetik batasuna euskalki mailan, baina ez handik gorago, egitea proposatuko dute:

“Arana-Goiri era partidario (...) de que cada región euzkadiana que haya sido antes estado autónomo y se halle en la posibilidad de volver a serlo algún día, formase su dialecto con las formas más puras y más orgánicas en uso en dicha región.

Formaríanse así el dialecto bizkaino, el arabés, el guipuzkoano, el nabarro, el laburdino y el zuberano”. (27)

Arana-Goirik bezalaxe ez dute batasuna premiazkotzat joko, euskalkien arteko ezberdintasunak handiegiak ez omen direlako batetik eta, bestetik, euskara irakaskuntzan sartu eta norberaren euskalkia ondo ezagutuz gero, eta besterena ere irakurtzera ohitu, ez dagoelako elkar ulertzeko inolako oztoporik (28).

Euzkeltzale-Bazkunakoen eritziz kaltegarriak lirateke bai euskalki bakar baten -gipuzkeran- oinarritutako batasuna (29) eta bai euskalki guztiekin eginikoa (30). Lehen, zeren gipuzkera euskalkirik zuzenena ez hoberena ez izateaz gainera, erabaki horrekin gainontzeko euskalkietako hitzunei oztopo berriak jarri eta euskaldunen arteko ezinikusiak berpiztuko liratekeelako. Bigarrena, berriz, zeren ezingo bait lirateke sekula ere euskalki guztien aberastasun guztiak bildu eta, ondorioz, euskararen pobretzea ekarriko lukeelako.

Arana-Goirik *Lecciones de Ortografía*-n esandako hitzetan oinarrituz, bestalde, gipuzkeran barik bizkaieran ikusiko dute Euzkeltzale-Bazkunakoek euskalki denetarik jatorrena:

“De donde se deduce que por el estudio comparativo de los dialectos comprobó Sabino que el bizkaino es el que más se acerca al Euzkera primitivo, el más uniforme, el más rico en la fonética y en el verbo y el más radicalmente pospositivo”. (31)

Hala Zubieta nola Euzkeltzale-Bazkunakoak eta, beraz, baita Egileoré ere, bat datoz euskararen arazo guztien konponbidea abertzaletasuna sendotzean datzala baieztatzerakoan:

“Para avanzar el Euzkera, tiene necesariamente, pues, que avanzar el Nacionalismo. El Nacionalismo va siempre por delante (...)”

(27) EUZKELTZALE-BAZKUNA, *Sobre la unificación del euzkera*, op. cit., 53. orr.

(28) Halaxe irakur dezakegu bai Zubieta (ZUBIETA, *La cuestión de los dialectos...*, op. cit., 433. orr.) eta bai Euzkeltzale-Bazkunaren (EUZKELTZALE-BAZKUNA, *Sobre la unificación del euzkera*, op. cit., 30. orr.) txostenetan.

(29) EUZKELTZALE-BAZKUNA, *Sobre la unificación del euzkera*, op. cit., 27. orr. eta hurr.

(30) *Ibidem*, 33. orr. eta hurr.

(31) EUZKELTZALE-BAZKUNA, *Sobre la unificación del euzkera*, op. cit., 12. orr.

Y hemos de agregar aún: vale más, en concepto nuestro, un pié de avance del Nacionalismo, que un metro de avance del Euzkera sin él. Porque cada paso que el Nacionalismo da es un jalón vigoroso para asentar el Euzkera, mientras que el avance de éste sin la acción del Nacionalismo es incierto y vago, como incierto y vago es el avance de un pequeñuelo que no sabe andar. Necesita éste de un brazo fuerte y vigoroso que le marque el camino y le impulse". (32)

Beheraxeago, berriz:

"¿Es de inmediata necesidad para la vida del Euzkera la creación de una literatura?

Nuestra contestación es terminantemente negativa.

Lo necesario, como bien se ha puesto de relieve anteriormente, es el patriotismo.

(...) lenguas vivas existen sin el menor vestigio de literatura. La historia conocida del Euzkera, historia es de una lengua que en sus largos siglos de vida no ha producido literatura apreciable. Y ¿por esto ha llegado a trance de muerte? No, ciertamente, sino por falta de verdadera conciencia nacional, de verdadero patriotismo.(...)" (33)

Txostenaren amaieran ere eritzi bera azpimarratuko da:

"Sabino, maestro del patriotismo vasco, nos decía con toda claridad: «Si muere el Euzkera es porque no hay patriotas. Difunde el patriotismo y juntamente con él se difundirá el Euzkera».

Achacar a la diversidad de dialectos la muerte del Euzkera es andarse por las ramas. Pretender evitar esa muerte con la desaparición de sus dialectos es querer curar la enfermedad aplicando la medicina en la parte sana y nó en la enferma.

Digamos con el Maestro y digamos de una vez para siempre: EL EUZKERA POR EL EUZKERA MORIRA; EL EUZKERA POR LA PATRIA PERDURARA". (34)

(32) EUZKELTZALE-BAZKUNA, *Sobre la unificación del euzkera*, op. cit., 18. orr.

(33) *Ibidem*, 22. orr.

(34) *Ibidem*, 61. orr.

Arana-Goirik ere abertzaletasunari lotzen zion euskararen geroa Baseñitara astekariko 6. zenbakian, Ageré goitizenaekin, argi eta garbi aditzera emango zuenez (ARANA-GOIRI, Sabino de, *Obras Completas*, op. cit., 1.296-1.297. orr.):

"Ezta ezebez euzkelduna ixatia, aberzialia ixan ezik. Dana da aberzialetasuna, euzkerea jakin ezik be.

Zabaldu egixu aberzialetasuna, ta berakin euzkerea be zabalduko da.

Zabaltzen ba-dozu euzkerea aberi bako izkeratztat, Aberjaren arerijuak berakin zabalduko dira".

.../...

Batasunari buruzko urrats zehatzik ematekotan Zubietak aski deritzo -Arana-Goirik legez- ortografia bateratzeari (35).

Euzkeltzale-Bazkunakoen aburuz ortografi eta fonetika arloan ez omen dago alde larriegirik eta, bestalde -honetan ere Arana-Goiriri jarraituz-, berezitasun hauek ezabatzea euskalki bakoitzaren nortasunari erasotzea eta euskara pobretzea omen litzateke. Ortografiari dagokionez honelaxe mintzo dira:

“Si descartamos la *j* (*j* española) y la *ü* o *v*, por ser ilegítimas o dudosamente legítimas, solo nos quedan la *j* (*j* francesa) y la *h*. En cuanto a esta última, propia es de los vascos no peninsulares y no seríamos nosotros los que nos atreviéramos a suprimírsela. Ni ofrece dificultad alguna para la intercomunicación, ni se gana nada con hacerla desaparecer... si ellos la quieren conservar”. (36)

Hiztegi mailako gorabeherak, ostera, honela ikusiko dira:

“Siempre que nos encontremos en los distintos dialectos con diferentes palabras para expresar una misma idea, puede suceder lo siguiente: 1º Que las dos sean de procedencia erdérica, como *besigu* y *erásol*; 2º Que una lo sea y la otra nó, como *igande* y *domeka*; y 3º Que las dos sean de origen puramente euzkérico, como *igeri* y *ugerí*.”

En el primer caso, procede desechar las dos y formar la equivalente con elementos indígenas (...).

En el segundo, desechar la erdérica y adoptar para todos los dialectos la de origen euzkérico.

Y en el tercero, ni es conveniente ni es práctico desechar alguna de ellas. Lo que procede es ver el modo de aprovechar las dos. Indudable-

.../...

Antzera mintzanako da Zubietak (ZUBIETA, La cuestión de los dialectos..., op. cit., 437. orr.) ere.

Eten nabarmena dakusagu jeltzale hauek eta aurreko mendeen Izmetak (IZTUETA, Juan Ignacio de, Gulpuzcoaco provinciaren condalra edo historia cañetan jarritzen diraden arguiro beraren asteratic orain-arte dagozquilon barri gogoangarriac, Donostian, 1847, VI orr.) zioenaren artean:

“Guipuzcoaco biztanle prestu guztiac badaquite arguiroqui, beren zonia datorquietela jatorriz dituzten Fuero onesquetatic; bañan oec oso ta garbi gordetceco gauzaric bearrrena cer dan ezagutcen dutenac, guichi dira chit. Fueroac beren ofean irozotceco quírenic irme-ena eta euscarric seguruna Euscarazco itzcuntzari ondo contu eguitea; cergaitic alcarri laztanduric arras itsatchiac arquitcen diran, batac bestea ecin laga dezaquean moduan. Euscarac ill ezquero Fueroac ez dira bicico; bañan Euscarac bici bada, Fueroac piztucó dira. Fueroac nai diñanac, maite izan bear du Euscarac; eta Euscarac maite dabenac, Euscaldunai Euscaraz bear die itzeguin ta adierazo, berai dagozquieten gauza guzti guztiac. Bestela, zapuztucó da Euscarac, muishinduco dira Euscaldunac, eta igues-eguingo dute Fueroac”.

(35) ZUBIETA, La cuestión de los dialectos..., op. cit., 435. orr.

(36) EUZKELTZALE-BAZKUNA, Sobre la unificación del euzkera, op. cit., 54. orr.

mente que la idea que representen tendrá alguna derivación o similar. (...) como el P. Añandiaga distribuyó las funciones de *igeri* y *ugeré*, dando a la primera el significado de *bañarse* y el de *nadar* a la segunda.

De este modo no se desprecia ninguna palabra, que tal vez pudiera contener dentro de sí raíces fecundísimas para la formación de otras nuevas.

Cuando las diferencias consistan solamente en pequeñas variantes de una misma palabra, tal vez se podrían aprovechar también, como en el caso anterior, o sinó no hay inconveniente en conservarlas. (...)” (37)

Neologismoak, baina, euskalki guztietan berberak izan daitezen proposatuko da (38).

Aditzaz den bezainbatean, zailtasunik larrienak berton daudela aitortu ondoren, zera ebatziko da:

“La unificación del verbo tiene muy mal arreglo. Cada dialecto presenta sus formas, sus afijos y sus núcleos, amoldados a su carácter especial; y eso no tiene unificación posible, sin ir contra ese carácter.

Lo que procede es depurar el verbo de todas las formas viciosas que tenga en cada dialecto y enriquecerlo con otras más regulares y más lógicas. (...)

(...) haremos todo lo posible por restaurar en todo su esplendor, como procede, las conjugaciones llamadas familiar y sintética y todo cuanto venga a aumentar la riqueza del verbo euzkérico”. (39)

Erabakiorra gertatuko zen JULIO DE URQUIJOk emandako eritzia, handia bait zen honek bere garaiko euskaltzaleengan zeukan itzala. Erabat standardizazioaren aurkako agertzen ez bada ere eszeptizismoa eta zalantza darie beraren hitzei:

“Escritores poco versados en estas materias, han propuesto la unificación de todos los dialectos, pero la unificación en forma rápida y violenta es una verdadera utopía.

Observemos lo que ocurre aún en países muy adelantados y en los que apenas existe el analfabetismo. A pesar de la indudable influencia de la escuela y de la literatura como elementos unificadores, las hablas locales coexisten con la lengua oficial, y allí donde desaparecen, se extinguen, en general, muy lentamente.

(37) EUZKELTZALE-BAZKUNA, *Sobre la unificación del euzkera*, op. cit., 55. orr.

(38) *Ibidem*, 57. orr.

(39) EUZKELTZALE-BAZKUNA, *Sobre la unificación del euzkera*, op. cit., 56. orr.

Otra solución sería y es la que hoy reúne más partidarios, la de cultivar y fomentar, de preferencia, como literario, uno de los dialectos existentes, el cual, admitido en cierto modo como lengua común, contribuiría en mayor ó menor escala á la unificación lenta y progresiva del idioma.

Llevada á la práctica sin exageraciones ni extremos, ésta pudiera ser la solución más aceptable, si bien no se nos oculta, que la falta de una tradición literaria única (al presente se cultivan cuatro dialectos literarios), y el espíritu localista, hasta cierto punto justificado, constituirían escollos de no pequeña monta.

Digo sin exageraciones y extremos, porque tomada al pie de la letra tendría el inconveniente de cerrar el camino á escritores de natural talento y aptitudes que no se decidieran á escribir en un dialecto que no fuera el suyo, y en el que se verían privados de la frescura y lozanía, cualidades muy apreciables, sobre todo en una literatura espontánea y popular como la nuestra". (...) (40)

Urquijo, dena dela, ondo jabetzen zen standardizazioa, euskararen egoera larria kontutan izanik, nahitaezkoa eta atzeraezinezkoa gerta zitekeela, nahiz eta zuhurtzia handiz jokatzea eskatuko zuen:

"(...) Claro está que de suyo sería preferible no tomar resolución alguna y esperar á que, como ha ocurrido en España, Francia é Italia, uno de los dialectos dominara por la fuerza de las circunstancias; pero es de temer que la gravedad del caso no admita demora.

Algunos lo esperan todo de la futura Academia. Yo, sin negar la utilidad de esta institución, opino que este problema es más bien convencional que técnico, y que su resolución incumbe en último término al país, debidamente asesorado é ilustrado, ó si se quiere, á sus legítimos representantes, las Diputaciones.

"(...) ¡Porque no nos llamemos después á engaño! Si la Academia fracasa por mala orientación, por falta de ambiente, ó porque sus resoluciones no sean acatadas, su fundación en vez de un adelanto constituirá un retroceso. (...)” (41)

(40) URQUIJO, Julio de, *Lengua internacional y lenguas nacionales...*, op. cit., 176-177. orr.

(41) URQUIJO, Julio de, *Lengua internacional y lenguas nacionales...*, op. cit., 177-178. orr.

Antzera mintzatuko zen Espainiako Erret Akademian 1929ko azaroaren 24an egindako sarra-hitzaldian (URQUIJO, Julio de, "De algunos problemas de interés general que suscita el Vascuence", RIEV, XXVII (1936), (385-430), 395. orr.):

"Por lo que hace al vascuence, los vehementes debates de estos últimos treinta años en torno a su propaganda, su cultivo literario y su unificación, proceden en gran parte del deseo natural y en cierto modo innato en el vasco, de que su idioma tradicional no

... /...

Urquijo bezain hotz, eta beronen eragina erraz soma daitekeelarik, agertuko zen ORIXE standardizazio asmoen aurrean. Euskalki bakar baten oinarritutako edozein hizkuntz-ereduri murrizgarri eta desagoki antzemango dio:

“(…) se pueden advertir en ella tres defectos: el empobrecimiento de la gramática que traería consigo; la falta de frescura y espontaneidad en los escritores; y por fin, el no poder sacar de él solo todo el partido literario que se pudiera del concurso de otros.

Y dejando aparte el amor propio herido de los que vieran postergado el suyo (…), esa solución ¿no daría por resultado el empobrecimiento de la morfología? (...) Tal inconveniente quedaría evitado con escribirse en todos los dialectos, ó en uno que el escritor adoptase, nutrido de la savia común de todos. Esto último supone, claro es, que el escritor debe ser versado en todos los dialectos, fidelísimo en transcribir las formas gramaticales, muy prudente en su empleo, y que él ha de contribuir de este modo indirecto al estudio de la lingüística. (...) (42)

Euskalki guztien ondasun eta aberastasunez baliatuz eraturako hizkuntz-eredurik ere ez du irtenbide zuzentzat joko:

“(…) nos resta ver la otra solución, la de formar «un lenguaje literario unificado en léxico sintaxis y grafía que nutriéndose de la savia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de una literatura común», que es uno de los fines de la «Academia de la lengua vasca». En el fondo suscribimos esa idea; pero ¿en qué forma se la debe ejecutar? No hay inconveniente en que la Academia trabaje en la unificación de la ortografía; sí en cambio á nuestro parecer, en que se dé á unificar la sintaxis, y sobre todo la morfología. ¿Cómo se podrá hacer esto sin limitación perniciosa de las formas gramaticales, sin caer casi en los mismos escollos que en el proyecto anteriormente examinado? Y ¿cuáles son las formas que se deben excluir? (...) Este camino presenta más dificultades de las que á primera vista parecen. Aun en lenguas en que el problema es más fácil, como en los romances, bien vemos que los lingüistas modernos reprochan los moldes estrechos que han fabricado sus Academias”. (43)

... /...

se borre del mapa de las lenguas vivas. Y es que la cuestión se complica entre nosotros, no solamente por el hecho de que su difusión en ambas vertientes del Pirineo le somete a influencias antagónicas, ora castellanas, ora francesas, sino por la existencia, en un territorio limitadísimo, de ocho dialectos y numerosas variedades dialectales. Por eso se ha supuesto, y hay que reconocer que la suposición no está completamente exenta de base, que, en las circunstancias presentes, una lengua más cultivada y fijada en cierto modo por la literatura, tendría mayor prestigio y estaría mejor armada para la lucha por su existencia, que un idioma, por hermoso que fuere, relegado al hogar de las clases semianalfabetas”.

(42) ORMAECHEA, N., S. J., *Unificación del lenguaje literario...*, op. cit., 54. orr.

(43) ORMAECHEA, N., S. J., *Unificación del lenguaje literario...*, op. cit., 58. orr.

Euskara irakaskuntzatik at egoteari eta euskaldunek -lehengoaren ondorioz hein handi baten- irakurtzeko ohiturarik ez izateari egotzen die Orixek euskalki ezberdinetako hiztunek ezin elkar ulertzea:

“(…) Esta es la dificultad, y mucho mayor que la diversidad de dialectos. El día en que desaparezca «el craso error pedagógico de dar la instrucción primaria á un pueblo en una lengua que no entiende» quedará demostrado (...) que la diversidad de dialectos que hoy tanto se encarece, no era tan serio obstáculo para la difusión de la literatura. (...)” (44)

Intenbide gisa idazle bakoitzari askatasun osoa ematea proposatzen du Orixek, nahi duenean eta nahi duenerako euskalki bat azala besteaz baliatzeko askatasuna alegia:

“¿En qué forma se deberá practicar pues la unificación sin adoptar ningún dialecto fijo ni limitar por selección la riqueza de todos ellos? Dando libertad á cada escritor para que en cada ocasión, género literario y otras circunstancias que se le presenten al escribir, escoja con tino y siembre con arte, y use con prudencia sin acumularlas, las formas más distantes y extrañas sin excluir ninguna. Esto hicieron los griegos (...). Me imagino (...) que si Demóstenes ó Píndaro hubieran hoy de escribir en la lengua de Aitor, escogerían el uno para sus arengas y el otro para sus vehementes odas, el seco dialecto vizcaino, ó tomarían de él la mayor dosis, sazonando su lenguaje con elementos de los otros en menor escala; si Lisias, Sócrates ó Cicerón, se me ocurre que tomarían por base el guipuzcoano; si en fin Anacreonte, Luciano el filósofo ó Aristófanes sus gracias y sátiras, no concibo que hallaran base más apta que el pirenaico. (...) Esa es la norma que me parece más acertada, y ninguno tan apto para realizarla que el mismo escritor, que con amor más sacrificado e idealista del que es posible en cualquiera discusión colectiva, acogerá diferencias de dialecto, y podrá ser más amplio en la elección de formas. (...)” (45)

Eta beheraxeago:

“(…) Cada escritor, pues, según el fin y la índole de la obra literaria, es el llamado á unificar el lenguaje, entendida la unificación como es debido. Lamentarse del exceso de dialectos y quererlos reducir á uno inflexible, formado sí en cuanto al léxico del caudal de todos, pero adoptando una morfología estrecha y matemática, es procedimiento antinatural, antiartístico y absurdo, incapaz de retener la ruina del idioma, y muy capaz de apresurarla. (...)” (46)

(44) ORMAECHEA, N., S. J., *Unificación del lenguaje literario...*, op. cit., 57. orr.

(45) ORMAECHEA, N., S. J., *Unificación del lenguaje literario...*, op. cit., 58-59. orr.

Azpimarra ditzagun, bidenabar, euskalki bakoitzari leporatzen dizkion gaitasunak.

(46) *Ibidem*, 60-61. orr.

Eritzi berberei eutsiko zien 1960an Zeletak eginiko elkarrizketa baten, oraingoan, horregatio, euskalki mailako batasuna komenigarritzat joko bazuen ere:

“– Eta... argitara, zenbat euskal-liburu oraindaño eman dituzu?

– Ara: «Tormes’ko Itsu mutilla», bizkaieraz; «Mireio», be-xanabarrez; «Santa Cruz Apaiza», gipuzkeraz; «Barne Muiñetan», «Euskaldunak», «Meza-Bezperak» eta «Agustin Gurenaren Aitorkizunak», napar-giputz antzera, egiz naste (47).

– Euskeraren batasuna eta euskalkiak, nola ikusten dituzu?

– Ez naiz egundo izan BATASUNA ’ren aldeko bero-beroa, batzuk aditzen duten eran.

– Ordun, zure ustez, batasun eredu bat aukeratzekotan, nolakoa bear luke izan?

– BATASUN-EREDUA, au litzake: *bakoitzak besteren euskalkiak ikasi ditzala, irakurtzeko lain, beintzat, ta orra or*, BATASUNA.

– Eta erri ez-ikasia, zertzat, zer?

– Erri ez-ikasiari ez dio ajola; bere bidetik joango da, ta erri ikasi-xamarra laister jabetu liteke besteren euskalgiz.

– Ortan arrazoi dezu. Gertakun ori agirian dago arretaz irakurri oi dutenen artean.

– Jakiña! Ala, gure denboran, ikasi-xamarrak gogoz eta poliki irakurtzen zituzten «HERRIA», «ARGIA», «EKIN» eta «ZERUKO ARGIA», eta ikasiak baita «EUZKERIA» ere.

– Orain ere berdin gerta dedin, zer bear litzake egin?

– Bizkaia’k batu dezala beurea, guk aditzeko eran, au da: *gure euskalkietatik geiegi urrundu gabe. Orobat, besteak*. Baiña BATASUNIK ez bedi sortu *literaturan*. Kalte aundia egin lezaioke.

– Zergatik diozu ori?

– Bakoitzak berezko *jasa, jaidura ta txairotasuna* galduko lukealako. Esan dedan *batasun ori jakingai edo jakinkizunetarako* erabiltzeko bedi”. (48)

Orixek, baina, *literatura* dauka, berak ere behin baino gehiagotan argitzen duenez, gogoan eta esparru horretan batasunik onartzen ez badu ere badirudi beste batzuetan egokitzen jotzen zuela hizkuntz-eredu bakar bat izatea:

(47) Orixeren euskalkiei buruzko jarrera ez zen, ikus daitekeenez, teorikoa soil-soilik izan.

(48) ZELETA, “Orixek”-rekin izketaldi bat”, Karmel, X (1960), Iraila-Urri, 159-160. orr.

"(...) Liburuetako euskera bakara obe genuke euskeraren biziarentzat, bafia Meza-liburua ez da euskeraren batasunean sartzen; bakoitza berean obeki mintzo da Jainkoarekin, besterena jakirik ere. (...)" (49)

Euskaltzaindiak 1920-1921ean zehar antolatutako batzarretan lau dira batasunaren aurka ageri direnak: URUTIA (50), Cortés (51), Zabala-Arana (52) eta Goyenetxe (53).

Euskalkiei mendeetan barrena, eta beste hizkuntza batzuekiko harremanen ondorioz, kutsatu zaizkien interferentziak baztertzea eta azaleko zenbait gauzatan -baina euskalki bakoitzaren nortasuna zainduz hala ere- batasun bat sortzea proposatzen du URUTIAk. Bitarteko modura, aski deritzo haurrek eskoletan euskalki guztien berri izateari.

Euskara hil zorian zegoela ikusirik, hizkuntz-eredu berri bat abian jartzeak beraren behin-betiko hondamendia ekar zezakeela uste zuen CORTESEK, nahiz eta euskalki ezberdinetako hiztunen arteko harremanak errazteko abantaila zenbaitez ere ohartzen zen. Hau, gainera, beste eragozpen batez ere jabetuko zen:

"Importantísimo para la resurrección del vascuence es el *euskaldun barri*. ¿Y qué dialecto ha de aprender éste? Concretándonos a Bizkaia y en el supuesto de que el dialecto que se imponga sea el guipuzcoano, ¿aprenderá éste o el vizcaino? Si aprende el guipuzcoano le será muy difícil entender a sus paisanos los vizcainos, le faltará el elemento hablado para poder perfeccionarse; y si aprende el vizcaino, le será muy difícil entender el dialecto impuesto, el oficial y le faltará el elemento escrito para adquirir la perfección necesaria. ¿Tendrá que aprender los dos? Es lo mismo que decirle que no aprenda ninguno. (...)" (54)

Oso epe luzera eta esparru jakin batzutan erabiltzeko (literaturan eta goi mailako irakaskuntzan) egokitzat jotzen du ZABALA-ARANAK euskalki guztien aberastasunez osatutako hizkuntz-eredu bakarra. Bizkitartean, euskalki guztiak eta bakoitza lantzea batetik, eta elkarrekin dituzten kidetasunak indartuz joatea bestetik, proposatzen du. Maila batzutan, ostera, eskuragarria iruditzen zaio batasuna, aditza, fonetika eta neologismoak euskalki denetan berberak izatearen aldeko agertzen delarik.

GOYENETXEK, azkenik, batasunak hizkuntzari ekarriko liokeen murrizketa eta euskaldunek eurenari eusteko eta inorena gaitzesteko daukaten grina aipatzen ditu bere ezetzaren ardatz nagusizat.

(49) ORDIXE, Urte guziko Meza-Bezperak, Tours, 1950, X. orr.

“Nik goiztso deritzayot *langue unifiée* ortaz gure lanak asteari. Bizkaiko *bolchevique abertzale* onen bildurrez obe dala uste det gerotxeagorako uztea. Bainan nik igoniko dedan *ordre du jour* artan ezari zenezake: *Proposition de Mr. Broussain: unification de la langue...*”

Campión eta Broussainek Euskaltzaindiari surkeztutako txostenaz xehetasun gehiago ezagutzeko, azkenik, oso interesgarria da hark honi 1920ko apirilaren 5ean egin gutuma (CHARRITTON, Piarres, Resurreccion Maria de Azkue eta Piarres Broussain-en arteko elkarridazketa, op. cit., 353-354. orr.).

(134) Informe de los señores académicos..., op. cit., 6-7. orr.

sin par riqueza de su verbo. ¿Es aceptable esta solución de la dificultad? De ninguna manera: la Academia apetece enseñar al uso público un dialecto que se divulgue y propague, y no es manera adecuada de satisfacer tal deseo, proveerle de un dialecto arcaico que la gente común labortana entiende hoy con dificultad y que los Señores Académicos habrían de estudiar previamente”. (135)

Eta jarraian:

“Recapitulemos someramente las perfecciones respectivas de los dialectos literarios contemporáneos. El guipuzcoano resplandece por la abundancia de su vocabulario y la regularidad de su verbo, pero el labortano y el suletino conservan mejor que él los sonidos vascos, así como el suletino y el vizcaino descuellan sobre el guipuzcoano por sus gramáticas, que son las más completas de todas, después de la del labortano antiguo. (...)

La solución a la luz de la técnica podrá quedar en balanzas, pero si paramos mientes en las propiedades de la difusibilidad, el platillo cae del lado del guipuzcoano. Dichas propiedades dimanar de la situación central suya. (...) Presenta notorias afinidades con todos los dialectos de su grupo: labortano, alto-navarro septentrional y meridional. De hecho le distinguen arrostos invasores; desposee de su jurisdicción al alto-navarro septentrional en los pueblos de Guipúzcoa, donde le hablaban y va infiltrándose intersticialmente en Navarra por la comarca de Cinco Villas y de los valles de Araiz y de la Burunda. El labortano representa un papel análogo entre los dialectos ultra-pirenaicos. Al revés, el vizcaino al occidente y el suletino al oriente de la Euskal-Erri son demasiado divergentes atendiendo a la comunidad euskeriana. (...)” (136)

Aukera horrek, bestalde, euskalkietan barreiatuak dauden aberastasun anitz bazterteza ekarriko lukeela ohareraziko dute:

“(...) a la Academia le está vedado, cabalmente cuando anhela la perfección, el atavío y el enriquecimiento del euskera, lanzar por encima de la borda los primores vivos del euskera actual. Esa determinación implicaría contradicción en sus términos. La lengua unificada será más rica, hermosa y perfecta que cada uno de los dialectos o morirá apenas nacida”. (137)

Hautatzen den euskalkia, indarrak hartuko badu, bizia izan beharko duela eritzirik, ez dute onartuko euskara berri bat asmatzeari ekitea eta, ondorioz, erdibide bat proposatuko:

(135) Informe de los señores académicos..., op. cit., 8. orr.

(136) Ibidem, 8-9. orr.

(137) Informe de los señores académicos..., op. cit., 11-12. orr.

“(…) Para aminorar –ya que no los suprime completamente– los efectos de nuestro artificio, es indispensable elegir uno de los dialectos literarios vivos, y adaptar a su estructura e índole propias, los perfeccionamientos que de los demás dialectos se tomen, conforme a la solución intermedia antes indicada. (...)” (138)

Artifizialtasunari deritze era honetako hizkuntz-eredu batek izan dezakeen oztoporik nagusienetarikoa. Hauxe diote horretaz:

“Ciertamente es que esa lengua unificada será lengua artificial. Si, lo será, antes de que la enseñen las escuelas y la difundan los periódicos y los libros, y llegue el día en que los niños, desde la cuna, la oigan hablar. Toda lengua literaria es, en parte, artificial. (...) Además, de ninguna manera cabe impedir que la lengua común de cultura vasca no incurra en la nota de artificial. Supongamos que la Academia adopte un dialecto único, el guipuzcoano, por ejemplo. Dejado aparte el caso de que el guipuzcoano no es la lengua *natural* de los vizcainos, navarros, suletinos y labortanos, resulta que dicho dialecto, como los demás, es el habla de labradores y de pescadores, el habla del vulgo; le faltan cientos y miles de vocablos poseídos por las lenguas cultas, que las clases directoras necesitan. Por tanto, la Academia habrá de enriquecer el vocabulario guipuzcoano mediante el préstamo y el neologismo, y lo volverá, en parte, incomprendible, al vulgo de Guipúzcoa, y con más razón al vulgo de los otros territorios. (...)” (139)

Amaitzeko honako eskabide hau egiten diote Euskaltzaindiari:

“Unificar el euskera sobre la base del dialecto guipuzcoano o del labortano o de ambos previamente combinados, en la forma y modo que indica el presente informe”. (140)

Aztertzen ari garen garai honetan badira, bestalde, asmo hori, zuhurtziaz eta neurritz bada ere, praktikara eramán duten idazleak. ORIXE dugu horietariko bat. Literatura zereginetarako hizkuntz-eredu bakarraren aurkako azaldu zen arren, maiz erakutsiko zuen lapurterarantz zeukan isuria:

“(…) Todavía me sigue pareciendo más grave y acomodado para la sagrada cátedra el guipuzcoano; pero para géneros literarios profanos me parece más apto el labortano. La espontaneidad, la gracia, el humor propios de los hablantes pirenaicos en vano los buscaremos en otros vascos. Por otra parte, dos escritores y no profanos, sin rival en ningún dialecto vasco, Axular y Mendiburu, escribieron en éste ó es al que más se acercaron; lo cual prueba la especial aptitud de él para la literatura. (...)” (141)

(138) Informe de los señores académicos..., op. cit., 13. orr.

(139) Informe de los señores académicos..., op. cit., 16. orr.

(140) Informe de los señores académicos..., op. cit., 17. orr.

(141) ORMAECHEA, N., S. J., Unificación del lenguaje literario..., op. cit., 55-56.orr.

Joera hori, gainera, eta Orixek berak aitortzen duenetik, aski hedaturik omen zegoen Euskaltzaindia sortu zeneko urteetan:

“Temo que M. Lafitte resulte esta vez falso profeta. En efecto, dentro de la Academia, cuyas actas el P. Lhande redactaba en guipuzcoano, nos hallábamos don Julio Urquijo y yo para difundir la posición laborantista (D. Julio por convicción y yo por tendencia natural). Además, los académicos guipuzcoanos no parecían oponerse a esa tendencia. En todo caso, cabe decir que la mitad de los miembros, acaso uno más, hubiesen aprobado la decisión adoptada por la nueva Academia, decisión que, como es natural, le congratula a Vd. y por cuya causa escribió Vd. su Gramática. (...)” (142)

Azkueren “Gipuzkera osotua”-ri egotziko dio, hain zuzen, lapurteraren kementa eta prestigioa itzaltzearen errua:

“Laphurdiko euskerara yotzen du berorék –Krutwigek, alegia–. Ortan ere ez da izan lenengo. Lengoa Euskaltzaindian ere ba-giñan ortara yotzen genunak; bañan Azkue yaunak porrot eragin zigun “Gipuzkera Osotua”arekin. Ikusiko dugu berori gu baño geiago ote dan. (...)” (143)

Orixerekin batera garai honetako idazlerik gailenetakoa den LIZARDIk, orobat, “izkuntzalarrekoa” “noranaikoa”, “yakite-egoekigoa”, “baserriz landa” agerrera-zi, “apaindu zernaitarako”... egin nahi zuelarik (144), bere gipuzkera beste euskalkiekin, eta lapurterarekin bereziki, aberasten ahaleginduko zen. Argi eta garbi salatuko zuen Lizardiren isuri hori berarekin harremanetan egon zen Aitzolek:

“Crear un dialecto central literario fué, también, una de sus aspiraciones. Sentía una especial predilección por el laborantano. Aproximar hacia éste el gipuzkoano fue su ideal. ¿Quizás, por que es el laborantano el dialecto central del euskera? Sin duda. Poco a poco iba extrayendo de los escritores y del habla corriente laborantana frases y expresiones, que des-

(142) ORMAECHEA, Nicolás, “La Primera Academia Vasca”, Gernika, diciembre 1949, (18-23), 21. orr.

(143) ORMAETXEA'tar Nikola, “Krutwig yauna euskeraz”, E-G, I (1950), 11-12. zb., (49-52), 49. orr.

Gauza bera gogora ekarriko du Zeletak (ZELETA, “Orixek”-rekin izketaldi bat, op. cit., 160. orr.)

(144) Halaxe mintzo da “Eusko-bidaztiarena” poema ezagunean (LIZARDI'tar X., Biotz-begietan, Iñaropena, Zarautz, 1970, 164-172. orr.).

Asmo bera agertzen zuen Egia ikus dezagun, ama! (AGIRRE'tar Joseba Mirena, Itz-lauz, op. cit., (49-52), 50. orr.) izeneko artikuluan:

“(...) euskera (...) eztegu egin yakinbide zuzen, ta ez ere makur. Ta gaur dan egunez edozein izkuntzak, Europa'n beñipein, yakintza-bide bear du, ondatuko ezpa-da”.

Ikus, halaber, gai honen inguruan idatzitako beste artikulua zenbait: Gure bideko mugarrak (77-80. orr.); Bide berriak?... Bide guziak?... (100-103. orr.); Bide ta bide-ondo (104-105. orr.), etab.

pués, merced á él, se han infiltrado en el gipuzkoano y en el bizkaino inclusive. Más de una vez nos recomendó ciertas expresiones castizas del labortano para imprimir en nuestros discursos más sabor euskeldun a nuestra dicción. Todo ello se advierte con leer ligeramente la prosa y las poesías de Lizardi". (145)

Villasante, eta Aitzolen hitzotan oinarrituz, Lizardiren hizkuntzan nabari diren lapurteraren aztarna horiek zehazteari lotuko zaio:

"(...) Leyendo sus escritos, tanto en prosa como en verso, nos hallamos con muchos injertos o trasvase de elementos procedentes de la literatura vasco-francesa. Así, por ejemplo, en la declinación emplea el ergativo plural *-ek*, el dativo plural *-ei*, saca gran partido de la *-z* del caso instrumental para indicar la idea de «sobre, acerca de» en vez de recurrir al feo sufijo inventado *-tzaz*. Emplea el sufijo conjuntivo de subordinación *-larik*. Recurre a formas labortanas como *unetan* o *Iguzki* (aunque también emplea *Eguzki*), *untzi*, escribe *itsaso* con *ts* y no con *tx*; alguna vez emplea incluso «erraidazu» (B.-B., 76). Usa palabras como *eskierki*, *oldez*, *antzo*, *atzeman*. En el verbo tiende a suprimir la terminación del participio en los imperativos, subjuntivos y potenciales (*ikus dezagun* etc.); aunque a veces –tal vez por despiste– lo suprime también en casos en que tal supresión no es permitida (*arki ditugu*, I.-L., 44, *oar nantzai*, 46). Ciertas locuciones o giros del labortano los ha introducido y aclimatado aquí. Recuerdo en este momento «*aier zazkio*» (B.-B., 108), «*gogo dudan*» (B.-B., 136). También el «*buruz*» que se ha extendido tanto entre nosotros (*euskerari buruz* I.-L., 51) creo que es adaptación de un giro vascofrancés (...) aunque al apropiarlo creo que hemos alterado un poco el sentido original.

Por supuesto, también incorpora a su lengua elementos lexicales de otros dialectos, como el B. (...)" (146)

Eta beherago:

"(...) Aunque él no emplea la *h*, sin embargo, guarda respetuosamente las vocales dobles (...) y formas de declinación como *oietarik* (50), *guzietarik* (49)". (147)

(145) ARIZTIMUÑO, José de, "El poeta José María de Agiré", *Yakintza* (1933), 3. zb., (163-177), 175. orr.

Antzera mintzatuko da X. Lete ere (LEJE, Xabier, Xabier Lizardi, edo poesia gailen, op. cit., 18-19. orr.)

(146) VILLASANTE, Fr. Luis, "Lizardi en la Literatura y en la Poesía Vasca", *FLV*, VII (1975), nº 20, (227-236), 230. orr.

(147) *Ibidem*, 231. orr.

VI. ATALA

EUSKARAREN STANDARDIZAZIOA XX. MENDEKO BIGARREN ERDIALDEAN

VI. EUSKARAREN STANDARDIZAZIOA

XX. MENDEKO BIGARREN ERDIALDEAN

6.1. SARRERA

1946ko irailean Severo de Altubek Baionan eginiko hitzaldiarekin (1) hausten da gerrosteko isilaldi luzea, berriro ere euskararen standardizazio asmoak plazaratzen direlarik. Ez da, baina, aldaketa larriegirik somatuko harik eta Krutwigek Euskaltzaindia suspertzeko ardura bere gain hartuko duen arte. Honek, ordura arte lo zorroan zetzan Euskaltzaindia iratzartzeaz eta berpizteaz batera, itxuratzen ari zen euskal gizarte berriaren zereginetara –nekazal egituratik hiritar eta industrial egiturara aldatzen ari zen gizartearen zereginetara alegia– egokitu ahal izateko hizkuntz-eredu bat tajutzeari ekingo dio. Euskararen erabilera bera –euskaltzainen euren bileretan ere erdara nagusi (samar) omen zebilen garaietan– sustatzeaz gainera, hiru ardatz nagusitan oinarrituko du hizkuntza modernizatzeko bere ahalegina:

a) Lapurtera klasikoan eratutako hizkuntz-eredua bultzatu.

b) Euskal Herri osorako ortografia bakarra arautu, maileguetan jatorrizko itxurari eutsiz.

c) Atzerriko kultur hitzei –eta jatorri grekolatindarrekoiei batipat– erabat atea zabaldu.

Krutwigen proposamenon eta Euskaltzaindia barruan eginiko aldaketen ondorioz, egundoko zalaparta eta iskanbilak piztuko dira (2).

(1) ALTUBE, Severo de, *La Unificación del Euskera Literario*, op. cit.

(2) Ikus, esaterako:

L. A. "Euskeraren gaitz eta eritasunak", *Gernika*, décembre 1949, 26-27. orr.

IBALAN, "Euskera'ren batasuna", *E-G*, III (1952), 1-2. zb., 26-28. orr.

ASPALDIKO, "Euskeraren batasuna", *E-G*, V (1954), 9-10. zb., 154-155. orr.

Orixek ere gogor erasoko zien Krutwigen bideei, hala nola:

– "Ciencia y práctica de nuestro idioma", *Gernika* (1952), nº 18, 23-26. orr.

– "¿Bi rr ala r bakarra?", *Gernika* (1952), nº 20, 170-171. orr.

– "Ezinbestean", *Gernika* (1953), nº 23, 81-82. orr.

1950ean Krutwigek berak, eta Euskaltzainditik kanpo, "Urkijotarr Jul Elkhargoa" sortuko du Bilbon aipatu helburuak aitzinarazteko. Erkiaga (3), B. Garro "Otxolua", Arrutza, L. Akesolo, Villasante, J. Gorostiaga, I. Berriatua... dira Elkar-te honen inguruan murgiltzen eta lapurtera klasikoaz baliatzen direnetariko batzuk. Villasantek 1952an Euskaltzaindirako sarrera-hitzaldian irakurritako txostenean (4) emango dira aditzera -Krutwigen beraren lanetan bezalaxe noski- hizkuntz-eredu hau hautatzearen arrazoi nagusiak. Garai honetako idazle banaka bat ere, Mirande eta Aresti bereziki, Krutwigen jarraitzaile azalduko dira.

Euskaltzaindiak inolako erabakirik ez zuela hartzen ikusiz, ezinbestekotzat jo-ko du zenbaitek beste bide batzuk urratu beharra (5). Erabakiorra gertatuko da, hain zuzen ere, 1963an Baionan, eta Labéguerie jauna buru dela, sortuko den "Euskal

- (3) Halaxe aitortzen du Erkiagak berak Onaindiari 1953ko uztailaren 21ean bidalitako gutun ba-ten (ONAINDIA, S., Eskutitzak, op. cit., 15-16. orr.):

"Orain, dakuakezunez, euskal idazkera klasikoan bidez nabil, harako Kruwig eta Villa-sante Aitareen asmoen irarri.

(...)

Behintzat, iokera nagusi bi dirugu oraingoz: gipuzkera eta lapurdiara. Zeintzuk errazoi-tsuago? Geroak esan begi. «Orix» ostera, napanrez ari da ifoiz baiño areago.

Guda-geirik zorrotzeta «b» letrearen hauzia da. Euskal liburu zaharretan bethi agiri da letra hori. Hemengo euskalariak, ostera, kutsudun izakia bai litzan, io ta bazterre-er-egotzi eben. Ez othe dauko bapere zer-egifik? Zer bait baietz dirudi".

- (4) VILLASANTE-KORTABITARTE, Aita, "Literatur-euskara laphurtarr klasikoaren gain era-tua", BRSVAP, VIII (1952), Cuaderno 1º, 91-119. orr.; Cuaderno 2º, 259-298. orr. Villa-santek, lan honetan, "Urkijotarr Jul Elkhargoak" hartutako erabakien berri ematen digu (278. orr. eta hurr.)

Garai honetan bizi zen giroa ezagutzeko oso adierazgarriak dira Kruwigek Orixeri 1951ko apirilaren 19an eta maiatzaren 20an egin gutunak. (Gutunok Euskaltzaindiaren "Azkue" Bi-bliotekan aurki daitezke).

Ikus, halaber: KRUTWIG SAGREDO, Federico, Belatzen baratza. Mikelditarrak, Edi-ciones Vascas, San Sebastián, 1979, 61-67 eta 75-105. orr. bereziki.

- (5) Eztabaidak, hala ere, bizirik zirauen Euskaltzaindiaren baitan. Bilbon 1958ko abenduaren 13-14an ospatutako "Euskalzaleen Biltzarra"-n, esate baterako, batasunaren beharraz mintza-tuko zen Gorostiaga (GOROSTIAGA, Juan, "Euskera bat edo unificación del euskera", Eus-ker, IV (1959), 96-98. orr.). Batzar hauexetan irakurriko zen, orobat, Txillardegiren txos-ten interesgarria: TXILLARDEGI, "Batasunaren bidea", Euskera, IV (1959), 150-170. orr.

Eibarren 1959ko azaroaren 6tik 8ra bitartean antolatutako "Euskalzaleen Biltzarra"-n ere argibide eta erabaki behatzak eskatzen zizkion Etxaidek Euskaltzaindiari: ETXAIDE, Jon, "Euskaltzaindia mintza bekigu. "Itasoa laifo dago"-ren zuzenbidea. (Aldakuntza batzuen arrazoiak)", Euskera, V (1960), 66-89. orr. (Ikus ere Mitxelena (ibidem, 89-93. orr.) emandako erantzuna).

Ildo beretik zihonan Irigarayk irakurri txostena: IRIGARAY, A., "Moguel eta literatur-euskara", Euskera, V (1960), 110-120. orr.

(Irigarayren txosten hau, aldaketa txiki zenbaitekin, beste aldizkari batzutan ere argitaratuko zen: Egan, XII (1959), nº 5-6, 130-138. orr.; GH, XXXI (1959), 231-239. orr.; Jakin, XII (1968), 31-32. zb., 58-61. orr.).

Euskaltzaindiaren 1959ko maiatzaren 25eko batzar-agirian ("Euskaltzaindiaren batzar-agiriak 1949-1964", Euskera (1937-1953), 81. orr.), azkenik, hauxe irakur dezakegu:

"Lojendio jaunak difo komeni litzakeala mugaz goialdeko eta bealdeko euskaltzaindiak alkarregaz artu emonetan asi daitezcan euskerearen batasunerantza eroango gainen

.../...

Idazkaritza". Elkarte honen itzalpean (6) antolatuko zen 1964ko agorrilaren 29-30ean burututako Baionako Biltzarra, bertan ezarriko zirelarik gerora "Euskara batua" deituko zen hizkuntz-ereduaren oinarriak (7).

Bigarren urratsa Ermuan, "Gerediaga" Elkartek eraturik, 1968ko ekainaren 28tik 30era bitartean eginiko Biltzarrean emango da, bertan erabaki berri zenbait hartuko direlarik (8). 1968. urtean bertan "Idazleen Alkartea" sortu zen, aurrerantzean berau izango delarik standardizazioaren eragile nagusia (9). Idazleen batasun honek bultzaturik, eta Euskaltzaindia sortu zeneko 50. urteurrena ospatzeko antolatu ziren ekintzen artean, Batzar Nagusi baterako deia zabaldu zuen Akademiak (10).

.../...

oñarriak finkatzeko. Bealdekoetatik Arrue ta Irigaray jaunak izentetan dira goialdekoakaz berbetan asi daitezcan. Eretzi batzuk esan dira batzarkideen artean batasunaz. Bat batean batasuna osorik egiteko modua ez ei dago erraz, baiña beti alegiñak egin bear litzakezala elburu orretara bidean, euskerearen bizitza benetakotik urrundu barik. Eta batez be orainarte daukaguzan literatura-dialektuak bata bestearengandik geiago urrundu ez daitezcan alegiñak egin bear litzakezala, daukiezan gauza bardin eta bardintsueri indarra emonik".

(6) Hauexek dira, Txillardegik dioenetik (TXILLARDEGI, "Gerediaga-Elkartek eratutako biltzarkideei", Jakin, XII (1968), 31-32. zb., (66-70), 69. orr.), astero-astero eta zortzi hilabetetan zehar, Elkarte honetako "Hizkuntza-Saillean"; bildu ziren lagunak: Jesus Mari Bilbao, Jean-Louis Davant, Rogert Idiart, Eneko Irigarai, Telesforo Monzon, Jesus Solaun eta Txillardegi.

(7) Oinarriok ezagutzeko ikus: EUSKAL IDAZKARITZA, Balona'ko Biltzarraren Erabakiak, Baiona. Txosten hau Jakin (1965), 18. zb., 20-28. orr. aldizkarian izango zen berriargitaratua.

(8) Batzar honen berri izateko ikus: Jakin, XII (1968), 31-32. zb., 15-74. orr.

(9) Honela ikusten zituen Torrealdaiak (J. M. T., "ERMUA'ko asmo bat. IDAZLEEN ALKARTEA", Jakin, XII (1968), 31-32. zb., (79-80), 79. orr.) Elkarte honen egitekoak:

"(...) Idazle guztiok baturik, euskera literarioaren batasunaren alde jokatu behar dugu. Hortarako jaio da Alkarte hau. (...)"

Eta beherago (ibidem, 80. orr.):

"Alkarte honen aldekoa naiz, erabat. Bentaja asko ikusten diot. Izan ere, zuzenbidezko agindu bat legez ta onez betearazterik ez dagoenean, onuragarria da ez bakarrik goitik-beherako indarra baizik zearka ta aldamenekoan eragiñez egiten dana ere bai. Ondo edo gaizki, presioka jokutzen da gaur. (...) Hara: Euskaltzaindiak ez dauka agindu-bidez lanegiterik. Borondate onaren eskale bat biurtu dugu, zeren idazle bakoitzak nahi duenean jaramon egin ohi dio, ta gogoko etzaionean, baztertu.

Esku-loturik ikusten dut Euskaltzaindia, ta, beharbada, legerik ematen ere ausartzen ez dala. Ta, aldiz, gaur idazlerik gehienak, ene ustez, batasunaren alde gaude. Biltzea daukagu, ta Euskaltzaindiaren erabakiak oro (ditezkeanean) onartuaz, baztertu ditzagun onartzen ez dituztenak. Gure eginkizun askok, egun, holako esijentzia eskatzen duelakoan nago".

(10) Arestirengandik etorriko zen Batzar hau egiteko asmoa, Arestik berak (ARESTI, Gabriel, "Euskeraren batasuna", ZA, XXX (1968-07-07), 279. zb., 3. orr.) aditzera emango zuenez:

"Urtarileko batzarra Bilbaon ospatu zen. Nire denbora apurretik ordu pare bat ohosurik, bertara azaldu nintzen. Eta gure Akademiaren urrezko eztaiak ospatzeko asmoak aipatu zirenean, jaiak eta jaiak ekarri ziren ahotzara; orduan hasaratu nintzen: "Gureak guztiak dira jai-egunak: Eta astelegunak noizko dira? Lanean haritzeko orduak ez al du oraindik gure atara jo?"

Eta literatur-euskera bakar bat egon dadin, aipatu nuen premia. Katalanen eredia ekarri nuen aiputara, Pompeu Fabraren lan miragarria. Hitzkuntza batek ezin dukeela bizitza normal bat ereman, erregela eta lege zehatz hestu batzuei ez badago loturik. Eta Euskaltzaindiak niri jaramon egitea beste erremedioirik ez du eduki".

1968ko urriaren 3tik Sera bitartean burutu zen Arantzazun Euskaltzaindiaren Batzar hau, bertan aukera eta erabaki zehatzak –ondorengo urteetan eztabaida garratz ugari- ren iturri bilakatuko zirenak– onartu zirelarik (11). Harrez geroztik erabaki horiek argituz, osatuz edota zuzenduz joango da Euskaltzaindia (12), Bergaran, handik hamar urteren buruan –1978ko irailaren 4tik 8ra bitartean– antolatutako VIII. Biltzarrean standardizazio bilakaeraren lehen epea –oinarrizko arauei dagokiena– bukatu- zat ematen den arte (13).

6.2. STANDARDIZAZIOAREN AURKAKOAK

XX. mendeko bigarren erdialderaz geroztik euskal idazle eta euskaltzalerik ge- hienak (14) standardizazioaren alde ageri diren arren, badira horren beharizanik ez egokitasunik ikusiko ez dutenak ere. Jarrera horrexeri eutsi izan dio, berrikitan gai- nera, LATIEGIk, bere eritzia era honetara funtsatu duelarik:

“Kezka gogo-zigortzalle biurtu zaigu, euskaldunoi, joandako men- dearen amaia ezkerro Izkuntzaren Batasuna, eta nere ustez batere arrazoirik gabe, Euskerak –nere ustez–, *ez bait du ezertarako batasunik bear.*”

Ez beintzat *bizitzeko*. Batasunik gabe bizi izan da orain arte. Izkun- tza bateratuz inguratua egon oi da beti. Il dira izkuntza aundi, gogor, in- dartsu, “zeatz bateratu” aiek danak. Guzti aietatik euskera bakarrik bizi da oraindik: “bateratu gabeko” izkuntza!

(11) Batzar honetako txosten eta erabakiak ezagutzeko, ikus: Euskera, XIII (1968), 139-265. orr.

(12) Hauexek lirateke urratsik adierazgarrienak:

a) Ortografiari buruzko zehaztasunak: “Idatz-arauak”, Euskera, XVI (1971), 143-159. orr. eta “Idatzarauak”, Euskera, XVII (1972), 168-173. orr.

b) Aditzari buruzkoak: “Aditz laguntzaile batua”, Euskera, XVIII (1973), 20-73. orr. eta “Aditz sintetikoa”, Euskera, XXII (1977), 789-850. orr.

c) Hiztegiari buruzkoak: “Filateli hiztegia”, Euskera, XVIII (1973), 205-206. orr.; “Merkatalgo Izendegia”, Euskera, XVIII (1973), 215-229. orr. eta “Zortzi urte arte- ko ikastola hiztegia”, Euskera, XX (1975), 7-153. orr.

Euskaltzainditik kanpo izanik ere, arras azpimarragarriak dira standardizazioari begira, ga- rai honetan argitaratutako hiztegi hauek:

– ARESTI, Gabriel; KINTANA, Xabier, *Batasunaren Kutxa*, Lur, Donostia, 1970.

– Natur Zientziak *Hiztegia*, Jakin, Arantzazu-Oñati, 1976.

– ITABAT TALDEA, *Euskal Hiztegi Modernoa*, Cinsa, Bilbo, 1977.

– MUGICA, Luis María, *Diccionario general y técnico / Hiztegi orokor- teknikoa*, Ediciones Vascas, 1977.

(13) Bergarako Biltzarrean berri izateko, ikus: Euskera, XXIV (1978-2), 435-871. orr.

(14) “Euskaltzaleak” diogu, bestelakoan artean indarrean bait diraute tesi asimilazionistetan oinarritutako jarrerak.

(...)

Batasuna amestu oi dugunean inguruko Izkuntzak euki oi ditugu begien aurrean, gure Euskera beste Izkuntza oiek bezelakoa ez dala gogoratu gabe. Gure Euskera, oiek bezelakoa izan bear dula pentsatzen dugu, eta ori egitean gure Euskeraren zertasuna eta nortasuna ukatzen ditugu. Gure izkuntza beste oiek bezelakoa egitea lortuko ba'gendu, gure izkuntza ilko genuke. Izkuntza ori ez litzake Euskera izango.

Gure Euskerak ez du *oien* batasunik bear, gure Euskerak *bere* batasuna ba'dualako. Beti izan du batasuna. Bafia *berea*; ez, *beste aiena*. Euskeraren batasuna une berean "bat" eta "lau" izaten dago. Gure Izkuntza ez da Latifa eta onen alabak bezela, "era bakarrekoa". Laukoitza da. Eta ala izan bear du beti Euskera izateko". (15)

Eta beheraxeago berdin:

"Euskerak Batasun berri baten bearrik ez duala, gogorazi nai nuke nik emen ostera. Euskerak bere Batasuna ba-duala; beti izan duala! Bere Batasuna; betikoa; bere-berea: BATASUN LAUKOITZA. Grezi'ko izkuntzak izan zuanaren antzekoa. Euskeraren Batasuna, auxe besterik ez dala: Euskaldun bakoitzak bere Euskalkia ondo erabiltzea eta beste Euskalkiak errez ulertzea (...)". (16)

Gaztelaniazko bertsioan ere ez da uste horretatik batere saihestuko:

"(...) el Griego era Pluriforme. Tuvo 16 dialectos; de ellos, cuatro, los llamados dialectos literarios: el Jonio, el Eolio, el Atico, y el Dorio. El Euskera es de la misma especie que el Griego. Es CUATRIFORME. Cuatro son sus modalidades: el Oriental (Suletino-Roncalés), el Septentrional (Laburdino-Benabarrés), el Central (Navarro-Guipuzcoano) y el Occidental (Vizcaino). Esa pluriformidad es esencial al Euskera. Siempre ha sido así: Cuatriforme. Para gentes de mentalidad latinizada esa pluriformidad es un inconveniente. Para nosotros es una ventaja y una riqueza. (...)" (17)

Korapiloa askatzeko, berriz, honako irtenbide hau proposatuko du:

"(...) Lo he dicho ya y lo repetiré machaconamente: a) la unidad *esencial* del Euskera que *esencialmente* es lengua pluriforme, consiste en

(15) LATIEGI'tar Bixente; OÑATIBIA'tar Dunixi, *Euskaltzalndiari epalketa*, 1982, 170. orr.

(16) *Ibidem*, 232. orr.

Ikastoletan erabili beharreko testu liburuei dagokienez, horregatio, hala Nafarroa nola Arabakoetan Azkueren "Gipuzkera osotuz" baliatzea proposatzen du, Bizkaian bizkaierazkoak eta gipuzkerazkoak Gipuzkoan izango diren bitartean.

(17) LATIEGUI, Vicente de; OÑATIBIA, Dionisio de, *Euskaltzalndia el batua y la muerte del euskera*, Lorea Artes Gráficas, 1983, 11. orr.

que cada vasco aprenda su propia Modalidad Euskérica, (por que ya, sin más, comprenderá las otras modalidades); b) esa unidad del Euskera *se perfecciona* dejando «intocada» a la Lengua tal cual es, pluriforme, y haciendo que cada vasco, además de conocer bien su propia Modalidad, profundice un poco en el conocimiento de las otras modalidades, para que sea capaz no sólo de entenderlas sino de hablarlas, al menos alguna de ellas”. (18)

6.3. STANDARDIZAZIOAREN ALDEKOAK

Standardizazioaren aldekoen artean sei dira ikusi uste ditugun irtenbide ezberdinak: a) gipuzkera edo gipuzkera osotuaren aldekoak; b) nafar-lapurtera literarioaren aldekoak; c) Ameriketako euskararen aldekoak; d) lapurtera klasikoaren aldekoak; e) euskara osotuaren aldekoak eta f) erdialdeko euskalkietan (gip., goi-naf. eta lap., alegia) oinarritutako hizkuntz-ereduaren aldekoak.

6.3.1. GIPUZKERA ETA GIPUZKERA OSOTUAREN ALDEKOAK

Gipuzkeraren alde agertuko zen ALTUBE 1946an Baionan irakurritako hitzaldian. Nolanahi ere, urte hori baino askozaz lehenagotik jotzen zuen standardizazioa ezinbesteko baldintzat eta, gipuzkeraren aldeko aukeraz argi eta garbi mintzo ez bazen ere, nabarmen azaltzen beraren isuriaren nondik-norakoa. Honela zioen, esate baterako, 1920ko abenduaren 28an egin zuen Euskaltzaindirako sarrera-hitzaldian:

“(…) idatz-izkeriak, eñjaren era askotako baiña esan-gura bardiñeko itz eta gramatikakijetatik, *bizitzarik sakon, sendo ta zabalena dabeenak aukeratu bear ditu*; ta bardiñean, oñetara nagositzeko jokeria dabeenak; auxe da, beti, geure gogoaren baru-baruan sartuta euki bear dogun jafaipi-dea.

Idatz-euskerarik egokijena, ezta beraz, aintxifia, eñjaz ufin bizi-tzeak il ziñuan izkera andizurenezkoen edertasun eta aberastasunen antzekoz jantzitakoa; ezta noski gure usteak edeñenentzat, garbijenentzat, txukunenentzat etsi leikeana; *ezta zeatzen edo zentzunenezkoen eretxi leikeoguna ere*; euskaldunik geijenen belarñjetan zear bigunen eta añukofen sartu leifekena baiño (...).

(18) LATIEGUI, Vicente de; OÑATIBIA, Dionisio de, *Euskaltzaindia el batua y la muerte del euskera*, op. cit., 112. orr.

(...) itz batez, tokirik geijenetako euskaldun jator geijenen artean zabalen, sakonen eta sendoen zustraifuta bizi diran izkerakijak zeintzuk diran azaldu, ikusi ta argiñu eta eurok izan daitezela idatz-izkeriaren gorputza osotu dagijenek". (19)

Eta beheraxeago:

"Ta azkenez gogoan euki daigun egi itzal au: gaur eguneko giza-artu-emonetarako, batasunezko eta eñjaz adiskide bizi dan idatz-izkerarik euskeraan aurkitzen ezpadogu, gura nai ez, erdereetara joko dogula danok, utsune ori beteteko. Sori txarez, egi itzal eta samin ofen ondorenak, lafegi ere agiri dira, daborduko ere, euskaldunon artean.

Baztartu bada buru-gogortasunok eta autu daigun geure idatz-izkera batasunezko ori, orokafori, geure izkera maiteau laister il-otzik ikusi nai ezpadogu". (20)

1946ko hitzaldian, euskarak, aldamenetako erdarekiko lehian aritu ahal izango badu standardizazioa nahitaezkoa duela adierazi ondoren, gainerako hizkuntzek urratu ohi duten bide bera proposatuko du honentzat ere:

"(...) no creo que haya para la supervivencia del euskera otro camino que (...): el de adoptar una de las formas de la lengua familiar para el uso común en toda la nación, extendiendo su uso, primero por el cultivo literario y luego, más paulatinamente, y en cierta medida, como lengua je hablado.

Así lo hicieron por ejemplo el Español o Castellano, a partir del siglo XIII; el Alemán y el Polonés entre el XIII, XIV y el XVI; el Italiano y el Portugués en el XVI; el Francés y el Inglés en el XVII; y últimamente el Ruso en el siglo XIX. Y en forma parecida procedieron todas las demás Naciones de Europa dotadas de una lengua propia o popular". (21)

(19) Euskera, II (1920-1921), I. zb., (3-49), 46-47. orr.

(20) Ibidem, 48. orr.

Salaketa berbera egiten zuen beraren lanik ezagunenatariko baten (ALTUBE'tar S., "La vida del euskera", Euskera, XIV (1933), IV. zb., (299-397), 382. orr.):

"(...) otro de los gravísimos errores del renacentismo euskérico radica en la falta de una idea directriz que conduzca paulatinamente a la *unificación* de la literatura euskérica. Si no nos sirviera de enseñanza la historia de la formación de todas las modernas lenguas literarias nacionales, el instinto de conservación debiera precavernos de la imposibilidad de luchar contra idiomas tan extendidos como el francés y el español, con una literatura euskérica dividida en tantas fracciones como dialectos presenta el idioma".

(21) ALTUBE, Severo de, La Unificación del Euskera Literario, op. cit., 183-184. orr.

Honako hauexek dira gipuzkerari, xede hori bete ahal izateko, ikusten dizkion abantailak:

“Que su situación geográfica favorece incomparablemente al euskaldia guipuzcoano, salta a la vista teniendo en cuenta su posición central, en medio de los grandes dialectos vizcaino, labortano y navarro.

En cuanto a las condiciones que presenta la estructura gramatical del guipuzcoano, no vemos que sean ni superiores ni inferiores a las de los otros euskaldis, pero aquél ofrece la ventaja de que como tal dialecto central es el que, tanto en su morfología como en su léxico, presenta las mayores afinidades con todos los demás considerados en conjunto.

Sobre tal elección, no aparece, pues, que debe de haber duda alguna: si procede unificar la literatura euskérica a base, como es natural y normal, de un determinado dialecto, éste no puede ser otro que el guipuzcoano”. (22)

Ez du hala ere ontzat emango Azkueren “Gipuzkera osotua”:

“El propósito es en principio conveniente y laudable: «completar» o «enriquecer» en lo posible el euskalki destinado al uso común, es una finalidad que no necesita ser encomiada.

En cambio, el tratar de «sustituir» elementos fonéticos, lexicales y sobre todo puramente morfológicos bien arraigados en el euskalki preferido, por otros elementos de igual significación procedentes de distintos dialectos y ello a causa de que estos últimos elementos pudieran considerarse como superiores o más perfectos bajo un título cualquiera, ese intento es mucho más discutible por las grandes dificultades que presenta su realización. Es indudable que en los casos de fijación de idiomas literarios comunes, siempre quedan elementos de la familia lingüística, de indiscutible valor, postergados (...)”. (23)

Inoiz, ostera, egoki ikusiko du beste euskalkien aberastasunez baliatzea, hala nola, erg. pl. *-ek* atzizkiaz; *bait-* subordinazio aurrizkiaz; nom. eta gen. arteko bereizketaz: “Aurra-REN garbitzea” (El lavar AL niño) ≠ “Aurra garbitzea” (El lavar-se EL niño) eta Azkuek berak ere Gipuzkera Osotua txostenean proposaturiko beste zenbaitetaz.

(22) ALTUBE, Severo de, *La Unificación del Euskera Literario*, op. cit., 190. orr.

(23) ALTUBE, Severo de, *La Unificación del Euskera Literario*, op. cit., 190. orr.

“Gipuzkera osotuaren” aldeko atera izan dira, bestalde, LABAYEN (24), IBINAGABEITIA (25), “ASPALDIKO” (26), AURRE APRAIZ (27), ARRUE (28)... Geroztik ere, Euskaltzaindiak bultzatutako “euskara batua” izeneko standard-ereduaren irtenbide alternatibo bezala proposatu izan du zenbaitek Azkueren “gipuzkera osotua”, hala noia: LABAYENek (29), ARENAZAK (30), EUSKERAZA-LEAK elkarteak (31), KARDABERAZ BAZKUNAK (32), etab.

(24) IBALAN, Euskera'ren batasuna, op. cit.

Azkueren Ardi Galdua; Tx. Agireren Añamendiko Lorea; Lhanderen Yolanda; T. Agirrerren Gazi-gezak eta Uztaro; A. Anabitarteren Usauri eta Donostia; J. Eizaguirrerren Ekaltzpean; J. A. Irazustaren Jontxio eta Bizia garratza da; Etxaideren Alos-torra eta Orixeren Euskaldunak eta Urte guziko meza-bezperak aipatzen ditu Labayenek standard horren eredu bezala. Aldizkarien artean, oster, Ibalzabal eta Argia.

(25) Halaxe dio berak argi eta garbi (IBINAGABEITIA'tar Andima, Kultur-bidean, op. cit., 239. orr.):

“(…) Gipuzkera, geienen aburuz, izkelgi bakartzat autu ziguten, arrazoi asko zeudelako izkelgi orren alde. Azkue, Olabide, Orixe, Zaitegi, Altube, orañarte izan ditugun idazle yator eta azkarrenak, bide ortatik oldartu zitzaizkigun. Bost aipatuetarik bat ere ez duzute gipuzkoar, izkelgiz beintzat. Argi ikusi zuten ortik zetorkela yarebidea. Nik ere aspaldi artu nizun gipuzkeraren bidea, naizta gipuzkoar izan ez. Zertako zapuzu bear ote dugu bide ori?”

(26) “(…) Azkueren “euskera osotua” auzia ondoen erabakitzen dula nago. Egiz, Bidasoz onuntzkoak gure txokotik “erdibidera” atera gera. Aruntzkoek beste orrenbeste egin dezatela ta alkartasuna bidean eginen dugu. Axular eta Mendiburu ez daude elkarrengandik ain urrun eta bien artean dago batasunarentzat leku autu”. (ASPALDIKO, Euskeraren Batasuna, op. cit., 154. orr.)

(27) “Lapurdera yatorraz asi dira, orain, emen Bizkaia'n iru-lau. Era ontara idatzi omen zan lenengo euskal-liburua eta ori ei-da ar bear genuen bidea, gutxi batzun eretziz. Zein eratara lenengo idatzi zan barik, zein erak artu dun indarnik geyen, eta batasunerako zein dan egokiena begiratu ko ba-lie obe. Nere ustez, bizkaieraz eta gipuzkeraz idatzi da geyen, eta bi oneik dagoz elertian indartsuen. Baina bizkaierak besteekandik aditz berdingea dunez gero, gipuzkera, besteekandik edertu-ta, genduke egokiena danoentzako”. (AURRAITZ, “Gutum agiria”, E-G, V (1954), 11-12. zb., (186-187), 186. orr.)

(28) “Batasun ortarako, zabu egin gabe, euskalki bi artu bear giñuzkela oñarrizat, derizkiogu: Gipuzkoakoa ta Lapurdikoa.

Onelatsu zioten orain ogeita amabost urte Campion eta Broussain euskaltzainak (...).

Baña gure ustez, xede ontarako, Lapurdiko izkeraren gañetik Gipuzkoakoari eman bear zaio aurreratasun gutxi bat bederik. Zeatzago ta dotorexeago esango degu. Gure aburuz, oñarrizat gipuzkera artu bear da, ta giltzarritzat berriz lapurdiera. Ta gero osatu gure itz-etxea beste euskalkiez, batez ere Bizkai-aldekoaren giartasunaz. (...)” (ARRUE, Antonio, “Euskeraren batasuna”, E-G, VII (1956), Epaila-iorraila, (62-76), 74. orr.)

(29) LABAYEN, Antonio M^o, “Sasl-batasuna”. Mala letra y peor espíritu de una pseudo unificación, Gráficas López-Mendizabal, Tolosa, 1972, 12. orr.

Labayenek, azken urteotan, atzera egingo du bere erizietan, “gipuzkera osotua” “euskara batua-ekin” berdintzera helduko delarik. Ikus, esate baterako, El Diario Vasco egunkarian argitaratutako artikulua: “La vida del euskera y sus problemas” (1982-08-04an) eta “Pake bidea” (1982-08-19an). Ikus, halaber, beraren Alternativas para una factible unificación y desarrollo del euskera, Donostia, 1984, 27. orr.

(30) ARENAZA, J. de, Tus hijos y el euskera. (El mito del “batua”), Bilbao, 1974, 28. orr.

(31) Ikus, esate baterako, Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra zela eta aurkeztutako agirian: “Araba, Bizkai ta Gipuzkoa'ko euskerazaleak Euskaltzaindiari”, Euskera, XXIV (1978-2), 791-793. orr.

(32) Ikus hauen agiria: Euskera, XXIV (1978-2), 795. orr.

Nolanahi ere, ez dirudi eguneroko jardunean Azkuek behin eta berriro erakustera emango zuen ereduua oso aintzakotzat hartua denik. Horixe da, gureaz gainera, auzi honetan batera susmagarri ez den Lino Akesoloren (AKESOLO, L., “Batasunera bidea eta Kardaberazarrak”, Kardaberaz (1975), 4. zb., (39-41), 40. orr.) eritzia:

.../...

"GIPUZKERA OSOTUA"-REN GAINBEHERA

Proposamen honek, berez oso zentzuzkoa iruditzen zaigun arren (33), ez zuen luzera begira arrakasta handiegirik erdietsiko. Lau dira porrot horretan ikusi uste ditugun arrazoi nagusiak: a) eredu hau behar bezain zehatz arautua ez egotea; b) (zenbait) idazle giputzen jarrera; c) euskal literatura zaharra behar den neurrian aintzakotzat ez hartzea eta d) laguntzarik eta babes ofizialik eza (34).

R. M^a de Azkuek, bai lan teorikoetan (Prontuario eta Euskera Osotua) eta bai berariaz idatzitako zenbait literatur lanetan (Latsibi, Ardi Galdua...) argi asko erakutsi bazuen ere zein zen bere hizkuntz-eredura iristeko errepidea, ez zuen eredu hori ondorengoez ikasi eta irakatsi ahal izateko moduan sistematizatu eta zehaztu eta, ondorengook, euskara bere osotasunean Azkuek bezala ezagutzen ez zutenek, bakoitzak bere erara jardungo zuen bide zabal horretan, Azkueren eredu bakarra anitzetan zatikatuz joango zelarik. Literatura zaharra alde batera uzteak (35), bestalde, areagotu baizik ez zuen egingo joera zatikatzaile hori, azkenorduko fonetismo eta berrikuntzei leku eroso eskainiko zitzaielarik.

Idazle giputz askoren jardunean (36), hirugarrenik, "gipuzkera osotua" gipuzkera hutsarekin berdintzeko jarrera azaldu da maiz (37), honen ondorioz beste al-

.../...

"(...) Geien batez, Kardaberazarren artean bakoitzak bere bideari jarraitzen dio. Atera dituzten liburuak ikustea aski da. Batzuetatik beste batzuetara alde nabarmena ez al dago? Zergatik orri? Bear bada, ez zaio ifori bere eskubidea moztu nai izan. Bear bada, beste asmo batek eragirik jokatu da orrela (...). Ala ere nik uste dut ez dutela lan batzuek beren kutsua galduko, orrazketa puskarren bat egiñez. Esaterako, zergatik idatzi *zurigo*, *geigo*, eta ez *zuriago*, *geiago*? Batasunerako bidean sartu nai badugu, nik uste dut olako laburpenak utzi egin bearko dirala".

- (33) Euskalki hau hiztunik gehienek -bizkaierarekin batera- erabilia izatea; erdialdekoa izanik euskaldunik gehienek hobekien ulertua izatea; aski literatura aberatsaren jabe izatea eta XVIII. mendeaz geroztik -Hegoaldean behinik behin- bereganatutako prestigioa dira -XX. mendean euskalki hau standard- eredutzat proposatuko duten guztiek aho batez aitortuko duten bezalaxe- aukera honen aldeko oinarritzko arrazoiak.
- (34) Babes ofizialik ezaz gainera esan behar da Azkuek ez zuela jarraitzailek ere izan, Arana-Goñik, adibidez, izan zuen bezala. Azkue bera zen "gipuzkera osotua".
- (35) Azkueren beraren lanak izango dira, azken batean, literatur eredu bakarrak.
- (36) Oharkabeko jardunean ezezik argi eta garbi aditzera ere eman izan da jarrera hau, Gáscueren (GASCUE, E., "El renacimiento del vascuence", Euskal-erria, XXVII (15-10-1907), nº 946, (288-294), 291. orr.) hitzotan nabari denez:

"He creído advertir en algunos escritores guipuzcoanos (perdón si blasfemo sin querer) cierta propensión á introducir en sus escritos palabras y hasta giros de otros dialectos, como el labortano, por ejemplo, ó el que se habla en el duranguesado.

Si esto es así, no van por buen camino. No hace mucho me hacía notar el distinguido bascófilo Campián, que el guipuzcoano era un dialecto invasor, cuya influencia se iba extendiendo sin parar, aunque lentamente, en gran parte del país euskaro. ¿Por qué esa invasión? Pues precisamente por lo que antes he dicho: porque el dialecto guipuzcoano, tal como se emplea en Tolosa y sus alrededores, es, de todos los vascongados, el más claro, el más diáfano, el más inteligible y el más armonioso. Lo fácil vence, aun dentro de la región y debe vencer.

Por tanto, los escritores guipuzcoanos, deben poner, á mi juicio, el mayor esmero en conservar puro su dialecto. Con ello harán un gran bien á todo el país. Nada de buscar palabras y giros en dialectos distintos al nuestro, sino cultivar este con predilección, para que, propagándose por ley natural, la difusión del vascuence se consiga de modo más rápido".

- (37) Jarrera hau, behar bada, guztiz zuzena eta onargarria izan ez arren, logikoa da hala ere, gipuzkeraren prestigioari esker ondo bait dakite gipuzteak, Mitxelena aspaldi azpimarratu zuenez (ikus orain:

.../...

derdietako idazle eta euskaltzaleengan –bizkaitarren batez ere– proiektu horrenganako susmo txarrak piztu direlarik. Ugariak eta adierazgarriak dira giputzen jarrera honen aurrean egin izan diren salaketak. Ibinagabeitia bizkaitarrak, adibidez, “gipuzkera osotuaren” aldeko agertu ondoren ohar hau egingo zuen:

“Izkelgiz gipuzkoar yaio diranei oartxo bat egin nai nieke bukatu baño len. Gipuzkoarrak erakutsi digute ontan ere targorik zoroena. Akademiak aspaldi erabaki zun aditz laguntzallean DUT, DUZU ta urrengoak erabiltzeko, *det* eta *dor*’en orde. Orra, gipuzkoarrak oraindik agindu aditzeratara malgutzeke; beti ere beren zorigaiztoko DET erabilki agertzen zaizkigu: orrela Etxaide, Aspaldiko, Mitxelena Salvatore, Lopez Mendizabal, Amillaitz, Antxeta eta abar. Yaunak, zuek ere ikasi ezazute zuenetik zerbait uzten batasunaren onerako. Besteok askoz ere erauzketa aundi ta mingarriagoak egin bear izan ditugu zuen izkelgi ederrari indar emateko”. (38)

Antzera mintzo zen Eusebio Erkiaga bizkaitarra 1953ko uztailaren 21ean Onaindiari egin gutunean:

“Hontaz, badakizu gure arteko betiko eztabaidak. Giputzak beti giputz bakarrik. Osotasuna, edota batasuna euren euskalkiz nahi dabe, eurak ezer aldatzeke, eta nekhatzeke. Besteok gara nekhatu eta ikasten saiatu behar dugunok”. (39)

Berdin Aurre-Apraizek, bizkaitarra hau ere:

“Bizkaitarrok naste-zale geran bezin burukoi dira giputz asko, Mikel.

Eurena edertutzeko ere ezin dute eda egorik alboetara. Eurena utsitsik da ona, antza. Onak dagoz orreik guk bezela geurea utzi eta auzokoa artzeko.

.../...

ALTUNA, Patxi, Mitxelenaren Idazlan hautatuak, Mensajero, Bilbao, 1972, 123-124. orr.), inor inoren euskalkira makurtzekotan besteak eurenera, eta ez eurak besterenera, makurtuko direla. Horixe bera egiaztatzen du, esate baterako, Alvarrek (ALVAR, Manuel, “Un problema de lenguas en contacto: la frontera catalo-aragonesa”, *Teoría lingüística de las regiones*, Planeta, Barcelona, 1975, (47-62), 50. orr.) Katalunia eta Aragoa arteko hizkeretan ageri diren interferentzien nondik-norakoa azaltzerakoan:

“(…) Este principio es fundamental y debiera tenerse en cuenta siempre que se trate de estudiar el sentido de una determinada penetración: de lo que el hablante crea que es su lengua, de la actitud que adopte ante ella, dependerá en buena manera su permeabilidad para aceptar o no los elementos extraños”.

Erabakiorra gertatu da arlo honetan Uriel WEINREICHEN *Languages in Contact* liburua (Gaztelaniaz badago: *Lenguas en contacto. Descubrimientos y problemas*, Ediciones de la Biblioteca de la Universidad Central de Venezuela, 1974).

(38) IBINAGABEITIA 'tar Andima, *Kultur-bidean*, op. cit., 239. orr.

(39) ONAINDLA, S., *Eskutitzak*, op. cit., 15-16. orr.

Gipuzkoar batek esan zidan bein: "Orixe'ren "MEZA-BEZPERAK"ren euskera gipuzkoarrei zail egiten zaie". Lotsagarria, Mikel. Gipuzkoar-kin inoiz ibili ez dan edozein bizkaitarrek ulertuko luke, eta giputzak, eurak, ulertu ezin..." (40)

Erabatekoago agertuko zen 1964ko beste artikulu baten:

"Aldi atan, jo ta kee ekin bere ekin neutsan ba ari ["gipuzkera oso-tuari", alegia], bide ari, beste guztiak bere araxe joko ebelakoan. (Etxaide'k berak bere auxe uste eban orduan...). Ezkengozan txarrak. Dana dala, kipuzkoarren aditzak ikasi nituan (...). Aittetu dodan neure adiskide zintzoa ta besteren bat edo beste ezik, kiputzak euren zorioneko *det-i* deutsela jarraielatzen ikusten nituan, tamalez, *nebeari anaia*, *atzamarrerri beatzak*, *bekokiari kopeta* eta abar gogaikarriro idatziaz; eta, "guk geuk geurea osorik itxita besteak ezin eurenetik apurtxurik bere baztertu, batasunaren onarren, egokiagoak artzeko?" esan neban neure kolkorako. Orrexegaitik eta beste zio batzukaitik mingostuta, itxi egin neban, ba, kipuzkera osotua. Eta ganera (...) bizkaierari eldu neutsan barrien-barri, gogokotasun itzelez, leen baifto be sutsuago". (41)

Arazoia emango zien honetan Mitxelena bizkaitarrei 1959ko Euskalzaleen Biltzarren barruan izandako eztabaidetariko baten:

"(...) Gipuzkoan zenbaitek, gipuzkera osotua izango zala etorkizuneko euskera esan zuten ezkerreko, uste dut ori aditu dugula era onetan: Euskaldun guztiok jo bearko dute guk gipuzkoarrok nai dugun bidetik. Jaki-fia, Azkue-k gipuzkera osotua esaten zuenean etzuen ori esan nai, bai-fia ori da guk artu dugun era. (...)" (42)

Urtebete lehenago Bilbon izandako Euskalzaleen Biltzarra-n, berriz, idazle giputzek edozein batasun asmoren aurka zihoazen txokokeriez baliatzeko erakusten zuten joera salatuko zuen:

"(...) Ni giputza naizen aldetik, naiz ez izkeraz giputza izan, gauza bat esan bear dut: izugarrizko pekatu bat egiten ari gerala gipuzkoarrek azken bolada ontan ikako formekin. *Gatxabiltzek* eta orrelakoak Gipuzkoako txoko batean bakarrik erabiltzen dirala. Euskaldun guztiak *giabil-tzak*, *gebiltzak* edo olako formak erabiltzen dituztela. Beraz, *gatxabil-tzek*, *naxetorrek* eta oiek lokalismo estu estuak dira Gipuzkoan. Eta nik ez-tut uste gipuzkoarrok, nik neronek ere ez-titut erabiltzen eta gure inguruan ez-tira erabiltzen, eskubiderik dugunik forma oiek euskaldun guztiai zabaldu nai izateko. (...)" (43)

(40) AURRAITZ, Gutun agiria, op. cit., 186. orr.

(41) AURRE-APRAIZ, Batasuna dala-ta, op. cit., 49. orr.

(42) Euskera, V (1960), 90. orr.

(43) Euskera, IV (1959), 171. orr.

Erants dezagun, amaitzeko, giputzen jarrera hauxe izango dela, Oskillaso, "gipuzkera osotua" bertan behera utzi eta "euskara osotua" aldarrikatzera bultzatuko duen arrazoiatariko bat hala Kurloiak liburuaren hitzaurrean (44) nola Mitxelena-ri zuzenduriko artikulua baten (45) aitortuko duenez.

6.3.2. NAFAR-LAPURTERA LITERARIOAREN ALDEKOAK

Lapurtera klasikoaren indarra eta prestigioa suntsituz joan den heinean literatur-euskalki berri bat garatu da Iparraldean bertan ere (46). XIX. mendetik abian datorren euskalki hau arautzeko ahaleginik nabarmenena 1944an Lafittek argitaratzen duen Gramatika dugu. Beronen hitzaurrean honako hau irakur dezakegu:

"Mais d'une façon plus ou moins inconsciente, les nouveaux écrivains ont, depuis soixante ans, dans le cadre d'une morphologie à peu près labourdine, introduit de nombreux éléments navarraux et même des vestiges de souletin. Aussi la lecture du journal *Eskualduna*, de la revue *Gure Herria*, ou des oeuvres de Abbadie, Barbier, Etchepare, Apes-

(44) OSKILLASO, *Kurloiak*, Ixaropena, Zarautz, 1962, 9-31. orr.

(45) OSKILLASO, "Ihardespen bat Mitxelena jaunari", *Egan*, XXII (1963), nº 4-6, 162-181. orr.

(46) Gertaera hau, gure eritzian, Iparraldeak azken mendeotan bizi duen hondamendi ekonomikoaren ondorio zuzena besterik ez da Etchepareren (ETCHEPARE, J., *Euskeraren batasunaz*, op. cit., 347-348. orr.) hitz hauetan soma daitekeenez:

"Hamar, hamabi urthe bethe artio, ez du eskuararen bertze erakaslerik, aitamak eta apeza baikik; han-hemenka eta chistez, eskualdunak balin badira, eskolemaileak. Bi eskuarazko liburuño doidoi derabiltza eskuetan, katichima eta mezakoa; batzutan hirugarren bat, elizako kantuak dakartzan hura. Ohartzen da noizbait, eta lotzen aitamek igandetan erosi astekariari (journal hebdomadaire). Urthasetan gogoz iresten du almanaka. Noiztenka merkatutik ekartzen daizkote neurtitez betherikako paper batzu. Tokitan aditzen ere ditu neurtizleak (poètes improvisateurs), dela pastoralara, dela toberetan. Eskuarazko eskutitz (letra) zombait irakurtzen du; eskuaraz bera idazten (izkiriartzen) hasten ere da.

Handitzearekin, eta biziak diraukono, bethi sail berari dago, ez baitu bertzerik. Emaztekieen eskuetan ikus ditezke bizkitartean, noizetik noizera, elizako liburu berezi batzu.

Horra eskuarazko jakintza guziaren ithurria eskualdunaren baithan. (...)"

Gaitz bera salatzen du Villasantek (VILLASANTE, P. Luis, "En torno al problema del vascuence", *Aparte de Cantabria Franciscana* (1951), nº 8, 16. orr.) ere:

"(...) Respecto a la literatura vasco-francesa, que no se ha preocupado de superar este plano popular, creo que hay que tener en cuenta que el nivel social de las dos Vasconias es muy distinto. Allí, en efecto, el pueblo vasco se conserva en un estado más patriarcal y primitivo: caseríos de labradores, etc.; fuera del clero, no existe otra clase socialmente distinguida. Por ello es natural que no se haya sentido inquietud por transcender en la literatura de este plano ínfimo. Aquí es muy diferente: el progreso moderno ha afectado profundamente a nuestra sociedad: existen núcleos de población muy crecidas, hombres de carreras, poderosas industrias y actividades de todas clases. (...)"

téguy, etc., révèle-t-elle la naissance d'une langue littéraire commune à presque tout le Pays basque continental et que l'on pourrait appeler "néo-labourdine", ou plus précisément "navarro-labourdine". (47)

Euskalki hau emeki-emeki indartuz eta hedatuz joango da Ipar Euskal Herrian gaindi Lafittek berak oharteraziko digunez:

"(...) Depuis 1944 un nouvel hebdomadaire, *Herria*, essaie d'appliquer la même formule [Eskualduna aldizkariarena, alegia] au service d'un programme plus jeune. On a calculé qu'il atteignait trente mille lecteurs: c'est une force dans un Pays aussi minuscule: car il est surtout lu en Basse-Navarre et Labourd: à peine 375 exemplaires pénètrent en Soule. Il est écrit en langue traditionnelle, que les grecs appelleraient «démotique», sans préoccupations académiques, avec un certain souci de clarté élégante, mais surtout le désir de passionner le public «pour ou contre»: (...) l'essentiel, c'est que tous lisent le basque". (48)

Berdin Arotçarenak ere:

"(...) une sorte de "koiné" est en train de s'établir dans tout le Pays basque continental. Grâce aux publications actuelles, les Basques, -de Hendaye à Sainte-Engrâce et d'Arraute aux Aldudes-, lisent tous et comprennent une langue littéraire, dite *navarro-labourdine*. (...)

Sera-ce le basque de demain? Sans doute, «l'avenir est à Dieu». Mais, dès à présent, c'est là l'idiome qu'adoptent les Basques qui, soit par la parole, soit par la plume, travaillent à propager des idées ou à livrer leur âme". (49)

Euskalki honen sorrerak, hala ere, euskararen -euskara bere osotasunean hartuta- standardizazioari eta euskaldun guztien arteko ulergarritasunari begira, izan ditu bere akats eta alde makurrak ere, Villasantek aspaldi salatuko zuenez:

"(...) euskaldun guztientzat idazteko ardura hori aspaldiko idazle laphurtarr denetan nabari da, eta izan ere hekien euskara hemengo euskaldunentzat egungo laphurtarrena baino errezago ta adikorrago bihurtzen zaiku. (...) Egungo idazle laphurtarrek, aspaldikoen oro-ardura eta zabal-tasun hori ahantzirik, nor bere zoko ta eskualdeko berezitasunei lothuak hari direla dirudi, baino nahi dugun xederat heltzeko bide okherria litzate-ke hau". (50)

(47) LAFITTE, Pierre, *Grammaire basque...*, op. cit., 6. orr.

(48) LAFITTE, Pierre, "La langue basque de 1939 à 1947", *E-J*, I (1947), (9-18), 11. orr.

(49) AROTÇARENA, Abbé, *Grammaire basque...*, op. cit., X. orr.

(50) VILLASANTE-KORTABITARTE, Aita, *Literatur-euskara laphurtarr klasikoaren gain eratusa*, op. cit., 266. orr.

Berdin mintzatuko zen urte batzuk geroxeago (VILLASANTE, Fr. Luis, *Hacia la Lengua Literaria común*, op. cit., 41. orr.):

.../...

Berdintsu mintzatuko zen Mitxelena 1958an izandako Euskalzaleen Biltzarra-n:

“(…) Herria-n gauza bat ikusten dut, alegia gure Krutwig-ek esango zukean bezala, populismo geiegi. Esan nai dut Lapurdiko euskera beti izan dala an nagusi literaturaren aldetik, eta beti idatzi dute (...) *naiz* ta olakoak, eta orain denak *niz*, eta *gazkio* baiña ez *gitzazkio*, errezago iruditzen zaielako. Beraz ortan erri-izkeran piska bat bear dan baiño geiago berrikeria emaiten diotela Herria-n. Nik ala esango nuke”. (51)

Kritikarik gogorrenak, baina, Krutwigek egotziko dizkio:

“(…) Phenagarria eta deithoragarria da egun Lapurdin ikhusten den “baxenabarren” ekhitea. Haukiek beuren iakituriaren ezaz hemen euskarak zedukan kultur-bidearen izaiteko prestutasuna eta kultur hizkuntzaren batasuna ezerezten baititute. Hunela bada iakiteke euskararen ehortzaile bilhakutzen dira baxenabar dialektuaren iarraitzaleak (gira-zirazaleak alegia). (...)” (52)

(...)

“Oraiko baxenabarrara zaleen tendentzia zorigaiztoko eta ondikozko ekhintza dela erran dezakegu zeren-eta Kontinenteko Euskalherrian hunelako populisten ekhintzaz antxinadanik zethorren literatur hizkuntzaren tradizinoa hautsi izan baita. (...)” (53)

“(…) Batzuetan tendentzia huntan eztakigu zer den kausa eta zer den ondorioa... eztira euskaraz kultur-arazoci buruz mintzatzen, praktikarik ezpaitute... eta nehoiz ere praktikarik eztute ukhanen, zeren eta euskaraz kultur thematei buruz mintzo ezpaitira. (...) Aldra hunen euskalzaleentzat euskararen izkiriatu formaren batasuna ezta problematik, zeren heien kultur bidea erdara baita. (...)” (54)

.../...

“(…) Los actuales escritores bajo-navarros, sin abandonar del todo la antigua tradición labortana, han introducido en la lengua escrita bajo navarrismos sin tradición literaria, localismos, etc. en proporciones masivas. (...)”

Es un hecho que para la inteligencia general de los vascos de aquende el Pirineo, la ruptura de la tradición antigua lejos de ser un paso adelante, ha sido dar marcha atrás. Mucho más cercano y comprensible nos resulta el labortano antiguo que no este novísimo dialecto, impregnado de localismos sin tradición. (...)”

(51) Euskera, IV (1959), 171. orr.

(52) KRUTWIG, Federico, “Euskararen ethorkizuma”, Egan, XX (1962), nº 1-3, (19-33), 23. orr.

(53) Ibidem, 26. orr.

(54) Ibidem, 29. orr.

Krutwig luzaz mintzatzen da honetaz 1951ko apirilaren 19an eta urte bereko maiatzaren 20an Orixerri egin gutunetan (Bilboko “Azkue” Bibliotekan aurkitzen dira gutun hauek) eta bai Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito, 10. orr. txosten argitaratu gabean ere. (Ikus hau ere “Azkue” Bibliotekan).

6.3.3. AMERIKETAKO EUSKARAREN ALDEKOAK

1933an argitaratutako *Los inmigrantes prósperos* izeneko liburuan Bonaparte Printzeari gertatutako anekdota honen berri eman zigun Grandmontagnek:

“(…) Luciano Bonaparte fué uno de los pocos euscarófilos que pudo entender a todos los moradores de ambas vertientes pirenaicas. Pero un buen día nuestro príncipe oyó hablar a un vasco de Bayona un vascuence que no estaba en sus libros, un lenguaje para él desconocido geográficamente, y le interrogó:

– ¿De dónde es usted?...

– De los Alduides.

– Pero en los Alduides no se habla ese vascuence. Usted mezcla muchas palabras vascas de otras partes.

– Así hablamos en Buenos Aires.

– ¡Cómo!... ¿Un vascuence de Buenos Aires? –exclamó Bonaparte-. No comprendo; no es posible. ¿En Buenos Aires se ha formado un nuevo vascuence? Es decir, lo que habla usted no es nuevo; es todos los vascuences reunidos”. (55)

Gertaera honetan oinarriturik nonbait, eta Grandmontagnerengandik berarengandik hasita, Ameriketako euskara hau euskara standarderako eredutzat proposatu izan da.

“(…) La necesidad y el contacto establecen la mutua comprensión, y es posible que el vascuence, unificado en esta forma, sea más perfecto, más lógico, más natural que el formado artificialmente por las academias y los eruditos, lenguaje, sin duda, muy científico, pero que no logra circulación en el pueblo, que es quien mantiene vivas todas las lenguas”. (56)

(55) GRANDMONTAGNE, Francisco, *Los Inmigrantes prósperos*, Aguilar, Madrid, 1960, 382-383. orr. (Ikus, orain, pasarte hau euskaraz: FAGOAGA, Isidoro, “Printze euskalzale bat”, *Egan*, XXXV (1975), 3-12. orr.).

1880 inguruan datatzen du gertaera hau, orduan, Buenos Airesko esne-banaketa euskaldunen monopolioa omen zelarrik, lurralde eta euskalki ezberdinetako hiztunak biltzen bait ziren bertan. Honako hauxe erantsiko du jarraian (ibidem, 385-386. orr.):

“Intrigadísimo el príncipe por aquel nuevo vascuence, o vascuence unificado, lo estudió también, pasando luego una comunicación a las sociedades sabias, en que daba cuenta del nuevo hallazgo lingüístico. (...)”

(Ez dugu, zoritxarrez, Bonapartek egin omen zuen txosten hori ezagutzerik izan).

(56) GRANDMONTAGNE, Francisco, *Los Inmigrantes prósperos*, op. cit., 385. orr.

Oinarri berau proposatuko zuen Justo Gáratek:

“Menos hablan en este sentido y más han construído los emigrantes a la Argentina, que han hecho sin habérselo propuesto un euskera standard, el que el Príncipe Bonaparte llamaba dialecto de Buenos Aires, sobre la base del de Tolosa y con léxico de todos los dialectos hasta labortano y bizkaino, desapareciendo el *iketán* y los verbos masculino y femenino, no reavivando los sintéticos muertos y dándonos un bello ejemplo de lo que debiéramos hacer aquí en Euskaria”. (57)

Orixek ere, 1950ean argitaratutako **Euskaldunak** liburuan, ontzat ematen zuen, itxura baten behintzat, asmo hori, nahiz eta sakonean lapurteraren alde ari zela dirudien:

“(…) gauza bat gogora zait: euskerarik elkartuena Ameriketara egiten dutela nago, ta erriak beure buruz ipintzen dun oinarri au ona dirudit diteken batasunerako edo diteken elkartasunerako. Napar-euskaldunekin bizi izan diran giputz amerikanoek napar-euskera artzen dute. (…)

Laphurtarrekin an bizi izan diran naparrak ordea, beurena utzita Laphurtarrena artzen dute. (…)” (58)

Erabatekoagoa da Labayen:

“Gipuzkera osotua deitu zion Azkue ospetsua k baifian beste izenez deitu genezaiok *“Amerika-euskera”*. Bai, Amerika n egin izan bait da *“akademerik”* gabe euskeraren batasuna. Ara bizitzera joan ziran euskaldunak eta aien semeak ederki ulertzen zioten elkarri. Uste gabe, oartzeko, Amerika n bizi izan diran Bidasoz bi aldeko euskaldunak izkera bakar orretara jo dute. Sorterrian gelditu geranok ar zagus guretzat asmo ori. *“Amerika-euskera”*. (…)” (59)

Ameriketako euskara hori ezagutu nahian egin ditugun ikerketek, ostera, bestelako ondorioetara eramán gaituzte. Alde batetik, euskara horri buruzko emaitza zehatz gutxi bildu ahal izan dugu (60). Ezagutu ditugun argibideek, bestalde, berri

(57) GARATE, J., “Segunda contribución al Diccionario Vasco”, RIEV, XXIV (1933), (94-104), 104. orr.

Ohar bera egingo zuen bi urte beranduago baina, oraingoan, Baztango hizkera omen zen, eta ez Tolosakoa, Buenos Airesko euskara horren oinarria:

“Esta observación [euskaldunek erraz elkar ulertzen dutelakoa, alegia] se ha hecho con frecuencia en la Argentina y en los Estados Unidos de Norte América, habiendo yo conocido vizcaíno que volvió hablando baztanés. A esto llamaba el Príncipe Bonaparte dialecto de Buenos Aires”. (MOGUEL, Juan Antonio, *La Historia y Geografía de España...*, op. cit., 262. orr.).

(58) ORMAETXEA, Nikolas, *Euskaldunak* poema, Ixaropena, Zarautz, 1950, 10. orr.

(59) IBALAN, *Euskera'ren batasuna*, op. cit., 28. orr.

(60) Salbuespen urri horien artean WILBUR, Terence H., “The Phonemes of the Basque of Bakersfield, California”, *Anthropological Linguistics*, Indiana University, 3 (1961), 8. zb., 1-12. orr. edo oraintsuago argitaratutako beste hau: ETXABE JAUREGI, Jon Joseba, “Estau Batuetako Idaho Estatuko euskararen azterketa”, *Euskera*, XXX (1985-2), 377-387. orr. aipa litezke.

kontrajarriak ematen dizkigute maiz eta, azkenik, bada koinè horren sorrerari egiantz handiegirik ematen ez dionik ere (61). Nolanahi ere den, ez dirudi Ameriketako euskara hori standardizaziorako eredurik egokia izan daitekeenik.

(61) Ameriketarrak eura dira, gainera, erabatekoenak honetan. Honelaxe mintzo zen 1958an Garriga (GARRIGA, G., "El Euskera en América", BIAEV, IX (1958), nº 33, (67-79), 75. orr.) Ameriketako euskararen egoera zela eta:

"(...) el dialecto de casi todas las publicaciones euskéricas en América es el guipuzkoano, porque los vascos de las demás regiones peninsulares han convenido en usarlo —siguiendo los deseos de Euskaltzaindi— como único literario, no por otro motivo que por ser el central y el que nos pone en fácil comunicación no sólo con los bizkainos, sino con nuestros hermanos norpirenaicos. Aparte de que los más de los autores de ellas son por nacimiento pertenecientes a ese dialecto.

Es de advertir que los vascos surpirenaicos excedemos con mucho, aquí, el número de los norteños, y entre éstos, dueños de tan acreditados y bellos dialectos, casi no han existido en América, publicistas hasta la fecha. (...)

He captado alguna vez la especie volandera de que se había forjado en la Argentina un dialecto vasco a base del bajo-nabarro.

Es mucho decir. Desde luego que no existen escritos en tal dialecto. ¿Es que se utiliza sólo en la conversación? ¿Pero, entre quiénes? No sabemos de vascos norteños que lo empleen".

Berdin Vicente Aguirre (AGUIRRE ACHURRA, Vicente, "El euskera en la República Argentina", BIAEV, XXXIII (1982), nº 131, (126-130), 126. orr.), 1982an Buenos Airesko "Euskaltzaleak" elkartearen presidente zelarik eginiko hitzaldi baten:

"Es sumamente atrayente ver que entre los compañeros del Príncipe Bonaparte, euskérologos eminentes, había la idea de que además de los siete dialectos literarios del euskera conocido, había otro, argentino o vasco-argentino. Sin duda que estaban equivocados. Porque, es verdad que en la Gran Aldea, como se la llamaba entonces a Buenos Aires, el Barrio de Constitución, al sur de la ciudad, estaba poblado de vascos, en su mayor parte euskeldunes. Y todavía era mucho más extendido el euskera, si nos fijamos en el campo argentino. En los primeros años del siglo XIX, era corriente hablar euskera en las zonas lindantes a las tierras pobladas de indios y donde instalaban sus tolderías. (...)

Esa presencia vasca procedía de distintas regiones de Euskalerría. En épocas la inmigración era norpirenaica, otras veces, era del sur, predominando vizcainos. En otras épocas, mediados del siglo XIX, eran de guipuzcoanos, y de navarros. Esta mezcla de dialectos que cada uno traía, le obligó a los euskeldunes a reducir sus vocablos empleando un mínimo de aquellos que pudieran entender los euskeldunes de cualquier dialecto. De esta forma nació un euskera en el que existían vocablos de todos los dialectos con los que se entendían perfectamente. Al conocer en Europa laburdinos, utilizando vocablos vizcainos, y a navarros y guipuzcoanos, empleando en la conversación palabras y expresiones zuberotarras, todos ellos residentes en la Argentina, los euskérologos llegaron a pensar que allí en Buenos Aires se hablaba otro dialecto distinto. Sin duda que la necesidad obligaba a los hombres euskeldunes, sobre todo en el campo, a entenderse, porque no hablaban otra lengua. (...)"

Eta beheraxeago (ibidem, 128. orr.):

"(...) Entre los años 1920 a 1950 se dejó de utilizar el euskera en Argentina casi en un 50 por ciento de la población euskeldun. Todavía en esos momentos se podía encontrar grupos y mesas en los establecimientos públicos hablando euskera. Hoy en cambio el euskera es excepción. Muchos de los padres, también desaparecieron, como los abuelos, y las nuevas generaciones saben y conocen el euskera pero no saben hablarlo y en los hogares con gran tristeza observamos que desaparece, aunque reconocemos que esos nietos tienen y aman su solera e identidad vasca, tanto o más que en Euskalerni. (...)"

.../...

Egiatzatzeko aukerarik izan ez dugun Bonaparteren aipatu txosten horretaz landara, Aranzadik, 1900. urtean burututako "Congreso Internacional de Estudios Vascos" delakoan irakurriko zuen gutuna da "Ameriketako euskara"-z eskuratu dugun albiste-iturririk zaharrena:

"(...) Los que buscan su modo de vivir en el campo dedicándose á la labranza ó el pastoreo suelen conservar el uso del euskera, que transmiten á sus hijos y se observan en él modificaciones muy curiosas: como los inmigrantes que se encuentran próximos unos á otros no proceden precisamente de la misma aldea, ni del mismo valle, ni siquiera en muchos casos de la misma provincia dialectal, cada uno empieza por hablar según su dialecto y acaba por sentirse influido por los otros dialectos; de aquí resulta en la colonia una especie de fusión de los dialectos, que en parte parece que ha de contribuir á la corrupción de cada uno, pero que en realidad origina un fenómeno muy distinto, y es la mayor riqueza en palabras castizas; porque además del aumento de sinónimos procedentes de los diferentes dialectos, cada uno de ellos, en aquellas ideas en que por falta ú olvido de palabra vasca usaba una extranjera, al encontrar en otro dialecto la palabra vasca que le faltaba la adopta inmediatamente abandonando de muy buen grado la extranjera. Y no sólo gana de esta manera el vascuence americano en riqueza de palabras, así como en elasticidad, flexibilidad y universalidad con relación á los dialectos de la madre patria, sino que el vasco americano ó indiano al venir á ésta trae consigo aquel vascuence generalizado y enriquecido, y poco ó mucho algo influye con él en la modificación del dialecto materno". (62)

Harrez geroztik ezagutzera eman diren lekukoek erakusten dutenez, ezin min-tza daiteke "Ameriketako euskara" bakar batez, migrazio-gune bakoitzean, antza denez —eta bertara bildutako euskalki bateko edo besteko hiztun kopuruaren arabera—, euskalki bat ala beste nagusi gertatu bait da. Horixe da, esate baterako, Etxaideren hitzotatik atera genezakeen ondorioa:

... /...

Baina, ostera, Bernardo M^o Garroren bizitzaz Euskera aldizkarian irakur dezakegun iruzkinean ("Beriak eta gai laburrak", Euskera, VI (1961), 348. orr.) haxe esaten da hark Argentinan egin egotaldiaz:

"(...) emezortzi urtekin Argentina-ra joan zan eta bertan igaro zituen zazpi urteak laguntasun aundia eman zioten euskerazko izkera geienak ikasteko, ango euskaldunak, urteen buruan, euskera-nastu batean mintzatzen baitira".

Ipar Ameriketari dagokionez, honako albiste hau, borobila eta zalantzarik gabekoa, aurkitu dugu Euskaltzaindiaren agirietan ("1972 Urteko batzar-agiriak", Euskera, XVIII (1973), 255-256. orr.):

"Arrue jaunak dio, Californiatik hartu berri duen gutun batean esaten diotela, Idaho-ko Boise-n radioz euskarazko saioa ematen dutela. Euskaraz mintzatzen dena bizkaieraz ihardutzen dala, eta bera nafarra denez gero, ulerkaitz egiten zaiola".

(62) ARANZADI, "Congreso Internacional de Estudios Vascos", Euskalduna (28-10-1900), n^o 173, (401-405), 402. orr.

“Euskerarik edatuena Bizkai’koa da. Idaho’n batez ere bizkaieraz egiten dala soilki esan daiteke. Alabaña, Montana’ko euskaldunik geienak giputzak dira ta Oregon ta Utah aldian Bidazo’z besteko semeak bizi dituzu. Californiarrak berriz, Baztan’go euskera xamur ta ezitia darabilte geienbat”. (63)

Egoera hori berori isladatzen zuen Castor de Uriartek, Renon 1959ko ekainaren 6-7etan ospatutako Western Basque Festival delakora Euskaltzaindiaren ordezkari legez joanak:

“La emigración vasca a los Estados de California, Nevada, Idaho, etc. (...) es admirable que hayan conservado el euskera (casi la totalidad no habla más que el euskera y el inglés) y que lo hayan enseñado a sus hijos, todos los cuales lo hablan perfecta y constantemente, conociéndose por su modalidad, el pueblo en que en nuestro País nacieron sus padres. (...)” (64)

Berdin Mitxelenak ere:

“Según diferentes testimonios, es fuera del país donde han tendido a formarse variedades comunes de existencia más o menos larga o efímera. Es natural, en efecto, que en países americanos por ejemplo donde la colonia vasca, formada por individuos procedentes de distintas zonas dialectales, conservó o conserva la lengua durante varias generaciones, ésta evolucione hacia un sincretismo en el que se fundan elementos de oriundez diversa. La *koiné* tenía un aire marcadamente occidental, entre vizcaíno y guipuzcoano, en el Perú en la medida en que podemos fiarnos del testimonio de unos versos, de valor poético nulo, publicados en Lima, en 1761. En tiempos recientes, en la Argentina por ejemplo, la lengua común adoptaba más bien, según ciertas informaciones, una forma oriental. Sobre todo esto, sin embargo, poseemos más indicaciones vagas que descripciones precisas”. (65)

Joxe Zarautzek, azkenik:

“Urte askotan bizkaitar, napar eta gipuzkoar asko elkarrekin bizi diran Ameriketako gizartean bizitutakoa nazute. Orregatik, neronek ikusita entzunda dakitena da onoko au: euskaldunek elkarrekin bizitzen diranean, batasun batera etortzen dirala. Batasun ori, bai Ipar edo Ego-ameriketari, *geiengoaren aldera* etortzen dala.

Geiengoa, geienak alegia, bizkaitar eta gipuzkoarrak izanik, berezko batasun ori egiten danean, iflori «dekretuz» euskera motarik ezarri ga-

(63) UARRAIN, “Euskaldunak Iparr-Amerikan”, E-G, III (1952), 1-2. zb., (47-51), 49. orr.

(64) Euskera, IV (1959), (252-255), 254. orr.

(65) MICHELENA, Luis, Sobre el pasado de la lengua vasca, op. cit., 19. orr.

be egiten danean, *gipuzkera tankerakoa izaten da, zenbait esakizun bizkaitarrekin*. Ifoiz ez, orratik, lapurtar ala beenaparren moldeetara”. (66)

6.3.4. LAPURTERA KLASIKOAREN ALDEKOAK

KRUTWIG izan da –eta egun ere bera da– proposamen honen aitzindari eta bultzatzaile nagusi. Guk dakigula, Euskaltzaindiak Donostian 1950eko urtarrilaren 27an izandako bileran azaldu zuen lehenbizikoz asmo hau. Lapurdiko idazle zaharren eredia –oinarri bezala behinik behin– hautatzen zuen barietate standarda itxuratzeko:

“(…) Hizkalki bat hautatu beharr dugu gure ezpaietan kriteriona izan ledintzat, hola ere hizkalki honetan ezein litteratur hizkuntzatan bezala’ bertze hizkalkien erak eta modalitateak on hartu beharr dittugu. Honen egittekoko’ bertze hizkuntza guztiek joan direan bidean gainti’ geuk ere iragan beharr dugu. Gure irazlerik ospatsuenen hizkera onetsi beharr dugu ta gure aurrean egon direen hizkuntza aratzena’ guk izkiriatzeko beharr dugun kanontzat hautatu beharr dugu.

(…) Zein den biderik egokiena nire ustez! gure litteraturik honenak zerabilten euskara’ orain erabilten direan hizkalkien aphainduez nahasiaz gero’ gure modeltzat onetsi beharr duke Akademiak. Bai eta gure litteratu hok’ Laburdiko euskaraz izkiriatu dutelakotz’ ezpaietan Laburdu-ra’ kriteriontzat onhartu beharr dugu.

(…)

Laburdiko hizkuntza joandako mendeetan gure litteratu guztien hizkuntza izan da. (...) Hunla hautatu behar dugu basisa’ geroz bertze hizkalkien aphainduriez aberats ahal dezakegu, gu baño lehen egon zittezenen hizkuntza ta ethorr zittezenen styluez bai eta bertze hizkalkiez izkiriatu zutenen apportatzioez’ hunla bada, errai askotan zearr dathorren muflaz eta zuhatzez eduk dirogu litteraturarentzako euskara”. (67)

Ongi jabetzen zen Krutwig era honetako eredu bat hautatzera, hizkuntzaren mendez mendeko berezko bilakaeraren ondorioz sortutako berrikuntzak alde batera uztea lortzen zela:

“Hizkuntza honezaz Leizarragak, Atsullarek, Etxeberrik iratzi zuten, bai eta Mendibururen euskalkia ere ezta laburdararen modalitate bat baizik. (...)”

(66) ZARAUTZ, Joxe, “Batasuna, nola?”, El Diario Vasco (03-09-1982).

(67) KRUTWIG, Euskararen klatzi hizkuntzari buruz, 2. orr. (Txosten hau “Azkue” Bibliotekan gordetzen da Euskaltzaindiaren batzar-agirien artean).

Hizkuntza honek laburdara izan arren ez tittu oraiko laburdaraz erabiltzen direan “*nindagoen, nindathorren...*” eta hunlako formak “*nengoen, nenhorren...*” eta bertze forma zaharrak, jathorrienak bai-tira, orain ere Gipuzkoan eta Bizkaian hola erabiltzen dira ta”. (68)

Hauxe da, gainera, euskarak prestigiorik bereganatuko badu ikusten duen bide bakarra:

“(…) Idatzi hizkuntza’ dialektuetan’ leifu noble bat da, ta leifuen nobleartzuna demporaz egitten da, zaharragoak eta nobleagoak gure aristokratiak eta burjesiak’ oraiko euskararen dialektuak direan baño nobleago den hizkuntza bat naiago izanen dute. (...)” (69)

Garai honetantsu idatzitako beste txosten baten eskabide berbera egingo dio Euskaltzaindiari:

“La Academia acepta como canon del bien escribir en euskara, y recomienda como modelo literario al vascuence de los escritores Leizarraga, Atsular y Etcheverry”. (70)

Krutwigen lanen artean oso azpimarragarria da Gernika aldizkarian argitaratutako artikulu bat. Jarrera nazionalisten kalteez eta literatur tradizioak hizkuntzari ematen dion prestigioaz mintzo da luzaz bertan:

“Honela gure hizkuntza kultur-bide bat bilhakatu ez tela ikhus dirogu. Euskarak literatur-tradiziorik ez tdukalarik’ gure irazleek jarraibide ta ongi izkiriartzeko kanon bat eduki ukhan ez tute. Batzuek (Sarako) Etxeberritarr Joanes Miriku doktorak batez ere’ gure hizkuntzaren zorigaiztoko egokera honen hobetzekotz’ «Euskara Hatsapenak» liburuan *Buruzagi* bat hautatu beharr zela erraten zuen (bertze herriek oro egin zuten) eta model horren izatekotz Atsular irazle handia arthamendatzen zuen. Etxeberrik eta hirur mendetako irazleek honela egin zuten. Bainan Euskalherrian’ Europako nazionalismuaren iratzartzeaz’ kabylleria jai bide zan, eta XIX mendean’ ordudano batarzuna eduki zuen euskara bere uniformidatea galdu zuen, eta edonork bere buruarentzat literatur hizkalki bat eratu beharr zuela dirudi. Honela batzuek’ edozein hizkalkiz ta hizkalkitoz izkiriatu beharr zela uste zuten. Honelako ezjakintzaz euskara aphala ahuldu zuten eta ahultzen dute eta ahultzenago. Guztiok bainan ba dakigu linguistarentzat hizkalkietan bizirik dagozen tipikuntzak interesse handia dadukatela. Bainan izkuntzek gizartean eduki beharr duten prestijea kulturdunek erabiltzen duten hizkuntzaren bidez egiten dela Philolo-

(68) KRUTWIG, Euskararen idatzi hizkuntzari buruz, op. cit., 3. orr.

(69) KRUTWIG, Euskararen idatzi hizkuntzari buruz, op. cit., 3. orr.

(70) KRUTWIG, Federico Carlos, Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito, op. cit., 4. orr.

giak derraku; hartakotz kulturdunentzako hizkuntza egin ezpa dezagu ezin dezakegu gure hizkuntzaren prestijea handiago. Orobatu hizkuntza eduki beharr dugu. (...) Halakotz euskararen batarzuna eratzekotz, gehien irasten den hizkalkia on harritu beharr dugu, ez gehien mintzatzen datekena, literatur hizkuntza batuak, lehenez irakhurtzekotz baitira. Zio honen-gatik gure literaturaren tradizino-hizkuntza harritu beharr da, ta haur' Leizarraga ganik, Atsular ganik, Etxeberri ganik, Haraneder ganik gugarano ethorri den literatur-laburdara da". (71)

Gernika-n bertan plazaratutako gutun baten gogor erasoko ditu euskara kultur hizkuntza bilakatzea eragotzi duten jarrera garbizaleak eta, aldi berean, egiteko den eredu standarda Euskal Herri osora hedatu beharra aldarrikatuko:

"Contrariamente a los catalanes, los vascos hemos observado un estúpido *jebismo*, que nos ha llevado a considerar el vascuence como una cosa que no debía contaminarse empleándola para hablar sobre temas de interés universal. (...) Así, el vascuence ha quedado, por error y culpa de los puristas, relegado a ser un idioma de aldeanos, cuando debiera haber sido algo más. En este sentido Jon de Mirande tiene razón. La ignorancia de los vascófilos ha sido universal. Jamás intentaron crear un idioma literario que, como se sabe, ha de ser hecho a base del dialecto que más se escribe y de mayor tradición literaria: en nuestro caso, el labortano. Sobre esta cuestión se ha caído en el partidismo estatal. Así, los vascos peninsulares son guipuzcoanistas por la errónea idea de que el labortano no se habla en la Península, haciendo del vascuence, no una idea nacional, sino estatal españolista. En cambio, las personas que han tenido una base lingüística, como Don Julio de Urquijo, siempre han sido labortanistas, como así mismo todos los filólogos extranjeros. Los *jebistas* se oponen a que el labortano sea la lengua nacional escrita del Pueblo Vasco, precisamente por lo elegante de su tono, y parecen defender los *irrintzis*, para los que el vizcaino parece ser el más apto. Y sin que menosprecie al dialecto vizcaino, que es el mío, hay que convenir que no sirve para lengua nacional. Este dialecto ha sido aún maculado posteriormente por todos los vicios de puristas y *chauvinistas*, que han introducido en él formas absurdas, lo han sobrecargado de neologismos, y, a fuerza de querer hacer un vizcaino puro, han logrado que los vizcainos no entendamos el vascuence de los vizcainistas. Un aldeano de Vizcaya o una persona culta euskaldun entiende hoy mejor cualquier dialecto que la jerigonza que se llama «euzkera-barri»". (72)

(71) KRUTWIG'tarr F. K., "Euskara' Euskalerraren Kultur-Bidea ledin izan", Gernika (1951), nº 14, (8-11), 10-11. orr.

Ikus, halaber: KRUTWIG'tar J., "Seminario yaunari ongi-etornia", E-G, III (1952), 7-8. zb., (29-31), 29-30. orr.

(72) Gernika (1951), nº 14, (56-57), 57. orr.

Hizkuntza standardak batasun nazionala eraikitze bidean daukan inportantziaz, ordea, 1962an argitaratu emango duen *Vasconia* liburu ezagunean ekingo dio luzaz (73):

“Esta fragmentación del euskara escrito es contraria a los intereses nacionales del pueblo vasco pues impide el establecimiento de una forma vasca “exenta de dialectismos” que llegue a ser la lengua común. Tal forma literaria sería el símbolo de la nacionalidad y su forma unificada serviría para unir a los hijos de Euskaria. Ahora bien, como el idioma sirve de lazo de unión y es la característica principal, la falta de un dialecto literario, universalmente aceptado, crea una desunión entre los vascos, justamente en el factor primordial de la nacionalidad.

Se puede decir, sin duda alguna que, entre las diferentes formas literarias la que tiene las mejores condiciones previas para llegar a ser la lengua escrita común de todos los vascos, símbolo de la unidad de la patria, es el vascuence labortano clásico”. (74)

Barietate dialektal eta barietate standardaren esparru banaketa (=language domain) argia ezarriko du Krutwigek:

“La lengua es la vía de comunicación de la propia comunidad familiar y local pero ha de servir, al mismo tiempo, para estar en relación con las agrupaciones superiores, como la región y la propia nación.

(...)

El euskara, en su forma local, puede servir para la comunicación en las comunas, para la ayuda mutua. Nada sería más extraño al espíritu vasco que establecer una diferenciación de clases sociales a través del idioma pero el euskara debe servir, al tiempo, para la libre asociación de las comunas entre sí.

Si, tal como está hoy pasando por un sentimiento kabileño, no llegamos a una lengua literaria unificada, hacemos que la lengua se transforme en un instrumento anti-social, ya que las células constitutivas del organismo vasco, de la nación vascona, tienen que comunicarse entre sí. Es justo que existan diferentes tipos de euskara según cada valle, según cada comuna, como un cuerpo vivo tiene diversos tipos de órganos, pero todos ellos están intercomunicados por las arterias que aportan vida a sus células. Y esto debiera ser la lengua literaria. El espíritu federal de los vascones debiera haber forjado la arteria que diese vida a la unidad superior, a la nación vascona. Sin ella, las partes tienden a desintegrarse.

(73) Ikus ere Zaitegiri 1952ko maiatzaren 20an egin gutuna. (Gutun hau “Azkué” Bibliotekan aurki daiteke).

(74) SARRAILH DE IHARTZA, Fernando, *Vasconia*, Norbait, Buenos Aires, 33-34. orr.

Para la actividad social que representa la lengua se deben aplicar los mismos principios que rigen en la reestructuración de la sociedad. Sabido es que Proudhon se negaba a equiparar una reorganización de la sociedad con una uniformización: para él, orden significaba orden justo de la diversidad. Se trata de alcanzar un equilibrio entre la libertad, la diversidad y el orden que debe mantener en vida a la libre federación de todos los factores sociales incluido entre ellos el lenguaje. Nada, pues, más contrario a una base justa de la sociedad que querer abolir aquellas normas justas que nacieron de la libre voluntad de los ciudadanos.

El euskara ha de ser vario en su base, compuesto de células vivas, llenas de vigor vivificante y germinante y ha de ser, al mismo tiempo, el nexo federativo de la nación. Y, claro está, tal lazo nace de la libre agrupación de las células, que se crea en una tradición literaria". (75)

Krutwigen aburuz, euskaldunen batasuna sendotzeko ezezik Euskal Herria Mendebaleko kulturarekin lotzeko ere izan behar da euskara standarda:

"De esta forma, un euskara literario, símbolo de la unidad de Vasconia, que, como la lengua de Axular, tenga sus bases en lo más genuino de la tradición literaria vasca, debe ser además el nexo que una al pueblo vasco con la cultura universal, en lo que coinciden todos los tratadistas de la lengua vasca, que dominan, comprenden y sienten al euskara.

(...)

El gran escritor Joannes de Leizarraga cumplió mejor que nadie aquello que luego iba a pedir Arana Goiri, la exigencia de que para levantar el euskara era necesario hacerlo apto para satisfacer las necesidades del pueblo vasco. El euskara, en la pluma del gran escritor beraskoiztar era una arteria que unía al pueblo vasco con la cultura superior del círculo cultural greco-latino al que el pueblo vasco corresponde. Era la vía hacia la cultura superior, una vía en que no era un estorbo el euskara, ya que aquellos conceptos de la civilización occidental que un vasco iba a necesitar en una federación humana con otras etnias, estaban representados en la forma necesaria. No se trataba de ninguna cerrazón kabileña que deseara separar al pueblo vasco de la comunidad de los pueblos libres.

De esta forma, el lenguaje literario de Leizarraga, Axular y su escuela cumple el doble fin, que tan repetidamente señalamos, de ser el lazo de unión entre las comunas y agrupaciones de la base y, al mismo tiempo, unir al pueblo a la superior comunidad de los pueblos libres. (...) Une a las células vivificantes del euskara popular hablado y enlaza con la cultura humana a través de la unidad greco-latina de nuestro círculo cultural". (76)

(75) SARRAILH DE IHARTZA, Fernando, *Vasconia*, op. cit., 45-46. orr.

(76) SARRAILH DE IHARTZA, Fernando, *Vasconia*, op. cit., 47-48. orr.

Nolanahi ere, 1962an argitaratutako Euskararen ethorkizuna dugu Krutwigen chef-d'oeuvre-tzat jo dezakeguna. Luzaz dihardu bertan hizkuntza bat kultur tresna bilakatu ahal izateko prosa lantzearen ezinbestekotasunaz. Lapurtera klasikoa eredu standard-tzat hartzeari, berriz, honako abantaila hauek ikusten dizkio:

“1. Hizkuntza haur Tradizinoako forma literaria da.

2. Mintzoara hau Euskalherriko bi zathietan erabilten da.

3. Hizkuntza hunek tradizinoaren bide aspektu nobleagoa hartu du, denporaren bidez noblizatua izanik da eta behar den prestijea du.

4. Hizkuntzaren forma haur Euskalherriko eskualde guztietan hultzen da, euskara haur Euskalherriko dialektu guztien synthesis bat bailizen.

5. Hizkuntza huntaz izkiriatu zutenek –behar bada, intuitivukiro-behar zatekeien gogoaren amplitudinez izkiriatu zuten. Mintzoara huntaz izkiriatu zutenek beuren sortherriaren bornuez harago so egin zezaketen (...). Euskalherriaren interessea beuren haraneko bornuez harantz ioaiten zela ikhus zezaketen.

6. Forma haur, euskararen ikhus-puntutik, forma universala izanik da.

7. Hizkuntza haur bere iaiozta danik perfekta izanik da. Leizarragaren lumatik perfekzinoz iltkhi zen.

8. Lapurdara klassikoan bertze formatan baino gehiago Rhetorikazko styluak formatu izanik dira”. (77)

Ordura arte indarrean zegoen H (erdarak) / L (euskara) hierarkia haustera zeteren ezaugarri berri bat ere, eta biziki adierazgarria gainera, aipatzen du Krutwigek:

“(…) bainan bai ba dugu bertze motibu bat aiphaturen, ezen motivu haur berez eta bakharrrik, bertze motivurik ezpalegoen ere, euskararen forma haur euskaldun guztientzako forma literaria bezala onhartzeko determinanta behar bailuke izan. Euskaldun guztiok gure herriaren batasunagatik guztiontzako forma literari bat ukhan behar dugu, eta ez bata prantsez-euskaldunentzat eta bertzea español-euskaldunentzat.

Halabaina, lapurdara literatur euskara bezala onhartzea ezta izanen nehoiz ere dialektuen ezabatzea. Dialektuak iraunarazteko, guztiontzako atxikidura behar dugu, themat batzu orain-arte bezala dialektuetan erabiliren ditugu, baina laburdara klassikoa orain-arte español eta frantsez erdaraz erabili ditugun thematentzat izanen da, haur da dialektuen anaie han-

(77) KRUTWIG, Federico, Euskararen ethorkizuna, op. cit., 26-27. orr.

diagoa izaiteko. Batez ere prestijea handiagotzekotz kultur-symbol euskalduna izan dadintzat". (78)

Lan honen amaieran hiru multzotan banatzen ditu euskal idazleak: a) "populistik"; b) "puristik" (hauen artean bi azpimultzo egiten dituelarik: "bizkaitarrismua" eta "garbizaleak") eta c) "klassikoak". Honela ikusiko ditu *populistikak*:

"Haukiek soilik euskara iente kaskarraren eta herri xehearen problematen traktatzekotz erabili nahi lukete. Bertze gai guztiei buruz erdaraz mintzo dira eta hainek ere erdaraz izkiriitzen ditute. Euskara baserriar hunen partisanen skribuetan soilik bermailaren thematak traktaturik ikhusionsen ditugu. Heientzat dialektu eta dialektuttoak aski dirade eta, batez ere, euskara lokalismuz bethea maite dute. (...) Prestijeko gauzak bethi erdaraz erabiliren ditute. (...) Hunelako tendentzia eta egokera adibidez, bertze exempluetan, Ipharraldeko Euskalherriko aphezen ekhintza litzateke. Aphez haukiek herriari bethi euskaraz predikatzen deraukote, bainan heien artean erdaraz baizen eztira mintzatzten. Bainan herriak exemplu tzarra ikhusten du... eta aphezen exemplu tzarra dela kausa, erdaraz ere mintzatzeko iaidura hartzen dute. (...) Aldra hunen euskalzaleentzat euskararen izkiriatu formaren batasuna ezta problematik, zeren heien kultur bidea erdara baita. (...)" (79)

Bizkaitarrismua, berriz:

"Tendentzia hunen iarraitzaleak batez ere Bizkaian egonik baitziren hitz huntaz izenezta ditzakegula uste dut. Hoiiek euskararen lexikonetik erdaratiko hitz guztiak khendu nahi zituten ethor berriak eta mende asko danik euskararen bizi izaiten direnak (...). Euskararen lexikona % 60-75 erdaratikoa denaz gero, hunelako iraintzea ezina dela erraz ikhus diteke. (...) Arbuiatzen zituten hitzen orde zeren beren galdako hitz berriak sortarazten zituten. (...)" (80)

Garbizaleak, hirugarrenik:

"Hauien aburuz euskaraz themat guztiak soilki euskarazko hitzez traktatu behar lirateke. Hitz hauk Azkuek bere hiztegian bildu zituen hitzak ziren. Azkueren hitzak aski etzirenean, hitz zaharrei zentzu berria emaiten zeraueten, bertze batzuetan Azkuen hiztegitiko hitzez eta euskarazko affixuez hitz berriak eratzen zituzten. (...) Tendentzia hunek beure muga hersiak ditu. Hunelako hizkuntza soilik egokia baita, literatur soilaren thematen traktatzekotz eta prosa poetikoarentzat. Iakintza eta bizi modernuaren kontzeptu univesaleentzat hunelako bidean gainti ezin hel gaitzkelakotz (...)" (81)

(78) KRUTWIG, Federico, *Euskararen ethorkizuna*, op. cit., 27. orr.

(79) KRUTWIG, Federico, *Euskararen ethorkizuna*, op. cit., 28-29. orr.

(80) *Ibidem*, 29. orr.

(81) *Ibidem*, 29-30. orr.

Eta, amaitzeko, *klassikoak*:

“Euskara klasikoaren iarraitzaleekin gure hizkuntza Euskalherriaren egiazko kultur-hizkuntza bilhakaturen zatekean. Maila huntan unifikatu forma literaria bilhatzen da. Tendentzia huntan Atxular gidaria dateke. Atxularrek, naparra izanik, lapurdaraz izkiriatu baitzuen, ioandako mendeetako gizon ikasi baitzen eta mugaren alde bien kultura zeukan Atxular euskaldun guztien arteko batasuna signifikatzera heldu da. (...)” (82)

Krutwigen ildo berean, eta beronen tesiak sendotuz eta zehaztuz, ibiliko zaigu Aita Luis VILLASANTE ere (83).

Lapurtera klasikoaren zabalkundearen erabakiorra gertatuko da idazle zenbaitek eredu honen alde egingo duten aukera. Jon MIRANDE zuberotarrari dagokio, inolako zalantzarik gabe, nagusitasuna honetan (84). N. Tauer-i igorri zizkion gutunen bidez izan dezakegu lapurteraranzko azaldu zuen isuri honen berri. Honelaxe mintzo zaio 1952ko irailaren 10ean eginiko baten:

“(...) Zalantzan eta ezbaian nago, zein euskalki aukera bear dugun problema ortan. Egan aldizkaritxoan ene poema bat argitarazi zuten: «Nil igitur mors es», alegia, laburdieraz egina. (...)” (85)

Erabatekoagoa agertuko da handik lasterrera Tauer-i berari urte bereko urriaren 22an eginiko gutunean:

“Ezin uka dezakegu Villasante-k eta Krutwig-ek arrazoin andia dutela, maiz beren erranetan. Nik ere asi gogo dut «laphurtar klassikoz» idazten, baina Zaitegi-ri eta E. G.-ko lankideei gaitzituko zaiela beldur naiz. Ez genuke, ordea, ain gaitzikor izan bear, Euskeraren etorkizuna delarik kontuan. Bazterrik gabeko purismoak kalte andia eragiten dio gure idazkerari ulert-ezina biurtzen du-ta askotan; eta bertzalde, syntaxian eta fonetikan, iparreko euskalkiak, ez soilik «klassikoago», baina aberatsago ere dira, ezen-ez Gipuzkera. Baina oraiko idazle on geienek, gipuzteraz idazteko joera artu dute, eta ez dukete utziko nai..., burugor bai gera Euskaldunok... (...)”. (86)

(82) *Ibidem*, 30. orr.

(83) Guztiz interesgarria da honen *Literatur-euskara laphurtarr klasikoaren gain eratu lana*.

(84) Mirande hizkuntza gorabeheretan ez zen, hala ere, bide beretik beti ibili. Lau dira, Peillen ustez (Jon Mirande-ren idazlan hautatuak, op. cit., 31. orr. eta hurr.), Miranderen bilakabidean bereiz daitezkeen epeak. Lehen aroan (1949-1953 bitartekoan) “gipuzkera osotuan” idazten omen du; bigarrenean (1953-1959) giputz-lapurteraz; hirugarrenean (1959-1962) lapurtera klasikoan eta, laugarrenean (1963-1972), lapurtera klasiko eta gipuzkeraren arteko hautsi-mautsi baten. Inoiz, gainera, zubereraz ere baliatu zen.

(85) SATRUSTEGLI, J. M., “Jon Mirande euskaltzale”, *Egan*, XLV (1985), 1-2. zb., (17-40), 19. orr.

(86) SATRUSTEGLI, J. M., *Jon Mirande euskaltzale*, op. cit., 20. orr.

Berdin 1953ko maiatzaren 31ko baten ere, nahiz eta oraingoan epelago ari den:

“Laphurtar klasikoa”ren auziari, zer deritzaizu? Nik uste dut izkuntza ori onartu bear genukela idazkuntzarako euskalkitzat. Bañan idazle askok -geienek- gogor egiten diote asmo orri; orrengatik nik bietara idazteko oitura artu dut: lan batzuk Gipuzkera osotuz, bestetzuk (batez ere oler-ti-lanak) L. K. 'z egiten ditut. Gaiñera, uste dut Laphurtar klasiko zale zenbaitzuk urrunago doazela atzeritar-itzak jasaitean. Euskerak egokitasun andia dauka itz-berriak eraterako ta bere egokitasun ortaz baliatu bear gera”. (87)

1954ko maiatzaren 17koan, azkenik, honela mintzatuko zaio:

“(…) Lapurdi'ko euskararen aldeze da [Krutwig, alegia], euskal idazkuntzarako eta nire aburuz, zuzen dago ortan (naiz ez naizen aren iritzi guztiekin erabat) Lapurdi'koak, edo beintzat lapurdieraz mintzatzaile baitziran gure lenagoko idazle andi geienak a. n. Axular, Sara'ko Etxeberri, Leizarraga (Testamentu Berriaren itzultzailea) eta beste asko. Bai eta Oihenart gure poeta andienak ere ia laburdieraz idazten zuen, naiz Zubero-tarra izan. Emeki-emeki uster a etorri naiz oriek ditugula euskaltzale goienak, eta eredugarrienak; oraingo idazleek gai edo tema asko geiago erabilten ditugu, jakina. Baina gure izkuntzak ez du aienaren indarra, ez eta ederra ere. Baserritar usaina dario beti, eta baserritarrek bearrezko eta onuragarri ditugu gure endaren bereizitasunaren zaintzeko; baina ez kulturalanik egiteko. (...)” (88)

Irtendide beraren alde agertuko zen Ibinagabeitiak egin eta Gernika-n argitaratutako elkarrizketan:

“Nik Lapurtarr klasikoa onartu dut. (...) Izkelgi ori onartu dut galdede personalak kontuan artu gaberik, ororen gaintetik batasuna bear dugulako eta dialektu ori dalako ortarako egokiena. Ori ene aburua da, iakina, ez zurea edo Orixe'rena. Alaz ere aburua zintzoa dela irudi zait. Villasante Kortabitarte'k esposatu dituen zioak ezin arbuiauzkoak direlako. Orixe gipuztalceak edo Lafitte lapurtar-berrizaleak beren obiekzioneak aurkhez bitzate, konvenziitu nahi banaute okerrean gagozela lapurtar-klasiku zaleok. Baina orain arte entzun dudan obiekzione bakarra au da: euskera zaila zailago egiten dugula... Egia denik ez dut nik uste, baina egia baltz ere zer? Gizalanden izkera beti zailago da ezen-ez baserritarrena... Galdea da: euskal giza-landurik nai ote dutenentz. Nik izkuntza eli bat ikasi ditut, hizkuntzazale naiz eta; baina ez batetan ez bertzetan ez dut gu-

(87) SATRUSTEGI, J. M., Jon Mirande euskaltzale, op. cit., 24-25. orr.

(88) SATRUSTEGI, J. M., Jon Mirande euskaltzale, op. cit., 29. orr.

re euskeraz bezalako literatur-ezik arkitu (...). Nik uste dut lapurtar-klasi-koaren aldeko igikun au dela izan euskera kultur-bidean iarteko azken urte auetan egin dan saiaketa aundiarena. (...)" (89)

Miranderekin batera, eta beronen eraginez hain zuzen ere, lapurteraren aldeko azalduko zen, bere jardunaren lehen epean behinik behin, Gabriel ARESTI bilbotarra (90). Halaxe adieraziko du bere Hiztegi Tipia-ri eginiko hitzaurrean:

"(...) Egiteko honetan eredurik bikainena Joane Leizarraga Beras-koizkoaren tradukzio biblikoetan ikusi uste ukan dugu, kasu bakoitzak eskatzen zigun libertatearekin (...)" (91)

Eta beherago:

"(...) Hiztegi-kontuan eta euskararen batasunaren langitean aski trabailatu eta gehiago trabailatu behar ukanen da; jenerazio bakar bati ezin eska lekidio gehiago, anitzetan erran genuen inor ez dela profeta bere mendean, baina zinki eta finki esperatzen dugu (akaso euskara unibertsitateen paret-artean murgilduko denean), etorkizuneko jenerazioek derrigor itzuli beharko dutela «back to Leizarraga»". (92)

Berdin García Lorcaren poemen euskarazko bertsioan:

"Lorcac poema intellectual batzuc scribatu cituen gailego intellectual batetan. Nic, eçagutzen dudan heuscararic intellectualenean jarri nahi ukan ditut, leizarragaren heuscaran". (93)

KRUTWIGEN EKARRIA

Lapurtera klasikoa denborarekin bertan behera utzia izango bada ere, badira Krutwig eta beronen jarraitzaileen lanetan ondorengo urteetan erro sakonak botako dituzten eritziak. Hiru dira -gure lan honen helburuetara mugatuz, jakina- ikusi uste ditugunak:

- a) Literatur tradizioari ematen zaion lehentasuna.
- b) Euskara kultur hizkuntza bilakatzearren egiten den ahalegina.
- c) Euskara standarda Euskal Herri osora hedatu beharraren kontzientzia.

(89) IBINAGABETTIA 'tar Andima, "Olerkariarenean", Geralka (1953), nº 23, (98-102), 101. orr.

(90) Arestiren bilakabidean ere badira, Ibon Sarasolak behin eta berriz aditzera eman duenez (ikus: *Historia social de la literatura vasca*, op. cit., 162-163. orr.; "Gabriel Arestiren poemagintza", *Euskal lingulstika eta literatura: bide berriak*, op. cit., (393-403), 397-398. orr.), gutxienez hiru aro ezberdin. Lehenean (1954-1958 bitartekoan) lapurtera klasikoan dihardu; bigarrenean (1959an burututako *Maldan Behera-n hasita*) gipuzkera eta lapurteraren arteko hautsi-mautsi batez baliatzen da eta bi aro ezberdin hauen artean bada bizkaiera arrunta darabilen hirugarren bat, 1959-1960 urteetan argitaratutako *Bizkaltarra-n* ikus daitekoena, alegia.

(91) ARESTIAR G., *Hiztegi Tipia*, Lur, Donostia, 1973, VII. orr.

(92) *Ibidem*, IX. orr.

(93) GARCIA LORCA, F., *Sele poemas galegos*, Akal, Madrid, 1974, 39. orr.

6.3.4.1. LITERATUR TRADIZIOAREN EREDUA

XIX. mende hondarretan Hegoaldean, eta jarrera garbizaleen eraginez nagusiki, arbuia garri eta baztergarritzat joko zen euskal literatura zaharra berreskuratzeko ahalegin ikaragarria egingo dute "lapurtera klasikoaren" aldekoek. Euskalkiek elkarren artean –bizkaierari dagokionez frogatzen saiatu garenez– iragan garaietan zeuzkaten kidetasunak berpiztea eta sendotzea batetik eta, bestetik, arrazoi ezagunengatik ugarituz joan diren berrikuntzak –gehientsuenetan XIX. mendean geroztikoak hain zuzen– ezabatzea izan dira, ezbairik gabe, ahalegin honen emaitza onuragarri- netariko bi. Helburu hau bete ahal izateko aspaldiko idazleen lanak (berr) argitaratzeko eta aztertzeko ardura bizia somatuko da. Mitxelena izan da arlo honetan langile- rik finenatarikoa, berari esker ezagutzera eman izan den izkribu zerrenda luzeaz gai- nera (94), eten gabe ekin izan bait dio tradizio horren aldeko arrazoiak emateari. Ho- nela mintzatzen zen, adibidez, 1959ko Euskalzaleen Biltzarra-n izandako eztabaida baten:

"(...) Gure artean batasun kontu au badirudi askotan oraingo gauza dala, baifia literatura-izkuntzako batasuna edo batasun antzeko zerbait izan da lenagotik, eta bear bada orain baifio geiago. Nik gauza bat ikus- ten dut, lengo tradizio ori, oitura ori, lengo batasun ori, euskalki baten barruan beintzat, galtzen ari dala ziara. Guk emeretzigarren mendeko gi- puzkoar idazleak artzen baditugu, gutxi gora beera, eta noski orduko ser- molariak eta predikariak orixe berbera egiten zuten, gutxi gora beera, iz- kera berbera egiten dute. Gaurko Gipuzkoako idazleak artzen baldin badi- tugu, Gipuzkoakoak bakarrik, ez naiz beste aldekoekin ari, arkituko geni- tuzke idazle bezenbat izkera. (...)" (95)

Zehatzagoa izango zen Olabideren Itun zar eta berria-ri egindako iruzki- nean:

"(...) euskalkien batasuna atzean, aldi igaroan daukagu: ifoiz izana da eta gero eta urrutiago dagoena. Urteak joan-ala, euskalkiak bereizten eta elkarrengandik urruntzen ari dira, edozein izkuntzaren dialektuak beza- la. Bizkaieraren berririk eztuen giputz batek igerriko dio gutxi gora-beera zer esan nai duen *astoa legez* edo *ni bere* irakurtzean: errazago, nolanai ere, *astoa lez* edo *ni be* irakurtzean baifio. Bearrak eta indarrak batera joe- razten ez gaituzteifio –eta txorakeria litzake orduan euskaldun guztiak gi- putzon esanera egongo direla sinestea–, atzera begiratu bear dugu, euskal- kiak are geiago elkarrengandik bazter ezteitezen. Nola, gero? Zenbait pun- tutan erraz da azaltzen: idatz dezagun *jakin*, *duela*, *zuen*, *orduan* lapurta- rrek bezalaxe eta gaifera Gipuzkoa'n izan diren mordoillo-antzeko idazle guztien erara". (96)

(94) Hala nola: *Textos arcaicos vascos*, Landuchioren hiztegia, Viva Jesus, Betoñaren Kristau- liburua... eta, guztien gainetik, bere *Fonética Histórica Vasca*.

(95) *Euskera*, V (1960), 162. orr.

(96) MITXELENA, L., "ITUN ZAR ETA BERRIA. Olabide'tar Erraimun, S. I. (1869-1942). Bilbo'n, Yesu'ren Biotzaren Deya, 1958", *Egan*, XIV (1959), (85-94), 92. orr.

Berdin garai honetan argitara emango zuen Asaba zaarren baratza artikulua ezagunean:

“(…) Izkribu-euskeraren, euskera idatziaren oiturak eta usuarioak ongi finkatuak eta mugatuak zeuden punturik geienetan, euskalki bakoitzaren barrenean beintzat, eta aski jokabide argia dugu aiei amor ematea, aiei lotzea eta obeditzea. Ao-izkuntzan eztugu batasunerako biderik idoroko, bereizkuntzarako baiño, bestearen aldean askozaz ere aldakorragoa eta desberdina goa dugun ezker”. (97)

Lehen aldiz 1978an argitaratutako artikulua baten honela hitz egingo du standardizazioaz ari dela:”

“La elección que hay que hacer en estos casos, con graves sacrificios a veces, suele estar determinada en gran medida por factores sociológicos. Ahora bien, en la medida en que haya habido que escoger por razones más bien de lengua, es sabido que la tradición, la historia literaria, suelen jugar un papel decisivo. La unidad de la lengua se vislumbra siempre mirando hacia atrás, en un pasado más o menos remoto: no es el libre juego de la espontaneidad, que suele ser disgregadora, hacia el futuro. De aquí una clara tendencia arcaizante que no es difícil descubrir en distintos ensayos unificadores. No se pueden deshacer los cambios, que con frecuencia son irreversibles, pero sí cabe ponerles freno y jugar a la conservación”. (98)

Jokabide berberonen aldeko agertzen zen Irigaray 1959ko Euskalzaileen Biltzarran:

“(…) Ezen gibeleratago eta urbilago gure euskalkiak.

Gure kasuan atzeko aldera ari dena aurrera doaie. Eta hemendik 40 urteetara beira, idazten ari dena berriz, batasun aldera naiez, gero eta geiago baztertzen da elburutik.

Irakurleek aise garbiago eta errezago arkitzen ditugu Oihenart, Maister, Tartas, edo Inchauspe edo Ziberoko Armanakak, oraiko idazlari ziberotarrak baiño. Mintzaira bizia pikortzen eta errausten baldin ba doa, euskara idatziak ez du bide bera eramane bear, irauñ nai badu”. (99)

Pentsatzekoa denez, honetan ere ez dira denak bat etorriko. Hauxe da, esate baterako, Latieguiren ikuspegia:

“Para manufacturar la Unificación del Euskera «a la española», los batustanos han ido a los libros viejos de los siglos XVII y XVIII. Y se han equivocado. Y les ha salido una birra: «el batua». Se han equivocada-

(97) MITXELENA, Luis, *Asaba zaarren baratza*, op. cit., 128-129. orr.

(98) MICHELENA, Luis, “Sobre bilingüismo”, *Lengua e historia*, op. cit., (191-200), 198. orr.

(99) IRIGARAY, A., *Mogel eta literatura-euskara*, op. cit., 116. orr.

do, primero, porque han ido sólo a los libros viejos del Euskera Septentrional despreciando a los libros viejos del Euskera Meridional; y, segundo, porque han acudido precisamente «a libros». Si es necesario unificar al Euskera «como se debe» para hacer esa unificación no hay que acudir a los libros viejos sino al pueblo vasco parlante. Aquellos libros son mentalmente extranjeros; son libros pensados en erdera y revestidos de euskera, porque sus autores eran hombres cultos y la cultura de nuestros hombres cultos ha sido siempre una cultura extranjera: castellana o francesa: en definitiva, latina. En cambio el euskera de los vascoparlantes «no cultos» (!), es un Euskera pensado y expresado en Euskera, porque esos hombres sin «cultura» libresca, tienen *sólo* cultura vasca: la maravillosa cultura oral del Euskera. (...) En la mente de nuestros «incultos» pastores, caseros, y arrantzales, sin embargo, todas las raíces son Vasca. No hay allí más raíces que las vascas. (...)» (100)

6.3.4.2. EUSKARA KULTUR HIZKUNTZA

Berebiziko esanahia dauka Lapurtera klasikoaren aldekoek euskara kultur hizkuntza bilakatzearen egingo duten ahaleginak. Jarrera horren atzean euskara gaurrengungo egoerara gaitze eta egokitzeko helburua ageri da nabarmen, ordura arte erdarek bete ohi zituzten esparruak (H barietateari dagozkion esparruak, alegia) euskararen bidez ordezkatu ahal izateko. Honexetan datza, gure eritziz, zenbaitek standardizazioaren beharrezana ez ulertzearen eta euskarak bere lehengoan iraun dezan nahi izatearen arrazoietakoa bat. Hizkuntzarentzako zailtasun eta oztopo arriskugarri bat ezezik kaltegarria ere joko dute azken hauek standardizazioa, horrelako lanik gabe ere egoki asko betetzen bait ditu euskarak L barietate bati dagozkion esparruak. Jarrera honekin, baina, gutxienik ere euskararen nondik-norakoa –Hegoaldean behinik behin– aldatzera zetozen gertaera biri ezikusi egiten zitzairen:

a) Nekazal egituratik industrial eta hiritarrerako jauzia aspaldi emana zuela euskal gizarteak.

b) Aniztasun kultural eta linguistikoa errespetatuko ziren Estatu baten –gero, hein batez behintzat, Hegoaldean gertatu ere egin dena– euskarak, irakaskuntzan, administrazioan, komunikabideetan... lekua izango zuelarik noraezekoa zuela, bere egitekoa zuzen beteko bazuen, standardizaturik egotea (101).

(100) LATTEGUI, Vicente de; OÑATIBIA, Dionisio de, *Euskaltzaindia el batua y la muerte del euskera*, op. cit., 259. orr.

(101) Halaxe dio Mitxelena berak Villasanteren liburu bati (VILLASANTE, Fr. Luis, *La H en la ortografía vasca*, Editorial Franciscana, Aránzazu-Oñate, 1980, 9. orr.) egin hitzaurrean:

“El hecho es, sea como fuere, que hoy, por una vez en la historia, no andamos con demasiado retraso. Las nuevas necesidades con que ya tropieza la lengua, sobre todo en el campo de la enseñanza y en el de la administración, pueden ser afrontadas con un instrumento válido que, si no es pieza acabada, no es al menos el diseño de una sombra más deseada que ideada”.

Krutwigekin bat etorriko da honetan Mitxelena:

“(…) Larre-izkuntza dena kale-izkuntza biur dedin, ain maite dugun garo-usaia –norbaitek gorotz-usaia esango luke– zertxobait galtzea naitaezkoa izango du. Kaletarrak ere euskaldun gera, batzuek beintzat, ta zori gaiztoz edo zori onez, kaletarrok gero ta geiago gallentzen ari. Eta kaletarron buru-biotzak ez izaki beti lengo euskaldunenak bezin garbi. Barrenean bi gizonen burruka latza somatzen dugu (...), biotz euskalduna ta buru erdaldunaren arteko burruka amaigabea (...). Eta euskera biziko baldin ba’da (...) gure errietako biziera naasia euskeraz jarri bear nai-ta-ez (...)”. (102)

Aurkakoen artean oso adierazgarria dugu Gernika aldizkarian irakur dezakegun hau:

“Edozeñiak daki eritasun bat sendatzeko lenengo gaitza ezagutu bear dala. Aurren aurrena esan zagus euskeraren gaitza zarra dala ta sendatzeko zalla. Eri bati ezin zaio geiegi eskatu. Ezin jarri dezakegu espafiol, pran-tzes, ingles eta beste erdera indartsuen mallan. Etxe lanetarako gai da or-dea ta laguntza eta itzal aundia eman dezake oraindik urtetan eta urtetan euskal-erriari...

Aiton batek illobak bezala, gure semeak euskaltasunean azi lezaz-ke; ta gure sinismen, oitura, jolas, dantza ta euskal gogoaren zaindari bi-kaifia izan diteke. Onek euskeraz Fisika, Kimika ta Matematikak irakas-tea baño geiago balio du. Gai oiek eta beste goi jakituria erderari utzita ere euskerari gelditzen zaio bazter polita: etxe-barrengoa, erri artekoa, erreljioaren magal gozoa”. (103)

Krutwig eta beronen jarraitzaileen ahaleginen aurka agertuko da halaber “As-paldiko”:

“Landuzale berri batzuek ba-ditugu aurrerantzean euskera areago era-man nai dutenak: Philosophia Naturalis, Bacon, Newton eta Einstein’ en eremuetara. Ez dago gaizki ametsa. Nik uste ordea, ez ote dan oraingoz urrutitxo joatea. Teoloji goitar, kimika ta antzekoak ikasteko beti jo bearko dugu erderara. Gure indar eta almenak neurtu gabe geiegi eskatzea kaltegarri litzaiguke agian. Apaltxo iraungo ba’genu ere pozik. Gure lite-ratura “quadrivium” otan sartuko nuke: 1^o) Kristau-ikasbide ta erlisioa. 2^o) Erri-Jakintza (ipui, kanta, komeri, bertso ta ele-berri). 3^o) Gauzen ikaskizunak. 4^o) Szientzi Matematikaren apur eta ofiarriak, astapenak ale-gia”. (104)

(102) MITXELENA, Luis, “Euskal-literaturaren etorkizuna”, Egan (1951), nº 3, (17-21), 20. orr.

(103) L. A., “Euskeraren gaitz eta eritasunak”, Gernika, Décembre 1949, (26-27), 26. orr.

(104) ASPALDIKO, Euskeraren Batasuna, op. cit., 155. orr.

“Aspaldiko” hau, gainera, literatur tradizioaren aurka azalduko da, beraren eritzia era honetara fun-tatuko duelarik (ibidem, 155. orr.):

.../...

Antzerako esparru banaketa egingo zuen Orixek:

“(…) Ba-du euskerak bere edertasuna non agertu: ele-eder edo literaturan, izate-gaicean edo metapisikan, eder-legeetan edo estetikan, izkeran edo gramatikan. Utzi detzagun kimika ta olakoak, oriek ez baitira giza-izkuntza yatorra. Oriek ez dute batere edertu ifongo izkuntzarik. Itsusitu bai, gogotik. Zer esanen ote luteke Fray Luis biak eta Cervantes’ek, egungo gaztelan utsusia eta aldrebesa irakurriko ba lute? Ortara ezkerro, iakingai oriek erabili detzagun beste edozein izkuntzetan. (...) Guk gaue-tik goizera nai dugu egin guzia, eta lanik gabe, alegifnik gutxieneko legean zabartuz. (...)” (105)

Berdin mintzatu da oraintsuago Justo Moco-roa:

“Pretender *rivalizar*, en el terreno escolar o en cualquier otro dependiente de la administración pública, con dos idiomas oficiales, vehículos superiores de cultura moderna y sostenidos además por toda suerte de agentes económicos, sociales, demográficos..., y cuyo conocimiento tiene que ofrecer infinitamente más apreciables y ventajosos recursos que el uso exclusivo de una lengua como la nuestra, *es renunciar a vivir*.”

Pienso que en el campo de la escuela, sobre todo, corremos el peligro de comprometer toda la obra de salvación del euskera empeñándonos en cosas imposibles, con olvidar que “quien todo lo quiere todo lo pierde”.

Un ejemplo extremo valdrá para esquematizar mi pensamiento. Tengo delante el prospecto de un específico de farmacia, equis, descrito con esta formulación esotérica: “Terapéutica bipolar, de mutuo techo, integradora, basada en una concepción sintética, que permite en la práctica su adaptabilidad a la conclusión diagnóstica”. Todo el mundo admitirá que más de ochenta millones de gentes de habla castellana no entienden nada de ese lenguaje; lo cual no impide que todas ellas sigan hablando castellano... El euskera no está en condiciones de expresarse así, ni lo estará en muchísimo tiempo. Tampoco lo estará para decir otras cosas..., *ni hará falta que lo esté para sobrevivir*. Hay necesidad de ser más explícito?

.../...

“Egun arropuskeririk gabe esan dezakegu ordun baiño obeto ezagutzen dirala gure mintzakeraren iztegi ta berezitasunak, euskeraren erro, joskera ta gramatika osoa. Azkeneko berrogei urteotan aurreko 400'etan baiño liburu geiago argitaratu dira; ta gañera ugaritasumean ez-ezen azal eta mamiz obeak. (...) Ez dut antzifeko eta oraingo idazleen artean burukarik sortu nai “la querelle des anciens et des modernes” antzekoa, baiñan klasiko izena norbaitzei ematekotan XXgarren gizaldikoak izanen dira nagusi”.

(105) Orixek, «*MEA CULPA*» eta «*QUOS EGO!*», op. cit., 92-93. orr.

(...)

Mientras escribo estas líneas, estoy escuchando por radio a una profesora galesa que habla a un periodista francés desde Cardiff: "Al cabo de tantos años de admisión del galés en las escuelas de todos los grados, todavía necesitamos echar mano del inglés para ciertas asignaturas". ¡Naturalmente!" (106)

6.3.5. EUSKARA OSOTUAREN ALDEKOAK

Proposamen hau lehenagotik ere ezaguna zen arren (107), indar berriturik agertuko zaigu XX. mendeko bigarren erdialdean. Bizkaitarrak ditugu, Azkueren "gipuzkera osotua" "gipuzkera huts" bilakatzen ari zela jabetuz, irtenbide honen aldekorik adoretsuenak. ZAITEGI arrasatearra da, I. Urbietari berak aitortuko dionez, bide honi ekingo diotenetarikoa bat:

- (106) "La lingüística aplicada a la enseñanza del euskera y la enseñanza en euskera", II Semana de Antropología Vasca, op. cit., 228-229. orr.

Bere garaian inportantzia handia izan zuen Genlo y Lengua liburuan (IBAR, Genlo y Lengua, Tolosa, 1936, 52. orr.) hauxe zioen gai honetaz:

"El estado de salud del euskera nos aconseja que gradremos según su urgencia nuestras actividades literarias y que dediquemos las primeras energías y los mejores entusiasmos a lo más apremiante.

Y, admitido como incuestionable, que, por un lado, *no hace falta*, y por otro, *tampoco es posible* hic et nunc *escribir de todo* en euskera; tengamos la franqueza y el valor de reconocer —prácticamente— que es un deber de patriotismo *aplazar y aun suspender el cultivo de nuestra lengua en ciertos ramos del saber*, y dirigir en cambio toda la preocupación al fomento de su uso vivo".

Eta beheraxeago (ibidem, 53. orr.):

"(...) tengamos asimismo la franqueza y el valor de confesar, aunque parezca paradoja, que habrá ocasiones en que lo patriótico para el autor *sea abstenerse de escribir* (para el público); y lo patriótico para las autoridades responsables, *no fomentar sino coartar cierta producción*, y facilitar en cambio a los necesitados de estudios los medios de aprender.

No olvidemos que hay remedios contraproducentes y ...amores que matan".

- (107) Argi eta garbi azaltzen zuen nahi hori BROUSSAINek (BROUSSAIN, Pierre, "Le son et l'orthographe du j", Euskera, I (1919-1920), II. zb., (24-38), 34. orr.):

"J'estime que la langue littéraire unifiée que nous proposons de créer doit être une synthèse de toutes les richesses de l'euskera, richesse de syntaxe, richesse de suffixes et richesse phonétique. Dans les milliers de mots que nous aurons à créer pour faire de l'euskera une langue civilisatrice nous devons faire entrer toutes les racines et tous les suffixes des divers dialectes, ainsi que tous les sons de ces mêmes dialectes, de manière à ne rien laisser perdre des ressources de notre langue ancestrale".

Charritonek berrikitan argitaratutako emandako gutunei esker (CHARRITTON, Piarres, Resurrección María de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarrizketa, op. cit.), bada-kigu aspaldidanik zerabilela Broussainek asmo hau bere buruan. Ikus, esaterako, honek Azkueri 1900eko maiatzaren 11n eta 1920ko apirilaren 20an igorritakoak. (Ibidem, 217-220 eta 340-343. orr.)

.../...

“Darabilkidan euskerari “euskera osotua” deritzot. Ezta “gipuzkera osotua” ere. Bekoki zabalagokin yokatzen naiz batasun arlo ontan. Bata-suna bearrezkoa. Ertzetara jo gabe “gipuzkera” derizkiot egokiena, ulerga-riena, naiz bizkaitar, naiz lapurtarrentzat. Euskera bat da ta lasai erabilli bear ditugu nunaiko esakera ta itz”. (108)

Berdin mintzatuko zitzaien Onaindiari 1956ko ekainaren 29an beroni egindako gutunean:

“**Enea’rena’**ren zatia oraindik ez zait eldu: biderdian da, antza. Ne-re iritziz, euskera osotuan eman bear zenuke, garrantzi aundiko lana ta ikasiendako egifa baituzu. Euskera osotuan Bizkai’ko itz ta esaera txan-belin asko sartu bear zenituke, beldurrik bage: ni befipeon, orixe egiten ari natzaizu, baitik-bat Sopokel’en Antzerkiak II’garren idaztitan alako erri itz ta esaera iator ainitz tartetu ditut, Azkue’gandik ietxita, Bizkaian soillik erabiltzen diranak. Aditza beti euskera osotuan eta kito. Geure ez-paifetan eta idaztortzetan garatzen ari bait-da etorkizuneko euskera. Gi-zon ikasiak euskerarenganatu bear ditugu noraezean, gure izkera iraunera-zi nai baldin ba’dugu. Alderdikeriak oro oildu egin bear ditugu, euskal-dun guziek euskera erabil dezaten. (...)” (109)

AURRE-APRAIZek –bizkaitarra hau ere– gipuzkera osotuaren aldekoa izana zen arren lehenago, “euskara osotura” joko zuen gerora:

“Guztion oneretxi ta baiezkoz izango ba-da, eleder-euskereak eztau izan bearko, ba, ez kipuzkera osotua ez lapurtar utsa, euskelki guztiakaz atondua baiño. Onetarako, euskeltzalerik jakintsuenak (...) euskelki guz-tietako aditzik egokienak artu bearko leukiez (...) ta aldaketa txatxarrik dabien beste itz asko zelan idatzi bere erabagia artu (...). Esakera, esaku-ne ta itzak alde guztietakoak erabilli bearko litzakez (...)”. (110)

Edonola ere, OSKILLASO gernikarra izan da aukera honen aldeko urratsik tin-koenak eman dituen. 1962an argitaratutako **Kurloiak** nobelan eskaintzen ditu bai hizkuntz-eredu horren adibide praktiko bat eta bai erregistro bakoitzaren esparru banaketa.

.../...

Euskaltzaindiak antolatutako batzarretan, beriz, **LARAKOETXEA TA AGIRÉZABALA**’tar Sendi Gurenaren Ipolita Aba (Euskera, III (1922), I. zb., 34-42. orr.) eta **DONOSTI MU-RU**Atar Domeka (Euskera, III (1922), I. zb., 57. orr.) ere gisa honetako eredu baten aldeko azal-duko ziren.

Euskalki guztien aberastasunak jasotzea, alde batera utziriko euskalkietako hiztunen lantsa eta gutiagotasunezko konplexurik ez sortzea eta euskaldunen arteko lehia eta haserrikerik ez piztea dira, besteak beste, aukera horretara bultzatuko dituzten arrazoi nagusiak.

(108) **URBIETA**’tar Imanol, O. F. M., “Zaitegi jaunarekin jardunean...”, **Yakin** (1956), I. zb., (89-91), 91. orr.

(109) **ONAINDIA**, S., **Eskutitzak**, op. cit., 59. orr.

(110) **AURRE-APRAIZ**, **Batasuna dala-ta**, op. cit., 49. orr.

“Artifizialtasunarena” izango da –liburua kaleratu eta berehalakoan Villasantek lehenik eta Mitxelena gero– eredu honi aurkituko dioten gaitzik larriena. Hau xe da, esate baterako, Villasanteren salaketaren muina:

“(…) Nere uste apalez, liburu guztia ere bizkaitar jatorrez egin izan balu, askoz atsegifago, gozoago ta gustagarriago irtengo zan euskaldun guztientzat. Olako gaietan, realismua ta naturaltasuna baita baliorik aundiena. Datorren gisa, liburuak ba-du artifizial kutsu bat; ni bildur naiz ez Peruk, ez Pernandok, ez Manexek ez tuten onartuko. Azkue-ren “Ardi Galduan” nabari dan akatsa esango nuke agiri dala emen ere: andik eta e-mendik artutako elementuekin osatutako izkera artifizial bat. (...)” (111)

Bide beretik joango da Mitxelenaren kritika:

“(…) Bere euskalkiaz beste denak izutu egiten du bear bada euskal-irakurlea eta zenbait liburu eder irakurtzetik atzerazi. Asierako beldurra menderatu duenean, ordea, gogoz eta atsegifetz inguratzen du bere izkuntzan arkitu duen lurralde berria. Berea ez tuten euskalkia, beraz, astun eta nekagarri bazaio ere, etzaio gogaikarri, pozkarri baizik, eta are lillugarri. Zer gertatzen zaio, berriz, ez arrai ez aragi, ez berea ez beste-rena, ez tuten izkerarekin?

Zenbait naasteren bearrean gera noski euskal-literaturan, eta bide onetatik gabiltza –batera edo bestera– aspaldi onetan. Baifia noiz arte ja-sango du irakurlearen aoak oi duen eztiaren orde z nai badu eta nai ezpadu irents-erazi nai diogun ozpifia? Ezpaitago ozpin miftagorik elkarrekin ezin ezkon ditezkean goxokiz naasia baifio”. (112)

OSkillasok Villasanteri erantzunez plazaratuko duen izkribuan ez du ontzat emango artifizialtasunaren salaketa hau:

“(…) Zer uste duzue euskaldun arrunt batek egiten duala beste euskalgietako hitzak edo esakerak ikasten dituanen? Ba nahastu, ajola gutti zein euskalgitakoak diran. Ba euskaldun arrunt batek egiten duena da naturalena, ez hunelako jakintzaz lotuta gabiltzanok egiten duguna. (...)” (113)

Eta beherago:

“Nik darabildan euskarak eztauko tradiziorik euskal litteraturan, euskaldunen ezpainetan euskalgiak bezain zaharra bada ere. Ezta hartu behar litteraturako tradiziorik-eza artifizialtasuntzat. (...)” (114)

(111) VILLASANTE, Aita L., “OSkillaso-ren «KURLOIAK»”, Aranzazu (1963), nº 416, 62. orr.

(112) MITXELENA, L., “OSKILLASO. Kurloiak (Herri txoriak). Ixaropena Argitaldaria. Zarautz'en. 1962”, Egan, XX (1962), nº 4-6, (304-305), 305. orr.

(113) OSKILLASO, “Thardespen bat Aita Villasanteri”, Egan, XX (1962), nº 4-6, (315-322), 319. orr.

(114) *Ibidem*, 320. orr.

Mitxelenari zuzenduriko erantzunean, berriz, bestelako arazoez eta, bereziki, euskalki bakar baten oinarritzearen kalteez jardungo du:

“1. Eztago beste euskalgiak baino hobea dan euskalgerik, batez ere esakerak banan bana aztertzen badira. (...)

(...) adibide asko athera ditezke napar-lapurdiez, gipuzkeraz, nappar-garai-eraz edo beste edozein euskalgiz, beste euskalgi guztietakoak baino hobek literatur euskara baten gaindegitik.

2. Euskalgi bat hautatzen danean beste euskalgietako euskaldunak azpitan jarten dira. Alde batetik euren euskara modua mordolotzat hartzen da, eta beste alde batetik lan gehiegi eginarazten zaie, baldin literatura sudurra sartu nahi badute, lehenbizik euskalgi oso bat ikas-arazten zaielarik. Gainera gero bethi edukiko dute bentajea euskalgi hortan idazteko, berez ikasitakotzat daukatenek. Hau oso gaizki dago. Erreztasunak eta lanak danen arte banatu behar dira inorentzat bentajarik gabe.

Eta ez naiz esaten lotsa, lehenago kaskezurreraino ase baninduten tolosarrek euren jasan-ezinezko harrokeriarekin, Tolosa-aldeko esakera guztiak sartu nahirik besteak baino hobetzat, azkeneko denboretan tokatu zait napar-lapurdiezako adiskide batzuekin ibiltea, eta orain tolosarrak gixajo batzue iduritzen zaizkit hunelako harrokeriaren gaindegitik.

Euren anaiak zapaltzea, batez ere gezurrekin, da euskaldunek gehien maitatzen dutena. Eman egiezue edozein eskualdeko euskaldunei hunelako harrokeri-iturri bat, eta besteek ihes egin beharko dugu Euskal Herri-tik.

3. Gure literatura txiroa moztu egiten da. Baxharrik hautatutako euskalgiz idatzi diran liburuak gelditzen zaizkigu. PERU ABARKA eta bizkaierazko liburu guztiak baztertuta gelditzen dira. Berdin gerthatzen da GEROREkin, baldin hautatutako euskalgia napar-lapurdiara ezpada.

4. Gipuzkoar idazleek uste dute batasunaren alde saiatzen dirala euren euskalgiz idazten dutelarik. Berdin uste dute napar-lapurdiezako idazleek. Egokera barregarri hunek, sekula ezpagaitu eramane batasunera, ezlioke kalte handirik egingen euskarari, baldin bizkaierazko idazleek ere euren euskalgia landuko balute, nahiz batasunerako hautatua izanen dalakoan, nahiz bestela.

Azkeneko utzi badut ere, laugarren puntu hau ajolik handienekoa da. Ezta bizkaierea euskalgi tiki bat, baztertuta utzi ditekera. Bizkaierea kanpoan uzten duan batasuna ezta batasuna, itsutasuna baizik”. (115)

(115) OSKILLASO, “Ihardespen bat Mitxelena jaunari”, *Egan*, XXII (1963), nº 4-6, (162-181), 162-164. orr.

6.3.6. ERDIALDEKO EUSKALKIETAN OINARRITUTAKO EREDUAREN ALDEKOAK

Literatur-tradizioaren eta arrazoi soziologikoen arteko oreka bilatu nahia da hizkuntz-eredu honen aldekoen xede nagusia. Honekin batera oso nabarmen ageri da standard-eredu hau euskal komunitate osora hedatzearen eta euskara kultur-hizkuntza bilakatzearen –ordura arte erdarekiko zeukan menpekotasuna arinduz– egiten den ahalegina. Hori dela eta, lapurtera, gipuzkera eta goi- nafarreraren –edo, bestela esateko, Krutwigen lapurtera klasikoaren eta Azkueren “gipuzkera osotuaren”– arteko erdibide bat proposatuko dute. Oinarri haxe izango da, hain zuzen ere, Euskaltzaindiak 1968ko Bazarrean ontzat emango duen standard-eredua.

TXILLARDEGI dugu bide honen aitzindarietako bat (116), 1958ko Euskalza-leen Biltzarra-n argi eta garbi aditzera emango zuenez:

“Literaturako euskalkia aukeratzean bi irizpide artu bear ditugu kon-tuan. Alde batetik euskalkirik jatorrenari begiratu bear diogula euskera-ren sena salbatzeko. Bafia ori ala izanik ere, gure egoerak jasan dezakea-nari begiraturaz. Xuberoera euskalkirik jatorrena da, dudarik gabe; bafia literatura-izkeratza xuberoera garbia eta utsa artzea elitzake praktikua izan-go, oso gutxi uler baitezakete gaur euskalki ori. Orrengatik OIAR-TZUN, SARA eta ELIZONDO’ko euskera artzen dut eredutzat. (...) Ez da erraza guziz asmatzea; bafia ofarrietan beintzat bide ona ikus ditekeala-koan nago. Duvoisin’en eta Mendiburu’re n artean mugituko naiz, nik

-
- (116) Txillardegirekin batera ezin utzi beste izen batzuk aipatzeko, Arestirena bereziki, poeta hau 1959an argitaratutako *Maldan Behera*-n, handik urte batzuk geroxeago ontzat emango zen hizkuntz-ereduaz baliatzen bait zen. Horixe berori gogora ekartzen zuen Juan San Martin-ek (ARESTI, Gabriel, *Obra Guztiak* (I. vol.), op. cit., 440-442. orr.) 1968ko abenduaren 19an Harri eta Herri-ri eginiko hitzaurrean:

“Ezin uka poeta honek, bere barnean, bazekarrela profetarena ere zer bait. Eta ez poesia soilaren aldetik bakarrik, baizik euskararen aldetik ere bai. (...) Aresti bost urtean surreratu zitzaigun geroago Baionan Euskal Idazkaritzak antolatunik egin ziren batzarretan hartuko ziren erabakieri (erabakirik gehienetan beintzat). (...)”

Gauza bera errepikatuko zuen Mitxelena (MITXELENA, Koldo, “Arantzazutik Bergarara”, *Euskera*, XXIV (1978-2), (467-477), 472-473. orr.) ere:

“(…) Arantzazun esana da, eta ehunen bat aldiz errepikatua gero, ez zela inor deus asmatzen ari [1968ko Arantzazuko Biltzarrean, alegia]; euskal literaturan indarrez ongi homitua ageri zen joera bati, *ordurako han gure aurrean geneukan joera bati*, ematen zitzaiola amore. (...) Hau ez da hitz eta bitsa, hau froga daiteke, eta erraz gainera. Besterik pentsatzen duenak irakurbeza 1959ko Arestiren “Maldan Behera” poema luzea (...) hor dago alde-aldean Arantzazuko batua osorik, puntu eta komatxo, baita Arantzazuz gerozkoa ere, aditz eta guzti. Arestik hor darabilena baita, hain zuzen, gero, Arestik kontra egin arren, Euskaltzaindiak ontzat hartu zuena. Eta hori, ikus dezakezuenez, Arantzazuko bilera baino bederatzi urtez lehenago-ko kontua duzue”.

Antzera mintzo zen Mitxelena X. Letek egindako elkarrizketa baten (Muga, febrero 1981, nº 13, (32-43), 43. orr.).

uste: Axular aukeratuko nuke gogoz, bere euskera bezelakorik ezpaitago ifundik ere. Baña, zaharregia dala-ta, Duvoisin artu dut bere ordez, eta Mendiburu oiartzuarra”. (117)

Berdin mintzatuko zen VILLASANTE 1968ko Euskaltzaindiaren Batzarrean aurkeztu txostenean:

“(…) Guk erdi aldeko dialektuetara jotzea erabaki dugu. Euskarak ba ditu bi dialektu pixka bat zoko egiten direnak: bizkaitarra mutur batean eta zuberotarra bestean, biak nahiko bereziak. Erdian, berriz, ba da multzo bat Nafarroak, Gipuzkoak eta Lapurdik osatua. Erdialdera diogunean, multzo huntara esan nahi dugu.

Baia entzun hau ondo. Euskaltzaindiak ezin dezake euskalkirik arbuia. Harentzat guztiak dira jatorrak, baliosak eta maitagarriak. Guztien ondasunak azter eta bil ditezela nahi du. (...)” (118)

Labur azalduko zituen horretarako zeuzkan arrazoiak:

“Eta erdialde hori hautatu badu, hori da, alde batetik hor dagoelako gure herriaren bihotza, eta bestetik, gure literaturaren kondairan halako abiadura edo joera bat nabari delako. Literatura-zeregifetan erdialdeko euskara erabiltzera joera nabari delako, alegia. Bertsolariak, sermolariak, hizlariak, liburugilleak eta habar ditugu lekuko. Beraz, lehendik datorren abiadura huni eutsi eta jarraiki: hori da bidea”. (119)

Horixe berori errepikatuko zuen handik geroago ere:

“Gure batasun bidea bi harroin edo pilare hauen gainean oinarriturik dago: Antzina Euskalerra osokoa zena, eta gaur ere Euskalerra osoan edo gehienean edo zati dexente batean behintzat bizi dena, hori gorde, hori aurrea eman, horri eusten ahalegindu.

Beraz, antzinasunean sustraiak bota. (...)”

Baina antzinasuna bera bakarrik ez da aski. Horregatik esan dugu: Antzina ororena zena, eta gaur ere ororena edo zati handi batena behintzat dena. (...)” (120)

Irtenbide honen alde egin du MITXELENAK ere. Arantzazuko Batzarrera aurkeztuko zuen txostenean, adibidez, zera irakur daiteke:

“(…) Badirudi, halarik ere, euskera idatziaren beharretarako egokia goak direla, besteak beste (eta Bilbao euskaldun ez delarik), erdi-aldeko

(117) TXILLARDEGI, *Batasunaren bidea*, op. cit., 159. orr.

(118) VILLASANTE, A. Luis, O. F. M., “Antziñako euskal hitzen formaz”, *Euskera*, XIII (1968), (175-201), 175. orr.

(119) *Ibidem*, 176. orr.

(120) VILLASANTE, Luis, “Urre ezaietako zituak”, *Euskera*, XVI (1971), (5-9), 6-7. orr.

dialektuak bazterretakoak baino. Nolanahi ere amore eman beharrean aurkituko gera guztiok, zeinek gehiago zeinek gutxiago, horretara heldu nahi badugu". (121)

Zehatzago azalduko zituen bere eritziak 1970ean Baionan "Euskal Idazleen Elkartea"-k antolatutako bilerara bidaliko zuen txostenean:

"Eleizaldek dionez bi motatako arrazoiek behar dute izan gidari hautatze horretan: arrazoi linguistikoek, hizkuntzaren egituraren bertan finkatuek, eta arrazoi, nolabait esan, sozio-linguistikoek.

Dudarik eta zalantzarik gabe uste dut, eta bat nator Fernando Mendiabalek argitara dituen iritziekin, azkenekoan pisuak behar duela izan nagusi egiten den bereizketan. Besteek dutena baino larriagoa baita. Bestela esan, bata ez daude besteen ondoan jartzeko neurrian, ezta alderatzeko ere.

Hori horrela delarik, eta nahiago nuke besterik esan, Gipuzkoako aditza hartu behar da oinarri, ezpairik gabe. Gipuzkoa eta Nafarroa garaikoa (Nafarroa garaiko euskaldunik gehienena, ez baztandarrena edo Pirinio-ibarretan gelditzen den zenbait aetz eta gainerakoena). Lapurterra, klasikoa eta ez hain klasikoa, berek bertan behera utzia dute, Iratzeder edo kentzen badugu. Eta ez dut uste gure artean, gure eskualdean eta oraingo gure eskualdeko idazleen artean, «navarro-labourdin littéraire» delakoa ontzat hartuko denik, ezta ere ontzat har behar litzakeenik.

Oraingoz euskarak duen indar urria Gipuzkoan dago, batez ere, eta Gipuzkoaren inguruan. Ikus: a) ikastolak non hasi eta lehenik zabaldu ziren, b) euskal liburuak non erosten (eta behar bada irakurtzen) diren (...)" (122)

Eta beheraxeago:

"Izanaz gainera, «irudia» dago, eta badirudi gipuzkeraren irudia doto-reago eta liluragarriago agertzen dela azken urte hauetan, Bidasoaz honaindi behintzat. Giputz aditza erabili dute, esate baterako, Arestik eta Villasantek maiz, Mirande eta Peillenek sarritan. Lehen, gerla-aitzinean, Orixek bizkaieraz zerbait idatzi zuen; gerla-ondoan, ezin daiteke horrelakorik pentsa ere". (123)

Geroztik ere lotu izan zaio Mitxelena gai honi. Erizpide linguistikoek gainera so egin beharreko arrazoi soziologiko horien kariaz, hain zuzen ere, lapurtera klasikoa edo bizkaiera barik, erdialdeko euskalkiak hobetsiko ditu eredu-standardaren ardatz eta zutabe bezala:

(121) MICHELENA, Luis, "Ortografia", *Euskera*, XIII (1968), (203-219), 204. orr.

(122) "Aditz Batuaz", Mitxelenaren Idazlan hautatuak, op. cit., 122. orr.

(123) *Ibidem*, 122-123. orr.

“Kondairan barrena abiatu garenez gero (...), badira zenbait puntu gogoan eduki beharrekoak. Lapurdik, lehenik, XVIIgn mendean zuen indar ekonomikoa 1700 inguruan galdu zuela. Ekonomiarekiko aldakuntzek berehalako ondorioz izaten ez dutelako beste zenbait mailatan, gero, hango mintzairaren gehientasunak, ahultzen ziholarik, irauin zuela oraindik. Han bertan, bestaldean, hirugarren, deuseztaturik ikusten dugula gure egunotan gehientasun hori. Izenak izen, baduela zer ikusirik, laugarren, indargabetze horrek Baxenabarrek edo Nafarroa behereak Lapurdiren aldean, jendez eta eremuz, orain duen nagusitasunarekin. Euskal Herriaren bihotza, boskarren, hego aldean zegoela 1800 inguruan, Humboldt guregana zenean.

Diruz eta kemenez Bizkaia bada ere bihotz horren bihotz, ez zaio beste hainbeste gertatzen hizkuntza aldetik. Osorik euskaldun ez delako (Bilbao euskaldun baino erdaldunago delako duela berrehunen bat urte), bazter euskalkia delako bertakoa eta Bilbaok kultura gaietan, euskaldun guztion ezerezaren neurrian ere, ez duelako berez zegokion lekurik hartu. (...)” (124)

Eta beherago:

“Hizkuntza ez da hor goian bi hegalez airean dabilen izpiritu mehea (hots, gorputzik ez duen sistema baten eskema soila), baizik eta hemen behean, gizatalde batean, oinak landaturik dituen zer bizi eta sendo bat: gizartean bizi da, hiztunengan; hiztunak ditu jasaile, hiztunek bizi dute. (...)”

(...) ezin ahantz dezake inork guztiok (...) ederki dakiguna: gure hizkuntza ahulak izan dezakeen indarraren egoitza nagusia hego aldean dugula, eta, hain zuzen, hego aldearen erditsuan. Inorena ez den euskara batu-rik ez nuke nahi; guztiona dena behar genuke eta, ezinean, zenbaitena bere-derren, ahalik eta gehienena”. (125)

(124) “Azken ordukoak”, Mitxelena Idazlan hautatuak, op. cit., (365-401), 380. orr.

(125) *Ibidem*, 392-393. orr.

VII. ATALA

EUSKARAREN KODIFIKAZIOA XX. MENDEAN

VII. EUSKARAREN KODIFIKAZIOA XX. MENDEAN

XX. mendean barrena urrats erabakiorrak emango dira euskararen arautze bila-kabidean, oraingoan, gainera, ortografi arlor ezezik morfologiara ere hedatuko dire-larik arautze ahaleginak.

7.1. ORTOGRAFIAREN KODIFIKAZIOA

CERCLE D'ETUDES EUSKARIENNES batasuna izango da, 1901-1902ko porrotaren ondoren, ortografia arautze eta bateratze premia plazaratzen lehena (1). Bi dira eztabaidagai nagusiak: /š/ eta *j*-ri dagozkien grafemak. Lehenarentzat \bar{s} ho-besten zen (*ch*, *x* eta *sh* baztertuz), bigarrenarentzat behin-behineko erabaki hau har-tuko zelarik:

“(…) Après une longue discussion, on décide d’employer le signe \hat{j} pour représenter le son de *i* consonne plus ou moins précédé d’un léger son de *d*; le signe *j* pour représenter le son de chuintante sonore; et le signe \bar{j} pour représenter le son de jota espagnole”. (2)

Eleizaldeek ere hartuko zuen eztabaida honetan parte (3), Arana-Goirik proposa-tutako grafemen alde eginez, hots, *x* (eta ez \bar{s}), /ü/ adierazteko *v* (eta ez \bar{u} Cercle d’Etudes Euskariennes-ekoek bezala) eta *j* (gainean puntua duela, /j/ adierazte-ko) eta \bar{j} (gaineko punturik gabe, /x/ adierazteko).

(1) Helburutzat “l’étude, le maintien, le développement et la diffusion de la langue basque” (2. art.) zeukan batasun honek 1911ko azaroaren 9an egin zuen Baionan bere lehenbiziko bilera.

(2) RIEV, VI (1912), (240-243), 243. orr.

(3) ELEIZALDE, Luis de, “Sobre un proyecto de unificación de la grafía euzkérica”, Euzkadil, X (1913), 20. zb., 152-156. orr.

Nolanahi ere, /š/ eta /č/ dira istilurik larrienak piztuko dituztenak. Jeltzaleek -hauexek bereziki- *x* eta *tx* erabiliko dituzten bitartean (4), gainontzekoek *ch*, *sh* eta, gero eta gehiago, *š* hobetsiko dituzte /š/ adierazteko eta *tch*, *ch* eta, jakina, *tš*, /č/ adierazteko (5).

Gutziz erabakiorra gertatuko da EUSKALTZAINDIAK 1920ko urtarrilaren 8ko batzarrean hartutako erabakia, bertan honako alfabeto hau proposatuko zelarik (6):

Bokalak: a, e, i, o, u, ü.

Bokal sudurkariak: ã, ã̃, ï, ï̃, õ, õ̃, ü, ü̃.

Kontsonanteak: b, d, ð, f, g, h, j, k, l, ð̃, m, n, ñ, p, r, ř, s, x, t, ð̃, ts, tx, z, y, z.

Hala ere honako ohar hau erantsiko zen:

“(…) Eztabaida barik, izki-ikur’ aunitz egokietsi ziran. Bakur’ bat astiroago begiratu izan zan, «s» bustiari (eliztian esan oi dan bidez) dago-kiona. Autarkitara yo-ta (autarki batzuk aurka zeudelarik), izki aren ikur’izat «x» autetsi zan”.

Erabaki hau ez zen, noski, denen gogokoa izango. Azkue, adibidez, honela mintzatuko zen handik urte batzuk geroago:

“¡Lástima que, indicándose todas las demás palatizaciones con tilde sobrepuesta al fonema original, tratándose de la s palatizada se haya dejado a un lado la tilde que, siguiendo al príncipe Bonaparte, estábamos no

-
- (4) Oso adierazgarria da, diogunaren frogagarri, Eleizalde Broussaini 1919ko irailaren 30ean egin gutunean diotsona (CHARRITTON, Piarres, Resurrección María de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarrizketa, op. cit., 349. orr.):

“Azkue’k, nai-ta-ez, bere aburu guziak aurrera eramatea gura du: batez-ere bere š ori. Euzko-abertzaleak ez dute iñoiz ere š ori onetziko, ezta erabiliko. Beraz, gai aunitan Azkue’re aburua aurrera eramango ba’litz, Elezaingo edo “Academia”k bere men osoa galduko luke, abertzaleentzako beintzat”.

Antzera mintzatuko zaio 1920ko urtarrilaren lehenean egindako beste gutun baten. (Ibidem, 350. orr.)

- (5) Azken horiek (š eta ß) dira, esate baterako, Euskal-erria aldizkariak erabiliko dituenak. Beraren aletariko baten (Euskal-erria, XXVII (15-10-1907), nº 946, 294. orr.), hain zuzen, ohar hau egingo da:

“Los guipuzcoanos que cultivamos el bascuence, el Consistorio de Juegos Florales Euskaros y la revista EUSKAL-ERRIA usamos, hace muchos años, la ortografía euskara fundada por el sabio euskaldun Aizquibel-N. de la R.”

Erabaki berbera hartzen zuen 1917ko irailaren 11n Euskal-Esnalea aldizkariak (Euskal-Esnalea, VII (1917), 159-160. zb., 205. orr.)

Ikus halaber: GALBARRIATU, Ramón de, “De ortografía vasca”, RIEV, II (1908), 614-616. orr. eta, batez ere, GAVEL, H., “Necesidad de una lengua literaria y oficial y la unificación de la ortografía vasca”, RIEV, X (1919), 137-142. orr. Txosten honetan (140-142. orr.), gainera, *h*-ren auzia plazaratuko da.

- (6) Euskera, I (1919-1920), I. zb., 64. orr.

pocos usando! Este procedimiento de sobreponer una tilde es ortografía común a todos los lingüistas modernos sin excepción. La Academia adoptó la *x* galaico-asturiana por mayoría de votos y ellos, según confesión propia, se dieron *pro bono pacis*". (7)

Iparaldeko euskaltzaleak azalduko dira denetan suminduenik:

"L'orthographe révolutionnaire d'Arana-Goiri, adoptée on ne sait pourquoi par l'Académie basque, s'est imposée à la plupart des journaux et revues des provinces péninsulaires; tandis que dans notre région un système orthographique plus traditionnel, celui de l'Eskualduna, tend à prévaloir jusque sous la plume des moins lettrés". (8)

Eta beherago:

"Notre système traditionnel a pourtant sur celui d'Arana l'avantage de ne pas rendre illisibles les textes basques des trois derniers siècles, de ne pas exiger l'achat de nouveaux caractères d'imprimerie, enfin de ne pas dérouter un grand nombre de lecteurs (...)" (9)

Gogorrigo mintzatuko zen Gavel, berak urte batzuk lehenago Gure Herria eta Eskualduna-ren izenean Euskaltzaindiari aurkeztutako txostena (10) Erakunde honek aintzakotzat hartu ez izana salatuz:

"(...) Disons tout de suite que l'impression produite sur les membres présents à la séance fut très favorable. Toutefois, la délibération sur les propositions contenues dans le rapport fut remise à une séance ultérieure. Finalement, l'Académie ne crut pas devoir rien en retenir: on me fit savoir officieusement qu'en ce qui concernait le fond on était d'accord avec Gure Herria et Eskualduna, mais que la majorité des membres présents n'avait pas cru devoir leur donner satisfaction, par crainte des violentes protestations que ne manqueraient pas de susciter chez les disciples de Sabino Arana les dérogations aux principes orthographiques établis jadis par leur maître: or les aranistes sont une puissance avec laquelle, en Biscaye, il faut compter; parmi les membres d'Euskaltzaindia il en est dont l'absolue indépendance ne craint pas de se manifester à l'occasion; néanmoins la majorité ne crut pas devoir les suivre dans la voie de l'émancipation. (...)" (11)

(7) AZKUE, R. M^o de, "Morfología Vasca", *Euskera*, IV (1923), op. cit., 199. orr

(8) LAFITTE, P., "Orthographe", *GH*, XII (1932), (554-558), 554. orr.

(9) *Ibidem*, 555. orr.

(10) Txosten hori ezagutzeko ikus: GAVEL, H., "Observaciones sobre la Ortografía del vascuence", *Euskera*, XI (1930), II-III. zb., 193-212. orr. Baita RIEV, XXI (1930), 15-28. orr.

(11) GAVEL, H., "Sur l'orthographe de la langue basque", *GH*, XIII (1933), (173-184), 177-178. orr.

Euskaltzaindiaren sorreran bizi zen giroaz, berriz, zera zioen:

“(…) Malheureusement il y avait alors à l’Académie une majorité à tendances aranistes, pour laquelle la question se présentait d’une façon toute simple: Arana avait écrit un livre sur la question de l’orthographe; bien que ce traité ne concernât, en principe, que le dialecte biscayen, les aranistes entendaient en appliquer aveuglément les conclusions à l’ensemble de la langue. (...)” (12)

Eta beheraxeago:

“(…) Pour ses disciples, tout ce qu’a écrit Arana est parole d’Evangile: certains d’entre eux ne l’ont-ils pas appelé «le nouveau Jésus»? Aussi, pour eux, la question de l’orthographe était toute résolue d’avance; Arana n’avait entendu édicter des règles que pour l’orthographe du dialecte biscayen; plus royalistes que le roi, ils étendaient ces règles à l’orthographe basque en général; et leur influence fit adopter par l’Académie, dès l’une des premières séances, sans enquête préalable, et en une délibération rapide, un système graphique qui n’était guère que celui d’Arana”. (13)

Gai berari ekingo zion –betiere *x* eta *tx* grafemen desegokitasuna salatuz– urte batzuk beranduago:

“(…) Le résultat fut celui qu’on pouvait prévoir: les décisions orthographiques de l’Académie restèrent lettre morte au nord des Pyrénées; seul, à notre connaissance, le R. P. Lhande les a appliquées dans son Dictionnaire: étant membre titulaire de l’Académie il se jugeait moralement obligé de respecter ses prescriptions. Pourtant, à plusieurs reprises des démarches furent faites auprès des dirigeants de la revue *Gure Herria* et du journal *Eskualduna*, qui étaient alors les deux principales publications de langue basque de ce côté des Pyrénées. (...)” (14)

1927ko azaroaren 25ean erabaki berri zenbait hartzen zituen Euskaltzaindiak. Hauetariko bat *r/r̄* grafemen erabilerari dagokio:

“*R* mafatua, *vocal* artean bakařik azalduko da. Mařatua ere etořiko da itz aben azken-izkian: *Uř* (uř-avellana) ta *Zuř* (recto, económico, cicatero)”. (15)

Horrekin batera hitza deklinabide atzizkiarekin zuzen-zuzen lotzea, ez marrarik ez apostroforik erabili gabe, erabakiko zen.

(12) *Ibidem*, 181-182. orr.

(13) *Ibidem*, 182-183. orr.

(14) GAVEL, H., “A propos de la transcription d’un son de la langue basque”, *Gernika*, décembre 1949, (5-9), 6. orr.

(15) *Euskera*, XI (1930), I. zb., 47. orr.

1928ko martxoaren 30ean, bestalde, hitz hasieran betiere *j* idaztea erabakiko zen (16).

Handik lasterrera *h*-ren auzia aterako da plazara. Grafema honen erabilera mugatu eta arautu beharra ikusiko du Irigarayk:

“(…) il me semble qu’il faudrait sacrifier l’*h* dans tous les mots où un *euskaldun baserritar* ne l’aspire point et le conserver en tant qu’élément euphonique entre deux voyelles, comme dans *zaharra, ahala, behera*. De même on le garderait pour éviter l’homonymie (*ori* et *hori*), ou encore dans le cas où il se serait substitué à une autre lettre: *auher* (aufer), *Uhalde* (ugalde). Toutefois, que l’aspiration soit faite par un *euskaldun* non contaminé”. (17)

Erantzuna Lafittek emango dio:

“(…) Nous savons en tout cas que les dialectes méridionaux après en avoir usé jadis –*h*-a, *alegia*– ne la connaissent plus. Sommes-nous obligés d’imiter nos frères jusque dans leurs abandons?

(…) Un vrai patriote cherche, n’est-ce pas, à conserver à son pays natal tout avantage qui le distingue de ses voisins. Or autour de nous y a-t-il une seule langue qui dispose d’une gamme d’aspirées pareille à celle de l’*eskuara*: *kh* (ekharri), *th* (ethorri), *ph* (aphez), *lh* (elhe), *rh* (erhi), *gh* (anghelu), *nh* (chinhaurri)? Au lieu de maudire ces aspirées qui leur sont propres, les basques doivent donc s’appliquer à les sauver et si l’on tient à faire de l’unité, de grâce! que ce ne soit pas par le vide! Etendons plutôt à tous les dialectes les avantages de chacun d’eux”. (18)

Justo Mocoeroak bere *Genio y Lengua* lan ezagunean nahitaezkotzat joko du, euskararen osasuna sendotuko bada, aldaketa batzuk egitea, horietariko bat hurrengo hau delarik:

(16) Ikus *Euskera*, XI (1930), I. zb., 52-53. orr.

Eztabaida honetaz berri zehatzagoak izateko ikus, halaber:

AZKUE, R. M^a de, “Batasunera-bidean edo Pemando Amezketafa-ren autsi-osotxoak eta Ardi galdua-ren autsi-mautsiak”, *Euskera*, VIII (1927), I-II. zb., (116-140), 135-140. orr.

AZKUE, R. M^a de, “Batasunera-bidean”, *Euskera*, IX (1928), I. zb., 63-66. orr.

ALTUBE, Severo de, “Batasunera-bidean”, *Euskera*, IX (1928), I. zb., 67-85. orr.

Euskaltzaindiaren erabaki honen alde agertuko zen, orobat, Gavel (GAVEL, H., *Observaciones sobre la Ortografía del vascuence*, op. cit., 199-205. orr.). Honek, gainera, *rr* eta ez *ř*, erabiltzearen alde egingo du. (Ibidem, 202. orr.).

(17) IRIGARAY, A., “Quelques idées sur l’orthographe de l’Euskara”, *GH*, XII (1932), (455-459), 457. orr.

(18) LAFITTE, P., *Orthographe*, op. cit., 556. orr.

“(…) modificar la actual ortografía oficial, en el sentido de relevar los signos *ř*, *ĩ*, *x*, *tx*; y de reservar el signo *y* para la representación de algunos sonidos iniciales del verbo vizcaino y para la transcripción llamada fonética”. (19)

Hauexek dira horretarako dituen arrazoiak:

“a) todos los signos gráficos de que nos valemos son igualmente extraños al euskera, y no hay por qué encariñarse hasta la pasión con ninguno de ellos; b) la ortografía debe supeditarse a la claridad, no al revés; como debe estar al servicio del interés de la lengua, y no viceversa; c) la claridad, en este caso concreto de la escritura, es algo relativo, y depende de los hábitos normales de la generalidad del público lector; d) (...) no parece razonable el empeño de embarazar o dificultar a un pueblo la lectura de su idioma; menos aún cuando a ese pueblo se le denuesta de *reacio a las letras*; y muchísimo menos, cuando se sabe positivamente que *si no se le hace leer* es fatal que el idioma sucumba”. (20)

Arrazoi hauetan oinarriz bost aldaketa proposatuko ditu:

“1º La *ř* y la *ĩ* embarazan sin ventaja útil o fungible a todos aquellos que habiendo aprendido a leer en silabario erdaldun practican poco la lectura. (...)

En consecuencia, se restaurará la *rr* y la *ll*.

2º Del mismo modo y con mayor razón, la *x* es signo equívoco y extraordinariamente perturbador, a causa del diferente valor fónico que se le da en ambos erderas. Además, para los vascos continentales suena tradicionalmente como *ts*; por lo cual en manera alguna se avienen a transigir con él.

Se propone su sustitución por el signo *ř*. Este signo, por su analogía con la *ñ*, sugiere a la vista el sonido que trata de representar. Reúne además dos preciosas ventajas: 1ª, su uso estaba ya en boga con general aceptación en buena parte del País mucho antes de que las desavenencias partidistas hicieran perder la serenidad en estos debates de orden puramente técnico; 2ª, según la Memoria presentada en 1930 por Mr. Gavel a la Academia (véase R.I.E.V., tomo XXI), las publicaciones vascas de la otra vertiente pirenaica estarían dispuestas a renunciar a favor de este signo su *ch* francesa de tradición secular.

3º Respecto de la *tx*, nada hay que añadir después de lo dicho acerca de la *x*.

(19) IBAR, Genio y Lengua, op. cit., 246. orr.

(20) *Ibidem*, 246-247. orr.

Se proponen dos formas de sustitución: una, «lógica», con que además se logra la unanimidad absoluta con los escritores continentales: $t\bar{s}$, aceptable para ellos, según Gavel; otra, basada en el criterio de no discrepar de los sistemas gráficos más obvios sino en lo estrictamente preciso: las tradicionales *ch* y *tch*.

4º El signo y admitido para sustituir a la *j* en principio de dicción es confuso y litigioso, a causa de los varios sonidos a que da lugar su interpretación en los diversos dialectos. No es solución *práctica* mandar que se escriba *Yaun* allí donde se pronuncia *Jaun* con sonido gutural. Más conforme a razón y más expedito es dejar que se siga escribiendo *Jaun* en todas partes y que cada uno lo pronuncie según acostumbre o tenga por conveniente; y limitar el empleo de *Y* a ciertas flexiones verbales vizcainas como *etorri yaku*, y a la transcripción *fonética* propiamente dicha, en voces como *oyal*, *gayakoz*.

5º En cuanto a los signos \bar{d} y \bar{i} , los necesitamos para representar sonidos peculiares nuestros de que carecen el castellano y el francés literarios. Por su relación fonética y gráfica con la \bar{n} , se interpretan con facilidad y pueden admitirse definitivamente. Pero tampoco se perdería nada, a causa de su escaso empleo en los dialectos interesados, con permitir a los escritores continentales la conservación de sus *dd* y *tt* tradicionales, si mostraran alguna repugnancia a los nuevos signos". (21)

1951ko apirilaren 29an ematen du EUSKALTZAINDIAK bere hurrengo urratsa. Hauxe da egun horretan Bilbon jasotako batzar-agirian irakur daitekeena:

"Irigarai ta Krutwig jaunen asmoz, gaia ondo-ondo ta zeatz-zeatz azterturik eta eztabaida luze ta bizian ekinik, auxe ebatzi da: 1) Euskaltzaindiak, idazkerea dala-ta, orainarte artuta daukazan erabagiak oraingoz era berean bete daitezala. Baina irarkoletan izki-eredu berezirik eztagoanean D, L, R, ta T gangardunen ordezt DD, LL, RR ta TT izki bikoitzak erabili leitezakala. 2) Atzerrietako giza ta erri izenetan eta jakituri-itzetan jatorri idazkerea erabili daitela". (22)

Zehaztasun gehiago emango ziren 1953ko urrian argitaratutako alean:

"*Ortografía.*— Mantener la grafía *r, l, t, d*, con tilde para los sonidos de erre fuerte y consonantes mojadadas; pero acordó igualmente admitir como grafías correctas los signos *rr, ll, tt, dd*, para dichos sonidos porque en ocasiones será ventajosa esa forma por dificultades tipográficas o particular clase de lectores.

(21) *Ibidem*, 247-248. orr.

(22) "Euskaltzaindiaren batzar-agiriak 1949-1964", *Euskera* (1937-1953), 19. orr.

También se ha acordado aceptar como forma académica en los dialectos meridionales el signo *h*, aun no correspondiendo a pronunciación aspirada en determinados casos de evitación del hiato de vocales, como *ohore*, *ahate*, *zuhurra*, etc.; o en algún caso de diferenciación semántica, como *ori-hori*, *ura-hura*, *ari-ahari*, etc., siendo naturalmente correcto el no uso de dicho signo *h*.

Se ha consultado a la Academia la manera correcta de emplear los nombres geográficos. Se debe en general respetar la graffa original así por ejemplo en: *Quebec*, *Vaticano*, *Córdoba*, etc. o recurrir a las formas españolas o francesas que son las más conocidas entre nosotros.

Respecto a las variantes *baño*, *baino* o *baiño* será preferible escribir esta última en los dialectos meridionales". (23)

Guk, besteak beste, KRUTWIGen eskua ikusi uste dugu berrikuntza guzti hauetan. Izan ere, honek, 1950eko urtarrilaren 27an Euskaltzaindiak Donostian eginitako bileran zera zioen:

"Aranatarr Jaunaren orthographia' praktikoa ezta. Aranataarrak arthamendatzen duen orthographiak' marra diakritikoak direla ta geiegi nozitzen du. Gure herriaren moldegintza geienetan hunlako kharakterak ezta goz, linotypiek ere ezittute, ez eta izkiriatzeko makhifiek ere, irarrkoletan tildeak zapaltzen eta marraztatzen dira, Morse telegraphuen eta banderen alphabetuan ezta go diakritikoen adiarazoteko biderik.

(...)

Euskaltzaindiak orai dadukan orthographiaz jarraikiko da, bafian honeri dagokon bertze modalitate bat on harturen du, imprimatzeko erabil lezatzat. (...) Onharrturen dittugun modalidetan' orain ezagutki diakritikoez izkiriatzepan direan letrak' bikhoiztuko dira, hona hemen nola:

\acute{r}	=	rr
\acute{l}	=	ll
\acute{n}	=	nn
\acute{t}	=	tt
\acute{d}	=	dd" (24)

Krutwigek, bestalde, *x* eta *tx* (*ch* eta *tch* ordez), *j*- (*y*- ordez) eta *i* diptongoe-tan (*y* ordez) hobetsiko ditu (25). Guzti honetaz gainera *h* eta bustien arazoaz ere jardungo du:

(23) "Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak", Euskera (1953), Cuaderno I, 27. orr.

(24) KRUTWIG, Euskararen Idatzi hizkuntzari buruz, op. cit., 5. orr.

(25) Arrazoi eta proposamen berberak azalduko ditu Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito deitu txostenean.

“(…) kontinentean oguzten den *h* eta peninsulan bai eta kontinente-ko herririk askotan erabiltzen direan palatalak ere gure idatzi euskaran izkiriatu beharrak ditugu. Naiz peninsulan *h* oguzi-ezarren’ letra hau bethi izkiriatu beharrak dugu orain arte gure idazlerik ospatuenean erabili zuten eta, irakhurtuena den Laburdiko euskaraz bethi izkiriaturen da ta, gure libururik famatuenean bethi dakharrte-ta, gipuztek eta bizkaitarek oguzi-ezarren’ honen irakhurteko oitura edukiaz gero’ gaztelaraz oguzten ez-tiran *h*-rik askoren ikhustez oiturik dagozentzat’ euskaraz iratzittako *h*-hizkiak’ bahaztopabiderik ez-tira ta, bai eta oguzi dituenentzat hizki hau beharrekoak bai-tira”.

H-a hurrengo kasu hauetan erabiltzea proposatuko du:

“1^o Hitzen hasieran *h* erabiltzen dugu, orai Laburdi bai eta gure idazlerik ospatuenean erabili zuten bezala.

2^o Diphthongu ezin egin dezaketean hizkien artean orai Laburdin erabiltzen den bezala.

3^o Diphthongu egin dezaketean hizkien artean:

a) Baldin *h* eduki beharrak duen hitza Gipuzkoan edo Bizkaian *h*-rik gabe erabiltzen ba-litz, orduan gure idatzi euskaran *h*-rik eramanen ez-tu.

b) Bertzetan *h*-az izkiriaturen dugu”. (26)

Bustiei dagokienez zera esango du:

“Orai peninsulako % 80 herritan erabiltzen direan palatalak euskaraz izkiriatu beharrak dira, honelako eunekoaz’ oguzkera bat hedatzen de-nean’ Akademiak onhartu beharrak du eta. Honezaz gañera Laburdiko kos-tan erabili ere egiten ba-dera palatalak”.

Erabilerari buruz, berriz, ondoko hau:

“1^o *i* bokal baten atzean eta bertze bokal baten aurrean *t*, *n* eta *l* aldatuko dira ta *tt*, *nn* eta *ll* bilhakaturen dira.

2^o *in* eta *il* syllaben atzean eta bokal baten aurrean *t* eta *d* aldatuko dira ta *tt* eta *dd* bilhakaturen dira.

(…)

3^o legea: Palatalizakuntzak semantikoak naiz *i*- baten atzean egon-ezarren’ erabili oi direan bezala’ izkiriaturen ditugu.

Bertze palatalizakuntzak ez-tira iratziren”. (27)

(26) KRUTWIG, Euskararen idatzi hizkuntzari buruz, op. cit., 5-6. orr.

Krutwig *h*-a ezezik kontsonante aspiratuak (*th*, *ph*, *kh*, *rh*, *rrh*, *lh* eta *nh*) ere erabiltzearen aldeko azalduko da. *H*-az bahatzeko arrazotek eta beraren erabileraz ikus, halaber, Iokin Zaitzegiri 1952ko martxoaren 30ean egin gutuna. (Gutun hau “Azkue” Bibliotekan aurki daiteke.)

(27) *Ibidem*, 6. orr.

Krutwigekin bat etorriko da Aita VILLASANTE. Honek, ostera, *r/rr* bereizketan inguramendu guztietan, eta ez bokal artean bakarrik, egitea (a. b.: *Donostiarr, arrtega...*) eta bustiak balio adierazkorra daukatenean baizik ez erabiltzea (beraz, *baina, oilo...* eta ez *baiña, oillo...*) proposatuko du (28).

1964ko agorrilaren 29-30etan EUSKAL IDAZKARITZAK Baionan antolatutako Biltzarra dugu ortografia arautze honetan nahitaez aipatu beharreko beste mugari bat (29).

Hauexek dira bertan hartutako erabakiak: *x* (*sh, ch, s̄s, s̄* baztertuz); *tx* (*tch, t̄s, ch...* baztertuz); *j*-; *rr* (*r̄* baztertuz, beronen erabilera, bestalde, bokal artean dagoenetara mugatuz eta, beraz, *elurr, atorr, zakurr...* gisako idazkerak baztertuz); *ll, dd, tt* (*l̄, d̄, t̄* baztertuz); *p* zein *b* aurrean *n* (eta ez *m*); baldintzetako *ba-* aurrizkia aditzari lotuta; baiezko *ba* eta ezezko *ez*, ostera, aditzarengandik askatuta eta *bait-*aurrizki subordinatzailea aditzari lotuta idatzi.

Irtenbide bikoitza eskaintzen da *iñ* eta *ill*-en idazkerarentzako: *baino / baiño; oilo / oillo; arraina / arraiña...* (*baño, ollo, arraña...* baztertzen direlarik).

H-aren erabilera ontzat emango den arren, epeka joatea gomendatuko da:

“1) *Lehenengo epe batean* :

a) Bokal berdinen artean «H» dagonean, idatzi egingo da. *Nahastu, mihi*, eta abar. (...)

b) Bi adiera nahas ditezkeanean, berealatik idatziko da «H»-kin: *Hori-ori; hura-ura; ohol-ola; haur-ahur* eta abar.

2) *Epe baten buruan*:

Gainerako «H»-ak idatziko dira. Baina bitarte huntan bi idazkerak onartzen dira: *Hartu edo artu; handi-andi; ahizpa-aizpa* eta abar”. (30)

Ez da onartzen, ordea, kontsonante ondoko *h*-rik. Txostenaren amaieran (6-7. orr.) *h* daramaten hitz zerrendatxo bat -82 hitz guztitara- emango da.

Baionako erabaki hauetan oinarrituko da Mitxelena Arantzazun aurkeztu eta EUSKALTZAINDIAK, huskeria batzuk gorabehera, bere egingo duen proposamena

(28) VILLASANTE-KORTABITARTE, Aita, *Literatur-euskara laphurrtarr klasikoaren gain eratua*, op. cit., 278. orr. eta hurr.

(29) Tarte honetan zehar badira, noski, ortografiaz diharduten txostenak, hala nola:

A. Z., O.F.M., “Batasun-izpiak”, *Yakin* (1956), 2. zb., 160-161. orr.

MENDIZABAL, Fernando, “Arantzazun iakinlarien billera”, *Yakin* (1957), 4. zb., (85-93), 92-93. orr.

TXILLARDEGI, Batasunaren bidea, op. cit., 168-169. orr.

OMAECHEVARRIA, Fr. Ignacio, O.F.M., “Observaciones al proyecto de gramática del euskera literario por la Academia de la lengua vasca”, *Euskera*, VIII-IX (1963-64), 135-142. orr.

(30) EUSKAL IDAZKARITZA, *Baiona'ko Biltzarraren Erabakiak*, op. cit., 2. orr.

(31). Euskal Idazkaritzaren eta Mitxelena-ren txostenon artean nabari diren ezberdintasunetara mugatuz, honako hauexek lirarteke bigarren honetan nabari diren aipagarrienak:

a) Euskararen bete ohi diren zenbait neutralizazio aintzakotzat hartuz, txistukari eta txetxekari-ondoren leherkari ahoskabeak, eta ez ahostunak (*bereizgarri, ikusgarri...* eta horrelako salbuespenetan izan ezik), idatzi (*Aizkorri* eta ez *Aitzgorri* beraz). Leherkari aurreko silaba amaieretan, berriz, txistukari frikariak, eta ez afrikatuak, erabili (*hoztu, hustu...* alegia). Bestalde, *n*, *l* eta *r* ondorengo silaba hasieretan afrikatuak, eta ez frikariak, hobetsi (*entzun, altzo, altxatu, hartz...* beraz). Hitz hasieran, azkenik, *x-*, eta ez *tx-*, erabili (*ximist, xori...* beraz).

b) *H*-aren erabilera zehazten eta mugatzen da (32).

c) Bustiei dagokienez, *in* eta *il* (*ibili, baina...*), batez ere hitz amaieretan (*gain, zail...*), idaztea hobesten da, *iñ* eta *ill* ere (*baña, oillo...*) aintzakotzat hartzen diren arren. Ez, ostera, *ñ* eta *ll* (*baña, oillo...*), bustidura adierazkorra ez baldin bada behinik behin.

d) Hitz hasieretan ezezik gainontzeko inguramendu guztietan ere *j* idaztea proposatzen da: *jakin, birjina, ebanjelio, onjo...* Hala ere, aintzinako hotsa /*ʃ*/ denean, *x*, eta ez *j*, hobetsiko da: *axola* eta ez *ajola*.

e) Puntuazio arauak ere izango dute lekurik Mitxelena-ren txostenean. Alde batetik, harridura (!) eta galdera (?) markak esaldi amaieran baizik ez jartzea proposatzen da. Apostrofoa, berriz, hotsen bat ezabatzen denerako uztea, gainontzekoetan, baina beharrezko denetan bakarrik, marratxoak erabiliz.

f) Baiezko zein baldintzetako *ba* aditzari lotuta idaztea proposatzen da. Ezezko *ez* eta *bait-* aurrizki subordinatzailea, aldiz, aditzarengandik askatuta ezartzea hobesten da. Azkenean, baina, Baionan erabakitakora itzultzea onartu zen.

g) Hitz elkartuei dagokienez oinarritzko arau bi ematen dira: 1) hitzaren sorrera urrun dagoenean lotuta idatzi (*amurrain, otordu, galbide...*); 2) zati horiek inoiz bereizirik ezarri behar baldin badira nahitaez, askatuta idatzi (*hitz egin*, beraz, *hitzik ez du egin* esaten denez gero). Bigarrenik, *-z gero*, eta ez *-ezkero* hobesten da (*duenez gero(z)* eta ez *duen ezkero(z)*, alegia). Hirugarrenik, *-ta / -da* denaz bezainbatean, kausazkoetan askatuta (*ez du egin, ez daki (e)ta*) idatz badaiteke ere, partizipioetan lotuta (*haserretuta etorri da*) hobesten da.

Proposamen guzti hauen artetik *h*-aren erabilerak piztuko ditu tirabirarik bizen eta garratzenak. Arantzazuko Biltzarrean bertan izandako eztabaiden ondoren (33), honako ohar hau plazaratu beharrean ikusiko du Euskaltzaindiak bere burua:

(31) MITXELENA, Luis, "Ortografia", *Euskera*, XIII (1968), op. cit., 205-211. orr.

(32) *Ibidem*, 207-208. orr.

(33) *Ikus Euskera*, XIII (1968), 237-248. orr.

“*H*-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen hastea.

Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango”. (34)

Ondorengo urteetan, eta sinestezinezkoa dirudien arren, grafema honen inguruan dantzatuko dute standardizazioaren aldekoen eta aurkakoen arteko eztabaida gehienek (35). Hona hemen, esaterako, Nemesio Etxanizek 1968ko urriaren 9an Aita Onaindiari egin gutunean irakur dezakeguna:

“(…) Oraintxe dezu aukera polita aldizkaria –Olerti, alegia– bizi-arazteko.

H'ren kontuak gai asko emango dio jendeari ezpai bizia sortzeko. Arantzazu'ko billerak negargarriak izan dira. Batipat, Mitxelena bigunegi agertu dalako gazte egosgaitzekin. Aurrak negar eginda nai duana iristen duala konturatzen danean, geroago ta negar aundiagoak egiten ditu. Gazteok ere, konturatu dira Mitxelena ta Lekuona eztirala gogor jokatzekoak eta txakurrak bezela agertu dira, aiek berenera makurtzeko.

(…)

Orain gurea da. Aiek beren JAKIN aldizkarian eskuak jarein dituzte nai dutena esateko. Guk «*H*»'ren kontra gogor jokatzeko, or daukagu Olerti. Eska zaizkiezu lanak gai ortaz, eta bizi-bizi jarriko dezu inguruan jendea. Aita Plazido Muxika, Justo Mokoroa ta abar izan dira beren ezekoa eman dutenak. Bildu itzazu ale batean guzien iritziak.

Beste bat, UXOLA idazlea izan da, (au, Urruzola dala uste det).

Guziok JAKIN'en erronkari erantzun bear diogu, ta Euskaltzaindiaren aolku orri, ez entzun egin. (…)

Ia, ba, atzartzen dituzun erdi-lotan dauden «*H*»ren kontrako guziak. Gazteok beren asmoak aurrera eraman nai dituzte, azkenean urtero letra bat sartu nai digute. Poliki-poliki, *c*, *ch* ta azkenean *v* sartu naiko digute. Orregatik garrantzi aundia du oiei bidea isteak.

(…)

Agur, ba, ta presta azkar gure eraso gazte zazpikien aurka”. (36)

(34) Euskera, XIII (1968), 250. orr.

(35) Garaiko aldizkari eta egunkarietan plazaratutako artikuluko ugariak ditugu diogunaren lekuko.

(36) ONAINDIA, S., Eskutiltzak, op. cit., 262-263. orr.

Jakin aldizkariak hasieratik bertatik hartzen zuen, hartu ere, proposatzen zen standard-ereduaren aldeko erabaki garbia. Hauxe zen, esate baterako, 1964ko Biltzarraren ondoren aldizkari honen kudeatzaileek egiten zuten adierazpena (Jakin (1965), 18. zb., 20. orr.):

Une honetan bizi den giroa ezagutzeko oso adierazgarria iruditzen zaigu Laba-yenek dioen hau:

“(...) Por las propias declaraciones de sus autores sabemos que tomaron la *Hache* por símbolo de sus propósitos que son los de destruir la obra cultural realizada en los cincuenta años anteriores (37). Y principalmente, en lo que tiene de sentido tradicional, de adhesión a la fe religiosa de nuestros mayores; minando sus modos de vida sus costumbres y su organización familiar.

Es el odio al cristianismo no la conciencia de un justo socialismo que les impulsa en su obsesión teórica-revolucionaria, ¡IRAULTZA! a la negación de los valores del tesoro moral y espiritual de nuestro pueblo.

.../...

“Baiona-ko Euskal Idazkaritza-k lan handi bat burutu du. Euskal literaturaren batasunerako urrats luzea. Beharrezkoa. Ondo edo gaizki emana? Ez dugu juzgatzten.

Dena dela, JAKIN-ek erabaki hauek guztiak onartu egin ditu, eta bete egingo ditu. Beraz, gaurtik aurrera, datorren alean hasita, JAKIN-en lege hauek obligatu egingo dute.

JAKIN-en nahi duenak idatzi dezake, edozein euskalki ta estiloarekin. Baiña, Euskal Idazkaritzak esana JAKIN-ek bete egingo du. Horregatik, JAKIN-era etorriko diren artikulua arau horietara lotuko dira. Beraz, JAKIN, gure aldizkarian, idazten duena obligatuta dago lege hoen betetzera.

Hemendik aurrera, nahiz idazleak erabaki hauek gorde ez, eta artikulua lege hoiek alde batera utzita igorri, JAKIN-eko zuzendaritzak zuzendu egingo ditu”.

- (37) Haranburu-Altunaren hitz batzutan oinarritu izan dira, sarri askotan, eritzi honen aldarrikatzaileak. Hauxek dira, bere testuinguru osoan kokaturik, Haranburu-Altunaren hitzok (Euskal Literatura 72, Lur, Donostia, 1972, 10-11. orr.):

“Euskararen egokitzea bere hastapenetan dago oraino baina pausorik garrantzitsuena emanik dugu. Eten dugu historikoki eta eredu bezala jaso eta jasan dugun euskara. Jaso eta jasan diot zeren eta guri sortean bezala egokitu zaikun euskara hau, gizaldi askoren kutsu ideologikoaz herituta ailegatu zaiku.

Esan daiteke, hizkuntza errealtatearen lehen razionalizazio maila dela. Eta noski, razionalizazio maila hori ideologiko ere bada. Agian hargatik da ideologiko literatura oro. Gure literaturaren kondaira euskal burgesiaren ideologia atzerakoia historia da. Guk jaso dugun euskara, burges ideologia baten sostengua da. Probetxoaren arauz eginikako literatura da gurea. Probetxo hori gure literaturaren didaktiko izatean islatzen da.

Adoktrinazio baten guraz idatzi dute gure idazleek. Katekimak ditugu fenomeno honen lekuorik argienak.

(...)

Leizarragarena aipatzeke, bi eten edo iraultza nagusi obratu dira gure literaturan. Bata Sabino Aranak eta bere akolitoak osatu zuten gizaldi honen lehen urteetan; bestea 1960-64 urteetan izan da.

Lehenengo etenak (sabinista) formaz, eraz aldatu nahi izan zuen euskara. Gaiaz ordea lehen jarraitu zuen; eten honen pertsonak eta frogatzaileak seinu berekoak zirenez, hots, burges-klerikal. (...) Literatur ziklo honetatik Lizardi eta Orixeren «Barne muinetan» ezik ez dira ondrosoki pasatzen.

Urte hauetan, 1960-64, gertatu den mugimenduan berriz forma eta gaiaren aldetik izan da. Hizkuntzarekiko eten formalista horren sinboloa «H» dugu. Iraultza guztiak du bere sinbologia eta historikoki bederen «H» agertzen zaiku sinbolo plastiko bezala. (...)”

No hay sino leer los libros y folletos que van publicando en sus colecciones; los artículos de sus periódicos y revistas, plagados casi todos de obscenidades y fraseología marxistoides. Eso sí bajo capa de "batasuna" y profusión de "Haches". (38)

Eta jarraian:

"El P. Villasante no osa enemistarse con los que comulgan en el culto idolátrico de la "Hache". Tal vez me replicara que San Francisco vivió también entre los mahometanos y los infieles. Si lo hace por espíritu de proselitismo y atracción hacia el buen camino, admiro su valentía y heroísmo. Yo, cobarde pecador, no llego a tanto pero rezaré para que tenga éxito en su empresa". (39)

Baita Arenazak -ikus, bidenabar, liburuaren azala!- dioena:

"En efecto, la H es un símbolo político aunque lo nieguen muy sesudos señores, aunque vayan vestidos de seráficos hábitos. Tan político como pueda ser la hoz y el martillo, la cruz gamada o las dos a la vez. Con esto no queremos tildar a los que la usan, ni mucho menos. Lo único que afirmamos es que usan un símbolo tanto si conocen como no su significado. No somos nosotros quién para adentrarnos en su conciencia. Lo único que queremos recalcar es que ese símbolo no supone ningún beneficio para el euskera ni para el pueblo que lo habla". (40)

(38) LABAYEN, Antonio M^a, "Sasi-batasuna"..., op. cit., 28-29. orr.

(39) *Ibidem*, 30. orr.

Badirudi, gerora (LABAYEN, Antonio M^a, *Alternativas para una factible unificación y desarrollo del euskera*, op. cit.), dextente urundu dela hasierako eritzi hauetatik:

"Dentro de la reforma lingüística, el empleo de la H no reviste, en realidad, una desmesurada importancia. Como es sabido, en la literatura de Laburdi, Benabarra y Zuberoa figura con profusión desde los textos más antiguos. El escribir con H o desterrarla de nuestra ortografía no salvará al euskera de su destino (...). Tiene otros problemas más complejos que resolver". (*Ibidem*, 14. orr.)

"No son convincentes los motivos que se arguyen de que dicha letra figura en muchos documentos antiguos referentes a nuestra toponimia. (...)

Es, en cambio, razonable el empleo de la H para separar vocales contiguas que no formen diptongo: Verbi gratia: *bihotza*, *beharra*, *lehendakari* y otros por el estilo.

Por mí no hay inconveniente. Pero esto tampoco lo admiten los fanáticos enemigos de la H. Con esa intransigencia no vamos a ninguna parte. Menos todavía empleando expresiones como la de juzgar de *nauseabundo* y *odioso* su uso, olvidando que los vascos septentrionales en su literatura y pronunciación la practican". (*Ibidem*, 20-21. orr.)

"(...) al cabo de 15 años de vigencia de las recomendaciones de «Euskaltzaindia», y cuando la emplea la inmensa mayoría de los escritores en libros y revistas, y su implantación en ikastolas, centros superiores de enseñanza y en la administración pública, hay que rendirse a la evidencia y aceptar, aun a regañadientes, el uso de la H". (*Ibidem*, 28. orr.)

(40) ARENAZA, J. de, *Tus hijos y el euskera...*, op. cit., 84-85. orr.

Eta beherago:

“(…) Hemos mantenido la tesis de que la ortografía achista no es más que un intento de politizar el euskera, rompiendo los moldes tradicionales, como una rama más de lo que se intenta romper: la familia, el derecho a la educación cristiana, nuestras costumbres peculiares, nuestra personalidad, etc., como medio para conseguir una juventud sin moral, sin sentimientos, ni conciencia de pertenecer a un pueblo con unas costumbres discutibles pero indudablemente mejores de las que nos proponen a juzgar por las muestras que vemos. Una juventud neutra es el primer paso para el trabajo de los profesionales del marxismo. El bombón de la igualdad (que en la práctica, por lo menos aquí no es más que demagogia) predicado por quienes más gozan de los beneficios y de los favores de la sociedad de consumo o el bombón de la libertad sexual a cuya práctica se han lanzado como primera medida de su «socialización», no negamos que tengan gancho para un sector de la juventud y para un sector de frustrados que habiendo elegido una vida de sublimación y habiéndose dado el garrotazo quieren justificar una marcha atrás con un idealismo que en el fondo no sienten, o del que abdicarán a medida que se eclipse la aureola creada a su alrededor cuando formaban parte de esa otra clase. (...) No hay duda de que todos los enemigos (abiertos o camuflados) de la Iglesia usan la *H* de cuya utilización son propugnadores y forzados.

Eso no quiere decir que todos los que usan la *H* lo sean, pero sí que todos los que son la usan; lo cual no es lo mismo, pero sí sintomático”.
(41)

Hauxe da, bestalde, Latiegik grafema honi aurkitzen dion jatorria:

“Agian, irakurle, ikurrintzat *H*’a zergaitik artu zuten jakin naiko duzu. Bâ..., *H*’ari eleneraz ETA esaten zaiolako. ETA’rarak bait ziran, ain zuzen, “el batua” ren sortzaille aiek danak!” (42)

Berrikitan oraindik aurkikunde harrigarri hau egingo zuen Latxagak:

“*H* izkia bein bakarrik azaltzen da –Barrutiaren lanean, alegia–: «Herodes Herregue» (amar garren or.). Beste bi aldiz ikusten dugu «Erregue», *H*’rik gabe. *H* izkiakin berriz bakarrik Herodes Erregeari lotua dagonian. Aldaketa oiek, ikusten ez dan idazlearen buru-muifetako mailan, zerbait esan nai dute. Eroses erregearen izena erderaz *H* batekin jantzia datorkigu ta Errege izena eransten dionean *H* izkiakin laguntza

(41) *Ibidem*, 93-95. orr.

(42) LATIEGI'tar Bixente; OÑATIBIA'tar Dunixi, *Euskaltzaindiari epalketa*, op. cit., 18-19. orr.

egiteko ta indarraren ezaugarri bezala, ipintzen dio. Idazlearen muñifaren maillean, *H izkia*, indarkeri ta gorrotoaren ezaugarri dugu". (43)

Egoera nahasi honen aurrean, honako adierazpen hau kaleratuko zuen 1973ko urtarilaren lehenean Villasantek Euskaltzaindiaren izenean:

"Beste gauza bat erruz eta maila orotan (baita erlijio eta pastoral mailatan ere) zabaltzen dute Euskaltzaindiaren batasun bideari ateak itxi nahi dizkietenak: bide hori ateoena dela edo erlijio gabeena.

Asmazio honek ez du ez buru eta ez buztanik, ez itxurarik, ez egirik ez egia antzik ere. Alde hortatik gezurtatzea ere ez luke merezi. Baina behin da berriz ta azpikeriaz hori sinets arazi nahi dutela ikusirik, egia-
ren alde aurpegia ateratzera behartuta nago. Neure indar eta ahal guztiaz salatu nahi dut, bada, hori egia ez dela. Arazo honek hizkuntzaz bakar-bakarrrik du zer ikusi, eta deus ez erlijioaz, fedez edo politikaz. Bakoitzak eskubide osoa du bere pentsakera edo ikusmolde berezia izateko euskera idatziaren batasun kontuan. Baina Jainkoaren amorioarren! ez daitezela zeruko gauzak eta lurrekoak berriro nahas.

(...)

Ipar eta hegoaldeko euskaldunen artean idazkera bateratzeko, «h» letra hartzea gomendatu zuen Euskaltzaindiak. Ez da, beraz, letra hori ezere-
ren bandera; gehienez ere izan daiteke batasunaren bandera, eta inork ez du eskubiderik, ez alde batetik ez bestetik, hori ezereen banderatzat hartze-
ko". (44)

1968an Arantzazun urratutako bideari 1971. urtean zehar emango zion EUSKALTZAINDIAK jarraipena. Urte horretako maiatzaren 28an puntuazio marka zenbaiti (harridura eta galdera markak, ehuneko hainbestekoa, zenbaki ordinal eta kardinalak, apostrofoa eta –ordura arteko erabilera nahasia kontutan izanik inportantea dena– marratxo) buruzko arauak ematen zituen (45).

Agorrilaren 4an, berriz, loturik edo askaturik idatzi behar ziren zenbait hitz, aurrizki eta atzizkiri (hitz elkarketak, *gabe* atzizkia, deklinabideko *baitan*, *baitara*..., *arazi* / *erazi*, eta juntagailua, *edo*, *ahal*, *bide*, *omen*, *ote*) buruzko erabakiak hartuko ziren (46).

(43) LATXAGA, *Acto para la noche buena*, Lopez-Mendizabal, Tolosa, 1983, 100. orr.

(44) VILLASANTE, Aita Luis, "Euskaltzainburu jaunak egiten duen adierazpena", *Euskera*, XVIII (1973), (237-240), 239. orr.

1973ko urtarilaren 6an, hala ere, José Estornés Lasak (ESTORNES LASA, José, "H letra dela eta", *Euskera*, XIX (1974), 389-391. orr.), argitaletxe zenbaiten onespenezekin, 1968a baino lehenagoko egoerara atzeratzeko eskea egingo zuen.

Eske honi Villasantek (VILLASANTE, Fr. Luis, "Euskaltzainburu jaunaren erantzuna") eta San Martinek (IDAZKARIAK, "Idazkari jaunaren xehetasunak") emandako erantzunak ale bereko 391-394. orr. ikus daitezke.

(45) *Idatz-arauak*, op. cit., 150-153. orr.

(46) *Ibidem*, 156-159. orr.

Irailaren 24ko batzarrean ezezko *ez* aditzarengandik askatuta idaztea erabakitzen zen (47). Azaroaren 26an, azkenik, baiezko zein baldintzetako *ba* aditzari lotuta idaztea eta *bait-* aurrizki subordinatzailea lotuta nahiz askatuta idaztea erabakitzen zen (48).

Ondorengo urteetan, *h* eta bustien (*ñ* eta *ll*) erabilerara mugatuko dira, nagusiki bederen, ortografi arloko korapilo eta istiluak (49).

1978an Euskaltzaindiak Bergaran egindako VIII. Biltzarraren ondoren burutzen ziren ortografi arloko azken orrazketak, horietarik aipagarriena *h*-aren erabilera mugatzea eta finkatzea izango zelarik(50). Hitz bakunei dagokienez, lehenik, baztertu egiten dira kontsonante ondorengo *h* guztiak. Bokal arteko zein diptongo eta bokal artekoak, berriz, gordetzea erabakitzen zen. Hitz hasieran jarri beharrekoak, banan-banan aztertu ondoren, zerrenda baten ezartzen ziren eta, azkenik, Iparraldeko euskalkietan *h* bilakatutako bokal arteko hainbat kontsonanteren kasuan (*soho, gahondo, gahasi...*), *h*-ak baztertu eta jatorrizko formak gomendatzen ziren.

Hitz erakarri eta elkartuek osatzen zuten bigarren multzoa. Hitz erakarriei dagokienez, jatorrizko hitzaren eta erakarriaren arteko lotura nabarmen ageri denean bakarrik —eta jatorrizko hitzak *h* zeramanean noski— gomendatzen zen *h* idaztea (*behartu, handitasun...*). Hitz elkartuetan, aldiz, lehen osagaia kontsonantez amaitzen denetan ondorengo *h*-ak baztertzea erabakitzen zen (*onartu, oinarri...*). Bai,

(47) Idatzarauak, op. cit., 168-169. orr.

(48) Ibidem, 173. orr.

(49) Ikus, esate baterako, "Zenbait Euskaltzaindikok eginiko gutuna", Euskera, XXII (1977), 207-208. orr.

Ikus, orobat, gutun honi emandako erantzunak: IRIGOYEN, Alfonso, "Ene eritzia zenbait euskaltzain eta laguntzailek firmaturikako gutun urriko batzarrean tratatuko denaz eta ene erabaki-proposamendua", Euskera, XXII (1977), 208-213. orr.; VILLASANTE, Fr. L., "Gutuneko irizpideei zenbait ohar", Euskera, XXII (1977), 213-221. orr.

Bide beretik joango da Euskerazaleek 1978an Euskaltzaindiari egindako eskabidea (Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa)ko euskerazaleak Euskaltzaindiari, op. cit., 793. orr.):

"Eskualde bakoitzak bere idazkera du, baiña EUSKERA BATUAREN idazkerak, GIPUZKE-RA OSOTUAK, euskaldun geienentz joerara makurtu bear du, *H'rik gabe ta LL ta Ñ'kin*".

Argibide gehiagotarako ikus: EUSKERAZAINTZA, Idaztarau batzuk, Tolosa, 1982.

Torrealdayk Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrera aurkeztutako txostenean zehar (TORREALDAY, Juan M^o, "1967-1977: Liburuak eta Batasuna", Euskera, XXIV (1978-2), (503-522), 507. orr.) irakur daitekeenez ere hortxe daude ezadostasunik nabarmenenak.

1967-1977 garaiko produktioan, eta *h*-az den bezainbatean, 63,3%tan ageri da *h* bi bokal berdinen artean (*zahar*), 16,5%etan bi bokal berdinek bai baina *h*-rik gabe (*zaar*) eta 19,3%tan bokal bakarra (*zar*). Izenordain eta kidekoetan, bigarrenik, 62,4%tan ageri da *h* (*hau*) eta 37,4%tan ez (*au*). Hitz hasieretan, hirugarrenik, 62%tan ageri da *h* (*harri*) eta 37,8%tan ez (*arri*). Bi bokal ezberdinen artean, azkenik, 62,7%tan ageri da *h* (*zihur*) eta 37,1%tan ez (*ziur*).

Bestalde, eta bustiei dagokienez (ibidem, 508. orr.), 58,9%tan ageri da *in* (*baina*), 27,1%tan *in* (*baiña*) eta 13,6%tan *in* (*baña*). Bestalde, 59,3%tan ageri da *il* (*oilu*), 28,5%etan *ill* (*oillo*) eta 11,8%tan *ll* (*ollo*).

(50) *H*-ari buruzko behin-beitiko erabakiak 1979ko azaroaren 30ean hartuko zituen Euskaltzaindiak. Ikus: "H" letraren ortografi arauak", Euskera, XXIV (1979-2), 659-693. orr.

halaber, lehen osagaia silaba bakarrekoa –nahiz eta bokalez amaitua– denean (*onetsi, ilargi...*). Ostera, lehen hitza silaba bakarrekoa ez denean zilegi da *h* idaztea (*hirurehun...*). Azkenik, etimologiaren eta erabileraren erizpideak aurrez aurre gertatzen direnean bigarrena, eta ez lehena, aintzakotzat hartzea erabakitzen zen (*erbeste, ospe...*).

1978ko urriaren 27an bustiak (*ñ, ll, tt, dd, x* eta *tx*) balio adierazkorra duten kasuetan baizik ez erabiltzea (beraz *baina, mutila, ditu...* baina *haurño, ñabar, llabur...*) erabakitzen zuen, salbuespena aspaldiko toponimoak direlarik (*Iruñea, Urruña, Mañaria...*) (51).

1979ko maiatzaren 30ean, azkenik, agiri inportante bat plazaratzen zuen Euskaltzaindiak (52). Bertan euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu beharra adierazi ondoren beharrezkotzat jotzen zen, hala ere, ortografia bakarra erabiltzea:

“(...) Euskara hizkuntza bat da, eta ez hizkuntza asko. Hizkuntza osoarentzat ortografia bat onartua denez gero, begien bistan da ortografia bakar hori erabili behar dela bai euskalkietan eta bai euskara batuan ere.

(...)

Honekin ez dugu ukatu nahi, bestalde, salbuespenak egon daitezkeela. Adibidez, linguistika lanetan eta toki jakin bateko euskara den bezala jaso nahi denean bidezko izan daiteke *H* ez jartzea, edo *Z* eta *S* ez bereztea, bustiduren grafiak jartzea, etab. (...) Beste arrazoi berezi bat ere bada bertsolaritza, dagoen horretan, alegia, bere fonetismo guztiakin, argitaratzeko. Bertsolaritzak ahozko hizkera baitu bere oinarria; eta hitzak gramatikatzen hasiz gero, neurria eta puntua galdu egingo lirateke askotan. (...)” (53)

7.2. KULTUR HITZEN ORTOGRAFIA

KRUTWIG dugu, guztiz oker ez bagaude, kultur hitzak hartu beharraz bate-tik –ordura arteko joera garbizaleekin hautsiz– eta hitz maileguon ortografiaren ondoren, mintzatuko den lehena. Hauxe zioen 1950eko urtarilaren 27an Euskaltzaindian irakurritako txostenean:

“Gure kultur termin guztiak lataratik ta batez ere gerkeratik harturen ditugu. (...)” (54)

(51) “Kontsonante busti-palatalen grafiaz Euskaltzaindiaren erabakia”, *Euskera*, XXIV (1979-1), 91-92. orr.

(52) “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak. Euskaltzaindiaren agiria”, *Euskera*, XXIV (1979-1), 103-106. orr.

(53) *Ibidem*, 104. orr.

(54) KRUTWIG, *Euskararen idatzi hizkuntzari buruz*, op. cit., 7. orr.

Ondoren bi arau nagusi hauek ezarriko zituen:

“a) gerkeratiko hitzak’ latararen alphabetuaz izkiriaturen dittugu, latarak erabilten zuen transkripziñoaz’ honezaz kontrako legerik iphin eztezaguno.

b) berdifa latarazko hitzentzat”. (55)

Erizpide honen aldeko arrazoez mintzatuko da Gernika aldizkarian:

“(…) Batzuek kultur-terminen orthographia euskaraldu (euren aburuz errazago bait-ta) beharr delat diote, euskararen fonetikari dagozkion legeak ezarriten derauztegarik. Sinhiste haur gezurrezkoa da. Kultur hitzek edozein hizkuntzatan eta kulturdun guztientzat heuren physiognomoni berezina dadukate, ta guk euskaraz’ kanpoko aspektu hori zaindu beharr dugu, liren errdaraz ikasten ditugun hitzak bezalakoak. Kultura ezta jente arruntena, bermailak kulturaren arazoetan ekhintzen ezta, halakotz gure kultur-terminen lexikonak eduki beharr duen gauzatarik lehena bertze hizkuntzen hitzen eitea da”. (56)

Luzaz dihardu auzi honetaz Seminario jaunaren Euskaltzaindirako sarrera-hitzaldiari egindako erantzunean:

“(…) Hala halarik gure hizkarak kultur elherik eztaduzkala askok derra; bainan Renaissance baino lehen Europa guztiko herrien mintzoetarik’ zein hizkuntza bizik zeduzkan? Eta geroz hartutako hitzak ez othe dira hizkuntza guztientzakoak, eta ez batenak, ez bertze hizkuntza baten berarizkoak? Zer egin zuten hizkuntzek orduan? Arbasoen kultur-iaurantzia beretzakotu zuten eta latinetik eta gerkeratiko kultur-elheak erabili zituten, Erromako eta Gerkerriko kultur- seme bidezkoak ziran eta. Gu ere Okzidenteko kulturaren semeok ba gara, geuk ere Klassikoen kultura ondoren dezakegu, European bizi baikara, ezpaikara Aequator-Apriketan bizi izaiten. Gure euskara edozein gauzatarako izan dadintzat’ geuk ere hartuko ditugu latin eta gerkeratik, edozein hizkarak beure kultur-terminak hartzen dituen bezala, hizkuntza zaharr hauk Okzidenteko kultur-hiztegien hartegiak direlako, eskubide haur geuri haizu ta zilhegi zaikulako. (...)

(...) Orain baino lehen euskarak ere, bertze hizkarak bezala latin eta gerkeratik hitzik asko hartu zuen eta baldin orain euskara kanpotiko elikatuz elikatzen ezpa litz’ auhengarria lizateke, elikatuzaren ez-asimilaztea’ agoniaren ezagupidea baita”. (57)

(55) Ibidem, 7. orr. Proposamen eta arau berberak azaltzen dira, halaber, bere *Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito* (7-8. orr.) txostenean.

(56) KRUTWIG’tarr F. K., *Euskara Euskalerrriaren Kultur-Bidea* ledin izan, op. cit., 11. orr.

(57) KRUTWIG’tar J., *Seminario jaunari ongl-etorria*, op. cit., 30-31. orr.

Eta beherago:

“Hizkara klassikoetatiko elheak nahiago ukhaitekotz bertze zio handi bat ere ba dugu. Herrien kultur bideak hizkuntzak dira, iakintsunek herriari demaioten kultura alde askoetatik hartzen dute, hizkararik askoz dathorrrz eta itzultzekotz kultur terminen’ zigurrak izan beharr dute. Hizkuntzaren garbitarazuna etzaie ezer balio sendagileari, legeginari, iakintsunari; hekiek zigurrarazuna dute nahi, argitarazuna ere; garbizalekeria heuroentzat muthilen iokuak eta baliogabeko zentzungabekeriak dira. Sendagileek irakurrten dituten liburuak’ alemanaraz, angloaraz, latinez idatzita daude ta hizkuntza hauietan kultur terminak gerkara ta latinetik dathorrrtz. Kultur elheen zentzuak tinkhetz sendoa beharr du izan, oroentzat bata eta berdina, edonungo iakintsunek erraz hulerr ditzan. Euskaldunen’ baldin beren hizkuntza kultur bide izan dadin nahi ba dezate’ euskarak kultur elhe bidezkoak harrtu ditu, bertzenaz eginen genukeien lana alpherra lizateke. Hunela bizi izanen da gure hizkuntza, euskaldunentzako kultur-bidea. Zer iragan lekikeie euskaldunei kultur termin guztiak’ euskarazko erroetatik hitzak baizik izanen ezpa lira? Nola legoke Unibersitateetan iakintza, filosofiaren ikaspenak iakin nahi lituken euskalduna, ber hunek eskolan zegoelarik ikasi zituen elheak, hitzak eta terminak euskarazkoak baizen ezpa lira? Orduan euskara behaztopobide handia lizateke. Kultur hitzak’ eztira ez baten ez bertze hizkuntzaren berarizkoak’ Okzidenteko herri guztien altxorra direla’ burura dezagun. (...)” (58)

Krutwigek urratutako bide beretik abiatuko da Aita VILLASANTE ere (59).

Proposamen hauek erdizka baizik ez dira nagusituko ondorengo urteetan: kultur hitzak mailegatu premiaren aski jabetze zabala baldin bada ere, ez da beste horrenbeste jazotzen –salbuespen urri batzuk gorabehera (60)– kultur hitzon jato-

(58) Ibidem, 31. orr.

Antzera mintzo da, gaztelaniaz oraingoan, Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito (6-7. orr.) txostenean. Berton, gainera, joera garbizaleen ondorio kaltegarrien salaketa egingo du.

(59) Hauekex lirateke beraren lanik azpimarragarrienak:

– En torno al problema del vascuence, op. cit. Berton (12. orr.), gainera, latinetik euskarara aldatzerakoan jarraitu beharreko arau zenbait ematen ditu.

– Literatur-euskara laphurrartarr klasikoaren gain eratu, op. cit., 288-289. orr.

(60) Hala nola: OSKILLASO, “Batasunerako urhatsak, euskal-analfabetismua eta kultur-hiztegia”, Euskera, VIII-IX (1963-64), 378-385. orr.

1977an argitara emandako Euskal Hiztegi modernoa-n, bestalde, ortografia etimologikoari jarraitzen bazitzaion ere, 1980an eginiko argitalpenean (Hiztegia 80), alde batera utziko zen bide hori.

Aintzakotzat hartzekoa, orobat, Arestik (ARESTIAR G., Hiztegi tripla, op. cit., IX. orr.) egiten zuen oharra:

“Problema ortografikoak asko arduratu gaitu. Bi bide baizik ez dagoela entenitzen dugu: Euskaldun fonetikarena eta tradizio latinarena. Orain aipatzeko ez diren zenbait motiborengatik, gu geu, bigarren honen aldekoak gara, baina herriaren errealitate soziologikoak ez gaitu abentura honetara abiatzen uzten; ehun urteko nazionalismo linguistiko batek seinale sakonegiak markatu ditu euskaldunen kolektibitatean. (...)”

rrizko itxura eta ortografia ere gorde beharra dagoelakoan. Krutwig bera dugu gaurre-
gun ere aukera honi loturik dirauen (ia) bakarra (61). Izan ere, ez 1968ko Arantzazu-
ko Biltzarrean ez eta 1978ko Bergarakoan ez zaio aukera honi eskurik luzatu.

Honela mintzo zen Mitxelena Arantzazun aurkeztutako txostenean:

“Bestetariko hitzak lehen hartu ditugu, eta ez dago beste biderik, au-
rrera ere. Hitz horien itxuraz, ordea, bi iritzi dabilta gure artean: itxura
hori, etorkizkoa alegia, gorde nahi lukete batzuek egin-ahalean, frantsesa-
ren arabera edo, eta itxura aldatzea, xinpletzea, gogokoago dute besteek,
gastelaniaren arabera.

Nik, egia esan, lehen bidea hartuko nuke arras ikasientzat ari bagi-
na, baina ez da hori gertatzen. Xinpletasunera joko nuke areago, edo bide-
erdira behintzat, *y, kh, th (psykologia, etc.)* eta gisa horretako idazke-
rak baztertuaz.

Horiek, noski, izen propioetan behintzat gorde behar lirake (oro-
bat, *c, qu* eta antzekoak). (...)” (62)

Bergarakoan, berriz, zera zioen:

“Hauen joerari –krutwigen eta joerari, alegia– zeharo arrazoizko de-
ritzat eta argi eta garbi ikusten dut nerauk ere dabiltzaten arrazoi-
en indarra. (...) Kultur hitzak hitz sail berezia osatzen dute mendebaldeko hiz-
kuntzetan, eta sail berezi hori itxura berezi batek, hizkuntza idatzian
batez ere, nabarmentzen du. Hitz herrikoiagoak ez bezalakoak dira, beraz,
bai mamiz eta bai azalez. Ezin daitezke, gainera, herrikoi izan herri ba-
tean edo bestean, herri bateko edo besteko ez direlako, guztion ondade ko-
mun izaki”. (63)

Beherago, baina, honako eragozpen hauek azpimarratuko zituen:

“Zenbait ihespide badira arrazoi horren kontra, baina ihespide beste-
rik ez direnak. Hizkuntz-arte-ko batasun hori halaholakoa dela, adibidez,
baita ohitura horren arabera jokatzeko dutenen artean ere: frantsesak *diph-*

(61) Bere jardunean ezezik aukera horren aldeko arrazoi teorikoak ere agertu izan ditu behin eta berriz. Adierazgarrienak baizik ez aipatzearen hona hemen batzuk:

– Euskararen ethorkizuna, op. cit., 25-26. orr.

– Vasconia, op. cit., 53-54. orr.

– EZKIZABEL, A., “Federiko Krutwig-i galdezka”, *Analtasuna* (1978-10-01), 369. zb., 21-24. orr.

– Garaldea. Sobre el origen de los vascos, Txertoa, San Sebastián, 1978, 70. orr. eta hurr.

– “Kultur hitzen orthographia euskaraz”, *Euskera*, XXVII (1982-2), 665-668. orr.

(62) MITXELENA, Luis, *Ortografia*, op. cit., 215. orr.

(63) MITXELENA, K., “Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz”, *Euskera*, XXIV (1978-2), (773-785), 781. orr.

tongue idazten duen bitartean, *diphthong* agertzen da bai ingelesez bai alemanez (...). Erantzun ere daiteke kultur hitzak eta hitz herrikoiak ez daudela elkarrengandik hain saihestuak non batzuetarik besteetara pasatzeko zubirik ez den. Maiz aurkitzen baititugu, edozein lekutan, kultur hitzak, txantzetan edo erabili direlako, bere esertoki goitarretik beheititua: hor duzue, *erretolika* ez ezik, gure *kalamatrika* nahiz frantsesezko *grimoire*. (...)

Ihespideak ez ezik, arrazoibide sendoak ere ikusten ditut nik, ordea, buruzpide honen kontra. Eta teori mailan ahulak diruditen arren, aski bortitzak, ene ustez. Ez du inork ukatuko hizkuntza klasikoei (hauei batez ere, nahiz zeharbidez izan) gorde nahi zaien leialtasunak ez duela gure irakurleen (eta batipat idazleen) eginbidea erraztuko, zailduko baidzik. Oronen gain, *gaztelaniaz mintzatzen den kultur munduan partaide diren euskaldunen zat* zailduko du, eta ez dira ez guttienak ez ezerezenak. (...)" (64)

1983an ekiten dio EUSKALTZAINDIAK maileguzko kultur hitzen ortografia arautze eta finkatzeari (65). Hasieratik bertatik bi joera nagusi nabarmentzen direla dio Villasantek:

"1. Euskararen lege fonetikoei lehenetasuna eman dakion nahi duena, eta, beraz, kanpotiko hitzok ahalez lege horien arabera idaztea nahi duena.

2. Begiari edo optikari kasu eginez, hitz horiek sartaldeko hizkuntza landuetan duten idazmoldetik gehiago edo gutiago hurbil egotea nahi duena. Hala ere, esan behar da hitz horien grafia etimologista erradikala baztertua izan zela". (66)

(64) *Ibidem*, 781-782. orr.

(65) Ezin utzi aipatzeke, haatik, garai honetan zehar, eta Euskaltzainditik at, emandako urrats zenbait, hala nola Elhuyar aldizkarian plazaratutako proposamen eta erabakiak (ZALBIDE, M., "Zientzi eta teknika hizkuntzarako proposamenak", *Elhuyar* (1976), 9. zb., 27-52. orr.; ETXEBARRIA, J. R., "Euskara teknikoari buruzko eritzi batzu", *Elhuyar* (1975), 4. zb., 37-49. orr.; (1975), 5. zb., 35-51. orr. eta (1976), 6. zb., 51-60. orr.; SARASOLA, I., "Atzizki-egitura baten bilakaeraz", *Elhuyar* (1977), 10. zb., 63-68. orr. eta abar); hiztegiak egindako aukerak, azpimarragarrienak, behar bada, *Natur Zientziak Hiztegia* (1976) (ikus *Hitzazurreko XLII-LIV. orr.*), *Euskal Hiztegi modernoa* (1977), L. M^a Mujikaren *Diccionario general y técnico / Hiztegi orokorteknikoa* (1977) eta U.Z.E.I.-renak (ikus, esate baterako, J. R. Etxebarriak *Fisika Hiztegia*-ri egin hitzaurrea, 15-35. orr.). Aipamen berezia behar du UZEI-k argitaratu emandako *Maileguzko hitzak*. Ebakera eta idazkera, Donostia, 1982 lan interesgarriak.

(66) VILLASANTE, Fr. Luis, "Uztaritzeko adierazpenean agintzen dena betetzeaz", *Euskera*, XXIX (1984-1), (263-267), 265. orr.

1984ko martxoaren 30ean, hala ere, nabardura hau egiten zuten Euskaltzaindiak ("Euskaraz hitz berriak maileguan hartzeko premia legokeenean nola har litezkeen bukaerari dagokiola", *Euskera*, XXIX (1984-2), (785-789), 789. orr.):

"Beste alde batetik adierazten da, grekotikako hitzetan, latinean erabiltzen zen ortografiaren arauerako usariotik, hau da, *ph, th, y*, eta abar, erabiltzetik saihestuaren ere, horrek ez duela esan nahi berri hartarik datorren erro zaharra kulturazko mundurako ezerezurik gelditzen denik, eta, hizkuntza klasiko horren ezagupidea, latinarena bezala, euskaldun ikasien arterako zabalik uztea eta bultzatzea beharrezko dela, Europako Kulturaren iturburu denez gero".

Honako hauexek dira Euskaltzaindiak aztergai hartzen dituen arazoak: 1) hitz hasierak; 2) hitz bukaerak; 3) “G” eta “J” ren erabilera; 4) “J”, “Y” grekoa, “I” latinoa eta noiz “Hi” eta noiz “J”; 5) “X” duten hitzak eta 6) noiz “J” noiz “I”.

1983ko abenduaren 30ean hitz hasierei buruzko erabakiak hartzen ziren (67). Alde batetik, erdaraz hasieran *r* edo *s* + kontsonantea daukaten hitzei protesi-bokala (*e*) ezartzea gomendatzen zen (*erromantiko, erradiografia...*). Hiru dira arau honek dauzkan salbuespen nagusiak: a) aldeztu aurretik, elkarketa dela eta, beste bokalen bat egotea (*kontrarreforma...*); b) sigla eta izen propioak (*RENFE, Rembrant...*) eta c) mailegu irentsi gabeak (*radar, rally...*).

Bigarrenik, leherkari ahoskabeak ahostun ez egitea gomendatzen zen (*politika, kontrola...*). Arau bera ezartzen zaie mailegu zaharren eratorri berriei (*gorputz baina korporazio*).

1984ko martxoaren 30ean hitz bukaerei buruzko erabakiak hartzen ziren (68). Alde batetik, latinetik hitzetan ohizko bideari jarraitzea gomendatzen da hitzaren bukaerari dagokionez, literatur tradizioan zein ahozko mintzairan aukera bikoitza baldin badago biak ontzat har daitezkeelarik (69). Grekotiko hitzetan, ostera, amaierako *-o* gordetzeko aholkua ematen da. Bestalde, *análisis, -eōs; katékhēsis, -eōs; metrópolis, -eos...*, nominatiboko azken *-s* gabe har daitezke (*analisi, katekesi...*), *-itis* bukaera dutenetan (*flebitis, otitis...*) edo silaba bakarreko edo biko hitzetan (*iris, atlas, kosmos...*) izan ezik.

Mailegu berrien *-a* organikoari eustea gomendatzen da (*biologia, filosofia...*), hitz elkartu eta eratorrietan *-ia* bukaera dutenek azken *-a* hori gal dezaketen arren (*biologi ikerlanak...*).

Urte bereko maiatzaren 25ean, mailegu zaharretako *j* eta *i* onartu arren, berrietan *g* hobestea erabakitzen zen (*biologia, geografia...*). Bestalde, erdaretako *i / j / y*-ri dagokienez, bokal artean *i* eta gainerakoetan, silaba hasieran badago, *j* idaztea gomendatzen zen (70).

Uztailaren 27an *x* daukaten maileguei buruzko erabaki hauek hartzen ziren (71). Hasieran, bukaeran eta bokal artean *x* idaztea (*xenofobia, fenix, taxi...*) eta kontsonante aurrean, ostera, *s* (*esplikatu, testu...*).

1985eko otsailaren 22an (72), kontsonante sudurkari ezberdin bi elkartzen direlarik, biak atxikitzea erabakiko zen (*amnistia, himno...*).

(67) “Maileguzko hitzak. 1. Hitz hasierak”, *Euskera*, XXIX (1984-1), 269. orr.

(68) *Euskaraz hitz berriak... II. Hitz bukaerak*, op. cit.

(69) Arau honi buruzko zehaztasun zenbait ezagutzeko ikus *Euskaraz hitz berriak... aipatu agiriko 785-787. orr.*

(70) “G, J, I, Y”, *Euskera*, XXIX (1984-2), 791. orr.

(71) “X”, *Euskera*, XXIX (1984-2), 793. orr.

(72) “Maileguzko hitzez”, *Euskera*, XXX (1985-2), (465-467), 465. orr.

Urte bereko apirilaren 26an beste kontsonante multzo batzuri buruzko erabaki hauek hartuko ziren (73):

a) Kultur hitz mailegatueta *-kt-*, *-pt-* eta *-db-* multzoak gordetzea (*arkitekto, kontzeptu, adberbio...*).

b) Era berean, *-kn-*, *-gm-* eta *-dm-* multzoak atxikitzea (*teknika, sintagma, administrazio...*).

c) Bai halaber *-dj-* eta *-bj-* (latinetik hitzetan bederen) multzoak (*adjudikatu...*).

Arau guzti hauek salbuespen bakarra daukate: hitzak ahozko tradizio zaharrekoak direnean kontsonante bakarraz *-bigarrenaz* alegia adieraziko dira (*frutu / fruitu, erretore...*).

Ekainaren 27an, hitz mailegatuak hiru kontsonantezko multzoa osatzen dutenean, euskaraz ere hiru kontsonanteoi eustea erabakitzen zen (*institutua, konstituzioa...*). Salbuespena, oraingoan ere, hitzok aspaldidanik erabilia izatea zen (*sustantzia...*) (74).

Azaroaren 27an txistukariei buruzko hiru erabaki hauek hartuko ziren (75):

a) Latinez bokal artean bi *-ss-* izan arren, euskaraz bat bakarra idatzi (*asimilazio, disimilazio...*).

b) Latinez *-sc-* (grekoz *-sk-*) multzoa *-i* edo *-e* bokalen aurrean gertatzen denean, euskaraz *-sz-* idatzi, hitz hasieran egotera *e-* protetikoa hartuko duelarik (*aszetika, eszeptiko...*). Euskaraz aspaldidanik erabilitako hitzak (*dizipulu, zientzia...*) lirateke salbuespenak.

c) Latinez *-sch-* (grekoz *-skh-*) multzoa *-i* edo *-e* bokalen aurrean gertatzen denean, euskaraz *-sk-* idatzi (*eskema, eskizofrenia...*), salbuespenak, berriz ere, mailegu zaharrak (*zisma / xisma...*) liratekeelarik.

Azaroaren 29an, azkenik, hitz mailegatueta *z* edo *s* kontsonanteak *l*, *n* edo *r* ondoren gertatzen direnerako honako bi arauok emango ziren (76):

a) *l* ondoren txistukari afrikatuak erabili (*koltza...*).

b) *n* eta *r* ondoren ere txistukari afrikatuez baliatu (*kontsonante, Unibertitate...*). Arruntak ez diren mailegueta, ordea, jatorrizko multzoari eustea erabakiko zen (*enzima, katarsi...*).

(73) Malleguzko hitzez, op. cit., 466. orr.

(74) Malleguzko hitzez, op. cit., 467. orr.

(75) Euskera, XXXI (1986-1), 111-112. orr.

(76) Euskera, XXXI (1986-1), 118. orr.

7.3. MORFOLOGIAREN KODIFIKAZIOA (77)

Bi izan dira, morfologi sailean, buruhausterik gehien eman duten arloak: deklinabidea eta, batez ere, aditza.

7.3.1. DEKLINABIDEAREN KODIFIKAZIOA

1964ko Baionako Biltzarrean hartzen ziren deklinabideari buruzko lehen erabakiak (78). Honako hauxe zen bertan proposatutako eredia:

	Mugagabea	Sing.	Pl.
Nominatiboa	∅	-a	-ak
Ergatiboa	-(e)k	-ak	-ek
Datiboa	-(r)i	-ari	-ei/-eri
Gen. edutezkoa	-(r)en	-aren	-en
Soziatiboa	-(r)ekin	-arekin	-ekin
Destinatiboa	-(r)entzat	-arentzat	-entzat
Instrumentala	-(e)z	-az	-ez/-etaz
Inesiboa	-(e)tan	-(e)an	-etan
Gen. leku-denborazkoa	-(e)tako	-(e)ko	-etako
Adlatiboa	-(e)tara	-(e)ra	-etara
Ablatiboa	-(e)tatik	-(e)tik	-etatik
Partitiboa	-(r)ik		
Prolatiboa	-tzat		

Bizidunetz den bezainbatean hurrengo hauek proposatu ziren:

	Mugagabea	Sing.	Pl.
Inesiboa	-(r)engan	-a(ren)gan	-engan
Adlatiboa	-(r)engana	-a(ren)gana	-engana
Ablatiboa	-(r)engandik	-a(ren)gandik	-engandik

(77) Euskal Herrian egon eta proposatu izan diren eredu-standard guztien eta bakoitzaren morfologi saileko arauen berri ematea luzeegi joango litzazukeenez, "euskara batua" deitu ereduarenak soil-soilik azaltzera mugatuko gara.

(78) EUSKAL IDAZKARITZA, Balona'ko Biltzarraren Erabakiak, op. cit., 3-4. orr.

Izen nagusiak, azkenik, mugagabeak bezalaxe deklinatzea erabakitzen zen, ondorengo aldaketa hauekin:

Inesiboa	-(e)n
Gen. lekuzkoa	-ko
Adlatiboa	-(r)a / -era
Ablatiboa	-tik

Baionako Biltzarrean ez zen, egia esan, aldaketa nabarmenik egiten deklinabide arlo honetan, aitzitik, abian zetozen joerei indarra ematen zitzaien (79). Arauotarik aipagarrienak honako hauekex lirarteke:

- a) Nom. pl. (-ak) eta erg. pl. (-ek) bereiztea erabakitzen zen.
- b) Datibo pluraleko atzizki ugaritasuna murriztu egiten zen, oraindik ere aukera bi -ei / -eri onartzen ziren arren.
- c) Instrumentaleko atzizkiak finkatzen ziren, nahiz eta hemen ere bi aukera (-ez / -etaz) utzi pluralerako.
- d) Diptongoz (ai, ei, oi, ui, au, eu) amaitutako hitzak kontsonantez amaituak bezalaxe deklinatzea onartzen zen.
- e) Mugagabearen berezitasuna azpimarratzen zen (80).

(79) Proposamen hauek guztiok aurki daitezke, esate baterako, Txillardegik 1958an Euskaltzaindian aurkeztutako Batasunaren bidea txostenean.

(80) Ahalegin nabarmena egiten da garai guzti honetan zehar deklinabide mugagabea arretaz begiratzearren eta arlo honetan egiten ziren huts ugariak zuzentzearren.

Deklinabide mugagabea, harrigarria dirudien arren, ez da euskararen arauemaileen artean aintzakotzat hartua izan harik eta Darrigolek bere *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, op. cit., 44. orr., aditzera eman zuen arte:

"Le basque reconnaît deux nombres seulement, le singulier et le pluriel; mais, avant tout, les noms de cette langue présentent un sens indéfini quant au nombre. Ce sens étant le premier que présentent les noms basques, sous leur forme la plus simple, il est étonnant que nos grammairiens ne l'aient pas saisi; et il serait plus étonnant encore que, l'ayant saisi, ils n'en eussent tenu aucun compte (...)"

Berdin beherago ere:

"Le premier membre de la déclinaison, que nous avons qualifié d'*indéfini*, n'ayant point été traité jusqu'ici par nos grammairiens (...)" (Ibidem, 70. orr.).

Mitxelena (MICHELENA, Luis, "Miscelánea filológica vasca (I)", FLV, X (1978), nº 29, (205-228), 210. orr.), ordea, zera gogora ekarriko digu:

"(...) la distinción de una declinación indeterminada, que no es superficialmente ni singular ni plural, es anterior a la *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, Bayona, 1827, de Darrigol, ya que Humboldt sabía de ella porque «Astarico lo dice expresamente en sus cuadernos», como puede verse en J. Garate, G. de Humboldt. *Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*, Bilbao, 1933, p. 169. Cf. además Wilhelm von Humboldt nella cultura contemporanea, ed. Luigi Heilmann, Bologna, il Mulino, 1976, 113 ss." (Artikulu hau, gaztelaniaz orain, ezagutzeko ikus: *Lengua e historia*, op. cit., 126-142. orr.).

Itus, halaber, VILLASANTE, Fr. Luis, *La declinación del vasco literario común*, Editorial Franciscana, Aránzazu-Oñate, 1972, 13. orr. eta oharra.

1968an Ermuan egindako Biltzarrean berronetsi egiten ziren Baionako erabakiok (81) eta, aldi berean, *-a* organikoarekiko arreta berezia izatea eskatzen (82). Arantzazuko Euskaltzaindiaren Biltzarrean ere ontzat ematen zen deklinabide eredu hau (83), nahiz eta *ai, ei, oi, ui* diptongoz amaitutako hitzak bokalez amaituak bezala deklinatzeko joera nagusituko den.

1979ko azaroaren 30ean hartzen zituen Euskaltzaindiak deklinabideari buruzko azken erabakiak (84). Urte berean onartzen zen, halaber, erakusleen deklinabidea (85).

7.3.2. ADITZAREN KODIFIKAZIOA

Aditza gertatu da, alde aurretik ere susmatzen zenez, euskararen standardizazio-gintzako oztoporik gaitzena. Honela azaltzen zuen Mitxelenak zailtasun horren zergatia:

“Ez da inondik ere aditza euskalkien arteko bereizkuntzarik larriena. Bere eskualdekoa dakien euskaldunak aurki idoroko du besteren aditzaren giltza, bestela esan, bata beste bihurtzeko erabili behar diren itxuraldatze erregela errazak. Beste zerbaitetan egingo du behaztopa usuenik: hotsetan, hitzetan, joskeran. Aditz bereizkuntzek ez dute, haatik, antolamendurik ez konponbiderik: bata hartu behar, noraezean, eta bestea baztertu”. (86)

Berdin mintzatzen zen Euskaltzaindiak 1973ko agorrilaren 10ean eginiko bilera:

“Aspaldi esana dut aditza genuela batasun bidean aurki genezakeen behaztoporik bihurriena: hautatu behar, eta nekez hautatuko. Adizki sail baten alde mintzatzen baldin bagara, izan ere, badirudi baztertu eta arbuia egiten ditugula, nora ezean, horien kidekoak. Eta baztergarriak oro (berrikeriak, itxuragaiztoko formak eta abar) baztertu ondoan ere, bada beti, edozein har-eman adierazteko, euskal adizki zuzenik aski eta

-
- (81) GARMENDIA, Salvador, “Euskeraren batasuna”, *JakIn*, XII (1968), 31-32. zb., (28-38), 36-37. orr.
- (82) Garaiko gramatiketan nabaria da *-a* batez amaitzen diren hitzak zehaztearren eta hitzonen deklinabidea ezagutzera ematearren egiten den ahalegina. Ikus, esate baterako, S. Garmendiak Arantzazuko Biltzarrean aurkeztutako txostena (GARMENDIA, S., “Deklinazio”, *Euskera*, XIII (1968), (151-161), 157-159. orr.) edo LARRESORO, *Sustral* bila, Donostia, 1970, 18-40. orr. zein VILLASANTE, Fr. Luis, *La declinación del vasco literario común*, op. cit., 34-44. orr.
- (83) GARMENDIA, S., *Deklinazio*, op. cit.
- (84) “Deklinabidea”, *Euskera*, XXIV (1979-2), 633-657. orr.
- (85) “Erakusleak”, *Euskera*, XXIV (1979-2), 629-632. orr.
- (86) “Azken ordukoak”, Mitxelenaren *Idazlan hautatuak*, op. cit., 377. orr.

gehiegi. Hiztegi hauzietan, horrelako ugaritasuna ez da maiz asko aberas-
tasuna baizik: *agitu*-ri esate baterako ez dio kalterik egiten aldamenean
gertatu nahiz *jazo* edukitzeak, ezta *erori*-ri ere *jausi*-ren hurbiltasunak.
Gramatika alorrean, ordea, berezko dirudi bata ala bestea, ez bata nahiz
bestea, hartu behar genukeela, bata ala bestea utzi bertan behera: *gizon*-
ei ala *gizon-ai*, *gizon-eri* ala *gizon-er*, ez guztiak nahaste". (87)

1964ko Baionako Biltzarrean ematen zen aditza arautzeko lehenbiziko urratsa,
nahiz eta bertan *izan* eta *ukan* aditz laguntzaileen orainaldia eta iragana eta *izan*-en
baldintza erak baizik zehazten –eta aukera bikoitzak eskainiz maiz– ez ziren (88),
betiere, gainera, aurreko urteetatik abian zetozen joerei amore emanez.

Zuhurtzia handiz jokatu da, halaber, 1968an Ermuan egindako bileran. Alde
batetik, aditz erroa eta partizipioa bereiztea erabakitzen zen eta, bestetik, *nuen*,
zitekean, *zekiokean*... gisakoak erabiltzea gomendatzen zen, *nun*, *non*, *niin*,
nendun, *ziteken*, *zekioken*... bezalakoak baztertuz (89).

ZER-NORI-NORK erako adizkiek piztuko dituzte eztabaidarik garratzenak. Ba-
tzuk lapurteraren ereduak hobesten duten bitartean, gipuzkerari lotuago azalduko dira
besteak (90). Bizi ziren eztabaida eta tirabiron berri izateko arras adierazgarria dugu
Batasunaren Kutxa-ren antolatzaileek egiten zuten oharra:

“(…) **IZAN** aditzean hirutan agertu dira era dobleak; berdin da nahiz
bata nahiz bestea erabiltzea. Era doble hauk ugariagoak dira **UKAN** adi-

(87) MITXELENA, “Aditz laguntzaile batua”, *Euskera*, XVIII (1973), (5-8), 5. orr.

(88) EUSKAL IDAZKARITZA, *Balona*’ko Biltzarrean Erabakiak, op. cit., 5. orr.

(89) GARMENDIA, *Salbador*, *Euskeraren batasuna*, op. cit., 37. orr.

(90) Horixe berori aitortzen dute eztabaida honetan partaide diren zenbaitek. Kintanak (*La lingüísti-
ca aplicada a la enseñanza del euskera y la enseñanza en euskera*, op. cit., 214.
orr.), esate baterako, zera baieztatuko du:

“Aditzean ere puntu importante askotan batera gatzoz idazle gehienok, eta ez dut uste, huske-
ria tipitan ezik, bat ere ezberdintasun handirik dagoenik **IZAN** eta **UKAN** aditz laguntzai-
leen konjugazioan, lehen eta bigarren pertsonazko datibo batzuetan izan ezik. Aditz sinteti-
ko gehienetan gainera, batasuna eginda dagoela esan dezakegu, berez, euskalki guztietan na-
hiko batuta baitaude”.

Berdin Patxi Altunak (ibidem, 219. orr.):

“Aditzean dugu, dudarik gabe, gorabeherarik handien. Baina ez ere Aditz osoan. Zenbait
adizkitan –uste den baino gehiagotan– bateratsu datoz euskalkiak beren literaturako formetan;
bateratsu ere askotan *Euskara Batua* nahi dutenak. Esaterako, NOR-aditzaren formetan
alde tipiak ditugu (...). NOR-NORI-koan aditz laguntzaileak emango dizkigu lanak, Indika-
tibo ez diren beste moduetan batikbat: hala nola “dakioke” ala “dakikeo”, eta abar. NOR-
NORK aditzak ere baduke duda-mudazko zenbait forma, trinko edo sintetiko deritzanean
batez ere, baina ez asko: esaterako, “dakitzi” ala “dakitza”, “ginderamatzin” ala “ginderama-
tzan”, eta abar. Horietan aukera egin behar. Aditz laguntzailean “zindudan” ordez “zintudan”
eta “nenzan” ordez “nintzan” hartzen, ez dut uste inork neke handirik izango duenik. NOR-
NORI-NORK, hiru lagunetakoak, bereizten eta aldentzen gaitu gehienik Batuzaleok elka-
rengandik. Horrek ere lanak emango dizkigu”.

Altunak berak, aditz laguntzailea bateratzeko Euskaltzaindiak osatu zuen batzordeko idazkaria be-
rau, zehatz-mehatz azalduko zuen eztabaida horiek zertan zeuztan: ALTUNA, Patxi, S. J., “Aditz
laguntzaile batua gorabeherak”, *Euskera*, XXII (1977), (661-672), 671-672. orr.

tzean; hau gertatu da datiborako ez garelako akort geratu bizkaitarrak eta lapurtarrak alde batetik eta giputzak bestetik. Lehenei Axularren eta Leizarragaren sistema klasikoa iruditzen zitzaizkien hobekien zenbait aldakuntzatxorekin, aberatsagoa eta haien euskalkietatik hurbilago iruditzen zitzaielako; giputzen firmetasunaren aurrean, amore eman zuten, eta DIO-antzeko formak onartu zituzten hirugarren pertsona datiborako, hoiekin bakarrik ez zelako apurtzen datiboaren eta etikoaren berezkuntza, eta lehen bietan (DAUT eta DAUTZU-antzekoetan) giputzek amore emanen zuten, baina ez zuten eman, eta sorterri txikiari giputzek erakutsitako amorioaz miraturik, bitasun honetara heldu ginen, gainerako puntu guztietan lortutako batasuna ez zedin desegin. (...)” (91)

Kintana dugu, Arestirekin batera, Lapurdiko aditzaren aldekorik sutsuenetarikoa. Honela agertuko zuen bere eritzia Anaitasuna aldizkarian:

“Baina, honetan sartu aurretik ere, neronek argi eta garbi utzi nahi nuke, oposizio edo kontrastasan hori ez dela osoa, alegia, lapurtera modernoak ontzat hartuz gero –dakidanez, lapurtera klasikoaren aldeko proposamendu bortitzegirik ez baitago–, beronen % 85 forma, gutien gutienez, gipuzkerazkoak BEZALAKOXEAK diratekeela, hots, liburu normal batetan, ehun formatatik laurogei eta bost berdin berdinak direla, bai gipuzkeraz eta bai lapurtera modernoaz. Gu, lapurtera zaharra gabe, modernoak hartzera bultzatu gaituzten arrazoi sendoenetako bat, hain zuzen ere, horixe izan da, gipuzkerarekin duen antza.

Beraz, lapurtera aipatzen dudanean, argi eta garbi geldi bedi, ez naitzela mintzatzen, gipuzkeraren kontrako den zerbaitez, gipuzkeraren «osagarri» den euskalki batez baizik, hots, lapurtera «gipuzkoarritatu» batez.

Mundu guztiak dakikeen bezala, gipuzkera puntu askotan bizkaiera baino aberatsago, goxoago eta egokiago dela aitortzen dudan bezala, lapurtera are bizkaiera eta gipuzkera baino osoago eta aberatsago dela aitortu beharrez nago; eta, berau frogatzeko, aski dateke ondoko esaldi hau gipuzkeraz nola ematen den ikustea (besterik ez jartzeagatik): *Ez dauat esan, baina hori askotan esan diat*. Gipuzkeraz: *Ez diat esan, baina hori askotan esan diat* (?), hau da, beti ilun, argitasunik eta zehaztasunik gabe, lapurterak –eta honetan bai bizkaierak eta zuberorak ere– gauza biak ezin garbiago adierazten dauzkigun artean”. (92)

(91) ARESTI, Gabriel; KINTANA, Xabier, *Batasunaren Kutxa*, op. cit., 76-77. orr.

(92) KINTANA, Xabier, “Aditzaren batasunaz gauzak argiro (I)”, *Anaitasuna*, 1972-01-15, 226. zb., 16. orr.

Behin eta berriro lotuko zitzaion Kintana gai honi. Goian aipatu artikuluak, adibidez, 227 (9. orr.) eta 228 (15. orr.) aleetan izango zuen jarraipena. Ikus, halaber, honako beste bi hauek: “Aditz batua dela ta”, *Anaitasuna*, 1970-11-30, 200. zb., 8. orr. eta “Aditzaren batasunaz”, *Anaitasuna*, 1971-09-15, 218. zb., 12. orr.

.../...

Gipuzkoako aditzaren aldekoen artean, berriz, Mitxelena azaltzen zaigu denen buru. 1970ean "Euskal Idazleen Elkarte"-k antolatu bilerara igorritako txostenean, esate baterako, argi eta garbi adieraziko zuen bere aukera:

"(...) luzamendurik maite ez duzuenek gero, ni giputz aditzaren alde nago argi eta garbi. Aski erraza da, sistematikoa, zenbait hutsune gorabehera. Ez giputz aditz klasikoaren alde (ez naiz orain hasiko bat ala bi diren aztertzeko), baizik eta azken urte hauetan ongi ala gaizki erabili denaren alde: nonbait bestetan baino ederkiago ageri baldin bada, Aita Omaetxebarria (bizkaitarraren) liburu ezagunean izan da. Badakit gehitua eta osatua izateko premian dela, badakit zenbait igortzi eta ukituren premian ere dela. Osa bedi eta uki bedi, baina bere izanean dirauela funtsez". (93)

Gipuzkoako aditzaren aurkakoei, ostera, zera jakin eraziko die:

"(...) ez dela hizkuntzarik berez eta izatez beste edozein hizkuntza baino hobe eta egokiago denik. Landuagorik, bai, jakina, zenbait momentutan honelako edo halako premietarako trebeagorik. Ez ote zaizue, bada, miresgarri iruditzen, goi eta behe mailako hizkuntzarik ez baldin bada, euskalkiren bat (aski landua bera) besteak baino behartsuago eta errumesago gertatzea, adimenduaren trabagarri, ez laguntzaile?

Delako aditz narras horren kontra bi arrazoi entzun eta irakurri ditulakoan nago. Hauexek dira:

a) Ez da euskalki horretan, hiru pertsonarekiko adizkiei bagagozkie, hirutarik bat baizik gelditzen. Beste hirutarik biak, galduak izateaz gainera, ez du osatzeko biderik.

b) Hitanokoan, anbiguitatez josia dago. Zernahi diogula, bi gauza esaten ditugu, adierazi nahi genukeen bakarraren orde. *Egin diat* 'hiri zerbait egin diat' da batetik, baina, bestetik eta ezinbestean, baita 'egin dut (hirekin ari nauk)' ere.

Lehenbizikoaren indarra eta muina ez dut, egia esan, inoiz ere ulertu (...). Bestela esan, buruz ederki ulertzen dut (...).

.../...

Analtasuna aldizkariak berak ere ontzat emango zuen bide hau ("Euskara batua. Galdeak eta erantzunak (I)", Analtasuna, 1972-02-15, 228. zb., 15. orr.):

"Garrantziko arrazoi honegatik bereizten ditugu ANAITASUNAn *diat/dauat, nian/neuan, diuz/dauzud, nizun/neuzun* gipuzkera beste euskalkietako aberastasunekin osatu nahirik".

Azpitarrak dezagun urte hauetan zehar ere -behinola Azkueren "gipuzkera osotua"-rekin gertatu bezala- gipuztekek euren euskalkian huts-hutsean, besteenei ezertan amore eman nahi gabe, oinarritzeko (omen) duten jarrera salatzen dela behin eta berriz, salaketa, orangoan ere, bizkaitarrangandik -hauexengandik bereziki- etorriko delarik.

(93) "Aditz banuz", Mitxelenaren Idazian hautatuak, op. cit., 124. orr.

Euskalki horretan, adibidez, honako Leizarragaren honek ez du itzulpen zuzenik: *eta egin baikrauzkió Rege eta Sakrifikadore Iainko bere Aitari* («gu»-ren orde, beste batzu izan balira, *errege egin dizkio* esan genezakeen legez). Zeharbidezkorik, bai; zuzenik, ez, Bizkaian (eta Beras-koitzen?) sor daitekeen modukorik.

Huts larri horretaz, ibili banenbilen eta euskara erabili banerabilen ere, ez nintzen sekula ohartu Lafon-en liburua 30-en bat urte nituelarik irakurri nuen arte. Egingo nuke, gainera, euskaldunik gehienak, lehen-goak eta oraingoak, ez direla behinere kontura. Ez dut uste, bada, nabari ez dugun hutsa hutsa dei daitekeenik, ez larri eta ez apur.

(...)

Gatozen bigarren puntura: *egin diat* eta gainerakoak bitara har daitezke. Nik ez dut esango horrelako anbiguitateak hizkuntzaren onerako direnik; ezta ere, ordea, kaltegarri eta are galgarri direnik. (...)” (94)

Mitxelenaekin bat etorriko dira, besteak beste, Patxi Altuna (95) eta Txillardegi (96).

Aditz laguntzaile batua erabakitze garaian ere aukera bikoitz hauxe izango zen, Patxi Altunak dioenez, eztabaidagaririk nagusienetarik bat:

“NOR-NORI-NORK sistema osoa. Giputz-Nafarrera sistema ala Lapurdikoa? ‘dit’ ala ‘deraut’ ala ‘daut’? Eta puntu honetan pisu handia beste honek zuen: hitanozkoetan ‘diat’ eta ‘derauat’ bereizi, lapurteraz bezala, ala ‘diat’ bakarra hartu, giputznafarreraren arabera? Bereiztekotan, ‘dit’-ek, hots, giputznafar sistemak, ez omen baitzuen zentzurik. Horregatik nahi zuten batzuek ‘diat-derauat’ ala ‘diat’ bakarraren korapiloa alde z aurretik askatu, horren mendean jartzen baitzuten ‘dit’ ala ‘deraut’ edota ‘daut’ zein onar. Besteek, berriz, hitanozkoa gerorako utzirik lehen bait lehen nahi zuten, eta besteri begiratu gabe, ‘dit’ ala ‘deraut’ edota ‘daut’ erabaki”. (97)

Azkenean, nafar-gipuzkeraren aditz jokoa aterako zen garaile, zenbaitetan, aha-lezko eta subjuntiboetan batipat, lapurterari ere eskua luzatzen zitzaion arren.

(94) “Azken ordukoak”, Mitxelenaeren Idazlan hautatuak, op. cit., 386-388. orr.

(95) Ikus, esate baterako: ALTUNA, Patxi, S. J., “Aditz batua”, ZA, 1971-11-07, 454. zb., 12. orr.

(96) Txillardegik hasiera baten, eta arrazoi linguistikoei soil-soilik so eginez, lapurteraren abantailak onartuko bazituen ere (LARRESORO, Sustrai bila, op. cit., 118-119. orr.), gerora, eta arrazoi soziologikoei lehentasuna emanaz oraingoan, giputz aditza -nahiz eta osotua- hobetsiko du. Ikus, adibidez: LARRESORO, “Bide bat behar”, ZA, 1972-01-02, 461. zb., 3. orr. edo “Andolin Eguzkitzari erantzunez”, ZA, 1972-03-05, 470. zb., 3. orr.

(97) ALTUNA, Patxi, S. J. Aditz laguntzaile batuaren gorabeherak, op. cit., 671-672. orr.

ONDORIO OROKORRAK

Euskarak bizi izan duen bilakabidearen azterketak erakusten duenez, erabateko eragina izan dute hizkuntzaz kanpoko indarrek beronen standardizaziogintzan. Gure eritziz horrelaxe baizik ezin uler daiteke, neurri zabal baten behinik behin, bai euskara standardaren eraikitze berankorra –nahiz eta asmo hau lehen idazleengandik (Leizarraga, Axular, Tartas, Sarako Etcheberri...) hasita denen gogoan egon den– eta bai “euskara batua” deitu eredu standardak –aurreragoko beste guztiek bezalaxe– onartu eta hedatuko bazen gainditu behar izan dituen eragozpen eta oztopo gaitzak.

Bi motatako arrazoiak ikusi uste izan ditugu guzti honetan: euskara zenbait esparrutatik (administrazioa, irakaskuntza, hirigune eta industri giroko bizitzatik, komunikabideetatik...) baztertua eta erdarek ordezkaturia egotea batetik eta, bestetik, Euskal Herriaren beraren zatiketa.

Lehenbiziko indarren eraginez eta euskaldun guztientzako hizkuntz-eredu bakar bat izan ez delarik, euskalkiak elkarrengandik gero eta urrunago, gero eta ezberdinago gertatu dira. Izan ere, bestelako hizkuntzak (latina, okzitanoa, gaztelania, frantsesa...) izan dira gurean administrazioan erabili direnak. Irakaskuntzan, orobat, baztertua –zigortua izan ez denean– gertatu da euskara eta hirietan ere, azkenik, erdarak izan dira nagusi.

Honen ondorioa ere bikoitza izan da. Alde batetik, euskalki ezberdinetako hiztunek elkar ulertuko bazuten erdaretara jotzeko jarrera (Peñafloridako Kondeak argi eta garbi erakusten zuenez) sendotu da eta, bestetik, plazaratuz joan diren eredu standardak, bazter euskalkietako hiztunen artean batipat, “inoren” hizkuntzatzat edo eredu “zail” eta “ulertezinezko”-tzat hartuak izan dira.

Euskal Herria, bestalde, politikoki, administratiboki, ekonomikoki... zatikaturia agertu izan da –eta egun ere halaxe agertzen da– bere historia luzean zehar. Honen, gorago aipatu emaitzak areagotzeaz gainera, beste berri bat ere erantsi izan die: euskalki eta azpieuskalkien arteko norgehiagoketa eta lehiak piztea alegia. XVIII eta XIX. mendeetako idazle eta euskaltzaleengandik hasita (Larramendi, J. A. Moguel, Humboldt...) jarrera hauen lekukotasun ugari aurki ditzakegu. Hori dela eta,

norbere eskualde, herri edo herrixkako ezaugarriak suspertu eta handitu egin izan dira, auzokoenak, ezagunak eta are erabiliak izan arren, alde batera utziz eta gaitzesiz. Norberarena soil-soilik goratzea eta inorena beheratu eta ostikopean ibiltzea izan dira, gurean, maizenik azaldu diren jarrerak.

Euskal Herriaren zatiketaren ondorioz makurrena, hala ere, euskaldunen arteko harremanak urritzearena izan da, horrela, batzuen ezaugarriak –eta ez bakarrik hizkuntzazkoak– besteentzat ia erabat ezezagunak izatera iritsi delarik.

Eredu standardaren beharrezana ere, aldi berean, komunitate bakarra osatzen denaren kontzientziarekin batera, eta kontzientzia hori sendoen izan dutenengan lehen-lehenik, piztu eta gorpuztu da. Euskara erabili, landu eta gaitu behar delakoa izan da aldaketaren lehen urratsa. Helburu hau, nahasiago edo argiago, idazlerik zaharrenengan (Echepare, Leizarraga, Oihenart...) ere soma daitekeen arren, Larramendiri dagokio, Sarako Etcheberriren idazlanek argitaragabe iraun zutenaz, aitzindaritzan honetan. Larramendiren eraginari esker ekingo zioten euskaraz idazteari eta hizkuntza hau zabaltzeari Cardaberaz, Mendiburu, Lizarraga eta beste hainbat eta hainbat idazlek, beraren itzala Iparralderaino ere hedatuko zelarik.

Berebiziko esanahia izango zuen, halaber, Humboldt Euskal Herriratzeak, honela, euskara, euskaldunen artean prestigioa irabazteaz gainera, gure mugetatik at ere ezagutua izango bait zen.

XIX. mendean zehar, Euskal Herriaren batasun politikoaren kontzientzia gartu ahala, Herri horrek hizkuntza bakar bat behar duenaren ustea ere azaleratuko da. Chaho zuberotarrari dagokio –Lehen gerrate karlistako lekukoa berau– buruzagitza oraingo honetan. Euskaldun guztientzako ortografia bakarra itxuratzea izango da beraren xede nagusia. Nonbait ere, helburu berberonekin argitara emango zuen, d'Abadierekin batera, 1836ko Gramatika, esplizituki dioenez “zazpi uskal herrietako uskalduner” eskainia, eta 1856ko Hiztegia, lau hizkuntzatan –euskaldun denek, Iparraldeko zein Hegoaldekoek, erabili ahal zezaten– egina.

Chahok Iparraldean ereindako haziak ez zuten Hegoaldean –eta Aizquibelen idazlanak ezagutzera eman ez zirenez– sustrairik botako askozaz beranduago arte. Alderdi honetan, 1876.a ezar dezakegu urtemuga bezala. Lau hiriburuetan, baina Iruñean eta Donostian nagusiki, sortzen diren Elkarte, aldizkari eta Euskal Jaiek bultzada nabarmena emango diote euskarari, nahiz eta guztien gaintik Arana-Goirren ekintza iruditzen zaigun bereziki azpimarratu beharrekoa.

Hizkuntzaz kanpoko indarrekin ari garelarik, eta amaitzeko, esan beharra dago ez direla hauek izan standardizazioaren aurka jardun duten bakarrak. Gure aburuz, euskal idazle eta euskaltzale zenbaiten jokabidea ez da arras mesedegarria gertatu auzi honi dagokionean. Bonaparte Printzeari, esate baterako, zor bazaio ere, hein handi baten bederen, euskara mundu zabalean ezagutua eta onartua izatea eta, jakina, hizkuntza honi buruzko makina bat azterketa burutzea, berak urratutako bideen ondorio –zuzen edo zeharkako– dira, orobat, harrez gero euskalki eta azpieuskalki

bakoitzaren –auzokoengandik bereizteko asmoz– ezaugarririk xumeenak azpimarraztearren egingo diren ahaleginak, horrekin, euskararen osotasuna eta batasuna ezabatuz joango delarik.

Euskararen standardizazioari buruz ortografi arlokoak ditugu, XVII. mendean hasita, lehenbiziko urratsak. Urratsok bai Iparraldean eta bai Hegoaldean ematen diren arren, bada bateko eta bestekoen artean ezberdintasun nabarmen eta adierazgarri bat: Hegoaldean, Larramendirekin abiatuz, gaztelaniaren ereduari ia orpoz orpo jarraitzen zaion bitartean, Iparraldean, frantsesarena alde batera utziz, euskararen izaera bereziari hobekien egokitzen zaizkionak bilatzeari ekingo zaio. Bide honetatik joko dute Oihenart, Martin Duhalde, Darrigol, Chaho eta gainerakoek.

Hegoaldean, oraingoan ere, 1876az geroztik gertatuko da etena. José Mantrola donostiarra eta Campi3n nafarra ditugu, baina Aizquibelen aitzindaritza ahaztu gabe, eten hau garbien isladatzen dutenak eta, ondorengo urteetan, R. M^a de Azkuek eta Arana-Goirik jarraituko diote leihatsuenik euskaldun guztientzako ortografia bakarra erdiesteko ahaleginari.

XX. mendera etorriaz, Euskaltzaindia izan da, 1901-1902ko Hendaiako Bazarrek kale egin zutenez geroztik, ortografia arautze lanak bideratu –eta burutu– dituen.

Nahiz eta barietate standard bat eraikitzeari buruzko lehenbiziko proposamen zehatzak XX. mendera arte egiten ez diren, baziren aurretik ere horretarako deiak (Sarako Etcheberrik edo Aizquibelek luzatutakoak esate baterako) eta are jokabide argiak hartuko zituztenak (J. A. Moguelen gipuzkeraranzko isuria lekuko).

Gutziz erabakiorra gertatu da honetan Euskaltzaindiaren eragina. Bere sorreratik bertatik nabari zaio ortografia arautzeko eta euskara standard bat tajutzeko kezka eta gogo bizia. Horren lekuko ditugu Broussain eta Campi3n euskaltzainek burututako txostena eta txosten hau eztabaidatzeko asmoz 1920-1921 urteetan zehar antolatutako lau batzarrak. Gure egunotara etorri, Euskaltzaindiak zuzendu eta bultzatu du, halaber, idazle eta euskaltzale zenbaiten proposamenak bere eginez, “euskara batua” izeneko ereduaren kudeatze eta hedatze bilakabidea.

Euskaltzaindiaren babespean zein babes horretatik kanpo plazaratu diren erduek ez dira, gehienetan behintzat, ezerezetik sortu. Bi izan dira historiaren harian –eta honetan, ezbarrik gabe, badauka zerikusirik Euskal Herria erdibitzen duen muga politikoak– gainerako guztien artetik gailendu diren euskalkiak: lapurtera Iparraldean eta gipuzkera Hegoaldean edota, zehatzago esateko, *kostatarra* Iparraldean eta *Beterriko gipuzkera* Hegoaldean. Nagusitasun honek, bestalde, oso aspaldikoa izateaz gainera –XVIII. mende hasierakoak dira isuri honetaz dauzkagun lekukotasunik zaharrenak–, gure egunok arte iraun du bizirik.

Zuzen jokatu dutela ematen du, beraz, eredu standard bezala bata nahiz bestea edota bata eta bestea aldarrikatu dutenek, azpimarragarrienak, noski, Azkueren “gipuzkera osotua” eta Krutwigen “lapurtera klasikoa” ditugularik. Euskaltzaindiak, hain zuzen ere, bi euskalki hauexetan ezartzen zuen –nolabait 1920an Campi3n eta Broussainek Erakunde honi aurkeztutako txostenean proposatu legez– bere ereduaren oinarria 1968ko Arantzazuko Biltzarrean. Era horretara, honako lau indar hauen onurak bereganatzen zituen:

a) Gipuzkerak, bizkaierarekin batera, hiztun kopuruari dagokionez zeukan nagusigoa eta euskalki honi Hegoaldean, hementxe bereziki, aitortzen zitzaion prestigioa.

b) Lapurterak literatur mailan izandako lehentasuna eta euskalki honek Iparraldean eskuratutako prestigioa.

c) Erdialdeko euskalkiok gainontzeko euskaldunentzat ulerterrazetak gertatzea.

d) Iparraldeko zein Hegoaldeko euskalkiak aintzakotzat hartzen zirelarik, euskal komunitate osorako itxuratutako hizkuntz-eredu bakarraren inguruan ahalik eta euskaldunik gehienak biltzea.

Izan da, jakina, lapurteraren eta gipuzkeraren buruzagitza horretaz biziki arduratu ez denik ere. Multzo honetan leudeke, besteak beste, “jatorrizko euskarara” –Aizquibelek nahi bezala– itzultzea, bizkaieran –euskalki hau zaharrena, osoena eta aberatsena delakoan– oinarritzea edota Ameriketara hitz egiten omen den -baina egundo ere zehaztu eta ezagutzera eman ez den- koin3n hori gureganatzea proposatu dutenak.

Bada, hirugarrenik, zeinahi eredu standarden aurka agertu denik ere. Erabaki hori euskararen izaerarekin –beronen “jatorrizko” euskalki aniztasunarekin, alegia– bat ez etortzea, eginkizun horretarako gaztelania nahiz frantsesa –dagoeneko ondo standardizaturik direnak– edozein euskaldunen aukeran izatea edota euskararen gramatika eta berezko baliabideen murriztea, hizkuntza oraindik eta zailago egitea eta, okerreana dena, euskararen ahultzea eta, azkenik, heriotza bidean jartzea, izan dira, besteak beste, horretarako eman ohi diren arrazoirik bortitzenak.

Gauregungo egoerari so eginez, esan genezake Euskaltzaindiak proposatutako standard ereduak, hasi berritan –1968az geroztiko lehen urteetan batipat– eztabaida biziak sortu eta oztopo ugari aurkitu bazituen ere, dagoeneko bide luzea egina izateaz gainera onarpen zabala ere lortu duela hitzunen artean.

Etorkizunari begira, ordea, badirudi bidezko eta are komenigarri ere izan litekeela, orain arte, eta batez ere “euskara batua” deitu eredu ahalbait lasterren finkatzearen eginiko ahalegin logikoen ondorioz, itxirik bezala gertatu diren bide berri zenbait urratzea. Hortaz, eta barietate standardaren eta euskalkien arteko orekari hobeto eusteko, egoki deritzogu, alde zuzenetik behintzat, hala bizkaieraz mintzo diren

lurraldeetarako nola Iparralderako, *eskualde barruko esparru jakin batzutarako*, barie-tate sub-standardez baliatzeari. Iparraldeari dagokionez, Lafittek araututako –baina lehenagotik ere abian zetorren– “nafar-lapurtera literarioak” bete lezake, orain arte-koan bezalaxe, eginkizun hori.

Honekin, alde batetik, hizkuntzaz kanpoko indarren mendez mendeko eragina-ri eta bazter euskalkiek erakusten dituzten berezitasun nabarmenei erantzun zuzena-go emango litzaikeelakoan gaude, euskalkiotako hiztunek eredu standardaren eta hizkera mintzatuaren arteko “leizeari” ez lioketelarik hain sakona eta gaindiezina an-tzemango.

Bestalde, XVIII. mendez geroztik (hala nola Larramendi, Cardaberaz, Peñaflo-ridako Kondea, J. A. Moguelen... lanetan adibidez) eurrez –eta bizkaieraz mintzo di-ren lurraldeetan inon baino gardenago– azaltzen diren jarrera diglosikoek ere kon-ponbide egokiagoa aurkituko lukete era honetako esparru banaketarekin.

Alabaina, eta ohizko akats berberetan ez dezagun behaztopa, badira hemen arre-ta handiz begiratu beharreko arau nagusi batzuk. Hiru gure ustez:

a) Ezinbestekoa deritzogu, edozein erabaki hartu aurretik, euskara bere osota-sun guztian aintzakotzat hartzeari, gainontzeko euskalkietatik hurbilen –eta ez urru-nen– dauden aukerak bultzatuz.

b) Euskararen bilakabideari begiratuz argi dago batasunetik hurbilago ibili izan garela, gehientsuenetan bederen, iragan garaietan azken urteotan –XIX. mende erdialdetik geroztikoetan bereziki– baino. Iraganera ere so egitea dagokigu beraz, na-hiz eta aspaldiko ereduok inoiz, zaharraren zaharrez, desegokiak eta alde batera utzi beharrekoak suerta dakizkigun.

c) Euskalki bakoitzaren esparru barruan ere, azkenik, eskualde, herri eta herrix-ka mailako txokokeriak saihesteko ardura berezia beharko da izan, euskalki horre-tan hedatuena eta sustrairik sakonenak egin dituzten ezaugarrien aldeko aukerak ho-betsiz.

BIBLIOGRAFIA

(Sobera ez luzatzearen lanean zehar aipatzen diren lanak soil-soilik ezartzen ditugu zerrenda honetan).

- ABBADIE, Antoine d', "Dictionnaire basque, français, espagnol et latin d'après les meilleurs auteurs classiques et les dictionnaires des Académies française et espagnole, par Augustin Chaho", *Le Messager de Bayonne* (25-03-1856), nº 730.
- ABBADIE, A. Th. d'; CHAHO, J. Augustin, *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*, Paris, 1836.
- AGUIRRE, Antxon, "Reseña histórica. José Francisco Aizkibel Epelde (1798-1865)", *Eusko-Ikaskuntza. Hizkuntza eta Literatura*, II (1983), 239-288. orr.
- AGUIRRE, Juan Bautista, *Jesu-Cristoc bere elizari utzi clozcan, zazpi sacramentuen gainean eracusaldiac*, Tolosa, 1850.
- AGUIRRE ACHURRA, Vicente, "El euskera en la República Argentina", *BIAEV*, XXXIII (1982), nº 131, 126-130. orr.
- AIZQUIBEL, José Francisco de, *Diccionario bilingüe*, Tolosa, 1884.
- AKESOLO, L., "Batasunera bidea eta Kardaberazarrak", *Kardaberaz* (1975), 4. zb., 39-41. orr.
- ALONSO MONTERO, Xesús, *Informe -dramático- sobre la lengua gallega*, Akal, Madrid, 1973.
- ALTUBE, Severo de, "Erdenismos", *Euskera*, X (1929), I-IV. zb.
- ALTUBE, Severo de, "La vida del euskera", *Euskera*, XIV (1933), IV. zb., 299-397. orr.
- ALTUBE, Severo de, "Observaciones al Tratado de Morfología Vasca de Don R. M. de Azkue", *Euskera*, XV (1934), I-II. zb.
- ALTUBE, Severo de, "La Unificación del Euskera Literario", *E-J*, III (1949), 2-3. zb., 181-204. orr.
- ALTUNA, Patxi, S. J., "Larramendi' ren iztegi berria", *Euskera*, XII (1967), 139-300. orr.
- ALTUNA, Patxi, S. J., *Mitxelaren Idazlan hautatuak*, Mensajero, Bilbao, 1972.
- ALTUNA, Patxi, S. J., "Aditz-laguntzaile batuen gorabeherak", *Euskera*, XXII (1977), 667-672. orr.
- ALTUNA, Patxi, S. J., "Mendibururen mintzaira", *Mundalz* (1981), 21. zb., 74-76. orr.
- ALTUNA, Patxi, S. J., "Mendibururen idazlan argitaragabeak (I. vol.)", *Euskaltzaindia y Mensajero*, Bilbao, 1982.
- ALTUNA, Patxi, S. J., "Bonapartek eta aita Aranak elkarri egin kartak", *FLV*, XVII (1985), nº 46, 305-341. orr.

- ALTUNA, Patxi, S. J., "Duvoisinen eskuizkribu argitaragabea", FLV, XIX (1987), 65-95. orr.
- ALVAR, Mamel, "Un problema de lenguas en contacto: la frontera catalano-aragonesa", Teoría lingüística de las regiones, Planeta, Barcelona, 1975, 47-62. orr.
- ALLENDE SALAZAR, Angel, "Carácter general de la literatura vasca", EA, V (1915), nº 113, 519-525. orr.
- Andre-dena Mariaren lhabethes, edo Malhatza Jaincoaren amaren loriacotz contse-cratua, Baionan, 1838. (2. arg., Baionan, 1855).
- AÑIBARRO, P. Fr. Pedro Antonio de, Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipuzcoa, y Navarra con la distinción que las usa cada Nación, anotadas con sus letras iniciales B. G. N.; y quando es comun á todas, precede una C, Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 1963.
- AÑIBARRO, P. Fr. Pedro Antonio de, "Gramática bascongada para el uso, y alivio de Párrocos, y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcomos, y Navarros", ASJU, III (1969), 1-169. orr.
- "Araba, Bizkai ta Gipuzkoa"ko euskerazaleak Euskaltzaindian, Euskera, XXIV (1978-2), 791-793. orr.
- ARACIL, Lluís V., Papers de sociolingüística, La Magrana, Barcelona, 1982.
- ARANA, José Ignacio de, San Ignacio Loyolacoaren bicitza laburtua euskaraz eta gaztelaniaz, Bilbon, 1872.
- ARANA, José Ignacio de, "Ortografía bascongada", Euskal-erría, Tomo VI (1882), 109-111. orr.
- ARANA, José Ignacio de, Complementos á la Obra de Averiguaciones Cantábricas é Ignacianas, del P. Gabriel de Henao de la Compañía de Jesús, Tomo VI, Complemento primero. Apéndice Sexto, Tolosa, 1895.
- ARANA-GOIRI, Sabino de, "Etimologías sueltas (1). ¿Basco ó Vasco?", Revista de Vizcaya, II (1886), 166-172. orr.
- ARANA-GOIRI, Sabino de, "El proyecto de Academia Bascongada del Sr. de Artiñano", Euskal-erría, XII (20-07-1886), 361-364. orr.
- ARANA-GOIRI, Sabino de, Obras Completas, Sabindiar-Batza, Baiona, 1965.
- ARANTZADI-ETXEBERÍA, Ingartzi, "Dialectos del euzkera", Euzkadí, VIII (1911), 8. zb., 153-158. orr.
- ARANZADI, Telesforo de, "Congreso Internacional de Estudios Vascos", Euskalduna (28-10-1900), nº 173, 401-405. orr.
- ARANZADI, Telesforo de, "Etnografía", Primer Congreso de Estudios Vascos, Bilbaína de Artes Gráficas, Bilbao, 1919, 364-382. orr.
- ARCHU, J.-B., La Fontalnaren aieghia berheziak, neurt-hitzeez Franzesetik Ucarara itzullak, La Reolen, 1848.
- ARDAIZ, Josu, Navarra. Elementos para su estudio regional (I. vol.), Eusko-Ikaskuntza, Bur-lada, 1980.
- ARENAZA, J. de, Tus hijos y el euskera. (El mito del "batua"), Bilbao, 1974.
- ARESTI, Gabriel, "Euskeraren batasuna", ZA, XXX (1968-07-07), 279. zb., 3. orr.
- ARESTI, Gabriel, Hiztegi Trípla, Lur, Donostia, 1973.
- ARESTI, Gabriel, Obra Guztiak (I. vol.), Kriselu, Donostia, 1976.
- ARESTI, Gabriel; KINTANA, Xabier, Batasunaren kutxa, Lur, Donostia, 1970.
- ARGIA, 1984 euskal kulturaren urtekaria, Elkar, Donostia, 1984.
- ARGIA, 1985 euskal kulturaren urtekaria, Elkar, Donostia, 1985.
- "Argitartzailearen lizaúrea", Euskera, I (1919-1920), I. zb., 4-9. orr.
- ARZTIMUÑO, José de, "El poeta José María de Agiré", Yakintza (1933), 3. zb., 163-177. orr.

- AROTÇARENA, Abbé, *Grammaire basque. (Dialectes Navarro-Labourdins)*, Bayonne, 1951.
- ARIANDIAGA, Manuel de, "¿Euzkera ala euskera?", RIEV, I (1907), 642-672. orr.
- ARRUE, Antonio, "Euskeraren batasuna", E-G, VII (1956), Epaila-iorrila, 62-76. orr.
- ASKOREN ARTEAN, *Euskal llingulstika eta literatura: bide berriak*, Deustuko Unibersitateko argitarazioak, Bilbo, 1981.
- ASPALDIKO, "Euskeraren Batasuna", E-G, V (1954), 9-10. zb., 154-155. orr.
- ASTARLOA, Aita Fr. Pedro, *Urteco domeca gustijetaco verbaldi icasbldecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco catecismua* (I vol.), Bilbon, 1816.
- "Ataria", *Yakin* (1956), I. zb., 1-2. orr.
- AURRE-APRAIZ, "Gutum agiria", E-G, V (1954), 11-12. zb., 186-187. orr.
- AURRE-APRAIZ, "Ni, neu, zu, zeu...", Egan, XXII (1963), nº 4-6, 183-186. orr.
- AURRE-APRAIZ, "Batasuna dala-ta", Egan, XXIII (1964), nº 1-6, 48-50. orr.
- AURRE-APRAIZ, "Bizkai'ko Euskerea ta kiputxak", *Gotz-Argi*, 1975-Dagonilla-20, 255. zb., 6. orr.
- AXULAR, Pedro de, *Guero*, Bordele, 1643.
- AYENGIZ'tar Iñaki Aba Txotiñoduna, "Euzkera batasunetaz", *Euskera*, III (1922), I. zb., 21-27. orr.
- AZAOLA, José Miguel de, *Vasconia y su destino*, Ediciones de la Revista de Occidente, Madrid, 1976.
- AZKUE, Resurrección M^o de, *Euskal-Izkindea. Gramática Eúskara*, Bilbon, 1891.
- AZKUE, Resurrección M^o de, *Proyecto de ortografía*, Bilbao, 1896.
- AZKUE, Resurrección M^o de, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbao, 1905-1906.
- AZKUE, Resurrección M^o de, *Ardi Galdua*, Bilbo, 1918.
